

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

DOKTORE TESIA

***EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ARTEKO  
ITZULPENAREN ESTILISTIKA KONPARATU  
BATERAKO MATERIALAK:  
PERPAUS ERLATIBO ESPLIKATIBOAK  
EUSKARATIK GAZTELANIARA EGINIKO  
LITERATURA-ITZULPENETAN***

Egilea:

Juan Luis Biguri Otxoa de Eribe

Zuzendaria:

Carlos Cid Abasolo doktorea

2016



Nire seme Ibairi



## LABURDURAK

EGLU:	Euskal Gramatika: Lehen Urratsak
EK:	estilistika konparatua
EPG:	Ereduzko Prosa Gaur
HGL:	haur eta gazte literatura
IS:	izen sintagma
PE:	perpaus erlatiboa
PEE:	perpaus erlatibo esplikatiboa
SEG:	Sareko Euskal Gramatika
SK:	sorburu-kultura
SS:	sorburu-sistema
ST:	sorburu-testua
TM:	texto meta
TO:	texto origen
TS:	<b><i>translation studies</i></b>
XH:	xede-hizkuntza
XL:	xede-literatura
XS:	xede-sistema
XT:	xede-testua

## EDUKIA

<b>RESUMEN DE LA TESIS</b> .....	x
<b>THESIS OUTLINE</b> .....	xvii
<b>SARRERA</b> .....	1
<b>1. KAPITULUA: IKERKETAREN MARKO TEORIKO ETA</b>	
<b>METODOLOGIKOA</b> .....	14
<b>1.1. Marko orokorra</b> .....	14
<b>1.2. Itzulpengintzaren ikerketa</b> .....	20
<b>1.2.1. Translatologia linguistikoa</b> .....	20
<b>1.2.2. Itzulpenera Aplikatutako Hizkuntzalaritza</b> .....	27
<b>1.2.2.1. Vinay &amp; Darbelneten Estilistika Konparatua</b> .....	29
<b>1.2.3. Hizkuntzalaritza testuala</b> .....	35
<b>1.3. Estilistika Konparatua eta Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboak</b> .....	38
<b>1.3.1. Itzulpen-Ikerketak: sorrera eta lehen etapa</b> .....	39
<b>1.3.2. Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboak eta Polisistemaren teoria</b> ....	44
<b>1.3.2.1. Touryren eredua</b> .....	47
<b>1.3.2.2. Baliokidetasun kontzeptua Itzulpen-Ikerketa</b> <b>Deskriptiboetan</b> .....	51
<b>1.3.3. Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboen metodologia</b> .....	53
<b>1.3.4. Estilistika Konparatua IIDen barruan: Álvarez Luginen</b> <b>proposamena</b> .....	55
<b>1.3.4.1. Estilistika Konparatu berriaren ikerketa-</b> <b>metodologia</b> .....	62
<b>2. KAPITULUA: ERLATIBOA GAZTELANIAZKO ETA EUSKARAZKO</b>	
<b>GRAMATIKETAN ETA EUSKARAZKO ITZULPEN-IKERKETETAN</b> .....	67
<b>2.1. Erlatiboa gaztelaniaz. Sailkapen eta terminologia arazoak</b> .....	

<b>2.2. Erlatiboa euskal gramatiketan</b> .....	83
<b>2.2.1. Euskarazko erlatiboaren sailkapen semantikoaren arazoa</b> ....	85
<b>2.2.1.1. –N erlatiboa eta haren balio semantikoa</b> .....	98
<b>2.2.1.2. Erlatibozko aposizioa eta haren balio semantikoa</b> .....	105
<b>2.2.1.3. ZEIN/NON erlatiboa eta haren balio semantikoa</b> .....	113
<b>2.3. Erlatiboa euskarazko itzulpen-ikerketetan</b> .....	118
<b>2.3.1. Biguri, 1994</b> .....	118
<b>2.3.2. Sancho, 2015</b> .....	121
<b>3. KAPITULUA: GAZTELANIARA ITZULITAKO EUSKAL</b>	
<b>LITERATURA</b> .....	126
<b>3.1. Itzulpenak zenbakitan</b> .....	127
<b>3.2. Itzulpenen tipologia</b> .....	135
<b>3.2.1. Autoitzulpengintza</b> .....	141
<b>3.2.1.1. Autoitzulpen opakoak eta gardenak</b> .....	146
<b>3.2.2. Itzulpen alografoak eta lankidetzan egindako itzulpenak</b> ....	148
<b>3.3. Itzulpen-tipologia eta itzulpen-arauak</b> .....	150
<b>4. KAPITULUA: EUSKARA-GAZTELANIA LITERATURA-ITZULPENEN</b>	
<b>CORPUSA</b> .....	156
<b>4.1. Literatura-itzulpenen katalogoa eta corpusaren osakera</b> .....	156
<b>4.1.1. Euskara-gaztelania literatura-itzulpenen katalogotik</b> <b>corpusera</b> .....	156
<b>4.1.2. Gure corpusa eta kanona</b> .....	160
<b>4.1.3. Corpuseko itzulpenak eta itzultzaileak</b> .....	163
<b>4.1.4. Tesiaren planteamendua eta metodologia</b> .....	166
<b>4.1.4.1. Zenbatzaile zehaztugabeen arazoa</b> .....	168
<b>4.2. Azpicorpusei buruzko banakako azterketa</b> .....	174
<b>4.2.1. C<sub>1</sub> azpicorpusa: Bernardo Atxaga, <i>Zazpi etxe Frantzian</i></b> .....	175
<b>4.2.1.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia</b> .....	175
<b>4.2.1.2. STko baliabideak</b> .....	178

4.2.1.2.1. Segmentu suborazionalak .....	178
4.2.1.2.2. Aposizioa .....	179
4.2.1.2.3. Perpausen juntadura .....	180
4.2.1.2.4. Erlatiboa .....	183
4.2.1.2.5. Kausa perpausak .....	185
4.2.1.2.6. Modu perpausak .....	185
4.2.1.2.7. Bestelako mendeko perpausak .....	186
4.2.1.3. Gehiketa .....	186
4.2.1.4. Ondorioak .....	188
4.2.1.4.1. Ondorio orokorrak .....	188
4.2.1.4.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	189
4.2.1.4.3. Grafika sinoptikoa .....	191
4.2.2. C <sub>2</sub> azpicorpusa: Harkaitz Cano, <i>Twist</i> .....	192
4.2.2.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	192
4.2.2.2. STko baliabideak .....	193
4.2.2.2.1. Segmentu suborazionalak .....	193
4.2.2.2.2. Aposizioa .....	194
4.2.2.2.3. Perpausen juntadura .....	198
4.2.2.2.4. Erlatiboa .....	201
4.2.2.2.5. Bestelako mendeko perpausak .....	206
4.2.2.3. Gehiketa .....	208
4.2.2.4. Ondorioak .....	209
4.2.2.4.1. Ondorio orokorrak .....	209
4.2.2.4.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	210
4.2.2.4.3. Grafika sinoptikoa .....	213
4.2.3. C <sub>3</sub> azpicorpusa: Unai Elorriaga, <i>SPrako tranbia</i> .....	214
4.2.3.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	214
4.2.3.2. Gehiketa .....	216
4.2.3.4. Ondorioak .....	217
4.2.4. C <sub>4</sub> azpicorpusa: Anjel Lertxundi, <i>Azkenaz beste</i> .....	218



4.2.4.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	218
4.2.4.2. STko baliabideak .....	220
4.2.4.2.1. Segmentu suborazionalak .....	220
4.2.4.2.2. Aposizioa .....	222
4.2.4.2.3. Perpausen juntadura .....	223
4.2.4.2.4. Erlatiboa .....	231
4.2.4.2.5. Kausa perpausak .....	235
4.2.4.2.6. Modu perpausak .....	237
4.2.4.2.7. Bestelako mendeko perpausak .....	238
4.2.4.3. Ondorioak .....	240
4.2.4.3.1. Ondorio orokorrak .....	240
4.2.4.3.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	241
4.2.4.3.3. Grafika sinoptikoa .....	243
4.2.5. C <sub>5</sub> azpicorpusa: Mario Onaindia, <i>Gilen Garateako Batxilera</i> ...	245
4.2.5.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	245
4.2.5.2. STko baliabideak .....	246
4.2.5.2.1. Segmentu suborazionalak .....	246
4.2.5.2.2. Aposizioa .....	247
4.2.5.2.3. Perpausen juntadura .....	249
4.2.5.2.4. Erlatiboa .....	251
4.2.5.2.5. Modu perpausak .....	253
4.2.5.2.6. Bestelako mendeko perpausak .....	254
4.2.5.3. Ondorioak .....	255
4.2.5.3.1. Ondorio orokorrak .....	255
4.2.5.3.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	256
4.2.5.3.3. Grafika sinoptikoa .....	258
4.2.6. C <sub>6</sub> azpicorpusa: Eider Rodríguez, <i>Haragia</i> .....	259
4.2.6.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	259
4.2.6.2. STko baliabideak .....	260
4.2.6.2.1. Segmentu suborazionalak .....	260
4.2.6.2.2. Perpausen juntadura .....	261

<b>4.2.6.2.3.</b> Erlatiboa .....	262
<b>4.2.6.3.</b> Ondorioak .....	264
<b>4.2.6.3.1.</b> Ondorio orokorrak .....	264
<b>4.2.6.3.2.</b> Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	265
<b>4.2.6.3.3.</b> Grafika sinoptikoa .....	266
<b>4.2.7.</b> C <sub>7</sub> azpicorpusa: Ramon Saizarbitoria, <i>Hamaika pauso</i> .....	267
<b>4.2.7.1.</b> Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	267
<b>4.2.7.2.</b> STko baliabideak .....	268
<b>4.2.7.2.1.</b> Segmentu suborazionalak .....	269
<b>4.2.7.2.2.</b> Aposizioa .....	270
<b>4.2.7.2.3.</b> Perpausen juntadura .....	274
<b>4.2.7.2.4.</b> Erlatiboa .....	277
<b>4.2.7.2.5.</b> Modu perpausak .....	282
<b>4.2.7.2.6.</b> Kausa perpausak .....	285
<b>4.2.7.2.7.</b> Bestelako prozedurak .....	286
<b>4.2.7.3.</b> Gehiketa .....	288
<b>4.2.7.4.</b> Ondorioak .....	290
<b>4.2.7.4.1.</b> Ondorio orokorrak .....	291
<b>4.2.7.4.2.</b> Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	292
<b>4.2.7.4.3.</b> Grafika sinoptikoa .....	294
<b>4.2.8.</b> C <sub>8</sub> azpicorpusa: Kirmen Uribe, <i>Bilbao-New York-Bilbao</i> .....	295
<b>4.2.8.1.</b> Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	295
<b>4.2.8.2.</b> STko baliabideak .....	297
<b>4.2.8.2.1.</b> Aposizioa .....	297
<b>4.2.8.2.2.</b> Perpausen juntadura .....	299
<b>4.2.8.2.3.</b> Kausa perpausak .....	303
<b>4.2.8.2.4.</b> Erlatiboa .....	303
<b>4.2.8.2.5.</b> Bestelako mendeko perpausak .....	304
<b>4.2.8.2.6.</b> Bestelako prozedurak .....	305
<b>4.2.8.3.</b> Gehiketa .....	306
<b>4.2.8.4.</b> Ondorioak .....	306

<b>4.2.8.4.1.</b> Ondorio orokorrak .....	307
<b>4.2.8.4.2.</b> Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	307
<b>4.2.8.4.3.</b> Grafika sinoptikoa .....	309
<b>4.2.9.</b> C <sub>9</sub> azpicorpusa: Arantxa Urretabizkaia, <i>Saturno</i> .....	310
<b>4.2.9.1.</b> Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	310
<b>4.2.9.2.</b> STko baliabideak .....	312
<b>4.2.9.2.1.</b> Segmentu suborazionalak .....	312
<b>4.2.9.2.2.</b> Bestelako mendeko perpausak .....	312
<b>4.2.9.3.</b> Ondorioak .....	312
<b>4.2.10.</b> C <sub>10</sub> azpicorpusa: Iban Zaldua, <i>Etorkizuna</i> .....	314
<b>4.2.10.1.</b> Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia .....	314
<b>4.2.10.2.</b> STko baliabideak .....	316
<b>4.2.10.2.1.</b> Segmentu suborazionalak .....	316
<b>4.2.10.2.2.</b> Aposizioa .....	317
<b>4.2.10.2.3.</b> Perpausen juntadura .....	318
<b>4.2.10.2.4.</b> Erlatiboa .....	320
<b>4.2.10.2.5.</b> Kausa perpausak .....	321
<b>4.2.10.3.</b> Gehiketa .....	322
<b>4.2.10.4.</b> Ondorioak .....	323
<b>4.2.10.4.1.</b> Ondorio orokorrak .....	323
<b>4.2.10.4.2.</b> Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak .....	324
<b>4.2.10.4.3.</b> Grafika sinoptikoa .....	325
<b>4.3. Corpuseko azterketaren emaitzen analisisa</b> .....	327
<b>4.3.1.</b> Itzulpenaren tipologia, gehiketak eta parafrasi- adierazleak .....	330
<b>4.3.1.1.</b> Itzulpenaren tipologia eta gehiketak .....	330
<b>4.3.1.2.</b> Azpicorpusetako parafrasi-adierazleak .....	334
<b>4.3.1.3.</b> C <sub>0</sub> corpusa eta STetako baliabideen analisisa .....	337
<b>4.3.1.3.1.</b> Segmentu suborazionalak .....	338
<b>4.3.1.3.2.</b> Aposizioa .....	340





## RESUMEN DE LA TESIS

### *Materiales para una estilística comparada entre el vasco y el español: las cláusulas de relativo explicativas en las traducciones literarias del vasco al español*

Las cláusulas de relativo en general, y las relativas explicativas en particular, son una de las estructuras sintácticas que más complicaciones plantean en la traducción a la lengua vasca debido a la diferencia existente en el uso actual de los sistemas de relativización en el vasco y las lenguas de las que más habitualmente se traduce a dicho idioma, el español en primer lugar. Además, las gramáticas no suelen servir tampoco de mucha ayuda para afrontar esas complicaciones al limitarse a una descripción monolingüe de cada sistema lingüístico, cuando en el acto traductivo no solo se ponen en relación dos sistemas lingüísticos sino también dos sistemas estilísticos diferentes. Por ello, para quien se enfrenta a una traducción suelen ser más valiosos aquellos estudios que plantean una comparación de los usos lingüísticos y estilísticos de los idiomas correspondientes, y justamente el objetivo que se plantea la presente tesis es hacer una aportación a la estilística comparada entre el vasco y el español basada en la metodología de los estudios descriptivos de traducción y que pueda ser útil para la actividad profesional y académica al afrontar el problema de traducción que representan las cláusulas de relativo explicativas en español.

Dado que los estudios de traducción en el ámbito de la lengua vasca son relativamente recientes, es más bien exigua la bibliografía dedicada a este problema traductológico, aunque hay algunas investigaciones que han abordado la manera en que en un determinado corpus se han traducido al euskera las cláusulas de relativo y que han demostrado que en dichas traducciones se recurre frecuentemente a estructuras sintácticas no relativas, posiblemente por considerarlas más acordes al uso estilístico actualmente más habitual en la lengua vasca. En cambio, la novedad que plantea nuestra tesis consiste en que nuestro enfoque es justamente el contrario, ya que en nuestro análisis partimos no de una serie de textos origen (TO) en español para analizar cómo se han traducido las cláusulas de relativo en los textos meta (TM) en

lengua vasca, sino que partimos de los TM en español, de los que hemos extraído las cláusulas de relativo explicativas, con el objeto de ver cuáles son las estructuras sintácticas originales en euskera que han sido traducidas mediante cláusulas relativas explicativas. La hipótesis inicial que subyace en dicho enfoque es que, en consonancia con determinados postulados puristas de algunas gramáticas vascas del siglo XX y con los resultados obtenidos por la mencionada bibliografía, encontraríamos probablemente otro tipo de estructuras sintácticas en los textos escritos originariamente en vasco, y este hecho nos serviría para poner en evidencia las diferencias sintáctico-estilísticas existentes entre textos contemporáneos en ambas lenguas, así como la posible existencia de un doble canon lingüístico en lengua vasca con un sistema de relativización menos complejo en obras originales y otro sistema más complejo en obras traducidas.

Con este planteamiento, hemos analizado un corpus formado por diez obras narrativas contemporáneas publicadas en lengua vasca en los últimos 40 años con un alto nivel de canonicidad dentro del sistema literario vasco y las correspondientes traducciones al español. Uno de los criterios de selección empleados ha sido que se tratase de traducciones publicadas por editoriales no vascas, que también traducen obras originariamente escritas en euskera, pero destinadas al público castellano hablante existente dentro del territorio vasco, sino editoriales pertenecientes a lo que se puede llamar el sistema literario central en español. Esta elección responde, por un lado, a la suposición de que de esta manera se da una mayor garantía de que las traducciones elegidas cumplen las mismas condiciones de homologabilidad y aceptabilidad que ese sistema literario impone a las obras literarias traducidas desde cualquier otro idioma.

En el primer capítulo se establece el marco teórico y metodológico de la tesis, presentando y situando en su contexto científico los principales planteamientos y esquemas teóricos de la Estilística Comparada (EC) y de los llamados Estudios Descriptivos de Traducción (EDT). Hemos elegido el modelo de la EC por considerar que un mero análisis lingüístico comparativo de los sistemas de relativización en los dos idiomas analizados no basta para analizar un problema traductológico que es también y mayormente estilístico, mientras que la EC puede servir justamente para evidenciar las diferentes tendencias

existentes en el uso de cada idioma y de esa manera sacar a la luz diversas características estructurales que se escapan a un análisis lingüístico monolingüe. Sin embargo, considerando que los planteamientos de la EC tradicional han sido superados por los avances obtenidos por la traductología en el último medio siglo, hemos decidido adoptar la propuesta del profesor de la Universidad de Vigo Alberto Álvarez Lugrís de complementar dicha línea de análisis con la metodología de los EDT, mediante la realización de un estudio descriptivo de un corpus de traducciones reales que pueda servir para entender mejor muchos fenómenos relacionados con la traducción.

En el segundo capítulo se da un repaso a los estudios gramaticales dedicados a la descripción y clasificación de las estructuras de relativo tanto en un idioma como en el otro a fin de delimitar lo más claramente posible la unidad de análisis que vamos a utilizar en la parte práctica de nuestra investigación. También hacemos mención de las conclusiones obtenidas por los pocos estudios traductológicos descriptivos que se han hecho en torno a la relativización en euskera, los cuales demuestran una importante utilización de equivalencias no relativas, y, comparando dichas conclusiones con los datos obtenidos en nuestra investigación, observaremos que en las traducciones al euskera se hace un uso de las estructuras de relativo apositivo tres veces mayor que el que hemos encontrado en los textos literarios escritos originalmente en vasco que hemos reunido en nuestro corpus. Esta constatación es la que nos lleva a considerar razonablemente fundada la hipótesis anteriormente mencionada de la existencia de un doble canon sintáctico-estilístico en el actual uso literario de la lengua vasca.

El tercer capítulo está dedicado, por un lado, al análisis cuantitativo de la traducción de narrativa vasca al español para conocer su evolución y tendencias, análisis que nos ha permitido observar, por un lado, diferencias notables entre los autores traducidos por las editoriales no vascas, con un mayor nivel de canonicidad que los traducidos por las editoriales locales, y por otro, una tendencia cada vez mayor a publicar traducciones destinadas al público castellano hablante autóctono y la consiguiente reducción del número de autores vascos traducidos al español por el mercado editorial no vasco. Por otro lado, en este capítulo también abordamos la caracterización de las diferentes tipologías de traducción desde el punto de vista autoral, traducciones



alógrafas, autotraducciones y traducciones en colaboración entre autor y traductor, situando la abundancia de estas dos últimas en un contexto caracterizado por la diglosia lingüística. Nos interesa particularmente caracterizar estas tres tipologías de cara a dilucidar si en la parte práctica de nuestro estudio se da homogeneidad o diferencia de resultados en las correspondientes tendencias sintáctico-estilísticas.

En el cuarto y último capítulo, describimos las condiciones con que hemos elegido y formado el corpus objeto de análisis partiendo de un catálogo inicial de traducciones literarias del vasco al español, para posteriormente analizar de forma exhaustiva las equivalencias textuales traductivas encontradas en cada uno de los diez subcorpus estudiados y las características sintáctico-estilísticas de cada uno de ellos. Luego, partiendo de los datos obtenidos, realizamos un examen conjunto de todo el corpus, analizando pormenorizadamente, desde un doble punto de vista cuantitativo y morfológico, las diferentes estructuras sintácticas encontradas en los TO en euskera traducidas mediante cláusulas de relativo explicativas, para, finalmente, en el apartado dedicado a las conclusiones, resumir y detallar todo lo analizado en la tesis.

Las conclusiones que se derivan de nuestra investigación se dividen en dos niveles.

En primer lugar, desde el punto de vista de las normas que rigen los procesos traductivos, los datos obtenidos por nuestro análisis nos llevan a concluir lo siguiente:

- Existe un alto nivel de intervención de los autores en el proceso de traducción de sus obras, al menos en la mitad del corpus, hecho que según diversos estudios caracteriza a la traducción literaria desde lenguas no dominantes en situación de diglosia a lenguas dominantes.

- Desde el punto de vista práctico, dicha intervención se refleja en el uso relativamente importante de estrategias de reescritura y particularmente de añadidos de elementos narrativos no existentes en los textos originales, hecho también característico de traducciones literarias realizadas de lenguas minorizadas a lenguas dominantes.

- Estas estrategias de reescritura y de adición de elementos narrativos son relativamente abundantes en las autotraducciones, tal y como habían demostrado diversos estudios previos, pero no exclusivas de ellas, ya que las hemos encontrado también en las traducciones en colaboración e incluso en algunas de las traducciones alógrafas, lo que denotaría un cierto nivel de intervención de los autores originales incluso en esta tipología traductiva, derivada seguramente del pequeño tamaño del sistema literario vasco, que facilita el contacto entre autores y traductores.

Y, desde el punto de vista de las equivalencias traductivas entre los TO en euskera y los TM en español, las conclusiones que se derivan de nuestro estudio son las siguientes:

- Hemos observado que en las traducciones de nuestro corpus se registra un uso llamativamente bajo de estructuras de relativo explicativas, debido sin duda a la escasez de estructuras sintácticas equivalentes en los textos originales, característica no relacionable necesariamente con las traducciones alógrafas, supuestamente más orientadas hacia la "adecuación" al polo origen o a reproducir el estilo sintácticamente menos complejo del original, ya que se encuentra también en las otras tipologías traductivas, incluidas las autotraducciones, más dadas en teoría a buscar la "aceptabilidad" en el polo meta y, en consecuencia, a adoptar la mayor complejidad sintáctico-estilística propia del sistema literario en español; de ello se deriva que no todas las autotraducciones pueden relacionarse necesariamente con estrategias traductivas de adopción del estilo habitual de la lengua meta.

- A pesar del mencionado escaso uso de cláusulas de relativo explicativo en los TM, se observa que todas las tipologías traductivas tienden a utilizar equivalencias parafrásticas de relativo para diferentes estructuras sintácticas de los TO. Así, en un 57 % de los binomios analizados encontramos equivalencias textuales entre estructuras originales no relativas y paráfrasis de relativo en la traducción. Así pues, solamente un 43 % de los binomios analizados muestran una equivalencia sintáctica entre cláusulas de relativo o aposiciones de relativo en euskera con cláusulas de relativo explicativas de los TM.

- En los textos originales en vasco, se ha observado un importante uso de estructuras paratácticas, hasta en un 35 % de los binomios analizados, con una marcada preponderancia de oraciones coordinadas y yuxtapuestas, hasta en un 26 % de los binomios analizados.

- También es porcentualmente importante la utilización de estructuras hipotácticas no relativas, con una media del 22 % de los binomios analizados, con preponderancia de las cláusulas modales y causales, que entre ambas suponen el 17,7 % de las equivalencias encontradas en los binomios analizados.

Partiendo de los datos obtenidos, la conclusión general que se deriva de nuestro análisis de estilística comparada de textos literarios en vasco y sus correspondientes traducciones al español es que en los textos originales hemos observado un canon sintáctico-estilístico con menor nivel de uso de estructuras de relativo, y una mayor abundancia de estructuras paratácticas y de estructuras hipotácticas no relativas, que son traducidas mediante cláusulas de relativo explicativas, bastante más habituales en el uso literario del español. Si bien este fenómeno no se produce en todos los textos analizados, sí que es una regularidad común en las tres tipologías traductivas, deduciéndose de todo ello una generalizada tendencia a adoptar una mayor complejidad sintáctica en las traducciones y, por consiguiente, a buscar la aceptabilidad de la cultura meta.

Así pues, consideramos que a través del estudio descriptivo desarrollado en nuestra tesis ha quedado probado el empleo de distintos cánones lingüísticos en la narrativa en lengua vasca y en español. Asimismo, hemos podido constatar que el diferente uso de las estructuras de relativo es una de las principales diferencias sintáctico-estilísticas entre ambos idiomas. Sin embargo, como hemos expuesto a lo largo de la tesis, dicha diferencia no es de carácter tipológico sino estilístico, debido a conocidas motivaciones históricas e ideológicas relacionadas con las tendencias puristas nacidas en torno a los inicios del siglo XX que modificaron el modelo de relativización que se venía utilizando hasta entonces en la lengua vasca escrita, alejándolo del modelo habitual en las lenguas de cultura cercanas, con consecuencias que afectan al uso escrito actual. De esta manera, puede afirmarse que el canon lingüístico de las obras de narrativa contemporánea en lengua vasca sigue siendo en gran

medida heredero de aquel purismo sintáctico, el cual abogaba por una menor utilización de cláusulas de relativo explicativas o apositivas introducidas por un pronombre o adverbio relativo de origen interrogativo, consideradas ajenas al "genio original" de la lengua, mientras que hay indicios bastante claros de la utilización de un canon sintáctico y estilísticamente más complejo en las traducciones literarias a la lengua vasca, con un uso marcadamente mayor de las estructuras de relativo. Nuestra opinión al respecto es que la existencia de este doble canon puede ser contraproducente para la lengua vasca a causa de la situación diglósica en que se encuentra, y en particular para la recepción y el prestigio de la literatura traducida al euskera, siendo deseable la progresiva recuperación de un instrumento lingüístico denostado por el purismo pero necesario para situar a la lengua vasca escrita y literaria en los estándares estilísticos y expresivos de las lenguas de cultura más próximas.

## THESIS OUTLINE

### *Materials for comparing the stylistics of Basque and Spanish: non-restrictive relative clauses in literary translations from Basque to Spanish*

Relative clauses in general, and non-restrictive relative clauses in particular, are among the most complicated syntactic structures to translate in the Basque language because of the differences in the current use of relativisation systems in Basque and in the languages into which it is most frequently translated, the foremost of which is Spanish. Grammars do not offer much help in tackling these complications because they merely provide monolingual descriptions of each language system, whereas the act of translation relates not only two language systems but also two different stylistic systems. More useful to anyone who needs to make a translation are studies that compare linguistic and stylistic usage in the relevant languages. This thesis sets out precisely to contribute to the comparative stylistics of Basque and Spanish based on descriptive studies of translations. This may be a help in professional and academic fields in tackling the problem of translating non-restrictive relative clauses into Spanish.

Translation studies in Basque are a relatively recent phenomenon, so the biography on the field is somewhat scant. However there are a few research studies that have tackled the way in which relative clauses in a particular corpus have been translated into Basque, and it has been shown that such translations frequently resort to non-relative structures, which may be considered more in line with current stylistic usage in Basque. By contrast, this thesis focuses on precisely the opposite problem, in that we do not examine source texts (ST) in Spanish to see how their relative clauses are translated in the target texts (TT) in Basque; instead, we start with TT in Spanish, extract the non-restrictive relative clauses from them and examine what original syntactic

structures in Basque were translated as such. The basic hypothesis underlying this approach is that, in line with the arguments put forward by certain purists in some 20<sup>th</sup> century Basque grammars and with bibliographical findings, we are likely to find other types of structure in the original Basque texts. This in turn serves to highlight the syntactic and stylistic differences between contemporary texts in the two languages, and may provide evidence of a two-fold linguistic canon in Basque, with a less complex relativisation system in original texts and a more complex one in translated texts.

On that basis, we analyse a corpus comprising ten narrative works published in Basque in the past 40 years, with a highly canonical nature within the Basque literary system, and their translations into Spanish. One of the selection criteria applied is that the texts must have been published by non-Basque publishing houses, which also translate works written originally in Basque for the Spanish-speaking readership in Basque territory. This choice was made on the assumption that this would provide greater assurances that the translations meet the same conditions as regards approvability and acceptability applied by the central literary system in Spanish to literary works translated from other languages.

In Chapter 1 we establish the theoretical and methodological framework of the thesis, introducing and setting the scientific context of the main theoretical and schematic approaches of comparative stylistics (CS) and what are known as “descriptive translation studies” (DTS). We chose the CS model because we considered that a mere comparative linguistic analysis of the relativisation systems of the two languages in question did not suffice to analyse a translation studies issue that is mostly stylistic in nature; CS can serve precisely to evidence the different tendencies that exist in the use of each language and thus shed light on various structural characteristics that would go unnoticed in a monolingual linguistic analysis. However, we also consider that the conventional tenets of CS have been superseded by advances in translation studies in the past 50 years, so we decided to adopt the proposal put forward by Alberto Álvarez Lugrís, a lecturer at the University of Vigo, of supplementing this line of analysis with the DTS method by conducting a descriptive study of a corpus of actual translations that can help provide a better understanding of many translation-related phenomena.

Chapter 2 reviews grammatical studies that describe and classify relative structures in both languages, seeking to delimit as clearly as possible the unit of analysis to be used in the practical part of our research. We also outline the conclusions of the few descriptive translation studies conducted on relativisation in Basque, which evidence substantial usage of non relative equivalents. Comparing these conclusions with the data obtained in our own research we observe that appositional relative structures are used in the translations into Basque in our corpus three times more widely than in the texts written originally in Basque. This observation leads us to consider as reasonably confirmed the aforesaid hypothesis of a two-fold syntactic and stylistic canon in current Basque literary usage.

Chapter 3 is given over to a quantitative analysis of the translation of Basque narrative texts into Spanish to gauge trends and changes over time. This has enabled us to observe considerable differences among authors translated by non Basque publishing houses: the works translated by such publishers are more canonical than those translated by Basque publishers, and there is an increasing trend towards publishing translations for Spanish-speaking readers in Basque territory, with a consequent reduction in the number of Basque writers translated by the Spanish publishing market. This chapter also seeks to characterise the different types of translation from an author's viewpoint: allographic translation, self-translation and translations in which the author and translator collaborate. The abundance of these last two types is placed in the context of diglossia. We were particularly interested in characterising these three types with a view to learning whether there would be homogeneity or differences in the results for the corresponding syntactic and stylistic tendencies in the practical part of our study.

The fourth and last chapter describes the method and conditions chosen to form the corpus to be studied, based on an initial catalogue of literary translations from Basque to Spanish. We subsequently analyse in depth the translated text equivalents found in each of the ten sub-corpora studied and the syntactic and stylistic characteristics of each of them. Based on the data thus obtained, we then conduct an overall examination of the whole corpus, with detailed quantitative and morphological analyses of the different syntactic

structures found in the ST in Basque which are translated by non-restrictive relative clauses. Finally, the Conclusions subsection sums up and outlines everything analysed in the thesis.

The conclusions drawn in this thesis can be grouped on two levels.

First of all, from the viewpoint of the rules that govern translation processes, the data obtained from our analysis lead us to the following conclusions:

- A high degree of involvement of authors in the translation of their writings is observed in at least half our corpus. Various studies point to this as being characteristic of literary translation into dominant languages from languages that find themselves in situations of diglossia.

- From a practical viewpoint author involvement is reflected in a relatively widespread use of rewriting strategies and particularly in the addition of narrative elements not found in the original texts. This is also characteristic of literary translations from minority to dominant languages.

- These strategies of rewriting and addition of narrative elements are also relatively widespread in self-translation (as evidenced by various studies) but are by no means exclusive to that form; we have also found them in collaboration-based translations and even in some allographic translations. This denotes some level of involvement of the original authors even in this last type of translation, probably because the small size of the Basque literary system facilitates contact between authors and translators.

From the viewpoint of translation equivalents between ST in Basque and TT in Spanish, our study has led us to the following conclusions:

- We have observed that the translations in our corpus contain a strikingly low number of non-restrictive relative structures, probably due to how few equivalent syntactic structures there are in the source texts. This feature cannot necessarily be linked to allographic translation (which is supposedly oriented more towards "matching" the source or reproducing the syntactically less



complex structure of the original text), because it is also found in the other types, including self-translation (which in theory tends more towards “acceptability” in the target language and thus adopts the greater syntactic and stylistic complexity of the Spanish-language literary system). From this we conclude that not all self-translations can necessarily be linked to translation strategies of adopting the usual style of the target language.

- In spite of this low level of use of non-restrictive relative clauses in TT, a clear tendency is observed across all types of translation to use paraphrase-type equivalents of relative clauses for various syntactic structures in the ST. In 57% of the pairings studied we found textual equivalences between non-relative structures in the source text and paraphrased relatives in the translation. Thus, only 43% of the pairings analysed maintain syntactic equivalence between relative clauses or relative appositions in Basque and non-restrictive relative clauses in the target texts.

- In the source texts in Basque a high level of use of parataxis is observed: indeed such structures appear in 35% of the pairings analysed, and coordinated and juxtaposed sentences are particularly prevalent, accounting for 26% of the pairings analysed.

- There is also a significant proportion of non-relative hypotactic structures: such structures account for an average of 22% in the pairings analysed, with modal and causal clauses predominating at 17.7% of the equivalents found in the pairings analysed.

Based on the data obtained, the general conclusion that can be drawn from our comparative stylistic analysis of literary texts in Basque and their translations into Spanish is that in the source texts the syntactic and stylistic canon is observed to make less use of relative structures and abundant use of non-relative hypotactic and paratactic structures. These are then translated by non-restrictive relative clauses, which are considerably more usual in Spanish literary usage. This phenomenon is not found in all the texts analysed, but it is found in all three types of translation. This prompts the deduction that there is a widespread tendency to use greater syntactic complexity in translations, seeking acceptability in the target culture.

We therefore consider that the descriptive study conducted in this thesis proves that different linguistic canons are used in narrative texts in Basque and Spanish. We also find that one of the main syntactic and stylistic differences between the two languages lies in their use of relative structures. However, as stated throughout the thesis, that difference is not in type but rather in style, and can be attributed to well-known historical and ideological reasons linked to the purist tendencies that emerged in the early years of the 20<sup>th</sup> century, which modified the model of relativisation that had been used up to that time in written Basque. That modification took it further away from the structures usually used in the languages of neighbouring cultures, and its consequences can be seen in current written usage. It can be stated that the current linguistic canon for narrative writing in Basque is still heavily indebted to that syntactic purism, which advocated less use of appositional or non-restrictive relative clauses on the grounds that they were foreign to the "original nature" of the language. However there is fairly clear evidence of a syntactically and stylistically more complex canon in literary translations into Basque, with a markedly greater use of relative structures. Our own opinion is that the existence of this two-fold linguistic canon may be counterproductive for Basque in view of the situation of diglossia in which the language finds itself, particularly in regard to the reception and prestige of literature translated into Basque. It would be positive for there to be a gradual recovery of this linguistic instrument which, in spite of the disdain with which purists have regarded it, is necessary if literary written Basque is to recover its place in the expressive and stylistic standards widely found in the languages of neighbouring cultures.

## **SARRERA**

Euskarara itzultzen dutenentzat eta itzulpen-ikasketetan diharduten ikasle-irakasleentzat oso ezagunak izaten dira oro har perpaus erlatiboak euskaratzeak izan ditzakeen zailtasunak, euskararen eta inguruko hizkuntzen erlatibakuntza-sistemen desberdintasunagatik. Gramatikek, gainera, askotan ez diote itzultzaileari laguntza gehiegirik ematen arazo horiek gainditzeko, hizkuntza bakoitzaren sistema deskribatzera mugatzen baitira ikuspegi elebakarretik, baina itzulpenean aurrez aurre jartzen direnak ez dira soilik bi sistema linguistiko, baina baita bi sistema estilistiko ere. Horregatik, itzultzailearentzat askoz tresna baliotsuagoak izan daitezke bi hizkuntzen sistema linguistiko eta estilistikoak konparatzen dituzten ikerlanak. Bada, tesi honen helburua gaztelaniaren eta euskararen arteko itzulpenaren estilistika konparaturako ekarpen bat egitea da, itzulpen-ikerketaren deskriptiboaren metodologian oinarriturik, eta arreta erlatibakuntzako itzulpen-arazo jakin batean jarritz: gaztelaniazko perpaus erlatibo esplikatibo edo ez-murrizgarrietan, hain zuzen.

Oyarçabalek (1987: 20) bere tesian *“la relativation constitue l’un des phénomènes les plus importants de la syntaxe”* dio, eta horregatik, Ciden tesian (1994) esaten den moduan, azken urteotan ikerketa-kopururik handiena eragin duen sintaxiaren alorra da; euskarazko gramatika-ikerketen esparruan, Oyarçabalenaz gain, beste bi tesitan gutxienez aztertu da erlatiboa: lehendabizi, De Rijk-enean (1972), euskal erlatiboaren ikerketa sintaktikoa eginez; eta geroago, Cid-enean (1994), gaztelaniaren, euskararen eta txekieraren erlatibakuntzari buruzko azterketa sintaktiko konparatiboa eginez. Eta, bestalde, itzulpen-ikerketa deskriptiboak (IID) gure garaian izaten ari diren garapenarekin, erlatiboaren itzulpenaren gaia ezin utz zitekeen ukitu gabe –berez, gure tesia IIDen planteamenduetatik egitura sintaktiko honi eskaintzen zaion bigarrenena da, Sanchok (2015) eginikoaren ondoren–, bereziki kontuan hartzen badugu perpaus erlatiboaren, edo, zehazkiago esanda, gaztelaniazko eta beste hizkuntza indoeuroparretako perpaus erlatibo esplikatibo (PEE) edo ez-murrizgarrien

itzulpena izaten dela euskarazko itzultzaileek (eta interpreteek) eta itzulpen-ikasleek topatzen duten arazorik garrantzitsuenetariko bat, erlatibakuntza-sistemak nahiko modu desberdinean erabiltzen direlako gaur egungo euskarari eta inguruko hizkuntzetan.

Desberdintasun hori, alabaina, ez da oinarritzen euskararen eta beste hizkuntzen tipologia linguistikoan soilik, bai baititu sustrai historiko eta ideologikoak ere, garbizaletasunaren ideologia linguistikoari lotuak: izan ere, euskara idatziaren diakroniari begiratzen badiogu, literatura-euskararen erlatibakuntza-sistemak antzekotasun handiagoak zituen inguruko kultura-hizkuntzetakoekin XVI. mendetik XIX. mende bukaera bitartean, XX. mende hasieratik aurrera baino; izan ere, une horretatik aurrera, R. M<sup>a</sup> de Azkuek, Patrizio Orkaiztegik eta Sebero Altubek bultzatu zuten garbizaletasun sintaktikoaren eraginez, ordura arte euskal idazle eta itzultzaileek normaltasunez erabiltzen zuten erlatibo aposatua, gehienbat balio ez-murrizgarria zuen ZEIN/NON erlatiboa alegia, ia proskribituta geratu zen euskal letretatik, hala Hegoaldeko nola Iparraldeko literaturan, eta, XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera zenbait gramatikari eta idazle bakan batzuk erlatibo horren erabilera "berpiztearen" alde agertu baziren ere, egitura horrek problematikoa izaten jarraitzen du oraindik, "arrotz-marka" egozten zaio gramatika gehientsuenetan eta baita euskararen irakaskuntzan erabiltzen diren liburu eta metodoetan ere, eta, ondorioz, oso erabilera txikia du gaur egungo euskara idatzian oro har, bai eta literaturan ere, eta are txikiagoa, noski, ahozko euskarari.

Itzulpenari gagozkiolarik, ordea, hara non gertatzen den ZEIN/NON erlatiboa "berreskuratzearen" aldeko jarrera erakutsi duten zenbait ahotsek testu teknikoetarako eta, bereziki, itzulpenerako aldarrikatzen dutela egitura horren erabilera, baina, hala ere, beti "neurritz eta tentuz". Erdibideko jokamolde horrekin, ondorioztatu behar da halako kanon sintaktiko bikoitza proposatzen ari dela euskararentzat: jatorragotzat jotako sintaxia euskaraz sortutako lanetarako, era horretako erlatiborik gabe; eta beste joskera bat itzulpenetako euskararako, zeinean era horretako erlatiboa erabiltzea komenigarria izan daitekeen jatorrizko testuen itzulpenak planteatzen dituen zailtasun sintaktiko batzuk gainditzeko, baina zehaztasun gehiegirik eman gabe itzulpen horietako

erregistro-maila, funtzio, testu mota edo hartzaileei buruz, itzulpena hizkuntzaren erabilera-esparru edo ia genero aparteko eta beregaina balitz bezala.

Hortaz, duela mende batetik hona euskal hiztun askorengan sustrai sendoak ateratzera iritsi den ideologia linguistiko horren eraginez prozedura hori baztertuta eta markatuta geratu ondoren, euskara idatziak garatua zuen erlatibakuntza-sistema errotik aldatu zen, eta, harekin batera, baita haren kanon sintaktikoa ere. Izan ere, euskal tradizio gramatikalean nolabait ontzat eman da P. Lafittek bere *Grammaire Basque* delakoan esan zuena, hots: «*Le basque ne se prête pas beaucoup à la traduction des phrases françaises pleines de propositions relatives. Il vaut mieux renoncer à rendre littéralement de pareils textes et se décider à les transposer selon une autre syntaxe*» (1944: 461).

Itzulpen-ikerketen alorrean, egon dira saio apur batzuk "beste sintaxi hori" nolakoa den aztertzeko, corpusgintzaren metodologiarekin: Bigurik (1994) eta Hildagok (2002a, 2002b, 2003, 2004) lehendabizi eta, geroago, Iker Sanchok bere doktore-tesiarekin (2015), aztertu dute perpaus erlatiboen itzulpenaren arazoa, abiapuntu desberdinetatik: Hildagok, ordea, ez du itzulpen-ikerketak deskriptiborik egiten, itzulpen-corpus bateko euskarazko perpaus erlatiboen azterketa morfosintaktikoa baizik, haien erabilera deskribatu eta neurtzeko asmoz; Bigurik eta Sanchok, aldiz, IIDen esparruan koka daitekeen lana egiten dute: biek aztertzen dute euskal itzultzaileek jatorrizko (hurrenez hurren, gaztelaniazko eta errusierazko) sorburu-testuetako (ST) perpaus erlatiboak nola itzuli dituzten, bietan ikusten delarik corpuseko euskal itzultzaileek beren modura, bakoitza bere estiloarekin alegia, islatzen dutela Lafittek aipatzen zuen "une autre syntaxe" hura, askotan baliokide ez-erlatiboak emanez jatorrizko perpaus erlatiboen, eta bereziki erlatibo esplicitibo edo ez-murrizgarrien ordainetan. Eta horrek euskara idatziaren sintaxiari ekarri diona izan da inguruko beste hizkuntzetan izen sintagmen hedakuntza apositibo ez-murrizgarrietarako daukaten tresna malgu eta eraginkorra –PEEak, alegia– bezalakorik gabe geratu dela euskara, erregistro idatzirako ere joskera nagusiki parataktikoa hedatuz edo egitura sintaktiko horrek betetzen zuen funtzioa beste egitura batzuei harraraziz.

Aipatutako azken bi ikerketa horietan, euskararen eta beste hizkuntzaren erlatibakuntza-sistemen arteko konparaketa egiten da, baina norabide bakarrean, euskara itzulpeneko xede-hizkuntza (XH) baita bietan, Hídalgoaren artikulu sortan bezalaxe. Eta kontuan izan beharra dago euskal itzultzaileek bi elementu baldintzagarriren pean burutzen dutela itzulpen-prozesua: batetik, euskararen gaur egungo kanon sintaktikoaren eragina jasaten dute, haientzat ere indar osoa baitute Lafitteren baieztapenak eta euskal sintaxiaren bilakaera diakronikoak; eta bestetik, neurri handi batean oraindik bizirik dirauen tradizio historiko luze baten ondorioz, jatorrizko lanaren egilearen estilo-ezaugarrienganako leialtasuna erakutsi behar izaten dute, eta horrek badu edo izan dezake eraginik itzulpen-testu horietako erlatiboen erabileran, are gehiago itzultzaile horiek euskara idatziaren beste esparruetan baino proportzio handiagoan erabiliko balute prozedura sintaktiko hori, euskarazko erlatibo aposatuen erabilera handiagoaren aldekoen ikuspuntua ontzat emanez.

Gauzak honela, erlatibakuntzari buruzko hiru lan horietan egiten den sintaxi konparatuak ikertzen diren hizkuntza-pareen erlatibakuntza-sistemen arteko harremanen irudi interesgarri baina nahitaez partziala ematen du, euskarara egindako itzulpenen galbaketik pasatuta dagoelako; irudi osoa eman ahal izateko, beste norabidean egindako itzulpenak ere aztertu beharko lirateke, eta frogatu ea joera edo erregularitasun antzekoak ala desberdinak topatzen diren.

Bada, horixe da hain zuzen ere tesi honetan egin nahi duguna: hots, euskaratik gaztelaniara itzuliak izan diren literatura-lan narratibo garaikideen katalogotik corpus bat osatu eta euskarazko STetako sintaxia gaztelaniazko xede-testuetako (XT) sintaxiarekin konparatu, abiapuntu eta ikerketa-unitatetzat XTetako PEEak harturik, euskarazko jatorrizko testuetan idazleek zer baliabide sintaktiko erabiltzen dituzten ikusteko. Horretantxe datza, hain zuzen ere, tesi honek gure ustez egiten duen ekarpenaren berritasuna: gure ikerketa-unitateak ez daudela STan, ohikoa izaten den bezala, unitate horiek XTetan nola itzulita dauden ikusteko; gure ikerketa-unitateak, izan ere, gaztelaniazko testuetan daude, eta haien bitartez ikusi nahi dugu zein joserabaliabide topatzen ditugun sorburu-testuetan, corpusean aurkitutako baliokidetasun testualetan oinarrituta. Jardunbide honekin, iruditzen zaigu bi

hizkuntzen gaur egungo erlatibakuntza-sistemen eta kanon sintaktikoen desberdintasunaren azalpena erabat osatu egin daitekeela, PEEi buruzko azterketari dagokionez.

Izan ere, literatura-euskararen gaur egungo kanon sintaktiko-estilistikoa – Lafittek hobesten zuen “beste sintaxi” hori– euskal idazle “kanonizatuek” beren lanetan isurtzen dutena da nagusiki, haiek baitira gaur egungo euskal prosa eredugarriaren iturri lehenak, eta, itzulpen-ikertzaileentzat zorionez, idazle horietako asko euskararen muga gainditu eta itzulpenaren bitartez ari dira iristen beste hizkuntza-komunitate eta beste literatura-sistema batzuetara, gaztelaniazkoa nagusiki, baina baita beste hizkuntza batzuenetara ere (nahiz eta hori, askotan, gaztelaniaren zubiaren bitartez izan). Eta horrek aukera ematen digu, azkenik, itzulpen-ikerketaren azterketa-esparruak zabaltzeko eta, guri dagokigunez, euskararen eta gaztelaniaren arteko konparaketa sintaktiko-estilistiko osatuagoa egiteko, bi itzulpen-norabideak aztertuz eta bi kanon linguistikoak parez pare jarritz.

Horrenbestez, gure tesia hizkuntzalaritzak eta itzulpen-ikerketak partekatzen duten bidegurutzean kokatzen da, Estilistika Konparatua deritzonaren eta Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboen esparruan; baina egin nahi duguna ez da bi sistema linguistikoen edo bi estilistika elebakarren deskribapena, itzulpen jakin batzuen baizik, batetik itzulpen horietan topa daitezkeen erregularitasunak antzemateko eta, hartara, itzultzaileen “jarduerarauak” –itzultzaileen hautuak neurri batean azal ditzaketen arrazoiak– nabarmentzeko, eta, bestetik, gure ikerketaren interesgune nagusia STetan kokatuz, euskal idazleen kanon estilistiko-sintaktikoaren ezaugarriak definitzeko, iruditzen baitzaigu kanon horren erreferentzia kontuan izateak berebiziko garrantzia duela itzulpen-jarduerarako eta itzulpenaren didaktikarako ere.

Estilistika Konparatua (EK), Vinay eta Darbelnet-en 1958ko *Stylistique comparée du français et de l'anglais* lanarekin, itzulpena arteen esparrutik atera, hizkuntzalaritzaren esparruan kokatu eta hari buruzko hurbilpen “zientifikoa” egiteko lehen ahaleginetako bat izan zen, eta disziplinar-teko beste ikuspegi batzuekin batera, traduktologia deritzaion jakintzagai berriaren

zimentarrietako bat da. EKren betekizuna, bi ikertzaile kanadarrek eta beste batzuek planteatu zuten moduan, halako testuinguru jakin baten barruan material linguistiko eta literario batzuen konparaketa egitea da, itzulpen-eredu bat osatzeko, "itzulpen-teknika" edo prozedura batzuk identifikatuz; horrexegatik zuen Vinay eta Darbelneten ikerketak **Méthode de traduction** azpтитulua. Izan ere, bi autoreok hizkuntza batetik besterako itzulpenaren prozesu mentalaren mapa moduko zerbait osatu nahi zuten, abiapuntutzat hartuz unitate lexikografiko oro pentsamendu-unitate bati dagokion hizkuntza-ekintza bat dela; horregatik, posibletzat jotzen zuten itzulpen-unitateak zedarritu eta analizatzea, eta haien bitartez itzulpenaren mekanismoak aurkitu eta itzulpen-prozedurak ondorioztatzea, testuetako adibideetatik abiatuz.

Alabaina, proposamen honek denborarekin hainbat kritika jaso izan ditu, bi hizkuntzen arteko gramatika konparatibo moduko zerbait egiten zuelako, itzulpen-prozesua hizkuntza bakoitzaren egitura linguistikoen azterketara mugatuz. Izan ere, halako hizkuntza bikote baten egiturazko desberdintasunek ez dute berez argitzen itzulpenaren mekanismoen konplexutasuna, eta, ondorioz, planteamendu horren azterketa kontrastiboak ez dio gehiegi balio itzultzaileari halako testu batek dituen itzulpen-arazo egiazkoei buruzko erabakiak hartzeko, aurrez aurre jartzen dituenak gehienbat bi sistema linguistiko direlako, haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak aurkitzeko, itzultzaileentzat bezala hizkuntza-ikasleentzat ere zuzenduta zegoen ikuspegi arau-emaile batetik; hau da, itzultzaileak itzulpen on bat egiteko (edo hizkuntza-ikasleak bigarren hizkuntza ondo erabiltzeko) bete behar dituen itzulpen-arau batzuk ezarri nahi zituen, arau horiek hizkuntza bakoitzaren berezko ezaugarri berezien errespetuan oinarrituz. Ikuspegi hori ikertzaile pareak disziplinari buruz ematen duen definizioan bertan islatzen zen argi asko: «...*stylistique externe (ou comparée) qui observe les caractères d'une langue tels qu'ils apparaissent par comparaison avec une autre langue*» (1958: 15). Gauzak horrela, Vinay eta Darbelneten saioak itzulpen-praktikari-jarduera profesionalari nahiz itzulpenen analisiaren jarduera akademikoari eta didaktikari-aplikatzeko moduko emaitza baliagarri gutxi lortu zituen, eta horregatik izan zituen deskribatu ditugun kritikak.



Hori dela eta, gure tesiaren oinarri teorikorako erabili nahi dugun Estilistika Konparatua ez da, beraz, bi autore horien EK tradizionala, baizik eta Alberto Álvarez Lugrís-ek (1998, 2001) bere helburu eta metodoetan birdefinitzen duena, ikerketa enpiriko-deskriptibo modura planteatuz, Holmesen (1972-1988) eta Touryren (1995) Itzulpen-Ikerketak direlakoan esparruan, itzulpen egiazkoak deskribatu eta aztertzeko lanabesak eskaintzearen. Izan ere, Álvarez Lugrís-ek planteatzen du EK tradizionalaren abiapuntu teorikoak eta haren helburuak ez zirela berez okerrak, baina proposatzen zuen metodologia bai, eta, horregatik dio disziplina horren helburu, metodo eta tresnak birformulatu behar direla, Itzulpen-Ikerketa modernoan beharretara egokitzeko, eta, beti ere, itzulpen-esperientzia egiazkoetan oinarrituz. Hartara, Vigoko Unibertsitateko ikertzaile galiziar honen arabera, EK tresna erabat baliagarria izan daiteke itzulpenetan gertatzen diren fenomenoak deskribatu, datuak azaldu eta etorkizuneko itzulpen-arazoak iragartzeko, eta, horrela, tresna egokia izan daiteke itzulpenaren teoriarako, didaktikarako eta itzulpen alorreko profesionalentzat ere. Ildo horretatik, EK Itzulpen-Ikerketen adar enpiriko-deskriptiboa litzateke, eta Itzulpen-Ikerketen alderdi teorikoak balia ditzakeen disziplina osagarrietako bat izan daiteke. Edo, bestela esanda, EK itzulpen-ikerketarako lanabes baliagarria ez ezik, Touryk proposatutako Itzulpen-Ikerketak deritzan disziplinaren osagai ezinbestekoa ere bada.

Helburu eta planteamendu berri horiekin, Álvarez Lugrís-ek dio Estilistika Konparatuak Touryk itzulpen-ikerketa enpirikoetarako ezartzen dituen hiru ezaugarriak eduki behar dituela: batetik, behagarriak, neurgarriak eta egiaztagarriak diren itzulpen-ekintza konkretu eta errealek izan behar dute EKren ikergaia; bestetik, behaketa STaren eta XTaren arteko konparaketatik abiatu behar da, itzulpen-prozesua berreraikitzen saiatzeko eta itzulpen-arazo errealak antzeman eta zedarrizteko; eta, azkenik, behaketa horiek halako itzulpen-jarraibide edo erregulartasun batzuk formulatzea ahalbidetu behar dute, behatutako jardunbideak azaltzeko eta etorkizuneko jokamoldeak iragartzeko, edozein teorizazioaren oinarri gisa. Hortik, ordea, ezin da eratorri inolako itzulpen-metodorik edo itzulpen-teknikarik, EK tradizionalak egin nahi zuen gisan, jarraibide eta erregulartasun horiek itzulpen-corpus jakin batean antzeman direlako, eta, itzulpen bati edo itzulpen sorta bati ezin zaio esleitu

itzulpen guztien edota XHren errepresentatibitate paradigmaticoa. Horrelako ikerketa batetik ateratako emaitzak hizkuntza osorako edo halako hizkuntza-bikote baten arteko itzulpeneko aplikagarriak izatea nahi badugu, testu-multzo zabal bati, hots corpus benetan errepresentatibo bati ekin beharko zaio, testuak errepresentatibitate-maila horren arabera ondo aukeratuz, hizkuntzaren edo itzulpengintza horren errealitatea benetan isla dezaten corpus horretatik ateratako konklusioek.

Planteamendu honekin, hasteko, Álvarez Lugrisek EKren definizio berri bat proposatzen du, esanez itzulpen-ekintzaren barruan eta testu jakin batzuekin bi hizkuntzen artean gauzatzen diren harremanak ikertzen dituen jakintzagaia dela. Autore honek, gero, praktikan jarri zuen bere proposamena, eta ingelesetik galizierara eginiko literatura-itzulpenen corpus bati aplikatu zion, itzulpen-prozesuan bi hizkuntzen artean gertatzen diren eta itzultzaileen erabaki konkretuak baldintzatzen dituzten harreman edo korrespondentzia suborazionalak jorratuz; baina azterketa horretan proposatzen duen EK ez da hizkuntza baten edo bestearen barne-estilistika, ez eta bi barne-estilistikaren arteko erkaketa ere, ezpada halako itzulpen jakin batzuen azterketa estilistikoa, itzulpen-prozesuan parte hartzen duten bi hizkuntzetako baten ikuspegitik. Helburu horri begira, bere azterketaren aparatua metodologikoa garatzerakoan, oso garrantzitsutzat jotzen du ikertu nahi den itzulpen-fenomeno konkreturako behar den azterketa-unitatea ondo zehaztea, unitate horrek baliagarria izan behar baitu jatorrizko testuaren eta testu itzuliaren arteko konparaketa emankorra burutu ahal izateko, emaitza fidagarriekin. Unitate hori, seinalatzen duenez, era askotakoa izan daiteke, hitzetik hasita, perpaus, paragrafo edo testuraino, baina beti ere testuaren segmentaziorako tresna bat da.

Gure tesian, Álvarez Lugrisen planteamenduari jarraituz ikerketan erabili nahi dugun azterketa-unitatea perpaus mailakoa da, PEEak ikertu nahi ditugunez, baina gure kasuan, lehenago zehaztu dugun bezala, unitate hori ez dugu kokatzen STan, XTan baizik. Izan ere, abiapuntu aprioristiko bezala hartuz euskaraz erlatiboa gutxiago erabiltzen delako baieztapen klasiko hori, interesgarriagoa iruditzen zaigu jakitea zernolakoa den jatorrizko euskal testu garaikideetan erabiltzen den joskera, besteak beste ezaugarri bereko testu euskaratuetan topatzen den berbera ote den ala ez jakiteko, edo, gauzak

zehatzago esanez, gure ikerketa honetatik abiatuta, lehenago esan dugun hipotesia egiaztatu edo gezurtatzeko: alegia, ea benetan bi kanon sintaktiko-estilistiko edo bi prosa-eredu ari ote diren erabiltzen euskarazko literatura-sisteman, gorago esan dugun ezaugarriekin, alegia, erlatibakuntza gutxiagoko joskera bat euskarazko jatorrizko literaturan, eta erlatibakuntza konplexuagoko beste joskera bat euskaratutako literaturan.

Tesi hau, alabaina, euskara-gaztelania norabidean itzulitako testu-corpus bat aztertzeraz mugatu da, bertan egiten dugun ikerketak neurritz kanpoko tamaina izan zezakeelako bi norabideak landuz gero benetako errepresentatibitate-bermea emateko moduko corpus banarekin, eta horregatik izenburuan ipini dugu euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenaren estilistika konparatua egiteko materialak direla bertan biltzen direnak, zeren bi hizkuntzen arteko itzulpenari buruzko EK osoagoa eraiki ahal izateko beste norabidea ere aztertu beharko baita; hori, ordea, etorkizunerako utzi beharko den iker-lerro bat da oraingoz.

Tesi honetarako hautatu dugun corpora azken hiru hamarkadotan euskaratik gaztelaniara egin diren helduentzako literatura-testu narratiboez osaturiko katalogotik<sup>1</sup> atera dugu; baina, katalogo hori zabalegia zenez, baldintza batzuk ipini ditugu, corpus aldi berean maneiagarri eta errepresentatiboa lortzeko: batetik, gaztelaniazko literatura-sistema "zentral"eko edo XK exogenoko (Euskal Herritik kanpoko) argialetxeek ateratako itzulpenak izan behar zuten, literatura-sistema zentral horretan ohikoak diren onargarritasun-irizpideen arabera integratutako testuak izan zitezkeen; eta, bestetik, jatorrizko testuen idazleek baldintza horrekin argitaratutako bi itzulpen izan behar zituzten gutxienez, esandako integrazio hori benetan sendoa dela frogatuta gera zedin. Era honetan, hasierako katalogo zabaletik, bi baldintza horiek betetzen zituzten hamar testu identifikatu eta haiekin osatu dugu gure ikerketan erabili dugun corpora, C<sub>0</sub> delakoa. Corpus horretan, euskal literatura garaikideko izenik garrantzitsu eta errepresentatiboenak daude, hain zuzen ere.

---

<sup>1</sup> Ikus 2. eranskina.

Gaineratu beharra dago hamar XT horietan egiletasunari dagokionez dauden itzulpen-tipologia desberdinak aurkitu ditugula, hala itzulpen alografoak –hots, jatorrizkoen idazleak ez diren itzultzaileek eginak–, nola itzultzaile baten eta idazlearen arteko lankidetzan eginiko itzulpenak eta baita autoitzulpenak ere, jatorrizko testuaren idazleak berak egindako itzulpenak, alegia. Autoitzulpenaren fenomeno hau, baina baita lankidetzan eginiko itzulpenen fenomeno ere, nahiko errealitate hedatua da euskararen eremuan, egoera diglosikoan dauden beste hizkuntza gutxitu askorekin gertatzen den antzera, eta, zalantzarik gabe gure ikerketaren gorputzean eta konklusioen atalean oso kontuan izan beharreko faktorea ere bada, bereziki interesatzen baitaigu frogatzea ea desberdintasunik ba ote dagoen gure ikerketatik ateratako datu eta emaitzetan itzulpen horien tipologiaren arabera.

Hortaz, tesian egin dugun lanaren aurkezpenarekin jarraituz, ikerketa-corpusa osatzeko euskarazko hamar STak eta gaztelaniazko itzulpenen XTak aukeratu ondoren, XTko azterketa-unitateak –PEEak zituzten testu-zatiak– bilatu eta jatorrizko bertsiotan zegozkien zatiak identifikatu ditugu, eta, azkenik, bi hizkuntzetako testu-zati horiek binomiotan elkartu. Gauzak horrela, beraz, gure tesiaren ekarpenaren funtsa binomio horien azterketan eta azterketa horretatik ateratako datu eta konklusioetan dago; datu eta konklusio horiek erakutsiko digute zer joskera eta zein baliabide –hots, zernolako kanon sintaktiko-estilistikoa– erabiltzen dituzten euskal idazleek beren sorlanetan, itzulpenetan bilatu ditugun perpaus erlatibo ez-murrizgarri edo esplikatiboen lekuan, eta, beraz, zer antzekotasun edo desberdintasun maila dagoen ST eta XT horien artean.

Nahi genuke tesi honek ekarpen baliagarria egitea euskarazko itzultzaileentzat, itzulpen-ikasleentzat eta itzulpenaren inguruko behar didaktikoetarako, baina baita gaur egungo euskal prosa-ereduari buruzko kezka dutenentzat ere, idazleentzat beraiantzat, adibidez. Entzun ahal izan da, izan ere, azkenaldi honetan ere ahotsen bat<sup>2</sup> kezkatuta “erlatibo anaforikoak” –Villasanteren terminologia erabiliz– bazterturik jarraitzen duelako gaur egungo euskarazko prosak erabiltzen duen erlatibakuntzan, baita itzulpen-ikasketetan ere. Tesi honetan eskaintzen diren materialak pauso bat izan daitezke norabide

---

<sup>2</sup> Reza Altonaga (2015).

horretan, gaur egungo euskarazko prosa-ereduaren ezaugarriak eta horien atzeko arrazoiak ezagutzeko, itzulpen-jardueran hartu behar izaten diren erabakiak ezagutza gehiagoren argiarekin hartu ahal izateko, nahiz eta hemen iradoki ditugun iker-lerroei jarraituz sakontze-lan gehiago egin beharko den.

Orain arte deskribatu ditugun helburu, planteamendu eta hipotesiekin, tesia osatzen duten lau kapituluak azalduko ditugu orain.

Lehenengo kapituluan, gure azterketaren marko teoriko eta metodologikoa aurkeztuko dugu, itzulpengintzaren ikerketak XX. mende erdialdetik hasita egindako ibilbidearen panoramika eginez, translatologia linguistikoak hizkuntzalaritzaren eskutik itzulpengintza zientziaren ikergai bihurtzeko ahaleginekin hasiz, translatologia jakintzagai beregaina bilakatzeko bidean EKk eta IIDek emandako ekarpenetan zentratzeko. Izan ere, bi ardatz horien gainean altxatzen da gure tesirako hautatu dugun ikerketa-metodologia, estilistika konparatua eta itzulpen-ikerketa deskriptiboak uztartzen dituen Álvarez Lugrísen proposamenean oinarriturik dagoena.

Bigarren kapituluan, gure ikerketa-unitatearen ezaugarriak definitzeko xedez, gaztelaniazko gramatiketan erlatibakuntza mota desberdinak nola sailkatuta eta azalduta dauden ikusiko dugu, dauden sailkapen eta terminologia arazoak nabarmenduz, eta euskal gramatikarien lanik garrantzitsuenetan euskal erlatiboari buruz egin diren deskribapen batzuetan kontrajarriak ikusiko ditugu; gainera, euskarazko itzulpen-ikerketetan erlatibakuntzaren arazoa jorratu duten lan batzuen ekarpenak ere birpasatuko ditugu, gure tesitik aterako ditugun datuekin erkatzeko.

Hirugarren kapitulua gaztelaniara itzuli den euskal narratibari buruzko azterketa kuantitatibo eta tipologikoari eskainiko diogu, corpuserako hautatu ditugun literatura-lanen tipologia zehazteko eta euskal literatura itzuliaren aro desberdinen ezaugarriak eta bilakaera ezagutzeko. Gainera, euskaratik gaztelaniarako literatura-itzulpengintza bere testuinguru diglosikoan kokaturik, ikusiko dugu xede-kultura bikoitza duela eta horrek halako eragina duela itzulpengintza horren helburuetan eta ezaugarrietan.

Azkenik, tesiko atalik luzeenean, laugarren kapituluan, tesirako osatu dugun corpora nola eraiki dugun ikusi eta hamar azpicorpusen banakako azterketa xehea egingo dugu, XT bakoitzaren tipologia zehazten saiatuz eta ST eta XT bikote bakoitzean aurkitutako itzulpen-baliokidetasun desberdinen sailkapena eginez, bakoitzaren joera sintaktiko-estilistiko nagusiak identifikatzeko. Kapituluko azken atalean, azpicorpus guztien azterketatik ateratako emaitzen analisi bateratua egingo dugu, topatutako baliokidetasunen garrantzi portzentuala erakutsiz, eta datuetatik ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu.

Hauxe da gai honen ikerketarako egin nahi dugun ekarpena. Gure ustez, euskaratik gaztelaniara egiten den literatura-itzulpenaren ezaugarri eta joera linguistiko-estilistikoen berri izateak ikasbide interesgarriak eman ditzake euskarara egiten diren itzulpenetarako eta itzulpen horren didaktikarako ere, eta agian gogoeta-ildo batzuk ere ireki ditzake gaur egun euskal literaturan eta beste esparru batzuetan erabiltzen den hizkuntza-ereduari buruzko hausnarketarako ere.

## **1. KAPITULUA: IKERKETAREN MARKO TEORIKO ETA METODOLOGIKOA**

### **1.1. Marko orokorra**

Itzultzaile-esperientzia duenak edo itzulpen-irakasle gisa diharduenak ongi daki gaztelaniazko eta beste hizkuntza batzuetako perpaus erlatiboak oro har, eta, bereziki, erlatibo ez-murrizgarri edo esplikatiboak itzultzea izaten dela euskararako itzulpenaren edo interpretazioaren arazorik handienetako bat, gaur egun euskaraz erabiltzen den erlatibakuntza-sistema nahiko desberdina delako euskarara egiten diren itzulpenetako sorburu-hizkuntza gehienetan topatzen denaren aldean eta, gainera, bigarren kapituluan ikusiko dugun bezala, euskararen erlatibakuntza-sistemari buruz egin diren deskribapen gramatikaletan desadostasun nabarmenak daudelako oraindik ere; alabaina, diferentzia hori ez da soilik tipologikoa –hots, ez da gertatzen soilik hizkuntzen tipologia desberdinagatik–, estilistika edo erabilera mailakoa ere bada, zeren eta, neurri handi samarrean, gaur egungo euskararen prosa-eredua eta, bereziki, eredu horretan erabiltzen den sintaxia, XX. mendeko manipulazio garbizalearen oinordekoa baita, zeinaren eraginez baliabide sintaktiko anaforikoen erabilera –besteak beste– desagertu egin zen luzaroan idatzizko euskaratik, halako moldez non erlatibo anaforiko deitutakoak (ZEIN/NON erlatiboa, nagusiki) Gabriel Arestiren garaira arte behintzat ez baitira berriro agertuko, ez literatura-prosa landuan ezta bestelakoan ere, eta agertu, hala ere, oso ahul eta askotan negatiboki markaturik.

Pagolak euskal garbizalekeriaren “berrikuntza sintaktikoa” deitzen duena aztertu zuenean, honako ondorioa atera zuen: «*La intervención purista también en sintaxis supone la ruptura con la prosa normalizada que, no sin esfuerzo, habían logrado los autores clásicos*» (2005: xxiii); eta apurketa haren eragina

oraindik ere somatzen da: «*a diferencia de las reformas morfológica y léxica, ésta* [berrikuntza sintaktikoa, alegia] *llega prácticamente hasta nuestros días*».

Modu adierazkorragoan margotzen dute eragin luze hori Alberdi eta Garcíak erlatibo anaforikoez ari direlarik:

XX. mendearen lehen zatiko gramatikarien (Azkue, Altube, Lafitte...) erasoaldiaren ondoren eta mende honetako literatura-tradizioan erlatibo berezi honek izan duen etenaldiaren ondoren, badirudi gaur egun egitura honetaz baliatu nahi duenak bere burua zuritu edo justifikatu beharra daukala; hau da, tradizio luze eta ongi finkatuak ematen dion zilegitasuna gorabehera, aurreiritzi linguistikoez pisu handiegia dute gure artean eta oraindik ere erabilera justifikatu beharra egoten da, erabilerarik eza eta tradizioarekiko etena azaldu beharrik ez badago ere (1996: 135).

Villasantek berak ohartarazi zuen euskarazko sintaxiaren manipulazio garbizaleak prosa-ereduan zeukan eraginaz euskararen arazoei buruzko saiakera baten barruan itzulpenari eskainitako gogoeta batzuetan:

Gurean beste makur bat egiten da oraindik: elkar hizketan erabili ohi den sintaxia hartzen dela eredu bakar edo orokor bezala. Jakina, elkar hizketan toki guti da anaforikoentzat (1988: 207).

Sintaxi ustez garbi hori bultzatu izanaren ifrentzuan, Villasantek argi eta garbi dio anaforikoen erabilera gaitzesteagatik garbizaleek «*murriztua eta baliabidez pobretua*» utzi zutela euskara eta, horren medioz, «*lehen normalki egiten zen itzulpen-lana izugarri zail bihurtu*» dela<sup>3</sup>. Egia da Villasantek itzulpenari buruzko irudi ez oso dinamikoa eta nahiko literala adierazten duela hor, edo, orobat, esaten duenean «*anaforiko direlako horiek gaitzetsi diren puntutik, ezina da hori* [perpaus nagusi batez eta hainbat perpaus mendekoz osaturiko periodoak egitea]. *Itzultzekotan, erabateko konpontze, aldatze eta azpikoz gora jartzeak egin behar dituzu; baina orduan ez duzu itzulpena egiten, beste lan berri bat baizik*», baina egoki asko ilustratzen ditu erlatiboak euskal itzultzaileei ekartzen dizkien buruhaustek.

---

<sup>3</sup> Berrikiago, Xabier Amurizak (2010, 2012) ere eman du antzeko iritzia, ez ordea itzulpengintzara mugatua: «*Euskaraz oraindik erlatiboaren zati handi bat airean daukagu, itzulinguru arbitrarioz eta, sarritan, okertzailez, baliatzen garela*». Eta ZEIN/NON erlatiboaren erabilera berreskuratzearen alde egon arren, bere hitzetan ez dago erabat libre erlatibo horiei buruz dagoen begirada ilunetik, inguruko beste hizkuntzetan harrigarria izango litzatekeen baieztapen hau esaten duenean: «*Erlatiboa egitura funtzional bat da. Ez da dotore edo literarioki erabiltzekoa, zuzen edo oker baizik*» (2010: 26)



Argi dago, beraz, buruhauste horiek ez zaizkiola egotzi behar euskararen hizkuntza-tipologia desberdinari, arazo horiek ez datozela euskarak ez dituelako inguruko hizkuntzen maila beretsuko tresna sintaktikoak periodo konplexu horiek osatzeko, baizik eta, alderantziz, sustrai ideologiko petoa duen joera estilistiko baten aldeko apustuak eragindakoa direla.

Nolanahi den, Villasante bera ere ez dago erabat libre egitura sintaktiko anaforiko horiek baliabide markatuztat hartzen dituen iritzitik, aipatutako saiakera horretan eta beste lan batzuetan ere sarri lotzen duelako egitura horien erabilera itzulpenarekin; aldarrikatzen du, bai, anaforikoak berreskuratu beharra euskarazko prosa aberatsagoa izateko, baina ez bereziki euskarazko jatorrizko testu idatzietarako, itzulpenerako baizik, nahiz itzulpenari oso goimailako estatusa aitortzen dion, «hizkuntzarentzat hil edo biziko kontua» baita haren iritziz. Eta oso argigarria da –baina baita murrizta ere gaur egun euskarak dituen erabilera-esparruen ikuspegitik–, itzulpenaz duen irudia:

Izan ere, hizkuntza bat ez da bere adin heldura eta larrira etortzen itzulpenen zeregin hau behar bezala normaldua ez duen bitartean, eta zoritxarrez euskara ez da oraindik horretara heldu (1988: 198).

Villasanteren lekukoa hartuz, beste batzuek ere lotu izan dituzte egitura sintaktiko horiek itzulpenarekin; adibidez, Alberdik eta Garcíak, “zein (...) bait-egitura”z dihardutelarik, honela diote:

Horregatik uste dugu egitura honek azterketa zehatzagoa behar duela; are gehiago, kontuan hartzen bada baliabide hau testu tekniko askotan eta itzulpengintzan oro har giltza izan daitekeela erdara batzuetako “periodo” luzeak egokitzapen larregi barik emateko eta bestelako zailtasun sintaktikoak gainditzeko (1996: 139).

Egia da, hala ere, Villasante baino urrutiago iristen direla eta, geroago, literaturarako, saiakerarako eta prosa landuko beste zenbait generotarako ere aldarrikatzen dutela erlatibo anaforikoen erabilera, hala nola kazetaritzako iritzi artikuluetarako, hizkera zientifikorako, edo giza- eta gizarte-arloko jakintzetako teknolekto berezi batzuetarako; erregistro jaso eta landuetarako, beti.

Alberdik eta Sarasolak ere bide beretsutik jotzen dute, egitura honen irudigure ustez anbigua ematen dutenean:

Euskara mintzatuan ez dirudi inon zabalkunde handia lortu duenik, baina hizkuntza idatzian –itzulpenetan eta hizkera teknikoan– aberasgarria ez ezik, saihesten zaila den baliabidea ere izaten da (2001: 208).

Oso esanguratsua da, izan ere, egitura hori hizkuntza idatzirako aberasgarritzat jotzen dutenean sartzen duten zehaztapena, hizkuntzaren erabilera jakin horietarako defendituko balute bezala espreski, baina irudi ez zeharo positiboa emanez (“saihesten zaila”).

Jarrera honek, ordea, badu, gure irudiko, halako kanon sintaktiko bikoitza sustatzeko arriskurik, bata “euskara jatorra”-ri dagokiona, erlatibo anaforikorik gabekoa, eta bestea itzulpenetako euskararako; eta kasu batzuetan behintzat gauzak hala direla pentsatzeko zantzurik ez da falta, Sanchok (2015) errusieratik euskararako literatura-itzulpenetako erlatiboari buruz egin zuen tesiko datuak<sup>4</sup> eta gure tesi honetako corpuseko euskal idazleen estilo sintaktikoa euren lanen itzulpenetakoarekin erkatu eta gero ateratako datuak ikusirik. Azterketa gehiago egin beharko dira, alabaina, literatura-itzulpenaren esparruan batez ere, zantzu horiek benetan berretsi beharrekoak ote diren ala ez argitzeko.

Azken batean, euskal literatura-sistemaren barruan ere gertatzen ari da seguru aski maila globalagoan gauzatzen ari den fenomeno bat: alegia, itzulpen batek, ontzat hartua izateko, erraz irakurtzeko modukoa izan behar duela, itzulia ez balitz bezala; edo, Touryk (1980, 1995) proposatzen duen egokitasuna/onargarritasuna dikotomiaren barruan, itzulpenak azken polo honetara makurtu behar duela. Venuti (1992: 4) estatubatuar irakasleak dioen moduan, «*A translated text is judged successful [...] when it reads fluently, when it gives the appearance that it is not translated*». Horrek inplikazio estilistiko eta sintaktikoak ere baditu, itzulpenaren maila horretako ezaugarriak XHren jatorrizko literaturarenekin berdintzeko joera bultzatzen baitu, gorago aipatu ditugun ahotsek diotenaren kontra.

---

<sup>4</sup> Ikus 2. kapituluko 2.3.2. puntua.

Izan ere, euskarazko itzulpengintzaren esparrua literaturaz kanpoko behar komunikatiboagoi eta erregistro apalagoi erantzuteko zabalduz joan den neurrian, ordea, nekez espero zitekeen Villasanteren edo Alberdi & Garcíaren iradokizuna jarraitua izango zenik, defentsa sutsuagoa egin ezean. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan bertan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak berak hobetsi du kontrako jarrera euskararen erabilerari buruzko zalantzak argitzeko xedez egindako argitalpen dibulгатibo batean, “alferrikako erlatiboai” buruz hitz eginez eta erlatiboaren izaera markatua argi eta garbi nabarmenduz, oso hitz adierazkorrez nabarmendu ere (azpimarrak gureak dira):

Jakina da zeinen zaila den gaztelaniazko erlatibozko perpaus luzeak euskaraz ematea. (...) Arazoa, gurean, larria izaten da, erdarak oso gustuko, berezko eta funtzionala duelako erlatiboa: esaldiak gehiegi korapilatu gabe harilkatzen dira mezua osatzen duten ekintzak eta sekuentziak. (...) Ikusten denez, arazo franko sor ditzake erlatibo demonio honek, erdarazko erlatiboa euskarazko erlatiboarekin emanez gero, atzerakarga itzelak sortzen baitira. Baina erlatiboa – hainbat lotura sintaktikoren antzera– ideia batzuen arteko harremanak esaldi batean antolatzeke modu bat baino ez da. Eta kontuan hartu behar da badugula euskaraz bestelako egitura erosoagoak erabiltzea erlatiboaren ordez. (...) Badira bai, beste bide batzuk erlatibozko esaldiak emateko, hala nola, ZEIN eta BAIT erlatiboa. Guztiz zilegi dira egitura horiek, idatzian kinka larri askotatik ateratzen laguntzen digutelako, pedanteak izateko arriskua badugu ere. (...) Dena dela, batzuetan, baliabide ona da maila jasoan idaztean eta itzulpengintzan. Izan ere, erdarazko periodo luzeko esaldiak euskaratzeko bidea errazten du, jatorrizko esaldien egitura gehiegi bortxatu gabe. Baina ez dugu jo behar auzo erdaretako erlatiboen ordain bakartzat. Kontuz, bada: ez erabili neurriz gain eta gogoratu, batez ere, idatzirako balio duela (2003: 230-8).

Kepa Altonagak ere eman digu ildo horretan doan beste zantzu bat, kasu honetan bereziki interesatzen zaiguna, itzulpen-ikasketen pedago-giarako ondorioak inplikatzan dituelako:

Egungo prosa euskaraz irakurrita, ematen du inork ez duela erlatibo anaforikorik armairuan. Ez dute idazleek eta ez dute itzultzaileek. Basaltotuta utzi ninduen Xabier Payák erlatiboa dela-eta botatakoak, gorago aipatu dugun Senez aldizkariaren 32. zenbakiak dakarren “Bertsolariak ere itzultzaile” mahai-inguruan:

*“[...] unibertstatetik pasatuta, hainbat irakasle, hainbat ahots eta hainbat irizpide [...] ni behintzat itzultzaile oso sumisoen labekadakoa naiz [...] ez dago erantzunda erlatiboa behar bezala itzultzeko modurik, baina bai saihesbideak [...] Guri hala irakatsi ziguten: puntu eta koma jarri, puntua jarri, beste esaldi bat” [...]*

Zerk egin du huts gure artean errient ilun batek inolako zalantza barik transmititzen zuen baliagai preziatu hori "puntu eta koma" bihur dakigun, non-eta unibertsitateko ikasgeletan? (2015: 111-115).

Laburbilduz, euskararen inguruko hizkuntzetan eta bereziki gaztelaniaz perpaus erlatibo ez-murrizgarrien bitartez eratzen diren klausula esplikatiboetan topatzen da gaur egungo euskarazko prosa-eredua eta inguruko beste hizkuntza horietakoa gehien banantzen dituen prozedura sintaktikoa; horren arrazoia XX. mendeko garbizaletasunak bultzatutako anaforikoen arbuioa da, zeinen eragina oraindik ere oso nabaria den, batik bat jatorrizko euskal prosagintzan, baita literaturan ere; baina zantzuak badaude esateko euskararako literatura-itzulpengintzan eta erregistro jasoko itzulpenetan ere eragina duela, erlatibo anaforikoen erabilera bultzatzearen aldekoen diskurtsoaren gainera.

Tesi honetan, ekarpen bat egin nahi diogu euskarazko prosa-ereduaren ustezko bilakaera horren azterketari, euskal idazle garaikiderik esanguratsuenetako batzuen testu batzuk eta haien gaztelaniarako itzulpenak konparatuz. Gure azterketan ikertu nahi dugu ea halako joera komun orokor batzuk topa daitezkeen corpuseko itzulpenetan, eta, orobat, ea joera horiek itzulpen-tipologia desberdinetan aurkitzen diren. Azterketa horretarako erabiliko dugun metodologia Álvarez Lugerís irakasleak azken urteotako Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboetan oinarrituz Vinay & Darbelnet-en Estilistika Konparatua hobetzeko proposatu duen ereduarena da; hau da, corpus esanguratsu bateko literatura-testu batzuen jatorrizko eta itzulitako bertsioren konparaketa deskriptiboa, kasu honetan sintaxi mailako arazo bati aplikatua. Datozen ataletan, metodologia horren oinarri teorikoak azalduko ditugu.

## **1.2. Itzulpengintzaren ikerketa**

### **1.2.1. Translatologia linguistikoa**

Duela ia mende erdia sortu eta hasi ziren garatzen "Translation Studies" edo Itzulpen-Ikerketak deritzenak. 1972an James S. Holmesek jakintzagaiaren izenari eta izanari buruzko proposamen batzuk aurkeztu zituen artikulu batean. Haren arabera, Itzulpen-Ikerketek, itzulpena prozesu gisa eta emaitza gisa hartuta, haren barruko fenomenoaren multzo osoa kontuan hartu behar

zuen disziplina zientifiko hutsa izan behar zuten, disziplina beregaina, bere tresna bereziekin, metodologia propioarekin eta ikergai ondo zehatz eta mugatuarekin.

Baina ordura arte, XX. mendearen erdialdetik ordura arte zehazki, itzulpena Hizkuntzalaritzaren iker-esparruan kokatuta egona zen, nahiz eta berez disziplina hori oso berandu hasi zen jarduera honetaz arduratzen; berez, traduktologia linguistikoa izan zen itzulpenari buruzko aurreko ikerketen izaera ez-sistematikoa gainditu zuen lehena, eta 50eko hamarkadaz gero hainbat gogoeta teoriko hasi ziren sortzen hizkuntzalaritzaren oinarri eta metodologia zientifikoan oinarriturik itzulpengintza eta hizkuntzen arteko harremanak aztertzeko; arrazoi nabarmen bat zegoen interes berri horretarako: garaitsu hartan, Bigarren Mundu Gerraren ondoren bultzada handia hartu zuten nazioarteko erakundeen eraginez eta herrialdeen arteko harreman komertzial eta kultural gero eta estuagoen ondorioz itzulpengintzak izan zuen gorakada, hain zuzen; itzulpen eta interpretazio alorreko profesionalen behar handiak itzulpenaren irakaskuntza eta ikerketa bultzatu zituen, eta geroztik ikerketak garapen oso handia izan du, itzulpengintza beste hainbat jakintzagarekin lotuz eta itzulpen-teoriak jakintzagai horien aurrerapenez aberastuz; haien artean, hizkuntzalaritzaz gain, soziolinguistika, semantika, antropologia edo etnolinguistika.

Esan bezala, hasierako garaietan, itzulpenaren teoria hizkuntzalaritzaren marko metodologikoaren barruan kokatu zen, itzulpen-prozesuko eragiketek izaera linguistikoa zutela irizten baitzen. Horrela, traduktologia errusiarrek ekin zion itzulpenaren ikerketari Hizkuntzalaritzaren abiapuntuetatik, Fedorov-ek (1953) defenditu zuenean itzulpena beste hizkuntza-jarduera bat dela, horregatik Hizkuntzalaritzak izan behar duela itzulpen-jarduera guztien oinarria eta itzulpen-teoria Hizkuntzalaritzaren disziplina multzoaren barruan sartu behar dela.

Mounin hizkuntzalari frantsesak salatu eta guzti egin zuen ordura arte Hizkuntzalaritzak itzulpenarekiko izandako ezaxola; izan ere, tradizio luze batek literaturaren barruko artisautza mirabetzat hartzen zuen itzulpena, artetik hurbileko jardueratzat kasurik onenean, literatura-itzulpenaren kasuan,

alegia. Mouninek onartzen zuen itzulpengintza arte bat badela, medikuntza bera ere den bezala, baina sutzuki defenditu zuen, medikuntzaren modura, itzulpenak ere zientzia baten gainean egon behar duela irmo oinarrituta:

[...] toute opération traductionnelle comprend une série d'analyses et d'opérations qui relèvent spécifiquement de la linguistique et que la science linguistique appliquée correctement peut éclairer plus et mieux que n'importe quel empirisme artisanal (1963: 16).

Mouninek garbi zuen Hizkuntzalaritzan aipatzen zen itzulpen-ekintzaren ezintasun edo ahaltasuna zientzia linguistikoaren esparruan bakarrik argi zitekeela eta horregatik zientzia maila eman nahi zion traduktologiari, Hizkuntzalaritzaren bitartez eta itzulpenari buruzko ikerketa linguistikoa haren adar bat bihurtuz. Izan ere, garai hartara arte, Hizkuntzalaritzak bazterrean utzia zuen ia erabat itzulpena, hizkuntza delako haren ikergaia, eta hizkuntzalariaren egitekoa, beraz, hizkuntza horrek dituen egitura formalak deskribatzea, ikuspegi elebakar edo intralinguistiko batekin. Ezin da ahaztu, gainera, beste jarrera batzuetatik ere auzitan jartzen zela itzulpenak Hizkuntzalaritzaren ardurapeko ikergaia izan behar zuenik; adibidez, Edmond Cary (1956) itzultzaile eta traduktologo frantsesak itzulpena literatura-jardueratzat ("*art sui generis*") hartzen zuen eta espreski ukatzen zuen jarduera linguistikoa zela.

Hizkuntzalaritzaren XX. mendeko korrante nagusiek –Estruktura-lismoak eta Gramatika Sortzaileak–, ez zioten ekarpen berezirik egin itzulpen-teoriaren garapenari, besteak beste hizkuntzaren barne-deskribapenaz interesatuta zeudelako nagusiki, ez hizkuntzen arteko harremanez; eta itzulpenaren alorreko adituak izan ziren itzulpena hizkuntzalaritzaren kontzeptu eta metodologiak erabiliz aztertzen hasi zirenak, Catford-en baieztapen honetan ikus daitekeen bezala:

Since translation has to do with language, the analysis and description of translation-processes must take considerable use of categories set up for the description of languages. It must, in other words, draw upon a theory of language –a general linguistic theory (1965: vii).

Catfordek Hizkuntzalaritza Aplikatuaren ikuspegitik ekin zion itzulpenaren ikerketari, bere ustez itzulpena esparrurik egokienetako bat baita

hizkuntzalaritzaren adar horren helburuetarako, baina Hizkuntzalaritza Kontrastiboaren esparrutik urrundu gabe, itzulpen-teoria hizkuntzen arteko harremanaz arduratzen delako.

Hartara, aztertzaileek Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik heldu zioten fenomenoari eta itzulpengintza hizkuntzaren funtzio edo gauzapean soil bat bezala hartua izan zen, hizkuntza baten kategoriak beste hizkuntzei ezartzen saiatuz. Traduktologia linguistikoa, beraz, hizkuntzalaritza konparatu edo kontrastiboaren adar aplikatu bat bezala aurkezten zen eta itzulpen-jardueraren arazo guztiak konpontzeko arauak finkatuko zituzten ikerketa-ereduak eraiki zitezkeela uste zuen. Itzulpen automatikoaren alorrean egindako esperimentuen argitan, posibleztat jotzen zen itzulpena transkodatze linguistiko soil bat bezala begiztatzea.

Hizkuntzalaritza tradizionalaren eraginaren ondorioz, itzulpenari buruz egin ziren teoriak oso izaera arautzailea zeukaten; alegia, gramatika tradizionalak hizkuntza zuzen erabiltzeko bete beharreko arauak hornitzen zituen bezala, itzulpen teoriak hizkuntza batetik beste batera zuzen itzuli ahal izateko bete beharreko arauak eta, ondorioz, itzulpenaren kalitatea ebaluatzeko irizpideak eskaini nahi izaten zituzten.

Horrela, Catfordek itzulpen batzuen azterketan oinarriturik SH eta XHko hizkuntza-unitateen arteko baliokidetasunerako arauak ezartzea proposatu zuen, baina hizkuntzalaritza kontrastiboari dagokion kode-trukaketa soil batean geratuz, itzulpen-ekintza batek berezko duen konplexutasunetik urrun. Vinay & Darbelnet-ek (1958), geroago arreta handiagoz ikusiko dugun bezala, hizkuntzen arteko azterketatik eta egoera-baliokidetasuna kontuan hartuz ateratakoak eta ia mekanikoki egiteko modukoak diren itzulpen-eragiketa multzo edo "prozedura" batzuk proposatu zituzten, eta itzulpen-metodoa deitu zioten; «*la première vraie méthode de traduction fondée explicitement sur les apports de la linguistique*», Laroserren (1989: 11) arabera.

Hizkuntzalaritzan oinarritutako itzulpen-teoria hauek, bestalde, sorburu-testuari funtsezko garrantzia ematen jarraitu zuten, itzulpena literatura-jardueratzat hartzen zuen korrontek egiten zuen bezalaxe, bestalde. Horrela,

Nidak (1964) eta Nida & Taber-ek (1969) diote STa eta haren mezua funtsezko erreferentzia direla itzulpen-prozesuan, eta horren arabera definitzen zuten itzultzailearen egitekoa: SHko mezua baliokide natural ahalik eta hurbilena ematea XHn, lehenik esanahiaren aldetik eta gero estiloaren aldetik. Jarrera honen atzean Nidak Bibliaren itzultzaile gisa zeukan esperientzia dago, zeinean jatorrizko mezuarekiko leialtasunak garrantzi teoriko erabatekoa duen. Nidaren arabera, XTko hartzaileek jatorrizko testuak STko hartzaileengandik lortzen duen erantzun berbera ematea izan behar du itzultzailearen helburua, eta horren arabera izango da itzulpenaren kalitatea. Horretarako, Vinay & Darbelneten "baliokidetasun" kontzeptuan oinarrituta, "baliokidetasun dinamikoaren" ideia garatu zuen, «*the closest natural equivalent to the source language message*»: hots, baliokidea, SHri begira; eta naturala, XHri begira. Eta itzulpenaren ebaluaketarako, hiru irizpide jartzen zituen: batetik, komunikazio-prozesuaren eraginkortasun orokorra; ondoren, mezuan datzan xedearen ulerkuntza; eta azkenik, bi hartzaile multzoetan (sorburu-hartzailearengan eta xede-hartzailearengan) antzeko erantzuna lortzea. Hortaz, Nidak itzulpenaren komunikagarritasunari ematen zion berebiziko garrantzia, itzultzailearen helburua XHn mezu argi eta ulergarria lortzea baita, eta helburu horri begira guztiz funtsezkoa da testuaren funtzioa, egoera komunikatiboa, kulturartekotasuna eta testuaren egoera pragmatikoa bezalako kontzeptuak aintzat hartzea, besteak beste kultura mailako desberdintasunek arazo gehiago sor diezaizkioketelako itzultzaileari hizkuntzen arteko desberdintasunek baino.

Dena den, geroagoko aztertzaile batzuek, Newmark-ek (1981) adibidez, baliokidetasun kontzeptuaren azterketa sakonagoaren beharra planteatu dute, Nidaren definizioa lausotzat hartuz eta zalantzan jarriz STaren egileak eta itzultzaileak buruan antzeko hartzaileak izan arren beste faktore batzuek ez dutela eraginik izango itzulpenaren estiloan. Rabadan-ek (1991) kritikatu du baliokidetasun kontzeptuaren ardatza ezin dela jatorrizko testuan jarri, baldin eta xede-hartzaileen aldetik onargarritasun maila handia lortu nahi bada.

Hala ere, Nida & Taberren ekarpena oso garrantzitsua da besteak beste traduktologiari orientazio linguistiko hutsa kentzen jakin zutelako eta lehendabiziko aldiz sartu zutelako espreski xede-hartzailea, bai eta testu itzuliaren harrera ere, jakintzagaiaren eskema teorikoan, eta horrexegatik



hartzen da haien lana XX. mendeko "itzulpen-zientzia" ikerketa-eremu berriaren oinarritzat. Gainera, bi autore hauek oihartzun handia utzi zuten geroagoko hainbat proposamen eta ikerketatan.

Nidaren teoriaren ildotik, Reiss & Vermeer-ek (1984) sorburu-hizkuntzara orientaturiko itzulpen-eredu bat proposatu dute, suposatzen duena STaren ezaugarri batzuek eta testu horrek sorburu-kulturan duen errolak baldintzatu egiten dutela testu hori itzultzeko modua. Beste era batera esanda, itzulpenaren kalitatearen neurria STan oinarritzen dute haiek ere: itzulpen bat ona da STa bere dimentsio guztietan –hala linguistiko nola kulturaletan– erreproduzitzen duenean. Eta itzulpena ebaluatzeko irizpide nagusia haientzat ere testuaren "skopos" edo xede komunikatiboa da, bai eta testua xede hori lortzearren nola egokituta dagoen ere. Horrela, itzulpen batek jatorrizkoarekiko duen egokitasun kontzeptua bereizten dute baliokidetasun kontzeptutik, azken hau STak eta XTak funtzio komunikatibo berdina izateari egozten diotelarik. Arazoa da, ordea, nola jakin daitekeen praktikan zertan datzan halako itzulpen baten egokitzapena edo baliokidetasuna; Reiss & Vermeer-en proposamenari itzulpenen ebaluaketarekiko gehiegizko interesa leporatu izan zaio, bai eta itzulpen-prozesuaren deskribapenerako ez duela balio ere.

Itzulpenaren azterketaren lehen fase honetako proposamenak kritikak jasotzen hasi ziren, batetik oso arauemaileak zirelako, STaren estatusa goratu egiten zutelako itzulpenaren neurri eta patroia bihurtzeraino eta, batez ere, itzulpenaren jarduera profesional eta akademikorako aplikatzeko moduko emaitza baliagarri gutxi eskaintzen zutelako. Horrela, azken bi hamarkadotan, autore batzuk kritikatzeko hasi dira itzulpenaz arduratu direnek itzulpen-emaitzaren azterketara mugatu direla, eta prozesua ere aztertu behar dela aldarrikatzen hasi dira. Horrela, Neubert & Shreve-k ikuspegi enpirikoa aldarrikatzen dute, haien arabera itzulpen-jarduera praktikoa behaketan oinarritu behar baitu Itzulpen-ikerketak. Orobat, kritikatzeko dute itzulpen-adituek idazten dutena eta itzulpen-irakasleek irakasten dutena kontraesankorra izaten dela sarritan, eta azpimarratzen dute aztertzaile batek itzulpenaz ematen duen irudia eta profesional batek ematen duena desberdinak izango direla beti, itzulpena prozesu dinamiko bat baita zeinean «*the translator makes*

*strategic choices and realizes from a range of textual possibilities a single target text*», eta horregatik «*each translation is always different*» (1992: 11). Eta egoera hori hobetzearren, proposatzen dute teoria eta praktika berriro uztartzea, itzulpen-jardueraren zuzeneko behaketan oinarrituz itzulpen-teoriak eraikitzeko.

George Steiner bezalako itzulpenaren aztertzaile aditu bat itzulpen-teoria kontzeptua bera zalantzan jartzera iritsi da, hizkuntzari loturik dagoelako eta hizkuntzak, organikoak diren gauzak bezala, etengabeko bilakaeran daudelako:

I believe that 'theories of translation' are an arrogant misnomer. The concept of 'theory', entailing as it must that of crucial experiments and falsifications, is, as I have said, when invoked by the humanities, largely spurious. Its prestige in the current climate of humanistic-academic studies derives from an almost pitiable endeavor to ape the good fortune, the public status of the pure and applied sciences. The diagrams, the arrows with which 'theoreticians' of translation adorn their proposals are factitious. They can prove nothing (1997: 127).

Bell irakaslearen arabera, porrot egin da erabilera praktikoa duen itzulpen-teoria bat eraikitzeko orduan; eredu teoriko batek, onartzen du, ez lituzke konponduko itzultzailearen arazo guztiak, baina arazoak enfokatzeko eta itzulpen-ekintzan parte hartzen duten dimentsio desberdinak uztartzeko behar diren estrategiak behintzat eskaini beharko lituzke. Haren esanean:

It is, no doubt, the seeming chaos of variation faced in texts by translators and the inevitable inability of a theory of translation to be strongly predictive which has led some to go so far as to deny the very possibility of creating a 'single valid comprehensive theory of translation' and fall back on stressing the 'subjective', 'craft' nature of the activity (1991: 9).

Horregatik, hiru itzulpen-teoria desberdin kontuan izatea proposatzen du: bata, itzulpena prozesu gisa aztertzen duena; bigarrena, produktu bezala aztertzen duena; eta hirugarrena, bai prozesua eta baita produktuaren azterketa uztartzen dituen, eta epe luzean Itzulpen-Ikerketen helburua izan beharko lukeena.

Azken urteetan, itzulpenari buruzko ikerketek itzulpenaren alderdi supraorazional, supratestual eta peritestuak eskaintzen diete arreta, edo, itzulpena beste giza zientzien ikergai bihurtu den neurrian, itzultzaileak kulturarteko harremanetan (Pym, 1992), testuinguru postkolonialetan

(Tymoczko, 1999) edota feminismoaren "Gender Studies" direlakoan koordenaden arabera (Godard, 1990) izan dezakeen eta izan behar duen eginkizun sozialari. Ikerketa hauek, alabaina, itzulpena produktu bezala aztertzen dute, eta gero eta gehiago dirudi itzulpen-ikerketen beste adar bat eraiki dutela –zenbaitek "literatura-translatologia" izenez definitu dutena–, itzulpena Hizkuntzalaritzaren parametroen barruan prozesu gisa aztertzen duten ikerketetatik urrunduz; izan ere, itzulpen-produktuari buruzko ikerketa hauek ez dute prozesuari buruzko azterketaren behar handirik; baina, hala ere, zenbait adituk (Mayoral, 1997, 1999) aldarrikatu egiten dute itzulpen-produktuaren azterketa itzulpen-prozesua ikertzeko tresna baliagarri bezala; haien ustez, itzultako produktuari buruzko ikerketak argia eman diezaiokie itzulpena egiteko burutu den edo burutu behar den prozesuari (adibidez, azpigitulu batek ikusleengan duen eragina aztertzeak argitasuna eman diezaguke itzulpen hori egiteko bete den prozesuaren kalitateaz). Bestalde, batzuek uste dute itzulpena kultura-produktu gisa aztertzeak lagun dezakeela ulertzen zergatik hartu duen itzultzaileak halako itzulpen-estrategia jakin bat. Ikuspegi hau, gure ustez, eraginkorra izan daiteke gure tesiaren helburuei begira, gure corpuseko itzultzaileek hartutako hautuak azaltzeko, laugarren kapituluan ikusiko dugun bezala.

Nolanahi, beste hainbat autorek behar-beharrezkotzat jotzen dute oraindik itzulpenaren eta hizkuntzalaritzaren arteko harremana zehaztea, bi jakintzagaiak hizkuntzaz eta hizkuntzaren funtzioez arduratzen direlako, ikuspegi batetik edo bestetik. Horrela, López Guix & Minett Wilkinson (1997) ikerlariak funtsezkotzat jotzen dute hizkuntza eta haren funtzionamendua azaltzeko ereduak kontuan izatea itzulpenari buruzko teorizazioetan, itzulpenaren bi eragiketa oinarrikoak ulermena eta adierazpena direlako, hots, hizkuntza batean dagoen testu baten interpretazioa eta beste hizkuntza batean egin beharreko birformulazioa. Haien arabera, ez pentsamendua ez hizkuntzaz kanpoko errealitatea ere ezin dira banandu hizkuntzaren barne arauetatik ez eta hizkuntzak tresna sozial bat izanik duen komunikazio eta elkarreragin helburutik ere. Horregatik diote badirela hiru faktore nagusi itzultzaileak egiten duen lana baldintzatzen dutenak eta hizkuntzalaritzaren eta itzulpen-teoriaren arteko harremana bistaratzen dutenak: gramatika, erabilera eta kultura. Lehendabizikoaren aldetik, hizkuntza guztiak ez daude berdin egituratuta; bakoitzak bere gramatika dauka eta halako egitura desberdin batzuk.

Bigarrenaren aldetik, hizkuntza-adierazpen oro halako testuinguru batean txertatuta dago eta halako xede jakin batekin; horregatik, itzultzailea ezin da mugatu egitura sintaktikoak soilik analizatzera. Eta hirugarrenaren aldetik, hizkuntza hiztunaren harreman soziokulturalen eremuan garatzen da, eta horregatik jokamolde-arau kolektiboen menpe dago.

### **1.2.2. Itzulpena Aplikatutako Hizkuntzalaritza**

Itzulpenaz arduratu den Hizkuntzalaritzaren beste adar bati Itzulpena Aplikatutako Hizkuntzalaritza deitu izan zaio. Berez, Hizkuntzalaritza Aplikatua 40ko hamarkadan sortu zen Estatu Batuetan, bigarren hizkuntzen irakaskuntzari loturik, baina 60ko hamarkadatik aurrera beste esparru batzuetara hedatu zuen bere interesa, hala nola lehen hizkuntzaren irakaskuntza, testuen trataera automatizatua, hiztegiak eta itzulpengintza. Hizkuntzalaritza Aplikatuko teorialarien arabera, hizkuntzalaritzaren ikerketa hizkuntzaren deskribapenera eta, beraz, alderdi estatikora mugatzen da, eta Hizkuntzalaritza Aplikatuak, berriz, hizkuntzaren erabilera desberdinetatik eratorritako arazoak konpontzea bilatzen du, komunikazioa da beraz haren ikerketa-esparru naturala, eta, horregatik, disziplinarrekotasuna da haren ezaugarri behinena.

Hizkuntzalaritza Aplikatuarentzat, itzulpengintza ikerketa-alor ezin egokiagoa da bi sistema linguistikoren azterketa konparatua egiteko, eta hori izan da Hizkuntzalaritza Kontrastiboa deitu denaren helburua; ikerlari batzuentzat Hizkuntzalaritza Aplikatuaren osagai bat den jakintzagai hau ere, berez, bigarren hizkuntzen irakaskuntzari loturik sortu zen, hizkuntzak konparagarriak izan daitezkeelako ustean oinarrituta eta, horrela, bi hizkuntza edo gehiagoren arteko berdintasunak eta desberdintasunak agerian jartzeko metodo modura. Santos Gargallok honela definitzen du: «*Ciencia que se ocupa del contraste sincrónico y sistemático de dos o más sistemas lingüísticos*» (1993: 30).

García Yebrak ere defenditzen du itzulpengintza Hizkuntzalaritza Aplikatuaren esparruan sartzeko dela: «*El estudio de la traducción es una rama de la lingüística aplicada*» (1982: 16); ezin baita ukatu itzulpena ezin dela

analizatu oinarri linguistiko bat izan gabe, nahiz egia izan itzulpen-jardunean topatzen diren arazo guztiak ez direla soilik linguistikoak. Gauzak horrela, Itzulpenera Aplikatutako Hizkuntzalaritzak, Rabadán eta Fernández Polorentzat honako helburua du:

Ayudar a comprender en la primera fase dónde están los problemas de traducción y cuál es su naturaleza (debe servir de instrumento para el análisis del texto original); y, del mismo modo, ayudar a sopesar las posibles soluciones que se presentan para un problema concreto en la fase de recomposición del texto meta (1996: 126).

Gure tesiari begira, Hizkuntzalaritza Aplikatuaren barruan, Vinay & Darbelneten Estilistika Konparatua interesatzen zaigu bereziki, lehendabiziko aldiz konparatzen baitzituen bi hizkuntza itzulpengintzaren ikuspegitik. Era berean, hizkuntzalaritza testualak, eta haren barruan testologia kontrastiboak ere uste dugu ekarpen interesgarriak egin dituela gure azterketari eman diogun norabidean, eta horregatik nolako oinarrien gainean eraikita dauden ikusiko dugu.

### **1.2.2.1. Vinay & Darbelneten Estilistika Konparatua**

1958an argitaratutako lan honek frantsesaren eta ingelesaren arteko ikerketa konparatiboa egiten zuen, Kanadako erkidego elebidunaren zuzeneko behaketatik abiatu, eta etapa berri bat ireki zuen itzulpenari buruzko teorizazioen historian, hizkuntzalaritzaren teoria berriak erabiltzen baitzituen itzulpena ikerketa zientifikoaren alorrean kokatzeko eta artearen esparrutik ateratzeko:

Ce serait, croyons nous, faire un grand tort à la traduction que de la classer sans examen parmi les arts, un huitième art en quelque sorte. Ce faisant, on lui refuse une de ses qualités intrinsèques, son inscription normale dans le cadre de la linguistique (1958: 23).

Beren azterketari maila zientifikoa ematearren, autoreek hizkuntzalaritzaren oinarrietatik ekin zioten beren lanari, Charles Ballyk estilistika frantsesaz egindako ekarpenetako analisi-tekniketan oinarrituz. Nolanahi, itzulpen-ikerketen fase goiztiar honetan, bi ikertzaileek hizkuntzen erkaketan kokatu zuten beren proposamenaren definizioa: «*stylistique externe (ou comparée) qui observe les caractères d'une langue tels qu'ils apparaissent*

*par comparaison avec une autre langue*» (Íbid.: 15). Itzulpen-metodo modura aurkezten zuten arren, haien ikuspegia erabat linguistikoa zen, eta, helburu pedagogikoa izanik, haien jomuga ez ziren artean ere itzulpen alorreko ikasle edo adituak bakarrik, baina baita hizkuntza-ikasleak edo hizkuntzen ikertzaileak ere, nahiz eta haien arabera EKren egitekoa itzulpenaren funtzionamendua azaltzea eta itzulpenerako balio duten legeak argituz itzulpen-ekintza erraztea zen:

La traduction est indissociable de la stylistique comparée, puisque toute comparaison doit se baser sur des données équivalentes. Mais la reconnaissance de ces équivalences est un problème de traduction... La stylistique comparée part de la traduction pour dégager ses lois; le traducteur utilise les lois de la stylistique pour bâtir sa traduction (Íbid.: 21)

Vinay & Darbelneten ereduak, ordea, hizkuntzalaritzak garai hartan itzulpenaz zeukan ikusmolde sinplifikatua partekatzen zuen, ez baitzuen itzulpen-prozesuaren konplexutasuna kontuan hartzen, eta, gainera, gramatika tradizionaletik jarauntsitako planteamendu arauemailea beretua baitzuen, goiko baieztapenak erakusten duen bezala. Haien arabera, ikerketak lagundu egin dezake hizkuntza batetik bestera itzultzeko prozesua gobernatzen duten legeak eraikitzen, eta, beraz, lege horiek ezagutzea eta betetzea aski izan daiteke itzulpen on bat egiteko. Itzulpenari buruz ematen duten definizioan bertan islatzen da proposatzen duten jakintzagaiaren izaera arauemaile hori: *«le passage d'une langue A à une langue B, pour exprimer la même réalité [...] relève d'une discipline particulière, de nature comparative, dont le but est d'en expliquer le mécanisme et d'en faciliter la réalisation par la mise en relief de lois valables pour les deux langues considérées»* (1958: 20).

Era honetan, kasu guztietarako aplikagarriak izango ziren itzulpen-prozedura tekniko batzuk proposatzen zituzten, itzultzaileak bere lana egoki betetzeko. Horrela, hizkuntza-parearen ezaugarri lexiko eta sintaktikoak antzekoak izanik "zuzeneko itzulpena" (*traduction directe*) egitea posiblea denean, itzultzaileak hiru prozedura edo teknika erabiltzen ditu: mailegua, kalkoa eta hitzez hitzeko itzulpena; aldiz, bi hizkuntzen artean egiturazko desberdintasunak daudelako zuzeneko itzulpena ezinezkoa denean, "zeharkako itzulpena" (*traduction oblique*) egin beharko du, lexiko eta sintaxi mailako moldaketa batzuk eginez XTan, STaren efektu estilistikoari eusteko; zeharkako itzulpeneko prozedura edo teknika horiek beste lau dira nagusiki:

transposizioa, modulazioa, baliokidetza eta egokitzapena.

Zazpi prozedura edo teknika hauek dira haien ekarpenik iraunkorrena, klasiko ere bihurtu eta hainbat itzulpen-eskuliburutan jasota daudelarik itzulpen-arazo jakin batzuen aurrean itzultzaileek erabilitako irtenbidea azaldu edo sailkatzeko; hala ere, Delislek asko kritikatu du bi autoreen ikusmoldea, bere ustez ezin delako esan kategoría horiek berez itzulpen-prozedurak direnik. Horrela, adibidez, transposizioa mezuaren zentzua aldatu gabe diskurtsoaren kategoría sintaktiko bat beste kategoría batez ordezkatzeari dela esateak ez du ezertan ere laguntzen itzulpen bat egiteko, transposizio hori itzulpen burutuaren emaitza delako, ez haren sorburua. Eta prozedura bat, izatez, halako emaitza bat lortzeko jarraitu behar den metodo bat da, itzulpena egiteko teknika bat alegia, eta Vinay & Darbelneten prozedura horiek emaitzei loturiko etiketak besterik ez dira:

Le terme "procédé" est abusif, le domaine de la stylistique comparée n'étant pas le processus de l'établissement des équivalences, mais la description des particularités rattachés aux paires d'équivalences étudiées (Delisle, 1980: 88).

Izan ere, SHko enuntziatu batek, testuaren funtzio, estilo edo testuinguruari dagozkion zertzelada batzuen eraginez, itzulbide desberdinak izan ditzake XHn, prozedura bat baino gehiago posible direlarik praktikan. Gure tesira etorritik, EKren eredu honek ez lituzke ontzat hartuko gure corpusaren ikerketan topatu ditugun baliokidetasun testual gehienak, eta ez luke azalpenik edukiko topatu ditugun itzulpen parafrastiko edo desplazamendu ("*shift*") sintaktiko ugarietarako, non eta ez den itzulpen okerrak direla edo, gutxienez, direlako itzulpen-legeen arabera "egokiagoak" diren beste itzulbide batzuk baino zuzentasun-maila gutxiagokoak.

Horregatik, autore hauen EKk proposatzen dituen kategoriek ez dute balio exegesiaren eta berradierazpenaren unean eta ezin dira itzulpen-arau praktikotzat hartu. Itzulpen-teorialari ugari agertu dira ados Delisleren goi-ko iritzi horrekin. Adibidez, Rabadánek & Fernández Polok (1996: 110) diote-nez, kanadarrek kode-truke baten modura hartzen dute itzulpena, komuni-kazio-ekintzan parte hartzen duten -eta, besteak beste, gure corpuseko itzulpen-hautuetako asko azaltzen dituzten- bestelako faktore testual, pragmatiko eta estralinguistiko edo kulturalak kontuan izan gabe. Pentsa dezagun, adibidez, zer gertatzen den itzulpeneko hizkuntza-parea gizarte elebidun bereko bi

hizkuntza direnean eta, euskararen kasuan bezala, haietako bat egoera diglosikoan dagoenean eta, gainera, hizkuntza horren estatus-normalizazioa ez ezik, corpus-normalizazioa ere burutze bidean dagoenean; bistan da egoera horrek ezinbestez eragina izan behar duela itzulpen-prozesuan eta baita produktu bezala ulertutako itzulpenean ere.

Bi ikertzaile kanadarren itzulpen-prozedura direlako horiek itzulpenari buruzko nolabaiteko ikuspegi mekanikoa ematen duten bezala, gauza berbera gertatzen da erabiltzen duten analisi-metodologiarekin ere: berau itzulpen-unitateetan oinarritzen da, hau da, pentsamendu bat adierazten duten osagai lexikoen multzoetan, multzo horrek izan behar duelarik enuntziatuaren segmentu-atalik txikiena eta haren barruko kohesioagatik banaezina. Kontuan izan beharra dago denbora luzez hitza hartzen zela oinarrizko itzulpen-unitatetzat; bi ikerlarienezat, ostera, unitate hori ez da baliagarria itzulpengintzan, zeren, hasteko, hitz kontzeptuaren beraren ezaugarri formalak ez baitaude garbi, eta, batez ere, itzultzaileak ideiak eta sentimenduak itzultzen baititu, eta ez hitzak. Haienezat, beraz, pentsamendu-unitateak ("*Unités de pensée*"), unitate lexikologikoak eta itzulpen-unitateak termino baliokideak dira eta errealitate berbera islatzen dute ikuspegi desberdin banatatik.

Arazoa da bi autoreek hainbat unitate mota desberdin aipatzen dituztela; mezuari dagokionez duten egitekoaren arabera, lau dira itzulpen-unitate nagusiak: 1) unitate funtzionalak (zeinetan osagaiak bi hizkuntzetan funtzio gramatikal bereberan parte hartzen duten); 2) unitate semantikoak (zentzu-unitatea osatzen dutenak); 3) unitate dialektikoak (arrazoiketa berbera egituratzen dutenak); eta 4) unitate prosodikoak (osagaiak intonazio berean parte hartzen dutenean). Baina, gero, unitate horien eta testuko hitzen arteko harremanari begiraturik, beste unitate-tipologia batzuk bereizten dituzte: unitate bakunak, diluituak, frakzionarioak, aditz lokuzioak, adjektibo lokuzioak, adberbio lokuzioak, etab. Zerrenda luzeegia egiten dute, eta ez oso praktikoa, osagai linguistiko bat kategoria bat baino gehiagoren barruan kokatua egon daitekeelako (juntagailuak, adibidez, unitate dialektikoak eta funtzionalak izan daitezke aldi berean). Gainera, azken batean, hizkuntzalaritza estrukturalaren taxonomiaren unitate formalekin kointziditzen dute neurri handi batean, eta, berez, unitate lexikologikoak dira, hizkuntza bakoitzean modu desberdinetan osatuta daudenak. Bestetik, itzulpen-unitateetan oinarritzen den



baliokidetasuna finkoa da, **a priori** ezarria, eta, beraz, itzultzaileak ezinbestez erabili beharrekoa, arauzkoa, SHtik arautzen baitu XHko emaitza "baliokidea". Horrela, autoreek berek emandako adibide bat hona ekarriz, frantsesezko "*fermer á clef*" esamoldea ingelesez "*to lock*" itzuli behar da, edo ingelesezko "*to report progress*" frantsesez "*tenir (quelqu'un) au courant*" izango da beti. Bitxia da autoreok kategoria hauekin egiten dutena, zeren eta, ikerlan honetan testuinguruaren garrantzia bereziki azpimarratzen duten arren<sup>5</sup>, gero itzulpen-unitateen adibide guztiak inolako testuingururik gabe zerrendatzen baitira, ezin jakin daitekeelarik horrela benetan baliokidetasun horiek zuzenak diren ala ez testuinguruaren arabera.

Hala ere, itzulpen-unitate kontzeptua bera aurrerapauso handi bat izan zen, eta gaur egungo traduktologiaren funtsezko nozioetako bat da.

Azkenik, haien ikerketan oso garrantzitsua den baliokidetasun kontzeptuaren kasuan ere antzematen da itzulpenari buruzko halako ikuspegi mekanizista. Haien arabera, testuen baliokidetasuna egoeren baliokidetasunean datza, baina baliokidetasun hori itzulpen-prozedura bat da: «*procédé de traduction qui rend compte de la même situation que dans l'original, en ayant recours à une rédaction entièrement différente*» (1958: 9). Horrela, adibidez, aipatzen dute Kanadan, Gabon-txarteletan, ingelesez erabiltzen zen "*Greetings of the Season*" esamoldea gaizki itzulita ikusten zela askotan hango frantsesean, "*Compliments de la saison*" bezala itzulita ematen zenean, frantsesez horren benetako baliokideak "*Meilleurs voeux de...*", "*Bon Noël*" edo "*Bonne Année*" baitira. Arazoa hemen ere da balio-kidetasunari buruz duten kontzeptua oso estatikoa dela, egoera edo situazio finko bat islatzen duelako testu guztientzat, testua bera eta itzulpena bera baino lehenago existitzen dena; horrela, itzulpena ordezkapen terminologiko batera murrizten dute, zeinean SHko (ez STko) adierazpen bat XHko beste batez ordezkatzeko baita. Ikuspegi horretatik, baliokidetasunak fraseologiako errepertorio batean bil daitezke, hizkun-tzak dituen lokuzio, atsotitz, klixerik edo idiotismo guztiekin. Admiral traduk-tologo frantsesak, adibidez, balio guztia kentzen zion Vinay & Darbelneten baliokidetasun kontzeptuari, itzulpen-eragiketa guztiei

<sup>5</sup> Hainbat orrialdetan azpimarratzen dute testuinguruaren garrantzia: «*Il y a des cas [...] où la traduction ne ressort ni de la structure, ni du contexte, mais où le sens global et ultime n'est perceptible que pour celui qui connaît la situation*» (1958: 173); «*L'étude des situations est [...] essentielle en stylistique comparée, puisqu'elle seule permet de décider, en dernier ressort, de la signification d'un message*» (1958: 175)

aplikatzeko modukoa delakoan: «*le concept d'équivalence a une validité extrêmement générale et qu'il tend à désigner toute opération de traduction*» (1979: 20).

Laburbilduz, bi autore hauek argi zuten itzulpenen behaketan nahi zutela oinarritu beren ikerlana, itzulpenaren legeak ateratzeko helburuari begira, baina itzulpena hizkuntzen funtzionamendua ulertzeko tresna bat da haientzat, hizkuntzalaritzaren jakintzagai osagarri bat, beraiek esaten duten bezala:

Il semble donc que la traduction, non pour comprendre ni pour faire comprendre, mais pour observer le fonctionnement d'une langue par rapport à une autre, soit un procédé d'investigation. Elle permet d'éclaircir certains phénomènes qui sans elle resteraient ignorés. À ce titre elle est une discipline auxiliaire de la linguistique (1958:25).

Azken baieztapen honetako lehen zatia zalantzazkoa izan daiteke, inplikatzeko baitu, berriro ere, STak eta XTak zintzoki islatzen dutela hizkuntza-sistema bakoitzaren funtzionatzeko modua eta, itzulpenari dagokionez, ez duelako kontuan hartzen itzultzaileak jatorrizko testuari buruzko bere interpretaziotik abiatzen duela egiten duen itzulpena, eta ezerk ez du bermatzen itzultzailearen gogoan berregin den material kontzeptuala zeharo bat datorrenik jatorrizkoaren egileak buruan zeukanarekin; orobat, ST eta XTaren arteko dibergentzia bat egoteak bi hizkuntzen arteko funtzionamendudesberdintasun sistemiko bat dagoela esan nahiko luke, ahaztu gabe, gainera, itzultzaile on batek ere jasan dezakeela SHren interferentzia morfologiko edo sintaktikoa.

Aldiz, goiko baieztapenaren bigarren zatia guztiz arrazoizkoa iruditzen zaigu: itzulpenak egiatan laguntzen du argitzen hura gabe oharkabeen geratuko lirakeen zenbait fenomeno, gure tesiaren ikerketan ikusi ahal izango den bezala.

Vinay & Darbelneten ereduari egin zaizkion kritikek, ordea, ezin dituzte halako lan aitzindariak egiazki dituen alderdi onak itzalpetu. Haien merituetan lehena eta garrantzitsuena itzulpen-ikerketari maila zientifikoa eta jakintzagai honi izaera propioa eta beregaintasuna eman izana da eta lehendabiziko aldiz egoera-baliokidetasuna kontuan hartu izana itzulpe-neko komunikazio-

ekintzaren barruan. Bestalde, beren lanean egiten zuten ikerketa kontrastiboak oinarri sistematiko bat eman zion itzultzaileari edo itzulpen-ikasleari bi lan-hizkuntzen arteko egiturazko desberdintasunez ohartzeko; horregatik, haien proposamenak geroagoko ikerketa kontrastiboetarako abiapuntua eraiki zuen; Delislek berak (1980: 90) aitortzen zuen bi autoreek frogatua zutela hizkuntzen arteko desberdintasunak ez direla ematen soilik fonetikaren, semantikaren edo morfosintaxiaren planoetan eta, oro har, zeinu linguistikoaren funtzionamendu mailan, eta bi hizkuntza-komunitatetako kideek ez dituztela hizkuntza-tresna berberak erabiltzen beren pentsamenduak adierazteko.

Bestalde, haien ikerlanak ekarpen baliotsu bat egin zion hizkuntzalaritza orokorrari, ordura arte halako sistema linguistiko jakin baten deskribapen eta azterketa estrukturalari osoki zuzenduta zeukalako bere interesa. Hizkuntza-bikote desberdinen azterketara bideratutako orientazio berri honek hizkuntzalaritza orokorra aberastu zuen, hizkuntzaren unibertsalei buruzko ikerketan bereziki.

Vinay & Darbelneten EKK, gainera, itzulpenari buruzko gogoeta teorikoetarako metahizkuntza oso baliagarria eskaini zien itzultzaile eta itzulpen-ikertzaileei bai eta itzulpen-didaktikarako ere. Beren ereduan bereizi zituzten zazpi itzulpen-prozedurak, nahiz lehenago esan bezala itzulpenaren emaitzari begira eraikiak egon, oraindik aipatzen dira itzulpenari buruzko eskuliburuetan, eta haien ezagutzak aukera handiagoa ematen dio itzultzaileari bere lanean gehiago eta jakinaren gainean erabiltzeko.

### 1.2.3. Hizkuntzalaritza testuala

60ko hamarkadaren bukaera arte transkodetze linguistikoaren analisisian oinarritu ziren nagusiki itzulpen-prozesuari buruzko ikerlanak, egitate estralinguistikoak bazterrean utziz itzulpen-prozesuaren deskribapenean; baina azkenik ikertzaileek onartu behar izan zuten hizkuntzalaritza orokorra ez zela egokia itzulpengintzaren azterketa testualaren alderdi esanguratsu askori heltzeko, hizkuntzaz kanpoko testuingurua ezin delako bazter utzi, eta, horrela, 70eko hamarkadatik aurrera, perpausarekiko interesak testuarekiko interesari egin zion lekua, eta horrek ikuspegi-aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen; hizkuntzalaritza testualaren ildotik, testuen taxonomia eta tipologiari eta

traduktologia funtzionalari buruzko saiakerak argitaratzen hasi ziren, eta era honetan, teoria berri batzuk hasi ziren testua bere osotasunean hartzen itzulpen-unitate modura ST eta XTaren arteko baliokidetasuna neurtzeko. Teoria hauen arabera, itzulpena ez da egiten SH batetik XH batera, ST batetik XT batera baizik.

Housek (1977a, 1977b) testuan oinarritutako hurbilpen teorikoa egiten du, STa eta haren funtzioa izanik XTaren kalitatearen funtsezko neurgaia, haren esanahiari eustea izan behar baitu itzulpen-ekintzaren helburua: «*Translation is the replacement of a text in the source language by a semantically and pragmatically equivalent text in the target language*» (1977a: 29). Itzulpenarentzat funtsezkoena jatorrizko esanahiari eustea da, haren arabera, eta hori hiru alor nagusitan erabakitzen da: alor semantikoan, denotazioari loturik; alor pragmatikoan, egoera komunikatiboarekin erlazionaturik; eta alor testualean, berau izanik itzulpenaren baliokidetasunerako garrantzitsuen. Testuen arteko baliokidetasuna lortzeko, lehenik STaren azterketa da beharrezkoa, hor baitaude haren funtzio komunikatiboa definitzen duten osagaiak, funtzio hori «*the application or use which the text has in the particular context of a situation*» (1977a: 37) izanik. Osagai horien artean, besteak beste, hartzailearen jatorri geografikoa, klase soziala eta garaia sartzen ditu, hartzailearen aldetik; eta, hizkuntza-erabileraren aldetik, igorlearen eta hartzailearen arteko harremanak, mezuaren bitartekoa, estiloa, etab. Testuaren azterketa linguistiko eta situazionalak STaren profil testuala ezartzen du, zeina oinarritzko arau eta irizpidetzat hartzen baita itzulpenaren baliokidetasun maila neurtzeko. Ikuspegi horretatik bi testuek dituzten profilak konparatzen ditu eta bien artean dauden desberdintasunak neurtzen itzulpena ebaluatzeko, desberdintasun hori bi mailatan bereiziz: maila denotatuan eta maila konnotatuan; eta bi maila horietan aurkitutako okerrak dira itzulpenaren kalitatea epaitzeko oinarria. Hortxe datza, ordea, Houseren proposamenaren ahulunea: Rabadan-ek (1991: 72) dioten bezala, ez du argitzen nola antolatuta dauden STaren profil testuala definitzen duten ezaugarriak eta ez du ezartzen haien arteko inolako hierarkiarik; bestalde, zalantzan jartzen du xede-testuak duen funtzioa jatorrizko sisteman duen funtziotik abiatuta zehaz daitekeenik edo XTak jatorrizko testuaren kokapen berbera izango duenik beti xede-sisteman.

James-ek (1980: 61) ikuspuntu kontrastibo batetik hizkuntzari buruzko ikerketarako proposatu zuen azterketa mikrolinguistikoaren eta makrolinguistikoaren arteko bereizketa baliagarria gertatu da orobat itzulpenari buruzko teorizazioan diharduen hizkuntzalaritza testualerako. Jamesentzat, azterketa mikrolinguistikoa ikerketa kontrastiboen adar tradizionalari dagokio, hau da, kode linguistikoa esparru fonologiko, lexiko eta sintaktikotik aztertzen duenari. Autore honen ustez, hurbilketa tradizional hau ez da egokia, ez direlako hizkuntzaren testuinguruak aztertu behar direnak, hizkuntza bera baizik testuinguru horietan; eta hizkuntza erabiltzen deneko testuinguruak (testualak eta situazionalak) ez dira linguistikoak soilik, baita psikologiko eta soziologikoak ere. Azterketa makrolinguistikoak, aldiz, giza komunikazioa nola gertatzen den ulertu nahi du, baina komunikatzen dena ez da hizkuntza bera, eta horregatik kodeari buruzko ezagutza ez da nahikoa komunikazioa ulertzeko.

Maila makrolinguistikoan, Jamesek bi azterketa-alor handi aipatu zituen: testuaren analisia, idatziaren aldera orientatua, eta diskurtsoaren analisia, ahozkoaren aldera. Ikerketa kontrastibo makrolinguistikoaren esparru nagusiak bi izan daitezke: batetik, hizkuntzalaritza testualari, pragmatikari, diskurtsoaren analisiari, soziolinguistikari eta psikolinguistikari dagozkien alderdi linguistikoak; eta, bestetik, itzulpengintza, lexikografia elebiduna eta hezkuntza elebiduna. Bestalde, Jamesek testu-azterketa kontrastiborako interesgarriak izan daitezkeen alorren artean hiru aipatzen ditu:

- a) Testuen ezaugarritzea: erkatzen diren hizkuntzetako bakoitzak testu-kohesioa sortzeko hobesten dituen tresnei buruzko datuak biltzeari dagokiona.
- b) Testu-tipologia: hizkuntzetako bakoitzean erabiltzen diren testu moten deskribapena.
- c) Itzulpengintza: testu-azterketa kontrastiborako alor petoa.

Azterbide makrolinguistikoan kokatu behar dugu orobat Hartmann-en lana (1980), zeinak hizkuntzalaritza aplikatua, hizkuntzalaritza kontrastiboa, diskurtsoaren azterketa eta itzulpengintza batzen baititu, Testologia Kontrastiboa (*Contrastive Textology*) deitu zuen ikuspegi batean. Haren

planteamenduan, diskurtsoaren azterketa eta azterketa kontrastiboa uztartzea oso lagungarria izan daiteke hainbat arazo praktiko konpontzeko, baita itzulpengintzan ere. Harmannen arabera (1980: 51), testuen bitartez komunikatzen bagara, ezin ditugu hitz edo esaldi solteak itzuli, hauek diskurtso oso baten barruan daudelako, eta diskurtso hori halako egoera bati dagokion testuinguru batean. Haren ustez, gainera, diskurtsoaren itzulpena posible da soilik baldin badakigu xede-hizkuntzak badituela egitura baliokideak; eta konparaketak, hots, hizkuntzalaritza konparatuak edo testologia kontrastiboak ematen du ezagutza hori.

Hortaz, azken hamarkadetan, hizkuntzalaritza kontrastibo tradizionala ikuspegi pragmatiko-testuala hartuz joan da, garrantzi berezia emanez kulturarteko komunikazioaren arazoei. Horrenbestez, hizkuntza sistema modura kontrastatetik hizkuntza-erabilera kontrastatzera pasatu da.

### **1.3. Estilistika Konparatua eta Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboak**

Hizkuntzalaritzak eta itzulpen-ikerketak partekatzen duten esparru batean kokatu dugu erlatiboari buruz egin nahi dugun azterketa, halako itzulpen jakin batzuetatik abiatuz euskarazko eta gaztelaniazko sistema linguistikoen deskribapen estilistiko partzial bat egiteko: hots, hautatu dugun corpuseko itzultzaileek hartutako erabakiak deskribatu eta, deskribapen estilistiko horren argitan, haien arrazoiak azaltzen saiatzeko. Gure ustez, egiazko itzulpen-testuinguru baten bidez bi sistema linguistikoen azterketa konparatua egitea oso argigarria izan daiteke euskal itzulpenaren arazo sintaktiko-estilistiko handienetako bat hobeto ulertzeko, hala euskal itzultzaileen jardun profesionalari begira, nola euskal itzulpengintzaren didaktika-beharretarako ere.

Hautatu dugun azterketa-eredua, beraz, *Translation Studies* (TS) edo Itzulpen-Ikerketen barruan kokaturik dago, haien adar enpiriko-deskriptiboaren zatitzat hartzen dugun Estilistika Konparatuaren eremuan. Holmesek eta Touryk diseinaturiko Itzulpen-Ikerketen diseinu orokorrak hainbat esparru desberdinetan banatzen du jakintzagai honen egitekoa, helburu desberdinekin, eta, gure ustez, erlatibakuntzaren halako problematika jakin baten azterketa izan daiteke esparru edo helburu horietako bat. Vinay eta

Darbelneten EK ez zen sartzen Holmes eta Touryren diseinuan, baina biek dute jomuga halako itzulpen-prozesu batean parte hartzen duten bi hizkuntzen arteko harremanak azaltzea. Ikusiko dugun bezala, lehendabiziko bi ikerlarien ereduak, ordea, ez du balio itzulpen-prozesu horretan itzultzaileek aurkitutako arazoen aurrean hartzen dituzten erabakiak azaltzeko, besteak beste haien proposamena sorburu-hizkuntzatik abiatzen delako, eta ez egiazko ST eta XT baten arteko konparaketa batetik, itzulpen-prozesu horren testuinguru komunikatibo eta soziokulturala ere aintzat hartuz. Alabaina, EK bai izan daiteke ikertresna baliagarriago bat IIDen parametroetatik abiatuz, hots, beren testuinguruan gertatutako itzulpen-egitate jakin batzuen deskribapena egitera zuzenduz gero.

### 1.3.1. Itzulpen-Ikerketak: sorrera eta lehen etapa

Esan daiteke *Translation Studies* edo Itzulpen-Ikerketak Herbeheretan eta Belgikan sortu zirela, hots, herrialde txiki batzuetan zeinetan itzulpenak paper garrantzitsua jokatzen baitu kultura, ekonomian eta politikan. Joan den mendeko 70eko hamarkadan hasi zen biltzen bertan nazioarteko aka-demiko talde txiki bat itzulpengintza aztertzeko bide berriei buruz hitz egitearren. Prestakuntza-alor desberdinetatik zetozen: haietako batzuk literatura-teoriari buruzko adituak ziren, beste batzuek hizkuntzalaritza-prestakuntza zuten, eta beste zenbait literatura konparatuan ari ziren lanean. Jatorri geografiko desberdinetakoak ziren (belgikarrak, herbehe-retarrak, israeldarrak, eslovakiarrak, estatubatuarrak, alema-niarrak eta ingelesak), baina denek zuten itzultzaile-eskarmetua eta denek parteka-tzen zuten halako kezka bat beren ustez itzulpena ez zelako sistematikoki aztertzen beren unibertsitateetan eta itzultzaile profesionalen prestakuntza oraindik oso maila apalekoa zelako. Talde honek mintegi batzuk egin zituen 1976tik aurrera Lovainan eta beren burua Itzulpen-Ikerketak izena hartuko zuen esparruko ikertzaitzat jotzea erabaki zuten.

Ikertzaile talde honetako kideek itzulpenari buruzko ikuspegi linguistikoa eta literarioaren jarrera kontrajarriak gainditu nahi izan zituzten disziplinarren hurbilketa baten bitartez, bi ikuspegiak uztartuz. Ez zitzairen hainbeste interesatzen adierazlearen izaera, baina bai adierazle hori nola eraldatzen den itzulpenaren bidez. Hartara, traduktologoek ordura arte

erabilitako kontzeptu batzuk, hala nola itzulpen zuzena eta itzulpen okerra, baliokidetasun formala eta dinamikoa, hitzez hitzeko itzulpena eta itzulpen askea, edota itzulpen-artearen eta itzulpen-zientziaren garrantzi gutxiagokoak ziren haien artean. Oinarri horiekin, itzulpengintza ez zegoen banatuta itzulpen literarioaren eta ez-literarioaren artean, osotasun bat bezala hartzen baitzen; galdera berriak planteatzen zituzten itzulpen-prozesuaz, bitartekaritza-modalitatez, prozesuak jatorrizko testuetan (sorburu-testuetan) duen eraginaz eta itzulpen-lanaren emaitzez (xede-testua). Jatorrizko idazlearen eta itzultzailearen arteko bereizketa bera ere uzten zen albo batera, ikergaia ez baitzen ez halako "adierazle" bat ez eta sakoneko "hizkuntza-egitura" jakin bat ere, testu itzulia bera baizik.

Idea horiekin, manifestu labur bat idatzi zuten, André Lefevere (1978) literatura-itzulpenaren teoriarik eman zuena argitara bi urte geroago, mintegiko ondorioekin, *"Translation Studies: The Goal of the Discipline"* izenburuko artikulu bateko eranskinean.

Bertan, Lefeverek aditzera eman zuen *Translation Studies* izena proposatu nahi zuela itzulpenen ekoizpen eta deskribapenak eragindako arazoez arduratu behar zuen jakintzagai horretarako. Proposamen horretan, Holmesi jarraitu zion, honek ere lan egin baitzuen manifestuaren idazketan eta disziplina berriaren definizioan eta helburuetan ere; haien arabera, TSen helburua izan behar zuen *«to produce a comprehensive theory that can also be used as a guideline for the production of translations»*. Teoria hori, gainera, ezin zen oinarritu soilik jatorriari buruzko ezagutza espezializatu eta, beraz, mugatuaren gainean, baizik eta egiazko itzulpen-testuetan frogatu behar zen etengabe, dinamikoa izanik eta ez estatikoa, aldatu eta garatu behar izango baitzuen; gainera, teoria hori lagungarri gerta zitekeen literatura- eta hizkuntzalaritza-teoriarako ere:

It is not inconceivable that a theory elaborated in this way might be of help in the formulation of literary and linguistic theory; just as it is not inconceivable that translations made according to the guidelines tentatively laid down in the theory might influence the development of the receiving culture (Lefevere, 1978: 235).

Itzulpenari literaturaren eta hizkuntzalaritzaren aurretiazko teoriak aplikatu ordez, Lefeverek proposatzen du jakintzagai berriko ikertzaileak itzulpengintzaren alderdi espezifikoaz arduratzea eta egindako aurkikuntzak



teoria literario eta linguistikoari aplikatzea gero.

Orduan, itzulpen-testuak (XT) berak dira ikertzen direnak, zeinak definizioz maila teorikoaren manipulazioen eta arte-arau nagusien menpe baitaude. Baina, aldi berean, autoreak iradokitzen duenez, itzulpenek eraginik izan dezakete haien izaera baldintzatzen duten arau horietan ere; horregatik, XTa ekoizpen gisa eta ekoizle gisa hartzen da. Itzulpenak duen bitartekari-zeregina gehiago da kultura batetik besterako halako adierazi-transferentzia sinkroniko bat baino; tradizio historiko anizkoitz batzuen arteko bitartekaritza diakroniko bat ere bada, zeren itzulpena elkarrenganako kultura-eragina duten halako sistema batzuen artean kokatzen baita, ez soilik itzulpenari baizik eta testu guztiei eragiten dien testuartekotasun batean.

Itzulpen-lkerketen lehen etapa hau formalismo errusiarrean eta Pragako Hizkuntzalaritza-Zirkuluaren estrukturalismo funtzionalistan errotuta zegoen. Formalista errusiarrek eta traduktologo txekoslovakiarrek (Jiří Levý, František Miko eta Anton Popovič) testuen literatura-izaera edo "literaturtasuna" zertan datzan zehaztu nahi zuten, sakoneko egiturei buruzko argudioak baztertuz eta egiazko testuetan eta haien ezaugarri berezietan oinarrituz; literatura-testu bat bestelako testu batetik zertan bereizten den azaldu nahi zuten, testu horiek sinkronikoki eta diakronikoki aztertuz, eta, horrela, testuak halako literatura-tradizio bati lotuta zeudela ikusten zuten. Haien azterketan, halako testu jakin batek etengabeko bilakaeran dagoen tradizio literario bati egiten dion ekarpena zehazten eta testu hori tradizio horretatik zer distantziatara dagoen neurtzeko balio duten barneko eta kanpoko faktoreak ikertzen zituzten. Hortaz, TSkok ikertzaileek testu itzuliek bi literatura-tradizioetan (sorburu-kulturan eta xedekulturan) duten eragin diakronikoa erakusten zuten.

Popoviček (1970, 1976) lan konparatiboan oinarritutako itzulpen-teoria bat landu zuen, ST eta XTaren arteko antzak eta aldeak bilatuz, desberdintasunak baliokidetasunak bezain garrantzitsuak direlako; autore honentzat, itzulpen-testuko galerak, gehiketak eta aldaketak –berak *"shift of expressions"* deitzen dituenak– itzulpen-prozesuko parte dira: *«The shift of expression is as a rule the basic principle governing the changes that occur in a translation. An analysis of the shifts of expression, applied to all levels of the text, will bring to light the general system of the translation, with its dominant*

*and subordinate elements»* (1970: 85).

Adibidez, transposizioak jatorrizkoaren izaera estetikoaren adierazle bat dira (transposizioak ez baitira egiten, haren arabera, itzulpena egiteko zailtasunengatik, garaiko itzulpen-kritikari batzuek uste zuten bezala), eta XTaren ezaugarriak baldintzatzen dituzten xede-kulturaren kultura-arauek utzitako arrastoak dira, geroago Touryk garatu zuen norabide berean.


Hortaz, XTaren eta jatorrizkoaren arteko batasun estilistikoa proposatu beharrean itzulpenaren azken xede bezala, autore eslovakiar honek onartu egiten du testu baliokide bat lortu ezina, eta batasun-ez hori kritikatu ordeztatu egiten duen teoria bat proposatzen du.

Holmes, 70eko hamarkadaren hasieran Amsterdameko Unibertsitatean irakasten zuen poeta eta itzultzaile estatubatuarra itzulpenaren eta beste sistema batzuen arteko harremanaz interesatu zen eta 1972an eman zuen argitara "The name and Nature of Translations Studies" artikulu klasikoa, Kopenhagen egindako Hizkuntzalaritza Aplikatu Nazioarteko Hirugarren Batzarrera aurkeztu zuena. Bertan, autoreak gogoeta batzuk egiten zituen bere ustez itzulpenari buruzko ikerketetan zegoen nahasmenaz, nahasmen hori ekarpen askotarikoen gehiegizko kopuruari eta itzulpen-ikerketen xedea eta metodologia zehazteko irizpide bateraturik ez egoteari leporatuz. Holmesek jakintzagai enpiriko berritu bat proposatzen zuen, bi helbururekin: lehenengoa, itzulpengintzaren eta itzulpenen fenomenoak esperientziaren munduan agertzen diren moduan deskribatzea; eta bigarrena, fenomeno horiek azaldu eta aurrean ahal izateko printzipio nagusiak ezartzea. Gainera, jakintzagai horrek eduki behar zuen egitura zirriboratu ere egin zuen. Holmesen artikulua, ordea, ia oharkabean pasatu zen eta ia inolako oihartzunik ez zuen izan harik eta 1987an Gideon Touryk berrargitaratu eta, batez ere, bere ikerketen (1980, 1995) oinarritzat hartu zuen arte.

Artikulu honetan, Holmesek, Lefevereren ildotik, argi eta garbi ipini zuen ikerketen ardatza itzulpen-prozesuaren xede-puntuan, itzulpena hiru ikuspegitatik aztertuz (produktu bezala, funtzio bezala eta prozesu bezala), baina hiru ikuspegiak uztartuz itzulpenarekin zerikusia duten fenomenoaren konplexutasuna ezagutu ahal izateko, nahiz eta posible den haietako bakoitza itzulpen-ikerketarako esparru beregain edo aparteko bezala hartzea ere.

Produktu bezala ulertuta, interesatzen zaiona itzulpen burutuetan topatutako egitateak deskribatzea da, eta ez itzulpen horien kalitateari buruzko iritzi bat arrazoitzea; funtzio modura ulertuta, berak dio itzulpen batek zeregin soziokultural bat izaten duela beti komunitate hartzailean, eta horregatik interesatzen zaio zein testu itzuli diren (edo ez diren itzuli) dena delako lekuan eta dena delako garaian; eta, azkenik, prozesu gisa, itzulpen-ikerketak argitu nahi du zer gertatzen den itzultzailearen gogoan itzulpen bat egiten duenean (1972-1988: 72).

Holmesek itzulpenerako hurbilpen disziplinarreko baten beharra azpimarratzen zuen, ikuspegi enpirikoarekin, eta jarduera akademikoaren esparruak zehatz-mehatz bereiziz, halako mapa moduko batean: lehenengo banaketa Ikerketa Hutsa eta Aplikatuak izanik; lehendabizikoa, bere aldetik, adar teoriko (*Theoretical Translation Studies*) batean eta adar deskriptibo (*Descriptive Translation Studies*) batean banatuko da, eta azken hau, gorago esan bezala, beste hiru azpiadarretan, funtziora, prozesura edo produktura bideratuta, baina ez hurrenkera-norabide horretan ezinbestez. Beheko diagramak irudikatzen du Holmesek proposatzen zuen eskema.



Nolanahi, Holmesen ideia da adar horietako bakoitza hipotesiak ekoizten doan neurrian besteek hipotesi horien baliagarritasuna egiaztatu eta hipotesi berriak aurkeztu behar dituztela, beti ere elkarrekin harremanetan, metodo

zientifikoan ohikoa den eskemari jarraituz (hipotesia - behaketa enpirikoa - egiaztapena). Planteamendu honekin, albo batera uzten da traduktologia linguistikoaren izaera arauemaile estatikoa, berau ez baita egokia berez dinamikoa den ikergai bat aztertzeko.

### **1.3.2. Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboak eta Polisistemaren teoria**

Joan den mendeko 70eko hamarkadan, Holmesen Amsterdameko Unibertsitateaz gainera, Israelgo Tel Aviveko Unibertsitatean ere garatu ziren Itzulpen-Ikerketak, eta berez, gorago esan bezala, Holmesen eta Belgika eta Herbeheretako eskolako autoreen proposamenak ez ziren teoria ondo egituratu batean gauzatu harik eta Gideon Touryk (1980, 1995) eredu bakar batean txertatu zituen arte Itamar Even-Zohar (1978, 1979, 1990) israeldarraren polisistemaren teoriatik eratorritako kontzeptu batzuekin batera.

Bestalde, Theo Hermansek 1985ean argitaratu zuen *The Manipulation of Literature: Studies in Literary Translation* lan-bildumaren ondoren, bi hurbilpenek (Itzulpen-Ikerketek eta polisistemaren teoriak) bat egin zuten eskola traduktologiko bakarrean. Gizarte kulturantz batzuetan sortuak ziren biak, itzulpenari garrantzi kultural, ekonomiko eta politikoa ematen zion testuinguru batean. Beste antzekotasun batzuk ere bazituzten: literatura sistema konplexu eta dinamikotzat jotzen dute; metodologia deskriptibo eta objektiboa erabiltzen dute; batez ere literaturaren itzulpenaz interesaturik daude; eta XTrantz makurtuta egoten dira. Gainera, itzulpenari buruzko ikuspegi funtzional eta sistemikoa daukate: itzulpenek literatura nazional jakin baten barruan duten lekua eta literatura nazionalen arteko harreman eta elkarreraginak aztertzen dituzte; itzulpenen ekoizpen eta harrera baldintzatzen dituzten arau eta mugak interesatzen zaizkie; garbi dute itzulpenen izaera ebolutibo eta historikoa, eta ideologia sozialek testu itzulietan duten eragina hartzen dute aintzat (Lefevere, Bassnett eta Lambert-ek, bereziki).

Era honetan, Itzulpen-Ikerketak osoko jakintzagai bat bihurtu dira, katedra, irakaskuntza, esku-liburu eta aldizkari espezializatu eta guzti; aipatzekoa da, adibidez, Touryk eta Lambertek zuzendutako **Target: International Journal of Translation Studies** aldizkariaren sorrera 1989an.

Lovainako mintegien ondorioz, Even-Zoharrek oihartzun handiko saiakera idatzi zuen 1978an: "The Position of Translated Literature within the Literary Polysystem". Polisistema terminoak kultura bateko literatura-sistema guztien multzoa adierazten du, forma kanonizatuetatik (*canonized*) hasita mailarik apalenekoetaraino, eta literatura-sistema horiek elkarreraginean daude beste sistema batzuekin: sistema sozial, politiko, ekonomikoekin eta abarrekin. Polisistema baten barruan, sistemen arteko halako hierarkia bat dago, baina hierarkia dinamiko bat; osagairik garrantzitsuenak erdigunean daude eta ahulenak periferian, baina erdigune bat eta periferia bat baino gehiago egon daitezke, eta transferentziak gerta daitezke batetik bestera, polisistemako osagai bat, bere estatusa aldatuz, periferiatik erdigunera edo beste periferia batera aldatzen denean edota erdigunetik periferiara joaten denean. Gerta daiteke, adibidez, literatura-sistemako osagai bat periferiatik erdigunera igarotzea eta kanon bihurtzea, bai eta alderantzizkoa ere, kanon desberdinen arteko lehiagatik, kanon bat beste batez ordezkaturia izatea.

Testu itzuliari dagokionez, Even-Zoharren arabera, berau ez da soilik testu asimilatu bat, XKn sartua eta normalizaturia, baizik eta kultura horretako literaturak bere hizkuntzan ahalik eta literatura-genero kopururik handiena edukitzeko eta horrela hizkuntza hori literatura-helburuetarako baliagarri bihurtzeko betekizuna duen testu bat. Even-Zoharri jarraituz, literatura-itzulpenak xede-polisistema literarioko osagai dira. Zenbait kasutan, literatura itzulia bigarren maila batean geratzen da, polisistemaren barruko sistema periferiko batean, eta faktore kontserbatzaile garrantzitsu bat da, itzultzaileak joera berrizaleetatik kanpo daudenean edo erdiguneak jada arbuiatzen dituen arauari men egiten dietenean; beste kasu batzuetan, aldiz, literatura itzuliak lehen mailako lekua bete dezake literatura-polisistema hartzailearen barruan, aktiboki parte hartuz haren erdigunearen sorreran. Hori gertatu zen, adibidez, Errenazimenduan, Petrarcaren sonettoa Europako hainbat hizkuntzatarara hedatu zenean jatorrizko testuen itzulpenen bitartez. Hiru egoeratan gerta daiteke hori, gehienbat: 1) literatura sistema garapen-bidean dagoenean (literatura gazte baten kasuan); 2) literatura periferiko edo ahul baten kasuan; eta 3) kinka batean dagoen edo hutsuneak dituen literatura batean. Nolanahi ere, zehazten du literatura itzuliak halako polisistema baten barruan dituen lehen edo bigarren maila horien arteko mugak ez direla hain argiak ere, eta gerta daitekeela itzulpenetako batzuk erdigunean egotea eta beste batzuk

bazterrean. Bestalde, literatura itzuliak literatura-polisisteman duen kokapenak eragina izan dezake itzulpen-jardueran bertan, hots, itzultzaileak egindako hautu eta arauetan: izan ere, lehen mailan kokatutako itzulpenak seguru aski jatorrizkoari egokituago egongo dira, eta bigarren mailan kokatutakoak, aldiz, xede-sistemaren ereduaren arabekoak izango dira, jatorrizkoari ez hain egokituak. Hortaz, itzultitako lanek beti bereganatzen dituzte halako arau batzuk, halako jokamolde edo jardunbide berezi batzuk, literatura-errepertorioaren erabileran islatzen direnak eta jatorrizko beste sistemekin erlazionatuta daudenak. Arau horien definizioari bagagozkio, honakoa da autoreak berak emandakoa: «*the translation of general values or ideas shared by a community –as to what is right or wrong, adequate or inadequate– into performance instructions appropriate for and applicable to particular situations*» (1995: 55).

### 1.3.2.1. Touryren eredia

Funtsezko ideia horretatik abiatuta, Touryk bere *Descriptive Translation Studies* edo Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboen proposamena garatu zuen 1980an eta, bereziki, 1995ean, zeinen arabera itzulpena XXko fenomeno bat baita, arau-sistema hartzaile baten barruan txertatua eta zerikusirik ez duena STaren sistemarekin.

Touryk 1930 eta 1945 bitartean ingelesetik eta alemanetik hebreerara egindako itzulpenak aztertu zituen, eta ondorio honetara iritsi zen: «*translations are facts of target cultures; on occasion facts of a special status, sometimes even constituting identifiable (sub)systems of their own, but of the target culture in any event*» (1995: 29). Ikuspuntu horretatik, itzulpena sorburu-kulturatik aparteko errealitate bat da eta, ondorioz, baita STtik apartekoa ere; horrenbestez, itzulpen-teoriaren helburu nagusia ezin izan daiteke itzulpen-metodo egokiak ezartzea edo halako itzulpen jakin bat soilik aztertzea, ezpada itzulpenak xede-polisistemaren barruan dituen eredu, estrategia eta arauak agerian jartzea; izan ere, itzulpen guztiak sistema bereko partaide dira eta ezinbestez loturik daude, onerako edo txarrerako, gainontzeko itzultzaile eta itzulpenekin.

Horiek horrela, itzulpen-ekintza guztien atzean dauden eta itzulpenaren hiru dimentsioak (funtzioa, prozesua eta produktua) uztartzen

dituzten jokamolde-erregulartasunak antzematea izan behar du itzulpen-ikerketaren helburuetako bat. Izan ere, halako itzulpen batek XK hartzailearen polisisteman bete behar duen funtzioa zein den, halakoak izango dira XTaren ezaugarri testualak. Horretarako, beraz, fokoa XTan jartzen da, hortik abiatzen da ikerketa, ez STtik, lehenagoko translatologia linguistikokoak egiten zuen bezala: XTan aurki daitezke itzultzaileak egindako hautuak eta hautu horien atzean dauden jokamolde-arauak. Horregatik, itzulpen-ikerketek XTetan topatutako itzulpen-egitateak deskribatu behar dituzte; itzulpen-ikerketa deskrip-tiboak izan behar dute, edo Itzulpen-ikerketen adar deskribatzailea, datu enpirikoetan oinarritua, eta ez arauemailea. Díaz Cintasek oso zehatz adierazi du zein diren metodologia deskriptiboaren paradigma eta helburuak:

En lugar de lanzar ideas abstractas sin datos empíricos que las fundamenten, o de inventar ejemplos 'ad hoc' para ilustrar un determinado punto que conviene al investigador de turno, lo que ahora se sugiere es llevar a cabo un 'mapping' de lo que verdaderamente ocurre cuando se traduce, para evitar caer en la teorización más absoluta. Sólo a partir de ejemplos reales, que existen y se han visto integrados en la sociedad de acogida, podemos extraer conclusiones que nos hagan avanzar en el conocimiento de la traducción. Y las normas son precisamente los útiles que nos ayudan en esa tarea (2005: 14)

Deskribapen-lan hori egiterakoan, halako testu-bikote bat aztertu behar da, lehendabizi halako ST bati zein XT dagokion argitu, helburua izanik aurkitzea «*the (uni-directional, irreversible) relationships which obtain between the paired texts and hold them together as the target- and source-text they are now presumed to be*» (1995: 36), eta, ondoren, ikustea nola gauzatuta dagoen bi testu horien artean jatorrizkoak eta itzulpenak berez eduki behar duten baliokidetasuna. Jakina, hori testu osoekin egitea ezinezkoa denez, ST eta XTko segmentu batzuekin egin behar da, eta horrela binomio batzuk aterako dira, zeinetan halako itzulpen-arazo (*source problem*) bat aurkituko baita STan eta itzulpen-irtenbide (*translation solution*) bat XTan. Itzulpen-arazoa ez da arazo itzulpenean akats bat egin daitekeelako, baizik itzultzaileari halako hautu bat egitea eskatzen diolako dauzkan aukera desberdinen artetik.

Gauzak horrela, itzultzailearen hautu hori zein zertzeladak baldintzatu duten aztertzea izan behar du ikertzailearen zeregina; eta egia bada itzultzaileak "*social role*" edo funtzio sozial bat betetzen duela halako gizarte baten barruan eta halako garai batean, orduan ahalegindu beharko du argitzen

zein itzulpen-estrategia hartzen dituen ontzat garai bateko gizarte jakin batek itzulpen baterako eta halako helburu batzuetarako. Baina horrek zerikusia du itzulitako literaturak polisistema hartzailearen barruan duen kokapenarekin: erdigunean kokatuta badago, itzultzaileak ez ditu erabiliko xede-literaturako ohiko ereduak, STak emandakoak baizik, eta proposamen horrek arrakasta lortuz gero, XLaren errepertorioa aberastu egingo da. Euskararen kasuan bada esaten duenik, adibidez, "Literatura Unibertsala" bildumak hori lortu duela: Anjel Lertxundik askotan aipatu du bilduma horrek euskal literaturari egindako ekarpen berritzailea.

Itzulpena gobernatzen duten araei gagozkielarik, Touryren eskeman hiru motatakoak dira:

- **Initial norm** edo "hasierako araua": itzultzaileak erabaki behar du sorburu-kulturaren eta sorburu-hizkuntzaren arauetara makurtu edo egokituko den, eta orduan STrekiko "egokitasuna" (**adequacy**) gertatzen da; ala xede-kulturaren eta xede-hizkuntzaren araei men egingo dien, eta kasu horretan xede-sistema literarioaren arabera "onargarritasuna" (**acceptability**) gertatzen da. Itzulpena bi mutur horien artean mugitzen da beti, eta halako XT bat zein muturretara makurtzen den argitu behar du ikerketak, askotan gertatzen baita sorburu-sistemaren arauak eta xede-sistemarenak ez direla bateragarriak. Itzultzaileak egin beharreko lehen erabaki honek, noski, itzulpen-prozesu osoko hautuak baldintzatuko ditu ondoren.

- **Preliminary norms** edo "aldez aurretiko arauak": XKren itzulpen politikarekin zerikusia duten hautuak dira; hots, zein autore edo zein lan itzuliko diren eta zein ez, hartzaileen arabera helburuak, zubi-hizkuntza bat erabiliz zeharkako itzulpenak egitearen zilegitasuna eta horren aitortpena.

- **Operational norms** edo "jarduera-arauak": itzulpen-prozesuan itzultzaileak hartzen dituen erabakiak azaltzen dituztenak eta material linguistikoa testuaren barruan nola banatuta eta gauzatuta dagoen adierazten dutenak; gehiketak, ezabaketak, manipulazioak, segmentazioak eta material linguistikoaren birkokapena sartzeko dira hemen ("arau matrizialak"); eta STaren ordezkoko XTaren barruko material linguistiko eta literarioen hautaketa argitzen



duzenak ("arau linguistiko-testualak").

Geroagoko ikertzaile batzuek, Rabadanek (1991: 56-57) adibidez, beste arau mota bat ere txertatu dute eskema honetan: harrera-arauak. Harrera-arau hauek hasierako arauarekin loturik daude, eta oso garrantzitsuak dira eredu teoriko deskriptiboaren barruan, XTak ustez izango duen hartzaile motaren arabera baldintzatzen dutelako itzultzailearen jokamoldea; autore honen iritziz, arau hauek «*caracterizan y definen el marco de negociabilidad de la comunicación, lo que se refleja en su funcionamiento respecto a la elección del criterio sociolingüístico dominante en la jerarquización del conjunto de relaciones translémicas*», eta lehen planoan egoten dira itzulpen-prozesu osoan zehar, haien baitan dagoelako xede-poloko komunikagarritasuna eraginkorra izatea.

Touryren ereduan, goiko arau horiek baldintzatzen dute itzulpenaren baliokidetasun mota eta maila, eta horregatik ez du zentzurik galdetzeak ea bi testuak baliokideak diren, baizik eta zer baliokidetasun mota eta maila dagoen bien artean. Kontuan izan beharra dago kultura edo hizkuntza bakoitzak bere arau bereziak dituela eta, gainera, aldakorrak direla. Bestalde, posible da halako testu baten edo testu-multzo baten itzulpena halakotu duten arauak aurkitzea, itzulpenaren "lege" orokorrak proposatze aldera, eta horretarako bi iturri daude: batetik, testu-azterketa bera, aukera ematen baitu ST eta XTko segmentu batzuk erkatzeko itzulpen-prozesuan nagusitu diren arauak zehaztu nahi baditugu; eta, bestetik, itzultzaile, idazle eta argitaratzaileek arauari buruz eginiko adierazpenak, tesi honetako 4. kapituluan azpicorpus bakoitzaren sarreran egin dugun bezala.

Beraz, IIDen barruan arau kontzeptua ez da oinarritzen aurretiaz ezarritako irizpide betebeharreko batean, xede-sisteman errepikatuta agertzen diren eta onartuta dauden jokamolde erregular edo ohikoen behaketan baizik. Arau kontzeptuari lotzen zaion izaera deskriptibo eta preskriptiboaren arteko desberdintasuna ondo islatuta ageri da Lovainako Unibertsitateko irakasle-ohi Chesterman-ek arauen baliozkotasunaz diharduen pasarte honetan:

How do we know that a norm is valid? There are two basic views on this. One (the imperative theory) argues that norms are validated by a norm authority, from above (and sometimes even imposed by such an authority). The other (the practice theory [...]) argues that norms are validated by their very existence: in

other words, if a norm is acknowledged to exist, it is automatically acknowledged to be valid (1997: 56)

Atal hau bukatzeko, esan behar da kultura-jatorri desberdineko testuen azterketak antzematen dituen arau edo legeek bi muturreko fenomenoak erakusten dituztela: normalizazioa eta interferentzia. Oro har, itzultzailea xedehedura moldatzen denean, normalizazioa (*target-oriented translation*) eta estilo-aldakortasunaren galera gertatuko da. Interferentzian (*source-oriented translation*), aldiz, STko osagai batzuk XTra igarotzen dira, eta interferentziak positiboak edo negatiboak izan daitezke. Interferentzia guztiak itzulpena inguratzen duten baldintza soziokulturaren arabekoak izaten dira. Touryren arabera, interferentzietan tolerantzia handia izaten da hizkuntza "handi" batetik "txikiago" edo "ahulago" batera itzultzen denean, baina hori ere alda daiteke, euskararen kasuan gertatu den bezala, osagai batzuekin behintzat; esate baterako, gure tesiari dagokionez, erlatibo anaforiko edo "klasiko" deitutakoenganako erreakzio garbizalearekin, adibidez: XIX. mende bukaera arte, euskal idazle gehienek arazorik gabe erabiltzen zuten baliabide sintaktiko bat zen, latinetik eta hizkuntza erromanikoetatik ekarria euskararen errepertorioa aberasteko; transferentzia positibo bat zen, beraz. Aldiz, garbizaleen erre-akzioak zentzu positibo guztia kendu eta transferentzia negatibotzat jo zuen, euskal testu literario eta ez-literarioetatik ia erabat desagerrarazi arte, horrek euskal gramatikaren ikerketan bertan eta euskarazko literatura-sistema garaikidearen kanon sintaktiko-estilistikoan izandako ondorioekin.

### **1.3.2.2. Baliokidetasun kontzeptua Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboetan**

Lehenago esan dugun bezala, Touryren ereduan, itzulpen-prozesua gobernatzen duten arauak dira ST baten eta XT baten arteko baliokidetasun maila eta mota zehazten dutenak; beti dago halako baliokidetasunik bi testuen artean, baina baliokidetasun hori itzulpen-prozesuaren barruko zertzelada errepikaezinen araberakoa da, itzulpen-produktuaren funtzio eta helburuen araberakoa, eta produktu horrek XKn hartzen duen kokapenaren araberakoa. Horregatik, ezin da besterik gabe esan halako itzulpen bat ona ala txarra den edo jatorrizkoarekiko leiala den ala ez, testu bien arteko azterketa deskontestualizatu batean.

Translatologia linguistikoaren ikuspegitik, ikertzailearen arabera STak dituen ezaugarri linguistiko, formal edo funtzionalak XTan erreproduzitzen direnean gertatzen da bi testuen arteko baliokidetasuna; kontzeptu arauemailea da, beraz, **a priori** ezarritako STaren ezaugarri horiek erreproduzitzen dituen itzulpena hartuko baita baliokidetzat eta, ondorioz, ontzat, eta bestela txartzat. Beste era batera esanda, baliokidetasun mota bat baino ez dago, planteamendu honetan.

Touryren ereduan, berriz, baliokidetasunari buruzko kontzeptu tradizional hori albo batera uzten da, baliokidetasunaren bilaketa ez da itzultzaileak bete beharreko lege edo helburu bat, itzultitako testu ororen eta bere jatorrizko testuaren arteko harremana baizik: *«the theoretical concept of “translation equivalence” (...) could be defined, for instance, as “that relationship between two linguistic utterances defining translation” or “distinguishing translation from non-translation”»* (1980: 67). Honela begiratuta, baliokidetasunak kontzeptu arauemaile eta ahistorikoa izateari utzi eta kontzeptu historikoa –halako itzulpen-ekintza bat une jakin batean gobernatzen duten arauen menpe dagoelako– eta deskriptiboa bilakatzen da, malgua eta aldakorra. Rabadánek (1991: 54) dioten bezala, *«su realización es distinta en cada proceso de transferencia, en cada binomio textual y en cada estadio diacrónico»*. Baliokidetasuna egitate enpiriko neurgarri bat da, balio deskriptiboa duena, egokitasunetik onargarritasunera doan lerroan XTak duen kokalekua adierazten baitigu. Gure tesiko azterketari gagozkiolarik, adibidez, baliokidetasun sintaktikoa eta baliokidetasun testuala bereizi ditugu, azkenengo hau izanik Touryren baliokidetasun kontzeptuari dagokiona, hots: binomio baten barruko ST eta XT segmentuek beti ere dutena, bi testuek baliokidetasun sintaktikoa eduki edo ez (besteak beste itzulpen parafrastikoa aurkitu dugulako, adibidez).

Tesiko azterketarekin jarraituz, esan beharra daukagu lekuz aldatu dugula gure fokua Touryren ereduari dagokionez; izan ere, autore horren ereduan bezala, guk ere XTetan hasi dugu gure ikerketa, baina gure kasuan interesatzen zaizkigunak ez dira XT horren ezaugarriak bakarrik, bi poloetako joerak baizik, nolabait esatearren, hain zuzen ere jakin nahi dugulako zein baliabide topatzen diren jatorrizko euskal testuetan gaztelaniazko perpaus erlatibo esplikatiboen bidez itzulita, euskarazko “kanon literarioa” aurkitzeko asmoz erlatibakuntza-

sistemak erabiliz konparagai modura, topatu ditugun baliokidetasun testualak azaltzen dituzten itzulpen-arauak –Touryk ematen dien zentzuan– agerian jartzeko eta, beraz, bi hizkuntzen estilistika desberdinak konparatu ahal izateko.

### **1.3.3. Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboen metodologia**

Itzulpen-jokamoldearen erregulartasunak –arauak– aurkitzea eta erregulartasun horiek baldintzatzen dituzten ezaugarri kultural edota situazionalak zehaztea izanik IIDen helburua, ikertzaileak egin beharreko lan empirikoa halako itzulpen jakin batzuk bere testuinguru historikoan deskribatzea izango da.

Touryren proposamenean, deskribaketaren lehen betekizuna aztertutako testuak bere polisistemaren barruan zer leku duen zehaztea da eta gero testu itzulien azpisisteman duen onargarritasun maila neurtzea. Bigarren pausoa, berriz, XT eta STaren artean dagoen harremana ezau-garritzea da, haien arteko baliokidetasuna nola gauzatuta dagoen ebazteko. Horretarako, bi testu erkatu behar dira, eta hori zatika baino ezin denez egin, konpara eta azter daitezkeen testu-segmentu batzuk atera behar dira, halako binomio batzuetan lerrokatuta. Planteamendu honekin, Touryren ereduan, itzulpen-arazoa ez dago alde zuzen erabakita, azter-ketari ekin baino lehen; aldiz, ikerketak jartzen du agerian. Autoreak dioen bezala:

(...) facts which seem to present no initial difficulty may nevertheless turn out to have constituted a problem under a reconstructive observation. [...] Problem items of this kind would go completely unnoticed, unless they are established 'in reverse' (1995: 78)

Bestalde, erkatu nahi diren segmentuei dagokienez, funtsezkoa da azterketan erabiliko diren unitateak esanguratsuak izatea haiekin egingo den eragiketari begira, hots, itzultzaileak hartutako erabakiak berreraikitze eta erabaki horiek baldintzatu dituzten mugapen edo zertzeladak argitzeko. Horregatik, aztergai diren segmentuen nolakoa eta norainokoa aurretiaz ezartzerik ez dago, eta, gainera, itzulpen-arazoa eta irtenbidea kategoria desberdinetakoak izatea ere gerta daiteke. Honelako ikerketetarako

esanguratsuak diren unitateak kasuan kasukoak baino ezin dira izan. ST eta XTko unitate horien azterketak agerian jarriko ditu bien arteko harreman semantiko-testualak eta aukera emango digu ikusteko zein eratakoak diren binomio bakoitzean aurkitu diren baliokidetasunak edo baliokidetasunik ezak.

Autore askok adierazi dute komenigarria dela itzulpenari buruzko ikerketa deskriptiboetako azterketa itzulpen-testu bakar batera edo kopuru txiki batera ez mugatzea, eta bai, aldiz, corpus gero eta handiago batera hedatzea, itzultzaile-multzo edo eskola, garai, testu mota edo fenomeno linguistikoaren arabera osatutako corpusak osatuz, itzulpen-sistema batean hobetsiak diren jardunbideak eta itzulpen-arazoei ematen zaizkien irtenbide ohikoak ikertu ahal izateko. Bi arrazoi daude horretarako: batetik, azterketa errepikatuz egiaztatu edo, beharrezkoa izanez gero, aldatu ahal izango dira hasierako lan-hipotesiak; eta, bestetik, corpus bat erabiliz, arrisku txikiagoa dago itzultzaile jakin baten joera partikularrek azterketaren ondorioak baldintzatzeko. Hortaz, corpora osatzerakoan, partaideen errepresentatibitatea eta haietako bakoitzaren ezaugarri berezien arteko oreka dira funtsezko irizpideak.

Era honetako ikerketa deskriptiboetarako, erabili behar diren corpusak "corpus paralelo" edo "corpus elebidun" deitutakoak dira, SHko eta XHko testuez eraikiak. Corpus paralelo hauek oso tresna baliotsuak dira gure ikergaia behatzeko, itzulpen-jokamoldea gobernatzen duten abiaburu edo arauak identifikatzeko eta STaren eta XTaren arteko baliokidetasun formal eta funtzionalak antzemateko.

Corpusak osatu ondoren, azterketa-unitateak identifikatu behar dira erabaki den aztergaiaren arabera; azterketa-unitateak definitzerakoan, ordea, itzulpen-unitateen arazoarekin egiten da topo. Jakina, itzultzaileak ez du lan egiten testu osoekin, segmentutan zatituta baizik. Baina kasu guztietarako baliagarria den gutxienezko itzulpen-unitate bat zehaztea beti izan da eta oraindik ere bada itzulpen-teoriaren kezka handienetako bat.

Desadostasun handia dago autore desberdinen artean itzulpen-unitatearen izaera eta neurriei buruz eta proposamen desberdinak daude; hala ere, denek partekatzen dute ezaugarri bat: testua segmentatzeko tresna batzuk dira, itzulpenaren aurretiazko fasean identifika daitezkeenak, aprioristikoak

direnak eta STari aplikatzen zaizkionak. Jakina, ikertzailearentzat, ikerketa-unitate gisa halako itzulpen-unitate bat hautatu ondoren, bistan da unitate horrek ez duela zertan ezaugarri berberak izan XTan, hizkuntza guztiak anisomorfitakoak direlako eta kategoria desberdinak erabiltzen dituztelako. Nolanahi, ikerketa-unitatea zehazterakoan, ikertzaileari interesatzen zaiona bere ikergaiaren arabera STaren funtzio komunikatibo eta testualak kontuan izatea da, eta hortik abiatuta XTko unitate baliokidea aurkitu eta mugatzea, nahiz eta, esan bezala, gerta daitekeen STko unitate batek ez izatea baliokiderik XTan, edo unitate-zati bat baino ez izatea baliokide, edota unitate bat baino gehiago.

Bi testuetako unitateak zehaztu ondoren, binomio batzuk osatu ahal izango dira ikerketaren xedeari begira. Ondoren, aztertutako testuetatik erauzi diren binomioen azterketatik halako itzulpen-jokamolde batzuk aterako dira, eta horiek hainbat aldiz agertzen badira, erregulartasun modura hartu ahal izango ditugu. Horrela, corpus horren barruko itzultzaile desberdinen XTetan halako erregulartasun batzuk errepikatuta egonez gero, corpus horretako itzulpen-estrategia orokortzat hartu ahal izango ditugu, eta oinarri horrekin itzulpenari buruzko halako hipotesi bat eraiki ahal izango da aztertzen ari garen itzulpen-azpisisteman corpusari dagokion garaian edo alorrean nagusi diren itzulpen-arauei buruz; arau horiek, berriro azpimarratu beharra dago, ez dute inolako balio preskriptiborik, deskribapenetik ateratako jokamolde-erregulartasunak baino ez baitira, halako corpus bateko obrak ezaugarritzen dituztenak. Bestela esanda, arau horiek ez dute itzulpen-metodo arauemaile bat osatzen, baina bai balio dute itzulpen-jokamoldeak igarri edo auresateko, eta gainera erreferentzia bezala erabili ahal dira hala itzulpen-kritikarako nola itzulpenaren didaktikarako ere.

#### **1.3.4. Estilistika Konparatua IIDen barruan: Álvarez Lugrísen proposamena**

Alberto Álvarez Lugrís (2001: 56) IIDen ikerketa-eredua Estilistika Konparatua bertan txertatuz osatzea proposatu zuen, eta proposamen hori da gure tesirako adoptatu dugun planteamendua. Irakasle honek ingelesetik galizierarako TECTRA izeneko corpusa osatu zuen 14 testu eta haien itzulpenez

eta hari aplikatu zion EKren paradigmen barruko bere proposamena, 1999an aurkeztu zuen tesian. Haren proposamen metodo-logikoak Vinay & Darbelneten *Stylistique comparée du français et de l'anglais* liburua du oinarri, baina IIDen parametroekin aberasturik. Izan ere, bere ustez, Touryren metodologia arazorik gabe ezarri ahal zaie ikerketa esti-listiko kontrastiboei emaitza baliozko eta baliagarriekin. Horretarako, Itzulpen-Ikerketen barruan eginiko edozein lanek balio epistemologikoa izango badu, eta, batez ere, jakintzagai honen aparatu teorikoaren garape-nean eta itzulpenaren didaktikan erabilgarria izatekotan, nahitaez egon behar du funtsatuta datu enpiriko errealean kopuru handi batean; horrek esan nahi du ikerketa horietan corpusak erabili behar direla bai ikergai bezala, bai eta, alde batetik, itzulpen-egitateen behaketan funtsatutako lan-hipotesiak eratzeko eta, bestetik, lehen hipotesi horiek egiaztatu edo gezurtatzeko balio duten adibideak eta kontraadibideak bilatzeko ere.

Autore honen arabera, EK itzulpen-prozesuaren barruan bi hizkuntzaren artean gertatzen diren harremanak aztertzen dituen jakintzagaia izanik, tresna egokia izan daiteke Itzulpen-Ikerketentzat, bi xederi begira: batetik, itzulpenean zehar itzultzaileak hartzen dituen erabakietan eragina duten arazo linguistikoak aurkitu eta identifikatzeko; eta, bestetik, faktore horiek halako itzulpen jakin bat nola eta zergatik baldintzatzen duten azaltzeko.

Touryren metodologian, itzulpen bateko baliokidetasun-eredua eta itzulpen-kontzeptua testuinguru zabalago batean kokatu eta argitu ondoren, aieruak egin daitezke itzultzailearen hautuetan eragin duten zertzeladei buruz. Horretarako, beharrezkoa izan daiteke itzulpenean parte hartzen duten bi sistemetako arau edo eredu ohikoak aurrez aurre jartzea, itzultzailearen erabakiak haietako baten edo bestearen ezaugarriek zenbateraino baldintzatu dituzten ebazteko. Era honetan, azterketa horrek agerian jartzen dituen sistema eta usadio testualen arteko desberdintasunek aukera emango digute esateko ea itzultzailea sorburu-sistemaren ezaugarri ohikoetara makurtu ote den (jatorrizkoarekiko egokitasuna edo *source-oriented translation*) bere erabakiak hartzerakoan, ala xede-sistemaren barruan funtzionatzen duten arauei men egin dien (onargarritasuna edo *target-oriented translation*).

Gorago esan dugun bezala, Touryk itzulpen-prozesuaren barruko

jokamolde-arau edo itzulpen-legeak (*laws of translational behavior*) aztertu zituen, kultura desberdin ugari hainbat itzulpenen behaketan eta analisis oinarriturik, eta nagusiki bi lege aztertu zituen: normalizazio progresiboaren legea deitzen duena eta interferentzia legea; baina oso modu orokorrean aztertu zituen, itzulpen-prozesua gobernatzen duten unibertsalak balira bezala; adibidez: «*In translation, textual relations obtaining in the original are often modified, sometimes to the point of being totally ignored, in favour of [more] habitual options offered by a target repertoire*» (1995: 268) normalizazioari dagokionez, edo «*In translation, phenomena pertaining to the make-up of the source text tend to be transferred to the target text*» (ibid.: 275) interferentziari dagokionez. Itzulpen-testuetatik aparteko legeak dira, beraz, itzultzaileak jakinaren gainean egon gabe ere aplikatu ditzakeenak edo badiren ere ez dakienak. Izan ere, itzultzaile trebe guztiak egongo balira interferentzia-arriskuen gainean eta uneoro horiek saihesterik izango balute, halako lege batek ez luke zentzurik izango. Beraz, itzultzailearen borondateatik kanpo dauden legeak dira. Gainera, hizkuntza desberdinetatik kanpoko legeak ere badira, edozein hizkuntza-bikotetarako balio dutenak, nahiz eta halako hizkuntza jakin batzuen une jakin bateko egoeratik ondorioztatuta dauden.

Baina Álvarez Lugersek (ibid.: 93) gogoratzen duen bezala, posible da hizkuntza-bikote jakin baterako bakarrik balio duten itzulpen-jokamoldeak ere aurkitzea, azken bi hamarkadotan egin diren hainbat ikerketak erakutsi duten moduan. Egia da IIDen barruan burutu diren ikerlan praktiko asko perpaus-gaineko mailako fenomeno makroes-strukturez arduratu direla, askotan itzulpenek xede-kulturaren duten harreraz, polisistema hartzailean hartzen duten kokapenez edota literatura-itzulpenek xede-sistemako kanon literarioaren edo hizkuntzaren estandarizazioan izan duten eraginaz.

Euskal literatura itzulira baldin bagatoz, ikuspegi horrekin egindako lehen ikerketa López Gasenik (2000) euskarazko haur eta gazte literatura (HGL) itzuliari eskainitakoa da, zeinean aztertzen baititu itzulpen mota horrek 1876tik 1995era bitarteko aro historiko desberdinetan euskal polisistemaren barruan izan dituen funtzio, eragin eta itzulpen-estrategia orokorrak, ikuspegi makroestrutural batez, itzulpen batzuen adibideetan oinarrituz, aro bakoitzeko joerak antzematearren egokitasun/onargarritasun poloen artean. Antzeko planteamendua du Jakak (2012) ere, Joseba Sarrionaindiak bere



itzultzaile-jardunean erabiltzen dituen itzulpen-estrategiak eta itzulpenari buruzko ideia eta proposamen berritzaileak aztertzen dituenean, itzulpengintzaren diskurtso eta epistemologia postmodernoren barruan kokatuz. Manterolak (2012) ere gutxi gorabehera koordenada berberekin burutu zuen bere azterketa, baina kasu honetan, alderantzizko norabidean, euskal literaturaren beste hizkuntzetarako itzulpena eta, zehazkiago, Bernardo Atxagaren literatura-lanen itzulpenak jorratu zituen, nagusiki planteamendu makrotestual batez, baina maila mikrotestualeko alderdi pare batean arreta handiagoa jarriz, izen propioen eta koloreen itzulpenean, zehazki.

Izan ere, badira hainbat fenomeno hizkuntza-bikote baten arteko itzulpen-prozesuan maila mikroestruturalean ere azter daitezkeenak eta agerian jartzen dituztenak itzulpen-prozesuan zehar itzultzaileak nahita hartutako erabakiak eta itzulpen-arazoan aurrean hautatutako itzulpen-estrategiak: testu edo paragrafoen egituraketa, perpausen barne-antolaketa, lexikoarekin edo sintaxiarekin lotutako arazoak, etab. Sistema bakoitzean nagusi diren joera eta tradizio edo usadio linguistiko eta estilistikoekin zerikusia duten fenomenoak izaten dira horiek, garrantzi handia dutenak itzulpenaren onargarritasunaren ikuspegitik. Gainera, fenomeno horiek oso loturik egoten dira kontu supratestualekin, besteak beste itzulpen bakoitzaren hasierako araua delakoarekin. Euskararen esparruan ere, gutxi dira oraindik, baina badira honelako fenomeno mikroestruturalen azterketa deskriptiboa egin duten ikerlanak: López Gasenik berak (2005) bere aurreko lanaren bide beretsuko ikerlana eskaini zion euskal HGLri, baina kasu honetan jatorriz euskaraz idatzitako literaturaren gaztelaniarako autoitzulpengintzari, non arreta gehiago ipintzen baitzuen euskal idazle autoitzultzaileek euren lanak gaztelaniaratzean erabiltzen dituzten itzulpen-estrategietan, ikuspegi makroestruturala eta mikroestruturala uztartuz eta itzulpen-arazo lexiko eta sintaktiko jakin batzuk aztertuz.

Azterbide bikoitz hori sakontasun handiagoz landu zuen Barambones-ek (2010), ingelesetik euskararako ikusentzutekoen itzulpe-nari buruzko lan batean, zeinean faktore kontestual eta makrotestualekin batera eredu linguistiko osoaren konparaketa egiten baitzuen, hainbat testu-mailatan (maila fonetikoa, lexikoa, morfologikoa eta sintaktikoa) banatuta, eta itzulpenean aurkitutako teknika eta prozeduren zerrenda oso samarra eginez. Zubillagak


(2013) ere uztartu zituen azterbide makrotestuala eta mikrotestuala alemanetik euskarara itzulitako HGLri buruz egindako lanean, arreta berezia ipiniz itzulpen-jarduerak hizkuntza gutxituen xede-polisistema literarioaren barruan duten kokapenean eta HGLk berak itzulpenean kontaktuan jarritako bi literatura-polisistemetan duten kokapen eta funtzioetan. Azkenik, tesi honetako 2. kapituluko 2.3 puntuan ikusiko dugun bezala, Sanchok (2015) euskararako itzulpengintzaren alderdi mikroestrutural baten inguruan egin zuen bere tesia, IIDren metodologian oinarrituta eta, tesian bertan hala jasotzen ez den arren, EKri buruz Álvarez Lugersek dituen planteamenduekin bat datorrena, eta, gure tesian bezala, erlatibakuntzak planteatzen dituen itzulpen-arazoetan zentratua, baina, kasu honetan, errusierazko perpaus erlatiboen euskarazko itzulpena jorratuz eta baliabide sintaktiko horretan bi hizkuntzek dituzten dibergentzia estilistikoak agerian jarri.

Álvarez Lugerisen proposamenarekin jarraituz, itzulpenen alderdi makroestruturalak aztertu ahal izateko, beharrezkoa iruditzen zaio lehenago eredu bat garatzea beheagoko mailetan zer gertatzen den ikusteko, hala perpaus mailan nola perpaus-azpiko mailan edo maila subo-razionalean. Hor sartzen du berak EKren egitekoa. Touryk berak (1981: 16) onartzen zuen honelako azterketetan lagungarri gerta daitezkeela hizkun-tzalaritza kontrastiboaren eta EKren aurkikuntzak, nahiz eta aurkikuntza horiek egiazko itzulpenen analitiko kanpo lortuak izan. Álvarez Luger, ordea, ez dago ados ikusmolde horrekin, EK ezin baita izan bere ustez Itzulpen-Ikerketetatik aparteko jakintzagai bat, eta bai, aldiz, datu enpirikoen azterketan oinarritutakoa. Álvarez Lugersek egiten duen ekarpenarekin, Touryren ereduan oharkabea pasatzen diren edo behar bezalako arreta jasotzen ez duten itzulpen-egitate batzuen analisia eskaini ahal zaie Itzulpen-Ikerketei: esaldi, perpaus edo klausulen barruko mikrodes-plazamendu edo aldaketa estrutural txikiak, adibidez; edo, gure kasuan bezala, hizkuntzaren baliabide sintaktiko jakin baten erabileran hizkuntza batetik bestera topa daitezkeen desberdintasun estilistikoak. Desberdin-tasun horiek egiturazkoak izan daitezke eta, kasu horretan, beti izaten dira itzulpen-arazo bat bi hizkuntza horien arteko itzulpengintzan, bi norabideetan gainera, Nord-ek dioen bezala:

The structural differences between two languages, particularly in lexic and sentence structure, give rise to certain translation problems which occur in every translation involving this pair of languages, no matter which of the two serves as

source and which serves as target language (1991: 159)

Itzulpen-Ikerketen barruan alderdi edo fenomeno mikrostrukturalez arduratzen diren adar deskriptibo berri batzuk txertatzea da, zehazki, Álvarez Lugríssek proposatzen duena: hots, Erretorika Kontrastiboa, Estilistika Konparatua, Testologia Kontrastiboa, etab. Touryren eskemaren barruan, adar berri horiek Itzulpen-Ikerketa Hutsen osagai deskriptiboetatik aterako lirateke, bai produktura, prozesura eta baita funtziora ere orientatuta. Planteamendu horren arabera, Touryren eskema honela geratuko litzateke, orduan:



Álvarez Lugrísen arabera, EKK ondoko helburua du Itzulpen-Ikerketen organigraman: «(...) *estudia-las relacións ou correspondencias suboracionais que se establecen entre dúas linguas durante o proceso de traducción e que determinan as escollas concretas do traductor*» (Íbid.: 97). Autore honek, gorago esan dugun bezala, ingelesetik galizierara egindako literatura-itzulpen batzuek osatutako corpus bat eraiki zuen, eta, corpusaren azterketako lehen fasean, maila suboracionaleko itzulpen-arazo batzuekiko interesa piztu zitzaion, maiztasun handi samarrarekin agertzen zirela ikusi ondoren. Eta produktura orientatutako ikerketa bat eskaini zion, maila linguistikoan bi egituraren itzulpenean gertatzen diren mikro-desplazamenduak aztertzeko: batetik, ingelesezko substantiboak galizieraz aditz forma desberdinetan ematea; eta, bestetik, ingelesezko preposizio batzuek itzulpenetan zuten tratamendua. Mikrodiesplazamendua honela definitzen du autoreak: «(...) *toda traducción na*

*que a conxunción do contexto concreto e do respecto ó sistema lingüístico de chegada –é dicir, a aceptabilidade– impón unha variación con referencia ó que poderíamos considerar traducción literal» (Íbid.: 227).*

Gure ustez, irakasle galiziarrek EKz egiten duen planteamendua arazorik gabe izan daiteke baliagarria azterketa-unitate linguistiko handi-agoen itzulpena ikertzeko, klausula, perpaus edo segmentu mailan topatzen diren itzulpen-arazoen aurrean itzultzaileek erabakitako irten-bideak agerian uzteko. Metodologia deskriptibo-konparatibo hau oso argigarria izan daiteke euskara eta gaztelania bezalako bi hizkuntza estruk-turalki oso desberdinetan norabide batean zein bestean maila sintaktikoan egoten diren itzulpen-arazoak eta corpus batean topa ditzakegun desplazamendu horiek enpirikoki aztertzeke. Horregatik baliatu gara EKren eredu deskriptibo honetaz gure tesiko azterketari ekiterakoan.

Estilistika Konparatuak itzulpen-ikerketa orokorrei egiten dien ekarpena irismen mugatuko azterlan partzial batzuk eskaintzea da, haietatik abiatuta ondorioak ateratzeko aztertutako bi hizkuntzen adierazmoldeen arteko harremani buruz. Izan ere, EKren tresnen bidez, aukera dugu itzulpenean inplikaturako hizkuntza bakoitzean corpuseko testuetan aurkitzen diren joera estilistikoak nabarmentzeko eta aurrez aurre jartzeko, bai eta hizkuntza baten edo testu baten ikerketa elebakarrari ihes egiten dioten ezaugarri estruktural batzuk antzemateko ere. Dena den, ikerketatik ateratako emaitzak beti erlatiboak izango dira, halako corpus jakin batetik ateratakoak direlako, eta, beraz, halako garai historiko, halako testu mota eta halako idazle eta itzultzaile multzo jakin bati lotuta daudelako, eta horregatik ezin zaie balio absolutua eman eta, translatologia linguistikoak egiten zuen bidetik, hizkuntzaren ezaugarri berezkoetat jo. Ikuspegi honekin, argi dago EK itzulpen jakin bat edo batzuetan parte hartzen duten hizkuntzetako bakoitzaren estilistika dela, beste hizkuntzaren ikuspegitik egina, itzulpen-prozesu eta itzulpen-produktuaren dimentsio bikoitzean.

#### **1.3.4.1. Estilistika Konparatu berriaren ikerketa-metodologia**

EK tradizionalak hizkuntza baten barne-estilistika itzulpeneko hizkuntza-bikoteari ezartzen zizkiola eta, Álvarez Lugríssek dio beharrezkoa dela lehenagoko abiapuntu aprioristikoak alde batera uztea eta EKren ikerlanen

helburu eta metodologia berbideratu eta IIDen abiapuntu traduktologikoetara egokitzea, itzulpen-teoria eraikitzen laguntzeko. Beraz, hizkuntzari buruzko teoria eraikitzearen hiztunak behatzea beharrezkoa den bezala, itzulpenaren teoria eraikitzearen itzultzaileak behatzea izango da beharrezkoa.

EKren ikerketa-eredu berriak jatorrizko testu baten eta bere itzulpenaren artean dauden antz eta aldeak bilatu behar ditu, hau da, bi testuen arteko baliokidetasun testualak.

Goragoko 1.2.2.1. puntuan ikusi dugun bezala, Vinay eta Darbelnetek argi zioten azterketa estilistikoa itzulpenen behaketa oinarritu behar zela itzulpen-legeak atera ahal izateko; baina beren behaketa jatorrizko testutik egiten zuten gero, aurretiaz ezarritako kategorien arabera. Aldiz, gure ikerketan, Touryren eta Álvarez Lugrísen proposamenei jarraituz, testu itzulia izango da gure abiapuntua, itzulpen horietan zer eta zergatik egiten den jakiteko; gure azken helburua, ordea, apur bat desbideratzen da Touryren eredutik, zeinean, gorago ikusi dugun bezala, aztertzen diren itzulpen-arazoak ez baitaude aldez aurretik erabakita, eta, bestetik, Álvarez Lugrísen proposamena baino pauso bat haruntzago ere badoa: izan ere, gure ikerketaren ardatz gisa bai hartuko dugu euskararen eta gaztelaniaren arteko ohiko itzulpen-arazo bat, erlatibo ez-murrizgarri edo esplikatiboa alegia, eta enpirikoki behatutako fenomeno traduktologikoetan oinarrituz, bi hizkuntzen sistema estilistikoak aurrez aurre jarriko ditugu, corpuseko ST eta XT desberdinetan aurkitutako baliokidetasun mota desberdinak agerian jartzeko, ez ordea, sarritan azpimarratu den bezala, inolako irizpide arauemaile baten bila, baizik eta ikusteko STko zein baliabide sintaktiko eta estilistiko itzultzen diren gaztelaniara perpaus erlatibo esplikatiboen bidez, haien maiztasun erlatiboekin. Datuek erakutsiko digutena ez da izango hizkuntza bakoitzean erlatibakuntza mota honek nola funtzionatzen duen, ez da izango sintaxi konparatu bat, estilistika konparatu bat baizik, testu-multzo bakoitzaren joera sintaktikoak bistaratzen dituen.

Horretarako, lehendabizi testu-bikote bakoitzeko baliokidetasun testualak identifikatu beharko ditugu, itzulitako testutik abiatuz, itzulpen-prozesuan segmentu itzulia sortarazi zuen STko segmentua aurkitu arte; jakina, bi testuetako segmentuak desberdinak izan daitezke luzerari dagokionez, edo, azpicorpus bakoitzari eskainitako azterketan ikusiko dugun legez, gerta daiteke

segmentu bat hutsik topatzea STan, gure kasuan beti sorburu-testuan ez zegoen testu-zati bat XTan gehitu delako. Behin bi segmentuak aurrez aurre jarri, binomiotan parekatuta alegia, aztertu nahi dugun itzulpen-arazoa erreproduzitu eta itzultzaileak itzulpen-zati horretan erabilitako estrategia jarri ahalko dugu agerian, bai eta interesatzen zaigun fenomeno linguistikoaren kasuan itzulpen-prozesua baldintzatzen duen itzulpen-kontzeptua antzeman ere.

Bestalde, egiten den ikerketa deskriptiboa sekuentziala eta partziala izango da; hasteko, hizkuntzak berak eta giza komunikazioari lotutako edozein jarduerak ere izaera lineal eta sekuentziala dute, denboraren lerroan garatzen direlako. Itzulpenak ere izaera sekuentziala du, beraz, eta gainera bikoitza: batetik, itzulpena egiteko, beharrezkoa da lehendabizi testu bat irakurtzea eta hori, literaturaren kasuan bereziki, modu sekuentzialean egiten da; bestetik, STtik XTra egiten den berreraikuntza linguistikoa ere berdin egiten da, ezin dira testuak osorik itzuli kolpe batez, zatika baizik. Horiek horrela, gure azterketak ere sekuentziala izan beharko du, testuen irakurketan oinarritzen baita; eta, gainera, partziala ere izango da, ez ditugulako erkatzen bi testu oso, testu zati batzuk eta zati horietan interesatzen zaizkigun osagaiak baizik; gure ikerketa beste zentzu batean ere izango da partziala, hautatutako testu kopuru mugatu baten gainean egiten delako, aldezturik ezarritako irizpide bati jarraituz. Jakina, irizpide hori ezin da adibide batzuen hautaketa interesatuan oinarritu, aldezturik ezarritako ustezko konklusio batzuetara iritsi ahal izateko. Gure kasuan, corpuseko XT guztietan aurkitu ditugun PEEen adibide guztiak sartu ditugu, edo behintzat PEEtzat hartzeko inolako arazorik planteatzen ez dituzten adibideak.

Bere aldetik, azterketaren emaitzak ere partzialak baino ezin dira izan, corpus mugatu batetik ateratakoak direlako eta, beraz, errealitatearen zati bat baino ez dutelako irudikatzen, eta ez sistema osoaren errealitatea. Nolanahi, ikerlan partzial baten emaitzak berez mugatuta izateak ez dio baliorik kentzen teoria orokorraren garapenerako egiten duen ekarpenari. Hori bai, ikerketa zientifiko batean, aztertu nahi dugun errealitatearen ahalik eta irudirik zehatzena ematekotan, errepresentatibitate handiko testu homogeneousak aukeratu behar dira. Gure kasuan, euskaratik gaztelaniara azken hiru hamarkadotan itzuli diren testu narratiboak aukeratu ditugu gure azterketaren

corpusa osatzeko, 4 kapituluko 4.1.1. puntuan jasota dauden irizpide zehatzekin; berez, argitalpen-moduei, garaiari eta hartzailei dagokienez halako ezaugarri homogeneousak dituzten helduentzako literaturako testu narratiboak aukeratu ditugu, ezinezkoa izango litzatekeelako inolako ondoriorik sistematizatzea, literatura-genero desberdinetako testuak nahasiz gero, testu narratiboak eta poetikoak adibidez, edo testu literarioak eta ez-literarioak.

Azkenik, binomioen azterketan topatutako baliokidetasunek eta itzulpen-jokamoldeek (jarduera-arauek) pista batzuk emango dizkigute gure tesiaren helburuetarako garrantzitsuak diren harrera-arauei buruz. Harrera-arauek, berez, osagai estratestualak dira, baina eragin zuzena dutenak maila testualean: intentzionalitatea eta onargarritasuna dira gure azterketan bereziki interesatzen zaizkigunak. Biak STaren nahiz XTaren ikuspegitik azter daitezke, eta, itzulitako testuaren kasuan, itzulpenaren hasierako arauarekin loturik daude, Touryren eskemari gagozkiolarik. Izan ere, itzultzaileak badaki zein testuinguru estratestualetan txertatuko den bere itzulpena eta horren arabera erabaki dezake halako aldaketa batzuk sartzea edo ez sartzea transferentzia-prozesuan testu itzuliaren onargarritasunari begira.

Itzulpenaren harrera-arauek, definizioz, XKko polisistemako hartzailea kontuan hartzen dutenak dira, hartzaile hori izango baita halako testuinguru baten barruan testu itzulia baliozkotzat eta egokitzat hartuko duena bere genero, forma, eduki eta abarren arabera, hau da, itzulpenaren ezaugarri testual eta linguistikoen arabera.

Intentzionalitateari dagokionez, testu guztiek halako helburu komunikatibo bat dute, informazio bat ematen dute helburu jakin batekin, hau da, mota bateko edo besteko eragina eduki nahi izaten dute hartzailearengan. STaren intentzionalitatea, testugilearen asmo eta helburuek gorpuzten dute; testu guztiak halako funtzio batekin sortzen dira, sorburu-sistemari dagozkion testuinguru batean eta hartzaile bati begira, eta testu baten funtzioa koherentea izango da testuinguru horrekin eta hartzaile mota horrekin. Itzultzaileak STari aurre egiten dionean, testugilearen asmo horiei antzeman behar izaten die, XTa jatorrizko intentzionalitate horren arabera eraikitzeko. Euskarazko literaturaren kasuan, ordea, badago faktore pare bat eragin handia

duena eta euskal literatura-sistemaren elebitasunaren ondorio dena<sup>6</sup>: jatorrizko testugileek itzulpen-prozesuan duten partehartze edo interferentzia eta partehartze horrek baldintzatzen duen itzulpenaren tipologia.

Jakina da euskaratik gaztelaniarako literatura-itzulpengintzan –eta, bide batez esanda, baita gure corpusean ere– pisu handia dutela jatorrizko lanen egile berek egindako itzulpenek, euskal idazleen autoitzulpenek, alegia; eta horrek eragin desberdina dauka tipologia bakoitzeko itzulpenetan suma dezakegun intentzionalitatean, bai eta isla zuzena maila testualean ere. Horregatik, gure ikerlanean, intentzionalitate mailako desberdintasunek xedetestuetan uzten dituzten isla edo arrasto horiek azpimarratuko ditugu, itzultzaileen hautuak azaltzen laguntzen dutelako. Gainera, euskal idazleak elebidunak eta kulturabidunak izanik eta, bestetik, euskal literatura-polisistemaren dimentsio txikiengatik idazle eta itzultzaileen arteko harremana oso hurbila izan daitekeenez, ikertzailearentzat zaila izan daiteke zehaztea, maila mikroestruturalean batez ere, ea azterketa deskriptiboak antzemandako halako ezaugarri edo hautu jakin bat, edo XTaren intentzionalitatean eragina duen desplazamendu bat, itzultzaileari ala idazleari egotzi behar ote zaion, itzulpen alografoen edo elkarlanean egindako itzulpenen kasuan, noski. Pentsatzekoa izan daiteke maila lexikoan aurkitutako mikrodesplazamendu bat idazlearen partehartzearen ondorioa izan daitekeela, baina inoiz ezingo da erabateko segurtasuna eduki. Adibide bat ipintzearen, C<sub>8</sub> azpicorpusean, sorburu-testuan esaten da Bilbok urtebetez eutsi ziela «*faxisten erasoei*», eta XTan, aldiz, «*los ataques del ejército nacional*». Mikrodesplazamendu horren erantzunkizunari buruzko aieruetan sartu gabe, gehiago interesatzen zaigu apuntatzea bi testuek intentzionalitate desberdina erakusten dutela gure ustez, erabakia hartu duenarentzat soziologikoki desberdinak direlako sorburu-hartzailea eta xede-hartzailea.

Bestalde, aurreko kontzeptua bera eta hari buruz esandakoak oso loturik daude onargarritasunarekin. Ezaugarri honek hartzaileak testuaren aurrean duen jarrerarekin du zerikusia. Testua eraginkorra izango da, hau da, bere helburu komunikatiboa beteko du, baldin eta hartzaileak ontzat hartzen badu. Touryren eskemaren azalpenean esan dugun bezala, onargarritasuna gertatzen da itzulpena xede-hizkuntzan eta xede-literaturan nagusi diren arauen aldera

<sup>6</sup> Tesiko 3. kapituluan aztertuko dugu hau luze eta zabalago.



makurtzen denean, eta egokitasun kontzeptuaren kontrako muturra da, zeina gertatzen baita itzulpenak sorburu-hizkuntzako eta sorburu-literaturako arauetara egiten dienean. Onargarritasunak, teorikoen arabera, esan nahi du halako testu bat testu baliozkotzat hartzen duela hartzaileak, ez bakarrik edukia ulertzen duelako baizik eta, orobat, testu mota baliozkotzat onartzen duelako; onarpen hori hiru puntutan erabakitzen da: batetik, hartzaileak testutzat onartuko du testuinguruarekin koherentea denean; bestetik, hartzailea gai delako testuaren edukia identifikatzeko; eta hartzaileak ezagutzen dituen beste testu batzuen antza hartzen dielako onartzen du testutzat. Baina itzulpenaren onargarritasunak badu zerikusirik, halaber, testuaren ezaugarri lexiko eta gramatikalekin ere, eta, berez, ezaugarri horien onarpena funtsezkoa da XTaren onargarritasunerako. Gure tesiko azterketara etorri, uste dugu STen baliabide sintaktiko ez-erlatiboen eta XTko baliabide erlatibo esplikatiboen arteko baliokidetasunaren maiztasuna estuki loturik dagoela XTen onargarritasunarekin.

## **2. KAPITULUA:**

### **ERLATIBOA GAZTELANIAZKO ETA EUSKARAZKO GRAMATIKETAN ETA EUSKARAZKO ITZULPEN-IKERKETETAN**

Lehenago esan dugun bezala, tesi honetako corpora ikertzeko hautatu dugun azterketa-unitatea XTetako perpaus erlatibo esplikatiboak (PEE) izatea erabaki dugunez gero, beharrezkoa izango da ikustea gaztelaniaren gramatiketan nola definitu diren perpaus horiek hizkuntza horren erlatibakuntza-sistemaren barruan, eta zer ekarpen egin duten gaztelaniaren – eta beste hizkuntza batzuen– gramatiketan ohikoa zen sailkapen bikoitza auzitan jarri duten teoria berriek. Bigarren zatian, berriz, euskararen gramatiketan erlatibo mota desberdinen alderdi formalei eta balio semantikoari buruz egin diren deskribapenak jorratuko ditugu.

Gure azalpenak, hala ere, ez dauka inolako asmorik bi hizkuntzen gramatikaren arteko sintaxi kontrastiborik egiteko, ezpada landu dugun corpusean topatu ditugun baliokidetasunak halako marko gramatikal deskriptibo baten barruan kokatzeko: batetik, gure ikerketa egiteko hautatu dugun azterketa-unitatea gaztelaniaren gramatiketan nolako ezaugarriekin definituta dagoen zehaztu nahi dugu; eta, bestetik, ikusi nahi dugu gure corpuseko STetan topatu ditugun euskal erlatibo mota desberdinen ezaugarriak zenbateraino datozen bat euskararen gramatiketan egiten diren deskribapen desberdinekin, deskribapen horietan dauden desadostasunak nabarmen utziz.

Hirugarren atal batean, euskararen eta beste hizkuntza batzuen erlatibakuntzari buruz egin diren itzulpen-azterketa deskriptiboak aurkeztuko

ditugu, haietatik ateratako datu eta ondorioak interesgarriak izan daitezkeelakoan gure tesitik ateratakoekin erkatzeko.

### 2.1. Erlatiboa gaztelaniaz. Sailkapen eta terminologia arazoak

RAEren *Nueva gramática de la lengua española* (2009, II: 3291-2) delakoaren arabera, perpaus erlatiboak (*oraciones subordinadas de relativo*), edo, besterik gabe, erlatiboak, izenordain, adberbio edo determinatzaile erlatibo bat edo horiek osaturiko multzo sintaktikoren bat buru dutenak dira.

Hainbat autorek nahiago dute "klausula erlatiboak" deitura erabili, eta, horrela, Brucart-ek (1999: 397), haien ezaugarriak aztertzean, dio klausula erlatiboak "aurrekari" (*antecedente*) delako elementu baten osagarri modifikatzaile funtzioa duten izenordain, adjektibo edo adberbio erlatibo bat buru duten mendeko perpausak direla.

Esan bezala, gaztelaniaz perpaus erlatiboek (PE) euren aurrean joan ohi den segmentu bat modifikatu egiten dute, delako aurrekaria hain zuzen; normalean, aurrekari hori izen edo izen sintagma (IS) bat izaten da, baina izenordainak, zenbait adberbio pronominal edo baita perpaus oso bat ere izan daitezke. Hala ere, badira erlatibo batzuk aurrekari isildua dutenak. Nolanahi, erlatiboaren eta aurrekariaren artean dagoen harremana adjektibo baten eta adjektibo horrek modifikatzen duen substantiboaren artean dagoen harreman berbera da, eta, horren arabera, predikazioaren harreman semantikoak dituen formatoko bat da.

Barne-egiturari erreparatzen badiogu, klausula erlatiboak erlatibagailu bat izaten du beti buruan, aurrekariaren anafora moduan, mendeko perpausaren adjuntu gisa diharduena. Erlatibagailuak *que* (mugatzaile determinatuarekin edo gabe) eta *quien* izenordainak, *cual* (ia beti mugatzaile determinatua aurrean duelarik), *cuanto* eta *cuyo* adjektibo determinatiboak, genero eta numeroko flexio desberdinekin, eta *donde*, *como*, *cuanto* eta *cuando* adberbioak dira.

Perpaus erlatiboak aurrekariko ISa modifikatzeko duen moduaren arabera, eta baita modifikatzen duen aurrekari motaren arabera, gaztelaniaz bi PE mota bereizi izan dira, gutxienez Port-Royaleko *Logique*-tik (1662) datorren tradizioari jarraiki, eta hala egin dute, ez beti terminologia berberarekin, Secok (1971 [1930]: 214-215), Alonsok eta Henríquez Ureñak (1971 [1938]: 24), Alarcosek (1994: 331-332), Lujánek (1980: 53), Di Tulliok (1997: 313), Brucartek (1999: 416-417) eta RAEren *Gramáticak* (3295. orr.), besteak beste<sup>7</sup>:

- Espezifikatiboa (*especificativa*): mendeko perpausak bere aurrekariaren modifikatzaile gisa jokatzen duenean; adibidez: *Los documentos que se salvaron del incendio serán fundamentales en el juicio*. Erlatibo mota honek aurrekaria zehaztu egiten du eta, aurrekari hori pluralean doanean, haren izaera murriztu egiten du.
- Esplikatiboa (*explicativa*): mendeko perpausa aposizioan dagoen adjuntua denean; adibidez: *Los documentos, que se salvaron del incendio, serán fundamentales en el juicio*. Erlatibo mota hauek ez dira beharrezkoak perpaus nagusiaren edukia ulertzeko; aurrekariari buruzko azalpen bat eransten dute.

Bi erlatibo mota horiek formalki eta semantikoki desberdinak dira, batetik intonazioari, eta ortografiari, eta, bestetik, esanahiari dagozkien aldeak dituztelako. Gramatika sortzailearen ereduari jarraituz, gainera, zenbait autorek sakoneko egitura desberdinak proposatzen dituzte bientzat, geroago ikusiko dugun bezala.

Desberdintasun formalari begiratuta, eten ortografikoa da mota bata eta bestea bereizten dituen elementua. Jada Bellok (1847) aipatu zuen irizpide horren arabera, erlatibo esplikatiboak puntuazioaren bidez bereizten dira,

<sup>7</sup> Honi dagokionez, gaztelaniazko erlatibakuntzaren deskribapenerako, hizkuntza horren gramatiketan ohikoak diren terminoak erabiltzea erabaki dugu (*espezifikatiboa* eta *esplikatiboa*, alegia), besteak beste euskal terminologian ere ez dagoelako erabateko adostasunik; hala, adibidez, EGLUK, SEGEK eta Euskalterm eta Elhuyar hiztegiek *especificativo* hitzaren baliokide gisa *murrizgarri* nahiago dute, baina *Zehazki* hiztegiak aldiz, hizkuntzalaritzaren alorreko adieran, *murriztatzaile* proposatzen du. Eta, *explicativo* itzultzeko, berriz, nahasmena are handiagoa da: SEGEK bezala, Euskaltermek *ez-murrizgarri* ipintzen du *aposición explicativa* emateko, baina *erlatibo determinatzaile-esplikatibo* ematen du *relativa determinativa-explicativa* sarreran; Elhuyar hiztegian, ordea, *adjektibo ez-murrizgarria* jartzen dute soilik, erlatiboei buruzko aipurik egin gabe. Aipatzekoa da, orobat, Garziak (1997: 317) *erlatibo espezifikatibo* eta *erlatibo esplikatibo* terminologia "gainditzea" proposatu zuela, *erlatibo zehaztailea* eta *aposiziozko erlatiboa* bereizketa hobetsirik. Eta, azkenik, EGLUK eta SEGEK, Georges Kleiber eta Pierre Le Goffic hizkuntzalari frantsesen ildoari jarraituz, erlatiboen sailkapen konplexuagoa proposatzen dute, geroago ikusiko dugunez.

normalean koma baten ondoren edo koma artean jartzen direlako, baina bestelako etenak ere izan daitezke: puntua, puntu eta koma, bi puntu, gidoiak, parentesiak edo kortxeteak, mendeko perpausa perpaus nagusitik bereizteko. Erlatibo espezifikatiboak, berriz, ez dira ezein puntuazio-zeinuren bidez banatuta egoten.

Bestalde, desberdintasun hori, gainera, batzuek eta besteek modifika dezaketen segmentuaren arabera ere bada; horrela, klausula espezifikatiboek izen sintagmak baino ezin dituzte modifikatu, eta esplikatiboek, aldiz, ISak ez ezik, baita beste edozein kategoria gramatikal ere. Dena dela, IS horiek ez dira edozein klausula motarekin uztartzen: klausula murrizgarriek murriztuak izan daitezkeen izen sintagmak onartzen dituzte, eta horregatik ezin zaio erlatibo murrizgarri bat atxiki izen propio bati, zeren berauek, definizioz, erreferentea identifikatzeko funtzioa duten osagai zehaztaileak baitira; horrela, *\*Bilbao que ha conocido un gran desarrollo turístico* esaldia agramatikala da, erlatiboaren aurrekaria izen murriztua delako eta, beraz, determinazio osoa duelako bere baitan, halatan non erlatibo ez-murrizgarria baino ezin baitu onartu: *Bilbao, que ha conocido un gran desarrollo turístico*. Gauza bera gertatzen da izenordain pertsonalekin: *Ella, que tiene 23 años...*; bai eta ISak beste zenbait determinatzaile duenean ere: *Su libro, que me ha gustado mucho*.

Hala ere, izen propioak mugatzailea har dezake hainbat kasutan, eta orduan arazorik ez dago erlatibo espezifikatiboaren bidez osatzeko, ondoko esaldietan bezala: *El Bilbao que ha conocido un gran desarrollo turístico* edo *Una Rusia cuyo peso internacional ha crecido en los últimos años*. Kasu honetan, noski, erlatibo horien funtzioa ez da aurrekariaren denotazioa murriztea, izenak berak betetzen baitu funtzio hori.

Fenomeno hau azaltzeko, Brucartek (1999: 411) esaten digu izen propioari dagokion berezko bakantasun horren barruan nolabaiteko segmentazio bat bai aurki daitekeela, hainbat arrazoiengatik: kasu batean, izen ardatzaren bakantasunean nortasunaren edo izaeraren alderdi desberdinak bereiz daitezkeelako; eta, bestean, izen ardatzak baduelako halako izaera historiko bat, etapa edo une historiko desberdinetan bana daitekeena. Eta kasu batean

zein bestean, posible eta sintaktikoki zuzena da, bereizketa horretan oinarrituta, PE espezifikatiboak erabiltzea.

Era berean, eta azaldutako arrazoi berberarengatik, izen propioak erlatibo espezifikatiboa jasotzearen fenomeno hauxe bera gertatzen da gaztelaniaz beste zenbait kasutan ere, de la Fuentek (2008) dakarren bezala; erakuslearekin: *¿Qué queda de aquel Madrid que se veía desde la carretera de Extremadura?* Edo gaztelaniazko *mismo/-a* izenlaguna izenari itsatsita doanean: *Se trata, no obstante, del mismo Maragall que había hecho de los Juegos Olímpicos un formidable escaparate del ensamblaje entre España y Cataluña.*

Zer esanik ez, homonimia kasuetan ere topa ditzakegu erlatibo hauek, baina kasu honetan bistan da izenak izaki desberdinei dagozkiela eta haietan ere egin daitekeela bereizketa izen arruntekin egin daitekeen bezala (kasu honetan ere de la Fuenteren lanean oinarritzen jarraitzen dugu, adibideak ematean): *El Artemio que conociste en México no tenía nada que ver con el personaje de Carlos Fuentes*<sup>8</sup>.

Bestetik, bi erlatibo moten arteko desberdintasunekin jarraituz, Fernández Leborans-ek (2003: 80) dioenez, PEEen ezaugarri bat da perpausak ere onartzen dituztela aurrekaritzat. Ingelesez "*sentential relative*" deitzen diren egitura hauek *que* izenordaina eta *lo que* edo *lo cual* konposatuak hartzen dituzte, eta preposizioak har ditzakete. Era honetako erlatiboei, alabaina, Fernández Ramírezek (1987: 246) izaera parataktikoa esleitzen die, hipotaktikoa bainoago eta "*Explicativas oracionales o continuativas*" deitzen die. Baina funtzio semantikoari eta egitura sintaktikoari dagokienez, izen sintagma baten aurrekaria duten esplikatiboak bezalakoak dira.

Porto Dapenak (1997: 21-23) zalantzan jartzen du perpaus-aurrekariko erlatibo horiek mendeko perpausak diren, eta koordinazio mota bat ikusten du haietan. Haren aburuz, honelako PEEk ez dute aurrekariaren bigarren predikazio bat egiten eta ez daude perpaus nagusiaren egituraren barruan txertatuta, harekiko aparte baizik, eta horregatik "erlatibo ez-integratuak" deitzen die; horrenbestez, erlatiboak bere transpositore-izaera galdu eta

<sup>8</sup> Euskaraz ere inolako arazorik gabe egin daiteke hori bera: *Frantzian dagoen Tolosan bizi da, ez Gipuzkoakoan.*

izenordain anaforiko soila izatera mugatuta dago, erakusle baten antzera. Alegia, *Malú se casó la semana pasada, lo que me alegra enormemente* esaldia eta *Malú se casó la semana pasada y eso me alegra enormemente* identikoak dira, haren azalpenean.

Bi PE mota desberdinen morfologiarekin jarraituz, RAEren *Gramática*-ren arabera, klausula espezifikatiboa aurrekariari estuki loturik ageri da eta, beraz, mendeko perpausa bere barruan duen izen sintagmak unitate foniko bat osatzen du; esplikatiboa, berriz, banatuta joaten da, aparteko unitate foniko batean, ahozko hizkeran halako eten txiki bat eginez, eta, idatzian, koma erabiliz, klausularen mugetan. Brucart-ek (1999: 409) gogoratzen duenez, koma erabiltzea izaten da ohikoena, baina parentesiak edo marra edo gidoiak ere erabil daitezke; Alarcosek (1994: 331) eta de la Fuentek (2008), gainera, puntu eta koma eta puntua ere eransten dituzte, baina, kasu horietan, Alarcosek dioen bezala, izenordain erlatiboak ez du aurrekariarekiko harreman sintaktikorik adierazten, erreferentzia anaforiko hutsa baizik. Perpaus erlatibo espezifikatiboetan, noski, ez da inolako puntuazio markarik jartzen, egon litezkeen tarteki erantsiei berez dagozkienak kenduta.

Esanahi mailako desberdintasunei dagokienez, RAEren *Gramática*-k (3320. orr.) bien funtsezko aldea zein den argitzen du, esanez erlatibo espezifikatiboek izen sintagmaren denotazioa zehazten dutela, eta esplikatiboek, aldiz, sintagma horretatik kanpo dagoen informazio osagarri bat erantsi besterik ez dutela egiten. Alegia, lehenengoen murrizten laguntzen dute modifikatzen duten izenaren zabaltasuna, eta horregatik erlatibo murrizgarriak (*relativas restrictivas*) ere esaten zaiela dio RAEk, baina, beherago ere zehaztuko dugun bezala, espezifikatibo terminoa erabiltzen jarraitzen du. Kasu honetan, aurrekari den sintagmako izenak multzo zehazkabe bat adierazten du (dokumentu guztien multzoa, goiko adibidean), eta suposatzen da mendeko perpausak adierazitako baldintza betetzen ez duen alerik ere badela testuinguru komunikatiboan (goiko adibidean, badela sutatik salbatu ez zen dokumenturik, alegia). Bestela esanda, ISk adierazten duen multzo horretan bi azpimultzo bereiz daitezke: sutatik salbatu ziren dokumentuen azpimultzoa eta salbatu ez zirenen azpimultzoa, adibidearekin jarraituz; eta mendeko perpaus espezifikoak, beraz, predikatua jasotzen duen ISren erreferentzia zein den

zehazteko balio du, helburu identifikatiboarekin, nolabait esanda. Aldiz, erlatibo esplikatiboetan, predikatua jasotzen duen ISa, hots, aurrekaria, testuan edo komunikazio-egoeran aurretiaz identifikatuta edo zehaztuta dagoela ulertu behar dugu, eta, mendeko perpausak indentifikatzeko funtziorik ez duenez gero, esan gabe ere utz liteke, aldaketarik eragin gabe ez enuntziatuaren egia-baldintzetan ez erreferenteari buruzko auresu-posizioetan ere.

**Gramática**-k, aurrerago (3343. orr.), argi uzten du PE mota bakoitza aurrekari desberdin banari lotzen zaiola, nahiz eta espainierazko gramatikarien tradizioan ez den aurrekaria bereizten espezifikatiboetan eta esplikatiboetan. Izan ere, erlatibo mota batean eta bestean, modu desberdinean batzen zaizkio izen-taldeari determinatzaileak eta zenbatzaileak: erlatibozko perpaus espezifikatiboak haien esparruaren barruan geratzen dira, unitate bat osatuz; esplikatiboak, aldiz, kokapen periferikoagoan lotzen zaizkio, izen-taldeak determinatzaileak eta zenbatzaileak hartu eta gero.

Honela, *los cuatro estudiantes de filosofía que se examinan hoy* izen sintagman, modifikatzaileen hurrenkera honelakoa da:

*estudiantes*: nukleoa

*[estudiantes] de filosofía*: osaketa espezifikatiboa

*[estudiantes de filosofía] que se examinan hoy*: osaketa espezifikatiboa

*cuatro [estudiantes de filosofía que se examinan hoy]*: kuantifikazioa

*los [cuatro estudiantes de filosofía que se examinan hoy]*: determinazioa

Aldiz, *los cuatro estudiantes de filosofía, que se examinan hoy* sekuentzia esplikatiboan, hurrenkera beste hau da:

*estudiantes*: nukleoa

*[estudiantes] de filosofía*: osaketa espezifikatiboa

*cuatro [estudiantes de filosofía]*: kuantifikazioa

*los [cuatro estudiantes de filosofía]*: determinazioa

*[los cuatro estudiantes de filosofía], que se examinan hoy*: osaketa esplikatiboa

Gaztelaniazko erlatiboen definizio eta sailkapena ezarri eta gero, ezin aipatu gabe utz dezakegu gramatikan eta azterketetan erabiltzen den



terminologia ez dela bat eta bakarra, eta, kontraesankorra dela, baita nahasgarria ere zenbait kasutan. Eta kontu hau garrantzitsua da, geroago, euskal erlatiboari buruz hitz egiten hasten garenean ikusiko dugun terminologiari begira.

Izan ere, RAEk eta beste hainbat autorek erabiltzen duten terminologia (*relativas especificativas* / *relativas explicativas*) honetaz gain, beste batzuk ere aurkitzen ditugu beste ikertzaile batzuen lanetan.

Horrela, Secok (1971[1930]: 214-215) eta Gili Gayak (1943 eta 1973) *determinativas* eta *incidentales* ere deitzen diete, hurrenez hurren, espezifikatibo eta esplikatiboei.

Luján-ek (1980: 53) –eta, hark bezala, Gramatika Sortzailearen ereduari jarraitzen dioten beste hainbat autorek– erlatibo murrizgarriak (*restrictivas*) eta apositiboak (*apositivas*) terminoak erabiltzen ditu mota bakoitza izendatzeko, hurrenez hurren, eta sakoneko egitura desberdina proposatzen du haietako bakoitzarentzat; haren arabera, erlatibo apositiboa sakoneko egiturako perpaus juntatu edo elkartu batetik eratortzen da, eta murrizgarria, berriz, ISn txertatutako klausula batetik, nukleoa aldatuz. Haren esanean, azaleko egituran, klausula apositiboek koma arteko intonazioa (“*una entonación entre comas*”) dute, murrizgarriek ez bezala, eta, intonazio bereizgarri hori azaltzeko, sakoneko egitura mailako desberdintasunera jotzen du, esanez perpaus apositiboak aparteko perpausak (“*oración independiente*”) izaten direla, perpaus matrizarekin elkartuak, perpaus murrizgarrien alderantziz<sup>9</sup>.

Terminologiaren gorabehera hauekin jarraituz, gainera, bada “murrizgarri” edo *restrictiva* terminoa ontzat hartzen ez duenik ere; horrela, Osunak (2005: 82), RAEren *Gramática*-k bezala, dio ezen, “murrizgarri” hitzak zerbaiten hedadura murrizteko funtzioa duen zerbait adierazten badu, ez dirudiela horixe denik, kasu guztietan behintzat, erlatibo espe-zifikatibo edo determinatibo deitutako perpausen funtzioa. Haren arabera, *El libro del que te hablé* adibidean, mendeko erlatiboak determinatzaile edo zehaztaile funtzioa duela ulertu behar da, mugatzaile funtzioa duela bainoago. Funtzio

<sup>9</sup> De Vries-ek (2007) parataxiaren barruan sartzen ditu egitura apositibo guztiak, baita erlatibo ez-murrizgarriak ere.

determinatzaile hori, bestalde, ez dute erlatibo esplikatiboek, hauek aurrekariari buruzko predikazio bat egiten dutelako.

Bestalde, "apositibo" terminoa ere ez da unibokoa; hainbat autoreren lanetan erlatibo esplikatiboek ezartzen zaie, tradizio anglosaxoiari jarraituz, baina D'Intronok (1979: 15. atala), Martínezek (1989: §4.8.2) eta Ojeak (1992: §4.5), adibidez, erlatibo espezifikatibo eta esplikatiboetatik aparteko beste erlatibo mota bati buruz erabiltzen dute, *Los venezolanos, los/aquellos que tienen dinero, viajan al exterior* esaldian azpimarratuta dagoenari, adibidez; hau da, mendeko perpausaren buruan mugatzailea edo erakuslea dutenei. Haien arabera, erlatibo hori beste biak ez bezalakoa da, batetik inflexio tonalen bidez mugatuta dagoelako, erlatibo esplikatiboak bezala, baina, bestetik, zentzu murrizgarria duelako, erlatibo espezifikatiboak bezala. D'Intronoren arabera, erlatibo espezifikatiboen azpimota bat dira, eta Martínezen ustez, ordea, erlatiboen sailkapen bikoitzari erantsi beharreko hirugarren mota bat. Osunak (2005: 90) eta Brucartek (1999: 425), ordea, ez dute ontzat ematen bereizketa hori, ezta hirugarren erlatibo mota hori badenik ere. Lehenengoaren aburuz, erlatibo apositiboak esplikatiboen aldaera bat baino ez dira, eta, haiek bezala, segmentu aposatu horiek izen sintagmak dira; bigarren autoreak, gainera, zehazten du erlatibo horiek ez direla apositiboak, izen ardatz eliditu edo isildu bat mugatzen duten klausula espezifikatiboak baizik, eta "erlatibo sasiapositiboak" deitzen die (*relativas pseudoapositivas*). Autore honen arabera, aurreko adibide horren baliokide da beste hau: *Los venezolanos –solo los venezolanos que tienen dinero, claro– viajan al exterior*. Eta marra artean dagoen osagarri hori ez da PE bat, aposizioan kokatutako IS bat baizik; perpaus erlatiboa IS horren barruan dago eta izen ardatzaren denotazioa murrizteko edo modifikatzeko funtzioa du.

Benegas Saorín (2006), aldiz, bai da erlatibo apositibo kategoria hori mantentzearen aldekoa; hasteko, autore honek dio erlatibo guztiak direla apositiboak, eta batzuk zuzenekoak direla (espezifikatiboak) eta beste batzuk eten-arteak edo tartekiak, hauen artean bi mota nagusi daudelarik: esplikatiboak batetik, eta batzuek apositiboak deitzen dituztenak (hots, klausula apositiboan artikulua edo erakuslea sartzen dutenak) bestetik. Azken hauek, ordea, balio espezifikatibo edo murrizgarria dute, baina perpausaren eraketan IS bikoitz bat osatzen dute aurrekariarekin batera, eta gainera helburu

enfatikoa dute. Horregatik guztiagatik, gramatika tradizionalaren nomenklatura aldatzearen beharra aldarrikatzen du.

Aurreko autore horiez gain, bada erlatiboen ohiko sailkapen bikoitza auzitan jarri eta, arrazoi semantikoak argudiatuz eta irizpide interpretatiboak erabiliz, bestelako sailkapen konplexuagoak proposatu dituen ikertzaile gehiago ere.

Horrela, adibidez, G. Giménez Resano batek (1987: 216) dio espezifikatibo eta esplikatiboen arteko bereizketa ezin dela beti irizpide morfologiko, sintaktiko eta fonetiko soiletan oinarritu, beharrezkoa izanik "irizpide logikoak" erabiltzea, izen sintagmaren arau semantikoei begiratzuz. Baieztapen hori sostengatzeko, ondoko hiru perpaus hauek adiera berbera dutela dio:

- a) *Unos obreros tenían un trabajo seguro. Estaban muy contentos.*
- b) *Algunos obreros, que tenían un trabajo seguro, estaban muy contentos.*
- c) *Todos los obreros que tenían un trabajo seguro estaban muy contentos.*

Ikertzaile honen arabera, c) perpausak klausula murrizgarriaren bidez egiten duen murrizketa parekagarria da b) perpausak beste bide batez egiten duenarekin, berez b) perpausako klausula erlatiboa ez-murrizgarria izan arren. Beraz, bi perpaus horiek, bata esplikatiboa eta bestea espezifikatiboa izanda ere, baliokideak dira, semantikoki begiratuta, biek multzo orokor (langileak) baten barruko bi azpimultzo bereizten dituztelako (lan segurua duten langileak eta halakorik ez dutenak), eta bi perpausak balio dutelako, irizpide "logikoa" erabiliz. Osunak (2005: 84-85) ez du azalpen honetatik eratortzen den sailkapena ontzat ematen, forma-adierazpen berezirik ez izanda, interpretatiboak besterik ez direlakoan, eta arazo gehiago sortzen dituztelakoan.

Gaztelaniazko perpaus erlatiboen sailkapen berri baten beharra aldarrikatu duen lanik aipagarriena Aletá ikertzailearena da. Georges Kleiber eta Pierre Le Goffic hizkuntzalari frantsesengan oinarriturik, autore honek, eta haren atzetik beste batzuek ere, hala nola López García (1994: 427) edo Marcos Marín, Satorre eta Viejo (1998: 401), defenditzen dute beste sailkapen bat, testuinguru edo egoera komunikatiboa funtsezkoak direlako PEa zuzen ulertu ahal izateko, eta, horien ezean, klausula erlatiboaren interpretazioa, kasu askotan behintzat, lausoa edo anbigua delako.

Autore honen arabera (1990: 156-157), perpaus erlatiboa hizlariak entzuleari zertaz mintzatzen ari den zehazteko erabil ditzakeen baliabideetako bat da, eta, horregatik, testuingurua eta egoera komunikatiboa funtsezkoak dira entzuleak ondo ulertuko badu hizlariak darabilen PEaren zentzua; edo, bestela esanda, klausula erlatiboaren interpretazioa, halako testuinguru edo egoera komunikatibo batetik kanpo, anbigua da, salbuespen batzuetan izan ezik. Horrela, Aleták dakarren adibidean, *En la calle sólo había un crío que jugaba a la pelota* esaldiak bi interpretazio izan ditzake: batean, kalean hainbat ume daude (multzoa) eta haietako bat bakarrik (azpimultzoa) ari da pilotan jolasten; kasu horretan, erlatiboa murrizgarria da. Bigarren interpretazio posiblea da kalean ume bat baino ez dagoela eta ume hori pilotan jolasten ari dela; hala izanda, PEak multzo batetik bereiz daitekeen azpimultzorik adierazten ez duenez gero, ezin da murrizgarritzat hartu, nahiz eta erlatiboari buruzko ikerlanetan adibide hori sarrienik murrizgarritzat joko litzatekeen, mendeko perpausa ez dagoelako aurrekaritik eten batez banatuta. Are gehiago, Giménez Resanoren adibidean bezala, honi buruz ere esan liteke erlatibo horren kideko semantikoa dela klausula esplikatiboa: *En la calle sólo había un crío, que jugaba a la pelota*.

Horretan oinarrituz, Aleták PEetako eten hori egotea edo ez egotea ez du askiesten erlatiboak sailkatzeko irizpide bakar bezala. Eta hortik ondorioztatzen du bere ustez ez dela egokia izaera espezifikatiboa eta murrizgarria batetik eta, bestetik, izaera esplikatiboa eta ez-murrizgarria berdintzea. Hortik abiatuta, klausula erlatiboak definitzerakoan, lau tasun edo izaera bereizgarri hartu behar direla kontuan dio: izaera espezifikatiboa, izaera esplikatiboa, izaera murrizgarria eta izaera ez-murrizgarria. Eta izaera horiek lau konbinazio onartzen dituztenez gero, lau erlatibo mota bereizten ditu (*ibid.*, 162-163):

1. Erlatibo espezifikatibo murrizgarriak: *Había un crío que jugaba a la pelota*, egoera komunikatiboan ume batzuk (multzoa) baldin badaude eta haietako bat (azpimultzoa) pilotan ari bada jolasten.
2. Erlatibo espezifikatibo ez-murrizgarriak: *Había un crío que jugaba a la pelota*, egoera komunikatiboan ume bat baino ez badago eta ume hori pilotan jolasten ari bada (azpimultzorik ez dago).

3. Erlatibo esplikatibo murrizgarriak: *Hoy en día un crío, que disponga de dinero, claro está, se recorre el mundo*. Kasu honetan erlatiboak bai murrizten du izen sintagmaren denotazioa, azpimultzo bat ezartzen duelako nukleoak adierazten duen multzoan.

4. Erlatibo esplikatibo ez-murrizgarriak: *Un crío, que tiene toda la vida por delante, no tiene por qué preocuparse de esas cosas*. Kasu honetan, multzo osoari dagokio mendeko perpausak egiten duen baieztapena eta ez dago azpimultzorik.

Aleták dio (*ibid.*, 163) lan honetan ez duela PEen inolako sailkapenik egin nahi izan, klausula horiek dituzten esanahi desberdinak zehazteko irizpide bat ezarri baizik. Baina bai adierazten du ohiko sailkapen bikoitzarekiko bere desadostasuna, esanez *espezifikatibo/esplika-tibo/murrizgarri/ez-murrizgarri* tasun horien konbinazioa baliagarria izan daitekeela, kontuan izan beharreko beste zertzelada batzuekin batera, erlatiboen sailkapena egiteko, beti ere, esan bezala, komunikazio-ekintzaren testuingurua eta egoera ezaguturik.

Beste autore batzuek, ordea, ez dute arrazoi nahikorik ikusten Aletárena eta beste batzuen bezalako sailkapen konplexuago hauek ontzat emateko.

Horrela, Brucartek (1999: 416) onartzen du perpaus nagusiaren beraren edukiak edozein murrizketa ezabatzen duela batzuetan, honako adibide honetan bezala: *El único tren de esta línea es el que llega a Canfranc a última hora de la tarde*. Beste batzuetan, eransten du, erlatibo espezifikatibo baten barruko izen sintagma zehaztugabea denean, ahulduta geratzen da multzoaren barruan azpimultzo bat dagoelako planteamendua, eta, kasu horretan, klausula espezifikatiboaren eta esplikatiboaren arteko bereizketa semantikoki neutralizatuta geratzen da kasu askotan, ondoko adibideak erakusten duenez:

- a. *Un individuo que vestía con desaliño se dirigió a nosotros.*
- b. *Un individuo, que vestía con desaliño, se dirigió a nosotros.*

Hala ere, bi enuntziatu hauek testuinguru gehientsuenetan trukagarriak diren arren, autore honen iritziz, horrek ez du esan nahi besterik gabe semantikoki berdinak direnik (*ibid.*, 417); izan ere, kasu hauetan mota bateko eta besteko PEak osatzeko prozedurak desberdinak dira: lehenengo

perpasean, *un* artikulua indeterminatua mendeko PEa barruan duen multzoari batzen zaio (*un [individuo que vestía con desaliño]*), izen sintagmaren nukleoaren nolakotasuna edo ñabardura beharrezkoa izanik aurrekariaren deskribapenean edo nukleoa identifikatzeko; bigarrenetan, ordea, artikulua eta nukleoa osatzen dute multzoa (*[un individuo]*), jada identifikatuztat ematen den nukleo batez osatutako multzo bat, alegia, zeinari kanpotik eransten baitzaio gero mendeko perpauk esplikatiboa, kokapen periferikoagoan, RAEren gramatikak dioen bezala, hizlari edo igorleak hain beharrezkotzat ez duelako jotzen esplikatiboak eransten duen nolakotasuna.

Zentzu berean, Brucartek dio kasu batzuetan klausula espezifikatibotik ezin dela ondorioztatatu badenik erlatibo horrek ezarritako baldintza betetzen ez duen entitate, norbanako edo azpimultzorik. Horrela, adibidez, *Tráeme el cenicero que he dejado sobre la mesa* esaldiak ez du nahitaez esan nahi testuinguru komunikatiboan beste hautsontzi batzuk badirela eta esaldi hori esaten duenak, ezinbestez, inolako bereizketarik egiten duenik hautsontzi desberdin horien artean. Kasu honetan, esaldiaren zentzu ez-murrizgarria (testuinguru komunikatiboan hautsontzi bakar bat baldin badago) egon daitekeelako argudioaren aurrean, hark dio erlatibo espezifikatiboak egiten duen murrizketak ez diela eragiten testuinguru edo egoera komunikatiboan soilik agertzen diren izenei, izen horien multzo potentzial osoari baizik (mota guztietako hautsontzien multzo potentzial osoari). Gauza berbera gertatzen da, hark dioenez, aurkezpen-testuinguruetan (*Ha venido un policía que ha preguntado por ti*) eta erlatiboak balorazio subjektibo bat adierazten duenean ere (*Decidió recibir al hombre que tan buena impresión le había causado*).

Argudio horien abaroan, Brucartek ez du ontzat jotzen espezifikatibo eta esplikatiboen arteko bereizketa ohikoa kritikatu eta bestelako sailkapen konplexuago bat proposatzen duten hizkuntzalariek darabilten azalpen gramatikala.

RAEren gramatikan ere berdin gertatzen da. Izan ere, lan honek onartzen du (2009 II: 3321) ezen, perpauk espezifikatiboak murrizgarri izenez ere ezagutzen diren arren, beti ez direla erabiltzen txertatuta dauden izen-taldearen denotazioa zehazteko, eta aurrekariaren esanahia mugatzeko baino gehiago, hari buruzko informazio bat ematen dutela askotan, ondoko beste

adibide honetan bezala: *El tono de su invitación tuvo una pizca de rencor que me impresionó más aún que un posible rechazo*. Gauza berbera gertatzen da, haren arabera, hizlariaren iritzi subjektiboa adierazten duten klausula espezifikatiboekin, hala nola adibide honetan: *Hay, sin embargo, una excepción que me parece extraordinariamente interesante*. Horregatik, dio, gramatikari batzuek ohartarazi egin dute erlatibo espezifikatiboen funtzioa, askotan, determinatiboa izan daitekeela murrizgarria bainoago. Beste era batera esanda, kasu hauetan, mendeko perpausak ematen duen informazioak ez du esaten ZEIN den aurrekarian aipatzen den elementu zehatza, elementu hori NOLAKOA den baizik.

Hau, batez ere, izen-taldea zehaztugabea denean gertatzen dela dio (2009 II: 3330). Kasu honetan, mendeko perpausak ematen duen informazioa ez da erabiltzen erreferentea identifikatzeko, haren ezaugarri garrantzitsu bat adierazteko baizik eta, beraz, funtzio determinatiboa du. Esate baterako, sintaxiak aukera ematen digu ondoko adibideko bi perpausak egiteko:

- a. *Luisa tiene un hijo pequeño al que adora.*
- b. *Luisa tiene un hijo pequeño, al que adora.*

Perpau horietan aipatzen den *Luisa* izeneko emakume horrek seme bakarra badu, inolako murrizketarik ez da egiten eta, beraz, ez da inolako alderik ikusten zentzu mailan perpau batetik bestera; hori hala da lehen esaldiko erlatibo espezifikatiboak ez duelako inolako bereizketarik egiten. Lehenago esan dugun bezala, honelako adibideetan oinarrituta, hain zuzen, gramatikari batzuek ez dute ontzat ematen "erlatibo murrizgarri" izendapena erlatibo espezifikatibo horietarako. Perpau esplikatiboak, bestalde, informazio osagarri bat ematen du, identifikatuta dagoen izen-talde batekin egiten den bezala. Kontua da esaldi zehaztugabeetako izen-taldeak (eta gauza berbera gertatzen da artikulatuaren ordez beste edozein zenbaki dagoenean ere) ez direla identifikatuta egoten.

Hala ere, hori ez da testuinguru guztietan gertatzen. Adibidez, ondoko esaldi parean:

- a. *Mi casa tiene una habitación que da al parque.*
- b. *Mi casa tiene una habitación, que da al parque.*

Bi esaldi horiek ez dira trukagarriak, ez dute esanahi berbera, eta haietako lehenengoa zentzu murrizgarrian ulertuko dute hiztun gehienek; hau da, etxe horrek gela bat baino gehiago duela.

Kontu honek guztiak izan du eraginik tesi honetako corpusa osatzerakoan; izan ere, zenbatzaile zehaztugabeak dituzten ISeKin osatutako PEen neutralizazio semantiko hori dela bitarte, corpuseko XTetako perpaus horiek nekez sailka genitzakeen erlatibo espezifikatiboen edo esplikatiboen multzoetan, neutralizazio edo lausotze horrek tipografian ere baduelako isla, PEEetan behar den koma irizpide argirik gabe erabiltzen delako, batzuetan bai eta beste batzuetan ez; era horretan, morfologikoki berdinak edo oso antzekoak ziren adibide batzuk komarekin topatzen genituen XTetan, eta beste batzuetan komarik gabe, eta ez zitzaigun arrazoizkoa iruditzen adibide horietako batzuk aintzat hartu eta corpusean sartzea eta besteak ez. Horregatik, zenbatzaile zehaztugabeak zituzten ISeKin osatutako PEak gure corpusetik kanpo uztea erabaki dugu, corpusaren koherentzia ez kaltetzearren. Honen azalpen zabala dago 4. kapituluko 4.1.4.1. atalean.

Beste alde batetik, aurreko fenomenoaren ildo beretsutik, RAEren gramatikak, orobat, onartzen du izen sintagma mugatuetan ere lausotzen dela zerbait bi erlatibo moten arteko aldea (3321-3332. orriak) eta testuingurutik edo egoera komunikatibotik eratorritako aldagaiek ere garrantzia dutela esaldia zuzen ulertzeko, perpaus batzuk testuinguru desberdinetan erabil daitezkeelako, eta, gauzak ondo ulertzen laguntzen diguna munduaz dugun ezagutza delako, hitzen ezaugarri sintaktiko edo lexikoa baino areago. Horrela, *Los mexicanos que viven en la Argentina* izen sintagmarekin topo egiten dugunean, argi izaten dugu beste multzo osagarri bat dagoela: Argentinan bizi ez diren mexikarren multzoa, alegia. Baina horrelako multzo osagarririk dagoela ezin dugu hain garbi ondorioztatu *Las peregrinas ideas que bullen en su cabeza* edota *El médico de la aldea que le prestó los primeros auxilios* esaldien aurrean.

RAEren gramatikak, ordea, aipatutako lausotze semantiko hori ez du askitatz jotzen erlatiboen sailkapen konplexuago bat oinarritzeko, eta garbi uzten du (3330. orria) PE espezifikatibo eta esplikatiboen arteko bereizketa



sintaktikoak zentzua duela kasu guztietan, bereizketa hori sakon errotuta dagoela tradizio gramatikalean eta perpaus mota horien arteko desberdintasun prosodiko, sintaktiko eta semantikoetan oinarrituta dagoela.

Konklusio berera iristen da Osuna ere (2005: 83), esanez bi erlatiboen arteko bereizketa hori ondo oinarrituta dagoela, bi harreman sintaktiko-semanticoko desberdini dagozkielako, eta formalki ere bereizten direlako (eten edo komarekin esplikatioentzat, etenik gabe espezifikatioentzat). Haren arabera, funtzio-desberdintasun hori, gainera, berak "hizkuntzaren logika" deitzen duenari erantzuten dio, zeren aurrekaria dagoenean bi aukera baino ez baitaude: edo erlatibozko egiturak IS konplexu bat eratzen du aurrekariarekin batera, egitura zehaztaile bat osatuz; edo funtzio zehaztaile hori aurrekariak berak betetzen du soilik, eta orduan erlatiboak aurrekariari buruzko bigarren predikazio bat erantsi egiten du. Eta Giménez Resanok edo Aleták eta bestek proposatutako sailkapen berriei dagokienez, esaten du sailkapen horiek adierazpide formal berezirik ez dutenez, interpretazioen menpe geratzen direla eta arazoak konpondu baino ugalduta baino ez dituztela egiten.

Tesi honetarako bildu dugun corpusa osatzerakoan, RAEk, Brucartek, Osunak edo Benegasek duten irizpide horri eutsi diogu eta, beraz, corpus horretarako finkatu dugun ikerketa-unitatearen ezaugarri formalak zehaztuz, aurrekaritik koma edo antzeko eten batez banatuta dauden erlatibo ez-murrizgarriak dauzkaten klausula apositiiboak hartu ditugu corpuserako hautatu ditugun narratiba-lanen gaztelaniazko itzulpenetatik; edo, aztertzaile batzuek dioten bezala, esaldiari bigarren predikazio bat eransten diotenak. Izan ere, era honetakoak dira euskarazko itzulpenetan arazo ugari sortzen dituzten perpaus erlatiboak eta, oro har, XX. mendeko garbizaletasunaren eskutik euskarazko sintaxi ustez jatorretik gehien urruntzen direnak eta, haien gomendioei jarraiki, bestelako sintaxi baliabideen bitartez euskaratu behar direnak.

## 2.2. Erlatiboa euskal gramatiketan

Atal honetan, euskal gramatiketan gure corpuseko STetan topatu ditugun erlatibo motei buruz egiten diren deskribapenak ekarri eta testu horietako erabilerekin erkatuko ditugu. Laugarren kapituluan, gure azterketaren emaitzei

eskainitako atalean ikusiko den bezala, euskal gramatikan jasotzen diren erlatibo mota desberdinetatik ohikoenak baino ez ditugu aurkitu corpusean, -N erlatibo arrunta, aposiziozko erlatiboa eta ZEIN/NON erlatiboa, alegia. Horrek ez du esan nahi bestelako formarik ez dagoenik aztertu ditugun testuetan, gogoratu behar baita gaztelaniazko XTetan erlatibo esplikatiboen bitartez itzuli diren egitura sintaktikoak bakarrik sartu ditugula gure azterketan.

Erlatiboaren deskribapenean sartuz, euskal gramatikan definizio desberdinak ematen dira perpaus erlatiboaz. Horrela, EGLU-V<sup>10</sup> (1999: 173) hartzen badugu, PEak «*funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak dira, izenlagunen moduan agertzen ohi direnak*» eta haien ezaugarria da «*barnean badutela izen sintagma bat, erlatiboa osagai gisa hartzen duen izen sintagmaren erreferentzia duena, eta euskaraz komunzki agerian ezin ager daitekeena*». Cid-en (1987: 600) arabera, deskribapen sintaktikoa eginez, IS baten osagarri bat da, adjektibo eta sintagma genitiboekin pareka daitekeena; baina interesgarriagoa da egitura honi buruz ematen duen definizio semantikoa: «*la cláusula de relativo se da cuando un evento caracteriza a un participante de otro evento. Existe, pues, un participante común en dos eventos*». Azalpen sintaktikoetara itzuliz, Goenagak (1980: 280), aldiz, PEa izen sintagma baten barruan "izenlagun gisa" txertatua agertzen den perpausa dela dio, gutxi gorabehera EHUren Sareko Euskal Gramatikan (SEG) delakoan bezala, non "funtzio adjektibala" barik, "izenlagun funtzioa" duela esaten den, eta, gehiago zehaztuz, «*perpaus erlatiboaren funtzioa adjektibo batena bezalakoa dela*». Arejitak (1978) ere iritzi bera du, erlatiboari "izenlagun-esaldiak" deitzen baitie. EGLU-Vek berak argitzen du, geroago, PEak izenlagunen tokian agertzen direla eta haien zeregina izaten dutela.

Garziak (1997: 367) ere uste du PEek izenlagun funtzioa dutela, baina ez dirudi EGLU-Vek aipatzen duen funtzio adjektibal horrekin hain ados dagoenik, esaten baitu ezen, perpaus adjektibala ere deitu izan zaiola gaineratzen duenean, *erdaraz* izenarekiko posizio berberean doalako deitzen zaiola horrela ("rosa roja", "rosa que es roja"), "erdaraz" hori letra etzanaz nabarmenduz, ez baita hori euskaraz gertatzen dena; Garziak genitiboaren sailekotzat jotzen du<sup>11</sup>

<sup>10</sup> Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak – V (mendeko perpausak – 1)*.

<sup>11</sup> Honi dagokionez, eta euskal erlatiboaz dauden desadostasunen sakonaren erakusgarri, gogora ekar dezakegu De Rijkek (1980: 527) lokatiboan ikusten duela -N erlatibo-atzizkiaren jatorria.

eta «*perpaus bat daraman genitiboa*» dela baieztatzen du; bide horretatik, ISren baitan txertaturik doala dio, eta, orobat, ez dela perpaus nagusi baten osagai zuzen eta lehen mailakoa. Hain baieztapen biribila egin gabe, Goenagak ere nolabait konparatzen ditu genitiboa eta PEa, *aitaren liburua* eta *aitak erosi duen liburua* izen sintagmetan diferentzia handirik ez genukeela aurkituko dioenean.

Jakina, azalpen hauetan guztietan –N erlatibo motaz ari dira batzuk eta besteak, EGLUk eta SEGek “erlatibo arrunta”<sup>12</sup> eta Garziak “benetako erlatiboa”<sup>13</sup> deitzen dutenaz.

Gurea tesian perpaus erlatiboa itzulpenaren ikuspegitik aztertu nahi dugunez gero, interesgarria da Garziak egiten duen gaztelaniazko eta euskarazko erlatiboen arteko konparaketa eta genitiboari buruz esandakoa ere, gogoratzen duelarik euskaraz genitiboaren posizio arrunt berean joaten dela erlatiboa ere, izenaren ezkerretara alegia, eta gaztelaniaz, aldiz, izenaren eskuinetara, ondoriotzat ateratzen baitu hortik datozkigula «*hain dibergente diren bi joeron arteko baliokidetzak bilatzerakoan*»<sup>14</sup> topatzen ditugun desegokitasun eta arazoak.

### 2.2.1. Euskarazko erlatiboen sailkapen semantikoaren arazoa

Horrekin batera, gaztelaniaren –eta inguruko hizkuntza indoeuoparren– erlatibo sistema eta euskarazkoa erkatzerakoan, bada itzulpenaren ikuspegitik eta tesi honen helburuetarako oso esanguratsua den beste arazo handi bat, PEen sailkapenari dagokiona, hain zuzen. Izan ere, euskal itzultzaileak gaztelaniaren gramatika erreferentetzat hartzen duenean, erreferente argi bat dauka bereganatuta: hizkuntza horretako gramatikek erlatiboaren sistema deskribatzerakoan aipatu ohi duten sailkapen tradizional bikoitza, aurreko atalean ikusi dugun bezala erlatibo espezifikatiboak eta esplikatiboak bereizten dituen, alegia. Euskal gramatiketan, aldiz, sailkapen edo banaketa horrek askoz garrantzi gutxiagoko tokia aurkitu ohi du, euskal erlatiboari dagozkion beste arazo batzuen aurrean; horrela, batez ere De Rijken tesian –zeina aitzindaria izan baitzen euskal erlatiboari buruzko azterketan–, baina baita,

<sup>12</sup> EGLUn, dena den, PE arruntetatik oso desberdinak diren beste PE batzuk ere badirela aipatzen da, ZEIN erlatiboak eta BAIT erlatiboak deitzen dituenak, hain zuzen.

<sup>13</sup> Hala ere, onartzen du formalki ZEIN/NON erlatiboak direla izenordain erlatiboz osatuak diren bakarrak.

<sup>14</sup> Aip. lana, 368. orr.

neurri handi samarrean, Oyarçabalen eta Cid-en tesietan eta EGLU-V liburukian ere, erlatibakuntzaz egiten den azterketan arreta gehiago eskaintzen zaie erlatibo arrunta deitzen denaren mekanismoari edo araei, bereziki aztertzen delarik zein diren erlatiba daitezkeen kasuak<sup>15</sup>, eta, EGLU-Ven “erlatibatze eskala” deitzen dena; hau da, PEetan izen ardatzarekin batera hark duen kasu-marka ere isildurik gertatzen denez, arreta handiagoz aztertu da zein diren errazkiago erlatiba daitezkeen kasuak eta zein nekezago<sup>16</sup>.

Esan bezala, euskal gramatiketan arreta gutxiago eskaini zaio euskal erlatiboen banaketa semantikoari, eta, gainera, euskaraz dagoen bibliografian bilatuz, erlatibo esplikatiboen eta espezifikatiboen arteko bereizketaren arazoan desadostasun handiak daude gaia jorratu dutenen artean, baita euskal erlatiboen ezaugarri formalei (puntuazioa edo entonazioa, adibidez) dagokienez ere.

Batetik, Villasantek, Mitxelenak, Arejitak eta Goenagak euskararentzat bai onartzen dute PEen artean semantikoki ez ezik, baita sintaktikoki edo formalki ere bereizten direla espezifikatiboak eta esplikatiboak, lehendabiziko sailekoei **-N erlatibo** deitzen ditugunak egokituz, eta bigarrenei, aldiz, EGLU-Vek **ZEIN erlatibo** deitzen dituenak. De Rijk eta Oyharçabal, aldiz, ez dira iritzi horretakoak, eta, haien arabera, klausula murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko diferentzia sintaktikorik ez dago, erlatiboaren izen ardatzaren nolakoaren arabera bakarrik bereiz baitaitezke: hala, ardatza izen propioa, izenordain pertsonala edo erreferentzia bakarreko izen arruntak badira, erlatiboak ez-murrizgarriak baino ezin dira izan.

Villasantek Gili Gayak gaztelaniarentzat egiten duen sailkapen bikoitz ohikotik abiatzen du euskararen eta gaztelaniaren erlatibakuntzari buruz egiten duen azterketa konparatua, argi utziz -N erlatiboari buruz egiten duen deskribapena erlatibo espezifikatiboari dagokiola:

<sup>15</sup> SEGen azaltzen den bezala (<http://www.ehu.es/seg/morf/5/5>), euskaraz argi bereizi behar dira kasuak (lau dira bakarrik: absolutiboa, ergatiboa, datiboa eta genitiboa) eta postposizio itsatsiak (soziatiboa, ablatiboa, adlatiboa, inesiboa, etab.). Tesi honetan, ordea, nekagarria gerta liteke bikote hori hainbat aldiz aipatzea eta horregatik “kasu” hitza erabiliko dugu aurrerantzean, esandako zentzuarekin.

<sup>16</sup> Gogoratzekoa da puntu zehatz honi dagokionez funtzionamendu desberdina dutela erlatibo arruntak eta ZEIN/NON erlatiboak: izan ere, bigarreanean kasu guztiak dira erlatibagarriak eta horrek funtzionaltasun handiagoa ematen dio egitura honi.

En vasco (fuera del caso en que se recurre al anafórico **zein**) estas explicativas no tienen nada que ver con las auténticas oraciones adjetivas. Estudiaremos la construcción de estas explicativas al tratar de las Causales y Consecutivas y asimismo al tratar del prefijo **bait-**. Aquí nos limitamos, pues, a las especificativas (1976: 71).

Geroago, ZEIN/NON erlatiboari eskainitako atalean, aditzera ematen du ezen prozedura honek *“vale únicamente para las adjetivas explicativas, o sea, para las no restrictivas”*<sup>17</sup>.

Mitxelenak ere antzeko jarrera azaltzen du Villasanteren liburuan, orripeko ohar batean<sup>18</sup> zehazki, baina **bait-** aurrizkiaz mintzatuz, aditzera ematen duelarik aurrizki horrek erlatibo ez-murrizgarriak egiteko funtzionatzen duela: *«Lo que está claro es que introduce relativas no restrictivas, como dicen en inglés»*; eta horren adibideak ipiniz, erdarazko *“Los hombres, que venían cansados, entraron en casa”* esaldia honela ematen du euskaraz: *“Gizonak, nekatuak baitzetozen, etxean sartu ziren”*; beraz, nolabait iradokitzen du -N erlatiboak balio soilik murrizgarria duela (*“Los hombres que venían cansados (y solo ellos) entraron en casa”* adibidea ipintzen du, aurrekoarekin kontrajarrita, baina ez du espreski jartzen azken honen euskarazko bertsioa). Bide batez esanda, murrizgarri/ez-murrizgarri terminologia hobesten duela zehaztu behar dugu.

BAIT erlatiboari dagokionez, ordea, ez dirudi gauzak hala direnik, ez behintzat Lafittek bere gramatikan dakarren adibide ezagunaren argitan (*“Gizon bat ikusi dut, ez baitzuen ilhe ondorik ere” = “J’ai vu un homme qui n’avait pas un seul cheveu”*), edo De Rijkek (1980: 532) jasotzen dituen Leizarragaren adibideak ikusita; Hidalgok (2003: 50-52) ere konklusio berbera ateratzen du Camino (1997) eta Estornésen (1985) lanetako adibideetan oinarriturik: *«...bait- erlatiboen kasuan ere ezin liteke esan predikatu hauek soilik erlatibo ez-murriztaileak osatzeko erabiltzen direnik»*.

Arejitak (1978: 133) ere aipatzen du ZEIN/NON erlatiboa *«euskal idazle klasikoek esplikatibo edo ez-murrizgarriak egiteko»* erabili izan dutela, bide batez erantsiz ahozko euskararen ez dela erabiltzen.

<sup>17</sup> 87. orr.

<sup>18</sup> 213. orr.

Eta Goenagak ere modu berean sailkatzen ditu euskararen bi erlatibo mota horiek, hari horretatik honela definitzen dituelarik erlatibo murrizgarriak:

Orain arte aztertu ditugun erlatiboak erlatibo murrizgarriak edo restriktiboak deitzen ditugu. Izan ere, nik honako hau esaten badut: **"Etorri ziren lagunek galdera bat egin ziguten"**, lagunek osatzen duten multzotik etorri zirenen azpimultzoa hartu dut kontutan. Hortaz, ez naiz lagun guztiez ari, etorri zirenez bakarrik baizik. Horregatik, era honetako erlatiboak mugaketa bat, murrizte bat egiten dutenez, erlatibo murrizgarriak deitzen ditugu (1980: 293-294).

Eta, bestalde, ZEIN/NON erlatiboa ez-murrizgarritzat jotzen du, bidenabar esanez "forma hauek ez dutela oso fama ederra, baina agian erabilgarriak" direla, bai eta, orobat, idazle zaharrengan oso normalak zirela ere:

Galdetzaileaz baliatuz sortzen ditugun erlatibo berezi hauek erlatibo ez-restriktiboak edo ez-murrizgarriak deitzen ditugu. Ez dute mugaketarik egiten. Egiten dutena hau da: aurreko izen sintagmari buruzko informazioa nolabait gehitu, esplikat<sup>19</sup>.

Bestalde, espreski eta berariaz ez bada ere, nolabait aditzera ematen du zein den bi PE motak formalki bereizteko modua: batetik, esplikatiboek eten bat tartekatzen dutela, eta, bestetik, ISaren eskuinetara joaten direla; hartara, **"Piramidetan, zein eragin baitzituen Faraonek, agertzen da hori"** perpausaz dio erlatiboa koma artean doala eta izen ardatzari buruzko xehetasun batzuk ematen dizkigula, perpaus koordinatu batekin nolabait parekatuz:

Perpausak esaten diguna hau da: Piramideetan agertzen dela hori eta Piramideak Faraonek egin zituela.<sup>20</sup>

Aldiz, **"Faraonek eragin zituen Piramidetan agertzen da hori"** esaldia murrizgarria dela dio, komarik ez dagoelako eta ISaren ezkerretara doalako, esanez "Piramideen multzotik Faraonek eragin zituenak bakarrik" hartzen direla hemen kontuan.

Alabaina, ZEIN/NON erlatiboaren bereizketa formalari dagokionez, eta puntuazioari goazkiolarik zehazki, ez dirudi Goenagak dioen bezain argi daudenik gauzak, ez behintzat euskal literatura klasikoari begiratzen badiogu.

---

<sup>19</sup> 294. orr.

<sup>20</sup> Op. cit. 295. orria. Gramatika Sortzailearen azterbideari jarraituz, hauxe dio espreski: **"Hizkuntzalariak ados daude erlatibo murrizgarriak, edo restriktiboak, perpaus txertatuak, menpekoak diren bezala, beste hauek, funtsean perpaus koordinatuak direla"**. Gero, bi erlatibo mota hauek egitura mailan duten desberdintasuna irudikatzen du bakoitzari dagokion zuhaitzarekin.

EGLU-Ven bertan ikus daitekeen bezala, euskal tradizio literarioan, koma duten ZEIN/NON erlatibo ez-murrizgarriekin batera komarik ez dutenak ere aurkitzen dira maiz:

Komarekin:

*Purgatorio handi eta sendagarri bat du gizon pazientiatsua, zeinak bidegabeztatua denean damu geiago baitu bertzeren maliziaz bere atsekabez baino* (Pouvreau)<sup>21</sup>

Komarik gabe:

(...) *baña balitz garizuman zeinetan ezin egon leitekian lexibia egin бага, orduban agindu leijo...* (Astarloa)<sup>22</sup>

Alberdik eta Garcíak (1996: 260) bai esaten dute komaren agerpena erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereizteko irizpide modura erabil daitekeela oro har, Goenagak esandako zentzuan, baina, hala ere, komaren erabilera ez dela sistematikoa, helburu horren karira, eta haiek aztertutako corpusean badirela komadun erlatibo "murriztaileak" eta komarik gabeko "ez-murriztaileak". Orobat, komaz gainera, bestelako puntuazio zeinuak darabiltzaten adibideak ere eskaintzen dira artikulu honetan, besteak beste puntu eta koma, bi puntuak eta are puntua ere:

(...) *bizitzau akabau ezkeru, izango dala beste betiko bat, edo ños akabauko eztana: zeinetan egongo dirian, Jangoikoa Jangoiko dan arte guztiyan* (...) (CatLlo)

(...) *ikuskeru negargarri onetan ziñozan, arik eta Beronike andra errukiorrak garbitu artean bere izaratxoak; zeinetan, erruki ardurazko onen orde sariz, itxi zeuntzan zeure arpegiko antz-irudiak.* (Añibarro)

*Handik heldu da halaber, gezur erraitea, elkharren ez sinhestea, eta fidantza gabe, bethi gogan behartsu ibiltzea. Zein baita kalte handia, elkharren artean bizi behar dutenentzat.* (Axular)

Bestetik, ez dago garbi aurreko autoreen deskribapenetako abia-puntua ere, alegia ZEIN/NON erlatiboak balio ez-murrizgarria duela; Oyharçabalek (1987: 208) jada adierazi zuen bere desadostasuna zentzu horretan, eta geroago Alberdik eta Garcíak<sup>23</sup> hainbat autore klasikoren eta euskalki desberdinetako adibide ugarirekin berretsi dute haren jarrera. Bidenabar, bitxia da Villasantek erlatibo mota honen erabilera soilik ez-murrizgarriaren aldeko jarrera izatea,

---

<sup>21</sup> 238. orr.

<sup>22</sup> 236. orr.

<sup>23</sup> Aip. lana, 259. orr.

Axularren ondoko adibi-deok gaztelaniara itzuli zituenean erabili zituen erlatibo murrizgarriak ikusirik:

Badira bisera batzuk, begi-ordethaillu batzuk, <b>zeiñek gauzak diren baiño handiago, iduri arazitzen baitituzte.</b> (Axular, §94.)	Existen unas gafas, unos anteojos <b>que hacen que las cosas aparezcan más grandes de lo que son.</b>
Zeren nolako baita lurra, <b>zeinetarik iragaiten baita ura,</b> halako gerthatzen baita ura ere. (Ax §143)	Tal y como es la tierra <b>por la que pasa el agua,</b> así viene a resultar esta.
Zeren hauk dira leihoak eta portaleak, <b>zeiñetarik bekhatu guztiak, eta guztiz ere haragiarenak, ariman barrena sartzen baitira.</b> (Ax §256)	Porque estas son las ventanas y portales <b>por los que entran en el alma todos los pecados, y particularmente los de la carne.</b>

Erlatibo espezifikatibo eta esplikatiboen banaketa sintaktiko eta formala defenditzen duten aipatutako autoreen aurrez aurre, beste batzuek, De Rijkek lehendabizi, Oyarçabalek eta Alberdi & Garciak geroago, bai eta Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatikak* (EGLU-V) eta SEGek<sup>24</sup> ere azkenik, ez dute ikusten horrelako oposizio sintaktikorik dagoenik euskaraz; hauen arabera, euskaraz ere badago oposizio semantiko hori, baina berau ez da formadesberdintasun sintaktiko garbi batean islatzen, ez erlatibo arruntean ez eta ZEIN/NON erlatiboan ere.

Horrela, -N erlatiboari dagokionez, autore horiek bi balioak dituela diote; hau da, -N erlatiboa perpaus murrizgarriak eta ez-murrizgarriak egiteko erabil daitekeela. De Rijk (1972) izan zen jarrera hau defendatu zuen lehena, baina, geroago ikusiko dugun bezala, izen propioetara mugatuz, nahiz eta bere tesian, egia esanda, apenas ematen zaion lekurik euskarako perpaus erlatiboen balio semantikoari, eta esaten den ia bakarra da euskaraz erlatibo "espezifikatibo" eta "apositibo"-en artean inolako desberdintasun sintaktikorik ez duela antzeman:

What about the distinction between restrictive and appositive relative clauses, so important in the grammar of English and other Indo-European languages? I can be quite brief here: I am unaware of any syntactic differences in Basque between these two types of relative clauses [...] In Basque, like everywhere else, a relative clause that modifies a noun phrase with an underlying (i.e. deictic) demonstrative element must be non-restrictive. When certain quantifiers, like *guzti* 'all' and

<sup>24</sup> Carlos Cid Abasolo, "Perpaus erlatiboak zer diren", Sareko Euskal Gramatika (SEG). <http://www.ehu.eus/seg/morf/5/20/4/3ISBN:978-84-693-9891-3>



*bakoitz* 'each' occur associated with the head noun phrase, the relative clause can only be restrictive. Apart from this, however, my investigations have failed to show any differences in syntactic behavior between the two. In particular, there is no difference in intonation between restrictive and appositive relative clauses in Basque.<sup>25</sup>

Baieztapen hori sostengatzeko, ordea, argudio bakarra eskaintzen du: euskaraz posible dela –N erlatibo arrunta izen propio bati itsastea, inguruko hizkuntzetan erlatibo esplikatiiboari dagokion funtzio batekin. Onartzen du hainbat gramatikatan ez dela ontzat jotzen egitura hori, eta horren adibide gisa jartzen du Lardizabalen *Gramática Vascongada*ko baieztapen hau, gure lanaren ikuspegi traduktologikotik begiratuta bereziki interesgarria: «*Cuando el nombre que viene con relativa de persona que hace, es nombre propio de hombre o de muger, no se hace en Vasconce la oración por relativo, sino por otros modos equivalentes...*»<sup>26</sup>.

Baina De Rijkek ez du aintzat hartzen baieztapen hori, esanez bere informatzaileetako inork ez zituela txartzat hartu “*Egunero kilo erdi bat txokolate jaten duen Beobide'tar Pantxika ez da bat ere gizentzen*” moduko esaldiak, eta honelakoak erabiltzen dituzten liburu batzuetatik ateratako adibide gehiago ere eskaintzen ditu. Konklusio gisa, era honetako PEak «*of course, generally non-restrictive*» direla esaten du.

Geroago euskaraz argitaratutako artikulu batean (1980), apur bat gehiago argudiatu zuen bere jarrera, zenbait adibideren sostenguarekin, eta ondoriotzat emanez –N menderagailua izen propioekin ere erabil daitekeela erlatibo “mugagabeak edo esplikatiiboak” egiteko. Artikulu honetan, autoreak dio egitura hau idazle gipuzkoar garaikideen eta Iparraldeko idazle zaharren lanetan aurki daitekeela, eta berriro argudiatzen du ahozko informatzaileek ere ez dituztela txartzat hartzen; alabaina, artikuluak ez du bereziki sakontzen gai honen ikerketan eta Iparraldeko idazleen artean, Leizarragaren adibideak baino ez ditu ematen.

<sup>25</sup> Aip. lana, 154. orria.

<sup>26</sup> Aipu hau, berez, Lardizabalek Larramendirengandik (1756: 152) hartu zuen, adibide berberak erabiliz, De Rijkek berak geroago (1980: 530) jaso zuen bezala; eta, XX. mendean, Etxaidek (1912: 55) ere jaso zuen. Bide batez esanda, interesgarria da azpimarratzea Larramendik –ez eta Lardizabalek ere– ez duela esaten ez dela erabili behar egitura hori –horrek iradoki zezakeelarik erabili bai erabiltzen zela–, euskaraz ez dela erabiltzen baizik –nolabait euskararen eta inguruko hizkuntzen arteko desberdintasun bat aipatzen ari balitz bezala.

Adibide horiek interesgarriak dira, gainera, halako tipologia bat behintzat antzeman daitekeelako haien artean; batetik, IS erlatibatuan erakuslea duten adibideak daude:

*...Jesus Christ gure Iaunac bere domesticoe y eta fideley baicen emaiten eztrauzten vianda saindu hauc pollui eta satsu ez titzatençat.*

De Rijekek izenordain pertsonala darabilten adibideekin (*Berandu etorri naizen honek...*) parekatzen du goiko adibidea, biak erlatibo "mugagabe"tzat joz, bere ustez erakusleak berez mugatzen baitu erlatiboaren izen ardatza; egia esanda, erakusleak eragin hori izango balu, beste hizkuntzetan ere berdin funtzionatu beharko luke, baina gaztelaniaz argi eta garbi egiten da bi erlatibo moten arteko bereizketa kasu horretan ere: *...estas viandas que el Señor solo ofrece a sus fieles / ...estas viandas, que el Señor solo ofrece a sus fieles*. Bereizketaren gakoa, beraz, ezin da erakuslean egon.

Bestetik, De Rijken artikuluan jasotzen diren Leizarragaren gainontzeko adibideetan, Jainko izenari lotzen zaizkion erlatiboak, [izen propioa + aposaturiko izen arrunta] sintagmari itsatsitakoak eta, azkenik, [izen propioa + izenlaguna] sintagmari loturikoak daude:

*...laudorio gucia appartenitzen çayon laincoa baithan glorifica ledinçat.*

*Haur da beguiraz dituen ardiéz arrangura handia duen Iacob artzain iratzarria.*

*Haur da puissança desobedient gucia bere suiectionera erecarten duen David victoriosoa eta noblea.*

De Rijken artikuluan, ordea, zehaztasun garrantzitsu bat topatzen da aurrerago<sup>27</sup>, haren arabera bai baitirudi -N erlatiboaren balio bikoitz hori izen propioen kasuetarako bakarrik ikusten duela, eta, esan bezala, ISn erakuslea duten izen arruntetarako soilik; eta ZEIN/NON erlatiboari, bestalde, balio ez-murrizgarria soilik egotzen dio; izan ere, Leizarragaren ZEIN erlatiboaz mintzo delarik, esaten du «*erlatiboa mugagabea eta ez mugatua dela adierazi nahi duenean*» beti ZEIN hitzaz baliatzen dela ondoko kasu honetan bezala: "*...emanen draucat iatera vicitzeco arboretik cein baita laincoaren paradisoaren erdian*". Interesgarria da baieztapen hori arrazoitzeko darabilen argudioa, alegia, Leizarragak -N erlatibo arrunta erabili izan balu, «*beste zenbait tokitan*

---

<sup>27</sup> Aip. lana, 532. orria.

*ere bizitzeko arboreak daudela pentsa zitekeela, erlatiboa mugaturik bezala hartu ezkeroz»; horren arabera, erlatibo arruntak balio murrizgarria du bigarren adibide honetan. Bide batez, artikulugileak ZEIN erlatiboaz ematen duen interpretazioa ez da hain segurua: Bibliako pasarte horren gaztelaniazko bertsioetara jotzen badugu, koma-etenarekin eta etenik gabe ikusiko ditugu itzulpen desberdin ugari, eta euskarazko itzulpen modernoetan, erlatibo klasiko honen arbuioarekin jarraituz, erlatibo arrunta topatzen dugu<sup>28</sup>.*

Aipatutako adibide horiekin De Rijkék aurre egin zien bere tesiko baieztapena zalantzan jartzen zutenei. Goenagak, adibidez, esaten du era honetako PEak ezin zaizkiola «*izen berezi bati erantsi izen hau nolabait arrunt bihurtu gabe*»<sup>29</sup>, ez eta izenordain pertsonal bati ere, eta horregatik txarrestekoa dela “*Nik hain ongi ezagutzen zaitudan zu hemen ari zara nire kontra*” esaldia. Goenagak ez du eskaintzen arrunt bihurtutako izen propio batez osaturiko perpaus baten adibiderik, baina pentsa liteke izen propioaren ondoko aposizioan izen arrunt edo izenondoren bat duten kasuez ari dela. Horixe dateke, hain zuzen ere, EGLU-Vek dakarren adibidea, “*Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arrebak esango dizu hori*”, zeina jartzen baita gramatika horretan adibide gisa –N erlatiboak balio ez-murrizgarria ere baduela frogatzeko.

Garziak (1997: 396-397) ere agramatikaltzat jotzen du –N erlatiboak izen propio soil bati lotzea, eta, horregatik, desegokia deritzo “*Euskararen alde hainbeste lan egin zuen Mitxelenari omenaldia egingo diote bihar bere herrian*” esaldiari. Goenagak iradoki bezala, haren iritziz ere izen propioak aposizioan izen arrunt edo adjektibo bat daramanean bakarrik dira onargarriak era honetako perpausak, honako honetan bezala: “*Euskararen alde hainbeste lan egin zuen Mitxelena euskalari gogoratuari omenaldia egingo diote bihar bere herrian*”, edo EGLUk ematen duen esaldia bezala.

Bada, gure corpusera etorritz, esan beharra dago mota honetako egitura zazpi aldiz topatu dugula gure corpusean, tesi honetako 4. kapituluko 4.3.1.3.4.1.

<sup>28</sup> “*El que tiene oído, oiga lo que el Espíritu dice á las iglesias. Al que venciere, dará á comer del árbol de la vida, el cual está en medio del paraíso de Dios*” (Reina Valera Antigua, 1960), baina “*El que tiene oído, oiga lo que el Espíritu dice a las iglesias. Al que venza le dará de comer del árbol de la vida que está en medio del paraíso de Dios*” (Reina Valera Actualizada, 2015). Ikus <https://www.biblegateway.com/verse/es/Apocalipsis%202:7> [Kontsulta-data: 2016-04-20]. Bide batez, Bibli Elkartearen euskarazko bertsioan erlatibo arruntaz ageri da: *Jainkoaren paradisuan dagoen bizi-arbolako fruituetatik emango diot jaten*; ikus <http://www.biblija.net/biblija.cgi?m=Ap+2%2C1-7&id34=1&pos=0&set=21&l=eu> [Kontsulta-data: 2016-04-20].

<sup>29</sup> Aip. lana, 294. orr.

puntuari ikusiko den bezala, eta hiru azpicorpusetan zehazki ( $C_2$ ,  $C_4$  eta  $C_5$ ), baina gehienak haietako bakarrean ( $C_2$ -n, hain zuzen). Gainera, beste adibide batean, [izen propioa + aposizioa] egitura erlatibo jokatu gabe<sup>30</sup> arrunt bati itsatsita aurkitu dugu,  $C_4$  azpicorpuseko 71. binomio honetan:

Markesaren eskuinaldean, berriz, aulki huts bat ageri zen, eta <b>azken orduko larrialdi baten deiak berandututako</b> Velasco sendagile-ari zegokion, markesak argitu zuenez.	A la derecha del anfitrión había una silla vacía, que correspondía al doctor Velasco, <b>quien, según explicó el marqués, había disculpado su tardanza</b> , debida a un contratiempo de última hora.
--	---

EGLU-VIIIn (2011: 388, 393) espreski adierazten da, euskal idazle klasiko batzuen adibide aposizio gabe batzuetan oinarrituta, PE jokatu gabeen ezaugarrien artean izen propioak ere har ditzaketela izen-ardatz funtzioan, eta, beraz, PE horiek ez dutela nahitaez balio murrizgarria. Garziak<sup>31</sup>, aldiz, erabilera okertzat jotzen du hori, izen propio soilarekin agertzen denean, ez ordea gainera aposatutako izen arrunta daramanean.

Erreferentzia berebetean esaten da, bidenabar bezala, PE jokatu e ere izan dezaketela lagun edozein izen mota, «**baita izen bereziak**» ere, nahiz V. liburukian ez den espreski hala adierazten.

[-N erlatiboa + izen propioa] egiturara itzulirik, egia da franko aldiz aurkitzen dela gure garaiko euskarazko testuetan, eta, horren adibide, gure corpuseko hiru idazlek ( $C_2$ ,  $C_7$  eta  $C_{10}$  azpicorpusetan), erabiltzen dute, itzulpenetan PEE bitartez itzulita; guztira bederatzi binomiotan aurkitu dugu, baina bederatzi adibide horietatik sei, kasu honetan ere, azpicorpus bakarrari dagozkio,  $C_2$  azpicorpusari zehazki: Harkaitz Canoren **Twist** eleberriari; badirudi, nolabait, idazle honen estiloaren ezaugarri sintaktikoa dela nagusiki, gure corpuseko gainontzeko idazleek bi egitura horiek gutxiago erabiltzen dituzte-eta. Beraz, egitura erabilia da, baina erabilera nahiko murriztarekin.

<sup>30</sup> Cidek zehaztasun handiagoz "Aditz jokatu gabedun erlatiboa" edo "Aditz jokatu gabea duten perpaus erlatiboak" deitzen dio erlatibo mota honi SEGen (Karlos Cid Abasolo, "Aditz jokatu gabedun erlatibo arrunta", **Sareko Euskal Gramatika (SEG)**, www.ehu.eus/seg ISBN: 978-84-693-9891-3), nahiz EGLU-VIIIn eta SEGeko beste orri batzuetan ere perpausak izan jokatu zat edo jokatu gabetzat ematen direnak, seguru aski adierazpen-ekonomiagatik; bada, arrazoi horregatik beragatik erabiltzen dugu guk ere izendapen hori.

<sup>31</sup> Aip. lib., 395. or.

Gure ustez, aztertzekoa litzateke ea [-N erlatiboa + izen propioa] egiturak lekukotasun ugariagorik baduen euskal idazle klasikoen artean, baina dudarik ez dago XX. mendeko garbizaletasunak erlatibo apositiboen erabilera gaitzetsi izanaren ondorioz ugaldu dela. Esanguratsua izan liteke gure corpusean egitura hau erabiltzen duten hiru idazleetatik bi (bestea Iban Zaldua da, C<sub>10</sub> azpicorpusa, bi adibiderek) corpus horretan bildu diren bi idazle belaunaldietatik gazteenekoak izatea, eta horrek, beharbada, bide ematen du hipotizatze egitura horrek garai modernoetan hartu duela are indar handiagoa; nolana ere, hipotesi hori baieztatu edo ezeztatze, azterketa sakonagoa egin beharko litzateke, eta tesi honetatik eratorritako ikerketa-lerro posible bat izan litekeela uste dugu.

Bestalde, gure azterketaren emaitzen barruko puntu berean jaso ditugun datuen arabera, ardatz bezala izen propio bat edo izen propioa + aposatutako izen arrunta duen -N erlatiboaren erabileraz denaz bezanbatean, badirudi arrazoi aski dagoela hipotizatze euskal idazleek egitura hori (bai eta, egia esanda, beste batzuk ere) gehiago erabiltzeko joera izaten dutela izen ardatz horrek absolutibokoa ez beste kasu-atzizki bat daramanean, eta, aldez, erlatibozko aposizioa gehiago erabiltzeko joera izaten dutela ardatza den ISa absolutiboan dagoenean. Eta esango genuke horrek harreman zuzena duela gure corpuseko euskal idazleek ZEIN/NON erlatiboa gutxi erabiltzeko duten jarrerarekin.

Izan ere, gaztelaniazko erlatiboarekin bezala eskuineranzko adarkadura edo hedapena egiteko ZEIN/NON erlatiboak ematen duen aukera hori bazter utziz gero, erlatibozko aposizioaren bidea besterik ez da geratzen, edo, orobat, beste egitura sintaktiko batzuk, kausazko perpausak adibidez, besteak beste, hauek klausula erlatibo esplikatiboen antz handia baitute, bai formalki eta, kasu askotan, baita semantikoki ere. Baina 4. kapituluko 4.3.1.3.2.1 puntuan ikusiko dugun bezala, erlatibozko aposizioaren kasuan ere, corpuseko idazleek absolutiboan dauden ISekin erabiltzen dute batez ere, aposizio kasu guztietatik %82,3an, hain zuzen ere; oso gutxi erabiltzen dute egitura apositiboa ISe absolutiboa ez beste kasu-atzizki bat daramatenean.

Puntu horri buruzko eztabaida alde batera utzita, esan beharra dago De Rijken azterketa -N erlatibora mugatuta dagoela eta ez duela erlatibo

espezifikatibo eta esplikatiboen arteko bereizketaren gaian gehiago sakontzen, aipatu dugun baieztapenaz landa.

Oyarçabalek (1987) De Rijken baieztapena onartu ez ezik, azterketa sakonagoa ere egin zuen bere tesian. Haren arabera,

Il est évident qu'en basque, comme en français, il est possible de distinguer entre les deux types de relatives, mais il n'en résulte pas que chaque type renvoie à un marqueur spécifique, et plus généralement, à des descriptions structurales différentes. (1987: 192)

Henry (1975), Fuchs eta Milner (1979) eta Le Goffic (1981) ikertzaile frantsesei jarraituz, bi erlatibo moten arteko bereizketa tradizionala zalantzan jarri eta aditzera ematen du euskaraz ere, japonieraz eta koreeraz bezala<sup>32</sup>, bereizketa hori ezin dela egin, ez behintzat egitura edo sintaxi mailan. Itzulpena ikergai duen hau bezalako tesi baten ikuspuntutik, interesgarria da euskararen eta ingeles, frantses eta gaztelaniaren erlatibakuntza-sistema konparatuz dioena:

Il faut ensuite définir comment le basque rend ce qui correspondrait dans une langue comme l'anglais, le français ou l'espagnol, à chacun des deux types. En effet, il pourrait se produire simplement que par exemple tel type de relative de ces langues ne soit pas rendu par une construction relative.<sup>33</sup>

Lafittek bere gramatikan egin zuen beste baieztapen ezagunaren ildo beretik doa:

***Le basque ne se prête pas beaucoup à la traduction des phrases françaises pleines de propositions relatives. Il vaut mieux renoncer à rendre littéralement de pareils textes et se décider à les transposer selon une autre syntaxe*** (1944: 896. zkia.)

Gure ustez, baieztapen horietan, eta gai honetaz egiten diren beste askotan ere, arazoa da euskararen pertsonifikazio bat (***le basque rend, le basque ne se prête pas***) egiten dela, gure hizkuntzari buruzko irudi sinkroniko eta geldia emanez, ontzat emandako ideologia garbizalean oinarriturik, argi baitago euskal idazle klasiko gehienek inolako arazorik ez zutela hizkuntza horietako erlatiboak egitura erlatiboen bitartez euskaratzeko.

---

<sup>32</sup> Chomskyren arabera (1977).

<sup>33</sup> Aip. lana, 197. orria.

ZEIN/NON erlatiboari gagozkioarik ere, Alberdik & Garciak<sup>34</sup>, geroago EGLU-Vn ere egingo den bezala, ontzat ematen dute Oyarçabalen iritzia: «*euskaraz sintaxi-mailan ez dago horrelako bereizketarik egiterik*», alegia mota honetako erlatiboa zentzu murrizgarriarekin eta ez-murrizgarriarekin erabili izan dela euskal literatura klasikoan, baina bereizketa semantiko horri ez dagokiola halako bereizketa formalik, komaren erabilera edo erabilerarik eza ez datorrelako bat erlatiboaren balio ez-murrizgarriarekin eta balio murrizgarriarekin hurrenez hurren, nahiz eta «*oro har horrela egiten den*» eta «*egitura hau maizenik erlatibo ez-murriztailea adierazteko erabiltzen den arren*».

Orain arte aipatu ditugun lan hauetan bidenabar bezala jorratzen zen euskarazko erlatiboaren balio semantikoa, berariazko azterketarik egin gabe; aldiz, EGLU-V (1999) liburukian sakonago aztertzen da euskarazko PE espezifikatibo eta esplikatiboen arteko sailkapena –nolanahi, *murrizgarriak* eta *ez-murrizgarriak* dira erabiltzen dituen terminoak–, bai erlatibo arruntaren balioa (2.2.9.3 puntua) aztertzen duenean, eta, baita ZEIN/NON erlatiboaren balioa (2.3.7. puntua) azaltzen duenean ere. “Balio” hitza azpimarratu beharra dago hemen, gainera, zeren EGLUk egiten duena ez baita berez erlatiboaren halako sailkapen taxonomikoa, erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereiziz, ezpada –N erlatiboaren eta ZEIN/NON erlatiboaren balio edo interpretazio desberdinei buruzko aipamen hutsa baizik.

Gramatika honen arabera, erlatiboaren balio murrizgarriak eta ez-murrizgarriak topa daitezke erlatibo arrunt edo –N erlatiboan bezala, baita ZEIN/NON erlatiboan ere. Hurrengo ataletan, gramatika honetan euskarazko erlatibo mota bakoitzaz egiten den deskribapena azalduko dugu, gure corpusean topatu ditugun erabilera desberdinekin erkaturik.

#### 2.2.1.1. –N erlatiboa eta haren balio semantikoa

EGLU-Ven arabera, –N erlatiboaren balio semantiko bien arteko aldeak ez du inolako isla edo agerbide formal edo sintaktikorik; gaztelaniazko erlatiboari buruzko sailkapen tradizionalan ez bezala, euskaraz formak edo sintaxiak ez

<sup>34</sup> Aip. lana, 260. or.

dituzte bi erlatibo mota horiek bereizten, zentzuak eta izen ardatzaren erreferentzia mugatu edo ez mugatuak baizik, De Rijkek zioen bezala. Horrela,

*Goizean etxe aurrean zurekin mintzatu den gizonak esango zizun hori.*

perpauseko erlatiboa murrizgarria dela dio, erlatiboak IS subjektuaren erreferentzia murrizten duelako, hau da, predikazioa zein gizoni dagokion zehazten duelako. EGLUren arabera, honelako erlatiboak balio murrizgarria du, bai eta mugagarria ere, izen ardatz hori mugatua delako.

Aldiz, gorago ikusi dugun moduan, prozedura berberarekin egindako ondoko beste perpausak, zeinean mendekoa izen propio bati eransten zaion, zentzu ez-murrizgarria eta ez-mugagarria duke, izen propioa bera delako izen ardatzaren erreferentzia murrizten eta mugatzen duena (mugatze hori izanik izen propioen "ezaugarri nagusia"):

*Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arreba esango dizu hori.*

Gaztelaniaz, jakina, PEE baten bidez itzuli behar da ezinbestez: *"Eso te lo dirá mi hermana Maddi, a quien conoces desde hace tiempo"*. Bidenabar esanda, EGLUko liburuki honetan ez da espreski aipatzen -N erlatiboa izen propioei itsatsi ahal zaienik, eta puntu honi buruz euskal gramatikarien artean dagoen desadostasuna ebazteko, goiko adibide hori ez da erabat argia, izen propioa aposatutako izen arrunt bati lotuta dagoelako, egitura hori onargarria iruditzen zaielarik, gorago ikusi dugun bezala, aposiziorik gabeko egituraren zuzentasuna ukatzen duten batzuei.

Hirugarrenik, PEak balio murrizgarri baina ez-mugagarria izan omen dezake, izen ardatza bera ondo mugatuta ez dagoenean, honako kasuan bezala, zeinean artikulua zehaztugabea erabiltzen baita:

*Etorri ziren aspaldi ezagutzen nituen lagun batzuk.*

Azken kasu batean, eta hemen EGLUk pauso bat gehiago ematen du De Rijken teoriak baino, erlatibo ez-murrizgarria izen propio bati ez, baizik substantibo arrunt bati ere erantsia ager daiteke, baldin eta substantibo horrek "balio generikoa" badu:



*Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak irakurri behar nituzke.*

EGLUren arabera, aurreko perpaus horrek, zehazki, bi interpretazio desberdin izan ditzake: batean, interpretazio murrizgarria, ISak delako "balio orokor" hori ez duenean eta, beraz, mendeko perpausak izen ardatza identifikatzeko funtzioa duenean (adibide honetan, esaleak aipatzen dituen liburuak zehazki bere solaskideak ongi ezagutzen dituen euskal liburu zaharrak soilik direnean, ez beste euskal liburu zahar batzuk; hots, euskal liburu zaharren multzoan, solaskideak ezagutzen dituen euskal liburu zaharren azpimultzo bat bereiz daitekeenean); kasu honetan, gaztelaniazko itzulpena "*Debería leer los viejos libros vascos que tú bien conoces*" PE espezifikatiboa izango da.

Aldiz, perpaus horrek berak interpretazio ez-murrizgarria izango du, esan bezala, izen ardatzak "balio generikoa" duenean, inolako azpimultzorik egin ezin denean, alegia. EGLUren arabera, kasu honetan, «*hiztunak dio irakurtzeko dituela euskal liburu zaharrak, hauek orokorki harturik, eta haietan bereizkuntzarik egin gabe. Esaten du, bestalde, solaslagunak ongi ezagutzen dituela obra horiek, baina xehetasun hori emanez, ez du zehazki mugatzen sail berezi bat euskal liburu zaharren artean*»<sup>35</sup>. Beste kasu honetan, gaztelaniazko itzulpenean erlatibo esplikatiboa erabili behar da: "*Debería leer los viejos libros vascos, que tú tan bien conoces*".

Adibideko esaldiaren balio semantiko bikoitz hori komunikazio-ekintzan parte hartzen duten igorlearen eta hartzailearen testuinguru-jakintzan oinarritzen du, beraz, EGLUk; elkarrizketa-testuinguru batean, gainera. Eta, egia izan arren testuinguruak asko laguntzen duela komunikazio-ekintza horretako zertzeladak argitzen, arazo handiagoa izango da, aldiz, horrelako testuinguru argigarririk ez dagoenean, eta honelakoetan, eta batez ere helburu informatiboa duten testuak direnean, nekez onartzeko modukoak izan litezke (edo izan beharko lukete) era horretako esaldi ustez anbiguoak; hori gertatzen da, gure ustez, Alberdik & Sarasolak (2001: 208), EGLUren deskribapena ontzat emanez, dakarten adibide batekin, zeinak, haien arabera, balio murrizgarria eta ez-murrizgarria izan dezake aldi berean:

*Greban dauden langileek hitzarmena sinatu dute enpresako zuzendaritzarekin.*

<sup>35</sup> Aip. lana, 201. orr.

Horrenbestez, gaztelaniaz sintaxiaren bitartez egiten den ohiko + murrizgarri / - murrizgarri bereizketa ezingo litzateke egin euskaraz erla-tibo arruntarekin bestelako testuingururik ezean; albiste baten lerroburuan adibidez, hartzaileak ezingo luke ulertu esaldiaren egiazko zentzua albistearen garapenean informazio guztia jaso arte; era honetako baieztapenek, gure ustez, azterketa luze eta zabalagoa beharko lukete.

EGLUk egiten duen eta, ikusten dugunez, beste testu teoriko batzuetan ontzat eman den erlatiboari buruzko azalpen hau gutxi gorabehera bat dator gaztelaniari buruz Aleták egiten duenarekin, eta, gaztelaniazko erlatibakuntzari eskainitako atalean ikusi dugun bezala, kontraesanean sartzen da gure ustez RAEk eta beste hizkuntzalari batzuek egiten duten teorizazioarekin eta, bereziki, gaztelaniazko erlatiboaren sailkapen ohikoaren kontrako teoriari ematen dieten erantzunarekin.

Bestalde, euskal gramatikarien artean, bada behintzat -N erlatibo arruntaren ustezko balio semantiko bikoitz hori zalantzan jartzen duenik. Garzia (1997: 384), adibidez, ez dago ados teoria horrekin, bere ustez egitura honek PE murrizgarri edo zehaztaileak egiteko baino ez duelako balio. Horrela, onartzen du gaur egun askotan topatzen direla era honetako erlatiboak (batez ere "den" forma erabiltzen dutenak izen propioari halako atribuzio bat egiteko) izen propio bati erantsita, baina, Lardizabal eta beste batzuen ildo beretik, okertzat hartzen ditu. "Hankasartze"-tzat jotzen du, bestalde, Axularren adibide bat erlatibo murrizgarria semantikoki interpretazio zehaztaile edo murrizgarririk onartzen ez duen izen ardatz bati eransten diona:

Kargatu zituen hanbat manamenduz, sakrifizioz eta zirimonia suertez, hekin batean khien zedin, <b>hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den</b> alfertasuna. (Ax. 13)	Los cargó con tantos mandamientos, sacrificios y clases de ceremonias para que con todo ello se evitase la ociosidad, <b>que es principio e incentivo de tantos perjuicios y daños.</b>
---	---

Garziaren ustez, izen ardatzeko hitz giltzarri hori amaierako posizioan uzteagatik egingo zukeen Axularrek arau-hauste hori, helburu erretorikoarekin, bestela espero izatekoa baitzen, idazle lapurtarraren sisteman, beste forma hau:

“(..) *hekin batean alfertasuna khen zedin, zein baita hanbat kalteren eta (..)*”. Nolanahi, Garziarentzat, kasu honetan interesgarriena zera da: adibide hori besterik ez duela aurkitu Gero osoan.

Bestalde, ez du onartzen balio generikoa duten izenei itsatsitako erlatiboez EGLUK dioena, hots, ez-murrizgarriak direla. Haren ustez, «*arti-kulu determinatuz osaturiko izen sintagma baten osagai diren -N erlatibo-perpausek zentzu zehaztailea dute berez*»<sup>36</sup>, baita esaldiak zentzu orokorra duenean ere, “*Txikitan beti negarrez dabilen haurra operako kantaria izan ohi da handitzean*” adibidean bezala. Haren arabera, zehaztapena hizkuntzaren oinarritzko operazioa da eta hizkuntza guztiek garatu dituzte hori bideratzeko nola-halako egiturak eta euskarak -N erlatiboa du horretarako. Erlatibo ez-murrizgarri edo esplikatiboak, aldiz, kutsu formalagoa du eta hizkera idatzian finkatu da batez ere hizkuntza askotan, baina, nolanahi, bestelako perpauk ez-menderatuz ordezkatu daitezke.

Hain iritzi kontrajarriak egonik prozedura honen zuzentasunari buruz, azterketa sakona behar duen ikergaia iruditzen zaigu, gaur egungo euskara idatzian -bai eta ahozkoan ere- oso zabaldua baitago honelako erabilera. Gure corpusa bera da horren froga, honelako egiturak STetako testu askotan topatu baititugu, C<sub>2</sub> azpicorpuseko 44. binomioa lekuko:

<p><b>Bere miopiarako aski graduatuak ez ziruditen</b> betaurreko zikinen gaineratik begiratu zion medikuak.</p>	<p>El médico le miró por encima de sus gafas, <b>que parecían de poca graduación para su miopía.</b></p>
--	--

Esaldi honen testuinguruan, erlatiboaren ardatzak (“betaurreko zikinak”) ez du balio anaforikorik; ez da lehenago aipatu eta, beraz, ardatza ez dago identifikatuta eta behar bezala zehaztuta, eta, horrela, Garziaren ustez, euskarazko esaldi hori oker osatuta dago; ziur aski determinatzaile zehaztugabea izan balu (“*bere miopiarako aski graduatuak ez ziruditen betaurreko zikin batzuen gaineratik*”), esaldiak ez zuen arazorik izango, baina, tamalez, azkenaldian asko hazi da honelako testuinguruetan determina-tzaile zehaztugabea (*bat*, bereziki) gaitzesten duen joera eta, gure ustez, horrek areago

<sup>36</sup> Aip. lana, 384. orr.

nahasten du honi buruz egiten den azterketa. Izan ere, STan aurrekaria oso ondo determinatuta eta zehaztuta dago, aldiz, genitiboaren bitartez, eta gaztelaniaz ere okerra izango litzatekeela *“le miró por encima de las gafas que parecían de poca graduación...”* esatea, baina ez *“de unas gafas que parecían...”*. Beste nonbait esan dugun bezala, erlatibo arruntaren erabilera Garziaren ustez oker honen zabalkundearen arrazoia ISaren kasu-markan dago, absolutiboan ez egoteagatik, horrek deseroso bihurtzen baitu jende askoren estiloan ISari atxikitako hedapen apositiboa.

Bestalde, EGLUn aipatutako “balio generiko” hori duen adibiderik ere bada gure corpusean, C<sub>1</sub>-eko 23. binomioa, esaterako:

<b>Arrautzaren barruan pixkanaka heltzen doazen</b> mamba sugearen kumeak bezala, [...]	Como la cría de la serpiente mamba, <b>que no madura sino lentamente en el cascarón</b> , [...]
---	---

Alabaina, adibide honen balio generikoa EGLUk dakarren esaldikoa baino argiagoa da, gure ustez, ez baitirudi gure corpuseko esaldia irakurrita ondoriozta daitekeenik mamba sugearen kumeen multzoaren barruan azpimultzo bat egon daitekeenik ezaugarri horrekin; aldiz, EGLUko esaldiaren zentzua jakitea ezinezkoa da solaskideetako bat izan ezean eta ezagutza kontestuala eduki ezean; hau da, erlatiboaren izen ardatza zehatz-mehatz determinatuta edo mugatuta egon ezean. Har dezagun, adibidez, C<sub>2</sub> azpicorpuseko 51. binomioko adibidea:

Barkamenaz aritu ziren egun hartan. Lotsaz eta erruaz. <b>Bere burua eskultore baldar bihurtu zuen</b> Enola Gayko kopilotuaz.	Aquel día hablaron del perdón. Del copiloto del Enola Gay, <b>a quien le dio por convertirse en un torpe escultor.</b>
--	--

Adibide honetan ere, hartzaileak edo irakurleak baduke ezagutza nahikorik jakiteko hegazkin batek kopilotu bakarra izaten duela, eta, ondorioz, izen ardatz horri lotzen zaion erlatiboak balio esplikatiboa duela, ez duela inolako zehaztapenik egiten.

Beste modu bat ere badago izen ardatzaren mugaketa egiteko: erakuslearen bitartez, hain zuzen ere. Honelakoetan, gure corpusean behintzat, beti erlatibo murrizgarriak erabiltzeko joera dago; gaztelaniaz, berriz, erlatibo

murrizgarrietan eta ez-murrizgarrietan topatzen dugu erakuslea, beti ere koma edo nolana hiko etena egon edo ez; hori gertatzen da, adibidez,  $C_4$  azpicorpuseko 64. binomioan:

Ezin zion iruzurra beste ordainik itzuli <b>adiskidetasun huts garbia eskaintzen zion</b> emakume hari.	No podía pagar a aquella mujer, <b>que le ofrecía una inmaculada amistad gratuita</b> , con otra moneda que el engaño.
---	--

Testuinguruaren arabera izen ardatzaren mugaketa berezkoa duten hitzak ere badaude, adibidez askok zalantzazkotzat joko luketen ondokoa bezalako adibideetan ( $C_2$ -ko 52. binomioa) ere:

Ez omen zeuden <b>senarra berrogeita zazpi egun lehenago azken aldiz ikusi zuen</b> amarekin erabat ados.	Al parecer, no estaban del todo de acuerdo con su madre, <b>que había visto por última vez a su marido hacía cuarenta y siete días.</b>
---	---

Euskarazko esaldian, EGLUK esango lukeen bezala, izen arrunta ondo mugatuta dago (ama hori bat baino ezin baita izan, "bere ama"), baina ziur gaude euskal hiztun askorentzat esaldi hori ez dela hain ohikoa, behintzat, beren euskaran<sup>37</sup>.

Ikusi ditugun iritzi kontrajarriak ikusita, lehenago esan dugun bezala, aztertu beharrekoa iruditzen zaigu ea euskal tradizio literarioan erlatibo arruntak balio murrizgarri edo zehaztailearekin baino ez ote ziren erabil-tzen nagusiki, balio esplikatibo edo ez-murrizgarriarentzat ZEIN/NON erlatiboak utziz (baina ez, ordea, azken mota hau balio ez-murrizgarriarekin soilik erabiliz, ikusi dugun bezala), harik eta XX. mendearen hasierako garbizaleek bigarren prozedura hau gaitzetsi eta erabilera idatzitik ere luzarorako desagerraraztea lortu zuten arte. Hala balitz, aztertu beharreko beste puntu bat izango litzateke ea euskal erlatiboaren inguruan ikusi ditugun desadostasunak eta dauden zalantzazko erabilerak ez ote diren erlatibo apositiboaren gaitzespenaren ondorio, zeinarengatik lehenagoko tradizio idatzian ZEIN/NON erlatibo horrek betetzen zuen funtzio ez-murrizgarria betetzeko eginkizuna -N erlatiboak bereganatu baitu, ikusi ditugun ondorioekin. Nolanahi dela ere, ez da hau tesi

<sup>37</sup> Axularren adibide bat ekar daiteke gogora: "...*azkenean bere ama propioaz amurustu zela: bere ama bera, zeñen sabeletik iltki baitzen, demandatu zuela*" (Ax. 232)

honetan jorratu dugun gaia: euskal filologo edo gramatikarientzat zabalik geratzen den ikerketa-lerro bat dela esango genuke.

### 2.2.1.2. Erlatiboazko aposizioa eta haren balio semantikoa

Gure corpusaren azterketari eskainitako 4. kapituluko 4.3.1.3.2. puntuan ikusiko dugun bezala, STetan aposizioak frankotan ikusi ditugu (PEekin edo gabe) gaztelaniazko erlatibo esplikatibo edo ez-murrizgarrien bitartez itzulita, eta horregatik iruditzen zaigu egitura honi buruzko azalpenean sakontzea merezi duela.

Hidalgok (2002) gogoratzen duen bezala, egitura hau ere izan zen XX. mendeko garbizaleen gaitzespenaren jomuga, beste egitura sintaktiko batzuekin batera, Azkue eta Altuberengandik hasita, eta haien eragina mende horretan zehar eta geroago ere nabaritu izan da. Hala ere, ezin ukatuzkoa da guztientzat oso egitura erabilia dela, bai ahozko euskaran eta baita idatzizkoan ere<sup>38</sup>.

Bestalde, euskal gramatikari buruzko lanetan aposizioetan kokatutako erlatiboaz egin diren azterketetan ere azalpen kontrajarriekin eta desadostasunekin egiten dugu topo, eta, horrela, euskarazko eta gaztelaniazko erlatiboari buruzko sintaxi-azterketa konparatiboa egitea eta bi sistema sintaktikoen arteko baliokidetasunak ateratzea ez da oso erraza gertatzen. Gainera, erlatibo apositiboaren izenaren barruan, era desberdineko egiturak sartu izan dira maiz sail berean, berez funtzionamendu desberdina izan arren. Adibidez, Hidalgok (2002: 18) hiru mota desberdin bereizten ditu: a) -N atzizki bidez aposatutako erlatibo substantibatuak; b) soilik BAIT- partikula bidez aposatutakoak (BAIT erlatiboa); eta c) galdetzaile<sup>39</sup> bidez aposatutako erlatiboak (ZEIN/NON erlatiboa). Nolanahi, gure azterketarako interesa duen puntuari dagokionez, bere konklusioa da balio murrizgarria eta ez-murrizgarria duten adibideak topatu dituela bere corpusean, banaketa parekatu samarrarekin.

<sup>38</sup> Tradizio idatzian baino gehiago, esango genuke, ZEIN/NON egitura gaitzetsiaren lekua hartu baitu.

<sup>39</sup> Hidalgoren terminologia erabiliz.

Alabaina, Euskaltzaindiaren Gramatikak ez du ontzat jotzen terminologia hori –edo ez du jasotzen behintzat– edo Hildagoren bereizketa hori behintzat, eta, aldiz, “perpaus erlatibo arruntak aposizioan” deritzan atalean<sup>40</sup>, bi erabilera mota bereizten ditu: “alboko aposizio arruntak” eta “aposizioko perpaus erlatibo gibeleratuak”.

a) Alboko aposizio arrunta:

Izen sintagma bati aposatuta doan beste sintagma bat da, bere barruan PE arrunt bat duena; aipatutako gramatikan esaten da aposizioko sintagmak ez ohi duela ageriko ardatzik izaten, kanpoko ardatza baizik, hori izanik lehen sintagma edo aposizioaren ezkerrean dagoena; horrela,

*Gizon hura, askotan gure aitarekin mintzatzen zena, oso handia zen.*

adibidean, *gizon hura* izen sintagma da *askotan gure aitarekin mintzatzen zena* sintagma apositioko erlatiboaren kanpoko ardatza.

Bide batez esanda, gure azterketan, egitura honi “erlatiboazko aposizioa” deitu diogu, eta ez “aposatutako erlatiboa”, bere barruan PE bat duen IS bat delako aposatzen dena, EGLUn bertan<sup>41</sup> edo Euskaltzaindiaren 109. arauan, argi uzten den bezala, eta, gainera, geroago eta gure azterketaren emaitzen atalean ere jasoko dugunez, aposizio mota desberdinak egon daitezkeelako, gure corpusean ikusi dugun legez.

Euskaltzaindiaren gramatikan esaten denez, hain zuzen, bi sintagma horiek kasu-komunztadura izaten dute, beste sintagma apositiboekin egiten den bezala, eta kasu guztiak har ditzakete, baita ezkerreko izen sintagma izenlaguna denean ere, Axularren ondoko adibidean bezala:

Jende gazte arinen, <b>zenzuz baino zangoz fidago direnen</b> ofizioa da dantza. (Ax. 268)	El baile es oficio de jóvenes ligeros, <b>que más confían en las piernas que en el juicio.</b>
--	--

Are gehiago, gramatika honetan, eta Euskaltzaindiaren aipatu arauan, komunztadura hori beharrezkotzat jotzen da, ahozko euskarari edo ahozkotik

<sup>40</sup> Aip. lana, 213-214. orr.

<sup>41</sup> EGLU-V, 213. orr.

hurbileko erregistroari mugatuta utziz komunztadurarik eza. Bide batez esanda, bi testu horietan jasotzen diren era honetako adibide komunztatu gabeak ez dira ziurrenik onenak erabilera ez gomendagarri horren lekuko edo eredu gisa; batez ere haietako lehenengoa, Mayi Ariztiaren **Amattoren uzta** liburuko 16. orritik ateratakoa; izan ere, adibide honetako esaldia gaizki ulertuta dago puntuazio okerraren eraginez, aposiziotzat jotzen den segmentua ez baita aposizioa, objektu zuzena baizik, frantsesezko bertsioa ikusirik argi dagoen bezala:

Gure Jainkoak, <b>beti xuxen dabilana</b> , ongi gidatzen baitu, suertatu zen konde hori kaperat ailiatzea...	Comme le bon Dieu toujours, guide bien <b>celui qui marche droit</b> , il advint que ce comte arriva à la chapelle.
---	---

Zoritzarrez, ulerbide oker hau eta adibide hauxe bera jaso dute gero beste lan eta gramatika anitzek, hala nola Hualde eta Ortíz de Urbinak (2003: 804) eta SEGek<sup>42</sup> ere.

Bestalde, EGLU-Ven datorren bigarren adibidea, J.M. Hiribarren olerkariarena, bada zuzena, eta ez da kasu bakarra **Eskaldunac** poeman, baina, gure iritziz, ezin da besterik gabe baztertu bertsokera-beharrak edo zortziko txikiaren neurriak eragindakoa izatea.

Euskaltzaindiaren Gramatikaren liburuki honetan, ordea, ez da argitzen era honetako aposizioek balio murrizgarria ala ez-murrizgarria duten, baina EGLU-Ien, aldiz, badirudi ez-murrizgarriztat hartzen direla. Izan ere, bertan, "Aposizioak eta kasu markak" deritzan atalean<sup>43</sup>, esaten da aposizioa dagoenean gehienetan aski izaten dela kasu-marka aposizioko ISak bakarrik hartzea, ondoko adibidean bezala:

*Canpion, euskaltzale fin hark, esaten zuen...*

Baina, jarraitzen du esaten ezen, bi sintagmen artean eten handiagoa dagoenean, «**eta egiazki aposizio ez-murrizgarria denean**», bi sintagmei erantsi

<sup>42</sup> Euskara Institutua, EHU, "Aposizioen kasu markak", Sareko Euskal Gramatika (SEG), [www.ehu.eus/seg](http://www.ehu.eus/seg). ISBN: 978-84-693-9891-3.

<sup>43</sup> Aip. lana, 4.4.6 puntua, 208. orr.



dakiekeela kasu-marka, ematen dituen adibideen artean erlatibo apositibo bat egonik:

*Canpionek, hainbeste aldiz gogoratzen dugun hark...*

*Nik, bekatari honek, ez nuke horrelakorik esango.*

*Andoniri, nire lehengusuari, gauzak gaizki atera zaizkio.*

b) Aposizioko perpaus erlatibo gibeleratua.

EGLU-Ven arabera, PE arrunta aditzaren ondoren eta perpaus matrizearen bukaeran joan daiteke, ondoko adibidean ikusten den bezala:

*Gizon batzuk etorri ziren aspaldi ikusi ez nituenak.*

Era honetakoei "aposizioko perpaus erlatibo gibeleratuak" deitzen die, eta badirudi aurrekoak ez bezalako jokaera dutela:

- Hasteko, erlatibo gibeleratu hauek ardatza mugagabeen dagoenean bakarrik erabil daitezke, eta kasu absolutiboan bakarrik, artikulua mugatua nahiz mugagabea –partitiboa– erantsiz. EGLUn ez da aipatzen, ordea, era honetako erlatiboak soil-soilik zenbatzaile zehaztugabea duten izen sintagmekin erabiltzen direla.
- Bestetik, ez Gramatikak ezta erlatibo mota hau azertu duten beste autoreek<sup>44</sup> ere ezer esaten ez duten arren, erlatiboazko aposizioak koma batez bananduta dauden bezala, erlatibo gibeleratuetan badirudi koma edo eten hori ez dela egiten, nahiz eta adibide zaharretan, EGLUK dakartzan adibideetan behintzat, batzuetan koma erabiltzen den eta beste batzuetan ez. Ondo legoke, horregatik, EGLUren hurrengo edizioetan puntuazioaren gorabehera hau gehiago argituko balitz, bai baitirudi koma edo etenaren arabera, izen sintagma apositiboko

---

<sup>44</sup> De Rijk-ek (1972: 168-171) aztertzen dituenean, PEen luze-laburrari soilik begiratzen dio, esanez era honetako erlatibo libreak (*free relative clauses*) erlatibo ohikoak baino onargarriagoak izaten direla PEak oso luzeak direnean. Baina dakartzan adibideetan ez du puntuazioaren ustezko balio bereizleari buruzko inolako aipamenik egiten, eta, are gehiago, adibide horietan koma dutenak besterik ez daude. Oyarçabalek (1985: 119-120) ere, bide beretik, perpaus horien ugaritasuna aipatzen du, batez ere erlatibo luzeekin eta ahozko hizkerarekin edo haurren hizkerarekin lotuz. Orpustanek (1997: 83-85) erlatibo luze eta konplexuetan bakarrik ikusten ditu erabilgarri erlatibo gibeleratuak, eta arrazoi estilistiko indartsuek bakarrik zuritu ditzaketela dio.

erlatiboa erlatibo apositiboa edo erlatibo gibeleratua dela, eta, esan bezala, batzuek eta besteek jokamolde oso desberdina dute.

- Azkenik, Gramatikan hau espreski adierazten ez bada ere, erlatibo gibeleratu hauek izaera atributiboa dute, adjektiboek bezala izen ardatzaren nolakotasun bat adierazten dute, edo aditz kopulatibo baten osagarri dira, eta horrexegatik ez dute onartzen absolutiboa (eta partitiboa) besterik.

Gure tesiko azterketari dagokionez, interesatzen zaizkigunak gaztelaniazko itzulpenetako erlatibo esplikatibo edo ez-murrizgarriek gure corpuseko euskarazko STetan dituzten baliokidetasun testualak direnez gero, argi utzi behar dugu euskarazko erlatibo gibeleratuak ez direla agertzen gure azterketan, ez direlako gaztelaniazko PEEen baliokide, erlatibo espezifikatiboen baliokide baizik, eta, gainera, zenbatzaile zehaztugabea duten ISei itsatsitako erlatiboen adibideak ez ditugulako sartu gure corpusean, 4. kapituluko 4.1.4.1. puntuan azaldutako arrazoiengatik. Beraz, erlatibo apositiboetan zentratuko gara, eta hauei buruz idatzi diren beste ikerlan apurretan egiten den azterketa ekarriko dugu hona.

Horrela, Garziak (1997: 381) dio era honetako PE aposatuak anbiguoak izaten direla, bi interpretazio onartzen dituztelako, bata zehaztailea (murrizgarria, alegia), erlatiboaren erreferentea zehazki identifikatzeko funtzioa dutenean, eta bestea esplikatibo hutsa, funtzio hori ez dutenean. Horrela, ondoko perpausa:

***Haur bat, beti negarrez dabilena, etxean geratu da gaur.***

zehaztailea izango da perpausean aipatzen den haur horren unibertso kontestualean haur desberdin guztien artetik beti negarrez ari denaz eta horretaz bakarrik egiten duenean atribuzioa. Kasu horretan, gaztelaniazko itzulpena egingo bagenu, ***“un niño, el (niño) que siempre está llorando...”*** aurkituko genuke, erreferentearen zehaztasuna artikulatuaren bidez mugatuta dagoelarik<sup>45</sup>; hots, erlatiboaren aurrekaria bikoitza denean.

---

<sup>45</sup> Bide batez, gaztelaniaren gramatiketan, kapitulu honetako lehen atalean esan dugun bezala, bada era honetako PEak hirugarren erlatibo mota bat (“relativo apositivo”, hain zuzen) direla defenditu duenik

Bestetik, goiko esaldiko erlatiboa esplikatibo hutsa izango da izen ardatzaren identifikazioa zehazteko helburua ez duenean, aurrekaria bakarra denean, eta erlatiboak bigarren atribuzio bat edo atribuzio zirkunstantzial bat erantsi besterik egiten ez duenean; kasu honetan, gaztelaniaz mendeko perpausak ez luke artikulatu determinaturik edukiko buruan: *"un niño, que siempre está llorando,..."*. Nolanahi, honelakoan ordez, ZEIN/NON edo BAIT erlatiboaren erabilera zuhurratzen jotzen du, egitura horiek ez bairik gabe zentzu ez-murrizgarrian interpreta daitezkeen bakarrak direlako eta erlatibo libreak osatzeko balio ez dutelako. Geroagoko beste lan batean ere (2014: 90-91), zalantzarik ematen du erlatiboaren aposizio ez-murrizgarrien erabilera, aurrekaria ondo zehaztuta dagoenean, hala nola *"Zuzendaria, oso jatorra dena"* adibidean; zuzena izatekotan, haren arabera, izenordain erlatiboa erabili beharra dago: *"Zuzendaria, zeina oso jatorra baita"*.

Kaltzakortak (1997: 66), bere aldetik, beti zehaztailetzat jotzen ditu era honetako erlatibo apositiboak, aurrekaria identifikatzeko soilik balio dutelakoan; are gehiago, haren ustez euskaraz erlatibo esplikatiborik ez dagoenez gero, gaitzestekoa iruditzen zaio erlatibo apositiboak zentzu esplikatiboan erabiltzea, esanez funtzio horretarako aproposagoak direla euskaraz zentzu kausala emateko dituen beste baliabideak, *-eta* eta *bait*-bereziki, "esangura kausalekoak" diren gaztelaniazko erlatibo esplikatiboak itzultzeko.

Gure corpusera etorri, 4. kapituluko 4.3.1.3.2. puntuan diogun bezala, erlatiboaren aposizioaren erabilera binomio guztien %15 ingurukoa da, bereizi ditugun egitura desberdinetan laugarrena izanik. Ez da oso ehuneko handia, eta argi eta garbi esan nahi du gure corpuseko idazleek beste egitura sintaktiko batzuk nahiago dituztela aposizioaren gainetik, baina, hala ere, berau agertzen den 68 binomioetako askotan, aurrekaria ondo zehaztuta eta definituta dagoelarik erabilia dago, batzuek ez gomendagarritzat edo okertzat jotzen duten moduan. Jakina, era honetako aposizioak beti gaztelaniaz PEE bezala itzultzen dira, zalantzarik gabe bi prozedurek antz handia dutelako esaldiaren barruan duten kokapenagatik, formagatik eta funtzioagatik.

---

(Martínez, 1989 edo Ojea, 1992), baina beste autore batzuek horri ihardetsi diote erreferente edo ardatza elidituta duen erlatibo murrizgarri bat besterik ez dela.

Esan beharra dago, bestalde, gure corpusean aposizio-tipologia gehiago topatu ditugula EGLUn aipatzen diren "aposizioko perpaus erlatibo" edo "alboko aposizio arrunt" horiek baino. Izan ere, gure ikerketaren emaitzetan zehazten denez, ikusi dugu XTetako erlatibo esplikatiboen bitartez itzultzen direla bai barruan perpaus erlatiboa duten aposizioak eta baita aposizio soilak deitu ditugunak ere, hots, barruan inolako perpaus erlatiborik ez dutenak. Eta, bestalde, lehendabizikoen artean, IS apositiboa hiru modutara osatuta egon daitekeela, PEari itsasten zaion osagaiaren arabera:

a) PE + mugatzailea:

Tipologia honetan, gainera, PEko aditza jokatura edo jokatu gabe egon daiteke:

Kontuan hartuta gelak hogeituro metro koadro besterik ez duela: bainugela, <b>beste zenbait auzokiderekon konpartitzen dudana</b> , kanpoan dago, korridore luze baten amaieran.	El cuarto apenas tiene quince metros cuadrados: el baño, <b>que comparto con otros vecinos</b> , está fuera, al final de un largo pasillo.
Nor zen bera? Bera Cocó zen, Cocó Van Thiegel, <b>Belgikako armadako soldadu izandakoa gaztetan...</b> Ikara zion maxa hari!	Él, Cocó Van Thiegel, <b>que en sus años de juventud había servido en el ejército belga...</b> se amilanaba ante aquel pueblerino.

b) PE + erakuslea:

Horra zein etekin emango dizuten urreek, <b>gaztetandik arduraz zaindu dituzun horiek</b> .	Ésas serán para ti tus mercaderías, <b>por las que te has fatigado desde tu juventud</b> .
---	--

c) PE + izen arrunta:

Meredid Puw Dadies idazle galetarra ez zetorren bat. Meredidek, <b>Doris baino hogeituro urte gazteagoa zen poetak</b> , ez zuen onartu nahi halabeharra.	La poeta galesa Meredid Puw Dadies no estaba de acuerdo. Meredid, <b>que era veinte años más joven que Doris</b> , no quería acatar el destino.
---	---

Lau adibide hauek behatzen baditugu, garbi dago lehen bietako erlatiboak balio ez-murrizgarriarekin erabilia daudela, ez baitute balio zehaztailerik. Beste bi adibideen kasuan, aldiz, aposizioak balio zehaztailea du, aposizio ekuazionalak baitira, nahiz eta, seguru aski, idazleek balio ez-murrizgarriko aposizio modura erabili nahi zituzten.

Garziak (2014: 82) honelako aposizioei "aposizio-tarteki ekuazionalak" deitzen die, «**berdintzazko ekuazio baten tankerako zerbait**» dagoelako haien azpian; laugarren adibidearen kasuan, honako esaldia balitz bezala da:

***Meredidek, (hots,) Doris baino hogeit urte gazteagoa zen poetak...***

Izan ere, ekuazioa hauxe baita: Meredid = Doris baino hogeit urte gazteagoa zen poeta. Garziak dioten bezala, aposizioak hemen aurrekariaren erreferentzia zehaztu egiten du, Meredid hori identifikatzeko funtzioa du, berez. Gaztelaniazko bertsoa, aldiz, itzulpen nolabait parafrastikoa da; itzultzaileak ez du ipini "***Meredid, la poeta que era veinte años más joven que Doris***", esaldiaren testuinguruan aurretiaz identifikatuta edo zehaztuta dagoelako, eta zehaztapenaren erredundantziak oker sintaktikoa eragingo lukeelako.

Ikusi dugun bezala, aposatutako ISan izen arrunta duten euskarazko egitura hauen itzulpenarekin kontu handiz ibili beharra dago; bestela, C<sub>8</sub> azpicorpusean topatu duguna bezalako okerrak gerta daitezke:

<p>Non eta Bilbon, <b>faxisten erasoei urtebetez eutsi zien hirian</b>, Francok dagoeneko ez duela etsairik argi eta garbi utzi nahi dute agintariek. Milaka eta milaka lagun atera direla kalera hura agurtzera.</p>	<p>Las autoridades pretender dejar claro que Franco ya no tiene enemigos. Precisamente en Bilbao, <b>en la ciudad que resistió durante un año los ataques del ejército nacional</b>. Miles de personas han salido a la calle a vitorearlo (sic).</p>
---	--

Era honetako egiturek, izan ere, balio semantiko anbigua daukate, gorago aipatu den bezala; eta, adibide honetan, aposizioak balio ez-murrizgarria izan behar du, non eta ez den esan nahi Bilbo izan zela predikazioan esaten den ezaugarria duen hiria, hiri bakarra alegia. Bada,

interpretazio oker horixe da, hain zuzen, XTan ematen dena; ondo itzultzekotan, artikulua kendu beharra dago: *“Bilbao, (ciudad) que resistió...”*.

Aposizio ekuazionala egon daiteke, orobat, aposizioko erlatiboak mugatzailea eta kasu-marka daramatzanean, beste binomio honetan bezala:

Bai, Elizabeth Macklin idazleak, <b>nire liburua itzuli duenak</b> , berarekin joatera gonbidatu ninduen.	La escritora Elizabeth Macklin, <b>que ha traducido al inglés un libro mío</b> , me invitó a ir con ella.
---	---

Hemen ere ekuazio bat egiten da: Elizabeth Macklin idazlea = nire liburua itzuli duena. Erlatiboak, beraz, balio zehaztailea du, aurrekaria identifikatzeko betekizuna du. Gaztelaniaz, bi itzulpen posible ditu euskarazko esaldiak, bata esplikatiboa artikulurik gabe, binomioko XTan bezala, eta bestea espezifikatiboa artikuluekin: *“La escritora Elizabeth Macklin, la que ha traducido al inglés...”*. Bide batez esanda, bi itzulpen horiek posible izango lirateke gaztelaniaz, nahiz eta semantikoki eta formalki desberdinak izan.

Euskarazko aposizio mota honi buruzko azalpena bukatzeko, bada datu esanguratsu bat gure azterketaren 4.3.1.3.2.1. puntuan gehiago garatzen duguna: izan ere, gure corpuseko idazleek aurrekaria kasu absolutiboan dagoenean erabiltzen dute batez ere erlatibozko aposizioa, horrelako adibide guztietatik %82,3an zehazki. Beraz, oso gutxi erabiltzen dute aurrekariaren kasu-marka beste bat denean; halakoetan, beste egitura sintaktiko batzuetara jotzen dute, eta, erlatiboa aukeratzan dutenean, erlatibo arrunta hautatzen dute nagusiki, eta ez ZEIN/NON erlatiboa.

### 2.2.1.3. ZEIN/NON erlatiboa eta haren balio semantikoa

Erlatibo honi eskainitako zatian, EGLUK erlatiboaren “balioaz” jarraitzen du hitz egiten, aditzera emanez ikertzaileak bat datozela esatean ZEIN/NON erlatiboak errazki hartzen duela balio ez-murrizgarria; hala ere, berehala erakusten du honelako erlatiboetan balio murrizgarria duten adibideak ere topa daitezkeela euskal literatura tradizioan, anitz aldiz, *«zenbaitek bestelako interpretazioa egin izan badute ere»* –ez du argitzen nor diren zenbait horiek,

baina ezbairik gabe Villasantez eta Goenagaren *Gramatika bideetan* liburuaz ari da, hain zuzen ere-. Horrela, adibidez,

*Hau da atheka zeinetarik iragan behar baita* (J. Etcheberri Sarakoa).

*Zeren hauk dira leihoak eta portaleak, zeinetarik behatu guztiak [...] arimen barrena sartzen baitira* (P. Axular)

esaldietako PEak murrizgarriak dira, aurrekariak ez baitu berezko erreferentziarik, ez eta balio generikorik ere. Gorago esan dugun moduan, kontuan hartzekoa da bigarren adibidean koma bidezko etenak ez duela balio, gaztelaniaz bezala, erlatibo mota bata eta bestea bereizteko, EGLUn behintzat ez da espreski halakorik aipatzen, ez eta aztertzen ere puntuazioak berez balio ote duen ala ez horretarako, Goenagak uste zuen bezala, ala, besterik gabe, pentsatu behar dugun euskaraz denbora luzez ez dela egon puntuazioari dagokionez ere arau finkoak ezartzen zituen erakunde edo gramatikarik, eta horri egotzi behar zaiola komaren kasuan ere ikusten dugun asistematikotasuna.

EGLUn, erlatibo arrunterako proposatzen zen +/- murrizgarritasuna eta +/- mugagarritasuna bereizketak ZEIN/NON erlatiborako ere balio duela esaten da, baina oso baldintza korapilatsuak jarritz -murrizgarri baina +mugagarri tasunak dituzten adibideetarako; aurrekariak balio generikoa badu, onargarritzat jotzen du:

*Gizonek, zein baitira oro elkarren bete, elkar errespetatu behar lukete.*

EGLUren arabera, esaldi hau ontzat eman daiteke baldin eta "gizon" horiek gizon guztiak badira, multzo osoa adierazten badu. Aldiz, txartzat hartzen du esaldi berbera, balio generikorik ez badu eta aurrekariak aipatzen duen kategoriaren azpimultzo bati buruz ari bada; eta "*gure aurrean mintzatu diren gizonek*" perpausaren esanahi berbera ematen dio kasu horri, modu nahiko zalantzagarrian, adibide apositiboko aurrekariak balio anaforiko garbia duelako, eta ustezko baliokideak ez<sup>46</sup>.

---

<sup>46</sup> Puntu honetan, gogoratzeko modukoa da Larramendik (1856: 152) balio osokotzat eta baliokidetzat ematen zituela ondoko bi esaldiak: *Sagarrá ceñac min equin didan, gazieguí zan* eta *Min equindidán sagarrá, gazieguí da*, bien itzulpena izanik, autorearen arabera, *La manzana que me hizo mal era agría demasiadoamente*.

Honelako erlatiboak onargarriak izateko bete dezakeen beste baldintza bat aurrekariak berezko erreferentzia izatea da, ondoko esaldian bezala:

***Zeren behkatua baita Jainkoaren kontra, zein baita infinitu*** (Ax., 391)

Berdin gertatzen da, erlatibo mota hau izen propio bati itsasten zaionean ere; honelakoetan, erlatiboak balio ez-murrizgarria du EGLU-Ven arabera, aurrekariak «*hartatik kanpo baitu bere berezko erreferentzia*»<sup>47</sup>, ondoko kasuetan gertatzen den bezala:

***Samuelek ikusi zuenean Eliab, haurrideetarik zaharrena, zeina baitzen gizon handi eta iduri ederreko bat, erran zioen Jainkoari*** (B. Larreguy).

***Baña balitz garizuman zeinetan ezin egon leitekian lexibia egin baga, orduban agindu leijo...*** (P. Astarloa).

Hemen ere, bi adibideak ez-murrizgarritzat eta mugagarritzat jotzen dira, baina onargarriak izen propioak direlako aurrekariak. Bide batez esana, eta puntuazioari dagokionez, EGLUK dakartzan adibide gehientsuenetan etena dago aurrekariaren eta erlatiboaren artean, koma nagusiki, baina baita puntu eta koma ere.

Eta aukerako azken baldintza izenordainak kasu adberbial baten marka bat edukitzea da, honakoan bezala:

***Zeren hauk dira leihoak eta portaleak, zeinetarik behkatu guztiak (...) arimen barrena sartzen baitira.*** (Ax., 256)

Alegia, azken adibidea onargarritzat jotzen du izenordain erlatiboak kasu-marka duelako, eta, beraz, ez luke onargarritzat joko halakorik ez balu; gure ustez, ordea, Axularren liburutik irten gabe topa daitezke horrelako baldintzak betetzen ez dituzten adibideak ere:

***Zeren behkaturik gabe zeneundenean egin zinituen obra onak, zein baitziren obra biziak, eta gero behkatu egiteaz hildu eta iraungi zirenak, kofesatzeaz pitzten, eta koberatzen baitira.*** (Ax., 347)

---

<sup>47</sup> Aip. lana, 236. orr.



Gramatikariek diotena albo batera utzi eta gure corpusera etorritz, lehendabizi aipatu beharreko datua da erlatibo mota hau 14 binomiotan baino ez dugula aurkitu,  $C_0$  corpus osoko binomio guztietatik %3,2an besterik ez, eta hamar azpicorpusetatik seitan bakarrik, ale bakarrarekin horietatik hirutan; oso erabilera urria eta bazterrekoa, beraz. Bi azpicorpusetan bakarrik topatu dugu proportzio apur bat esanguratsuagoan,  $C_5$  eta  $C_{10}$ -ean, hain zuzen ere. Tesiko 4. kapituluko 4.3.1.3.4 puntuan iradokitzen dugu halako belaunaldi-banaketa baten zantzuak daudekeela erlatibo mota honen erabileraren maiztasunean, bai baitirudi gure corpusean bildu ditugun bi idazle-belaunaldietatik zaharrenekoez apur bat gehiago erabiltzen dutela gazteenekoez baino, kopuru absolututan; baina, hala ere, adibide gutxiegi dira baieztapen biribilik egin ahal izateko.

Erlatibo mota honen erabileraren maiztasunean bai egon daiteke euskarazko jatorrizko testuen eta euskarara itzultitako testuen arteko desberdintasunik, bai behintzat Iker Sanchok (2015) bere doktore-tesian lortutako datuen arabera<sup>48</sup>; izan ere, bertan, errusieratik euskarara itzultitako 12 liburu aztertu zituen, errusierazko perpaus erlatiboak nola euskaratuta dauden ikusteko, eta corpuserako bildu zituen 2.402 PEetatik 225 ziren ZEIN/NON erlatiboak, haien proportzioa PE guztietatik %13koa izanik. Nabarmena da, bi corpusak konparatuz, euskal itzultzaileek askoz ere gehiago erabiltzen dutela erlatibo mota hau euskal idazleek baino, eta era honetan nolabait esan daiteke baieztatzen dela gaur egungo euskaran halako kanon sintaktiko bikoitza erabiltzen dela, erlatibakuntza apositibo gutxikoa jatorrizko testuetarako eta alderantzizkoa itzulpenetarako.

Kanon sintaktiko bikoitz hori espreski aldeztu dute ZEIN/NON erlatiboaren erabilera testu teknikoetarako eta, bereziki, itzulpenetarako gomendatzen dutenek, adibidez Alberdi & Garciak (1996), Alberdi & Sarasolak (2001) edo HAEE-IVAP erakundeak berak (2003), hau bezalakoak idazten dituztenean:

...uste dugu egitura honek azterketa zehatzagoa behar duela; are gehiago, kontuan hartzen bada baliabide hau testu tekniko askotan eta itzulpengintzan

---

<sup>48</sup> Alabaina, datu hori ez zuen sartu tesian, berak eskaini digu pertsonalki.

oro har giltza izan daitekeela erdara batzuetako "periodo" luzeak egokitzapen larregi barik emateko eta bestelako zailtasun sintaktikoak gainditzeko.<sup>49</sup>

Ikusten den bezala, euskararen baliabide sintaktiko honek kanpoko sintaxi-eredu batekin lotuta egoten jarraitzen du oraindik, itzulpenetako euskararekin. Gure iritzia ematea zilegi bada, ez zaigu iruditzen horrelako kanon bikoitza izatea komenigarria denik, ez euskararentzat ezta euskarazko itzulpenek euskal literatura-sistemaren barruan duten harrera eta ospearen aldetik ere.

Kontu hori alde batera utzita, eta euskarazko erlatiboen balio semantikoari buruzko atal hau bukatzeko, badago gure iritziz azken datu esanguratsu bat gure azterketan behatu duguna; izan ere, erlatibo mota hau duten 14 binomioetatik 5etan, NON erlatibagailua da erabiltzen dena, eta ZEIN, aldiz, nagusiki genitiboaren formarekin bakarrik, ZEINAREN forma singularrarekin gehienbat. Alegia, erlatibo mota honek oso agerraldi gutxi izateaz gain, oso funtzio gutxitan erabiltzen da, bi kasu horietara mugatuta.

Beste alde batetik, balio semantikoari eta komaren erabilerari dagokienez, adibide guztiak, eta, beraz, autore guztiak bat datoz: 14 binomioetako ZEIN/NON- erlatibo guzti-guztiak ez-murrizgarriak dira eta guzti-guztietan puntuazio-etena dago kanpoko izen ardatzaren eta mendeko perpausaren artean, koma bat kasu gehienetan, eta parentesia binomio batean.

### **2.3. Erlatiboa euskarazko itzulpen-ikerketetan**

Tesi honen helburua izanik, halako corpus batean oinarrituta, euskal literatura-sistemako kanon sintaktikoaren eta euskaratik gaztelaniara eginiko itzulpenetan aurkitzen den erlatibo esplikatiboaren erabileraren arteko itzulpen-baliokidetasunen ikerketa konparatua egitea, lehenagoko euskarazko itzulpen-ikerketetan gai honi eskaini zaizkion lanak aipatu beharko ditugu: Bigurik (1994) eginiko *Erdarazko erlatiboen itzulpenaz* artikulua batetik, eta, bestetik, Iker Sanchok *Errusierazko perpaus erlatiboen euskaratzea. Hizkuntza-sistematik itzultzailearen estilora* izenburuaz 2015ean irakurri zuen doktore-tesia.

---

<sup>49</sup> ALBERDI & GARCÍA (1996: 131).

Bi lanotan, sorburu-hizkuntza (SH) desberdinak erabiliz, jatorrizko testuetako erlatiboak halako corpus baten barruan nola euskaratuta dauden aztertzen da, metodologia desberdinetan oinarrituta.

### 2.3.1. Biguri, 1994.

EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak bultzatzen duen *Senez* aldizkarian argitaratutako artikulu honetan, XIX. eta XX. mendeetan gaztelaniatik euskarara itzulitako bost liburu jorratu genituen STetako PEak euskarazko itzulpenetan zein baliabide sintaktikorekin emanda zeuden ikusteko. Artikulua ez da sartzan ST eta XTen arteko baliokidetasunen azterketa kuantitatiboan, eta beraz ez da aztertzen zein ehunekotan erabiltzen den prozedura bakoitza, edo zein diren euskarazko itzultzaileen baliabiderik erabilienak.

Artikuluaren abiapuntua Pierre Lafittek erlatiboari buruz egindako baieztapen ezaguna da, gorago aipatu duguna, zeinen arabera euskara ez baita oso emana perpaus erlatiboz betetako esaldi frantsesak itzultzeraz eta horregatik hobe dela testu horiek hitzez hitz itzuli beharrean beste sintaxi baliabide batzuen bidez euskaratzea. Hortik abiatuta, artikulan gaztelaniazko PEen ordez «*euskarak erabil ditzakeen beste prozedura sintaktikoak*» zein diren aztertzen da, itzultzaile eredugarri batzuen lanetan aurkitutako irtenbideak azalduz.

Hasteko, artikuluaren hasieran planteatzen da ea aukeratutako corpusean egiazta daitekeen Lafittek dioena, alegia, euskarak baino joera handiagoa dutela inguruko erdarek erlatiboak erabiltzeko; eta hainbat adibidetan oinarritzen da itzultzaileek baliabide ez-erlatiboak aukeratu dituztela erakusteko eta, beraz, Lafitteren jarrera baiesteko, baina baieztapen hori sostengatzeko azterketa estatistikorik egin gabe eta perpaus tipologia desberdin batzuk aipatuz soilik, eta, bestalde, hasierako zatian behintzat, erlatibo mota desberdinen artean inolako bereizketarik egin gabe. Hasierako zati honen ondorioa da «*testu baten baliokidetasun dinamikoari begira, informazioa antolatzeko modu desberdinak daudela*» eta itzultzaileak aukera

asko dituela «STan erlatibo baten bidez emandako informazioa beste nonbait edo beste nolabait erreproduzitzeko»<sup>50</sup>.

Ondoren, corpusean aurkitutako itzulpen-prozedurak erlatibozkoak diren ala ez bereizten da, eta gero sail bakoitzeko itzulpen-baliokidetasunak zerrendatu, deskribatu eta adibideak ipintzen dira.

Hala, baliabide ez-erlatiboen artean, "transposizio"tzat jotakoak sartzen dira: alborakuntza, juntadura mota desberdinak, aposizioa eta baliabide hipotaktiko desberdinak (kausazko perpausak, helburuzkoak, moduzkoak, etab.), baina baita perpaus konpletiboak eta zehar-galderak ere, adierazi gabe zein diren erabilienak, baina bai erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak bereiziz. Eta hau interesgarria da, zeren corpusean aurkitutako baliabide sintaktiko ia guztiak berdin-berdin erabiltzen baitira erlatibo mota batarekin zein bestearekin, gaztelaniazko erlatibo murrizgarriak nahiz ez-murrizgarriak euskaratzeko, alegia.

Esan bezala, artikulua honetan ez da XTko prozedura horien erabilera estatistikoari buruzko inolako daturik ematen, gure interesa gehiago zelako gaztelaniazko perpaus erlatiboen baliokide sintaktiko desberdinak erakustea; hala ere, artikuluan bai ematen da aditzera corpuseko XTetan baliabide ez-erlatiboekin eginiko itzulpenak ugariagoak direla, eta hortik ondorioztat ateratzen da «euskaraz erlatiboak gazteleraz baino askoz maiztasun txikiagoa duela» eta «euskara prozedura ugariz balia daitekeela gazteleraz edo frantsesez erlatiboen bidez adierazten den mezua antolatzeke»<sup>51</sup>.

Eta baliabide erlatiboen sailean, adibide gutxiagorekin, erlatibo sustantibatuak (guk tesian "erlatibozko aposizioa" deitu duguna), "erlatibo erromanikoa" (ZEIN/NON erlatiboa) eta "erlatibo murrizgarriak" (erlatibo arrunta) sartzen dira, azken bi hauek STko PE ez-murrizgarrien itzulpenekin. Datu interesgarria izan daiteke, batetik, erlatibozko aposizioaren multzoko adibideen artean gaztelaniazko PE murrizgarriak itzultzeko bakarrik topatu genituela, eta, bestetik, ZEIN/NON erlatibo apur bakarrak 1891ko itzulpenean<sup>52</sup>

---

<sup>50</sup> Aip. lana, 45. orr.

<sup>51</sup> Aip. lana, 58. orr.

<sup>52</sup> *Liberalkeria pecatuba da*, itzultzaile ezezaguna, Bartzelonan argitaratua.

agertzen direla eta, aldiz, euskarazko erlatibo arruntaren bitartez itzultitako jatorrizko PEEen adibide gehienak 1887ko itzulpenetik<sup>53</sup> aterata daudela; hortaz, euskal gramatika "tradizional"aren eta gramatika garbizale eta (*avant la lettre*) antizeñistaren arteko muga-lerro bat izan daitekeen zerbait antzeman genezake berez gaztelaniazko testu berarenak diren bi itzulpenotan.

Artikuluko beste puntu bat espreski eskainita dago gaztelaniazko STetako erlatibo ez-murrizgarriak euskaratzeko corpuseko itzultzaileek erabilitako prozedurei, interesik azaldu gabe ZEIN/NON erlatiboari edo, artikuluan esaten den bezala, «*galdetzaile bidez eraikitako erlatiboekin itzultzen diren*» perpaus ez-murrizgarriari buruz. Hemen ere, corpuseko ST eta XTen artean topa daitezkeen bestelako baliokidetasun sintaktikoak interesatzen zitzaizkigun gehiago, eta bi prozedura aipatzen genituen bereziki: erlatibo murrizgarri arrunta, artikuluaeren arabera «trakets itzuliak» diren adibideetan, eta erlatibo sustantibatua.

Tesi honetan aztertu dugun eta euskarazko erlatiboari buruzko ikerlanetan eztabaidagai den gai batera etorritz, artikuluan erlatibo arruntak izen propioei ere erantsita aurkitzen dira artikulua honetako corpusean, itxuraz corpuseko liburu bakarrari dagozkion adibide pare batean oinarriturik eta azterketa sakonagorik gabe ondorioztat emanez badirudiela «*euskarak onartzen dituela izen bereziei eta ongi murriztuta ematen diren erreferenteei formaz murrizgarriak diren perpaus erlatiboak eranstea*»<sup>54</sup>.

Azkenik, konklusioei eskainitako atalean, esaten da «*EN atzizkiaz eraikitzen diren erlatiboek ez daukate[la] forma hutsez erlatibo murrizgarrien eta ez murrizgarrien artean bereizteko modurik*» eta erlatiboazko aposizioak murrizgarritzat jotzen dira, eta perpaus erlatibo ez-murrizgarriak egiteko ZEIN/NON erlatiboa erabiltzea defenditzen da, bai eta eransten ere erlatibo mota hori bere corpusean XIX. mendeko testuetan bakarrik aurkitu dela, gainontzeko «*itzultzaileek jakinaren gainean baztertu dituztelako*»<sup>55</sup>.

<sup>53</sup> *Liberalen dotriña pecatu da*, ustez Gregorio Arruek itzulia eta Bartzelonan argitaratua.

<sup>54</sup> Aip. lana, 62. orr.

<sup>55</sup> Aip. lana, 63-64. orr.

### 2.3.2. Sancho, 2015.

Gorago aipatu dugun Iker Sanchoren doktore-tesia da euskararen esparruan eta corpusgintzan oinarrituta erlatibakuntzaren gaiari eskaini zaion itzulpen-ikerketak deskriptiborik sendoena. Kasu honetan, ikerketako hizkuntza parek errusiera-euskara da, eta ikergai nagusia XIX. eta XX. mendeko errusierazko 12 literatura-lan narratibotako perpaus erlatiboak euskaratzean itzultzaileek erabilitako estrategia desberdinak eta itzultzaileen hautuetan eragina izandako faktore linguistiko (sintaxia eta morfologia) eta estralinguistiko (errusiar idazleen eta euskal itzultzaileen erlatibakuntza-estiloa) esanguratsuenak dira. Planteamenduak, beraz, antz handi samarra dauka gure tesiak duenarekin, baina bi diferentzia nabarmenekin: batetik, haren kasuan, itzulpenaren norabidea desberdina da, beste hizkuntza batetik euskarara eginiko itzulpenak direlako aztertutakoak; eta, bestetik, erlatibo mota guztiak aztertzen dira, haien balio semantikoaren arazoan sartu gabe, eta, beraz, erlatibo murrizgarrien eta ez-murrizgarrien adibideak bereizi gabe.

Tesi honen corpora osatzeko, autoreak 2.402 PE erauzi zituen errusierazko testuetatik eta euskal itzulpenetako haien ordainen parez pare jarri zituen, halako corpus paralelo bat eratuz, itzulpen-baliokidetasunen azterketa konparatua egitearren, guk ere gure tesian planteatu dugun bezala.

Sanchoren tesian datu egiaztagarrien bitartez frogatzen da euskal itzultzaileek, errusierazko perpaus erlatiboak itzultzean, erlatibakuntzari eusten diotela batzuetan, baina beste batzuetan beste baliabide sintaktiko batzuetara jotzen dutela. Euskarazko XTetan egitura erlatiboa mantentzen denean, itzultzaileek PE arrunt jokatuak, PE jokatu gabeak, erlatibo arruntarekiko perpaus aposatuak (gure tesian "erlatibozko aposizioak" deitu ditugunak), ZEIN/NON erlatiboa eta BAIT erlatiboa erabiltzen dituzte; eta, beste egitura ez-erlatiboak erabiltzen dituztenean, hiru egitura mota nagusi desberdin aurkitzen ditu: parataxia (gure tesian alborakuntza eta juntadura biltzen dituen egitura mota; hau da, errusierazko PEa bi zatitan banatzea, haien artean halako eten bat sartuz); hipotaxia (PEa beste mendeko perpaus mota desberdin batez ordezkatzeko), eta ikertzaileak "sinplifikatzea" deitzen duena, hots, predikazioa perpaus mailatik sintagma mailara eraman eta perpaus elkartua zena perpaus bakun bihurtzea.

Sanchok aurkitutako itzulpen-baliokidetasun hauek bat datoz, bestalde, guk tesi honetan aurkitu ditugunekin, baina kontrako norabidean: alegia, bere tesiko itzultzaileek kasu askotan egitura ez-erlatiboetara jotzen dute jatorrizko erlatiboak euskaratzeko, eta gure corpusekoek, aldiz, gaztelaniazko erlatibora jotzen dute jatorrizko egitura ez-erlatiboak itzultzeko. Horrek, ikuspegi traduktologikoaz haruntzagoko interesa eduki dezake sintaxi konparatuaren ikuspegitik, itzulpen-baliokidetasun horiek egitura sintaktikoen arteko baliokidetasun semantiko halako bat erakusten dutelako, bat datorrena, gure tesiaren kasuan bereziki, PEEei egozten zaien izaera koordinatuarekin<sup>56</sup>.

Bestalde, Sanchoren arabera, faktore desberdinek dute eragina bi estrategia nagusi horietan; hala, jatorrizko erlatibakuntzari eusten dioten itzulpen-zatietan, badirudi itzultzailearen erlatibakuntza-estilo propio bat (faktore estralinguistikoa) beha daitekeela eta, beraz, itzulpen-estilo desberdinak antzeman daitezkeela aztertu duen corpusean, itzultzaile batzuek joera handiagoa baitute erlatibo arruntak erabiltzeko eta beste batzuek erlatibo aposatuak, «*ezohiko proportzio altuan*» gainera. Aldiz, STetako erlatiboak euskarazko XTetan ezabatzen diren kasuetan –euskaraz erlatiboazkoa ez den baliabideren bat aurkitu duenean alegia–, Sanchok dio ez duela aurkitu desberdintasun azpimarragarririk itzultzaile desberdinen estiloan, eta hortik ondorioztatzen du faktore linguistikoak direla itzultzailearen hautu hori azaltzen dutenak, hots, «*itzultzailearen kontrolpean ez daudenak*» eta guztiei «*berdin eragiten dietenak*»<sup>57</sup>.

Tesiko emaitzen analisiari eskainitako atalean, XTetako itzulpen-estrategien eta baliokidetasun sintaktiko desberdinen neurri estatistikoa bereziki interesatzen zaigu gure ikerketaren helburuetatik begiratuta, nahiz eta tesi bietako ondorio estatistikoak ez diren berez konparagarriak, erlatibakuntzaren barruko fenomeno desberdinak dituztelako ikergai lan batak eta besteak. Baina Sanchorenak eskaintzen dituen datuak bai izan daitezke interesgarriak, euskal itzulpenaren estilistikaren ikuspegitik, euskararako itzulpenaren nolabaiteko kanon linguistiko baten zantzuak eskaintzen

<sup>56</sup> Cid-ek (1994: 288-9) gogoratzen duen bezala, «*la cláusula relativa no restrictiva puede tener un matiz de mera coordinación, o de subordinación (causal, concesiva, final, etc.)*».

<sup>57</sup> Aip. lana, xiii. orria.

dituelako, halako corpus mugatu eta jakin bateko itzultzaileei dagokiena, noski, baina etorkizunean egin litezkeen bide bereko beste ikerketa batzuekin pareka litezkeenak, euskal itzulpenak erabiltzen duen sintaxiak jatorrizko euskal testu antzekoek duten sintaxiaren ezaugarri berberak dituen ala ez ebatzi ahal izateko.

Horrela, corpuseko 2.402 binomioetatik %68an euskal itzulpenetan eutsi egin zaio STetako erlatibakuntzari, eta %32an beste itzulpen-prozedura batzuk erabiltzen dira, edo, gure tesian erabiltzen dugun terminologiara egokituz, "itzulpen parafrastikoa" egiten da; datu hau agian bai konpara liteke gure tesian aurkitu dugunarekin, itzulpen-norabide bakoitzaren ezaugarriak konparatuz, nahiz argi utzi behar den, berriro ere, itzulpen-fenomeno desberdinen neurriak adierazten dituztela: itzulpen parafrastikoei buruz hitz eginez, Sanchoren tesian, jatorrizko perpaus erlatiboak itzultzeko euskarazko egitura ez-erlatiboa erabiltzen duten itzulpenei dagokie izendapen hori, eta gure tesian, berriz, XTetan PEE baten bitartez itzulita dauden euskarazko egitura ez-erlatiboa erabiltzen dutenei.

Izan ere, gure tesiko emaitzen atalean ikus daitekeen bezala, euskaratik gaztelaniara egindako itzulpenetan –eta beti ere erlatiboaren itzulpenera mugatuz, eta, gure kasuan, XTetako PEEei bakarri arreta jarriz–, gaztelaniazko itzulpenen batez besteko parafrasi-indizea %56,5koa da. Beste era batera esanda: gure tesiko corpuseko itzultzaileek, euskaratik gaztelaniara egindako itzulpenetan, ia bi bider gehiago jotzen dute "parafrasi erlatiboa" erabiltzera Sanchoren tesiko euskararako itzultzaileek "parafrasi ez-erlatibora" baino.

Horri gehitzen badiogu aurreko 2.2.1.3. puntuan aipatu dugun ZEIN/NON erlatiboaren erabilera-proporzio desberdina –%13koa Sanchoren corpuseko euskarazko testuetan, eta %3,2koa gurean– nolabaiteko zantzuak behintzat baditugu itzulpen-norabide bakoitzaren ezaugarri desberdinak hipotizatzen eta euskarazko literatura-sistema garaikidearen barruan jatorrizko lanek eta itzulpenek kanon sintaktiko desberdina dutela baieztatzen, erlatibakuntzaren erabilerari dagokionez, eta, ondorioz, perpausgintzari dagokionez. Beste era batera adierazita, datu horiek aditzera emango lukete beste hizkuntzatik euskarara eginiko itzulpenetan, gehiago eusten zaiola SHk duen



erlatibakuntza-maila orokorrari, eta, bereziki, erlatibakuntza esplikatiboari; eta, aldiz, euskaratik beste hizkuntzara egindako itzulpenetako erlatibakuntza-maila euskarazko STetakoa baino handiagoa dela. Eta, norabide batean zein bestean, bi joera horiek egitate bat eta bera erakusten dute: alegia, euskarazko gaur egungo kanon sintaktikoan, erlatibakuntza-maila handiagoa topatzen dela euskarara eginiko itzulpenetan, euskarazko jatorrizko lanetan baino; horren ondorioa izanik, gure tesian ikusi dugun bezala, euskaratik gaztelaniara eginiko itzulpenetan hizkuntza horretako erlatibakuntza-maila handiagora egokitzeko itzulpen parafrastikoak erabiltzeko joera.

Egia da baieztapen hori segurtasun osoz egin ahal izateko, erlatibakuntzaren mota guztiak aztertu beharko direla ahalik eta corpusik zabalenarekin, baina logikak esaten digu ezin litekeela beste era batera izan, XX. mendeko euskal gramatikariek ZEIN/NON erlatiboaren aurrean erakutsi duten jarrerak urrunarazi egin baitu, gure ustez behintzat, euskararen kanon sintaktikoa inguruko hizkuntzek dutenetik, euskal idazle klasikoek euskal literaturaren hasierako hiru mende eta erdietan euskara idatziaren sintaxia Europako beste kultura-hizkuntzen sintaxiarekin parekatzeko egina zuten ahalegina zapuztuz.

### 3. KAPITULUA:

#### GAZTELANIARA ITZULITAKO EUSKAL LITERATURA

Euskara-gaztelania literatura-itzulpenen gure corpusaren azterketari eskainiko diogun kapituluari ekin aurretik, atariko gisa, euskaratik gaztelaniara itzulitako literaturaren ezaugarri kuantitatibo eta tipologikoak ikusiko ditugu, literatura hori nola itzultzen den argitu baino lehen garrantzitsua baita aztertzea zenbat itzultzen den eta zein den itzulpen-kopuruaren bilakaera denboran zehar, bai eta, IIDen ikerketa-ereduari jarraituz, itzulpen-jarduera honen *preliminary norms* edo "aldez aurretiko arauak" direlakoekin zerikusia duten zertzelada batzuk: bereziki, zer autore itzultzen diren, zein den (edo diren) itzulpen horien xede-kultura(k) eta itzulpenen egiletasunari dagokionez itzulpen horiek duten tipologia, alegia, itzulpen horiek nork egiten dituen (autoreek berek ala beste itzultzaile batek), eta zernolako partehartzea izaten duten jatorrizko idazleek beren lanen itzulpenetan, hiru itzulpen mota bereiziz: itzulpen alografoa, autoitzulpena, eta itzultzailearen eta idazlearen arteko elkarlanean egindako itzulpena. Izan ere, frogatu nahi dugu ea autoreek berek egindakoak edo autoreen parte hartzearekin egindakoak diren itzulpenen eta itzulpen alografoen artean ba ote dagoen desberdintasunik, interesatzen zaigun estilistika konparaturako hautatu dugun baliabide sintaktikoari dagokionez, itzulpen horien *operational norms* edo "jarduera-arauak" direlakoetan, itzultzeko moduan, labur esanda.

Izan ere, kontu hauek denak argitzeak berebiziko garrantzia du ebatzi nahi badugu nolako alde sintaktiko-estilistikoa dagoen euskarazko STetatik gaztelaniazko XTetara, puntu horren azterketa baita gure tesiaren helburu nagusia, bai eta tesi honen sarreran gure ikerketaren abiapuntu gisa planteatu dugun hipotesia –bigarren kapituluan aztertu ditugun euskal erlatibakuntzari

buruzko zenbait teorizaziotatik ondorioztatu beharrekoa iruditu zaiguna-egiaztatu ahal izateko ere: hau da, ea benetan bi kanon sintaktiko-estilistiko edo bi prosa-eredu ari ote diren garatzen euskarazko literatura-sisteman, bata euskarazko sorlanetarako eta bestea euskarara egindako itzulpenetarako, eta erlatibakuntzaren erabilera-maiztasun desberdinagatik bereizten direnak. Gure tesian ez ditugu zuzenean aztertzen azkenengo horiek, baina bigarren kapituluan bai erantsi ditugu horiei buruz egin diren azterlan batzuk eta, guztiarekin, aski izan daiteke aipatu hipotesi hori ebazteko, nahiz eta onartzen dugun helburu horri begira gure tesiaren osagarri bezala beharrezkoa izango dela aurrerantzean planteatu duguna bezalako estilistika konparatua egitea gaztelaniatik euskararako literatura-itzulpeni buruz ere. Hori, ordea, etorkizunerako utziko dugun ikerketa-lerro bat da oraingoz.

### 3.1. Itzulpenak zenbakitan

Tesi honetako azterketarako hautatu ditugun katalogoa eta corpora helduentzako euskal literaturako lan garaikideez eta haien gaztelaniazko itzulpenez osatuta dagoelarik, euskal literatura itzuliaren ezaugarri eta bereizgarri kuantitatibo eta tipologikoei eskainiko diegu kapitulu hau. Gaur egun badugu aukerako lanabes bat euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako literaturaren berri izateko: Elizabete Manterolaren eskutik EHUren Euskara Institutuak sarean jarria duen ELI –Euskal Literatura Itzuliaren– katalogoa<sup>58</sup>, zeinean euskaraz idatzitako liburuen itzulpeni buruz egileak bildu ahal izan duen informazioa jasotzen baita: STari dagokionez, autore, jatorrizko izenburua, argitalpen-urtea eta argitaletxea; eta XTari dagokionez, itzulpen-hizkuntza, itzultzailea, izenburua, argitalpen-urtea, tokia, argitaletxea eta itzulpen mota. Manterolak berak beste argitalpen batean (2014a: 83-113) ematen du katalogoaren osakerari buruzko hainbat jakingarri, baina, guri tesirako interesatzen zaizkigun datuei dagokienez, esan dezakegu arian-arian eguneratuz joaten den *on-line* katalogo honetan, euskal literaturaren garai eta genero guztietako liburuen itzulpenak daudela jasota, edozein xede-hizkuntzatan liburu formatoan argitara emandakoak: tesi hau egiten ari garen unean<sup>59</sup>, 1.273 fitxa ditu guztira, eta horietatik 653 gaztelaniazko itzulpeni

<sup>58</sup> <http://www.ehu.es/ehg/eli/> [Rontsulta data: 2016-06-02]

<sup>59</sup> Ikus aurreko oharra.

dagozkie, baina kopuru horiek argitalpen desberdinei buruzkoak dira, ez itzulpen desberdinei, ez eta, noski, jatorrizko liburuei buruzkoak ere. Guztiarekin ere, zenbaki horiek argi samar erakusten dute itzulpenen erdia, gutxi gorabehera, gaztelaniara egiten direla, eta horri gehitzen badiogu itzulpen asko ez daudela zuzenean euskaratik eginda baizik eta gaztelania zubi-hizkuntza bezala erabiliz, Manterolarekin (2012: 5) bat egin beharko da, esaten duenean euskaratik egiten den itzulpenak euskarak bizi duen egoera diglosikoa islatzen duela.

Hain garai eta jatorri desberdineko itzulpenak izanik katalogoan jasota daudenak, itzulpen bakoitzari buruzko informazio guztiak ezin izan dira aurkitu eta, besteak beste, beti ez dago jakiterik euskal liburu batzuen itzulpenekin egin diren argitalpen desberdinetako testu itzuliak desberdinak diren ala ez. Nolanahi ere, katalogoaren aurkezpen-orrian ematen diren datuak 2012ko maiatzera artekoak izanda eguneratuta ez dauden arren, ordura arte jasota zeuden jatorrizko izenburuak –berrargitalpenak kontuan izan gabe– 480 ziren, xede-izenburuak 935, itzultitako idazleak 161, eta xede-hizkuntzak 38.

ELIn bildutakoak euskal literaturaren hastapenetatik argitaratutako euskal liburuen itzulpenak direnez gero, katalogoak hartzen duen denboratartea oso zabala da, 1657tik 2013ra arte, itzulpenik zaharrena –euskaratik egindako lehen itzulpena, beraz– Arnaud Oihenarten atsotitzen argitalpen elebiduneko frantsesezko bertsoa izanik; baina, jakina, euskarak eta euskal kulturak historikoki Mendebaldeko kultura-polisisteman oso kokapen periferikoa duenez, euskal literatura-lanen itzulpenak oso bazterreko fenomenoak dira xede-kulturetan, eta horregatik joan den mendeko 80ko hamarkadara arte ez dugu aurkituko halako itzulpen-kopuru apur bat esanguratsurik. Horrela, Oihenarten lanaren itzulpena XVII. mendearen erdialdean agertu ondoren, XIX. mendera arte ez zen argitaratu euskaratik egindako beste itzulpenik; mende horretako 20 itzulpenen erreferentziak bildu ditu Manterolak, haien artean abesti eta atsotitz bildumak, kondairak eta erlijioaren inguruko liburuak. Bestalde, XX. mendean, lehenengo hiru hamarkadetan, itzulpen bana besterik ez du jaso ikertzaile honek, berak eginiko ondoko taulan<sup>60</sup> ikus daitekeen bezala:

<sup>60</sup> Aip. lib., 90. orr.

Hamarkadak	Itzulpen-kopurua
1900 – 1909	1
1910 – 1919	1
1920 – 1929	1
1930 – 1939	7
1940 – 1949	1
1950 – 1959	5
1960 – 1969	6
1970 – 1979	11
1980 – 1989	56
1990 – 1999	245
2000 – 2010	562

**1. taula: XX. mendetik aurrerako itzulpenak**

Taulak erakusten duenez, joan den mendean Espainiako Gerra Zibilak hautsi zuen 30eko hamarkadako lehen loraldi txikiaren ondoren, 70eko hamarkadara arte apenas argitaratuko zen euskaratik beste edozein hizkuntzatarara egindako itzulpenik, Espainian diktadura amaitu eta euskarak eta euskal literaturak berak bigarren pizkundea dei litekeena izan zuten arte, alegia. Dena den, azken bi hamarkada eta erdietan bakarrik esan dezakegu halako jauzi kuantitatiboa dagoela euskal literatura itzulian, euskarazko literaturgintzaren beraren garapenari hertsiki loturik eta, beharbada, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* lanak 1989an –epe horren hasieran alegia– lortu zuen Espainiako Literatura Sari Nazionalaren ondorioz euskal literaturak bereganatu zuen kanpoko interes kritiko eta komertzialaren bultzadari esker, besteak beste; interes horren bidez, lan hori gaztelaniara ez ezik, gutxienez beste 24 hizkuntzatarara ere itzuli izan da geroztik.

Gure literatura-sistemaren izaera periferiko eta diglosikoaren erakusgarritzat har liteke euskal literatura-lan batek sistema horretatik kanpoko sari garrantzitsu bat irabazteari esker lortu izana nazioarteko ezagutza eta ospea, baina muga geografikoen aldetik eta hiztun-kopuruaren aldetik hizkuntza txikia da gurea, arestira arte batu eta arautu gabea, eta euskarazko literatura-sistema ere txikia da eta nahiko berandura arte ez du eskuratu beste sistema batzuekin homologatzeko moduko maila.

Hala ere, gaztelaniazko itzulpenek beste XK batzuetarako sarbidea eman diotela egia den arren, ezin da biribilki esan gaztelaniazko literatura-

sistemaren interes hori denik euskaratik egindako itzulpenen bultzatzaile bakar edo nagusia. IIDen teoriarientzat, Touryrentzat bereziki, itzulpenak XKaren egitateak dira: «*[translations] are facts of the culture which hosts them*» (1995: 24); baina gure kasuan, Manterolak frogatu duen bezala (2012: 4), euskaratik gaztelaniara egindako literatura-itzulpenak argitaratzeko ekimena ez da soilik gaztelaniazko XKrena –berau gaztelaniazko kultura-polisistema nagusi gisa ulertuta–, jatorrizko kulturatik ere abiatu baitira itzulpen horiek, kultura horretako erakundeen patrozinioaren bitartez: «*[Kanpoko merkatuaren] Esharirik ezean, jatorrizko kulturatik bertatik bultzaten da itzulpena literatura gutxituen testuinguruan*» (Manterola, 2014: 28); horrela, Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen ditu gure literatura euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeko, eta, gainera, Euskadi Literatura Sarien zati bat lan irabazleen itzulpenera bideratzen da.

Dena dela, gure literatura euskararen eremu geografikotik kanpoko gaztelaniazko XKra zabaltzeko asmo edo beharra ez da euskal literatura gaztelaniara itzultzeko ekimenean sorburu-sistemak bultzatzaile-paper garrantzitsua izatearen arrazoi bakarra; izan ere, badirudi euskarazko SS horretan gero eta interes handiagoa dagoela euskarazko literatura euskararen eremu geografikoaren barruko biztanleria erdaldunari (edo elebidunari) ezagutzera emateko, gaztelaniaz (ere) irakurtzen duen euskal irakurle goari, alegia. Honek berarekin dakar euskaratik gaztelaniara egindako itzulpenek bi xede-kultura dituztela: bata endogenoa deienezakeena, hots, euskararen eremu geografikoaren barruko gaztelaniazko kultura-sistema –kasu askotan euskarazko argitaletxeek berek ateratzen dituzte itzulpenak eta hauek Euskal Herrian bertan izaten dute zabalkunde gehiena; horregatik “itzulpen endogenoak” deituko diegu xede-sistema honetarako argitaratzen direnei–; eta bestea exogenoa, eremu geografiko horretatik kanpoko gaztelaniazko kultura-sistema, batzuek “zentrala” deitzen dutena, zabalkunde-ahalmen gehiagokoa, eta gaztelaniazko “itzulpen exogenoak” deituko ditugunak argitaratzen dituena.

Bada euskal idazle bat behintzat honelako itzulpen-politikaren alde mintzatu dena: Ramon Saizarbitoriarekin egindako elkarrizketa-liburu batean, euskal literaturaren gaztelaniazko itzulpenak batez ere barruko XS

endogenorako egitearen alde azaldu zen elaberrigile hau: «Nire ustez, irtenbide naturala gure merkatuari zintzo erantzutea da. Euskaraz idatzi ondoren, eta euskaraz ikasi ez duten euskal herritarrak ere badirenez, etxe barrurako itzuli eta argitalpenak egin behar lirateke. Baita kanpoko elite kulturek gure berri izan dezaten ere. Hortik aurrera baten batek arrakasta badu, merezi baldin badu, oso ederki: egin dezala bere bidea» (Etxeberria, 2002: 118-121).

Horrenbestez, goian aipatutako patrozinioaren eta jatorrizko sistemak berak duen interesaren eraginez, Karlos Cid-ek Interneten argitaratutako "Literatura vasca traducida al castellano" izenburuko zerrenda<sup>61</sup> hartzen badugu, 1976tik 2014ra bitartean osotara gaztelaniazko itzulpen endogeno gehiago argitaratu direla ikusiko dugu, 2. taulak erakusten duenez:

	<b>Endogenoa</b>	<b>Exogenoa</b>
	<b>k</b>	<b>k</b>
1976	1	
1977		
1978		
1979	2	2
1980	1	
1981		
1982		1
1983	1	1
1984	1	
1985		1
1986		2
1987		
1988		2
1989	1	5

<sup>61</sup> «Literatura vasca traducida al castellano» [On line. Kontsulta data: 2015-03-05. <https://cv4.ucm.es/moodle/mod/page/view.php?id=1003897&inpopup=1>]. Kontuan izan beharra dago zerrenda honetako liburuetan helduen literatura deitzen dena bakarrik sartzen dela, genero desberdinekin, eta ez, beraz, haur eta gazteentzako literatura.

1990		2
1991	1	1
1992	2	1
1993		1
1994	3	
1995	4	3
1996	2	3
1997	5	6
1998	2	2
1999	4	4
2000	4	1
2001	7	4
2002	4	3
2003	6	3
2004	4	8
2005	3	3
2006	8	7
2007	6	5
2008	10	2
2009	3	5
2010	5	2
2011	4	1
2012	6	
2013		1
2014		2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>84</b>

2. taula: Gaztelaniazko itzulpenak

Are gehiago, jatorrizko sistemak bultzatzen dituen itzulpen endogenoen kopurua nabarmenki handiagotuz joan da urteak joan urteak etorri, halako moldez non bi garai bereiz baikenitzake taulak biltzen dituen ia lau hamarkadetan:

- 1) 1976tik 1999ra arte, itzulpen exogenoak (37) gehiago dira endogenoak baino (30), eta horrek gaztelaniazko XK exogenoaren interesaren nagusitasuna adieraziko luke.
- 2) 2000tik 2014ra arte, alderantzizko egoera aurkitu ez ezik, erabateko nagusitasuna hartzen dute itzulpen endogenoek (70) exogenoen gainetik (47), tesi honetako 3. eranskinean Espainiako ISBNren datuak erabiliz egin dugun zerrendan ikus daitekeen bezala.



Alegia, XXI. mendean jatorrizko polisistema bera da euskaratik gaztelaniara egindako itzulpen gehien bultzaten dituen, XK endogenora iristeko. Horrenbestez, jatorrizko polisistemaren sustapenagatik eta/edo XK exogenoaren interes gainbeherakorrarengatik, lehenago beren euskarazko lanen gaztelaniazko itzulpenak kanpoko argitaletxeetan plazaratzen zituzten hainbat autore euskal editorialetan ari dira argitaratzen orain gaztelaniazko bertsioak, tartean Anjel Lertxundi<sup>62</sup>, Ramon Saizarbitoria edo Arantxa Urretabizkaia, adibidez, baina ez soilik.

Bestalde, itzulpen zerrenda horretatik ateratako datuei Touryren *Preliminary norm* edo alde zuzenaren arauen ikuspegitik begiratzen badiegu, hots, aztertzen badugu zer itzulpen-politika topatzen dugun gaztelaniazko XK endogenoan eta XK exogenoan, ikusiko dugu azken honek euskal literaturarekiko erakusten duen interesa autore gutxi batzuetara mugatzen dela; zehazki, zazpi euskal idazlek bakarrik dituzte hiru itzulpen edo gehiago argitara emanda Euskal Herritik kanpoko argitaletxe espainiarretan: Atxaga, guztien buru, eta gero Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Juan Kruz Igerabide, Lertxundi, Saizarbitoria eta Iban Zaldua; itxura batean, sariekin loturiko zerrenda dugu, haietatik hiruk (Atxaga, Elorriaga eta Lertxundik) Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi dutelako, seik (Elorriagak ez beste guztiek) Euskadi Saria, eta bostek (Igerabidek eta Zalduak ez besteek) Espainiako Narratibako Kritika Saria. Bestetik, gaztelaniazko XS exogenoan gutxienez lan baten itzulpena atera duten euskal idazleak Cid-en zerrendako 27 dira. Datu horren ifrentzuan, SSn gutxienez itzulpen endogeno bat atera duten euskal idazleak 62 dira; beraz, euskal idazle gehienek itzulpen endogenoak bakarrik ateratzen dituzte, esate baterako Pako Aristik, Jon Arretzek, Joan Mari Irigoienek, Koldo Izagirrek, Karmele Jaiok, Edorta Jimenezek edo Lurdes Oñederrak, besteak beste.

Euskal literatura-polisistema, beraz, hasita dago XKko literatura-sistema exogenoaren ekimenari gaina hartzen euskal idazleen gaztelaniazko itzulpenak plazaratzerakoan, eta horrek hainbat eragin izango ditu gure ustez. Batetik, literatura lanen kanonizazio-prozesua eraldatu egingo du; euskararena

<sup>62</sup> Lertxundiren kasua, gainera, oso esanguratsua da, 1988tik 2001era arte Bartzelona eta Madrilgo argitaletxe batzuetan bakarrik argitaratu zituelako bere gaztelaniazko bertsioak, eta urte horretatik aurrera, aldiz, Irungo Alberdania argitaletxearekin bakarrik.

bezalako literatura txikietan, jakina da itzulpenak nabarmenki bideratzen duela literatura-lanen kanonizazioa, Even-Zoharrek definitzen duen zentzuan: «*by "canonized" one means those literary norms and works (...) which are accepted as legitimate by the dominant circles within a culture and whose conspicuous products are preserved by the community to become a part of its historical heritage*» (1990: 15). Eta, berez, normalena izanik SKko liburu kanonizatuak itzultzea, egia da, orobat, itzulpenak areago kanonizatzen dituela lan horiek, ez soilik XKn, baina baita SKn bertan ere: Manterolak dioen bezala, «*Gaztelaniarako itzulpena kanonizatzen bada, edo gaztelaniazko itzulpena kanonizatu eta arrakasta izaten badu, jatorrizkoa ere nolabait kanonizatu egingo da*» (2014: 29). Oso esanguratsuak dira, zentzu berean, Axun Aierberen hitzak: «*behin baino gehiagotan gertatu da euskarazko lan bat benetan estimatzen hastea Euskal Herritik kanpo onespena izan ondoren*» (2008: 24). Baina, noski, sorburu-sistemak XK exogenoa ordezkatzeko badu, edo lekua kentzen badio, XK exogeno horretan kanonizatutako autoreak gutxiago izango dira, eta horrek eraginik izan dezake jatorrizko sisteman bertan.

Bestetik, aurrekoari lotuta, Manterolak (2014: 31) dioen bezala, euskal literaturak gaztelaniazko literatura-sistemarekiko mendekotasun kultu-rala duenez gero, bereziki haren bitartez beste hizkuntza batzuen merkatuetara iritsi ahal izateko, eta kontuan izanik gaztelaniazko literatura-sistema endogenoa ahulegia dela zeregin horretan XK exogenoaren ekimena ordezkatzeko, are gehiago gutxitu edo mugatu egingo da euskaratik atzerriko hizkuntzetara itzultzen diren lan eta autoreen kopurua ere, XK exogenoak bultzatutako itzulpenek egin izan baitute<sup>63</sup> orain arte beste hizkuntzekiko zubi-lana. Hori dela eta, gure iritziz, patrozinio lana egiten duten erakundeek ondo pentsatu beharko lukete gaur egun daramaten itzulpen-politika eta egiten duten sustapena benetan egokiak ote diren euskal literaturaren ezagutza hedatzeko atzerriko beste hizkuntzetara.

### 3.2. Itzulpenen tipologia

<sup>63</sup> Datu oso esanguratsua topatzen da Manterolaren tesiaren ondorioetan, Atxagaren lanek beste hizkuntzetara eginak dituzten itzulpenei dagokienez: alegia, «*gaztelania erabili dutela corpuseko gainerako hizkuntzek itzulpenerako iturri-testu modura*» (2012: 305).

Itzulpenen tipologiaren gaia asko interesatzen zaigu gure tesiko katalogoa eta corpora osatzen duten testuen eta itzulpenen ezaugarriak aztertzerakoan, argitu nahi dugulako ea itzulpen-tipologia desberdinek eraginik ba ote duten gure corpuseko ST eta XTen artean topatuko ditugun baliokidetasun testual eta estilistikoetan.

Itzulpengintzari buruzko ikerketa, jakina, duela urte gutxi hasi da lantzen gure artean; gai honetako unibertsitate-ikasketak Euskal Herrian oso berriak direnez gero –lehen promozioa 2004an irten zen–, euskarazko itzulpengintzari buruzko bibliografia poliki-poliki ari da aberasten, 1. kapi-tuluko 1.3.4. puntuan ikusi dugun moduan; baina gaiari buruz gure artean egin den ikerketa euskarara egindako itzulpenei buruzkoa da batez ere, eta horregatik, euskaratik beste hizkuntzetara eta, guri dagokionez, gaztelaniara egiten diren itzulpenei buruzko azterketak are urriagoak dira oraindik. Gaztelaniaratutako literaturari buruzko ikerketari gagozkiolarik, López Gasenik euskal HGLko autoitzulpengintzari eskainitako bi argitalpen (2001 eta 2005) izan dira lan aitzindariak. Bestalde, Aierbek (2008) Lertzundi, Cano eta Saizarbitoriaren lan batzuen itzulpenak, haien tipologia eta estrategiak aztertu zituen. Cid (2015) ere arduratu da euskal kasuan hain pisu handia duen autoitzulpengintzaren fenomenoaz. Pisu horren erakusgarri, EIZIEk 2006an autoitzulpengintzaz antolatutako mahainguru bat ere aipa genezake. Baina euskaratik egindako literatura-itzulpenen tipologiari dagokionez, Manterola (2011, 2013 eta 2014) da ikerketa sistematikoagoa eta itzulpen-norabide honen tipologia desberdinak sakonkien aztertu dituena.

Itzulpenen tipologia aztertzerakoan, kontuan izan beharra dago tradizionalki, oro har itzulpenari buruz eta, bereziki, literatura-itzulpenari buruz egin diren ikerketetan, translatologia linguistikoan bereziki, baina baita *Translation Studies* edo itzulpen-ikerketetan ere, itzulpen-ekintzan parte hartzen duten bi hizkuntzen estatusari buruzko aipamenik ez zela inon ere jasotzen, nolabait jakintzat ematen baitzen “berdinen arteko hizkuntza-harremana” zegoela haien artean, estatus berdineko bi hizkuntza nazionalen arteko transferentzia neutro, horizontal eta simetriko batean. Ikuspegi honekin, testu bat literatura-sistema nazional batetik beste sistema nazional batera pasatzean datza itzulpen-ekintza. Aldiz, munduko hizkuntza eta literatura

desberdinen artean estatus-ezberdintasun eta hierarkia nabarmenak egoten dira eta, kasu askotan, itzulpena ez da elkartruke horizontal bat, bertikala eta asimetrikoen artekoa baizik.

Pascale Casanovak (1999, 2002) dioen bezala, itzulpen guztiak sortzen dira, berez, halako hierarkia nazional eta linguistiko baten testuinguruan; horrela ikusita, itzulpena halako autore eta testu batzuk kontsakratzeko gertatzen den borrokaren agertokia da. Modu honetan, estatus nazionala duten hizkuntzetan badira autore "nazional" batzuk eta autore "nazioarteko" batzuk, gutxiago edo gehiago itzuliak; baina hainbat faktorerengatik literatura nazional batzuk edo hizkuntza batzuk eta, jakina, autore batzuk gehiago itzultzen dira beste batzuk baino. Even-Zoharren eskeman, 1. kapituluan ikusi dugun bezala, literatura nazional edo hizkuntza horietako batzuek nazioarteko literatura-sisteman kokapen zentrala dute eta beste batzuek periferikoa; termino horien ordeztan, beste ikertzaile batzuek, Casanovak berak, adibidez, nahiago dute "nagusitasun/mendekotasun" (*langues dominantes* eta *langues dominées*) aurkakotasuna erabili hizkuntza- edo literatura-sistema horien arteko harremanak deskribatzerakoan, aurkakotasun horrek halako indar-harreman bat dagoela esan nahi duelako. Horrela, hizkuntza- eta literatura-sistema zentral eta periferikoak egoteaz gain, hizkuntza nagusi edo hegemoniko eta hizkuntza mendeko edo ez-hegemonikoak ere badaude, eta haien banaketa ez da simetrikoa: sistema hegemonikoak zentralak eta periferikoak izan daitezke nazioarteko polisisteman; lehendabizikoak euren nazioarteko prestigioagatik, literaturaren antzinatasunagatik edo unibertsaltzat jotako testu edo egileen eta, beraz, haietatik egindako itzulpenen kopuruagatik nabarmentzen direnak dira, eta bigarrenak, berriz, nazioarteko ospe gutxiago dutenak eta testu edo egile unibertsal gutxiago eta itzulpen gutxiago dituztenak, baina hala ere estatus apalagoko beste hizkuntza batzuekiko nagusitasuna izan dezakete.

Bestalde, hizkuntza ez-hegemonikoen kasuan ere, horiek ez dute halako multzo homogeen bat osatzen; lau taldetan sailka daitezke: 1) ahozko hizkuntzak edo idazketa arestian finkatua dutenak; nazioarte mailan ezezagunak izaten dira eta ez dute haietatik egindako itzulpenik; 2) independentzia politikoaren ondorioz arestian nazional bihurtutako hizkuntzak; mundu mailan poliglota gutxik hitz egiten dituzte eta itzulpen gutxi

egiten dira haietatik; 3) herrialde "txikiak" kultura eta tradizio zaharreko hizkuntzak, hiztun gutxiak eta poliglota gutxi dituztenak, oso gutxi baloratuak beren mugetatik kanpoko nazioarteko merkatuan; eta 4) zabalkunde handikoak, tradizio aberatsekoak eta hiztun ugariak izan arren, nazioarteko literatura-merkatuan ezagutza eta aitortza gutxi dutenak.

Casanovaren arabera (2002: 9-10), hizkuntzek espazio linguistiko-literarioan duten kokapenaren arabera, hiru itzulpen-harreman mota bereiz daitezke haien artean: 1) nagusi edo hegemonikoa den hizkuntza batean idatzitako testu batetik hizkuntza mendeko batera egindako itzulpena, eta alderantziz; 2) hizkuntza nagusi batetik beste hizkuntza nagusi batera egindakoa; eta 3) mendeko hizkuntza batetik beste mendeko hizkuntza batera egindakoa (autoreak oso kasu arrarotzat jotzen duena, baina Espainian hain arraro ez dena). Harreman eta hierarkia horiek, noski, diakronikoki dinamikoak dira; gaur egungo nazioarteko literatura-panoraman, adibidez, ingelesa da ez bairik gabe hizkuntza hegemonikoa<sup>64</sup> eta, ondorioz, itzuliena, eta, hain zuzen ere horrexegatik, beste hizkuntzetatik egiten diren ingeleserako itzulpenen ehuneko txikiagoa izaten da beste kultura-hizkuntzetan baino<sup>65</sup>; ingelesaren nagusitasun hori hainbat pilare geopolitiko, ekonomiko eta kulturaletan oinarrituta dago, noski, baina badu zerikusirik, halaber, ingelesak erakartzen dituen poliglota kopuru handiarekin: itzulpenaren praktikara etorrira, askoz gehiago dira toki gehienetan ingelesetik itzul dezaketen itzultzaileak beste hizkuntzetatik itzul dezaketenak baino.

Casanovaren eskema horretan, euskarak bere eremu geografikoaren zati batean ofizialtasun maila aitortua izan arren eremu horretan gaztelaniarekiko mendekotasun egoera diglosikoan dagoenez, literatura-kritikari frantses honek aipatzen duen lehenengo itzulpen-harreman mota dauka berarekin. Harreman mota horretan, eta euskara bezalako hizkuntza txiki eta gainera gutxituen kasuan, Manterolak dioenez, «*errepertorioa zabaltzeko eta literatura garatzeko*

<sup>64</sup> Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Observatorio de la Lectura y el Libro delakoak argitaratu duten *El sector del libro en España 2013-2015* txostenaren arabera, urtez urte, ingelesetik egindako itzulpenak Espainian argitaratzen diren itzulpen guztien erdia baino gehiago izaten dira, 2014an %50,17 adibidez. On line: <http://www.mecd.gob.es/dms/mecd/cultura-mecd/areas-cultura/libro/mc/observatoriolect/redirecte/estudios-e-informes/elaborados-por-el-observatoriolect/sector-libro-abril2015/sector-libro-abril2015.pdf> [Kontsulta-data: 2016-06-07].

<sup>65</sup> Rochester-eko Unibertsitatearen arabera, AEBn argitaratzen diren liburuen %3 besterik ez dira itzuliak: «*Unfortunately, only about 3% of all books published in the United States are works in translation*». On line: <http://www.rochester.edu/College/translation/threepersent/index.php?s=about> [Kontsulta-data: 2016-06-07].

beharrezkoa izan ohi da jatorrizko sorkuntza lanez gain beste hizkuntza batzuetako produkzioa etxekotzea. Hori horrela izanik, hizkuntza horiek itzulpen-hartzaile bihurtzen dira» (2014: 25). Baieztapen hori, euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpen-harremanari gagozkiolarik, zuzena da oro har liburugintzari begiratzen badiogu: izan ere, datuak eguneratuta ez dauden arren, Unescoren Index Translationum delakoaren fitxategian<sup>66</sup>, gaztelaniatik euskarara egindako liburu-itzulpenen 1.377 erreferentzia agertzen dira, eta euskaratik gaztelaniara egindakoak, berriz, 623. Orobat, Espainiako ISBNko datu-baseak dituen erreferentzia bibliografikoek, nahasgarriak diren arren<sup>67</sup>, berresten dute gaztelania-euskara norabidearen nagusitasuna, nahiz eta beheranzko joera nabarmena egon bi norabideetan, 2010-2015 bitarteko taula honek erakusten duen bezala:

	ES › EU	EU › ES
2010	366	66
2011	350	60
2012	250	44
2013	193	45
2014	156	57
2015	194	28
<b>Guztira</b>	<b>1.509</b>	<b>300</b>

**3. taula: Itzulitako liburuak**

Hala ere, argitaratutako liburu horien generoari begiratzen badiogu, helduen literatura itzulian<sup>68</sup> ez da horrela gertatzen: 2. taulan ikusi dugun bezala euskaratik gaztelaniara argitaratuta dauden itzulpenetatik 109 dira 2000tik 2014ra bitartean atera ziren helduentzako narratibako lanak; aldiz, epe horretan, Espainiako ISBNri buruzko datuen arabera, gaztelaniatik euskarara argitaratutako narratiba-lanak 48 baino ez dira, 3. eranskinean ikus daitekeen bezala. Gainera, zerrendan ikus daitekeenez, horietatik 15 itzulpen On Kixoteren laugarren mendeurrenaren inguruan 2005-2007 bitartean erakundeen laguntzaren batekin argitaratu eta berrargitaratu ziren

<sup>66</sup> Datu hauek 2016ko ekainaren 7an egindako kontsultatik ateratakoak dira, baina kopuru berberak atera zituen Manterolak 2014ko maiatzaren 26an egindako kontsultatik (2014: 43).

<sup>67</sup> Adibidez, gaztelaniatik itzulita bezala eman arren beste hizkuntza batzuetatik itzulitako liburuak dakartza, eta erreferentzia desberdin banatan bereizten ditu liburu beraren edizio desberdinak. Beraz, orri honetako taulako zenbakiak ez dute banakako libururik adierazten.

<sup>68</sup> Helduen literatura kontzeptua ere dinamikoa da, ezaguna delako hainbat literatura-lan bere garaian helduentzako literatura bezala sortu zirela baina gaur egun HGL barruan sartzen ditugula; horregatik, kontzeptu hau zuzen ulertzekotan, gaur egungo kultura hartzaileak helduentzako literatura bezala jasotzen dituen lanetara mugatzen dugu.

Cervantesen lanen itzulpenak dira, eta beste 8, berriz, euskal Administrazioaren patrozinioarekin argitaratzen den Literatura Unibertsala programaren barruan euskaratutako lanak; eta daturik esanguratsuena, bestalde: zerrenda horretako izenburuen erdia, zehazki, gaztelaniaz idatzi duten Euskal Herriko idazleen lanen itzulpenak dira, bereziki azpimarratzekoa izanik 24 horietatik 9 izenburu idazle bakar batenak direla<sup>69</sup>. Datu hauek oso argazki argigarria –eta, ikusten denez, endogamikoa– ematen digute gaztelaniatik euskararako itzulpen-politikaz edo, Toury eta Even-Zoharren terminologiari gagozkiolarik, gaztelania-euskara norabideko itzulpenen alde aurretiko arauaz: Hego Euskal Herriko –hots, norabide honetako itzulpenak ateratzen dituzten argitaletxeen esparru geografikoko– biztanle euskaldunak elebidunak izanik, bi eratako literatura-itzulpenak argitaratzen dira gaztelaniatik euskarara: administrazioen ekimenez eta laguntzaz argitaratutakoak eta, batez ere, euskal idazle banaka batzuek gaztelaniaz idazten dituzten lanen itzulpenak<sup>70</sup>.

Gauzak honela, kapitulu honetako lehen bi puntuetatik atera ditugun datuen arabera, euskara eta gaztelaniaren arteko itzulpen-harremanak honako ezaugarriak ditu:

- 1) Euskaratik gaztelaniara egiten diren narratibako literatura-itzulpenen kasuan, jatorrizko polisistema bera da itzulpenen bultzatzaile nagusia, eta xede-hartzailea polisistema horren gaztelaniazko xede-kultura endogenoko irakurleria da gero eta gehiago.
- 2) Gaztelaniatik euskarara egiten diren itzulpenen kasuan, Administrazioaren ekimenez egindakoek pisu handia dute izaera kultural markatuagoko itzulpen motan, eta gaztelaniazko euskal idazle apur batzuen lanak dira nagusiki euskaratzen direnak.

Euskaratik gaztelaniara egiten diren itzulpenen tipologiarekin jarraituz, azpimarratu behar den beste egitate bat da gurea bezalako testuinguru

<sup>69</sup> Toti Martínez de Lezea.

<sup>70</sup> Xosé Manuel Dasilvak Espainiako hizkuntza zentral eta periferikoen arteko itzulpen-harremanei buruz esaten duen moduan: «(...) *desde el centro del Estado no se suele ver con buenos ojos que los textos escritos en castellano se traduzcan a las lenguas periféricas, con excepción tal vez de la literatura infantil y juvenil, donde se descubre un grado superior de tolerancia*» (2009: 46).

elebidunetan itzulpen-tipologiak ezaugarri bereziak izaten dituela testuinguru elebazarretan aurkitzen denaren aurrean, itzulpena hizkuntza ez-hegemonikotik hizkuntza hegemonikora egiten denean. Horrela, itzulpenaren sorkuntza-prozesuaren ikuspegitik dauden hiru itzulpen moten artetik – itzulpen alografoa, jatorrizko egilea ez den itzultzaile batek egindakoa, oro har STaren egilearen parte hartzerik gabe; autorearen eta itzultzailearen arteko kolaborazioan egindako itzulpena; eta autoitzulpena, STaren egileak berak egindakoa –, azken bi modalitateek garapen handia erakusten dute.

### 3.2.1. Autoitzulpengintza

Itzulpenen tipologiaren gai honi eta bereziki autoitzulpenaren fenomenoari duela oso gutxi hasi zaio garrantzia ematen traduktologia-ikerketan, *Postcolonial Studies* direlakoan eskutik; kontzeptuaren izena Anton Popovič-ek (1976) asmatu zuen duela berrogei urte, eta «*the translation of an original work into another language by the author himself*» bezala definitu zuen, baina Julio C. Santoyok, Lucía Bertolinik eta Eva Gentesek osatu duten autoitzulpengintzari buruzko bibliografian<sup>71</sup> ikus daitekeenez, aurreko lan banaka batzuk kenduta, XXI. mendean atera dira gaiari buruzko lehen monografiak eta halako bibliografia ugariagoa. Gure esparruan, López Gaseni (2001, 2005), Manterola (2011, 2012, 2014a, 2014b) eta Cid (2015) aipa daitezke fenomeno hau aztertu duten euskal ikertzaileen artean.

Berez, literatura alorreko autoitzulpengintza fenomenoak ez da, zenbait teoriarik –haien artean Antoine Berman (1984) adibidez– esan duten bezain salbuespenezkoa, zeren, Santoyok (2005) ondo azaltzen duenez, garai guztietako eta leku askotako hainbat eta hainbat adibide baitaude literaturaren historian; hala eta guztiz ere, hizkuntza edo literatura-sistema handiagoetan autoitzulpenak egiteko motiboak ez dira izaten hizkuntza “txikien” kasuan, eta are gutxiago komunitate elebidun diglosikoetan, dituzten berberak, eta ezaugarriak ere desberdinak dituzte testuinguru batean eta bestean.

Hizkuntza “nagusien” kasuan, itzulpen alografoak izaten dira argitaratzen diren gehien-gehienak, baina badira idazle elebidun banaka batzuk arrazoi bategatik edo besteagatik beren lana beraiek zekiten eta literaturgintzarako

<sup>71</sup> *Bibliography Autotraduzione / autotraducción / self-translation* (XXV edition: 01-April-2016), edited by Eva Gentes (Heinrich-Heine-Universität Düsseldorf): [www.self-translation.blogspot.com](http://www.self-translation.blogspot.com)



erabil zezaketen beste hizkuntza batera itzultzea erabaki dutenak noizbait, hala nola Beckett, Borges, Calvino, Conrad, Dinesen, Joyce, Nabokov, Tagore edo Tabucchi<sup>72</sup>. Honelako autoreak, edo haietako asko behintzat –gaur egun askoz kasuistika zabalagoa topa baitaiteke autoitzultzaile diren literaturgileen artean–, beren sorterrria utzi eta beste herrialde edo hizkuntza-testuinguru batera joandakoak dira, herrialde hartzaileko hizkuntza literaturgintzarako adoptatutakoak eta beren jatorrizko hizkuntzan idatzitako lanak beren bigarren hizkuntzara itzultzen dituztenak; bestela esanda, SHak eta XHak, hots, autoitzultzaileak erabiltzen dituen bi literatura-hizkuntzek, normalean ez dute partekatzen eremu geografiko berbera eta, horregatik, euren arteko botere-harremanei dagokienez nagusita-sun/mendekotasun egoera asimetrikoan ez dauden hizkuntzak izaten dira, estatus sozial eta ospe sinboliko antzekoa izaten dute, eta, Calvet-en (1999) hitzetan esatearren, haien arteko transferentzia “horizontala” da.

Aldiz, hizkuntza txikien kasuan ere gertatzen den bezala, komunitate elebidun diglosikoetan, hizkuntzen arteko transferentzia “bertikala” da, ez da simetrikoa ez eta neutrala ere, SHa eta XHa ez direlako literatura-maila berean egoten, haietako bat kokapen hegemonikoan dagoelako eta bestea mendekotasun-egoeran; honelako testuinguruetan, bi hizkuntzek –eta, horren ondorioz, bi literaturek orobat–, estatus sozial eta ospe sinboliko desberdina dute, ez bakarrik ikuspuntu soziopolitikotik begiratuta, baina baita literariotik ere. Horrenbestez, haien arteko itzulpen-harremana diglosikoa da, eta funtzio desberdinak ditu itzulpen-norabidearen arabera: batetik, mendekotasun egoeran dauden hizkuntzek, Casanovak (1999) dioen bezala, “kapital literario” gutxiago izaten dute eta itzulpena –kapital literario gehiagoko hizkuntzetatik egindakoa bereziki– testu “unibertsaletatik” literatura-ondare eta -baliabideak beraganatzeko bide bat da<sup>73</sup>. Eta, bestetik, literatura-itzulpena hizkuntza horietatik hizkuntza hegemoniko edo nagusietara egiten denean, hizkuntza menderatu edo gutxituarentzat, itzulpena «*est, en réalité, l’accession à la littérature, l’obtention du certificat littéraire*» (1999: 201); literatura-hizkuntza handi batera itzulia izatea “literarizaziorako” atea da testu batentzat, esan nahi

<sup>72</sup> Autoitzulpen fenomenoaren bakantasuna hizpidera ekartzen zuten teorialariek nazioarteko literatura-kanoneko autoreak bakarrik aipatu ohi zituzten, Alexandra Kroh ikerlariak (2000) “aristocrats of bilingualism” deitzen dituen autoreak, hain zuzen.

<sup>73</sup> Ez alferrik du “Literatura Unibertsala” izena euskal erakundeen patrozinioarekin EIZIE elkarteak kudeatzen duen bildumak.

baita, literaturaren unibertsoan edo literaturaren merkatu unibertsalean sartzeko atea.

Hau, berez, hizkuntza edo literatura-sistema txiki guztietan gertatzen den fenomeno bada ere, testuinguru diglosikoetan, hizkuntza gutxituko idazleak – eta haien irakurleak– elebidunak izaten dira eta autore horiek zuzenean beste hizkuntza nagusira itzultzen dituzten lanen –auto-itzulpenen– kopurua, bai eta idazlearen eta beste itzultzaile baten arteko lankidetzan egindakoak diren itzulpenen kopurua ere, handia izaten da, Espainian euskaraz, galizieraz edo katalanez idazten duten autoreekin edo Erresuma Batuan gales eta eskozieraz idazten dutenekin gertatzen den bezala; kasu hauetan, idazle autoitzultzaileek, Manterolak (2014: 52) dioenez, «*irakurlego zabalagoa edota prestigioa lortze aldera*» itzultzen dute beren lana hizkuntza gutxitutik hizkuntza hegemonikora, edo, beharbada modu zehatzagoan esanda, idazle horietako askok, haien lan bat itzultzeko aukera daukatenean, nahiago izaten dute itzulpena beraiek egin zuzenean, beste itzultzaile bati utzi baino.

Beraz, autoitzulpenen ugaritasuna, Dasilvak (2009) dioen bezala, diglosia-sintoma bat izaten da, eta badira beste batzuk: autoitzulpenen opakotasuna, alegia, bertsioak beste hizkuntza batetik eginda daudela ezkutatzea; jatorrizko sorlana eta autoitzulpena –edo elkarlanean egindako itzulpena, erantsiko genuke guk, Atxagaren lanen bat gogoan dugularik<sup>74</sup>– ia aldi berean merkaturatzea; eta “norabidebakartasuna”, hots, autoitzulpenak normalean hizkuntza gutxitutik hizkuntza hegemonikora egiten direla, eta nekezago topatzen dela alderantzizko kasurik. Atxaga aipatu beharra daukagu hemen ere, egina baitu gaztelaniatik euskararako autoitzulpentzat har litekeen lan bat, Pamiela argitaletxeak 1996an gazteentzako bilduman ateratako *Sara izeneko gizona (Un espía llamado Sara)* liburua, hain zuzen, zeinen idazketa-prozesu konplexua nahiko zehatz azalduta baitago López Gasenik (2005) euskal HGLko autoitzulpengintzari eskainitako ikerlanean.

Testuinguru diglosikoetan, autoitzulpenak egiteko arrazoi –edo, beste ikuspegi batetik begiratuta, presio– ugari daude. Euskal idazleei dagokienez,

<sup>74</sup> Gure corpusean sartu dugun lana, *Zazpi etxe Frantzia*n hain zuzen, 2009an atera zen ia aldi berean euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz.

Manterolak (2014: 58-63) lau aipatzen ditu: gaztelaniazko literatura-sistema exogenoak euskal literaturarekiko duen interes falta; euskal idazleen elebitasuna; gaztelaniarako itzulpenak egiteko itzultzaile gabezia; eta arrazoi ekonomikoak. Gure irudiko, ordea, bigarren arrazoia ez da egiazko arrazoia, ezinbesteko baldintza baizik, zeren autoitzulpen bat egin ahal izateko nahitaezkoa baita idazleak bi hizkuntzak jakitea. Cid-ek (2015: 179), gure ustez, hobeto azaltzen du, esanez idazle elebidun horietako batzuek ez dutela hizkuntza gutxituan bakarrik idazten, baita beste hizkuntzan ere, eta horregatik nahiago izaten dutela gaztelaniazko bertsioa beraiek egin; gainera, autoitzulpenak egiteko beste hiru arrazoi gehiago aipatzen ditu: itzulpena egiteko denbora-premia handia (Espainiako Literatura Sari Nazionaleko hautagai zenbaiten kasuan, adibidez), ST eta XTaren argitalpen-dataren arteko denbora-tarte txikia (bi testuak zenbat eta denbora-tarte laburragoan egin, orduan eta emanago egon daiteke idazlea itzulpena berak egitera, eta alderantziz), eta beste itzultzaile batek egindako testuekiko identifikazio falta<sup>75</sup>. Azkenik, López Gasenik (2005: 44-46) literatura-sistema periferiko eta diglosikoetako idazleen "gutxiagotasun konplexuak" eragindako beste arrazoi interesgarri batzuk jasotzen ditu HGLko autoitzulpengintzari dagokionez: euskaraz gain, hizkuntza hegemonikoa ondo menderatzen dela erakutsi beharra; jatorrizko idazlana literarioki homologagarria ote den zalantzak eragindako berridazteko beharra; eta sorkuntza prozesuaren sorreran hizkuntza hegemonikoak izandako eragina ezkutatu beharra. Arrazoi psikologiko hauen kariaz, euskal idazle elebidunak ez du bere burua aurkitzen bere beste hizkuntzara norbaitek itzuli duen testuan, bere STaren eta beste itzultzailearen XTaren artean ikusi uste duen "distantzia erretorikoagatik"; López Gasenik berak dioen bezala, haien iritziz **«sarritan testuen hitzez hitzeko itzulpenak ez du funtzionatzen, ez du "korritzen", eta berridazketa eskatzen du, eta hori, definizioz, beste obra bat da jada, egileak beste inork idatz ezin dezakeena»** (Íbid, 45).

Manterolak aipatutako lehendabiziko arrazoiari dagokionez, gorago ikusi dugu gaztelaniazko XK exogenoak bultzatutako itzulpenen kopurua txikiagoa dela euskal XK endogenoaren ekimenez argitaratutakoena baino,

<sup>75</sup> Atxagak hauxe dio bere weborrian: «*El euskera (...) resulta una lengua bastante extraña. Es mejor que el salto de una a otra [lengua] lo haga el propio escritor. De lo contrario corre el riesgo de que no le suene a nada, que le resulte ajeno.*».

lehendabizikoaren interesa autore bakan batzuetara mugatuta dagoela eta euskal idazle gehienek itzulpen endogenoak baino ezin izaten dituztela argitaratu. Gure ustez, Manterolak aipatzen duen laugarren arrazoia, arrazoi ekonomikoa, azken kasu hauei dagokie batik bat, sorburu-sistemako argitaletxeen itzulpenek zabalkunde txikiagoa eta mugatua izaten baitute, eta, autoitzulpenei esker, seguru aski, itzulpen-gastuak murriztea lortzen baitute argitaletxe horiek; aldiz, XK exogenoak bultzatuta itzuliak diren euskal idazleen kasuan beste motiboek izan dezakete pisu handiagoa, gure iritziz: batetik, egia da Manterolak aipatzen duen hirugarren arrazoia, jarduera oso berria izanik oso gutxi direla euskaratik gaztelaniara itzultzeko gaitasun egokia duten itzultzaileak; baina bada Manterolak berak aipatzen duen beste zerbait, idazleek beren XTa "kontrolatzeko" sentitzen duten beharra alegia, gure ustez arrazoirik indartsuena dena, haietako askok hainbat aldiz adierazi duten bezala.

Manterolak berak eta Cid-ek jaso dituzte honelako hautua egin duten hainbat euskal idazleren adierazpenak –bai eta katalan batzuenak ere–: Jon Alonso, Unai Elorriaga, Harkaitz Cano, Iban Zaldua edo Bernardo Atxaga, tartean; Cid-ek, bestalde, artikulu berean, euskal literaturaren historiako idazle desberdinak hiru multzotan sailkatu izan ditu: autoitzulpena sistematikoki egin dutenak; autoitzulpen banakaren bat egin dutenak; eta autoitzulpenik egiten ez dutenak; eta lehenengoa da multzorik handiena: haren arabera, «*en las traducciones al español, la autotraducción representa un porcentaje nada desdeñable: más de la tercera parte*» (Íbid, 179).

Atal hau bukatzearen, gure iritziz autoitzulpenak egiteko dagoen beste arrazoi bat erantsi nahiko genieke aurreko ikertzaileek seinlatu dituztenei, ezbairik gabe idazle gutxiri dagokiena baina, gure ustez, indar nabarmena duena: beren idazlanak atzerriko beste hizkuntzaren batera itzuliak izateko aukera duten idazleek badakite beste hizkuntzetarako itzulpena beren gaztelaniazko bertsiotik egingo dela kasu gehientsuenetan –oso urriak baitira oraindik zuzenean euskaratik egiten direnak<sup>76</sup>–, eta lehen bertsio horren homologagarritasuna ziurtatu nahi izaten dute ahalik eta gehien.

<sup>76</sup> Berez, oso gutxi dira beste hizkuntza batzuetarako bertsioak zuzenean euskaratik egin ditzaketen itzultzaileak, euskara dakiten poliglota gutxi daudelako; hain zuzen, gabezia horretaz ohartuta, jarri dute abian euskal erakundeek (Donostia 2016 Fundazioak eta Etxepare Institutuak, EIZIE elkarrearen

### 3.2.1.1. Autoitzulpen opakoak eta gardenak

Manuel Dasilvari (2011) jarraituz, autoitzulpenek eragin berezia izaten dute xede-kulturan, batez ere hizkuntza asimetrikoetan –eta, bereziki, Espainiako hizkuntza gutxituetan– idazten duten literaturgileen kasuan: askotan, testu itzuli horiek jatorrizko sorlantzat hartzen dira XSn, testu itzulitzat baino areago. Itzulpentzat hartuak izan daitezzen, peritestuek edo informazio paratestualek ikusgarriro jakinarazi behar diote hartzaileari beste hizkuntza batean idatzi eta idazleak berak itzuli duen testu baten aurrean dagoela; halako kasuetarako, Dasilvak “autoitzulpen gardenak” deitura erabiltzen du. Sarrutan gertatzen da, ordea, idazle autoitzultzaileek egindako itzulpenek ez daukatela haien egiazko izaera aitortzen duen inolako informaziorik, eta kasu horretan irakurleak jatorrizko lana balitz bezala hartuko du autoitzulpena; Dasilvak “autoitzulpen opakoak” deitzen die mota honetakoei.

Autoitzulpen opakoak nahitakoak eta nahigabekoak izan daitezke ikertzaile horren arabera, baina gehienak nahitakoak izaten dira, dela idazlearen borondatez, dela argialetxearen erabakiz, hau da, batak edo/eta besteak nahiago dutelako jatorrizko lanari buruzko inolako aipamenik ez egitea. Gerta daiteke, orobat, paratesturen batean autoitzulpentzat emandako testu bat egiazki itzulpen alografoa edo lankidetzan eginga izatea, paratestuak beti ez baitira fidagarriak izaten, argialetxeen politika editorialari eta merkatu-interesei erantzuten diote eta.

Autoitzulpen mota bi hauen arteko bereizketak ez dauka interes taxonomiko soila: izan ere, oso interesgarria da ikustea halako idazle batek zergatik egiten duen bere lan baten bertsioa, itzulpena dela argi eta garbi aitortu edo adierazi gabe. Kontu hau garrantzitsua da ondorio nabarmenak dituelako xede-kulturak –XR exogenoak batez ere– testu horiei ematen dien harreran, jatorrizko lantzat hartuko baitu, eta, Dasilvak dioenez, horretarako joera handia dago gaur egun, Galiziako esparru geografikoari dagokionez, baina ez bakarrik:

---

lankidetzarekin) *Itzultzaile berriak* izeneko programa, euskal literatura gaztelania ez beste hizkuntza batzuetara itzuli ahalko duten profesionalak prestatzeko.

Una acusada tendencia en la actualidad, a la vista de lo que se observa en las estanterías de nuestras librerías, estriba en excluir cualquier indicio que obstaculice lucir como original lo que es una autotraducción. Antes era más común anunciar que el producto autotraducido emanaba de un texto redactado por el autor primeramente en otra lengua (íbid, 174).

Euskararen esparruan ere badago horrelako kasuren bat edo beste: gure corpusean bildu ditugun idazleen kasuetara mugatuz, Atxagaren lan batzuk itzulpenari buruzko inolako adierazpenik egin gabe argitaratu dira, edizio batzuetan behintzat, guk geuk gutxienez kasu batean egiaztatu ahal izan dugun bezala: Ediciones B argitaletxe bartzelonarrak 1996an ateratako *Esos cielos (Zeru horiek)* eleberriaren edizio batean<sup>77</sup>, hain zuzen ere. Bestetik, Iban Zalduak berak gaztelaniaratu eta Lengua de Trapo argitaletxe madrildarrak ateratako *Mentiras, mentiras, mentiras (Gezurrak, gezurrak, gezurrak)* liburuan, kontrazaleko paratestuan bakarrik ematen da aditzera lehenago euskaraz idatzitako liburu baten itzulpena dela, kreditu-orrian ez itzultzailearen ez jatorrizko izenburuaren berririk eman gabe, nahiz beste hizkuntza batzuetatik egindakoak diren itzulpenen kasuan azalean bertan ipintzen duten itzultzailearen erreferentzia; gainera, liburua argitaletxe horren Nueva Biblioteca bilduman argitaratuta dago, eta ez Otras lenguas bilduman, alegia, munduko beste literatura-hizkuntzetan egindako lanen artean; horri dagokionez, oso esanguratsua iruditzen zaigu bilduma horren bidez argitaletxearen weborrian<sup>78</sup> literatura hispanikoaren esparruan sartzen dutela Zaldúa inplizituki; izan ere, bilduma bakoitzaren helburua azaltzen duten testuen arabera, Nueva Biblioteca bilduma «*se ha convertido en una vía de comunicación sumamente fluida entre los nuevos narradores de la literatura en español y los lectores de cualquier edad o país. (...) Su espacio natural es el mundo hispánico al que Lengua de Trapo considera un solo ámbito cultural*»; Otras Lenguas bildumaz, berriz, hauxe diote: «*Con esta colección pretendemos presentar a los lectores lo más destacado de la literatura contemporánea mundial*».

Gauzak horrela, hizkuntza asimetrikoen kasuan, hizkuntza gutxikutik hizkuntza hegemonikora egiten diren autoitzulpenak opakoak direnean,

<sup>77</sup> Beste adibide bat ere aurkitu dugu, baina elkarlanean egindako autoitzulpen baten kasuan: Atxagak eta Arantxa Sabánek itzuli eta Círculo de Lectores argitaletxeak 1994an plazaratutako *El hombre solo (Gizona bere bakardadean)* eleberriaren edizioa.

<sup>78</sup> www.lenguadetrapo.com [Kontsulta data: 2016-06-14]

lausoturik bezala geratzen da itzulpen-produktuaren jatorrizko nortasun linguistiko eta kulturala, eta, ondorioz, baita idazlearena berarena ere; Espainiako literatura-sistemaren kasuan, hizkuntza gutxituetako idazleek badute aukerarik, hala ere, hartzaileen aurrean beren nortasun hori argi uzteko; baina gaztelaniazko autoitzulpen opako baten bidez beste hizkuntzaren batera itzuliak direnean, kanpoko hartzaile horientzat erabateko edo ia erabateko itzalpean geratuko dira jatorrizko hizkuntza eta kultura, edo zubi-hizkuntzaren nortasunarekin berdinduta, hizkuntza hegemoniko horren nagusitasuna areago indartuz; izan ere, Casanovak dioen bezala, hizkuntza nagusiarentzat «*la translation linguistique et littéraire est une façon d'annexer, de détourner des oeuvres au profit des ressources centrales*» (1999: 201).

Bestalde, gerta daiteke, halaber, idazleak bere autoitzulpenean aldaketa edo manipulazio testualak egitea, ez bakarrik estilistikoak edo linguistikoak, hots, testu-zatiak kentzea, eranstea edota lekuz aldatzea; eta gaztelaniazko bertsio hori erabiltzen bada beste hizkuntzetarako itzulpena egiteko, gaztelaniazko bertsio hori izango da nazioarte mailan nolabait kanonikoa izango dena, jatorrizko lana erabat eklipsatuz.

### 3.2.2. Itzulpen alografoak eta lankidetzan egindako itzulpenak

Dena dela, autoitzulpena idazleak egiten duen aukera bat da, eta, gure esparruari gagozkiolarik, badira beste autore batzuk beren lanak ez autoitzultzea erabaki dutenak, batzuetan sistematikoki edo, sarritan, autoitzultzeko esperientziaren batetik igaro ondoren; kasu hauetan, itzulpen alografoekin eta idazlearen eta itzultzailearen arteko lankidetzan egindako itzulpenekin topatuko gara. Lehendabizikoak jatorrizko STaren egilearen partehartzerik gabe egindako itzulpenak baldin badira, seguru aski esan beharko dugu gaur egun nekez topatuko garela, euskal literatura moderno itzulian behintzat<sup>79</sup>, itzulpen alografo huts-hutsekin, zeren, gure literatura-sistema oso txikia izanik, ia ezinezkoa izaten baita itzultzaileak eta idazleak harremanik ez edukitzea eta, beraz, idazlearen neurri bateko edo besteko

<sup>79</sup> Baina baita beste edozein hizkuntza-bikotetan ere, gaur egun komunikazio globalerako dauden erraztasunei esker.

kolaboraziorik ez egotea itzulpen-prozesuan, dela itzulpen-zalantzak argitzen laguntzeko, dela testu itzuliari "azken begirada" emateko.

Honelako kasuetan, jatorrizko idazlearen interferentziak eragin positiboa izan dezake itzultzailearen lanean, lagundu baitiezaioke itzulpen ustez hobe egiten, baina, era berean, XTaren gaineko kontrola murriztu ere egiten dio; beste era batera esanda, itzulpen-prozesuan zehar hartu diren erabakiak ez dira beti itzultzailearenak izango, edo ez diote beti itzulpengintzaren logikari erantzungo sorkuntzaren logikari baizik eta, ondorioz, ST eta XTaren arteko baliokidetasun eta transferentziak aztertu nahi dituen ikertzailearentzat ez da erraza izango halako itzulpen-jokamolde jakin baten atzean egiatan nor egon den zehaztea; eta horrek, kapitulu honetako 3.3. puntuan ikusiko dugun bezala, berebiziko garrantzia du halako itzulpen baten *initial norm* edo "hasierako araua" eta *operational norms* edo "jarduera-arauak" finkatzeko orduan, arau horiek normalean desberdinak izaten baitira itzulpen alografoetan eta bestelakoetan, praktikan behintzat. Honelako kasuetarako, idazleek eta itzultzaileek liburu bakoitzaren itzulpen-prozesuari buruz egin eta nonbait jasota dauden adierazpenak erabili beharko ditu ikertzaileak –edo haiekiko zuzeneko kontaktua, posiblea denean– itzulpenaren tipologia ahalik eta zorrotzen zehazteko.

Bestalde, jatorrizko egilearen eta beste itzultzailearen arteko lankidetzaren neurri eta gradua zehaztea ere oso zaila izaten da, baita lankidetzari hori XTko paratestuetan –azalean edo kontrazalean bertan, edo barruko kredituetan edo eskertzetan– aitortuta dagoenean ere, zeren, noski, gerta baitaiteke horrelako aitortzeak ez egotea ere inon eta, beraz, egiatan lankidetzan egin den itzulpen bat autoitzulpen (garden) gisa edo, halaber, jatorrizko gisa agertzea (nahiz autoitzulpen opakoa izan). Izan ere, idazleak itzulpenean duen interferentzia-gradua oso desberdina izan daiteke: lankidetzari mailarik txikienean, idazleak zenbait zalantza argitzen lagun diezaioke itzultzaileari, eta kasu horretan, hala ere, itzulpen alografo baten aurrean gaudela esan ahal izango dugu oraindik; lankidetzari mailarik handienean, berriz, idazlea itzultzailearen bertsioan oinarritu daiteke, zirrorro modura erabiliz, bere lana berridazteko. Lankidetzari mota hau autoitzulpenentzat har liteke ondorio guztiekin, baina paratestuetan itzulpena



elkarlantzat ematen bada, ikertzaileak zail samarra izango du bertsio hori sail horretan ez sartzea. Bi muturren artean, hainbat lankidetzat-gradu egon daitezke; Manterolak dioen bezala, «*Kolaborazio mailaketa zabal horrek 'continuum' bat irudikatuko luke, hortaz: mutur batean autoitzulpena izango genuke eta beste muturrean itzulpen alografoa. Tartean, berriz, itzultzailea eta idazlearen elkarlanaren mailaketa osoa, elkarlan puntualetatik hasi, eskuz esku jardutetik pasa eta idazleak lanaren pisu handiena hartzeraino*» (2014: 70).

Euskal literatura itzuliaren alorrean, itzulpen-tipologia hau nahiko sarritan topatzen dela esan behar da; Manterolak berak dio bere katalogoan 34 kasu zenbatu dituela (Íbid., 68), eta Lertxundi eta Atxagaren lan batzuen kasuak eta horiei buruzko adierazpenak jasotzen ditu.

### 3.3. Itzulpen-tipologia eta itzulpen-arauak

Tesi honen ikuspegitik begiratuta, badago itzulpen-tipologiari loturiko puntu bat bereziki interesatzen zaiguna: tipologia desberdinen eta itzulpen-arauen arteko harremana, hain zuzen. Izan ere, esan dugun moduan, Touryren eskemaren arabera itzulpena gobernatzen duten arauen arteko "hasierako araua" eta itzultzailearen "jarduera-arauak" desberdinak izan daitezke –eta, askotan, izaten dira– tipologia desberdinetan.

Hasierako arauak, 1. kapituluko 1.3.2.1. atalean ikusi dugun bezala, argitu egiten du halako itzulpen batek SHko eta sorburu-sistemako arau eta usadioei men egiten dien ala, alderantziz, XHn eta XSn ohikoak diren arauari egiten dien; lehen kasuan, STaren formari leialtasuna erakusten dio itzultzaileak, jatorrizko osagai estilistiko eta kulturalari eta tonuari eutsiz eta mezuaren eduki eta forma errespetatuz; Touryren terminologia erabiliz, *source-oriented translations* diren itzulpen horiek jatorrizko sistemarekiko "egokitasuna" (*adequacy*) bilatzen dutela esaten da; Ladmiralet 1983an asmatu zuen *traduction sourcière* kontzeptuan sartzen diren itzulpenak dira. Bigarren kasuan, berriz, itzultzaileak jatorrizko testuko osagai estilistiko eta formal batzuk aldatu egiten ditu, edo haren elementu kultural batzuk beste baliokide batzuen bidez ordezkatzeko dituzte XRko eta XSk hartzaileentzat ezagunagoak edo ohikoagoak direlako; itzultzaileak XHn "naturalak" diren irtenbide edo baliabideak hobesten ditu.

Touryren terminologian, itzulpen hauek *target-oriented translations* izaten dira eta sistema hartzailearekiko "onargarritasuna" (*acceptability*) bilatzen dute; Ladmiralek *traduction cibliste* deitzen die mota honetako itzulpenei.

Hala, bada, itzulpen batek duen hasierako araua zehaztearren, itzultzaileak zernolako jarduera-arauak betetzen dituen aztertu behar da: hots, ikusi behar da nolakoak diren itzulpen-prozesuan zehar hartzen dituen erabakiak eta material linguistikoa nola banatuta eta gauzatuta dagoen testuaren barruan, ea gehiketarik, ezabaketarik edo bestelako manipulaziorik badagoen, eta, orobat, XTan erabiltzen dituen baliabide linguistiko eta literarioak aztertu eta jatorrizkoarekin erkatu behar dira, zein joera nagusitzen den argitzeko.

Kontua da ezen, STaren egileek itzulpenean partehartze esanguratsuren bat dutenean, bereziki lankidetzan egindako itzulpenetan eta, batez ere, haiek egindako autoitzulpenetan, joera izaten dutela –ez beti, baina bai kasu askotan– itzulpen alografoetan gaur egun onargarriak izaten ez diren aldaketa eta manipulazioak egiteko; yiddishetik hebreerara egindako literatura-itzulpenak aztertu dituen Menakhem Perry ikertzaile israeldarraren hitzetan, «*Since the writer himself is the translator, he can allow himself bold shifts from the source text which, had it been done by another translator, probably would not have passed as an adequate translation*» (1981: 181). Manipulazio horiek era guztietako aldaketa linguistiko edo estilistikoak izan daitezke, hala lexiko nola sintaxi mailakoak, bai eta aldaketa testualak ere.

Aldaketa horietako batzuk itzulpenean inplikaturako bi sistemen arteko desberdintasunen ondorioz izan daitezke, XSarekiko onargarritasuna indartzearren, baina baita idazleak abiatutako berridaz-keta- edo birsorkuntza-dinamikaren ondorioz ere. Kasu hauetan, jatorriz-koaren eta (auto)itzulpenaren arteko bereizketa lausotu edo bertan behera gera daiteke, estatus paretsuko bi aldaera edo bertsio desberdin sortzeraino. Hau bereziki gertatzen da Rainer Grutmanek (2009) bereizten duen "*simultaneous self-translation*" delakoaren kasuetan, hots, sorkuntza-lana eta itzulpen-lana aldi berean egiten dituzten idazleen kasuan. Francesc Parcerisas idazle eta itzultzaile katalanak deskribatzen du honelako autoitzulpenen prozesua, autoitzultzaile mota

desberdinak bereizten dituenen: «*Y todavía podríamos especular con un cuarto grupo, menos habitual, de autotraductores, que hace de la autotraducción un verdadero banco de pruebas para la elaboración de su obra: original y traducción se escriben, en este caso, en paralelo, se complementan y modifican, al extremo de identificar mal si fue primero el huevo o la gallina*» (2002: 14). Edo, Helena Tanqueirok Antoni Mari idazle katalanaren autoitzulpenei buruzko azterketa batean dioena gerta daiteke: alegia, jatorrizko lana eta autoitzulpena «*son tratadas como si fueran escritas originalmente en cada una de las lenguas, como si no se hubiese efectuado una traducción*» (1999: 23). Bide batez esanda, antzeko gauza uste dugu esan daitekeela idazlearen eta beste itzultzailearen arteko lankidetzan egindako itzulpen batzuen kasuan behintzat; seguru aski neurri handian horixe gertatzen da, euskal literaturaren esparruan, Atxagaren azken lan batzuen kasuan, berak eta Asun Garikanok izenpetutako itzulpenetan; Bego Montoriok jaso du honen berri: «*Hori planteatzen zuen Atxagak 'Gizona bere bakardadean' liburuarekin, ez? Uste dut esaten zuela horrela lan egiteko asmoa zuela, hau da, euskaraz idatzi ahala itzultzea, eta gainera horrek laguntzen ziola euskarazkoan pixka bat hutsalak ziren edo funtzionatzen ez zuten pasarteak konpontzen*» (2007: 72).

López Gasenik (2005) aztertua du euskal HGL alorreko autoitzulpena, eta gure tesiaren ikuspegitik bereziki interesgarria da beren lanak itzultzen dituzten euskal idazleen itzulpen-estrategiei buruz dioena. Hasteko, garbi uzten du idazle guztiek ez dituztela goian deskribatutakoak bezalako manipulazioak egiten, ez kasu guztietan gutxienez, eta batzuetan sorburu-sisteman nagusi diren arauen aldera makurtzen direla haiek ere (*source-oriented translations*), bere ustez Mariasun Landaren *Cuadernos secretos* izeneko idazlanean gertatzen den bezala, zeinean bere iritziz itzulpena kaltetzen duten kalko sintaktiko eta lexikoak ere topatu baititu<sup>80</sup>. Baina idazle beraren beste autoitzulpen batzuetan, oreka handiagoa aurkitzen du egokitzapenaren eta onargarritasunaren artean, eta, beste euskal idazleen autoitzulpenen kasuan, XSaren onargarritasunaren aldeko itzulpen-jarduera are nabarmenagoak aurkitzen ditu (*target-oriented translations*). XSra orientatutako autoitzulpen hauetan, bi maila desberdineko estrategiak topatu ditu:

<sup>80</sup> Aip. lib., 58. orr.

1) Maila testualean:

- Gehikuntzak: azalpenezkoak, STtik XTra pasatzean garbi gera ez daitekeen osagai narratibo bat argitzeko; edo estilistikoak, XTari forma ustez egokiagoa emateko. Hitz, esaldi edo paragrafo mailakoak izan daitezke<sup>81</sup>.
- Kenketak: ustez XTko hartzaileek ulertuko ez duten STko osagairen bat dagoenean, baina baita arrazoi estetiko hutsengatik edo "autozentsura" arrazoiengatik egindakoak ere. Hauek ere hitz, esaldi edo paragrafo mailakoak izan daitezke<sup>82</sup>.

2) Maila linguistikoan:

- Egokitzapenak: hizkuntzari nahiz kulturari dagokienez, STko osagai baten lekuan, XTan ustez hobeto funtzionatzen duen beste osagai bat sartzea.
- Erregistro-aldaketak: gehienetan, STan baino erregistro jasoagoa erabiltzea.
- Aldaketa lexikalak: lexiko adierazkor edo zehatzagoa sartzea.
- Aldaketa sintaktikoak: STan baino periodo luze edo konplexuagoak erabiltzea.

Azken hauei dagokienez, López Gasenik espreski aipatzen du egitura erlatiboen erabilera STko joskera sinpleagoen ordez: «**Gaztelaniaren erretorika euskararena baino jasoagoa eta konplexutasun sintaktiko handiagokoa izan ohi da. Konkretuki, euskarak ez ditu erraz onartzen egitura sintaktiko batzuk, hala nola erlatibozkoa**» (Íbid., 78); ez gaude ados, ordea, euskarari leporatzen dion ezintasun edo zailtasun horrekin, zeren, aurreko kapituluetan esan dugunez, gure ustez, zailtasun hori ez baita inola ere tipologikoa, aurreko aipuan ia iradokitzen den bezala, ideologia linguistiko garbizalearen

---

<sup>81</sup> Baina baita handiagoak ere: C<sub>10</sub> azpicorpusaren kasuan ikusiko dugunez, gerta daiteke atal berri osoren bat ere sartzea; edo, C<sub>8</sub> azpicorpusean bezala, atal-zati handi bat.

<sup>82</sup> López Gasenik aipatzen ez duen beste aldaketa testual bat ere egon daiteke: testuko pasarte batzuk kokapen desberdinetan egotea, C<sub>10</sub> azpicorpusean gertatzen den bezala.

ondoriozkoa baizik. Hona hemen autoreak eskaintzen duen adibide bat, zeinean hain zuzen ere PEE bat erabiltzen baita bestelako egitura baten lekuan:

Nire aita ere ahozabalik geratu da, <b>nahiz ez izan oso liburuzalea.</b>	Hasta mi padre, <b>que pasa de estas cosas</b> , se ha quedado con la boca abierta. <sup>83</sup>
---	---

Gainera, beste adibide batzuetan, parafrasi erlatibo horiek bestelako aldaketa eta gehikuntza edo aldaketa batzuekin batera agertzen dira, ondoko kasuetan bezala:

Hau entzutean, <b>Mikelek barre handia egin zuen.</b>	Al oírme decir esto, Mikel, <b>que había seguido atentamente mi narración de los hechos</b> , se echó a reír. <sup>84</sup>
(...) ez baitzitzaidan ahazten lehenagoko nobio bat izan zuela, ETako militantea gainera, <b>eta haren faltan bizi zela Irene gaixoa.</b>	(...) ya que no se me olvidaba que alguna vez tuvo un novio, alguien metido en política, <b>alguien al que habían asesinado y al que ella no podía olvidar.</b> <sup>85</sup>

Itzulpen hauetako parafrasi erlatibo honi gagozkiolarik, interesgarria da ikustea López Gasenik (2000, 2001, 2005) diametrikoki kontrakoa den fenomeno aipatzen duela gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenetan eta autoitzulpenen kasuetarako, hots, gaztelaniazko STetako erlatiboazko esaldiak sinplifikatzeko estrategia, edo baita ezabatzekoa ere. Estrategia bikoitz horren bultzagarria, gure hipotesiaren arabera, norabide bateko zein besteko itzulpen eta autoitzulpenetan nagusitzen den onargarritasun-joera da, zeina gauzatzen baita, erlatibakuntzari dagokionez, XTak hizkuntza-sistema baten eta bestearen gaur egungo kanon sintaktiko-estilistikoari egokitzuz, hots, gaztelaniatik euskararako itzulpenetan konplexutasun gutxiagoko sintaxia hobetsiz, eta, euskaratik gaztelaniarako norabidean, joskera konplexuagoa erabiliz.

Gure tesiaren helburuari begira, egin nahi dugun ikerketarako osatu ditugun azpicorpus desberdinak 4. kapituluan deskribatzen ditugunean ikusiko dugu zein itzulpen-tipologia aurkitzen dugun hautatu ditugun gaztelaniazko

<sup>83</sup> Juan Kruz Igerabide: *Bota ura! (Nire terrazatik)*, Barcelona: Edebé, 1997, 61. orr. / *¡Agua va! (Desde mi terraza)*, Barcelona: Edebé, 1997, 61. orr.

<sup>84</sup> Mariasun Landa: *Alex*, Donostia: Erein, 33. orr. / *Cuadernos secretos*, Barcelona: Edebé, 31. orr.

<sup>85</sup> Mariasun Landa: *Nire eskua zurean*, Donostia: Erein, 41. orr. / *Mi mano en la tuya*, Madrid: Alfaguara, 49. orr.

testuetan eta, ST eta XTetan erabiltzen den sintaxiaren azterketa estilistiko konparatuaren bitartez, espreski aztertu nahi dugu ea euskaratik gaztelaniara egindako autoitzulpenetan bakarrik topatzen ditugun deskribatu ditugunak bezalako jarduera-arau eta itzulpen-estrategiak edo gainontzeko tipologietan ere aurki daitezkeen, eta, beraz, ea egiaztatzen den hizkuntza bakoitzaren kanon sintaktiko-estilistikorako egokitzapenari buruz goiko paragrafoan adierazi dugun hipotesia.

#### **4. KAPITULUA:**

### **EUSKARA-GAZTELANIA LITERATURA-ITZULPENEN CORPUSA**

#### **4.1. Literatura-itzulpenen katalogoa eta corpusaren osakera**

##### **4.1.1. Euskara-gaztelania literatura-itzulpenen katalogotik corpusera**

Gaztelaniaren eta euskararen erlatibakuntza-sistemen arteko desberdintasunetan oinarrituta halako literatura-testu hautatu batzuen eta haien itzulpenen estilistika konparatua egitea izanik tesi honen helburua, eta gure azterketaren iker-eremua euskaratik gaztelaniara egindako itzulpenak izango zirela erabaki ondoren, lehen eginkizuna corpusgintza-metodologian erabiltzen direnak bezalako katalogo bat osatzea zen, hizkuntza-bikote honekin eta norabide horretan egindako itzulpenekin osatu ere; bada, hasieratik garbi iruditu zitzaigun literatura izan zitekeela helburu horri errazen ekitea ahalbidetuko zigun alorra, badirelako hainbat euskal literatura-lan azken lau hamarkadotan gaztelaniara (eta, bidenabar esanda, beste hizkuntza askotara ere) isuri direnak, aurkitzen errazak eta corpus koherente bat egiteko aukera eskaintzen zutenak gainera. Aztertuko genituen testuen izaera areago mugatzearren, euskaratik gaztelaniaratutako helduentzako narratiba hautatu genuen, Cid-ek<sup>86</sup>, Aiora Jakak<sup>87</sup> eta Mari Jose Olaziregik<sup>88</sup> eginiko zerrendak iturritzat hartuz. Horiez gain, UPV-EHUko Euskara Institutuaren Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI), Sancho el Sabio Fundazioaren eta Cervantes Institutuaren datu-baseak eta Espainiako Hezkuntza, Kultura eta

---

<sup>86</sup> Ikus 58. oharra.

<sup>87</sup> JAKA, Aiora. "Euskaratik ingelesera, frantsesera, alemanera eta gaztelaniara itzulitako liburuen zerrenda (haur eta gazte literatura izan ezik)" [On line. Kontsulta data: 2015-12-03. Euskal Literaturaren Ataria, basqueliterature.com.

<http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/Euskaratik/euskaratikb>

<sup>88</sup> OLAZIREGI; Mari Jose. "Beste hizkuntzetara itzulitako euskal literatur lanak" [On line. Kontsulta data: 2016-01-13. Euskal Literaturaren Ataria, basqueliterature.com.

<http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/Euskaratik/euskaratikMJ.pdf>

Kirol Ministerioak on line argitaratzen duen ISBN edo *Espanian argitaratutako liburuen datu-basea* delakoa ere erabili ditugu, datuak kontrastatu, egiaztatu eta osatzeko.

Azkenik, beste mugapen bat ere ezarri diogu osatu nahi genuen katalogoari, nahi genuelako Espainiako literatura-sistema zentrala edo gaztelaniazko XK exogenoa deitu dugunaren barruan argitara emandako itzulpen garaikideak izatea katalogo hori osatuko zutenak, edo, bestela esanda, Euskal Herriatik kanpoko argitaletxe espainiarrek azken hiru hamarkadotan editatutako lanak izatea; hala izanda, iruditzen zitzaigun garbi geratzen zela itzulpen horiek gaztelaniazko literatura-sistemak ustez erabiltzen dituen onargarritasun-irizpideak betetzen zituztela argitaratuak izateko.

Izan ere, kontuan izan beharra dago, 3. kapituluan ikusi dugun bezala, Euskal Herrian, urteen poderioz, gorpuzten hasita dagoela, tradizionalki euskarazko literatura plazaratzen duten euskal argitaletxeen bitartez, gaztelaniazko literatura-azpisistema (azpisistema, bai Espainiako sistema zentralarekiko, eta baita Euskal Herriko euskarazko literatura-sistemarekiko<sup>89</sup> ere), euskarazko literatura itzultzen duena, nagusiki Euskal Herri barruko irakurlego erdaldunarentzat. Fenomeno hau gero eta indar handiagoa ari da hartzen XXI. mende hasieratik, ziur aski euskal erakundeen patrozinioaren abaroan, eta haren eraginez gertatzen ari da duela urte batzuk beren euskarazko lanen gaztelaniazko itzulpenak Espainiako argitaletxeetan plazaratzen zituzten hainbat autore euskal editorialetan ari direla argitaratzen orain gaztelaniazko bertsioak. Saizarbitoria edo Urretabizkaiaren kasua da, adibidez, baina ez soilik. Bestalde, badira hainbat euskal idazle Euskal Herriko argitaletxeetan bakarrik argitaratzen dituztenak beren liburuen itzulpenak, esate baterako Pako Aristi, Joan Mari Irigoien, Karmele Jaio edo Lurdes Oñederra, besteak beste.

<sup>89</sup> Azpisistema izaera duela diogu euskarazko literaturaren sistemak ekoiztutako lanak itzultzen dituelako nagusiki; egia esanda, gaztelaniazko azpisistema endogeno horren barruan, badira argitaletxe batzuk ia beti gaztelaniaz soilik argitaratzen dutenak, eta salbuespeneko kasu batzuetan baino ez dituztenak argitaratzen euskarazko idazleen lanen itzulpenak; jada desagertuta dagoen Bassarai argitaletxeak gaztelaniazko euskal idazleek idatzitako liburuak argitaratzen zituen, adibidez, baina euskaraz egindako liburu banaka batzuen itzulpenak ere atera zituen, poema-liburuak batez ere, baina baita narratibako lan pare bat ere. Bestalde, beste argitaletxe batzuk, Pamiela, Hiru, Erein eta beste batzuk adibidez, "elebidun"tzat jo daitezke, gaztelaniazko eta euskarazko lanak ateratzen dituztelako, bai eta euskarazko idazle batzuen gaztelaniazko itzulpenak ere.



Bada, esan bezala, euskal argitaletxeek plazaraturiko itzulpenak ez ditugu sartu nahi izan gure katalogoan, ez ordea XKren literatura-sistema zentraleko argitaletxeek baino irizpide editorial malguagoak edo, besterik gabe, desberdinak erabiltzen dituztelakoan, edo itzulpen horiek gaztelaniazko literatura-sistemaren altzoan jasotzeko onargarritasun-irizpide bigunagoak onartzen dituztelakoan edota zabalkunde txikiagoa dutelakoan, baizik eta euskal argitaletxeen itzulpenak azpisistema batean (bai Euskal Herri barruko literatura-sisteman, bai eta Espainiakoan ere, non azpisistema periferiko moduko bat baita) kokatuko genituzkeelako, eta, gorago esan dugun moduan, nahiago genuelako literatura-sistema zentral edo exogeno horrek berak bere ohiko irizpide editorial, kanon linguistiko, zuzentze-protokolo, onargarritasun-irizpide eta abarrekin bultzatutako itzulpenak izatea tesi honetarako katalogoa eta corpusa osatuko zutenak.

Irizpide horren arabera, gorago aipatutako iturrietan aurkitu ditugun eta esandako baldintzak betetzen dituzten literatura-lan narratibo guztiak bildu ditugu esandako katalogoan, eta, hala, 22 euskal idazleren zerrenda osatu dugu, 46 itzulpenekin<sup>90</sup>.

Ordea, kopuru horiek gure azterketarako handiegizat jota, bigarren irizpide mugatzaile bat ere erabili dugu katalogo horretatik aterako genuen corpusa osatzerakoan; batetik, gaztelaniazko literatura-sistema zentralaren onargarritasun-irizpideei egokitutako itzulpenak direla areago segurtatzeko, eta, bestetik, corpus maneigarriago bat lortze aldera: alegia, Espainiako literatura-sistema zentral horren barruko argitaletxeren batean gutxienez bi narrazio-liburu itzuliak dauzkaten autoreak nahi genituen soilik tesian erabiliko genuen corpuserako. Baldintza horrek ziurtasun handiagoz adieraziko luke, gure ustez, delako autore baten lana homologagarritzat jotzen dela literatura-sistema horretan, honek bere baitan hartzen dituen beste itzulpenekiko.

Era horretan, baldintza horiek betetzen dituzten hamar autore topatu ditugu, eta haien obra banarekin osatu dugu tesi honetarako erabili dugun hasierako corpus edo C<sub>0</sub> delakoa:

---

<sup>90</sup> Ikus 2. eranskina.

<b>Egilea</b>	<b>Liburua</b>	<b>Argitalpen urtea</b>	<b>Itzulpen urtea</b>
Mario Onaindia	<i>Gillen Garateako batxillerra</i>	1984	1985
Arantxa Urretabizkaia	<i>Saturno</i>	1987	1989
Ramon Saizarbitoria	<i>Hamaika pauso</i>	1995	1998
Anjel Lertxundi	<i>Azkenaz beste</i>	1996	1999
Unai Elorriaga	<i>SPrako tranbia</i>	2001	2003
Iban Zaldúa	<i>Etorrizuna</i>	2005	2007
Eider Rodríguez	<i>Haragia</i>	2007	2008
Kirmen Uribe	<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>	2008	2010
Bernardo Atxaga	<i>Zazpi etxe Frantzian</i>	2009	2009
Harkaitz Cano	<i>Twist</i>	2011	2013

**4. taula: C<sub>0</sub> delakoa osatzen duten egile eta liburuak, kronologikoki.**

Datu gehigarri batek are argiago uzten du corpus hau osatzen duten euskal idazleek gaztelaniazko literatura-sistema zentrolean lortu duten harrera: corpuserako hautatu ditugun hamar obrak sei argitaletxe desberdinetan eman dira argitara, eta, gainera, literatura-sistema horretan leku zentrala okupatzen duten argitaletxeetan: Alfaguara, Espasa-Calpe, Grijalbo, Lengua de Trapo, Seix-Barral eta 451 editores.

Bestalde, corpusaren koherentziaz den bezainbatean, gure ustez, koherentzia hori hainbat ezaugarritan oinarrituta dago; adibidez, ikuspegi kronologikotik begiratuta, 4. taulan ikusten den bezala, sorburu-testuak 1984tik 2011ra bitarte argitaratuta daude, eta xede-testuak 1985etik 2013ra arte; hots, 27 urteren tartean STen kasuan, eta 28, XTen kasuan. Are gehiago, Onaindia eta Urretabizkaiaren lanak kenduta, beste guztiak 1995 eta 2011 bitartean argitaratuta daude, 16 urteren epean beraz, jatorrizkoen kasuan, eta 1998 eta 2013 bitartean, 15 urteren epean, itzulpenen kasuan.

Bestalde, tesi honetarako aukeratu dugun gaiari buruzko azterketaren ondorioei begira, interesgarria iruditzen zaigu azpimarratzea C<sub>0</sub> corpora osatzen duten hamar idazleak bi belaunaldi desberdinetan kokatzekoak direla: batetik, lehendabizikoan, Ramon Saizarbitoria (1944), Arantxa Urretabizkaia (1947), Mario Onaindia (1948), Anjel Lertxundi (1948) eta Bernardo Atxaga (1951) ditugu; eta, bigarrean, Iban Zaldúa (1966), Kirmen Uribe (1970), Unai Elorriaga (1973), Harkaitz Cano (1975) eta Eider Rodríguez (1977).

Badago, hala ere, bi belaunaldi horiek banatzen dituen adina baino faktore esanguratsuagorik, tesi honetan ikertu nahi dugun gaiari begira: izan ere, lehen belaunaldia osatzen duten idazleak gaztelaniaz eskolatuak izan ziren eta, hortaz, beren kabuz jaso zuten ez bakarrik literatura-euskararen eredua, baina baita euskara idatziaren eredua bera ere<sup>91</sup>; bigarren belaunaldikoek, berriz, denek jaso dute euskara idatziaren eredua eskola-sisteman. Berez, euskara idatziaren eredua eskola-sistemaren bitartez jaso duen lehen idazle-belaunaldiko partaide dira.

Ez hori bakarrik; bigarren belaunaldiko idazle horiek eskola-sistemaren barruan nahiz kanpoan jaso ahal izan duten literatura-euskararen eredua lehen belaunaldikoengandik jaso dute, besteak beste. Eta datu horren aurrean, tesi honetarako planteagarria iruditzen zaigu aztertzea ea, tesi honetatik aterako ditugun emaitzen argitan, euskararen erlatibakuntza-sistemaren eta joera sintaktiko-estilistikoen halako ezaugarri batzuen transmisioa ere egon den belaunaldi batetik bestera, eta, orobat, interesatzen zaigun puntuari dagokionez, ea joera sintaktiko eta estilistiko antzekoak ala desberdinak antzematen ditugun haien lanetan.

#### 4.1.2. Gure corpora eta kanona

Aurreko atalean esan dugunaren argitan, corpuseko idazleek SKren literatura-sisteman duten errepresentatibitatea zalantzarik gabekoa da; euskal literatura garaikidearen barruko idazlerik ezagunenetakoak dira, haietako gehienak behintzat. Batetik, euskal literatura-sistemaren barrutik, argitaletxe, kritikari, antologo, erreseina-egile, unibertsitate alorreko akademikoek, literatura-aldizkariak eta abarrek beren lanetan sartzen dituzten euskal literaturako izen nagusien artean daude, bai eta euskal argitaletxeek gehien argitaratzen dituztenen artean ere. Bestetik, literatura-sistemaren kanpoaldetik, hezkuntza-sistemak, komunikabideek, eta erakunde politikoek eta haien mendeko organismo kulturek euskal literaturaren transmisio edo

<sup>91</sup> Honi dagokionez, ez da garrantzi gutxiko puntua gogora ekartzea lehen belaunaldi horrek euskara idatziaren eredu modernoaren eraikuntza- eta arauketa-aroa bizi izan zuela, haren norabide eta joera desberdin guztiekin eta, neurri handi samarrean, protagonizatu ere egin zuela; eta, gainera, eredu moderno horren finkatze-garaian lanean diharduela oraindik literaturgintzan. Mario Onaindia da aurreko baieztapen horretan sartu ezin dugun bakarra, ez bakarrik 2003an zendu zelako, baina, batez ere, bere literaturgintza 1983 eta 1988 arteko epera mugatzen delako.

zabalkunde eta sustapen lana egiten dutenean hautatzen dituzten idazleen artean daude.

Adibide bat ipintzearren, gure corpuseko idazleen artean badira narratiba alorreko Euskadi Literatura Saria irabazi duten bost idazle: Atxaga, Cano, Lertxundi, Saizarbitoria eta Zaldua; eta haietako bi, gainera, corpusean dauzkagun lanekin irabazi dute: Zalduaren *Etorrizuna*, 2006an saritua; eta Canoren *Twist*, 2012an. Bestetik, Espainiako literatura-sistema zentralaren barruko sarietara etorri, Espainiako Premio Nacional de Literatura delakoa irabazi duten lau idazle daude gure corpusean; hiru, narrazio alorrean: Atxaga, 1989. urtean; Elorriaga, 2002an; eta Uribe, 2009an (azken bi hauek, corpusean sartu ditugun obrekin, gainera). Eta bestea, saiakeran: Lertxundi, 2010ean. Azkenik, corpora osatzen duten idazle gehienek irabazi dute Espainiako Kritika Saria deritzona ere, behin baino gehiagotan gainera: Atxagak, bost aldiz (1985, 1988, 1993, 2003 eta 2013); Canok, bi aldiz (2005 eta 2011n, azken hau gure corpusean sartutako lanarekin); Elorriagak, 2014an; Lertxundik, bi aldiz (1983 eta 1991n); Saizarbitoriak, lau aldiz (1977, 1995ean corpusean sartu dugun lanarekin, 2000 eta 2012an); Uribek, 2008an eta corpuserako hautatu dugun eleberriarekin; eta Urretabizkaiak, 2010ean. Falta diren idazleek, Onaindiak eta Rodríguezek, ere izan dute saririk: lehendabizikoak, Irun Saria, 1984an, corpus honetarako hautatu dugun lanarekin hain zuzen, eta Azkue Saria, 1986an, *Olagarroa* eleberriarekin; eta bigarrenak, Igartza Saria, 2008an, *Katu jendea* izeneko liburuarekin.

Hortaz, garbi dago corpus honetako idazleek euskal literatura-polisistema gobernatzen duen "erakundeak" (aurreko paragrafoetan aipatu ditugun eragile desberdinek, alegia) egile edo testuak kanonizatzeko ipintzen dituzten baldintzak betetzen dituztela.

Azkenik, eta tesi honen gaia ikusita erredundantzia dirudikeen arren, gure corpuseko idazleak gaztelaniara eta beste hizkuntza batzuetara itzultitakoenak ere badira. Honen haritik, gogora ekar dezakegu literatura alorreko Euskadi Sariaren barruan, berriazko laguntzak daudela lan irabazleak euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko, eta, zentzu horretan, itzulpena bera ere badela halako autore eta testu batzuk kanonizatzeko bitarteko bat. Izan ere, itzulpena,

Pozuelo Yvancos-ek (2000: 112) dioen bezala, halako hizkuntza bateko literatura-sistemaren kanona osatzen duten idazleen kanpo-proiektzioaren oinarrian dago, hizkuntza horretan idatzitako "literaturarik onena" beste hizkuntza-komunikateei helarazten baitie.

Hortaz, datu hauek aski izan beharko lukete esateko gure corpusa osatzen duten idazleak euskarazko literatura garaikidearen "euskal kanona" dei litekeenaren erdigunean daudela; ahaztu gabe, noski, kanon literarioaz arduratu diren teoriko modernoek argi eta garbi dutela kanon hori errealitate eztabaidatua dela, dinamikoa eta etengabeko lehian bizi dena; bai eta, halaber, halako literatura "kanonizatu" bat ez dela literatura "kanoniko" bat, Iglesias Santos-ek dioen arrazoiaztatik:

[...] la canonicidad no es una característica inherente de los textos en ningún nivel, sino una categoría que se adquiere a lo largo de un proceso y como resultado de una actividad (1994: 332).

Gauzak hobeto zehazteko, "literatura kanonizatu" esamoldea ez da eufemismo bat, Even-Zohar-ek (1990: 15) dioen bezala, literatura "ona" esateko, literatura "txarra"-ri kontrajarriz. Baina bai esan nahi du halako "komunitate interpretatzaile" batek, literatura-sistemaren barruan eta kanpoan diharduten goian aipatutako eragileek osatuak, hautatu egin duela komunitatearen ondare izateko, eta, beraz, komunitate horren barrura eta kanpora transmititzeko, eredu kategoria esleituz.

Gure tesiaren gaiari begira interesatzen zaigu literaturaren soziologiako kontzeptu hau, literatura kanonizatuak bere eragina duelako hizkuntzaren kanonean ere. Eredu bihurtutako egileek eta testuek eredu bihurtzen dute (dituzte) erabiltzen duten (dituzten) idiolektoa(k). Eta hizkuntzaren alorrean hartzen du kanon kontzeptuak bere izaera arauemailea: esan nahi baita, literaturaren esparruan, zer irakurri edo zer miretsi beharko genukeen esaten digu kanonak; baina, hizkuntzaren esparruan, kanona arau bihurtzen da: kanoneko obrak iturri lexikografiko bilakatzen dira. Hor dugu, horren lekuko, EHUren Euskara Institutuak osatutako *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) tresna informatikoa, bai institutua bera eta bai tresna ere beren izen esanguratsuekin, eta erakunde berberaren *Egungo Euskararen Hiztegia*, bere aurkezpen gisa argi

uzten duena, EPG corpora oinarri hartuta, «egungo erabileraren ispilua izan nahi» lukeela.

Argi dago, beraz, kanon literarioaren ondorio dela halako kanon linguistiko baten existentzia. Kanon linguistikotzat jotzen dugu polisistema batean kanonizatuta dagoen testu-selekzio baten barruan eredu bihurtu den eta, potentzialki, arau-iturri gisa erabil daitekeen hizkera-tipologia (lexikoa, sintaxia, baliabide diskurtsiboak) halako bat. Eta kanon linguistikoak kanon literarioak bezala funtzionatzen du, bere transmisioari dagokionez, “erakunde” deitu dugun horrek dituen eskuarte guztien bitartez.

#### 4.1.3. Corpuseko itzulpenak eta itzultzaileak

Goiko 4. taulan C<sub>0</sub> corpora osatzen duten STak eta idazleak kronologikoki zerrendatu eta gero, itzultzaileen izenak ere aipatuko ditugu, egiletasunari dagokionez itzulpenek duten tipologia zehazteko datu garrantzitsua eta gure tesiaren helburuetarako erabakigarria baita. Taula hau, idazleen abizenaren araberrako hurrenkera alfabetikoan antolatu dugu:

<b>STko egilea – Idazlea</b>	<b>XTko egilea - Itzultzailea</b>
B. Atxaga	Asun Garikano – B. Atxaga
H. Cano	Gerardo Markuleta
U. Elorriaga	Unai Elorriaga
A. Lertxundi	Jorge Giménez
M. Onaindia	Jon Juaristi
E. Rodríguez	Eider Rodríguez

R. Saizarbitoria	Jon Juaristi
K. Uribe	Ana Arregi
A. Urretabizkaia	Maite González – A. Urretabizkaia
I. Zaldua	I. Zaldua

**5. taula: Corpuseko idazleak eta itzultzaileak**

Ikusten denez, hamar itzulpenetatik erdian, idazleek berek parte hartu dute, dela autoitzultzaile modura, hiru kasutan, dela beste itzultzaile batekin lankidetzan, bi kasutan. Idazle hauek maila desberdinetan badute lehendik ere esperientziarik beren lanen itzultzaile gisa, bai eta, kasu batzuetan, euskaratzaile gisa ere<sup>92</sup>; hona hemen gaur arteko datuak:

- Bernardo Atxagak bereak diren 24 argitalpenen gaztelaniarako itzulpenetan parte hartu du gutxienez, beti ere beste itzultzaile batekin lankidetzan, eta euskarara egindako itzulpen batzuk ere eginak ditu.
- Unai Elorriagak bere 7 lanen gaztelaniazko itzulpenak egin ditu eta, orobat, frantses, galiziera, gaztelania eta ingelesetik euskarara egindako itzulpen batzuk ere baditu. Itzultzaile profesionala ere bada
- Eider Rodriguezek bere 5 lanen gaztelaniazko itzulpenak egin ditu eta frantsesetik euskarara egindako itzulpen bat ere badu.
- Arantxa Urretabizkaiak bere 2 lanen gaztelaniazko itzulpenetan parte hartu du, haietako batean bakarka eta bestean itzultzaile batekin lankidetzan.
- Iban Zalduak euskaratik gaztelaniara egindako 6 itzulpenen argitalpenetan parte hartu izan du, beti ere bere euskarazko lanak itzuliz.

Gainontzeko itzultzaileek, bestalde, esperientzia handia dute kasu gehienetan:

<sup>92</sup> EIZIEK bere weborrian argitaratzen duen Nor da Nor deritzan euskal itzulpengintzaren datu-basetik ateratako datuak dira. [www.nordanor.eus](http://www.nordanor.eus) [Kontsulta-data: 2016-06-18].

- Asun Garikanok gaztelaniatik, frantsesetik eta ingelesetik euskarara eta euskaratik gaztelaniara egindako 19 itzulpen ditu guztira, haietatik zortzi Atxagaren lanenak.
- Gerardo Markuletak HGL, narratiba eta poesia alorreko 115 itzulpen eginak ditu asturiera, frantses, gaztelania eta katalanetik euskarara eta euskaratik gaztelaniara.
- Jorge Giménezek gaztelania eta katalanetik euskarara eta euskaratik gaztelaniara egindako 30 itzulpenen argitalpenetan parte hartu izan du eta Lertzundiren 12 lan gaztelaniaratu ditu gutxienez.
- Jon Juaristik euskaratik gaztelaniara egindako 5 itzulpen eginak ditu eta ingelesetik euskararako beste poesia-liburu baten itzulpenean ere parte hartu du. Gure corpuseko bi itzulpenen egile da.
- Ana Arregik gutxienez hiru itzulpenetan parte hartu izan du eta Uriberen bi lan gaztelaniaratu ditu.
- Maite Gonzálezek katalan, frantses, gaztelania, ingeles, portugés eta beste hizkuntza batzuetatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara egindako 11 itzulpen ditu argitaratuak.

#### **4.1.4. Tesiaren planteamendua eta metodologia**

Gure tesiaren esparrura etorritz, itzulpengintzan problematikoa den egitura sintaktiko jakin baten gainean egin nahi izan dugu estilistika edo sintaxi konparatuko saio bat, zeinean bi kanon linguistiko jarri baititugu aurrez aurre, corpus batean oinarrituta eta itzulpen-ikerketa deskriptiboen metodologia erabiliz. Egitura sintaktiko hori perpaus erlatibo ez-murrizgarri edo esplikatiiboak dira, gaztelaniaz eta, oro har, euskararen eremu geografikotik hurbileko hizkuntza indoeuoparretan oso erabiliak eta bibliografia ugarian aztertuak, baina, euskararen esparrura etorritz, gure gramatikan askoz ere berariazko arreta gutxiago jaso dutenak, 2. kapituluan ikusi dugun bezala. Egitura sintaktiko hori, gainera, euskarazko itzultzaile eta interpreteei eta itzulpen edo interpretazio ikasleei arazorik larrienak ekartzen dizkienetakoa



izaten da, euskararen erlatibakuntza-sistemaren funtzionamendua eta, bereziki, erabilera oso desberdinak direlako gaztelaniak duenarekin eta inguruko beste hizkuntzek ere dutenarekin konparatuta.

Hortaz, gure tesiaren planteamendua azaltzeko, esango dugu goian aipatu ditugun 10 literatura-lanetan oinarrituz aztertu nahi izan dugula nolako itzulpen-baliokidetasunak topatzen genituen euskarazko STen eta gaztelaniazko XTen artean. Baliokidetasun horiek aurkitzeko, ordea, XTetatik abiatu gara, testu horietako PEEak bilatuz, zeren, abiapuntuko hipotesi gisa, pentsatu baitugu gaztelaniazko testuetan erlatibo ez-murrizgarri ugariago aurkituko genituela euskarazko testuetan baino, eta, geroago ikusiko den bezala, hipotesi hori bete-betean egiaztatu da.

Lehen bilaketa hori eginda, tesi honetan egin nahi genuen estilistika konparatuko saio partzial honetan, bereziki interesatzen zitzaigun ikustea zer baliabide edo zer egitura sintaktiko erabiltzen dituzten gure corpuseko euskal idazleek jatorrizko testuetan, itzulpenetako PEEen bidez itzulita, idazle horien kanon sintaktiko-estilistikoa definitzearen. Izan ere, euskararen eta beste hizkuntzaren baten erlatibakuntza-sistemen azterketa egin duten ikerlanetan, 2. kapituluan ikusi dugun bezala, alderantzizko norabidea erabili izan da beti; hau da, ikerlan horietako corpusetan dauden gaztelaniazko eta errusierazko perpaus erlatiboak nola euskaratu diren aztertu izan da, eta halako baliokidetasun sintaktiko eta semantiko batzuk ezarri ahal izan dira, askotan ikusi delarik itzulbide ez-erlatiboaren aldeko joera indartsu bat, ZEIN/NON erlatiboaren erabilera murriztearen aldeko diskurtso nahiko zabalduaren barruan<sup>93</sup>. Baina, kontuan izanik erreferentziazko euskal gramatika, testuliburu eta artikulu batzuetan oraindik ere erlatibo apositibo horiek bereziki itzulpenetarako aldarrikatzen direla, berehala sor daiteke zalantzaren bat euskararako itzulpen horietan ikusten den erlatibakuntzaren erabilera hori bat ote datorren jatorriz euskaraz idazten den literaturan ohikoa denarekin, eta ez ote dagoen arriskurik, diskurtso horiek direla bide, literatura-euskararako bi kanon linguistiko desberdin egoteko: bata jatorrizko euskal literaturarako –erlatibo apositibo horiek baino jatorragotzat jotako egiturak erabiltzen dituen–, eta beste bat euskarara itzultitako literaturarako –zehaztasunaren izenean eta

<sup>93</sup> Ikus 2. kapituluko 2.3. atala.

egilearen estiloarekiko leialtasunaren izenean (inplizituki *target-oriented translations* direlakoak aldarrikatuz) jatorrizko hizkuntzaren erlatibakuntza-estilo konplexuagoa erabili beharko lukeena.

Tesi honetan, alderantzizko prozedura erabili nahi izan dugu: ikusi nahi dugu euskal idazleek zer estilo hobesten duten, zer baliabide sintaktiko erabiltzen dituzten, haien lanen itzulpenean PEEak topatzen ditugunean. Beraz, gure metodologia argiago azalduz, esango dugu literatura-lan bakoitza bere itzulpenarekin konparatu dugula, eta banakako azterketa horietan itzulpenaren testutik abiatu garela, PEEak zituzten esaldiak edo testu-zatiak bilatuz, eta euskarazko testura jo dugula gero, leku horietan euskarazko testuan zer zegoen ikusteko eta, hartara, STaren eta XTaren arteko baliokidetasun testualak ezartzeko. Era honetan, testu-pare bakoitzetik atera ditugun adibideen azpicorpus bana osatu dugu, bertsio bakoitzetik ateratako esaldiak binomiotan elkartuz eta bi testuak aurrez aurre jarritz; nahiz eta, esan dugun bezala, binomioak osatzerakoan gaztelaniarazko bertsioetik abiatu garen, binomio horietan ezkerreko lekuan jatorrizko testua ipini dugu, eta eskuinean itzulpena, honelakoetan ST eta XTentzat erabili ohi diren kokapenekin.

#### 4.1.4.1. Zenbatzaile zehaztugabeen arazoa

Corpusa osatzerakoan, ordea, ez ditugu aintzat hartu 10 lanetako XTetan topatu ditugun PEE guztiak, zenbatzaile zehaztugabeak eta, ondorioz, izen sintagma zehaztugabeak dituzten adibideen balio semantikoa zalantzazkoa delako. Izan ere, determinatzaile inespezifikoak daramatzaten adibideak kontuan ez hartzea erabaki dugu determinatzaile horiek dituzten testuinguruetan neutralizatu egiten delako erlatibo murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko alde semantikoa, eta, sarritan, neutralizazio horrek oihartzun ortografikoa izaten duelako, berau irizpide erabakigarria izanik corpusa osatzerakoan.

Aipatzen dugun neutralizazio horren oinarri teorikoa 2. kapituluko 2.1. atalean azaldu dugu, Brucartek (1999: 416) egiten duen ekarpena eta RAEren gramatikan (2009 II: 3321-3332) ematen diren argudioak aipatu ditugunean. Berez, gaztelaniaren gramatikari dagokionez, Brucartek eta RAEk onartu egiten dute determinatzaile inespezifikoak dituzten adibideetan erlatibo

murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko bereizketa semantikoa ahulduta edo neutralizatuta gelditzen dela, baina, hala ere, ez dute ontzat ematen testuinguru horietan bi erlatibo moten arteko bereizketa formala desagertzen denik eta, beraz, haien bereizketa formalari eusten diote, koma-etenaren izanik bereizketa horren isla tipografikoa.

Baina, gure tesira itzuliz, fenomeno horrek badu eragin eta ondorio garrantzitsurik osatu dugun corpusaren ustiapenerako, eta horretan oinarritu gara adibide hauek corpus horretatik baztertzeko. Izan ere, corpusa osatzeko orduan, xede-testuak hartu ditugu abiapuntu; gaztelaniazko itzulpenetako erlatibo ez-murrizgarrien bila joan gara, eta bai Brucartek eta bai RAEren gramatikak ere berresten duten irizpide formala hartu dugu horretarako gidaritzat: eten tipografikoa (koma, alegia) egotea XTko esaldiko aurrekariaren eta mendeko perpausaren artean.

Bada, kontua da gure corpuseko XTetan, determinatzaile inespezifikoak erabiltzen dituzten adibideetan, eten tipografikoarekin eta etenik gabe topatu ditugula itzulita STetako baliabide berberak, azken hauetan etena egon arren. Goian aipatu dugun neutralizazio semantikoaren eraginez edo, itzultzaileek aukeratu dute prozedura berbera komarekin itzultzea kasu batzuetan eta komarik gabe beste batzuetan, eta uste dugu zentzurik ez lukeela izango, jatorrizkoa prozedura berbera izanik, koma duten itzulpenak bai sartzeak corpusean eta komarik gabekoak ez.

Adibideetara etorritik, ondokoetan ikus dezakegu komarekin nahiz komarik gabe itzulita topatu ditugula euskarazko erlatibo desberdinak. Esate baterako, ZEIN/NON motakoak, jatorrizkoan koma-etenarekin.

a. Etenarekin itzulita:

Gurekin zihoan Gasteizko judu bat ere, Simon zeritzana, <b>zeinek edozein aitzakia parada egokitzat jotzen baitu Caizyren historia kondatzeko.</b> <sup>94</sup>	Venia con nosotros un judío de Vitoria llamado Simón, <b>que echaba mano de cualquier pretexto para contarnos la historia de Cayzi.</b>
--	---

<sup>94</sup> Onaindia (ST, 14. orr. – XT: 14. orr.). Aurrerantzean, parentesiko zenbakietatik ezkerrekoak STren orrialdea adieraziko du eta eskuinekoak XTrena.

b. Etenik gabe itzulita:

[...] zaldun beltz bat, ielmo, loriga, peto, ezkutu bat lepotik zintzilika eta lizardizko lantza luze bat besapean, <b>zeinaren buruan ikurrin gorri eta zuri bat baitzeramatzan.</b> <sup>95</sup>	[...] se izaba en los estribos un caballero negro, con su yelmo, loriga, peto, el escudo colgando del cuello y, bajo el brazo, una lanza de fresno <b>de cuyo extremo colgaba un pendón rojo y blanco.</b>
---	--

Gauza berbera gertatzen da erlatibo arruntekin ere.

a. Etenarekin itzulita:

<b>Mathilderi oharkabeen pasatu ez zitzaion</b> harridura-zirkin bat egin zuen Norak. <sup>96</sup>	Nora hizo una leve mueca de sorpresa, <b>que no pasó inadvertida para Mathilde.</b>
---	---

b. Etenik gabe itzulita:

<b>Oihal batekin estalita zegoen</b> koadro bat begiratzeko saiatu zen erosleren bat. <sup>97</sup>	Un comprador intentó mirar un cuadro <b>que se hallaba tapado por una tela.</b>
---	---

Perpau erlatibo jokatu darabilten aposizioetan ere joera berbera aurkitu dugu.

a. Etenarekin itzulita:

Kanoitik kargatzen zen arma traketsa zen, <b>hamar kilo inguru pisatzen zuena.</b> <sup>98</sup>	Era un armatoste de poco menos de diez kilos, <b>que se cargaba por el cañón.</b>
--	---

b. Etenik gabe itzulita:

Errifle zoragarria zen. Hamabi tiroko Albini-Braendlin bat, <b>atzetik kargatzen zena.</b> <sup>99</sup>	Era una maravilla de rifle. Un Albini-Braendlin de doce tiros <b>que se cargaba por la parte trasera del cañón.</b>
--	---

PE jokatuarekin egindako aposizioetan ere aurkitu dugu koma-etenik gabe itzulitako adibiderik:

Erretorea gizon ihar bat zen, <b>urte askotan kapilau militarra</b>	El párroco era un hombre enjuto <b>que durante muchos años había</b>
---	--

<sup>95</sup> Onaindia (25 – 24).

<sup>96</sup> Lertxundi (175 – 196).

<sup>97</sup> Uribe (16 – 15).

<sup>98</sup> Atxaga (15 – 14).

<sup>99</sup> Atxaga (16 – 15).

izandakoa, [...] <sup>100</sup>

ejercido de capellán militar, [...]

Adibide hauen guztien argitan, zalantza izan genezake XTetako itzulpenak zuzenak ote diren euskararen tradizio gramatikal eta literarioaren arabera, bereziki STko esaldietan badagoenean koma-etena izen-ardatzaren eta PEaren artean. Baina, ikusiko dugunez, gaztelaniaz, erlatiboazko adibide hauen bereizketa formala egiteko desberdintasun tipografikoa nahiko finkatuta badago, euskaraz, ordea, ezin dezakegu gauza berbera esan; gramatiketan, behintzat, ez da aipatzen komaren erabilerak gaztelaniaz bezalako ondorioa duenik, hots murrizgarria/ez-murrizgarria bereizketa behintzat formala egiteko balio duenik.

Izan ere, EGLU-V delakoak, behinik behin, aposizioko perpaus erlatibo gibeleratuak deitzen ditueni buruzko atalean<sup>101</sup>, koma gabeko eta koma eta guztiko adibideak sartzen ditu multzo berean, inolako bereizketa sintaktiko edo semantikorik dagoela adierazi gabe:

*Gizon batzuk etorri ziren aspaldi ikusi ez nituenak.*

*Hainbertze lan mota baitauka lurra, begi ala eskuak hain xuxen jarraitzea galdatzen dutenak.*

Bestalde, euskararen tradizio idatzira jotzen badugu, Alberdik & García ordea, kontrakoa diote, erlatiboen puntuazio-zeinuari buruzko joera nagusia aztertzean; alegia: «*Joera horren arabera, zein erlatibo mota adierazi nahi den, hurrenez hurren, koma erabiltzen da (ez-murriztailea) edo ez (murriztailea)*» (1996: 163). Eta horren adibide pare bat eransten dituzte, baieztapen horren sostengu:

Ez-murriztailea (koma artean):

*(...) eta sugeak bezala egiten du, zeinak non ere burua sartzen baitu, handik gorputz guzia errazki atheratzen baitu. (Pouvreau, Philotea)*

Murriztailea (komarik gabe):

<sup>100</sup> Atxaga (203 – 211).

<sup>101</sup> Aip. lib. 214-215. orr.

(...) *jaun handi hura zeinaren aintzinean zeruak eta lurak ikharatzen baitira, zankapetan ibili dut ostikoka.* (Duvoisin, *Liburu ederra*)

Autoreok ez dute baieztapen horren oinarri estatistikorik ematen eta, bestalde, "joera nagusia"z mintzo dira, puntuazio-zeinuaren erabilera bikoitz hori arau mailara igo gabe. Eta ez dirudi arau kategoriara igotzerik ere badagoenik, beste azterketa sakonagoen faltan. Izan ere, euskararen tradizio idatzian bada Alberdik & Garcíak aipatzen duten ustezko joera nagusi horren kontra doan etsenplurik ere.

Adibidez, Axularren *Gero* eta Villasantek 1976an argitaratu zuen gaztelaniazko itzulpena hartzen baditugu, hainbat adibide topatuko ditugu zeinetan koma-etena ez den erabiltzen ZEIN/NON erlatibo murrizgarriaren eta ez-murrizgarriaren arteko bereizketa egiteko.

Esaterako, ondoko adibidean, STan, perpaus erlatiboa koma baten ondoren doa, baina XTan erlatibo murrizgarri batez itzulita dago, komarik gabe alegia, eta zuzen itzulita egon ere:

Badira bisera batzuk, begi-ordethaillu batzuk, <b>zeiñek gauzak diren baiño handiago, iduri arazitzen baitituzte.</b> (Axular, §94.)	Existen unas gafas, unos anteojos <b>que hacen que las cosas aparezcan más grandes de lo que son.</b>
--	---

Eta, jakina, beste pasarte askotan, STko prozedura eta puntuazio-zeinu berbera erlatibo ez-murrizgarri batez itzulita dago, honako honetan bezala:

Kalte handi hunen erreme-diatzeko, ediren zuen Iainkoak bide bat, <b>zein baita iuramentua.</b> (Ax, §168)	Para remediar este gran daño, encontró Dios un medio, <b>que es el juramento.</b>
--	---

Eta hori ez da soilik gertatzen artikulu zehaztugabea darabilten adibideetan, gauza berbera gertatzen da-eta izen sintagma mugatuekin ere; esaterako, ondoko adibideetan, perpaus erlatiboa, euskaraz nabarmenki murrizgarria izan arren<sup>102</sup>, koma baten ondoren doa, eta, aldiz, gaztelaniaz, arauari jarraituz, komarik gabe:

Zeren nolako baita lurra, <b>zeinetarik</b>	Tal y como es la tierra <b>por la que</b>
---	---

<sup>102</sup> Izan ere, esaldian esaten dena ez da lurrari buruzkoa, lur mota bati buruzkoa baizik; hots "lurren multzoa" delakoa murriztu eta, horrela, aurrekaria zehaztu egiten du.

iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere. (Ax §143)	pasa el agua, así viene a resultar esta.
Zeren hauk dira leihoak eta portaleak, <b>zeiñetarik bekhatu guztiak, eta guztiz ere haragiarenak, ariman barrena sartzen baitira.</b> (Ax §256)	Porque estas son las ventanas y portales <b>por los que entran en el alma todos los pecados, y particularmente los de la carne.</b>

Erlatiboaren izen ardatzak erakuslea daramanean ere topatu dugu fenomeno berbera, hots, koma-etena egotea izen ardatzaren eta perpaus erlatiboaren artean STan, baina ez XTan; eta ez, gainera, salbuespentzat jotzeko moduko adibide bakarrean, gehiagotan baizik:

Orhoit zaitezi zeure Iaungoikoaz zeure gazte denboran, zahartzeko peneetara baiño lehen, eta hurbildu gabe urthe hek, <b>zeiñengatik dotozinean erranen baituzu: eztira ene gogarako.</b> (Ax, §115)	Acuérdate de tu Dios en tu juventud, antes de que llegues a los trabajos de la vejez, antes de que se aproximen esos años <b>de los cuales, cuando vengan, dirás: No me gustan.</b>
[...] eta halakoak dira hirur bekhatu suerte hauk, <b>zeinetzaz mintzo baikara presenteon.</b> (Ax, 128)	[...] y de esta especie son esas tres suertes de pecados <b>de que hablamos al presente.</b>

Are gehiago, izen ardatzaren eta mendeko perpausaren arteko etena koma bat baino zeinu ortografiko indartsuago bat (tartekien gidoia, adibidez) denean ere, topatu dugu XTan eten ortografikorik gabeko itzulpen adibiderik ere:

Barreneko aintzindari haur edo argi egille haur — <b>zein deitzen baitute doktorek Synderesis</b> —, da gure konzientzia edo arrazoi naturala. (Ax, 272)	Este jefe interior o este ilustrador <b>que los doctores llaman "Synderesis"</b> , es nuestra conciencia o razón natural.
--	---

Eta erlatibo gibeleratu edo erlatiboazko aposizioarekin ere bada adibiderik, ondoko honetan ikus daitekeen bezala, nahiz eta izen ardatzak mugatzailea eraman:

Ikusazu zein gaizki den gizon ezkondua, <b>bere emaztea utzirik, behar eztenarekin dabillana,</b> eta bai hetarik izaiten den haurra ere. (Ax, 239)	Ve, pues, en qué mala situación está el hombre <b>casado que dejando a su mujer anda con la que no debe,</b> y también el hijo que de ella tiene.
---	---

Gauzak honela, uste dugu oraingoz ezin dela esan euskaraz eta gaztelaniaz berdin funtzionatzen duenik erlatibo murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko bereizketa tipografikoak, erlatiboaren izen-ardatzak determinatzaile inespezifikoren bat daramanean eta, ikusi dugun bezala, baita beste zenbait testuingurutan ere. Nolanahi ere, gai honek azterketa sakonagoa behar du, horren arauketa egin nahi bada; eta azterketa hori tesi honen mugetatik kanpo geratzen da. Baina tesiaren helburu eta planteamenduei gagozkielarik, uste dugu goian egindako azalpena arrazoi aski dela determinatzaile inespezifikoa duten adibideak gure corpusetik kanpo uzteko: hots, XT desberdinetan bi modutara itzulita topatzen ditugulako era honetako ezaugarriak dituzten erlatiboak, euskarazko testuetan erabilitako prozedura sintaktikoa eta itxura tipografikoa berdina izan arren, eta, ondorioz, zalantzarik emaitzak aterako genituzkeelako gure azterketatik, testuinguru eta forma berdineko adibideen artetik batzuk bai hartuko bagenitu aintzat gure corpuserako eta beste batzuk ez.

#### 4.2. Azpicorpusei buruzko banakako azterketa

Azpicorpus horiek alfabetikoki ordenatu ditugu banakako azterketa hori egiteko, eta honela geratu dira:

Azpicorpusa	Idazlea	Sorburu-Testua	Xede-Testua
C <sub>1</sub>	B. Atxaga	<i>Zazpi etxe Frantzian</i>	<i>Siete casas en Francia</i>
C <sub>2</sub>	H. Cano	<i>Twist</i>	<i>Twist</i>
C <sub>3</sub>	U. Elorriaga	<i>SPrako tranbia</i>	<i>Un tranvía en SP</i>
C <sub>4</sub>	A. Lertxundi	<i>Azkenaz beste</i>	<i>Un final para Nora</i>
C <sub>5</sub>	M. Onaindia	<i>Gillen Garateako batxillerra</i>	<i>La tau y el caldero</i>
C <sub>6</sub>	E. Rodríguez	<i>Haragia</i>	<i>Carne</i>
C <sub>7</sub>	R. Saizarbitoria	<i>Hamaika pauso</i>	<i>Los pasos incontables</i>
C <sub>8</sub>	K. Uribe	<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>	<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>
C <sub>9</sub>	A. Urretabizkaia	<i>Saturno</i>	<i>Saturno</i>
C <sub>10</sub>	I. Zaldúa	<i>Etorkizuna</i>	<i>Porvenir</i>

6. taula: Azpicorpusak hurrenkera alfabetikoan

Orain, azpicorpus bakoitzari buruz egin dugun azterketa, emaitzak eta ondorioak ikusiko ditugu.





#### 4.2.1. C<sub>1</sub> azpicorpusa: Bernardo Atxaga, *Zazpi etxe Frantzian*

##### 4.2.1.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Bernardo Atxaga
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Zazpi etxe Frantzian</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Pamiela (Iruñea)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2009
<b>Orrialdeak:</b>	256
<b>Xede Testua:</b>	<i>Siete casas en Francia</i>
<b>Itzultzaileak:</b>	Asun Garikano eta B. Atxaga
<b>XTren argitaletxea:</b>	Alfaguara (Barcelona)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2009
<b>Orrialdeak:</b>	232
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	40
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	34

C<sub>1</sub> deitu dugun azpicorpus honetako liburuko paratestuetan emandako informazioaren arabera, XTak bi egile ditu –paratestu horietan itzultzailezat emanak–, haietako bat jatorrizko idazlea izanik. Hortaz, elkarlanean eginiko itzulpena deitzen direnen barruan kokatu beharra dago. Autoitzulpen kontzeptuarekin gertatzen ez den bezala, ordea, arazoa da elkarlanean eginiko autoitzulpenaren dinamika askotarikoa izan daitekeela eta, beraz, zehaztu beharko litzateke elkarlan hori nola gauzatu den, nahiz eta ia segurua den elkarlanean esku hartzen dutenetako batek idazle eta itzultzaile estatus bikoitza edukiko duela eta besteak, aldiz, itzultzaile estatus soila; baina, nolana ere, badirudi honelako kasuetan itzultzaile estatus soila duena estatus bikoitza duenaren, hots, idazlearen, menpe geratzen dela, erabakiak hartzeko ahalmen mugatua izango duelarik, 3. kapituluko 3.2.2. puntuan ikusi dugun bezala.

Kasu honetan badugu XT honetako itzulpen prozesuaren deskribapena, argitaratu gabeko elkarriketa batean idazlearen beraren ahotik egina eta Manterolak (2014: 71) jasotakoa. Deskribapen horretan Atxagak berak dioenez, eleberri honen euskarazko jatorrizkoa argitaratu aurretik ekin omen zion itzulpenari «*bere itzultzailearekin batera*» (Manterola, 2014a: 57) –itzultzaile izendapena Garikanorentzat utziz, beraz–, eta itzulpen ekintzak eragina izan omen zuen sorkuntza prozesuan bertan, zirkuitu moduko bat sortuz «*itzulpenetik jatorrizko testura eta jatorrizko testutik itzulpenera*». Horren ondorio da, hain zuzen ere, STaren eta XTaren argitalpenen artean bi hilabeteko tartea baino ez egotea: lehenaren inprimaketa 2009ko otsailean bukatu zen, beste paratestu batean esaten den bezala, eta bigarrenarena, berriz, ondoko apirilean<sup>103</sup>.

Gauzak horrela, eta berau elkarlanean eginiko autoitzulpena izanik, ezinezkoa da zehaztea norik hartuak diren itzulpen prozesuan XTak dituen ezaugarri sintaktiko eta estilistikoei buruzko erabaki gehienak, nahiz bistakoa den idazleak izaten duela honelako kasuetan prozesu guztiaren kontrola eta, ziurrenik, azken hitza. Adibidez, goiko fitxan ikus daitekeen bezala, XTan 40 segmentu aurkitu ditugu erlatibo esplikatiboez osatuak, baina haietatik sei kasutan segmentu horiek ez daude STan; horietatik lau kasutan, XTko perpaus erlatibo esplikatiboa bera da erreferentziarik ez duena STan; eta beste bi kasutan, erlatiboa duen XTko paragrafo osoa edo haren zati handi bat ez dago jatorrizko testuan. Hortaz, segmentu erantsiak dira, XTan egin diren gehiketak, eta logika osoz pentsatu behar dugu gehiketa horiek egitea idazlearen erabakia dela, idazleei bakarrik onartzen baitzaie sorkuntza librerako eskubidea. Ondorio honekin bat dator, gainera, idazle honekin izan genuen zuzeneko komunikazio pertsonal bat, zeinean esan baitzigun berak itzulpenean lagundu ez ezik, itzulpena erabiltzen zuela (itzulpena soilik, STarekin alderatu gabe) ere, sorkuntza eta birsorkuntza prozesuaren azken fasean, behin betiko testua osatzeko.

Azpicorpus honen aurkezpena amaitzeko, esan dezagun sei gehiketa kasu horietatik ezin atera dezakegula gure azterketarako binomio erabilgarririk, oso

<sup>103</sup> Ikus 3. kapituluko 3.2.1. puntuan Dasilvak (2009) ST eta XTaren agerpen-tarte laburrari buruz eta hizkuntza gutxituen egoera diglosikoari buruz dioena.

helburu zehatza baitu azterketa horrek: gaztelaniazko testuan aurkitu ditugun erlatibo ez-murrizgarrien lekuan zer baliabide edo egitura sintaktiko erabili diren euskarazko bertsoan; eta ST horretan ezer ez badago, XTkoa gehitutako zatia delako, orduan binomio erabilgarririk ezin dugu lortu.

Beraz,  $C_1$  honetan, 34 binomio bakarrik geratu zaizkigu erabilgarri bi testuen arteko itzulpen-baliokidetasunak edo baliokidetasun testualak antzemateko eta bi bertsoetako prozeduren azterketa estilistiko-sintaktikoa egin ahal izateko. Ikus dezagun, bada, zein diren azpicorpus honetan XTan erlatibo esplikatioben bidez itzulita STan aurkitu ditugun prozedurak.

#### 4.2.1.2. STko baliabideak

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### 4.2.1.2.1. Segmentu suborazionalak

Kasu batean (adibide guztietatik %2,9an, beraz), XTko perpaus erlatiboari dagokion STko testu zatia ez da iristen perpaus mailara, segmentu suborazional bat besterik ez baita; kasu honetan, zehazki, adizlagun baten hedapenetik ateratzen da XTko perpaus erlatiboa.

Adibide honetan ikusten denez, XTan erantsi –edo nolabait esplizitatu– egiten da jatorrizko segmentu suborazionalan ez dagoen aditz forma bat, aditz hori izanik itzulpeneko bertsoan bigarren segmentua perpaus bihurtzen laguntzen duena:

1	Bete egin nahi zuen, nonbait, azken gutunean egindako promesa, eta <b>aurrez aurre</b> jartzen zion garbitasunaren ikur hura...	Sin duda había querido cumplir la promesa de su última carta –te protegeré desde el cielo–, y le había puesto aquel símbolo de la pureza en la playa, <b>donde mejor podía verse.</b>
---	---	---

##### 4.2.1.2.2. Aposizioa

Aposizioa da azpicorpus honetako STan topatu ditugun baliabide sintaktikoetan bigarren erabiliena gaztelaniazko itzulpenean aurkitu ditugun PEEen lekuan; izan ere, 10 adibidetan (guztietatik %29,4an) aurkitu dugu, perpausen juntaduraren apur bat azpitik.

Aposizio motetan sartuz, liburu honi buruzko azterketan topatu ditugun hamar aposizioak bi motatakoak dira bakarrik: gehienak erlatiboazko aposizioak dira, perpaus erlatiboari mugatzailea erantsiz osatuak (bidenabar esanda, erlatiboko aditza bai jokatua, bai jokatugabea izan daitekeela ikusiko dugu); eta gainontzekoak aposizio soilak dira, hau da, perpaus erlatiborik gabekoak.

Azkenik, adibide guztietan, perpaus erlatiboaren kanpoko ardatzak eta aposizioak kasu komunztadura egiten dute, adibide guztietan kasu absolutuan daudelarik, gehienak singularrean eta bat bakarra pluralean (mugatzailearik gabeko aposizioa erakusten duen adibide bat ere badago).

Esan bezala, aposizioak bi eratakoak dira:

#### a. Erlatiboazko aposizioa

##### a.1. -N perpausa + mugatzailea

Perpaus nagusian dagoen ISari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, PE jokatuari mugatzailea eta kasua (azpicorpus honetan, absolutiboa beti) itsatsiz, eta, adibide guztietan, kasu komunztadura egonik bi sintagmen artean; kanpoko ardatzaren kokapenari begiratzen badiogu, ikusiko dugu aposizio-tartekiaren aurre-aurrean edo oso hurbil egoten dela.

2	Bukatu egin nahi zuen; estutu bere musa, <b>hasierak bakarrik ematen zizkiona.</b>	Estaba decidido a acorralar a su musa, <b>que sólo le proporcionaba comienzos.</b>
3	Etxera itzuli zenean, bere anai-arrebek lortu zuten dirua kentzea; ez ordea belarritakoen kutxatila, <b>lurpean gordeta utzi zuena.</b>	Cuando volvió a casa, sus hermanas consiguieron arrebatarle parte del dinero, pero no así la caja con los pendientes, <b>que él había escondido bajo tierra.</b>
4	Alboan gotzain hura zeukan, <b>Ama Birjinaren eskultura bedeinkatu</b>	Concentró su atención en el hombre que estaba sentado a su lado, <b>que no</b>

	<b>zuen.</b>	<b>era otro que el obispo que había bendecido la escultura de la Virgen.</b>
5	Hurrena, taldeko norbaitek hala esan zuelako, Jesus Salbatzailea zela sinetsi zuen, <b>Ama Birjinak Lourdesen eman berria zuen pauso bera ematera zetorrena.</b>	Luego, dejándose influir por uno de sus compañeros, pensó que era el mismo Jesús, <b>que trataba de emular la reciente aparición de la Virgen María en Lourdes.</b>
6	Donatien bera, salbuespen izan zitekeen bakarra, <b>edozer egingo zukeena estalpera joan eta hango itzalean [...] eroso esertzeko</b> , urduri zebilen.	El mismo Donatien, <b>al que la competición le daba igual</b> , estaba cada vez más nervioso. <sup>104</sup>

### a.2. PE jokatu gabea + mugatzailea

PE apositibo jokatuarekin bezala, hemen ere kasuistika berbera atzeman dugu: aposizioa perpaus nagusiko izen sintagmari itsasten zaio, berau izen propioa nahiz arrunta izan daitekeelarik eta kasu-komunztadura dago.

7	Kristala ukitu zuen eskuineko saihetsarekin, eta azalak adierazi zion sudurrak baino lehen: Martell botila zen, botila hustua, <b>edukia isuritakoa.</b>	Van Thiegel tocó un cristal con el costado derecho, y la piel se lo reveló antes que la nariz. Era la botella de Martell, la botella vacía, <b>que había derramado su contenido</b> , estaba cada vez más nervioso.
8	Nor zen bera? Bera Cocó zen, Cocó Van Thiegel, <b>Belgikako armadako soldadu izandakoa gaztetan...</b> Ikara zion maxa hari!	Él, Cocó Van Thiegel, <b>que en sus años de juventud había servido en el ejército belga...</b> se amilanaba ante aquel pueblerino.

### b. Aposizio soila

Gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatio batez itzuli diren pasartetan, aposizio soilak ere topatu ditugu, aposizioan doazen izen edo izenondo soilak alegia, perpaus erlatibo apositiboen baliokidetzat edo jo genitzakeenak (perpaus erlatiboa osatzeko beharko lirakeen aditza eta menderagailua nolabait elidituta daudela esan genezake, hain zuzen). Hemen ere, bi segmentuen hurbiltasuna eta kasuen komunztadura topatu dugu,

<sup>104</sup> Bigarren adibidean, gaztelaniazko itzulpena ez da inondik ere literala, baina, nolabait, STko esaldiaren zentzua jasotzen du eta, bereziki prozedura sintaktikoen baliokidetasuna izanik gehien interesatzen zaiguna, corpusean jaso dugu.

absolutiboan beti, 10. binomioan izan ezik, zeinean aposizioan doan segmentua mugagabeen dagoen.

9	Laugarrena, <b>handiena eta multzotik nahiko bereizia</b> , klubaren biltegia zen.	El cuarto [barracón], <b>que era el más grande y se encontraba algo separado de los demás</b> , servía de almacén de provisiones del club.
10	Eta Donatien bera, <b>parapetoaz eta mandrilez arduratzen ziren kapelu-gorrien buru egun hartan</b> , janzkera eta altueragatik ezagutu zuen, ez aurpegiagatik.	A Donatien, <b>que estaba a cargo de los askaris que se ocupaban del parapeto y de los mandriles</b> , sólo pudo reconocerle por la altura.
11	Batzuetan iruditzen zaio argitasun bat daukala inguruan, lurrun moduko bat. Ez bapore honena bezalakoa, <b>beti zuria</b> , baizik eta kolore askotakoa.	A veces le parece que lleva una luminosidad o un vaho alrededor. No como el de la chimenea de este barco, <b>que es siempre blanco</b> , sino de muchos colores.

Sail honetako binomio guztietatik lautan (5, 6, 8 eta 10), XTko aurrekaria izen propio bat da, eta kasu guztietan STan dagoen izen propioa kasu absolutiboan dago; beraz, badirudi idazle honen kasuan, badagoela halako loturarik aposizioaren erabileraren eta kasu absolutiboaren artean, erlatiboaren ardatza izen propioa denean.

#### 4.2.1.2.3. Perpausen juntadura

Gorago esan dugun bezala, perpausen juntadura da azpicorpus honetako prozedurarik erabiliena, aposizioaren apur bat gainerik: 11 adibide aurkitu ditugu (guztietatik %32,4).

Agertu zaizkigun juntadura motak alborakuntza eta emendiozko juntadura dira, haietako lehena izanik erabiliena, %26,5arekin, eta emendiozko juntadura ondoren, baina %5,9an bakarrik.

##### a. Alborakuntza

Perpausak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza 9 binomiotan aurkitu dugu guztira. Kasu guztietan, alboratutako bi perpausak puntu batez banatuta dauden bi perpaus lokabe dira. Nolanahi ere, alborakuntzan juntatutako bi perpaus edo bi segmentuek multzo semantiko bat bakarria

osatzen dute, hori izanik XTan duen egitura (perpaus nagusi baten barruan txertatutako perpaus erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, 4.3.1.3.3.1. puntuaz azaldu dugun bezala, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakide dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau izaten delarik XTko perpaus erlatiboko aurrekaria.

Kasu guztietan, STan alboratutako bigarren perpausa da XTan erlatibo batez itzulita agertzen dena eta erlatibo hori bukaerako posizioan kokatuta egoten da, aditz nagusiaren atzean:

12	Gogaikarria zen halako <i>commençant</i> batekin hitz egitea. <b>Ezpainak josita zeuzkala ematen zuen.</b>	Era un fastidio intentar entablar conversación con un <i>commençant</i> como aquél, <b>que parecía tener la lengua cosida.</b>
13	—Eguberria egun handia da —esan zuen Chrysostomek—. Jesusen jaiotza ospatzen da. <b>Ama Birjinarengandik jaio zen Belenen.</b>	—El día de Navidad es un gran día —dijo—. Se celebra el nacimiento de Jesús, <b>que nació en Belén, concebido por la inmaculada Virgen María.</b>
14	Platertxo batean, hamar bat zigarromutur zeuden, eta haien usaina sentitzen zen airean. <b>Donatienek kanpora eraman zuen platertxo eta hustuta ekarri zuen segituan.</b>	Había unas diez colillas en un platillo, <b>que Donatien se apresuró a retirar.</b>
15	Zalantzarik gabe, bere beste anaietako bat bezalakoa zen Chrysostome horretan. <b>Anaia hark ez zituen ostutako piezak saldu nahi izaten eta hainbestearaino indartu zitzaion urteekin joera hura non poliziak, atzeman zuenean, miratu bere gela eta altxor bat aurkitu zuen.</b>	En ese aspecto Chrysostome era como otro de sus hermanos, <b>que se negaba a vender las piezas que había robado, y que con los años llevó su manía hasta tal extremo que cuando lo apresó la policía y registró su habitación se encontraron con un auténtico botín</b>
16	[...] —esan zuen Donatienek. <b>Txukunketa utzita, elkarrizketan erabat sartuta zegoen.</b>	[...] —propuso Donatien, <b>que había abandonado sus labores y participaba en la conversación como uno más.</b>
17	[...] biltegi bezala erabiltzen zen bigarren sakristiara pasatu ziren. <b>Santuen irudiak gordetzen ziren han [...]</b>	[...] pasaron a una segunda, más antigua, que servía de almacén y <b>donde se guardaban las imágenes de los santos.</b>
18	Norbaiti azaldu behar, hala ere, eta Livori azaldu zion. <b>Livoren erantzuna betikoa izan zen.</b>	Acabó contándoselo a Livo, <b>cuya respuesta fue la de siempre.</b>



19	Lalande Biranen begiak gogoan, Livok bere begi beltzetara eramán zituen atzamarrak. <b>Muanoaren begiak horiak eta urdinak omen ziren, kapitainarenak bezala.</b>	Livo se llevó los dedos a los ojos, acordándose de los de Lalande Biran, <b>que eran amarillos y azules, como los del muano.</b>
20	Landaretza oso sarria zen, eta Van Thiegelek harrituta zeuzkan berarekin zihoazen kapelu-gorriak. <b>Gastadore batek bezala aurreratzen zuen sastrakan barrena, parean jartzen zitzaizkion aihen, sasi eta zuztar guztiak matxetearekin moztuz.</b>	Los <i>askaris</i> que formaban parte de la partida miraban asombrados a Van Thiegel, <b>que en los tramos más tupidos lograba abrirse paso como un auténtico gastador, apartando a machetazos todas las lianas, las zarzas y las raíces que se le interponían en el camino.</b>

Prozedura honen kasuan, bost adibidetan izen propioa da XTko klausula esplikatiiboaren kanpoko izen ardatza; bada, binomio horietan guztietan, STko izen propioak absolutiboa ez beste kasu-marka baten atzizkia darama. Kasu-markaren eta prozedura honen erabileraren artean halako harremanik badela iradoki dezake horrek gure ustez.

#### b. Emendiozko juntadura:

Azpicorpus honetako euskarazko STan askoz ere neurri txikiagoan topatzen dugu bi perpausen emendiozko juntadura, hau da, juntagailu kopulatiiboaren bidez elkartutako bi perpaus; bi adibide baino ez zaizkigu agertu, eta bietan STko bigarren perpausetik aterata dago XTko perpaus erlatiboa:

21	Europara itzultzekoa omen zen, <b>eta, zalantzarik gabe, mesede handia izango zen Force Publiquerentzat.</b>	Lalande Biran le había informado de que aquel sujeto pensaba regresar a Europa, <b>lo cual sería, sin duda, un gran beneficio para la Force Publique.</b>
22	Egun hartan larri ibili zen Chrysostome, <b>eta solik bere commençant izaerak salbatu zuen egoera.</b>	Chrysostome pasó entonces graves apuros, <b>que sólo consiguió salvar gracias a su condición de commençant.</b>

Lehenengo adibidean, STan bigarren perpaus juntatuan elidituta edo isilduta dagoen osagai anaforiko bat (*hori* erakuslea, perpaus horretako subjektu funtzioan) dagoela uler genezake, eta, horrela, perpaus hori PEE bihurtuta ikusten dugu XTan, juntaturako lehen perpaus osoa izanik haren erreferente edo ardatza (*sentential relative*).

Antzeko zerbait gertatzen da bigarren binomioan ere: bertan, *egoera* hitzak betetzen du nolabait funtzio anaforikoa bigarren perpausean, juntaturako lehen perpaus osoaren erreferentziakide gisa funtzionatuz.

Esan bezala, euskarazko bertsioan juntatutako bigarren perpausetik aterata dago XTko erlatiboa eta esaldi bukaerako posizioan doa itzulpenean; bestela esanda, jatorrizko bertsioko juntaturako lehen predikazioa da itzulpenean perpaus nagusia eta, beraz, esaldiko aditz nagusia perpaus erlatiboaren aurretik kokatuta dago.

#### 4.2.1.2.4. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, perpaus erlatiboak aposizioa eta perpaus juntadura baino gutxiago erabiltzen dira eta nahiko maila txikian, kasu guztietatik %14,7an bakarrik; erlatibo motei begiraturik, bai -N perpaus erlatibo arruntak, bai NON erlatiboa ere aurkitu ditugu, baina azken hau kasu bakar batean.

##### a. -N erlatiboa

Azpicorpus honetan 4 kasutan bakarrik topatu ditugu -N erlatiboa duten perpausak erlatibo esplikatioben bidez itzulita XTn; alegia, ardatzari izenlagun gisa itsatsia, ardatzaren ezkerretik.

Eta kasu guztietan, erlatiboaren ardatza izen arrunta da.

23	<b>Arrautzaren barruan pixkanaka heltzen doazen</b> mamba sugearen kumeak bezala, [...]	Como la cría de la serpiente mamba, <b>que no madura sino lentamente en el cascarón</b> , [...]
24	Ez zen bere anaia bizkorra, <b>haren hitz egiteko modua imitatzen zuen</b> anaia homosexuala baizik.	No era su hermano listo, sino el homosexual, <b>que imitaba la manera de hablar de aquél</b> .
25	Gero aldarearen atzealdera joan, eta, sakristia nagusia zeharkatuta, <b>biltegi bezala erabiltzen zen</b> bigarren sakristiara pasatu ziren.	Luego fueron a la parte de atrás del altar y, tras cruzar la sacristía principal, pasaron a una segunda, más antigua, <b>que servía de almacén</b> [...]
26	<b>Buruaren bi aldeetan itsatsita zeukan</b> Christineren irudia ahaztu nahi zuen. Ez zion hitz egiten ere uzten.	Quería librarse de la imagen de Christine, <b>que se le había quedado pegada en las dos partes de la cabeza impidiéndole concentrarse</b>

	<b>en la conversación.</b>
--	----------------------------

### b. ZEIN/NON erlatiboa

Azpicorpus honetan, kasu bakarrean erabiltzen du idazleak erlatibo mota hau STn:

27	Napoleonek berak, irabazi Borodinoko bataila hura, <b>non 50.000 soldadu errusiar eta 30.000 soldadu frantses hil ziren</b> , eta esan omen zuen:...	El mismísimo Napoleón, habiendo resultado vencedor en la batalla de Borodino, <b>en la que murieron 50.000 soldados rusos y 30.000 soldados franceses</b> , supo reconocer sus errores, y dijo así:...
----	--	--

Aipagarria da, nolana ere, NON adberbio erlatiboa hobesten duela, ZEIN izenordainaren inesiboa (ZEINEAN/ZEINETAN) erabili beharrean, bai baitirudi lehenengoak nolabait ospe hobe duela gaur egungo euskararen kanon estilistiko-sintaktikoan<sup>105</sup>. Hala ere, ikusi dugu lehenago, kausa perpausen puntuan ipini ditugun adibideetan, nola idazle honek, antzeko testuinguruan (alegia, XTan *en el/la que* edo *donde* menderagailuez osaturiko erlatiboetan), ZEIN/NON erlatiboa erabili beharrean, BAIT menderagailua daraman kausazko perpausaz nahiago duen baliatu.

#### 4.2.1.2.5. Kausa perpausak

Azpicorpus honetan, 4 adibide aurkitu ditugu, kasu guztietatik %11,8an, erlatiboaren ehuneko berberarekin, eta gehienek BAIT menderagailua darabilte. Bestalde, lau binomioetatik bitan (28 eta 29), XTko klausula erlatiboaren ardatza izen propioa da, eta STan bi binomioetan izen propio horiek erlatiboaren atzizkia daramate:

28	Lalande Biranek, <b>poesian zein jokoan Saint-Foix baino gorago ibilitakoa zenez</b> , [...] eragin gehiago zeukan alde metafisikoan.	Lalande Biran, <b>que había volado más alto en el campo de la poesía y en el del juego</b> [...], era un artista más completo [...].
29	Van Thiegelek, <b>hustuta baitzeukan kopa</b> , botila hartu eta berriro bete zuen.	Van Thiegel, <b>que había vaciado ya su copa</b> , cogió la botella y se volvió a servir.
30	Fotogenia apartekoak, hamabosten bat, Grand Palmier plazara	Los caucheros de fotogenia apropiada [...] fueron llevados a la

<sup>105</sup> Baina kasu inesiboan bakarrik gertatzen da hori; izan ere, beste kasuekin apenas erabiltzen den adberbio hau gaur egun euskaraz.

	eraman zituzten, <b>hasiak baitzeuden apainketa lanak [...]</b> .	Place du Grand Palmier, <b>donde, bajo la supervisión de Lalande Biran, ya habían comenzado las labores de embellecimiento.</b>
31	Lalande Biran kapitaina oinaze batean aurkitu nuen. Antsia egiten zuen, eta eskua lepora eraman nahi zuen, <b>han baitzeukan hozka.</b>	Encontré a Lalande Biran a punto de exhalar el último suspiro. Jadeaba, e intentaba llevarse la mano al cuello, <b>donde tenía la mordedura.</b>

#### 4.2.1.2.6. Modu perpausak

STan, kopuru txikian aurkitu ditugu perpaus modalak, 2 adibidetan bakarrik (%5,9), eta biak ala biak ere -ELA(RIK) atzizkiarekin. Bestalde, bi binomioetan, izen propio bat da XTko klausula erlatiboaren ardatza, eta STan absolutiboan daude izen propio horiek:

32	Donatien beragana zetorren, eta haren atzetik, <b>besoan saski bat zuela</b> , Livo.	Donatien caminaba hacia él, seguido de Livo, <b>que llevaba un cesto en el brazo.</b>
33	Livo Club Royal aldera joaten ikusi zuen, <b>hiru ihizko saski makila batetik zintzilik zeramatzala</b> , baina, tentazioa izan zuen arren, ez zion deitu.	Pensó en hablar con Livo, <b>a quien vio caminar hacia el Club Royal llevando tres cestas colgadas de un palo.</b>

#### 4.2.1.2.7. Bestelako mendeko perpausak

Askoz ere proportzio txikiagoan aurkitu ditugu STan bestelako prozedura sintaktiko batzuk XTko erlatibo esplikatiboen bitartez itzulita, eta horregatik sartu ditugu multzo honen barruan.

##### a. Konparazio perpausak

Adibide batean, konparazio perpaus bat aurkitu dugu euskarazko STn, perpaus erlatibo esplikatibo baten bidez itzulita gaztelaniazko bertsioan:

34	Donatienek zintzuraren taupa-dak sentitu zituen <b>bihotza haraino igo balitzaio bezala</b> , eta bere buruari errepikatu zion [...]	Donatien sintió los latidos de su nuez, <b>que en realidad provenían del corazón</b> , y se dijo que [...]
----	--	--

#### 4.2.1.3. Gehiketa

Azpicorpus honetan ere topatu dugu gehiketa kasurik, alegia, gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatibo batzuk euskarazko STan inolako baliokiderik ez dutenak. Hau da, itzulpenaren testuan jatorrizkoan ez dagoen testu zati bat gehitu da; gehiketa horietako batzuk txikiak dira, perpaus erlatiboak soilik erantsi direlako; baina beste batzuk handiagoak dira, paragrafo osoak direlako erantsi direnak, haien barruan egonik perpaus erlatiboa.

Guztira, honelako 6 adibide topatu ditugu liburu honetan, oso kontuan hartzeko moduko portzentajea, azpicorpus honetatik atera ditugun 40 binomioetatik %15 direlako.

Esan bezala, sei gehiketa kasuetatik lautan, XTko perpaus erlatiboa bera da STan inolako baliokide edo erreferentziarik ez duena; perpaus erlatiboa da XTan gehitu dena:

35	Sumatzen zuten etorkizunean ere hura izan zitekeela irabazle, 100 kartutxoko beste kutxa baten jabe; beste baten edo beste biren, posible zelako Lalande Biran kapitainak saria handitzea.	Sospechaban que no iba a ser el último, que habría más premios, más cartuchos en liza, y que, por la actitud del capitán Lalande Biran, <b>que parecía tenerle una querencia especial</b> , todos acabarían en manos de aquel <i>commençant</i> .
36	[Argazkia] Handia zen tamainaz, eta Christine bainujantzi busti batekin ageri zen bertan, bustita ilea ere, kizkur bat masailean erantsita, sabela lau-laua eta izterrak ere eder-ederrak, atletikoak.	En ella [una fotografía] se veía a Christine, con el bañador mojado, el pelo igualmente mojado, un rizo pegado a la mejilla, el vientre plano y los muslos, hasta las rodillas, <b>donde se interrumpía la foto</b> , atléticos.
37	Grand Palmier plazarantz jo ordez, klubera egin zuela konturatu zen.	Vio que en lugar de dirigirse hacia la Place du Grand Palmier, <b>donde tenía su despacho</b> , se encaminaba directamente hacia el club.
38	Harekin ari zela Donatien azaldu zen kafearekin, eta kapitainak handik alde egiteko agindu zion erretilua berak hartu ondoren. Lassalle eta Richardsonekin bildu zen oster.	Agarró a continuación la bandeja que traía Donatien y fue a reunirse con Lassalle y Richardson, <b>que le esperaban en la Casa de Gobierno</b> .

Azkenik, beste bi kasutan, gaztelaniazko perpaus erlatibo esplikatiboa barruan duen XTko paragrafo osoa edo haren zati handi bat da STan falta dena, eta gehitutakoa testu-zati luzetxoagoa da:

39		Contaban con el apoyo de Livo y de los demás sirvientes, <b>quienes, a cambio de galletas o de salami, vigilaban los alrededores del club a fin de evitar sorpresas.</b>
40	Karta guztiak ondo zetozkion. Oihaneko arriskuez salbu geratzen zen, eta gainera eginkizun haren alderdi goxoenekin jarraitzen zuen.	Estaba en racha, las cartas que le iban llegando eran inmejorables. No era sólo que se libraba de la caminata por la selva, <b>o del riesgo que siempre existía a causa de los parientes de las muchachas, que no se resignaban a que gentes extrañas se las llevaran del mugini;</b> era también que podía seguir saboreando los mejores momentos de la misión.

Gaztelaniazko XTtik atera ditugun perpaus erlatibo esplikatiboen arteko portzentaje handia jatorrizko testuan baliokiderik ez duten gehiketak izateak derrigor garamatza obra honen gaztelaniazko bertsioa autoitzulpenari buruz Lopez Gasenik (2005) aipatutako gehikuntza-prozedurekin lotzera, nahiz eta, gorago ikusi dugun bezala, berau autorearen eta itzultzailearen arteko elkarlanean eginiko itzulpena izan.

#### 4.2.1.4. Ondorioak

Azpicorpus honen azterketatik atera ditugun ondorioak azaltzeari ekin baino lehen, berriro aipatuko dugu bi testuen erkaketak eman dizkigun 40 binomioetatik 34k baino ez digutela uzten egiazko itzulpen-baliokidetasunik aurkitzen, gehiketa adibideak baliogabeak baitzaizkigu helburu horri begira; hortaz, ondoren adierazitako ehunekoak estatistikarako baliagarriak zaizkigun 34 binomio horien arabera ateratakoak dira. Argitasun hori esanda, azpicorpus honetan aurkitutako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

##### 4.2.1.4.1. Ondorio orokorrak

1. Azpicorpus honetan lortu ditugun binomio guztietatik proportzio garrantzitsu batean (%15), XTko perpaus erlatiboek ez dute inolako baliokiderik STan: itzulpenean erantsitako zatiak dira, jatorrizkoan ez dauden gehiketak.

Esan daiteke, beraz, XT hau berez elkarlanean eginiko itzulpena izanik, autoitzulpenen ezaugarri edo itzulpen-estrategia hau partekatzen duela.

2. Bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, desberdintasun handi samarra dago STtik XTra: euskaraz, azpicorpus honetako binomio guztietatik 5etan bakarrik (%14,7) erabiltzen da erlatibozko formaren bat, dela -N erlatiboarekin, dela ZEIN/NON erlatiboarekin; erlatibozko aposizioaren sailean sartu ditugun 7 adibideak ere kontatuz gero<sup>106</sup>, %35,3ra iritsiko litzateke, binomio guztietatik heren ingurura.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTaren parafrasi-adierazlea %64,7koa da.

4. Euskarazko testuan topatu dugun erlatibakuntzaren proportzio txiki horrek badu, gure ustez, zerikusirik gaztelaniazkoan ere dagoen erlatibakuntza proportzio txikiarekin: topatu ditugun 34 PEE adibideek 100 orrialdeko 17tan kokatzen dute maila hori, corpus osoko batez bestekoan (17,7).

5. XTaren parafrasi-adierazlearen tamaina handiak, batez ere, xede-testua gaztelaniaren halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago batera egokitze joera dagoela adierazten du; edo, beste era batera esanda, Touryren "*target-oriented translation*"<sup>107</sup> edo XKra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen du C<sub>1</sub> azpicorpus honetako itzulpena.

#### **4.2.1.4.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak.**

Euskarazko STaren eta gaztelaniazko XTaren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Aposizioa eta perpaus juntadura dira azpicorpus honetako baliabide sintaktikorik erabilienak, diferentzia handi samarra egonik gainontzeko prozeduren erabilera mailarekin:

<sup>106</sup> Aposizio soilak ez ditugu zenbatzen hemen, ez direlako erlatibozko egiturak.

<sup>107</sup> Toury (1995).

<b>Perpaus juntadura</b>	11 binomio	%32,4
<b>Aposizioa</b>	10 binomio	%29,4
<b>Erlatiboa</b>	5 binomio	%14,7
<b>Kausa perpausak</b>	4 binomio	%11,8
<b>Modu perpausak</b>	2 binomio	%5,9
<b>Bestelako mendeko perpausak</b>	Binomio 1	%2,9
<b>Segmentu suborazionalak</b>	Binomio 1	%2,9

2. Perpaus juntaduraren barruan, alborakuntza da gehien topatzen dugun prozedura, binomio guztietatik laurdenean; dexente gutxiago erabiltzen da bi perpausen emendiozko juntadura:

<b>Alborakuntza</b>	9 binomio	%26,5
<b>Emendiozko juntadura</b>	2 binomio	%5,9

3. Aposizioari dagokionez, PE jokatuan oinarritutako erlatibozko aposizioa da erabiliena:

<b>PE jokatuarekiko aposizioa</b>	5 binomio	%14,7
<b>Aposizio soila</b>	3 binomio	%8,8
<b>PE jokatugabearekiko aposizioa</b>	2 binomio	%5,9

3.1. Aposizioan doazen bi segmentuak kasu absolutuan daude adibide guztietan. Idazle honek, beraz, joera du kasu absolutua baino ez erabiltzeko aposizioetan.

3.2. Aposizioan doazen bi segmentuen artean, kasu komunztadura egiten da beti.



4. Perpaus erlatiboen erabilerari dagokionez, erlatibo arrunta da erabiliena, baina haren ehunekoa oso txikia da; bestalde, ZEIN/NON erlatiboaren erabilera guztiz testimoniala da, eta NON formara mugatzen da:


<b>-N erlatiboa</b>	4 binomio	%11,8
<b>ZEIN/NON erlatiboa</b>	Binomio 1	%2,9

5. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio bat duten 13 binomio aurkitu ditugu (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Horietan, badirudi idazle honek joera argia duela prozedura desberdinak erabiltzeko izen propioari itsasten zaion kasu-markaren arabera:

- a. Sei binomiotan, izen propioa kasu absolutiboan dago, eta horietatik lautan (5, 6, 8 eta 10) STan aposizioa topatu dugu XTko klausula esplikatioaren baliokide gisa. Beste bietan (32 eta 33), ordea, modu perpausa erabili da STan.
- b. Gainontzeko 7 binomioetan, STko izen propioak absolutiboa ez beste kasu-marka bat darama; eta XTko klausula erlatiboaren lekuan, alborakuntza topatu dugu bost binomiotan (13, 16, 18, 19 eta 20) eta kausa perpausa beste bietan (28 eta 29).

#### 4.2.1.4.3. Grafika sinoptikoa.

Ondoko irudian ikus ditzakegu modu grafikoagoan azpicorpus honetako XTko erlatibo esplikatioei STan dagozkien jatorrizko baliabide sintaktikoak eta haien erabilera maila:



1. grafika: C<sub>1</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.

#### 4.2.2. C<sub>2</sub> azpicorpusa: Harkaitz Cano, *Twist*

##### 4.2.2.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Harkaitz Cano
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Twist</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Susa (Zarautz)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2011
<b>Orrialdeak:</b>	432
<b>Xede Testua:</b>	<i>Twist</i>
<b>Itzultzaileak:</b>	Gerardo Markuleta
<b>XTren argitaletxea:</b>	Seix Barral (Barcelona)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2013
<b>Orrialdeak:</b>	427
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	88
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	81

C<sub>2</sub> honetan itzulpen alografo batekin egiten dugu topo, hots, idazleak ez beste norbaitek egindako itzulpen batekin, hala ageri da behintzat eleberriaren paratestuetan. Bide batez esana, lehen itzulpen alografoa da idazle honen lanen gaztelaniazko bertsioren artean, ordura arteko guztiak autoitzulpenak dira eta. Guztiarekin ere, El País egunkariari eginiko deklarazio batzuetan<sup>108</sup>, autoreak dio "zati txiki batzuk" berak itzuli zituela. Ezin jakin zein eta zenbat diren zati txiki horiek, baina seguru aski, idazlearen eskuari zor zaizkio, adibidez, azpicorpus honen azterketaren 4.2.2.3. puntuan bildu ditugun zazpi gehiketa kasuak, zeinetan STan ez dauden perpaus erlatibo ez-murrizgarri batzuk gehitu diren XTan. Gehiketa horiek txikiak dira, perpaus erlatibo soilari dagozkio, ez dago eduki narratiboa eransten duen paragrafo berririk, aurreko azpicorpusean ikusi ditugunak bezalakorik; eta, horrenbestez, zazpi kasu horiek XTan aurkitu ditugun adibide guztietatik %7,9raino iristen badira ere, ez dirudi arrazoi nahikoa denik itzulpen hau alografotzat ez hartzeko. Bai ematen du aditzera, ordea, idazle honek, seguru aski corpuseko gainontzekoek eta gaztelaniara itzulita dauden beste euskal idazleek bezala, XTaren kontrola egin duela; izan ere, 3. kapituluko 3.2. puntuan ikusi dugun bezala, euskal idazleak gizarte elebidun batean bizi diren idazle elebidunak dira eta bi literatura-hizkuntza propio dituzte, eta horregatik arazo handiak izaten dituzte itzulpen alografoetan "beren ahotsa" aurkitzeko: «*Cuando empiezas a leer un libro tuyo traducido por otro a veces te cuesta encontrar tu voz*», dio aipatu deklarazioetan autore honek.

Beste alde batetik, XT honetan 100 orrialdeko aurkitu ditugun PEEen kopurua (21) corpus osoko batez bestekoaren gaineratik dago.

Besterik gabe, ikus dezagun zein diren azpicorpus honetan XTan erlatibo esplikatioben bidez itzulita STan aurkitu ditugun prozedurak.

#### 4.2.2.2. STko baliabideak

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

<sup>108</sup> El País, País Vasco, 2013ko martxoaren 16.

#### 4.2.2.2.1. Segmentu suborazionalak

Zortzi kasutan (adibide baliagarri guztietatik %9,9an, beraz), XTko perpaus erlatiboari dagokion STko testu zatia ez da iristen perpaus mailara, segmentu suborazional bat besterik ez baita; kasu gehienetan, adizlagun batetik ateratzen da XTko erlatibodun anplifikazioa, baina baita izenlagun edo izenondo soil batetik edo osagarri zirkunstantzial batetik ere.

Normalean, adibide hauetan ikusten denez, XTn erantsi –edo nolabait esplizitatu– egiten da jatorrizko segmentu suborazionalan ez dagoen aditz forma bat, aditz hori izanik itzulpeneko bertsioan bigarren segmentua perpaus bihurtzen laguntzen duena:

1	Muino batean egotearen traza du eraikinak. Txoriak bakarrik, txoriak ari dira han kanpoan <b>kantari, ezaxola.</b>	El edificio parece estar situado sobre una colina. Afuera solo se oye a los pájaros, <b>que cantan despreocupados.</b>
2	Grabaketaren kalitatea ere hor dago, <b>oso txarra.</b>	También hay que tener en cuenta la calidad de la grabación, <b>que es muy mala.</b>
3	Orduan hasi ziren inurriak agertzen. Inurriak izkina guztietan, <b>hezetasun gehien zuen gorputzeko zatietan hozka.</b>	Entonces empiezan a aparecer las hormigas. Hormigas por todas las esquinas, <b>que le pican en las zonas más húmedas del cuerpo.</b>
4	Xukaderarekin lehortu du Rodrigo Mesak bere buru <b>soiltzen hasia,</b> kopeta zabala.	RM se seca con una toalla su ancha frente y la cabeza, <b>que ya empieza a clarear.</b>
5	<b>Arma kutxen azpiko</b> ordezko gurpila maletategitik atera eta pirritan darama urtegi ertzeko urkietako baten pareraino.	Saca la rueda de recambio, <b>que está debajo de la caja de armas,</b> y la lleva rodando hasta uno de los abedules que hay al borde del pantano.
6	Gero, <b>trakets itzuliak zituen ustean</b> gorriz azpimarratutako pasarteak zuzenduko zituen.	Después enmendaría sus torpezas y corregiría los fragmentos subrayados en rojo, <b>que no le convencían aún del todo.</b>
7	Soto eta Lazkano etzanda dauden lekutik Zeberio ikus dezakete <b>makurtuta,</b> katuak eusten dion Volkswagen furgoitxo herre-naren ondoan gurpil zulatua bere ardatzetik ateratzen.	Desde donde están tumbados Soto y Lazkano pueden ver a Zeberio, <b>que está agachado,</b> sacando de su eje el neumático pinchado del furgón Volkswagen, ligeramente escorado por el gato.
8	Lanera zihuan egun batez, erredakziora sartu aitzin, Victor ikusi zuen <b>bere aurrean oinez.</b>	De camino al trabajo, justo antes de entrar a redacción, vio a Víctor <b>que caminaba unos pasos por</b>

	<b>delante. (sic)</b>
--	-----------------------

#### 4.2.2.2.2. Aposizioa.

Azpicorpus honetako 17 adibidetan (guztietatik %21ean, beraz), aposizioa aurkitzen dugu STan, gaztelaniazko itzulpenean erabili diren perpaus erlatibo esplikatiboen lekuan; bigarren prozedurarik erabiliena da, horrenbestez, perpausen juntadurarekin batera.

Aposizio motetan sartuz, topatu ditugun aposizio guztiak erlatiboetako aposizioak dira, eta guztiak, orobat, -N perpausari mugatzailea eransten diotenak.

Bestalde, aposizioetako kasuari begiratzen badiogu, ia denak kasu absolutuan daude, singular nahiz pluralean; beste lau adibidetan, aurrekaria beste kasu desberdin batean dago, NORR, NOREKIN eta NORI kasuetan.

Azkenik, aurrekaria absolutuan duten binomioetan, komunztadura egiten da adibide guztietan; aldiz, aurrekaria beste kasu batean duten lau binomioetatik bitan komunztadura dago aposizioarekin, baina beste bietan, ordea, ez.

#### a. Erlatiboetako aposizioa.

##### a.1. -N perpausa + mugatzailea:

Perpaus nagusian dagoen ISari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, erlatibo bati mugatzailea itsatsiz, eta, adibide gehienetan, kasu komunztadura egonik bi sintagmen artean; kanpoko ardatzaren kokapenari begiratzen badiogu, ikusiko dugu aposizio-tartekiaren aurre-aurrean edo oso hurbil egoten dela.

Adibide gehienetan, STan aurrekariari eransten zaion aposizioa kasu absolutuan dago, singularrean nahiz pluralean, komunztadura eginez aurrekari horrekin, eta balio ez-murrizgarriarekin.

9	Hiruzpalau astez, Lazkanok bere konpromiso guztiak bertan behera	Durante tres o cuatro semanas, Lazkano anula todos sus
---	--	--

	utzi zituen —liburu berria aurkezten ari zen orduantxe, <b>aurrekoen arrakasta maila erdiesteko itxura guztia zuena.</b>	compromisos —está presentando su último libro, <b>que al parecer lleva camino de superar el éxito de los anteriores.</b>
10	Zorionekoa zu, <b>inoiz amildu ez zarena.</b>	Afortunada tú, <b>que nunca te has despeñado.</b>
11	Bizkarrean eraman behar izan zuen beraz sor-marka, <b>ispiluan hainbestetan begiratu zuena, [...]</b>	Así que se llevó consigo aquella marca silenciosa, <b>que tantas veces miraría desde entonces en el espejo [...]</b>
12	Ez zeukalako gidatzeko baimenik. Gidatzeko baimenik ez izateak aldatu zuelako bere hasierako zeregina, <b>nozitu zuena baino tortura gogorragoak jasatera eta heriotzara eramango zuena.</b>	Porque no tenía permiso de conducir. Porque el hecho de no tenerlo cambió la que iba a ser su misión, <b>que le habría llevado a soportar torturas más duras que las que había sufrido.</b>
13	Patriciarenak, orain "bion" bihurtu ziren udako lagun belaontzidunak, <b>chateau garestietan Aste Santua pasatzera gonbidatzen zituzte-nak.</b>	De Patricia eran también aquellos amigos de veraneo dueños de un velero, <b>que los invitaban a pasar la Semana Santa en ostentosos castillos del valle del Loira.</b>
14	Oroitzen zuen oraindik ere Fallaciren artikulua, <b>Andreottik eragin zion beldurra kontatzen zuena.</b>	Aún recordaba el artículo de Fallaci, <b>en el que contaba el miedo que le había inspirado Andreotti.</b>
15	Laguntzaileetan onena kontratatu beharko zuen, markatik fuerako norbait, <b>ozenki irakurriko zizkiona jasotzen zituen eskuizkribuak.</b>	Debería contratar a la mejor de las ayudantes posibles, alguien fuera de lo común, <b>a cuyas virtudes habría que añadir ahora la capacidad de leer en voz alta todos los manuscritos que recibía.</b>
16	Liburuko grabatu bat erakutsi dio: Melencolia I, 1514koa, <b>askoren ustez Errenazimentu-aren hasiera markatzen duena.</b>	Le ha mostrado un grabado del libro: Melencolia I, de 1514, <b>que según algunos expertos marcaría el inicio del Renacimiento.</b>
17	Roger bera irudikatu zuen, Julio Virado, Diego, Mikel senar ohia. Munduko gizon eta emakume desesperatuak, eta ez hain desesperatuak, <b>atsedentxo eta barealdia behar zutenak euren lanetan.</b>	Imaginó al propio Roger, a Julio Virado, a Diego, a su ex marido Mikel. Hombres y mujeres, seres desesperados y no tan desesperados, <b>que suspiraban por un momento de solaz y descanso en sus labores.</b>
18	Energia nuklearrak beti izan dik halako alderdi sexy bat, jostaria... Lehergailu nuklearraren irakurketa positibo hura, <b>bi piezako bainujantzia bera proba-saio nuklearrak egiten ziren atoloiaren izenarekin bataia-</b>	La energía nuclear siempre ha tenido una faceta sexy, juguetona... Aquella lectura positiva de las bombas nucleares, <b>que llevó a bautizar el traje de baño de dos piezas con el nombre del atolón donde se hacían las pruebas atómicas.</b>

	<b>tzera eraman zuena.</b>	
19	Bere bizitzako bi lagunik onenak baino, ez ote ziren, gero eta gehiago, bere heriotzako lagunik onenak, bere etorkizuneko heriotzako lagunik onenak, <b>bestaldean itxoiten ziotenak?</b>	Zeberio, ¿no habían sido la muerte y la culpa las que los elevaron a esa categoría? ¿No eran acaso, y cada vez más, no ya los mejores amigos de su vida, sino los mejores amigos de su muerte, los mejores amigos de su futura muerte, <b>que lo esperaban pacientemente al otro lado?</b>
20	Madril erdigunean zegoen egunkariaren egoitza, <b>urte hartan berritu eta terraza krista-lezkoa jarri ziotena.</b>	La sede del periódico, <b>que habían renovado para añadirle una terraza acristalada aquel mismo año</b> , se encontraba en pleno centro de Madrid.
21	Eta Ilegorria, <b>ume bat ez dena inolaz</b> , gidari hutsa edo zerbait gehiago ote den galdegin dio Agirre Sesma bitartekariak bere buruari.	Y sobre el Pelirrojo, <b>que no es ningún niño</b> , el mediador Aguirre Sesma se pregunta si será solo un chófer o algo más.

Bestalde, absolutua ez beste kasuren bat duen aposiziorik ere bada azpicorpus honetan, baina ez asko; lau adibide besterik ez, eta horietatik bitan aposizioak komunztadura egiten du aurrekariarekin:

22	Eskailera haiek igotakoan, leiho handi bat ikusi du eta leihora hurbildu ahala besoetatik lotuta daramaten bi gizonek, <b>Fabian eta Fabian, ukondoetatik estu dakartenek</b> , apur bat presioa lasatu dutela iruditu zaio.	Al subir las escaleras ha visto una gran ventana, y le parece que, según se van acercando a ella, los dos hombres, Fabián y Fabián, <b>que lo llevan con los brazos atados y lo atenazan por los codos</b> , aminoran la presión.
23	[...] politika zer den ere frantximant hark erakutsiko bailion, nori eta berari, <b>bizkartzainen itzala urtetan nozitu zuenari.</b>	[...] como si aquel franchute quisiera darle una lección sobre lo que era la política, precisamente a él, <b>que había sufrido durante años la sombra de los guardaespaldas.</b>

Baina beste bi binomiotan, aposizioak ez du komunztadurarik egiten aurrekariarekin, apositzen den sintagma kasu absolutuan agertzen baita:

24	Gero Vargasen andrea ere etorriko da, haren seme bakarrarekin, <b>Sofia eta Teresa baino apur bat zaharragoa eta bere aitaren izen bera izateaz gain, haren kloniko bihurtuko dena denboraren poderioz.</b>	Luego vendrá también la mujer de Vargas, con su único hijo, <b>que, además de ser un poco mayor que Sofía y Teresa y llevar el nombre de su padre, parece destinado a convertirse, con el paso del tiempo, en su clon.</b>
----	---	--

25	Inbidia handiz begiratzzen zien Italian eta Frantzian erositako liburuei, askoz ere hobeto maketatuak eta josiak, <b>beste tradizio batetik arnasa hartu eta beste alegrantzia baten jabe direnak.</b>	Hojeaba con envidia ejemplares adquiridos en Francia e Italia, mucho mejor cosidos y maquetados, <b>que respiraban otra tradición y gozaban de una gracia especial.</b>
----	--	---

#### 4.2.2.2.3. Perpausen juntadura

Perpausen juntadura azpicorpus honetatik atera ditugun adibide baliagarri guztietatik %19,8an aurkitu dugu, hirugarren prozedurarik erabiliena izanik, erlatiboaren eta aposizioaren ondoren.

Topatu ditugun juntadura motak alborakuntza eta emendiozko juntadura dira, haietako lehena izanik erabiliena, %12,4arekin, emendiozko juntadura adibideen %7,4an agertzen delarik.

##### a. Alborakuntza

Perpausak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza 10 binomiotan aurkitu dugu guztira. Kasu guztietan, alboratzen direnak bi perpaus lokabe dira, normalean koma batez banatuta, baina, adibide gutxiagotan, puntua edo puntu eta koma ere ikusten ditugu. Nolanahi ere, alborakuntzan juntatutako bi perpaus edo bi segmentuek multzo semantiko bat bakarra osatzen dute, hori izanik XTan duen egitura (perpaus nagusi baten barruan txertatutako perpaus erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau delarik XTko perpaus erlatiboko aurrekaria.

Kasu gehientsuenetan, STan alboratutako bigarren perpausa da XTan erlatibo batez itzulita agertzen dena eta erlatibo hori, beraz, bukaerako posizioan kokatuta dago, aditz nagusiaren atzean:

26	Tabakoa eskaini dio bitartekariak gidariari. <b>Hark ez dio hartu.</b>	El mediador ofrece tabaco al conductor, <b>que no acepta.</b>
27	Txanda egin dioten gau batean telefonoz hots egin dio aitari,	Una noche en que alguien le sustituye, llama por teléfono a su



	<b>huraxe da bere negozioa.</b>	<b>padre, cuyo negocio es precisamente ése.</b>
28	Buruaz gustura baiezkua egin eta koñaka isuri zuen ipurdi zabaleko edalontzian, entzungor. Gero arrast ingurarazi zion Lazkanori edalontzia. <b>Zintzurrera zuzenean, berak.</b>	AS asiente satisfecho y llena de coñac un vaso de fondo ancho. Luego lo deja muy cerca de Lazkano, <b>que se lo lleva directamente a los labios.</b>
29	Dotore dago Blandy almirantea, galoiak eta izarra mahukan, eta dotore haren andrea ere; <b>merenge edo nataz egindako tartako ondo atomikoaren antzekoa du kapelua andreak.</b>	El porte del admirante Blandy es elegante, igual que el de su mujer, <b>que lleva un sombrero con la misma forma de hongo atómico que la tarta de merengue y nata.</b>
30	Gerra amaitu zenean Bikini atoloietako proba nuklearretan parte hartu zian, <b>ezagun egingo zuen beste esaldi bat ere berari atxikitzen ziotek: "Ez naiz playboy atomiko bat".</b>	Cuando acabó la guerra participó en los ensayos nucleares del atolón Bikini, <b>donde al parecer pronunció otra frase que le haría famoso: «no soy un playboy atómico».</b>
31	Honek ez du bere izaera seduktorea ezkututzen, eta bere oinetara dituen emakumezkoiei ohartarazten die zoritzarreko izango direla bere ondoan, [...] baina hauei berdin zaie, <b>berdin maite dute eskola maisua.</b>	Platónov no oculta su carácter seductor, y advierte a las mujeres que tiene a sus pies de que serán desgraciadas a su lado, [...] pero poco les importa todo esto a ellas, <b>que aman igualmente al maestro de escuela.</b>
32	Barrionuevo Barne ministroaren argazkia dator Eginen azalean, <b>Intxaurrendoko kuartela bisitatzeko izana da bezperan.</b>	En la portada del Egin, una foto del ministro del Interior Barrionuevo, <b>que visitó la víspera el cuartel de Intxaurrendoko.</b>
33	Petrin pertsonaiaren hitzak entzun ditu ezustean, baina Platonov eta Vengerovitx nagusitzen zaizkio, <b>haiengan dauka betazalak beharrezkoa bera ere galarazten dion arreta.</b>	Aunque de vez en cuando una frase suelta de algún otro personaje, como Petrin, consigue atravesar su oído y abrirse camino en su cerebro, prevalecen entre todos ellos Platónov y Venguérovich, <b>que absorben su atención.</b>
34	Sendiak borroka egin beharko du mamuekin. Barkuetan ekarriko dituzten dozenaka psikoanalista argentinarrek, cambalache, siglo veinte, vibrante, bárbaro, <b>borroka egin beharko dute mamuekin.</b>	La familia tendrá que pelearse con los fantasmas. Traerán en barco docenas de psicoanalistas argentinos, cambalache, siglo veinte, vibrante, bárbaro, <b>que tendrán que luchar con los silencios y con los fantasmas.</b>

Beste adibide bakar batean, aldiz, alboratutako lehen perpausetik aterata dago XTko erlatiboa, eta berau tarteki bezala eransten zaio perpaus nagusiari

aditz nagusia baino lehen; bide batez, XTko erlatiboaren aurrekariari STan dagokion erreferentea kasu absolutiboan dagoen izen propio bat da:

35	<b>Soto</b> itsu-itsuan <b>doa</b> <b>aurkariaren porteriarantz</b> , bere gerri jokoari atzeman ezinda ziztuan utzi du bordeles bat atzean.	<b>Soto, que galopa tenaz hacia la meta contraria</b> , deja atrás a uno de los bordeleses.
----	--	---

#### **b. Emendiozko juntadura**

Azpicorpus honetako euskarazko STan 6 binomiotan topatu dugu bi perpausen emendiozko juntadura, hots, juntagailu kopulatiboaz elkartutako bi perpaus, proportzio nahiko txikian.

Kasu guztietan, XTko perpaus erlatiboa STan juntaturiko bigarren perpausetik ateratzen da, baina bada bat (40. binomia) zeinean bigarren perpausa, hala STan nola XTan, tarteki modura itsatsita baitago lehen perpausoko subjektuaren eta aditz nagusi elidituaren artean.

Adibideetan ikusi ahalko den bezala, jatorrizko bertsioko juntadurako lehen predikazioa da itzulpenean perpaus nagusia eta, beraz, esaldiko aditz nagusia perpaus erlatiboaren aurretik kokatuta dago.

Bi adibidetan, XTko erlatiboaren aurrekaria izen bat izan beharrean, aurreko perpaus edo enuntziatu osoa da (*sentential relative*), eta enuntziatu oso hori da STan dagokion erreferentea:

36	Hondarra dago soilguneetan <b>eta horrek sortzen du hanka hutsik joatea posible deneko ilusioa.</b>	Hay arena en los claros, <b>lo cual produce la ilusión de que es posible caminar descalzo por ellos.</b>
37	Hortik Bizkaiko diputaziora <b>eta gero Espainiako gobernuaren delegatu bezala lau urte laurogeiko hamarkadako urterik gogorrenetan.</b>	Se curtió después en la diputación vizcaína, <b>tras lo cual fue nombrado delegado del Gobierno español en los convulsos ochenta.</b>

Gainontzekoetan, XTko aurrekaria lehen perpausoko izen bat besterik ez da, izen propioa bi binomiotan, eta bietan STan izen propioak daraman atzizkia absolutiboa ez beste kasu batekoa da:

38	Aulkiko epailea McEnroeren bizarrak ari da, <b>eta hark txartzat hartzen dio iragarkian iruzkina.</b>	El juez de silla se refiere en el spot a la barba de McEnroe, <b>que se toma a mal el comentario del juez.</b>
39	Gero Vargasi eskaini dio <b>eta hau atezuan jarri da</b> , nagusiak ohiki egiten ez duen bigarren keinua delako.	Luego se la ofrece a Vargas, <b>que se pone en guardia</b> , porque es el segundo gesto poco habitual de su jefe.
40	Danimarkarrak, alemaniarrek, holandarrak... eskuzabalak dituk eskupekoak emateko orduan. Amerikarrak, <b>eta haiek dituk gehiengoa hemen</b> , ez hainbeste.	Daneses, alemanes, holandeses... son los más generosos con las propinas. Los americanos, <b>que son mayoría por estos lares</b> , no tanto.
41	Aise engainatu <b>eta lurrera irrist eginda laga du bigarrena.</b>	Engaña con facilidad al segundo, <b>que resbala y se cae.</b>

#### 4.2.2.2.4. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, perpaus erlatiboak dira gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatiboa erabiliz itzulita euskarazko STan agertzen diren prozedura sintaktikorik erabilienak; 33 adibide topatu ditugu, binomio guztietatik %40,8. Horrenbestez, autore hauxe da, corpuseko autore guztien artean, prozedura hau erabiltzeko joeraren handiagatik bereziki nabarmentzen dena.

Bestetik, erlatibo mota bakarra erabiltzen du, -N perpaus erlatibo arrunta. NON erlatiboa behin ere erabiltzen ez duen bi autoreetako bat da.

##### a. -N erlatiboa

Esan bezala, azpicorpus honetan, -N perpaus erlatibo arruntak baino ez ditugu topatu.

Adibide gehienetan (24 binomiotan), perpaus erlatiboa izen arrunt bati itsatsita dago:

42	Eguzkiak karean sute egiten du eta blai itsutzen da esaneko gizona, <b>berun urtua dirudien</b> brandy trago luzearen bultzada pixgarri alkoholikoak esaten dion bitartean, ez nahi bezain	El sol incendia la cal, y el hombre obediente queda cegado por un instante, mientras el impulso reconfortante del trago de brandy, <b>que parece plomo derretido</b> , le dice, nunca tan consolador como
----	--	---

	kontsolagarri inoiz: —Egin behar huen a egin huen. <sup>109</sup>	uno quisiera: —Hiciste lo que tenías que hacer.
43	<b>Lurrerantz begiratzin zuten</b> bi bahitzaile gazteek ez bezala, buruzagiak begietara begiratu dio.	Al contrario que los dos jóvenes secuestradores, <b>que miran al suelo</b> , el jefe del grupo le mira a los ojos.
44	<b>Bere miopiarako aski graduatuak ez ziruditen</b> betaurreko zikinen gainetik begiratu zion medikuak.	El médico le miró por encima de sus gafas, <b>que parecían de poca graduación para su miopía.</b> <sup>110</sup>
45	<b>Makila itxura zurrunagoa izatera jotzen zuten</b> letra tipoak zeuden batetik, eta biribiltzeko joera zutenak, bestetik.	Por un lado estaban los tipos de letra tipo palo, <b>que tendían a una mayor rigidez</b> , y por otro las que tendían a tornear sus curvas y a redondearse.
46	<b>Lillen literatura unibertsaleko liburuak saldu eta diru harekin alkohola erosten zuen</b> sasoiak akordatu da Diego.	Diego se acordaba de su época en Lille, <b>donde malvendía libros de la literatura universal para comprar alcohol.</b>
47	<b>Frantziako nekazari herrietako etxaldeetan ezkutaturik imajinatu dituen</b> buruzagien buruetan El Salvadorreko krudelkeria eta zenbakiak beti present izango zirela uste izan du beti.	Siempre ha creído que en la mente de los dirigentes de ETA, <b>que él imagina ocultos en granjas de pueblos labriegos de Francia</b> , están muy presentes la crueldad y las cifras comparativas de El Salvador.
48	<b>Domino piezak legetxe, bata bestearen segidan erortzeko zorian ziruditen</b> hortzei arreta inefablea jarriz musukatu zuen Inesen ahoa.	Besó la boca de Inés prestando una atención inefable a sus dientes, <b>que parecían a punto de caer, como piezas de dominó, uno detrás de otro.</b>
49	<b>Bi metroko luzera apenas duen</b> leihotik atera dira biak.	Salen ambos por la ventana, <b>que no tendrá más de dos metros de altura.</b>
50	Lortuko ote zuen bere bizitzako pasio zaharrari uko egin, eta, demagun beti gustuko izan arren <b>sekula haren gainean amateur batek baino haratagoko irizpiderik izan ez zuen</b> operara zaletzea?	¿Lograría renunciar a la antigua pasión de su vida, para aficionarse, pongamos por caso, a la ópera, <b>que siempre le gustó pero de la que nunca tuvo un conocimiento más allá del de un vulgar aficionado?</b>
51	Barkamenaz aritu ziren egun hartan. Lotsaz eta erruaz. <b>Bere burua eskultore baldar bihurtu zuen</b> Enola Gayko kopilotuaz.	Aquel día hablaron del perdón. Del copiloto del Enola Gay, <b>a quien le dio por convertirse en un torpe escultor.</b>
52	Ez omen zeuden <b>senarra</b>	Al parecer, no estaban del todo de

<sup>109</sup> Adibide honetan, zenbatzaile edo artikulua indeterminatu bat elidituta dagoela uler daiteke: “berun urtua dirudien brandy trago luze baten bultzada”; izan ere, aurrekaria (trago) lehen aldiz aipatzen da testuan.

<sup>110</sup> Hemen ere uler daiteke zenbatzaile eliditu bat dagoela: “aski graduatuak ez ziruditen betaurreko zikin batzuen gainetik”; hemen ere lehen aldia da, izan ere, aurrekaria aipatzen dela testuan.

	<b>berrogeita zazpi egun lehenago azken aldiz ikusi zuen</b> amarekin erabat ados.	acuerdo con su madre, <b>que había visto por última vez a su marido hacía cuarenta y siete días.</b>
53	Moketa oliba kolorekoaren soropilak itolarririk gabeko sosegua hedatzen zuen egongela osora, <b>trabarik gabe hamar metro luzatzen zen sabairaino.</b>	El césped de la moqueta verde oliva imprimía un sosiego sin apuro a toda la estancia, y llegaba hasta el techo, <b>que alcanzaría fácilmente los diez metros de altura.</b>
54	Bere senarra aurkeztuko dio, "Hau Fidel da", edo "Fernando", edo auskalo zein izen absurdo izango duen <b>halako emakume ezinezkoarentzat dudarik gabe terrenalegia eta neurritz beherakoa datekeen</b> senar gorrotagarriak.	Le presentará a su marido, «este es Fernando», o «Fidel», vaya usted a saber qué absurdo nombre puede tener el odioso marido, <b>que sin duda no da la talla y resulta demasiado terrenal para una mujer de su impronta.</b>
55	<b>Apenas unibertsitatera azaldu gabe nota altuekin gainditzen zituen</b> filosofia eskolak gutxiegi ziren Sotoren jakingosearentzat.	Las asignaturas de filosofía, <b>que aprobaba con calificaciones altas sin apenas asistir a clase,</b> eran un alimento demasiado escaso para la curiosidad y el ímpetu intelectual de Soto.
56	Hitzik esan gabe egin dute hirurek gosari legea, <b>bere mutilak sasoiak ikusten dituen</b> etxeke andrearen pozerako.	Desayunan los tres sin intercambiar palabra, para regocijo de la señora de la casa, <b>que se alegra de ver en forma a sus muchachos.</b>

Berez goiko sail berean sartzekoak diren beste adibide batzuk badira, baina aparte atera nahi izan ditugu, zeren eta haietan XTan oker ortotipografiko bat dagoela ulertu behar baita, ez dutelako komarik erlatibo nabarmenki esplikatiboa bereizteko; gure ustez, euskal -N erlatiboaren erabilera ez-murrizgarria da itzultzailea hartaratu duena. Nolanahi ere, oker tipografikoa delakoan, erdaraz erlatibo esplikatiboa dutela ondorioztatu eta, esan bezala, azpicorpusean sartu ditugu:

57	Saihetsezur bat gutxiago, zer egingo zaio. Ez da traba handia: bestaldean soberan duzunetarik bat kenduta orekatu da <b>hain garrantzitsua ere ez den</b> simetria.	Una costilla de menos, qué se le va a hacer. No es un gran impedimento: apartas una de las que te sobran en el otro lado, y restableces el equilibrio, la simetría <b>que, por otro lado, tampoco es tan importante.</b>
58	Txema ez da korritu eta Idoiak ahoaz hartu du <b>berriz bere jarioak distirant utzi duen</b> zakilburua.	Chema no se ha corrido, e Idoia toma de nuevo en la boca el glande <b>que su flujo ha dejado reluciente.</b>
59	Musu eman dio Txemari	Besa a Chema en los labios y,

	ezpainetan eta gerritik behera sartu dio jostari bere tanga kiribildua, <b>oskolera itzuli diren</b> barraskilo-barrabil errendituen puzgarri.	juguetona, le mete cintura abajo su tanga enrollado, estímulo para los testículos rendidos <b>que se han vuelto a su concha.</b>
60	<b>Haien falta hainbeste sumatzen duen</b> eguzki izpiekin gogoratzeko modu bat izan da, tarte batez. <sup>111</sup>	Ha sido una forma de recordar, por un momento, los rayos de sol <b>que tanto echa en falta.</b>
61	<b>Ezohiko Kongresua deitzeko eskaera egiteko hots egin zizun</b> Fuchs judas zikinak ere bai?	¿El sucio judas de Fuchs <b>que te llamó para que pidieras la convocatoria de un congreso extraordinario?</b>
62	Gero eta nazka handiagoa hartu die elkarrizketak aurrera egin ahala, <b>haren janzkera garesti baina gusturik gabeari [...]</b> itxura gaztea eman nahian <b>gehiegi orrazten ez duen</b> kalpar beltzez tindatuari.	La repulsión que siente Idoia por Virado va en aumento; [...] por su cabellera teñida de negro <b>que no peina en exceso con la pretensión de dar una imagen más juvenil sin conseguirlo.</b>
63	Nola ahaztu bere ondoko besaulkiaren beso egurrezkoan dagoen esku hura, azazkalak hain ongi zainduak dituen huraxe bere gorputzean ibili zela, <b>zamalkatzen zuen bitartean oharkabean atera zen</b> zakila oratu zuela berriro ere aluan sartzeko.	Cómo olvidar que aquella mano que reposa en el brazo de la butaca adyacente, aquella misma que tan bien tiene cuidadas las uñas y que recorrió su cuerpo acariciándolo, tomó su miembro erecto <b>que inesperadamente se deslizó hacia fuera</b> y lo volvió a introducir en su interior para seguir cabalgándolo.

Beste bi adibidetan, erlatiboa itsatsita daukan izen arruntak erakuslea darama:

64	<b>Orduraino hain fruitu onak eman zituen</b> prozedura hura itzaltzen hasi eta Agirre Sesma abokatuak eta bere taldeak preso politikoak bergizarteratzeko irekitako bidea asko zaildu zen.	Aquella vía, <b>que tan buenos frutos había dado hasta entonces,</b> comenzó a languidecer, y la vía abierta por AS y su grupo para reinsertar a los presos políticos se complicó mucho.
65	Norenak ziren, Franco jenera-larenak ez beste, <b>aginte makila eskuan, diktadoreek posta-zigilu, kale-estatua eta argazkietan ageri ohi duten</b>	¿De quién eran, sino del general Franco, aquellos ojos a escala mayor de la natural, <b>que lo miraban de frente con el temible aspecto que los</b>

<sup>111</sup> Adibide honetan, erlatiboa ez-murrizgarria dela ulertzen dugu, eguzki izpiak (guztiak, alegia) direlako faltan aurkitzen dituenak, ez halako batzuk bakarrik; hots, ez dago inolako azpimultzo-bereizketarik. Bestalde, ez da gure azterketari dagokion kontua, baina erlatibo erresuntibo bat da hemen aurkitzen duguna.

	<b>argizarizko itxura beldurgarri-arekin aurrez aurre so egiten zioten</b> eskala erreaz gairako begi haiek?	<b>dictadores suelen mostrar en sellos postales, estatuas callejeras y retratos?</b>
--	--	--

Beste lau kasutan, izen propio batez eta aposizioan jarritako izen arrunt batez osatutako multzo bat da perpaus erlatiboaren ardatza; bi binomiotan, ardatz horren kasua absolutiboa da, eta beste bietan beste kasu-marka bat darama:

66	<b>Larru-aldia bera ere atzeratzera eramango zuen</b> Taittinger (sic) botila apar-jarioz, Fontechak pozarren bete ditu bi kopak. <sup>112</sup>	Con la botella de Taittinger — <b>que los llevará incluso a posponer el sexo</b> — chorreando espuma, Fontecha llena dos copas.
67	Galdera hauek mahai gainean jarri nahi izan ditu Gloria Fumica artistak <b>polemiko izatera deitua dagoen Arratoiak</b> instalazioan. <sup>113</sup>	La artista Gloria Fumica ha querido poner sobre la mesa estas y otras preguntas mediante su instalación Ratas, <b>que está llamada a ser polémica.</b>
68	Javier Fontechak <b>gas-burbuilak apaldu zaizkion</b> Taittinger (sic) kopa hartu du telebista gaineratik.	Javier Fontecha recoge de encima del televisor la copa de Taittinger, <b>que ha perdido sus burbujas.</b>
69	Idoia, berriz, burbuila baten barruan sentitzen zen, <b>berre ondoan paratzen zenean mutu geratzen zen</b> Pilar bekadunaren ondoan deseroso, baina ez zekien burbuila hura nola zulatatu.	Idoia, por su parte, atrapada en una burbuja que no acertaba a hacer explotar, se incomodaba ante la becaria, Pilar, <b>que enmudecía cuando estaba a su lado.</b>

Azkenik, bost adibidetan, erlatiboazko perpausaren ardatza izen propio soila da:

70	Marokoarren auto zamatuaren ilara itzelek zezen-larrua zehar-katzen dute [...], <b>autoko barras-kilosabaian olana estuz trakets bildurik daramaten altzari pila erraldoiari eusten dioten</b> Citroën, Peugeot eta Renault zaharren pneumatiko gastatuek asfaltoarekin duten kontaktua baino	Los marroquíes cruzan la piel de toro [...] sin mayor relación con la dura superficie de Castilla que la que tienen con el asfalto los neumáticos gastados de sus viejos Citroën, Peugeot y Renault, <b>que soportan el montón de trastos torpemente apilados sobre la baca.</b>
----	---	--

<sup>112</sup> Hemen ere gertatzen da aurreko kasuetan bezala, zenbatzaile baten elipsia dagoela, alegia: "**Larru-aldia bera ere atzeratzera eramango zuen Taittinger botila bat**", lehen aldiz aipatzen baita testuan.

<sup>113</sup> Aurreko kasu bera.

	harreman handiagorik izan gabe Castillaren larru gogorrarekin.	
71	<b>Berak hainbeste miresten zituen</b> Soto eta Zeberiorekin buruz buru mintzatzeko gai zela.	Era capaz de hablar de tú a tú con Soto y Zeberio, <b>a los que tanto admiraba.</b>
72	Rodrigo Mesak, <b>hilzorian dagoen</b> Vargasek eta portu-gesekin ibili ziren beste hainbatek espetxean bolada bat eman beharko dute?	¿Rodrigo Mesa, Vargas <b>—que está agonizante—</b> y otros cuantos que actuaron con los portugueses tendrán que pasar una temporada en la cárcel?
73	Eromenarekin zian zerikusia, <b>sortzaileei hainbeste eragiten dien Saturnorekin.</b>	Se relacionaba con la locura, con Saturno, <b>que tanto parece influir a los creadores.</b>
74	[...] <b>kontrako porteria zainduz dagoen</b> Lazkanori.	Mira también a Lazkano, <b>que cuida la portería contraria.</b>

#### 4.2.2.2.5. Bestelako mendeko perpausak

Askoz ere proportzio txikiagoan aurkitu ditugu STan bestelako prozedura sintaktiko batzuk XTko erlatibo esplikatiboen bitartez itzulita. Baita kausa eta modu perpausak ere, beste azpicorpus batzuetan erabilera-maila handia izan arren; horregatik sartu ditugu sail honetan, aparteko bat egin beharrean.

##### a. Kausa perpausak

Liburu honetan, autoreak apenas erabiltzen duen kausa perpausik XTko itzultzaileak erlatibo esplikatiboa erabili duen kasuetan; adibide bat besterik ez dugu ikusi, eta, zehazki, ETA enklitikoarekin:

75	Lehen aldia zen aurrez aurre zeukatena. Idoiak eta Rogerrek bai behintzat, <b>aurki ohartu dira-eta Victorrekin egona dela lehenago ere</b> , konfiantzaz tapakatu baitio sorbalda.	Es la primera vez que lo tienen frente a frente. Al menos en el caso de Idoia y de Roger, <b>que enseguida se han percatado de que a Victor debe de conocerlo</b> , ya que le ha palmeado el hombro amisto-samente.
----	---	---

##### b. Modu perpausak

Gaztelaniaz, perpaus erlatibo esplikatiboek duten beste funtzio bat haiei dagokien erreferenteari buruzko zertzelada zirkunstantzial bat eranstea izaten da, eta, horregatik, euskarazko testuetan modu perpausak ere topatzen ditugu erdarazko erlatibo esplikatiboen lekuan. Dena den, azpicorpus honetan, hiru



adibidetan bakarrik aurkitu dugu perpaus hauen erabilera, hirurak partizipioari instrumentalaren -Z marka gehituz:

76	Inesen gerri kolpeak medio gero eta zailagoa zaio bere kasa mugitzea, [...] eta neskaren titiburua <b>bibliotekako hiru-garren apala modu erakuslean seinalatuz</b> , Cristobal Colon hatzarekin Amerika nola, "literatura eta plazera beti eskutik izan ditiat nik", darabil Fedek buruan [...]	Debido a los golpes de cintura de Inés le resulta cada vez más difícil moverse, [...] y el pezón derecho de la chica, <b>que sigue señalando la tercera estantería de la biblioteca</b> , como un dedo índice, el dedo de Cristóbal Colón que señala América, ahí lo tenéis, «nunca he podido separar placer y literatura», razona Fede [...]
77	Baina egunero iristen ziren gehiago, <b>orgatan literatura potentzial geruza berriak sortuz</b> .	No pasaba un día sin que recibiesen más sobres, <b>que creaban inevitablemente en los carritos nuevas capas tectónicas de literatura potencial</b> .
78	Aita lurrera erori da, <b>udako mahaia txikituz bere erortzean</b> .	Su padre cae redondo, y aterriza sobre la mesa del jardín, <b>que cede y se rompe bajo su peso</b> .

### c. Denbora perpausak

Bi binomiotan, STko perpaus nagusiari itsatsitako denbora perpaus batetik atera du itzultzaileak XTko perpaus erlatiboa; bi adibideetan, kokapen bereborean ageri dira bertsio bakoitzeko mendeko perpausa:

79	Eztabaida ez da berria, baina gaur gauean berriro atera da kontua hamarretako emanal-diaren ondotik, <b>Lazkanok esaldietako bat, oharkabea, euskaraz bota duenean gazte-lerazko emanaldiaren erdian</b> .	La discusión no es nueva, pero vuelve a surgir después de la representación de las diez, <b>en la que Lazkano, inadvertidamente, ha soltado una frase en euskera en plena actuación en castellano</b> .
80	Garai bateko gorputz eta kurba perfektuak baztertuan izan ziren, "benetako" gorputzen eta aurpegiaren errealismo eta egiantza-ren mesede, <b>genero amateurrek eta gonzoak sinesgarri eta domestikoa zen sexu gigabyte mordoa sarean erabiltzaileen esku jarri zutenetik</b> .	Las curvas perfectas y los cuerpos diez de antaño habían sido relegados en parte para favorecer el realismo y la verosimilitud de cuerpos y caras «de verdad», gracias al género amateur y al gonzo, <b>que habían puesto en la red a disposición del usuario infinidad de gigabytes de sexo doméstico y naturalista</b> .

**d. Adierazpen perpaus osagarriak**

Kasu bakarrean, adierazpen perpaus osagarri bat aurkitu dugu euskarazko testuan, itzulpen parafrastiko baten bidez perpaus erlatibo bihurtua XTn:

81	Agirre Sesmak garbi esan zion familiak eskatu behar zuela, familia zela lehenbizi, <b>errespetu osoa zor zitzaiela.</b>	Aguirre Sesma le había dejado bien claro que era la familia quien debía solicitarlo, lo primero era la familia, <b>que se merecía todo el respeto.</b>
----	---	--

**4.2.2.3. Gehiketa**

Azpicorpus honetan ere topatu dugu gehiketa kasurik, alegia, gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatibo batzuk euskarazko STan inolako baliokiderik ez dutenak. Hau da, jatorrizkoan ez dagoen testu zati bat gehitu da itzulpenaren testuan; gehiketa txikiak dira, perpaus erlatiboa soilik eransten dutenak.

82	Josep Ramoneda zen aurkezpen lanetan, bere termita-ahots sarkorrarekin.	La presentación corría a cargo de Josep Ramoneda, <b>que la resolvió con solvencia</b> , con su profunda voz de termita.
83	Gloriaren erreteneko lurrina sakona izan zen istant batez.	Un olor penetrante, nada cosmético, <b>que es el de Gloria, que se mezcla con la espiral de su propia excitación.</b>
84	Soto eta Zeberio, bi desagertu bazituen lehendik ere buruan eta gero aita desagertu zitzaion, ez modu zentzuzkoan orain zekienez.	Soto y Zeberio, aquellos dos desaparecidos ya lo atormentaban bastante, y a ellos tuvo que añadir luego a su padre, <b>que se había ido sin dejar rastro</b> , no desapareciendo de forma inevitable según sabía ahora.
85	Diego Lazkanok whisky irlandar botila bat gorde zuen soilik, garaikur gisara. Lilletik hona, etxe-aldaketa guztien biziraule, egundo ez zuen edan.	Diego Lazkano guardó solamente una botella de whisky irlandés, a modo de trofeo. Una botella que no abrió jamás y que sobrevivió a todas las mudanzas desde Lille, <b>que no habían sido pocas.</b>
86	Gloriarekin hitz egiteko premia erne zitzaion. Telefonoz hots egin zion, garai bateko ohitura alderantzikatuz.	Se moría de ganas de hablar con Gloria. Marcó su teléfono, invirtiendo la costumbre de antaño, <b>que hacía que siempre fuese ella quien le llamase a deshoras.</b>
87	Generalisimoaren zalea zen	Su padre, <b>que en paz descanse</b> , era

	Gloriaren aita, bazenekien?	un ferviente admirador del Generalísimo... ¿lo sabía?
88	"Lastima euskaraz ez jakitea", otu zitzaion Federi, ederra baitzen haren azentu ekuador-tarrarekin Hemingwayren <i>Hil-tzaileak</i> entzutea.	«Lástima que no sepa euskera», pensó Fede, comprobando cómo la entonación ecuatoriana abría un nuevo universo de connotaciones al cuento <i>Los asesinos</i> de Ernest Hemingway <b>que había elegido al azar.</b> (sic) <sup>114</sup>

Zazpi adibideok azpicorpus honetatik atera ditugun adibide guztien %7,9 dira, ehuneko txikia, baina aditzera ematen diguna idazleak partehartze zuzena izan duela itzulpen-prozesun eta berridazketa batzuk bederen egin dituela. Nolanahi, tesi honen helburu nagusia izanik corpuseko euskal idazleek zer egitura sintaktiko erabiltzen duten aztertzea, egitura horien erabilerari buruzko azterketa kuantitatibotik kanpo utzi ditugu gehiketa hauen adibideak.

#### 4.2.2.4. Ondorioak

Azpicorpus honen azterketatik ateratako ondorioak azaltzeari ekin aurretik, argitasun txiki bat eman behar dugu, ondoan zehaztu ditugun ehunekoei buruz; izan ere, testu honetan bildu ditugun 88 binomioetatik, 81ek baino ez digute uzten egiazko itzulpen-baliokidetasunik aurkitzen, gehiketa adibideak baliogabeak baitzaizkigu helburu horri begira; hortaz, ondoren adierazitako ehunekoak estatistikarako baliagarriak zaizkigun 81 binomio horien arabera ateratakoak dira. Argitasun hori esanda, azpicorpus honetatik ateratako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

##### 4.2.2.4.1. Ondorio orokorrak

1. Azpicorpus honetan guztira lortu ditugun 88 binomioetatik 7tan (%7,9), XTko perpaus erlatiboek ez dute inolako baliokiderik STan; alegia, itzulpenean erantsitako zatiak dira, jatorrizkoan ez dauden gehiketak. Gehiketa txikiak dira, perpaus erlatiboa soilik eransten dutenak, baina bat ez datozenak itzulpen alografo baten ustezko ezaugarriekin. Hala ere, gehiketen kopurua txiki samarra izanda, ez dugu uste arazorik dagoenik itzulpen hau alografotzat

<sup>114</sup> Iruditzen zaigu adibide honetan ere akats ortografiko bat dagoela gaztelaniazko bertsioan, perpaus erlatiboak koma batez banatuta egon behar duelako, aipatzen duen ipuina ipuin ondo zehaztua baita.

jotzeko, nahiz argi egon idazlearen halako lankidetz-maila txiki bat ere egon den.

2. Bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, desberdintasun handi samarra dago STtik XTra: azpicorpus honetatik atera ditugun 81 binomioetatik 33tan (%40,8) topatu dugu erlatibozko formaren baten erabilera STan, -N erlatiboa nagusiki; erlatibozko aposizioaren sailean sartu ditugun 17 adibideak ere kontatuz gero, %61,7ra iritsiko litzateke.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTaren parafraasi-adierazlea %38,3koa da.

4. Azpicorpus honetako STaren egileak aztertu ditugun beste autore batzuek baino estilo hipotaktiko handiagoa duela dirudi, adibideen erdian (40 binomiotan) menderakuntza motaren bat topatu dugu-eta euskarazko testuan.

5. XTaren parafraasi-adierazlearen tamainak eta, neurri apur bat txikiagoan, PEEen 100 orrialdeko proportzioak XTa gaztelaniaren halako kanon sintaktiko-estilistikora eta haren erlatibakuntza-sistemaren ezaugarrietara egokitzeko joera erakusten dute; edo, beste era batera esanda, Touryren *“target-oriented translation”*<sup>115</sup> edo XKra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen du azpicorpus honetako itzulpena.

#### 4.2.2.4.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak.

STaren eta XTaren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Erlatiboa da STan gehienbat aurkitzen dugun prozedura, eta haren ondoren, neurri txikiagoan, aposizioa eta perpausen juntadura, biak hein berean; azkenik, XTko erlatibo kasu nahiko atera dira segmentu suborazional txikien anplifikaziotik:

<b>Erlatiboa</b>	33 binomio	%40,8
------------------	---------------	-------

<sup>115</sup> Gideon Toury (1995).

<b>Aposizioa</b>	17 binomio	%21
<b>Perpaus juntadura</b>	16 binomio	%19,8
<b>Segmentu suborazionalak</b>	8 binomio	% 9,9
<b>Bestelako mendeko perpausak</b>	7 binomio	% 8,5

2. Perpaus erlatiboen erabilerari dagokionez, autore honek -N perpaus erlatibo arruntak baino ez ditu erabiltzen, ez du PE jokatu gaberik ezta ZEIN/NON erlatiborik ere erabiltzen.

3. Aposizioari dagokionez ere, forma bakarra erabiltzen du, erlatibozko aposizioa.

- a. Aposizioan doazen bi segmentuak absolutiboan daude adibide gehienetan, 13 binomiotan zehazki. Beste lau binomioetako kasuak NORK, NORI (bi aldiz) eta NOREKIN dira. Beraz, idazle honek ere joera du batez ere kasu absolutua erabiltzeko aposizioetan, baina bestelako kasuak ere erabiltzen ditu.
- b. Aposizioan doazen bi segmentuen artean, kasu-komunztadura egiten da ia beti, bi binomiotan izan ezik, batean lehen segmentua NORI kasuan dagoelarik, eta bestean NOREKIN kasuan.

4. Perpaus juntadurari dagokionez, alborakuntza da formarik erabiliena, emendiozko juntaduraren gainetik:

<b>Alborakuntza</b>	10 binomio	%12,4
<b>Emendiozko juntadura</b>	6 binomio	% 7,4

5. Gainerako mendeko perpausen erabilerari dagokionez, denek dute erabilera maila oso apala, aipagarria iruditzen zaigularik STko kausa perpausetatik ateratako XTko erlatibo esplikatiboen proportzio txikia, bai behintzat beste azpicorpusekin konparatuta:

<b>Modu perpausak</b>	3 binomio	%3,7
<b>Denbora perpausak</b>	2 binomio	%2,4
<b>Kausa perpausak</b>	binomio 1	%1,2
<b>Adierazpen perpaus osagarriak</b>	binomio 1	%1,2

6. Erreferentziakide edo izen ardatz gisa izen propio bat duten 19 binomio aurkitu ditugu (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Horietan, badirudi idazle honek joera nahiko argia duela prozedura desberdinak erabiltzeko izen propioari itsasten zaion kasu-markaren arabera:

- a. [-N erlatiboa + izen propioa] egitura bost binomiotan erabiltzen du (70-74 binomioak, biak barne). Adibide horietan guztietan, izen propioa absolutiboa ez beste kasu batean dago.
- b. [-N erlatiboa + izen propioa + aposizioa] egitura lau binomiotan agertu zaigu. Haietatik bitan, (66 eta 68) izen propioaren kasu marka absolutiboarena da; beste bi adibideetan (67 eta 69), ISari itsatsitako kasu-marka absolutiboa ez beste batekoa da.
- c. Binomio bakarrean (21) topatu dugu aposizioa, eta bertan izen propio funtzioa duena kasu absolutiboan dago.
- d. Beste sei binomiotan, XTko klausula esplikatioaren baliokidea beste prozedura sintaktiko ez-erlatibo bat da: bi binomiotan (7 eta 8), segmentu suborazional bat; hiru binomiotan, alborakuntza, izen propioa kasu absolutuan egonik bi binomiotan (33 eta 35), eta beste kasu batean 28. binomioan; beste hiru adibideetan, izen propioak beste kasu-marka bat darama eta STko klausula baliokidea juntatutako perpaus bat da bi binomiotan (38 eta 39) eta kausa perpaus bat 75. binomioan.

#### 4.2.2.4.3. Grafika sinoptikoa.

Ondoko irudian ikus ditzakegu modu grafikoagoan azpicorpus STan XTko erlatibo esplikatiboetarako STan dagozkien jatorrizko baliabide sintaktikoak eta haien erabilera maila:



2. grafika: C<sub>2</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.

### 4.2.3. C<sub>3</sub> azpicorpusa: Unai Elorriaga, *SPrako tranbia*

#### 4.2.3.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Unai Elorriaga
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>SPrako tranbia</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Elkar (Donostia)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2001
<b>Orrialdeak:</b>	153
<b>Xede Testua:</b>	<i>Un tranvía en SP</i>
<b>Itzultzaileak:</b>	Unai Elorriaga
<b>XTren argitaletxea:</b>	Alfaguara (Barcelona)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2003
<b>Orrialdeak:</b>	173
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	4
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	0

Gaztelaniazko bertsioko paratestuetan jasotzen den bezala, C<sub>3</sub> deitu dugun azpicorpus honetakoa autoitzulpena da, autore honek argitaratu dituen gainontzeko eleberri guztietan gertatzen den era berean.

Idazle honen *Van't Hoffen ilea*-ren itzulpena plazaratu zenean El País egunkariak argitaratutako elkarrizketa batean<sup>116</sup>, autoreak deklaratu zuen ez liokeela inori utziko bere lanak gaztelaniara itzultzen, «*porque sé lo que es traducir*», hau da, lanbidez itzultzailea delako. Badirudi itzultzaileei beti exijitu zaien fideltasunagatik-edo (berak “traducción directa” deitzen dio) duela iritzi hori, zeren elkarrizketa horretan bertan argi uzten baitu nolako estrategiak erabiltzen dituen bere autoitzulpenetan: «*Lo que había conseguido en euskera era un estilo, y tenía que conseguir el mismo tono en castellano. Lo que lograba en euskera con dos palabras, en castellano necesitaba una frase de dos a tres líneas. Haciendo la traducción directa quedaba espantoso*».

<sup>116</sup> El País, 2003ko martxoaren 21a.



Geroago, Senez itzulpen-aldizkarian egileak argitara emandako artikulu batean, azalpen luzeagoa ematen du horretaz, eta bere jarrera argi eta garbi uzten duen ondorioa ematen du:

Itzulpen literarioaren ardatza, nire ustez, honakoa da: espiritu berari eustea jatorrizko testuan eta itzulpenean. Horretarako, baina, eta artikulu honetan argi geratu denez, forma bera goitik behera eraldatu behar izaten da batzuetan. Itzultzaile arrotz batek, ordea, ezin du halakorik egin (idazlearen beraren baimena ez badauka behintzat). Hori guzti hori kontuan hartuta, beti sumatu izan dut inork ezin duela idazleak berak baino itzulpen egokiagorik egin, betiere itzulpena munduko gauzarik inperfektuena dela onartuta (Elorriaga, 2008: 186).

Azpicorpus honetako xede-testua aztertutik, jatorrizkoaren eraldakuntza hori ez dugu antzeman maila sintaktikoan behinik behin, ez behintzat XT horretako PEEen bila joan garenean; izan ere, gaztelaniako bertsioan lau PEE baino ez ditugu aurkitu, eta, gainera, lauak erabilezinak dira gure azterketarako, lau perpaus erlatibo horiek gehiketak direlako, STan ez dauden segmentuak, alegia. Eta oso PEE gutxi aurkitu ditugu, STan ere sintaxi oso sinplea (perpaus konpletiboen ugaritasun oso handiarekin) eta egitura parataktikoetan oinarritua erabiltzen duelako idazleak.

Beraz, kasu honetan autoitzulpen batekin topo egiten badugu ere (aipatu gehiketa horietan islatzen den bezala, besteak beste), liburu honetako itzulpenean hain PEE gutxi egoteak STaren sintaxia errespetatu egin dela pentsarazi beharko liguke, bai behintzat beste azpicorpus batzuetan ikusi dugun kontrako joerarekin alderatuta. Beharbada, ustezko kontraesan hori askatzeko bidea aipatu ditugun erreferentzia bibliografikoetan kausi dezakegu, autoreak iradokitzen duenean batez ere lexikoan eta semantikari darion doinuan zentratzen duela bi hizkuntzen arteko desberdintasunengatik egin beharrekoa iruditzen zaion egokitzapena (edo "eraldaketa", bere hitza erabiliz), eta, beraz, autoitzulpena; "iluntze" hitzaren itzulpenari buruz dioena izan daiteke adibide egokia: *«itzultzeko errazagoa den arren, ez ninduen asetzen 'El anochecer' itzulpenak. Poetikoegia iruditzen zitzaidan, erabiliegia, egunaren banaketari zentzu estetikoegia ematen zion (euskaraz, ordea, eguneroko hitza da "iluntzea"; "Iluntzeko bederatzietan heltzen da egunero etxera"...). Gauza bera esateko, beraz, esaldi inozo bat bilatu nuen gaztelaniaz, konnotazio poetiko guztiak baztertzeko. Asteak pentsatzen egon eta gero, honela itzuli nuen:*

'Cuando el día empieza a dejar de ser día' (kapituluren batean aldakiren bat ematen dut: 'Cuando el día empieza a ser más noche que día')».

Bestalde, XTan topatu ditugun PEEak hain gutxi izanik, 100 orrialdeko portzentajea ere C<sub>0</sub> osoko txikiena da (2,2), C<sub>3</sub> azpicorpusarekin batera. Gai-nera, gorago esan bezala, azpicorpus honetarako binomio baliagarririk ez zaigu agertu eta, beraz, XTko PEEen euskarazko baliokiderik ez dugunez, C<sub>3</sub> azpicorpusari buruzko azterketa konparatiboa egiterik ez daukagu. Topatu ditugun lau gehiketa-adibideak emango ditugu ondoren, besterik ez.

#### 4.2.3.2. Gehiketa

Honako hauek dira topatu ditugun lau kasuak:

1	Gozo begiratu zion nebari. Ospitaleetan azukrezkoak dira begirada guztiak; egiten zuen beroagatik edo erizainek egin behar dutena ondo dakitelako.	María se quedó mirando a su hermano, <b>que pensaba, seguramente, en las olimpiadas y en las ciudades que habían tenido olimpiadas.</b>
2	Maria ohera hurbildu eta, aulkian eseri aurretik, inspekzio akustikoa pasatuko ez lukeen musu bat eman zion.	María se sentó en la silla y se quitó el abrigo; en vez de hacerlo al revés, <b>lo cual habría sido más cómodo e incluso más estético.</b>
3	Atsegina da, batzuetan. Ez bazaizkizu oinak izozten behintzat.	Está bien, a veces. Si no se te congelan los pies, o las manos, o los dedos de las manos, <b>que es lo más común.</b>
4	Ezerk ez du garrantzirik. Neure burua abandonatzeko zorira heldu naiz... Kangchenjunga-k oso txarto tratatu nau.	No me importa nada; llego hasta el punto de abandonarme, de no resistir, <b>que es lo que nunca debe ocurrirle a un himalayista.</b> Conmigo el Kangchenjunga se ha portado muy mal.

#### 4.2.3.3. Ondorioak

C<sub>3</sub> azpicorpus honetan hain PEE gutxi aurkitu dugunez, zentzu gehiegirik ez du gure ustez besteetan egin duguna bezalako azterketa kuantitatiboa egiteak, eta, horregatik, C<sub>9</sub> azpicorpusarekin batera azterketaren atal horretatik eta azpicorpus desberdinen arteko konparaketatik kanpo uztea erabaki dugu.

Hala ere, kasu honetako itzulpenaren tipologiaren eta XTko erlatibakuntza-joeraren arteko harremanaren ikuspegitik, bai iruditzen zaigu interesgarria izan daitekeela bi ondorio azpimarratzea:

1. Goian emandako arrazoietan oinarrituta, XT hau azpicorpus honetako testua Touryren "*source-oriented translation*" edo SHra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatu behar dugu; edo, bestela esanda, XTak nahiko maila handian islatzen ditu STaren jatorrizko joera sintaktiko-estilistikoak.

2. Bestetik, autoitzulpena izateak ez du eragin halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago baterako jauzia. Ezin esan daiteke, beraz, autoitzulpenetan beti eta maila guztietan topatzen denik XHaren onargarritasunari begirako moldaketarik.

#### 4.2.4. C<sub>4</sub> azpicorpusa: Anjel Lertxundi, *Azkenaz beste*

##### 4.2.4.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Anjel Lertxundi
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Azkenaz beste</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Alberdania (Irun)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1996
<b>Orrialdeak:</b>	224
<b>Xede Testua:</b>	<i>Un final para Nora</i>
<b>Itzultzaileak:</b>	Jorge Giménez Bech
<b>XTren argitaletxea:</b>	Alfaguara (Barcelona)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1999
<b>Orrialdeak:</b>	256
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	97
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	97

C<sub>4</sub> deitu dugun azpicorpus honetan ere itzulpen alografo batekin egiten dugu topo, hala ageri da behintzat eleberriaren paratestuetan. Autore honek aspaldi utzia du bere lanak gaztelaniara itzultzeko eginkizuna azpicorpus honetako itzultzailearengan, eta zorionez, gainera, badugu idazle honen lanetatik itzultzaile honek egiten duen itzulpen-prozesuari buruzko bibliografiarik, bataren eta bestearen gogoetekin (Egia, 1999; Aierbe, 2008; Manterola, 2012: 87).

Egiaren artikuluan autoreak bere lanak ez itzultzeko dituen arrazioak aletzen ditu, eta nagusiki arrazoi horiek bere estiloarekin dute zerikusirik, nagusiki: ez lukeela asmatuko literaturgile-karrera luze batean zehar landutako bere euskarazko estiloa ematen gaztelaniaz, ez duelako estilo hori garatu gaztelaniaz. C<sub>3</sub> azpicorpusetako idazle autoitzultzailearen kontrako kasua da, hain zuzen: hark itzulpen alografo batean "bere ahotsa" ezin duelako aurkitu jotzen bazuen autoitzulpena, hemengo idazle honek, aldiz, itzulpen alografo bat nahiago du, "bere ahotsa" ezingo lukeelako aurkitu bere autoitzulpen

batean, ahots hori SHn soilik eraiki duelako eta euskarazkoa bakarrik izan daitekeelako «testu kanonikoa», bere hitzak erabiliz. Hortik aurrera, idazleak espero duena da itzultzaileak «*benetan ahots bat indibidualizatzea*», hartara «*doinu neutro*» batean ez erortzeko, eta horretarako autonomia osoa ematen dio «*berak nahi edo ahal duen eran nire ahotsa gaztelera aldatzeko*» (Egia, 1999: 121), nahiz eta gero ahots indibidualizatu hori, ezinbestez, “arrotz” sentitzen jarraitzen duen, elkarrizketan bai idazleak, bai itzultzaileak ere diotenaren arabera, hizkuntza normalizatuetako itzulpengintzan ohikoa izaten den bezala, elkarrizketan esaten denez. Gure ustez, autorearen adierazpen horiek Polisistemen teorian, Touryk eta Even-Zoharrek aipatzen duten *onargarritasun* kontzeptura makurtzen dute argi eta garbi autorearen iritzia, XSan baliokide baina onargarri den estilo bat aurkitu nahi baitu, nahiz eta Aierbek (2008: 28) uste duen bi teoriarari horien *egokitasun* kontzeptua dela Lertxundik gaztelaniara egiten dizkioten itzulpenetan hobesten duena, batez ere jatorrizko testuarekiko leialtasunagatik nahiago duelakoan bere lanak itzultzeko eginkizuna beste norbaiten esku uztea. Gure ustez, ordea, Lertxundik dioena da berak ez dituela egin nahi autoitzulpenetan euskal idazleek egin ohi dituzten manipulazioak, eta horregatik esaten du nahiago duela itzultzailearekiko leialtasuna: «*Beste hizkuntza batera translazioa egiteko garaian arazo horiek saihets ditzake idazleak eta hori uste dut euskararen eta gure egoeran, itzulpengintzan egiten ari den lan izugarriaren aurrean, ez litzatekeela leial jokatzea izango itzultzaileekiko*» (Egia, 1999: 115).

Hortaz, argi dago itzulpen alografo baten aurrean gaudela C<sub>4</sub> azpicorpus honetan. Hala eta guztiz ere, idazleak eta itzultzaileak diotenari jarraituz, kasu honetako itzulpena ez da itzultzaileek bakarka egin ohi dituztenak bezalakoa, itzultzaileak sorkuntza-prozesuan bertan parte hartzen baitu nolabait: «*Nire itzultzaileak ez bakarrik ezagutzen du nire obra barrutik, ezagutzen du baita ere obra egiten ari naizenean, obraren sorkuntza prozesua bera bizitzen du nirekin batera*». Idazlearen eta itzultzailearen lan harremana oso estua den arren, ez dirudi arrazoi nahikoa denik esateko “kolaborazioan eginiko itzulpena” kontzeptuaren barruan sartu behar denik itzulpen hau.

Gainera, gure tesiaren aztergaiarekin lotuz, itzulpen honen izaera alografikoarekin bat datorren datu bat badago: XTaren biluzketan agertu

zaizkigun PEEen artean ez dagoela gehiketa kasu bakar bat ere, eta beraz ez dirudi idazleak tentazioa eduki duenik itzultzailearen lanean oinarritu eta testua bere gustura berridazteko. Horrenbestez, azpicorpus honetan osatu ahal izan ditugun binomio guzti-guztiak baliagarriak zaizkigu bi testuen arteko baliokidetasun traduktologikoak antzemateko eta alderaketa sintaktiko-estilistikoa egiteko. Baina gero badago beste datu esanguratsu bat,  $C_4$  hau corpus osoko beste azpicorpus gehienen aldean bereizi egiten duena: XT honetantxe aurkitu dugu PEE kopururik handienetan bigarrena (97) eta, batez ere, 100 orrialdeko proportziorik handiena (38). Geroagoko azterketan ikusi beharko dugu ea datu hori idazlearen erlatibakuntza-joerarekin lotzekoa ote den ala itzultzailearen estiloari zor ote zaion.

Ikus dezagun, besterik gabe, zein diren azpicorpus honetan XTan erlatibo esplikatioben bidez itzulita STan aurkitu ditugun prozedurak.

#### 4.2.4.2. STko baliabideak

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### 4.2.4.2.1. Segmentu suborazionalak

Hamaika kasutan (adibide guztietatik %11,3an, beraz), XTko perpaus erlatiboari dagokion STko testu zatia ez da iristen perpaus mailara, segmentu suborazional bat besterik ez baita; kasu gehienetan, osagarri zirkunstantzial batetik ateratzen da XTko erlatiboa, baina baita izenlagun edo izenondo soil batetik edo izen sintagma batetik ere.

Normalean, adibide hauetan ikusten denez, XTan erantsi –edo nolabait esplizitatu– egiten da jatorrizko segmentu suborazionalan ez dagoen aditz forma bat, aditz hori izanik itzulpeneko bertsioan bigarren segmentua perpaus bihurtzen laguntzen duena:

1	Haizeak	harroturiko	hauts-	La voráGINE de polvo que seguía a la
---	---------	-------------	--------	--------------------------------------

	zirimolak harturik zeukan Norak gogo, <b>sentimendu eta burutazio nahaspilatuez beterik.</b>	calesa parecía haber invadido el ánimo de Nora, <b>que se debatía entre sensaciones e ideas contrapuestas.</b>
2	Horregatik gelditu gara —erantzun zidan gizonak. Adin onaren muga aspaldi gaitua, ile urdindu, erretako aurpegi etena eta <b>sukartu batena zirudien bekoskoa ageri zituen.</b>	Ése y no otro es el motivo de nuestra parada —me respondió el hombre. Estaba a las puertas de la vejez, y el pelo cano apenas dulcificaba su rostro curtido y agrietado, <b>en el que dominaba una mirada afiebrada.</b>
3	—Nahi duan eran deitu. Entretenitu egingo hau sikiera —eta kokotsa jaso zuen <b>makulu-kirtenetik.</b>	—Por lo menos, esas pesquisas te mantendrían entretenido —y levantó la barbilla, <b>que hasta entonces había mantenido apoyada sobre el pomo del bastón.</b>
4	Gizonak eztarritik gora igo berri zitzaien karkasa ahoan oretu, eta tu egin zuen lurrerantz <b>piparen beste aldeko ezpain artetik.</b>	Éste escupió al suelo, tras darle unas vueltas en la boca, la flema que le acababa de subir por la garganta, <b>para lo cual no necesitó desplazar su pipa de su sempiterno emplazamiento en la comisura izquierda.</b>
5	Andreas ikusi zuen une hartan <b>ontzigainetik sukaldera bitarteko eskaileretan behera.</b>	En ese momento vio a Andreas, <b>quien bajaba las escaleras que comunicaban la cubierta con la cocina.</b>
6	[...] airean utzi zuen esatera zihonana, ordurako kalesaren ingurura hurbiltzen ari baitziren muinoko soldaduak. Musuzapi batez erdi estalirik zeuzkaten aurpegiak, azala eta begiak erretzen baitzi-tuen zebilen haize <b>zakarrak.</b>	[...] la proximidad de los jinetes le impidió continuar. Los soldados se cubrían la nariz y la boca con un pañuelo para protegerse del ardiente viento, <b>que arreciaba por momentos.</b>
7	Mugagaitz zegoen mutilaren aurpegikera: doi-doi antzematen zitzaion ezpain-dardara baizik ez, <b>kolore-bizitasunik gabeko aho zimelduan.</b>	La expresión del rostro del joven era indefinible: apenas se le adivinaba un leve temblor en los labios fruncidos, <b>de los que había desaparecido todo brillo.</b>
8	Andreasek berak berebiziko liluraz hitz egin ez zion, bada, barride juduaz? Enkajezko gortinak leihoetan; geranio gorri-gorriak balkoiko egur landuzko barandan, <b>leihoetako markoen eta barandaren beraren berde biziarekin kontrastean.</b>	¿No era el propio Andreas quien le había hablado con entusiasmo del barrio judío? Cortinas de encaje en las ventanas; balcones con baranda de madera tallada, <b>en los que unos rojísimos geranios contrastaban con el vivo verde de las propias barandas y de los marcos de las ventanas.</b>
9	Ez zuten kortesiazko esapideez beste askorik hitz egin, eta Mathildek <b>zorura begira eta</b>	Apenas cruzaron unas frases de cortesía, mientras Nora acariciaba la mano de Mathilde, <b>que no alzaba</b>

	Norak eskua igurzten ziola egin zuten denbora pixka bat.	<b>la mirada del suelo.</b>
10	Astuna egiten zitzaion senarraren beti gailurretik begiratu behar babesle hura, <b>garder ses distances hitzekin arindutako zerbitzarienganako jarrera hotza.</b>	Le resultaba pesada aquella actitud de protectora superioridad que adoptaba a veces su marido, <b>que acostumbraba a camuflar la frialdad hacia los sirvientes bajo la expresión "garder ses distances".</b>
11	Begien aurrez aurre zeukan belaontzia, eta saihasen karraskotsak senti zitzakeen, <b>partitzeko tenorean.</b>	Estaba ya muy cerca del velero, y podía oír el crujido del casco de madera, <b>que anunciaba la partida.</b>

#### 4.2.4.2.2. Aposizioa

Azpicorpus honetan, oso nabarmena da STko autoreak aposizioa ez erabiltzeko duen joera, bi adibide besterik ez dugu-eta aurkitu (%2,1).

Aposizio motetan sartuz, topatu ditugun bi aposizioak erlatiboazko aposizioak dira, -N erlatiboarekin osatuak alegia, baina desberdinak perpaus erlatiboari eransten dioten osagaiari dagokionez.

Eta, azkenik, bi adibideetan, perpaus erlatiboaren kanpoko ardatzak eta aposizioak kasu komunztadura egiten dute, behin kasu absolutuan, eta beste behin erlatiboan.

##### a. Erlatiboazko aposizioa.

##### a.1. -N perpausa + mugatzailea

Perpaus nagusian dagoen izen sintagmari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, erlatibo bati mugatzailea itsatsiz. Adibide bakarra topatu dugu, kasu absolutuan, komunztadura egonik bi sintagmen artean.

12	Ezin zuen Andreas salatu, bere ezohiko egoera, <b>munduan aitak beste inork ulertuko ez zuena,</b> agerian utzi gabe.	No podía denunciar a Andreas sin dejar al descubierto su particularísima situación, <b>que sólo su padre podía comprender.</b>
----	---	--

##### a.2. -N perpausa + erakuslea:



Perpau nagusian dagoen izen sintagmari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, perpau erlatiboari erakusle anaforikoa itsatsiz. Adibide bakarra topatu dugu hemen ere, kasu erlatiboan, komunztadura egonik bi sintagmen artean.

13	Horra zein etekin emango dizuten urreek, <b>gaztetandik arduraz zaindu dituzun horiek.</b>	Ésas serán para ti tus mercaderías, <b>por las que te has fatigado desde tu juventud.</b>
----	--	---

#### 4.2.4.2.3. Perpauen juntadura

Perpauen juntadura azpicorpus honetatik atera ditugun adibide guztietatik %39,2an aurkitu dugu; beraz, gehien erabilitako prozedura sintaktikoa da.

Bestalde, hiru juntadura mota aurkitu ditugu STan, alborakuntza, emendiozko juntadura eta aurkaritzazko juntadura, eta haietatik erabiliena emendiozko juntadura da, azpicorpus honetan gehien erabiltzen den bigarren baliabide sintaktikoaren –erlatiboaren– maila berean, geroago ikusiko dugun bezala.

##### a. Alborakuntza

Perpauak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza 16 binomiotan aurkitu dugu guztira, hau da, adibide guztietatik (%16,5). Gehienetan, alboratutako bi perpauak perpau lokabeak dira eta puntu batez banatuta daude, baina koma eta puntu eta koma ere ikusten ditugu adibide banatan. Nolanahi ere, alborakuntzan juntatutako bi perpau edo bi segmentuek multzo semantiko bat bakarri osatzen dute, hori izanik XTan duen egitura (perpau nagusi baten barruan txertatutako perpau erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, alborakuntzako bi perpauak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau izaten delarik –binomio gehienetan– XTko perpau erlatiboko aurrekaria.

**a.1.** Kasu gehientsuenetan, STan alboratutako bigarren perpaua da XTan erlatibo batez itzulita agertzen dena eta erlatibo hori bukaerako posizioan kokatuta egoten da, aditz nagusiaren atzean:

14	Gero eta urrunago sentitzen zuen aita, <b>gero eta arrotzagoa zitzaion haren hoztasuna.</b>	Se veía cada vez más alejada de su padre, <b>cuya frialdad le resultaba más ajena de día en día.</b>
15	Kateme zuri eder bat sartu zen ate-zirrikitutik gelara, eta jauzi egin zuen ohe gainera. <b>Nathanielen kontra kiribildu zen.</b>	Una hermosa gata blanca se coló en la habitación por la rendija de la puerta y saltó sobre la cama, <b>donde se acurrucó contra Nathaniel.</b>
16	Sotoetara jaitsi ziren gero. <b>Ehundaka kotoi-bala zeuden pilaturik bertan,</b> eta [...]	Luego bajaron a la bodega, <b>donde se apilaban cientos de balas de algodón,</b> y [...]
17	Barre egin zuen Andreasek, agureak une hartan huraxe sentitu nahi ziola konturaturik. <b>Noraren aitak gogotsu hartu zituen Andreasen algarak.</b>	Andreas se echó a reír, sin dudar de que esa era la reacción que deseaba el anciano, <b>quien, efectivamente, recibió con satisfacción sus carcajadas.</b>
18	Andreasek, zalantza labur baten ondoren, neskaren eskua hartu zuen. <b>Dantza-pauso batzuk markatzen hasi zen Nora.</b>	El marino, tras una breve duda, tomó la mano de la muchacha, <b>que empezó a marcar unos pasos de baile.</b>
19	Mathilderi begiratu zion gero. <b>Leihoaren eta mahaiaren artean zegoen emaztea,</b> eta haren gorputzaren isla difuminatzen zuen gelako argi motelak.	Miró a Mathilde, <b>que estaba de pie entre la ventana y la mesa.</b> La débil luz que filtraba la cortina difuminaba su silueta.
20	[...] Willemengana joan zen. <b>Erreberentzia doi bat egin zion, belaunak pitin bat makurturik.</b>	[...] se acercó a Willem, <b>a quien hizo una leve reverencia doblando ligeramente las rodillas.</b>
21	Mathildereren diskrezio huraxe estimatzen zuen, bestalde, Norak. <b>Ez zuen instant bakar batez ere burutik galtzen bere etorkizunaren noraeza, senak adierazten baitzion iritsiko zela Mathildereren babesa galduko zuen eguna.</b>	Esa discreción era, por otra parte, lo que más estimaba Nora, <b>quien, advertida por su instinto de que algún día perdería el amparo de Mathilde, no dejaba un solo instante de tener bien presente la incertidumbre que se cernía sobre su futuro.</b>
22	Goraka eta pozez hartu zituzten gonbidatuek markesaren hitzak, Mathildereren masailak gorrituaraziz. <b>Willemi begiratu zion emakumeak,</b> haren iritzia jakiteko. Baiezkoa egin zion senarrak [...]	Los invitados acogieron con un alegre aplauso las palabras del anfitrión, provocando el inmediato sonrojo de Mathilde, <b>que miró a su marido.</b> Willem asintió [...]
23	—Nik Berliozena bezala, zeuk ere izango duzu pieza maite-maite bat bihotzean, Velasco jauna — argudiatu zuen Mathil-dek. <b>Emakumeari ez zitzaion oharkabea pasatu Velascoren</b>	—Tal como yo la de Berlioz, también usted guardará en su corazón una pieza predilecta, señor Velasco — argumentó Mathilde, <b>que pudo ver cómo se nublaban los ojos del médico.</b>

	<b>begietan pilatu zen lausoa.</b>	
24	Noraren aitak ukabilkada amorratua eman zuen mahai gainean. <b>Norak erabilitako basoak jauzi txiki bat egin zuen.</b>	—¡Mejor en la calesa! —replicó, huraño, el padre de Nora, dando un rabioso puñetazo en la mesa, <b>que hizo saltar el vaso de su hija.</b>
25	Burua jaso eta pipadun gizonarengana jiratu zuen. <b>Borreroak sekulako deiadarra bota zuen, pipa ahotik kendu ere egin gabe.</b>	Levantó la cabeza, girándose hacia el verdugo, <b>quien, sin quitarse la pipa de la boca, profirió un agudo grito.</b>
26	Andreasek, dibertiturik, neskaren edalontzia erdi bete zuen berriro. <b>Norak bi ekinalditan hustu zuen basoa.</b>	Andreas, divertido, llenó de nuevo hasta la mitad el vaso de Nora, <b>quien lo vació de dos tragos, sin toser.</b>
27	Norak mutilarengana jaso zituen begiak. <b>Ordurako Andreas lanean hasita zegoen kementsu.</b>	Nora levantó los ojos hacia Andreas, <b>que ya había comenzado a afanarse en las tareas de a bordo.</b>

Aipatzekoa da azken hiru binomioetan STko bigarren perpausean dagoen izena dela XTko erlatiboaren aurrekari literala, lehen perpausean dagoen erreferentea baliokide semantiko bat izanik.

Bestalde, aipagarria iruditzen zaigu ezen, STan alborakuntza darabilten binomioetatik bost adibidetan bi perpausen erreferentziakidea (XTko klausula erlatiboaren izen ardatzaren baliokidea, alegia) izen propioa dela, eta adibide guztietan izen propio horren kasu-marka absolutiboa ez beste batekoa dela. Gure ustez, badago harremanik izen propioen kasu-markaren eta idazleak aukeratutako prozedura sintaktikoaren artean, beste azpicorpus batzuetan ere aipatu dugun bezala.

a.2. Beste adibide batean, aldiz, alborakuntzako lehen perpausetik atera da XTko perpaus erlatiboa, baina, berez, segmentu berbera da, bi segmentuak alderantziz daudelako bi bertsoetan:

28	Aitarekin elkartzeko itxaropena! <b>Noiz bananduko, eta aitak behingoagatik kondenaren zergatia aitortu nahi zion egunean!</b> Fortunaren zikoitza!	¡La esperanza de reunirse con su padre! ¡Mezquina Fortuna, <b>que la separaba de su padre justo la víspera del día en que éste iba a revelar, por fin, la razón de su condena!</b>
----	---	--

**a.3.** Azkenik, badago azken kasu bat, multzo honetan sartu duguna, perpausen alborakuntzarekin baduelako antzik, Garziak (2015: 76) dioen bezala, nahiz eta, berez, eta Garziaren beraren terminologia erabiliz, tarteki-aparte bat den, berariaz parentesi batez markatua, zehazki:

29	Kontakizunaren puntu horretara heldu zenean, jiratu eta senarrari begiratu zion Mathildek irribarrretsua. Keinu burlaizetsua egin zion gero, segidan zetorrena ( <b>senarrak, adiskide aduanari batekin egotetik itzuleran, neska aurkitu zuen bere ohean; emaz-tea zuelakoan, haren ondoan etzatera zihoala, Mathilde ager-tu zen bainugelatik belar-ur ba-tez</b> ) kontatu behar ote zuen edo baimena eskaturik.	Mathilde se giró hacia Willem con una sonrisa cómplice en los labios, como si para proseguir su narración precisara del permiso de su marido, <b>quien, recién llegado al hotel tras visitar a un amigo aduanero, había encontrado a la muchacha en su cama; pensando que se trataba de su mujer, se disponía a acostarse junto a ella, cuando Mathilde apareció con una infusión.</b>
----	---	--

Alborakuntzan bezala, adibide honetan ere XTko perpaus erlatiboa perpaus lokabea da euskarazko bertsioan (berez, perpaus bat baino gehiago dago, argi dagoenez, baina gure helbururako horrek ez du axola handiegirik), baina STan tartekiko testu-zati hori ez dago, berez, gainon-tzekoaren maila berean, beheragoko mailan baizik.

### **b. Emendiozko juntadura**

Juntadura mota hauxe da azpicorpus honetako euskarazko STan gehien erabilia ikusi dugun egitura sintaktikoa (21 binomio, guztietatik %21,6), erlatiboarekin batera.

Alborakuntzan bezala, XTko perpaus erlatiboa STan juntaturiko bi perpausetako edozeinetik ateratzen da, lehenengo perpausetik nahiz bigarrenetik, baina kasu gehiago dira bigarrenetik ateratakoak:

#### **b.1. Lehenengo perpausetik:**

30	Frantsesez egindako elkarren arteko diosalen ondoren, lur haietan ibiltzeko baimen-agiria	Tras un saludo, el que parecía mandar la patrulla les pidió el salvoconducto necesario para viajar
----	---	--

	eskatu zien soldaduburu ematen zuenak. <b>Sudurreraino jasorik zeukan musuzapia</b> , eta hizketamodu ilundu batez hitz egiten zuen.	por aquellas tierras. El pañuelo, <b>que sólo le dejaba a la vista los ojos</b> , daba a su voz un tono sombrío.
31	<b>Nire laidoaren biktima egin nuen Kristo</b> , eta hark hilezkor egin ninduen.	Cristo, <b>que fue víctima del escarnio</b> , me hizo sobrehumano.
32	Noraren aitak antzar-luma hartu eta tintontzian sartu zuen. Gero, ezpainak mihiaz busti, <b>mihipunta ahoaren ezkerraldera eraman</b> , eta, hura horzkatu, paper gainera makurtu zen idazten hasteko.	El padre de Nora tomó la pluma y la mojó en el tintero. A continuación, mordiéndose la punta de la lengua, <b>que le asomaba por la comisura izquierda de los labios</b> , se inclinó sobre el papel, dispuesto para escribir.

Hiru adibideotan ikusten den bezala, izen ardatz edo erreferenteari dagokion lehen predikazioa da XTn tarteki apositibo modura txertatuta dagoena, erlatiboazko perpaus batez, esaldiko aditz nagusia baino lehen, STko bigarren perpaus edo predikazioa izanik, beraz, itzulpenean perpaus nagusizat ematen dena. Hortaz, XTn aditz nagusia perpaus erlatiboaren ondoren doa.

## b.2. Bigarren perpausetik:

Azpicorpus honetan, XTko perpaus erlatiboa STko juntadurako bigarren perpausetik aterata dago kasurik gehienetan; eta haien barruan, bi tipologia desberdin edo bi itzulpen-baliokidetasun desberdin topatu ditugu:

**b.2.1.** Bost adibidetan, XTko erlatiboaren aurrekaria izen bat izan beharrean, aurreko perpaus edo enuntziatu osoa da (*sentential relative*), eta enuntziatu oso hori da STn dagokion erreferentea:

33	Nire fantasia ezkutuenetako edertasuna zuen kalesako alabak. Velascoren aurpegia, berriz, aitak, <b>eta ez zen harritzekoa, baltsamatzailea-ren grabatua eskuetan nuela hartu baininduen loak.</b>	La muchacha de la calesa poseía una belleza que sólo me ha sido dado contemplar en mis más ocultas fantasías. El rostro del padre, por otra parte, se correspondía punto por punto con el de Velasco, <b>lo cual no era de extrañar, pues me había quedado dormido con el grabado en las manos.</b>
34	Arta-zirtzilak apalean txukuntxukun jarri, gerrialdea pixka bat jaso, <b>eta soinekoa egokitu zuen</b>	Una vez hubo recuperado la posición normal, se dedicó a acomodar pulcramente en el estante los objetos

	<b>ipur-masailetan.</b> <sup>117</sup>	que la sacudida había hecho caer, <b>tras lo cual se alisó el vestido.</b>
35	Willemek gelan igarotzen zituen eguneko ordurik gehienak bere paper, gutun eta liburuen artean, <b>eta otorduetan doi ikusten zuen Norak.</b>	Willem salía muy poco de la habitación, siempre sumergido en sus papeles, cartas y libros, <b>por lo que Nora sólo lo veía en las comidas.</b>
36	Aitak ez zituen batere gogoko naturaren kontrakotzat zeuzkan apainketa haiek, <b>eta Norak ez zuen masailak hautseztatzeko, edo ezpainak eta ezpainen ondoko orinak margotzeko ohiturarik.</b>	Su padre abominaba de aquellos afeites, que consideraba antinaturales, <b>por lo que Nora no tenía costumbre de empolvarse las mejillas, ni de pintarse los labios o disimularse las pecas.</b>
37	Hotel hartatik eta Mathilderengatik (sic) oso urruti zeukan gogo, <b>eta ezin eskertu zuen, merezitako neurrian, emakume ezezagun hura beragatik egiten ari zena.</b>	Su espíritu vagaba muy lejos de aquel hotel y de Mathilde, <b>por lo que no le fue posible agradecer en todo su valor lo que aquella mujer, desconocida hasta hacía tan poco, estaba haciendo por ella.</b>

**b.2.2.** Adibide gehienetan, ordea, STko juntadurako bigarren perpausetik aterata dagoenean XTko erlatiboa, lehen segmentuko izen bat besterik ez da STko erreferentea:

38	Borreroaren pipako kea bihurritu zitzaion eztarrian <b>eta eztulka hasi zen ferratzailea.</b>	El humo de la pipa que el verdugo fumaba constantemente irritó la garganta del herrero, <b>quien comenzó a toser.</b>
39	[...] hasiera batean galdera hura pentsatu izanak izutu egin bazuen ere, gero eta toki erosoagoa hartzen ari zen zalantza hura Noraren bihotzean, <b>eta etsitzen hasita zegoen galdera hura laster helduko zela baieztapen izatera:</b> "Munduak bezain axola gutxi diot nik!".	Si bien en otro tiempo esa pregunta la habría atemorizado sobremanera, la duda iba hallando cada vez mejor acomodo en el corazón de Nora, <b>que veía próximo el momento de ver aquella pregunta convertida en rotunda afirmación:</b> "¡Le importo tan poco como el mundo!".
40	Giza lotsaren ur horrek zerabilen, harrezkero, Nathaniel Hawthorenen errota, <b>eta bere burua ikusten zuen, epaile-jantzian eta urkamendi bateko oholtza gainean [...]</b>	Desde entonces, una profunda vergüenza rebullía en el alma de Nathaniel Hawthorne, <b>quien, en sus cada vez más frecuentes pesadillas, se veía a sí mismo vestido de juez sobre un patíbulo.</b>

<sup>117</sup> Adibide honetan, argi ikusten da halako manipulazio bat egin dela itzulpen parafrastikoan, XTrako ustez nahi den estiloarekin bat ez datorren osagai narratibo bat (*ipur-masailak* bereziki) ezabatuz.

41	—Nathaniel! Zer gertatzen zaizu? —Iarritu zitzaion arreba, <b>eta ohe ondoko olio-lanpara piztu zuen.</b>	—¡Nathaniel! ¿Qué te ocurre? —se alarmó su hermana, <b>que ya encendía la lámpara de aceite próxima a la cama.</b>
42	Hasiera batean hatz-puntaz ezabatu nahi izaten zituen euri-tantak, baina tinta zabaldu <b>eta akuareletakoen gisako mantxa beltzen isla barreiatzen zela</b> ikusirik, ordutik ez zituen euri-tantak ukitu ere egiten [...]	Al principio se esforzaba en secar las gotas con la yema de los dedos, pero comprobó enseguida que no lograba sino correr la tinta, <b>que formaba una mancha parecida al trazo de la acuarela.</b>
43	Andreasek, beso bat neskaren bizkar gainetik besaperaino pasaturik, sukalde ondoko gelara eramán zuen, <b>eta ohatzean sartu zuen.</b>	Andreas pasó un brazo por la cintura de la muchacha y la llevó al camarote, <b>donde la acostó en el catre.</b>
44	Galderaren egun haietako batean, orduen joan gero eta astiroagoa arindu nahi eta, Hawthorne-ren liburuarekin entretenitzen hasi zen ordu luzeak, <b>eta ez zuen liburuaren laguntza modukorik aurkitzen bere baitako kalapita neketsu haiek entretenitzeko garaian.</b>	Para entretener las largas horas, cada vez más lentas, regresó a la lectura del libro de Hawthorne, <b>que se le antojaba la mejor ayuda para aliviar su fatigoso caos interior.</b>
45	Mathildereren bakarraldi luzeen makulu isila bihurtu zen, bada, Nora, <b>eta hoteleko areto publikoetan entretenitzen zituzten egunaren hondarrak.</b>	La silenciosa presencia de Nora confortaba a Mathilde en las largas soledades del hotel, <b>que ambas trataban de distraer en las dependencias públicas de la planta baja.</b>
46	Mathildek inoiz kartetan egiten bazuen ere, pianoa jotzea zuen ekimenik usuena, <b>eta oso aire jostaria ematen zien Rameau eta Boieldieu-ren piezei.</b>	Mathilde, de vez en cuando, jugaba a las cartas, pero su entretenimiento preferido era tocar el piano, <b>en el que imprimía un aire muy ameno a las piezas de Rameau y Boieldieu.</b>
47	Baritono ahotseko gizonak, bere longainaren ertza jatorik, airean keinu zeremoniatsua egin zuen Mathilderi pasoa emanaz, <b>eta emakumeak ad libitum jostari bati ekin zion glissando eginez teklekin [...]</b>	El barítono alzó el borde de su capa con ceremonioso ademán para dar el paso a Mathilde, <b>quien emprendió un desenfadado ad libitum deslizando los dedos por el teclado en un delicado glissando [...]</b>
48	Balkoiko atea zeukaten bi emakumeek aurrez aurre, guztiz zabalik. Ilargiaren itxura onkotea zegoen atearen erdi-erdian, <b>eta haren distira urdinak betetzen zuen atearen tarte osoa.</b>	El balcón, abierto de par en par, mostraba la bondadosa silueta de la luna, <b>que llenaba de una luz azulada el hueco de la puerta.</b>

49	Emakumeak Norari begiratu zion, eta hark buru-mugimendu lijerra egin zuen Mathildereren arreta eskertzeko.	Ella miró a Nora, <b>que le agradeció su atención con un ligero movimiento de cabeza.</b>
50	Garoz eta orbelaz estalirik zegoen zorua, eta soinu kraskaria ateratzen zuten Noraren pausoek.	El suelo estaba cubierto de hojarasca, <b>que crujía bajo los pasos de Nora.</b>

Bestalde, prozedura honen kasuan ere aipagarria iruditzen zaigu ezen, STn juntadura darabilten binomioetatik sei adibidetan bi perpaus juntatuen erreferentziakidea (XTko klausula erlatiboaren izen ardatzaren baliokidea, alegia) izen propioa dela, eta adibide horietatik lautuan izen propio horren kasu-marka absolutiboa ez beste batekoa dela, beste bi adibideetako izen propioak kasu absolutiboan daudelarik.

### c. Aurkaritzazko juntadura

Adibide bakarra aurkitu dugu azpicorpus osoan eta, b.2.1. puntuan bezala, hemen ere XTko lehen perpaus osoa da erlatiboaren kanpoko ardatza (*sentential relative*), eta, beraz, STko bigarren perpausetik aterata dago XTko erlatiboa:

51	Higiduren eraginez sokak gero eta estuago inguratzen zion gorputza, baina ez zuen itomenik.	La cuerda, a causa de las sacudidas, la oprimía cada vez más, <b>a pesar de lo cual respiraba con normalidad.</b>
----	---	---

#### 4.2.4.2.4. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, oro har, erlatibo mota desberdinak dira gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatiboa erabiliz itzulita euskarazko STan agertzen diren prozedura sintaktikoen arteko bigarren multzorik handiena, %21,6arekin; erlatibo motarik erabiliena -N perpaus arruntak dira eta, ondoren, PE jokatu gabe arruntak; ZEIN/NON erlatiboa, aldiz, adibide bakarrean baino ez dugu aurkitu.

#### a. -N erlatiboa



Esan bezala, hau da erlatibo motarik erabiliena azpicorpus honetan, 14 adibiderek (guztietatik %14,4). Kasu guztietan, perpaus erlatiboaren aurrekaria izen arrunta da.

**a.1.** Zortzi adibidetan, perpaus erlatiboaren aurrekaria izen arrunt soila besterik ez da:

52	<b>Ulm-eko katedralean gordetzen omen dituzten Ashaverus-en zapatak jantzi</b> , eta nire bihotzaren orpo-orpotik atera nahi nuen sinbologia haren bidea egiten hasi behar nuela.	En suma: yo no estaría haciendo otra cosa que revivir ese periplo mitológico, calzado con los zapatos de Ashaverus, <b>que, según la tradición, se conservan en la catedral de Ulm.</b>
53	Marmarka hasi zen, katakumeak kendu dizkioten katama baten egonezinez. Ez zuela deus ikustekorik <b>ozta-ozta ezagutzen zituen</b> urkatu berriekin.	Farfulló un alegato apenas inteligible. Negaba tener nada que ver con las mujeres recién ahorcadas, <b>a las que dijo conocer sólo de vista.</b>
54	Zure laguntza eskergak eta <b>ontziari izena eman dion</b> zure alabak ere merezi dute etorkizunaren esker ona.	El futuro te estará agradecido por tu inapreciable ayuda, y también a tu hija, <b>que ha dado nombre a mi nave.</b>
55	Ez zioten tintik ere atera, ez zuen bere izenik ere ematen, eta Willementzat nabarmena bazen ere neskak galdua zuela memoria, <b>zurrunbilotsutzat zeukan</b> Mathildereren gehiegizko imajinazioak izuari edo sekretu bat gorde nahiari egozten zion neskaren mutualdia.	No le habían sacado ni una palabra, ni siquiera su nombre, y, aunque para Willem estaba claro que había perdido la memoria, la imaginación de Mathilde, <b>que él consideraba excesiva</b> , achacaba aquel silencio al terror o al fuerte deseo de mantener algo en secreto.
56	Ia egun osoa behar izan zuten <b>berez goiz partean aise egiten zen</b> Pausuko aduanarainoko bidean.	Necesitaron casi un día entero para recorrer el trayecto hasta el paso de Behobia, <b>que en condiciones normales habrían cubierto en una mañana.</b>
57	Ontzi luze beltzak bi idi eta hondarrez beteriko gurdi bat zeramatzan <b>guztiz handiturik zetorren</b> ibaiaren ertz batetik bestera.	La embarcación, alargada y negra, transportaba una yunta de bueyes y un carro repleto de arena desde una orilla a la otra del río, <b>que bajaba muy crecido.</b>
58	Ohatzeak bere hartan erkindu eta ahituko zuen neska, baldin zerua guztiz urdin eta <b>belaontzia inoiz baino geldiago zegoen</b> goizalba batez, Norak Andreas sentitu izan ez balu ontzigainean kantari.	La larga permanencia en el camastro habría terminado por consumir a la muchacha, a no ser porque, al amanecer de un día radiante, Nora pudo oír la voz de Andreas cantando en la cubierta de

		la nave, <b>que se movía con una desacostumbrada suavidad.</b>
59	Maiz gertatzen da mundu guztiak zuzentzat jotzen duen bidegabekeria baten aurrean ( <b>bostondarrek Hester Prynne-ri leporatzen zioten</b> sasiko neskato bat munduratu izanaren lotsagarrikeria adulteroa, kasu), Nathaniel Hawthorne-ren kastako artista irrikatsu bat iritzi nagusiaren aurka jartzea.	Ocurre a menudo que, ante una tropelía considerada por todo el mundo como el mayor acto de justicia (por ejemplo, la acusación de los bostonianos a Hester Prynne, <b>según la cual ésta habría parido una niña bastarda como fruto de un vergonzoso adulterio</b> ), algún inquieto artista del temple de aquel Nathaniel Hawthorne, enfren-tándose al criterio de la mayoría, trata con respeto a Hester Prynne.

a.2. Beste kasu batean, izen propio batez eta aposizioan jarritako izen arrunt batez osatutako multzo bati itsasten zaio perpaus erlatiboa, eta, bide batez esanda, izen propio hori kasu datiboan dago:

60	Epailleak galde ziezaiela <b>Portland-etik gorako basoetan zebiltzan</b> Hope eta Laymann kolonoei.	Rogó al juez que preguntara a los colonos Hope y Laymann, <b>que estarían ahora en algún bosque al norte de Portland.</b>
----	---	---

a.3. Beste bost adibidetan, erlatiboaren aurrekaria den izen arruntak erakuslea darama, bai bi bertsioetan, bai haietako bakarrean (65. binomioa) ere:

61	Ez zuen <b>liburuaren eskubideak zentaboz zentabo eztabaidatzen zizkioten</b> inprimategiko editore zeken haiekin fabore eske ibiltzea atsegin.	No le agradaba pedir favores a aquellos cicateros editores, <b>que le discutían centavo por centavo los derechos del libro.</b>
62	Espero zuena baino askoz ere zirrara handiagoa eragin zion <b>belaoztzia irentsi behar zuela zirudien</b> itsaso zakar hark.	La visión de aquel mar embravecido, <b>que parecía querer tragarse la nave</b> , la estremecía más de lo que hubiera podido pensar.
63	Noraren begiek jauzi egin zuten bat-bateko eskaintzarekin. Aitak ez zituen batere gogoko <b>naturaren kontraktzat zeuzkan</b> apainketa haiek [...]	Nora, azarada, se quedó sin saber qué hacer. Su padre abominaba de aquellos afeites, <b>que consideraba antinaturales [...]</b>
64	Ezin zion iruzurra beste ordainik itzuli <b>adiskidetasun huts garbia</b>	No podía pagar a aquella mujer, <b>que le ofrecía una inmaculada</b>

	<b>eskaintzen zion emakume hari.</b>	<b>amistad gratuita,</b> con otra moneda que el engaño.
65	[...] gero eta atximur gehiago eragiten baitzizkioten bere bihotz ederberan Andreasen gorputzak, sasoiak eta haren izaera osoari zerion segurtasunak. <b>Zeruari eta itsasoari erronka ari zitzaien gizonak zeukan, bada, liluraturik Nora.</b>	Su corazón, sensible a la belleza, se estremecía ante la contemplación de la enérgica seguridad que irradiaba Andreas. Aquel hombre, <b>que retaba sin cesar a cielos y mares, cautivaba a Nora.</b>

### b. PE jokatu gabe arrunta

Sei binomiotan, XTko erlatibo esplikati boaren lekuan STan dagoen perpausa PE jokatu gabe arrunta da.

**b.1.** Adibide gehienetan, era honetako erlatiboak izen arruntei atxikitakoak dira:

66	Zaldiek aurreko hankak jaso zituzten eta, albo batera eta bestera mugiturik, mehatxu egin zioten inguruko jendeari. <b>Ordu artean hain ausart eta kalapi-tatsu jokatu tako</b> jendeak atzera egin zuen, begiak izuz zabalik.	Los caballos piafaron violentamente, amenazando a la multitud que se agolpaba en torno al carruaje. La gente, <b>que hasta entonces había hecho gala de un alborotado arroj</b> o, retrocedió con los ojos desorbitados por el miedo.
67	<b>Haizea sortu takoan nagitzen hasitako</b> arratsaldeko argia indarberitu egin zen, mendien atzean ezkutatu beharrari itzuri.	La luz del crepúsculo, <b>que se había oscurecido al levantarse el viento</b> , cobró nuevas fuerzas, como si se resistiera a perderse tras los montes.
68	Begirada argitu zitzaion eta arnasaren trapata eroa baretu, <b>amildegi batetik bezala esandako</b> hitzek botika harrigarriren baten tupusteko ondorioa izan baitzuten.	Se le iluminó la mirada y su respiración serenó su alocado galope. Se diría que aquellas palabras, <b>que parecían pronunciadas al borde de un precipicio</b> , habían surtido el efecto de una portentosa medicina.
69	Hotzikara batek dardartu zuen Nora, <b>ordu arte bela zuriak naginagi astintzen aritu tako</b> aire epel-maxkala hotzera hasita baitzegoen.	El viento cálido, <b>que movía perezosamente las blancas velas</b> , empezaba a enfriarse, y un escalofrío estremeció a Nora.
70	—Orain dela zazpi urte izan nintzen azkenengoz —erantzun zuen Andreasek. Gero, erakuslea jasorik,	—Hace siete años de la última vez que pasé por aquí —respondió Andreas. Después, levantando el

	<b>zeru horixkaren kontra islaturiko</b> hiria seinalatu zion.	dedo índice, señaló la ciudad, <b>que se recortaba contra el cielo amarillento.</b>
--	--	---

**b.2.** Baina izen propioa + aposizioa tankerako sintagma batekin erabilia ere ikusten dugu honelako adibiderik, hemen ere datiboan dagoelarik sintagma hori:

71	Markesaren eskuinaldean, berriz, aulki huts bat ageri zen, eta <b>azken orduko larrialdi baten deiak berandututako</b> Velasco sendagileari zegokion, markesak argitu zuenez.	A la derecha del anfitrión había una silla vacía, que correspondía al doctor Velasco, <b>quien, según explicó el marqués, había disculpado su tardanza,</b> debida a un contratiempo de última hora.
----	---	--

### c. ZEIN/NON erlatiboa

Azpicorpus honetan, kasu bakarrean topatu dugu erlatibo mota hau STn:

72	[...] hala argudiatzen zuen Noraren aitak, eta elezaharretako hainbat adibide ekartzen zuen solasera: harkaitz bati loturiko gizonarena, <b>zeinaren bularraldean arranoek bazka eta bazka egiten baitzuten.</b>	[...] argumentaba el padre de Nora, y traía a colación algunos personajes de leyenda: aquel hombre atado a una roca, <b>cuyo pecho picoteaban sin cesar las águilas.</b>
----	--	--

#### 4.2.4.2.5. Kausa perpausak

Azpicorpus honetan, 14 adibide aurkitu ditugu, proportzio esanguratsua (%14,4), beraz. Adibide gehienetan, BAIT menderagailua erabiltzen du autore honek:

73	Ez zeukan bere buruaz eta gogoaz jabetzeko indarrik, eta alfer-alferrik zuen aitari deus esatea, <b>hilkorren ahuleziatzat baitzeu-kan hark sentimenduen agerpen oro.</b>	Aunque le faltaba la fuerza necesaria para dominarse a sí misma, sabía que de nada le serviría hablar con su padre, <b>para quien toda expresión de los sentimientos era una flaqueza propia de los mortales.</b>
74	Etsitzen hasita zegoen ez zuela neskaren erreakziorik eragingo, <b>begiak zabalik baina zirkinik</b>	[...] empezaba a desesperar de que algo pudiera hacer reaccionar a Nora, <b>que permanecía comple-</b>

	<b>egin gabe segitzen baitzuen Norak.</b>	<b>tamente inmóvil.</b>
75	—Ezin hilez bizitzera behartu gaitin zeruak! Urkatuek urrikaldu behar ditzen gutaz, ez guk urkatuez, <b>hiltzeko zoria izan baitute gutxienez!</b>	—Nuestra situación es mil veces más negra que la de esos ahorcados. Son ellos quienes deben compadecernos, en lugar de nosotros a ellos, <b>que han gozado, al menos, de la suerte de morir.</b>
76	Mathilde gelditu zen une batez, <b>ez baitzuen Noraren inolako erreakziorik espero.</b>	La sorpresa confundió a Mathilde, <b>que no esperaba ninguna reacción de Nora.</b>
77	Lasaitasun harrigarri batek harturik zeukan neskaren barrena, <b>mundutar ikusten baitzuen, bizitzan lehenengo aldiz, bere burua.</b>	Una extraña serenidad iba tomando aposento en el interior de la muchacha, <b>que, por primera vez en su vida, se veía como un ser de este mundo.</b>
78	Aita, lauki gorrizko alkandora batez jantzirik, leihoari ohol babesle batzuk josten ari zen, <b>haizeak beti jotzen baitzuen oso zakar Noraren haurtzaroko oroitzapenetan.</b>	Su padre, vestido con una camisa de cuadros rojos, clava unas contraventanas destinadas a proteger los cristales del viento, <b>que siempre sopla con violencia en los recuerdos infantiles de Nora.</b>
79	Alferrik ari gara, ordea, <b>Arrue jaunak nahiago baititu zalgurdiak, trenak baino.</b>	Aún así, nada podemos hacer para convencer al señor Arrue, <b>que, por lo visto, prefiere los carruajes al tren.</b>
80	Basaran heldu gabearen usain gero eta mikatzagoa zuen aireak, eta kristal hautsak zekartzala zirudien, <b>ageriko azal-zulo guztietatik sartzen baitzen bi gazteen gorputzean.</b>	El aire traía un intenso aroma a endrinas verdes, y el viento lanzaba partículas de cristal, <b>que se clavaban en la piel de los dos jóvenes.</b>

BAIT menderagailua erabiltzen du, orobat, *sentential relative* direlakoekin, hots, XTko erlatibo esplikatiboak aurreko perpaus osoa duenean kanpoko ardatz; haietako bitan, XTko perpaus erlatiboak kausazko preposizioa (*por*) darama aurretik, eta, gainera, perpausen ordena aldatuta dago; alegia, STko perpaus kausala XTko perpaus nagusi bihurtuta dago, eta, alderantziz, XTko perpaus erlatiboa STko perpaus nagusi bihurtuta:

81	Oso luzea zen ibilbide hura, eta zaldi bizkorrenek ere ez zuten kale osoa ibiltzeko astirik Nathanielek kalesa ikusi eta kalera irten bitarteko denbora labur hartan. Ez	La primavera no había renovado aún el follaje de las dos hileras de álamos blancos que flanqueaban el camino, <b>por lo que el carruaje habría sido fácilmente visible en</b>
----	--	---

	zirudien kale-bazterren batean gelditu zenik ere, <b>udaberriak artean berritu gabe baitzeuden ibilbidearen alboetako bi zurzuri-sailak.</b>	<b>caso de haberse detenido en algún punto del arcén.</b>
82	Beroaren aldetik eroso egin zuten, bada, azkeneko uholdeek biluzik eta hartxintzarrez urraturik utzitako bidea, <b>eguerdialdera garbitu baitzituen eguzkiak muino eta mendi-mazeletako lanbroak.</b>	Sólo hacia el mediodía venció el sol a la niebla que se adhería a las laderas, <b>por lo que el calor no les estorbó en su viaje a través del camino descarnado por la grava que las recientes inundaciones habían arrastrado.</b>

*Sentential relative*-ko beste kasu batean, perpausen ordena berbera dute STak eta XTak; honetan ere, XTko mendeko perpausa kausazko preposizio batez hasita dago.

83	Berea zen artean, berea bakarrik, emakume duin hura, oraindik ez baitzuten nobela liburudendetan banatu, <b>irakurleek ez baitzuten oraindik Hester Prynne-rekin errukitzeko paradarik izan.</b>	Por el momento, aquella mujer, modelo de dignidad, le pertenecía aún a él y sólo a él, pues la novela no había llegado todavía a las librerías, <b>por lo que los lectores aún no habían tenido oportunidad de compadecerse de Hester Prynne.</b>
----	--	---

Askoz ere gutxiago erabiltzen da ETA enklitikoa edo kausa perpausak egiteko beste menderagailuak; azkenengoan, gramatikan kausal subjektiboa deitzen denaren -ELAKOAN atzizkia erabiltzen da eta XTan *sentential relative* delako bat ikusten dugu:

84	Norak, ordea, ez zuen Andreasek ateratako ondorioa entzun, atximurkada oinazetsu bat sentitzen baitzuen bihotzean hitz egin zuenetik, <b>arrapaladan botatako hitzek oka egin ondorengo hutsmina utzi zioten-eta.</b>	Pero Nora no oyó la conclusión de Andreas. Estaba sobrecogida por el dolor que había sentido en su corazón al pronunciar aquellas atropelladas palabras, <b>que la habían dejado vacía como después de un vómito.</b>
85	Zehazkaitza zen Noraren egoera berria, <b>sentimenduak berak baino harantzago zihoan gogoeza eta ahuldadea zituen-eta sentsazio nagusi.</b>	Nora no podía definir bien aquel estado de ánimo, <b>en el que la sensación central era una mezcla de apatía y debilidad que iba más allá de los sentimientos.</b>
86	Andreasekin bake-itxurak egitea pasatzen zitzaion maiz burutik,	A menudo, le cruzaba la cabeza la idea de fingir una reconciliación con

	<b>porturen batera iritsitakoan ihes egitea errazagoa gertatuko zitzaiolakoan.</b>	<b>Andreas, lo cual le facilitaría la huida al tocar puerto.</b>
--	--	--

#### 4.2.4.2.6. Modu perpausak

Gaztelaniaz, PEEk duten beste funtzio bat haiei dagokien erreferenteari buruzko zertzelada zirkunstantzial bat eranstea izaten da, eta, hori dela bide, euskarazko testuetan modu perpausak topatzen ditugu gaztelaniazko erlatibo esplikatiboen lekuan. Azpicorpus honetan, 6 adibidetan aurkitu dugu perpaus hauen erabilera (%6,2), forma desberdinekin, hau da, aditz forma jokatuekin eta jokatugabeekin eta atzizki desberdinekin; alabaina, binomioen erdian partizipioari –Z atzizki instrumentala erantsia duten adibideak topatu ditugu:

87	<b>Kaio garrasilariak belen artean bulebuleka zebiltzala heldu zen belaontzia kaira.</b>	Arribaron a puerto acompañados por una bandada de gaviotas, <b>que parecían jugar al escondite entre las velas.</b>
88	Kriskitinka zegoen zeru urdin-urdina. Mara-mara ari zen argia <b>itsasgaina zilarreztatuz.</b>	El cielo, de un azul sin mácula, parecía una fiesta de luz. La claridad se desparramaba a borbotones sobre el mar, <b>que estallaba en destellos de plata.</b>
89	Hautsak ematen hasi zitzaion gero, leun-leun, <b>masailen erditik abiatu, eta aurpegi osoan zirkulu gero eta zabalagoak eginez.</b>	A continuación comenzó a aplicarle los polvos de arroz, suavemente, en círculos cada vez más amplios, <b>que, desde el centro de las mejillas, iban extendiéndose a toda la cara.</b>
90	Guztiak uretara sartzea lortu zutenean, zerriak garbitzen hasi ziren mutilkoskorrak zurda zurruneke eskuila batzuekin, <b>zerriei gero eta kurrixka urratuagoak eraginaraziz.</b>	Cuando por fin lograron que todos los cerdos entraran en el agua, los muchachos se pusieron a limpiarlos con ásperos cepillos de cáñamo, <b>que arrancaban a los animales lastimeros gruñidos.</b>
91	Jauregiko sala nagusiko mahai luzearen jiran afaltzen ari ziren gonbidatuak, batzuek elkar ezagutzen ez, eta <b>artean solas-uhinek gora-behera asko zituztelarik.</b>	Los invitados cenaban en el salón principal, alrededor de una larga mesa. No todos se conocían aún, <b>por lo que el eco de las conversaciones tendía a entrecortarse en incómodas pausas.</b>

Beste adibide batean, aditz forma elidituta dago, baina “zegoelarik” bat falta zaiolakoan, sail honetan sartu dugu:

92	Ambassadeurs-eko hainbat bezero, <b>tartean Mathilde</b> , pilatzen hasi zen korderik gabeko neskaren inguruan.	Algunos clientes del Ambassadeurs, <b>entre los que se contaba Mathilde</b> , se arremolinaron en torno a la muchacha desmayada.
----	---	--

#### 4.2.4.2.7. Bestelako mendeko perpausak

Askoz ere proportzio txikiagoan aurkitu ditugu STan bestelako prozedura sintaktiko batzuk XTko erlatibo esplikatiboen bitartez itzulita, eta horregatik sartu ditugu denak multzo onen barruan. Honelakoak dira topatu ditugun bestelako mendeko perpausak:

##### a. Denbora perpausak

Hiru binomiotan STko perpaus nagusiari itsatsitako denbora perpaus bat topatzen dugu XTko perpaus erlatiboaren lekuan. Haietako batean, bi perpaus mendekoak, hala denborazkoa nola erlatiboa, kokapen berberean daude:

93	Zer kontatu behar zion Mathilderi? Ez zuela neerlandar herratua ezagutzeko abileziarik izan, <b>berak ere zergatia ezagutzen ez zion kondena baten kausaz urtetan eta urtetan lautadaz lautada kalesa batean ibili eta gero?</b>	¿Qué podría, de otro modo, contarle a Mathilde? ¿Que no había sido capaz de reconocer al holandés errante; ella, <b>que por causa de una condena cuyo origen desconocía había pasado años y años recorriendo llanura tras llanura en una calesa?</b>
----	--	--

Beste batean, aldiz, STko denbora perpausa da XTan perpaus nagusi modura agertzen dena, eta, alderantziz, XTko perpaus erlatiboa, ordea, perpaus nagusi modura euskarazko jatorrizkoan:

94	Hamarretarako nengoen liburu-txosnen aurrean. Bizpahiru besterik ez zeuden artean zabalik. Aldiro-aldiri liburu-saltzailereren bat agerturik, <b>bere txosnako pertsiana alderik alde hartzen zuen burdin-hagaren bi muturretako sarraila tzarrak askatzen zituen, erritual bateko gidaria balitz bezain zeremo-</b>	A las diez en punto estaban en la calle los librereros de viejo. Dos o tres habían abierto ya sus puestos. En breves intervalos, fueron apareciendo uno a uno los demás, <b>que procedían, como oficiantes de un ceremonioso ritual, a liberar de sus enormes candados la barra metálica que cruza de parte a parte la persiana de cada caseta.</b>
----	--	---



	<b>niatsu.</b>	
--	----------------	--

Azkenik, beste batean ere, XTko perpaus erlatiboa perpaus nagusi da STan, baina erlatiboaren kanpoko ardatza perpaus nagusiaren barruan dagoen mendeko helburu perpaus batean dagoen izen arrunta da:

95	Ohe-ertzetik jaiki zen Nora. Mathilderengana joan zen gero astiro-astiro, eta, soinekoa harturik, <b>burutik behera sartu zuen.</b>	Nora se levantó y se acercó a Mathilde para coger el traje, <b>que se vistió con un rápido movimiento.</b>
----	---	--

### b. Helburu perpausak

Adibide bakarra aurkitu dugu:

96	—Nondik atera ote da emakume hau, <b>mundu guztiak dakiena ez ezagutzeko?</b>	—Pero ¿de dónde ha salido esta mujer, <b>que desconoce lo que todo el mundo sabe?</b>
----	---	---

### c. Konparaziozkoak

Adibide bakarra aurkitu dugu hemen ere:

97	Halako batean, brontzeko kanpaia jo eta jo hasi zen bere baitatik, eta sekulako txistu-soinua ekarri zuen aireak, <b>elezaharreko apaiz ehiztaria, kanpai-hotsa entzunik, bere zakurrei deika baletor bezala.</b>	De pronto, la campana comenzó a sonar frenéticamente, agitada por el furioso vendaval, <b>que silbaba como si el cura cazador de la leyenda llamara a sus perros.</b>
----	---	---

#### 4.2.4.3. Ondorioak

Azpicorpus honetan topatu ditugun binomio guztiek balio digute ST eta XTaren arteko itzulpen-baliokidetasunak aurkitzeko, eta, gauzak horrela, azpicorpus honetatik ateratako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

##### 4.2.4.3.1. Ondorio orokorrak

1. Azpicorpus honetan XTan gehitutako PEErik ez egotea bat dator itzulpenaren izaera alografoarekin.

2. Hala ere, bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, desberdintasun handi samarra dago STtik XTra: STan azpicorpus honetatik atera ditugun 97 binomioetatik 21etan bakarrik (%21,6) topatu ditugu erlatiboazko forma desberdinak; erlatiboazko aposizioaren sailean sartu ditugun bi adibideak ere kontatuz gero, %23,7ra iritsiko litzateke, binomio guztietatik laurdena baino gutxiagora.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTaren parafraasi-adierazlea %76,3koa da.

4. Beraz, azpicorpusaren aurkezpenean planteatu dugun galderari erantzunez, badirudi XT honetako erlatibakuntza-joera itzultzailearen estiloari dagoela loturik, idazlearen estiloari baino gehiago. Eta estilo horretan, PEEen bidezko erlatibakuntzaren proportzioa 100 orrialdeko 38koa da, C<sub>0</sub> corpus osoko handiena.

5. Azpicorpus honetako STaren egileak beste autoreek baino estilo hipotaktiko handiagoa duela dirudi, ia adibideen erdian (%48 inguru) menderakuntza motaren bat topatu dugu-eta euskarazko testuan. Baina, hala ere, estilo parataktikoari dagozkion prozedura sintaktikoak dira nagusi, eta horien barruan, perpausen juntadura da baliabiderik erabiliena.

6. XTaren parafraasi-adierazleak eta PEEen 100 orrialdeko proportzioak XTa gaztelaniaren kanon sintaktiko-estilistiko konplexuagora egokitzeke joera dagoela adierazten dute; edo, bestela esanda, Touryren "*target-oriented translation*" edo XKra moldatutako itzulpengintzaren -onar-garritasunaren-parametroetan kokatzen du azpicorpus honetako itzulpena.

#### **4.2.4.3.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak.**

Euskarazko STaren eta gaztelaniazko XTaren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Perpaus juntadura da STan gehienbat aurkitzen dugun prozedura, eta haren ondoren, proportzio txikiagoan, perpaus erlatiboak eta kausazkoak; gainera, XTko erlatibo kasu nahiko atera dira segmentu suborazional txikien hedapenetik, eta, azkenik, aposizioa erabiltzeko oso joera txikia dago:

<b>Perpaus juntadura</b>	38 binomio	%39,2
<b>Erlatiboa</b>	21 binomio	%21,6
<b>Kausa perpausak</b>	14 binomio	%14,3
<b>Segmentu suborazionala</b>	11 binomio	%11,3
<b>Modu perpausak</b>	6 binomio	%6,2
<b>Bestelako mendekoak</b>	5 binomio	%5,2
<b>Aposizioa</b>	2 binomio	%2,1

2. Perpaus juntadurari dagokionez, emendiozko juntadura da formarik erabiliena, alborakuntzaren apur bat gaineratik; aurkaritzazko juntadura ere topatu dugu, baina oso neurri txikian:

<b>Emendiozko juntadura</b>	21 binomio	%21,6
<b>Alborakuntza</b>	16 binomio	%16,5
<b>Aurkaritzazko juntad.</b>	Binomio 1	%1,1

3. Perpaus erlatiboen erabilerari dagokionez, erlatibo arrunta da gehien aurkitzen den egitura, eta, ondoren, PE jokatu gabea; ZEIN/NON erlatiboak, berriz, erabilera ia testimoniala besterik ez du azpicorpus honetan ere:

<b>-N erlatiboa</b>	14 binomio	%14,3
<b>PE jokatu gabea</b>	6 binomio	%6,2
<b>ZEIN/NON erlatiboa</b>	binomio 1	%1,1

4. Idazle honek oso gutxi erabiltzen du aposizioa, eta adibide guztietan erlatiboazko aposizioa da topatu duguna.

- a. Aposizioan doazen bi segmentuak kasu absolutuan eta ergatiboan doaz.
- b. Aposizioan doazen bi segmentuen artean, kasu komunztadura egiten da adibide guztietan.


5. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio bat duten 13 binomio aurkitu ditugu (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Horietan, badirudi idazle honek ere joera duela prozedura desberdinak erabiltzeko izen propioari itsasten zaion kasu-markaren arabera:

- a. Bi binomiotan (31 eta 76), izen propioa kasu absolutiboan dago, eta STan juntatutako perpaus bat eta kausa perpaus bat topatu ditugu XTko klausula esplikatiboaren baliokide gisa.
- b. Gainontzeko hamaika binomioetan, STko izen propioak absolutiboa ez beste kasu-marka bat darama; eta XTko klausula erlatiboaren lekuan, alboratutako perpaus bat topatu dugu bost binomiotan (19-23, biak barne), perpaus juntatu bat beste lautan (39, 40, 47 eta 49), eta erlatibo arrunt jokatua eta erlatibo arrunt jokatugabea beste banatan (60 eta 71).

#### **4.2.4.3.3. Grafika sinoptikoa**

Ondoko irudian ikus ditzakegu modu grafikoagoan azpicorpus honetako XTko erlatibo esplikatiboei STan dagozkien jatorrizko baliabide sintaktikoak eta haien erabilera maila:

### STn erabilitako baliabide sintaktikoak



4. grafika: C<sub>4</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.

#### 4.2.5. C<sub>5</sub> azpicorpusa: Mario Onaindia, Gilen Garateako Batxilera

## 4.2.5.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Mario Onaindia
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Gilen Garateako Batxilera</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Gipuzkoako A. Kutxa
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1984
<b>Orrialdeak:</b>	167
<b>Xede Testua:</b>	<i>La tau y el caldero</i>
<b>Itzultzailea:</b>	Jon Juaristi
<b>XTren argitaletxea:</b>	Grijalbo
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1985
<b>Orrialdeak:</b>	158
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	41
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	41

C<sub>5</sub> azpicorpus honen itzulpenari buruzko bibliografia edo kazetaritza erreferentziarik ez dugu aurkitu, baina itzulpen alografotzat hartzeko arazorik ez dagoela iruditzen zaigu. Guztiarekin ere, itzultzailearekiko komunikazio pertsonal baten bitartez, jakin ahal izan dugu askatasun-tarte handi samarra hartu ahal izan zuela itzulpena egiterakoan, eta idazleak ez zuela itzulpena baliatu inolako berridazketarik egiteko.

Xede-testuan ez dugu aurkitu STan inolako baliokiderik ez duen PEE baten gehiketarik, eta, horrenbestez, XTan agertu zaizkigun 41 adibideetatik 41 binomio atera ahal izan ditugu bi testuen arteko itzulpen-baliokidetasunak antzemateko eta bi bertsioetako prozeduren azterketa estilistiko-sintaktikoa egin ahal izateko.

Bestalde, XTan 100 orrialdeko dauden PEEen proportzioak eskaintzen digun adierazleari begiratzen badiogu, 26ko kopurua dagokio azpicorpus honi, corpus osoaren batez bestekoaren gainetik, hirugarren kopururik handiena izanik.

Ikus dezagun, besterik gabe, zein diren azpicorpus honetan XTan erlatibo esplikatiboen bidez itzulita STan aurkitu ditugun prozedurak.

#### 4.2.5.2. STko baliabideak

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### 4.2.5.2.1. Segmentu suborazionalak

Bost kasutan (adibide guztietatik %12,1ean, beraz), XTko perpaus erlatiboari dagokion STko testu zatia ez da iristen perpausen mailara, segmentu suborazional bat besterik ez baita; kasu gehienetan, osagarri zirkunstantzial edo adizlagun batetik ateratzen da XTko erlatiboa.

Normalean, adibide hauetan ikusten denez, XTan erantsi –edo nolabait esplizitatu– egiten da jatorrizko segmentu suborazionalan ez dagoen aditz forma bat, aditz hori izanik itzulpeneko bertsiotan bigarren segmentua perpaus bihurtzen laguntzen duena:

1	Heldu ginen goiz berean, <b>San Pedro egunean hain zuzen</b> , sorpresa ezin hobea hartu nuen, ahoa bete haginez utzi ninduena.	La misma mañana que llegamos, <b>que era la del día de san Pedro</b> , recibí una sorpresa inesperada que me dejó con la boca abierta.
2	Harrizko arko gotiko fin bat zegoen, <b>mahats, fruta eta irudi finekin</b> , atetza zur landu eta labratu bat inguratzen.	Un arco gótico, <b>en cuyas jambas se veían imágenes de uvas y frutos diversos</b> , enmarcaba la hoja finamente labrada.
3	Are taldearen abangoardia bat ere muntatu zuten, Jesu milites deitua, Jesusen gudariak, zaldunak, inguruetakoko nekazariak eta langileen ondasunak ebasteke. <b>Arturoren jarraitzaile sentitzen zirenak.</b>	Llegaron incluso a formar una vanguardia armada, los <i>Jesu milites</i> , los soldados, los caballeros de Jesús, que robaban los bienes de los campesinos y de los menestrales. ¡Ellos, <b>que se sentían paladines del rey Arturo!</b>
4	Kanpan hotsa besterik ez zen entzuten, infemuetako deiadar beldurgarri, <b>hil behar dugun oroigarri.</b>	Sólo se oía el son de la campana, como un grito infernal, <b>que nos recordaba que también nosotros habíamos de morir.</b>
5	Hats garraskots bat botatzen du eta bere lantza luzea zurezko leiho	Gritando con voz ronca, arroja su lanza a los postigos de una ventana,

	batetan iltze bat bezala josirik uzten.	donde queda clavada.
--	---	----------------------

#### 4.2.5.2.2. Aposizioa

Azpicorpus honetako 7 adibidetan (guztietatik %17,1ean, beraz), aposizioa aurkitzen dugu STn, gaztelaniazko itzulpenean erabili diren perpaus erlatibo esplikatiboen lekuan; hirugarren prozedurarik erabiliena da, horrenbestez.

Aposizio motetan sartuz, topatu ditugun aposizio gehienak erlatibozko aposizioak dira -N perpausekin edo PE jokatu arruntekin osatuak alegia; aposizio soilaren erabilera ere badago kasu bakar batean. Bestalde, lehendabizikoen egiturari gagozkiolarik, bi aldaera daude, perpaus erlatiboari itsasten dioten osagaiaren arabera: osagai hori mugatzailea eta erakuslea izan daitezke, ikusiko dugunez.

Eta, azkenik, adibide guztietan, perpaus erlatiboaren kanpoko ardatzak eta aposizioak kasu komunztadura egiten dute, kasurik ugariena absolutua izanik; aipagarria dirudi beste postposizio bat (inesiboa, zehazki) erabiltzen duen adibidean erakuslea dela perpaus erlatiboari itsasten zaiona, atzizkia aditz formari zuzenean itsasteak emaitza ulergaitza eman zezakeelakoan, seguru aski, idazlearen iritziz.

Esan bezala, aposizioak bi eratakoak dira:

#### a. Erlatibozko aposizioa

##### a.1. -N perpausa + mugatzailea

Perpaus nagusian dagoen ISari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, erlatibo bati mugatzailea itsatsiz. Bost adibide topatu ditugu, denak kasu absolutuan, komunztadura egonik bi sintagmen artean.

6	Koro hoberik entzun badut ere ez soilik Italia eta Austria aldeko abadetegietan baina baita Erro-ma aldeko tabernetan ere, gutitan	Si había oído mejores cantos no sólo en los monasterios de Italia y Austria, sino incluso en las tabernas de Roma, en pocos sitios he advertido
---	--	---



	hatzeman ditut halako karra eta kementa, indarra eta fideltasuna, federean eta benerezioaren seme iruditu zitzaizkidanak.	un vigor y entusiasmo tales, <b>que me parecían hijos de la fe y de la veneración.</b>
7	-Historiak hiru aro ditu. Lehenik Aitarean eta Legearen edo Testamendu zaharraren garai izan zen, <b>Adam gure aitaren gandik Abrahamen ganaino hedatzen zena.</b>	-La historia tiene tres edades. La primera fue la del Padre o la del Viejo Testamento, <b>que se extiende desde Adán hasta Abrahám.</b>
8	Bigarrenik, Jesukristo edo Ebanjelioaren garaia, <b>berrogei belaunaldiaz iraun zuena.</b>	La segunda, la edad de Jesucristo o del Evangelio, <b>que ha durado cuarenta generaciones.</b>
9	Lehen aroan Jainko bakar bat zegoen, Aita. Bigarren aroan, ordean, hiru, Aita, Espiritu Saindua eta Semea, Jesukristo, <b>gizon eta eraberean, Jainko izan zena eta dena,</b> baina batean gizonak zerbitzera etorria.	En la primera edad había un solo Dios, el padre. En la segunda, en cambio, tres. El Padre, el Espíritu Santo y el Hijo, Jesucristo, <b>que fue hombre y Dios a un tiempo, pero que vino a servir a los hombres.</b>
10	Eta hereje hain gogor hura, <b>Jainkoaren pare izateko estudiantu zuena,</b> oihaneko animaliarik apalena baino apalago, urtxintxa bera lehoiaren, oihanaren jaun eta jabearen aitzinean baino humilago jarri zen.	Y aquel terrible hereje, <b>que se había esforzado en ser igual a Dios,</b> se mostró de repente más humilde que la más humilde de las sabandijas, como la ardilla ante el león, amo y señor de la selva.

### a.2. -N perpausa + erakuslea:

Perpaus nagusian dagoen ISari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, erlatibo bati erakuslea itsatsiz. Adibide bakarra topatu dugu hemen ere, kasu inesiboan, komunztadura egonik bi sintagmen artean.

11	Eta gure herri honetan, <b>oraintsu arte baketan zen eta Jainkoaren beldurrez gobernatzen zen honetan ere,</b> Ejiptoko zazpi plagak baino plaga izugarriago bat agertu da.	Y en este nuestro pueblo, <b>que hasta ahora estaba en paz y se gobernaba bajo el temor de Dios,</b> apareció una plaga más espantosa que las siete de Egipto.
----	---	--

### b. Aposizio soila:

Kasu batean, XTko perpaus erlatibo esplikatiboa aposizioan dagoen partizipio batetik aterata dago, eta hemen ere STko bi segmentuak kasu absolutuan daude:

12	Bada, azkenean gertatu da erregeren ikertzailearen laguna zela, <b>hona Inkisizioaren aginduz Tabira eta inguruetako Alfonso fraidearen jarraitzaileak hereje direnentz aztertzeraz etorria.</b>	Pues resulta que era un compañero de Francisco de Soria, <b>que había venido aquí enviado por la Inquisición para averiguar si los seguidores del fraile Alonso de Mella son o no herejes.</b>
----	--	--

#### 4.2.5.2.3. Perpausen juntadura

Perpausen juntadura azpicorpus honetatik atera ditugun adibide guztietatik %14,7an.

Bestalde, bi juntadura mota aurkitu ditugu STan, alborakuntza eta emendiozko juntadura, emendiozko juntadura izanik bietatik erabiliena.

##### a. Alborakuntza

Perpausak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza bi binomiotan aurkitu dugu, hau da, adibide guztietatik %5ean. Kasu honetan, STan bi perpaus lokabe alboraturik daude, koma batez banatuta, baina multzo semantiko bakarra osatuz, hori izanik XTan duen egitura (perpaus nagusi baten barruan txertatutako perpaus erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau delarik XTko perpaus erlatiboko aurrekaria.

Bestalde, XTko perpaus erlatiboa STan alboratutako lehen perpaus edo segmentutik aterata dago:

13	<b>Zuk ez duzu horrelako problemarik</b> , saia zaitez zure andeari maitasuna deklaratzera.	Tú, <b>que no tienes ese problema</b> , intenta declarar tu amor a tu dama.
14	Zenbait zaldun bere zamarietatik jaitsi eta ezpata erraldoi batzu bi eskuez harturik ate printzipala tikitzen hasi ziren. <b>Morro batzuk</b>	Algunos caballeros bajaron de sus monturas y empezaron a hacer astillas la puerta principal con golpes de mandoble, ayudados por los

	<b>inguruetan aurkitu zituzten harri itzel batzuz laguntzen hasi zitzaizkien.</b>	<b>peones, que lanzaban contra ella enormes piedras.</b>
--	---	--

### b. Emendiozko juntadura

Azpicorpus honetako euskarazko STan 4 binomiotan topatu dugu bi perpausen emendiozko juntadura, hots, juntagailu kopulatiboaz elkartutako bi perpaus. Adibide guztietatik %9,7ean, hortaz.

Kasu guztietan, XTko perpaus erlatiboa STan juntaturiko bigarren perpausetik ateratzen da. Baina haien barruan, bi tipologia desberdin edo bi itzulpen-baliokidetasun desberdin topatu ditugu:

**b.1.** Lau adibideetatik hirutan, XTko erlatiboaren aurrekaria lehen perpaus edo segmentuko izen bat da:

15	Han nengoela antzematean begirada izugarri bat bidali zidan, tragaza pozointsuena baino paralizagarriago <b>eta nerau ere belauniko jarri nintzen.</b>	Al advertir que estaba allí, me asestó una terrible mirada, <b>que, como el dardo más ponzoñoso, me dejó paralizado y me hizo postrarme de hinojos.</b>
16	Beha, hau, zera, Gilen Garateakoa da, Lekeitiakoa duzue <b>eta zuen konpainia horren berri jakin nahi luke.</b>	Mirad, éste es Guillén de Garatea, de Lequeitio, <b>que quiere saber algo de vuestro grupo.</b>
17	Har beza berorren zerbitzari apal honen besarkada <b>eta seme honen muina berorren apezpiku sigiluan.</b>	Recibid un abrazo filial de vuestro servidor, <b>que besa vuestro anillo.</b>

**b.2.** Beste adibidean, XTko erlatiboaren aurrekaria izen bat izan beharrean, aurreko perpaus edo enuntziatu osoa da (*sentential relative*), eta enuntziatu oso hori da STan dagokion erreferentea:

18	Baina bigarrenak ez zuen nahiko izan izterbegia iztarrez begian jotzea, bridatik heltzea lortu baitzuen eta ez zion minik ematen, ikusten zenez, buruan jotzen nizkion ostikadek <b>eta ganibeta atera behar izan nuen.</b>	Para el segundo no bastó con atizarle una patada en el ojo, pues no pareció hacerle daño y consiguió agarrar las riendas, <b>por lo que tuve que sacar el puñal.</b>
----	---	--

#### 4.2.5.2.4. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, oro har, erlatibo mota desberdinak dira gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatiboa erabiliz itzulita euskarazko STan agertzen diren prozedura sintaktikoen arteko multzorik handiena, %26,9arekin; erlatibo motei erreparaturik, -N perpaus arruntak gehiago erabilia ikusi ditugu, ZEIN/NON erlatiboaren gainetik.

##### a. -N erlatiboa

Era honetako erlatiboak 7 adibidetan aurkitu ditugu, adibide guztietatik %17,1ean.

a.1. Haietatik 4 kasutan, perpaus erlatiboaren ardatza izen arrunt soila besterik ez da:

19	<b>Gero kilinkala zela erran zidaten</b> zeremonia zital hori arriskurik gabe gaintitu zutela ezagutzean, andere zahar atsotuek, behorrek mendian baino irrintzi zorrotzagoak bota zituzten.	Al ver que esa abominable ceremonia ( <b>que luego me dirían que se conocía como <i>kilinkala</i></b> ) se había realizado sin problemas, las comadres lanzaron unos relinchos más agudos que los que dan las yeguas en los montes. <sup>118</sup>
20	Eta ez al zen harrigarria hain ideia arrotzak Iurretako dorre batetan <b>oraintsu arte ezpataka ari izan den</b> zalduntxo bati bururatzea.	¿No es sorprendente que estas ideas tan desusadas se le hayan ocurrido al amo de la torre de Yurreta, <b>que hasta hace poco tiempo ha andado metido en querellas contra sus vecinos?</b>
21	Zuzi piztuak leihoetatik sartu zituzten ikuiluan, sukaldean eta beheko pisuan <b>merkaduriak gordetzen ziren</b> saloian.	Arrojaron teas encendidas a los establos, a la cocina y al almacén del piso bajo, <b>donde se guardaban las mercaderías.</b>
22	Lotsa sentrazio erregarri bat gorputz guztiaz jabetu zitzaidan, airean nituen behatzen atzazkoletatik <b>almoada pean nuen</b> buru lainoztaturaino, ardo usai garratz bat hatzeman nuenean iratzartzearekin batean.	Al despertarme, sentí un penetrante olor a vino desde las uñas de mis dedos hasta la cabeza, <b>que tenía metida debajo de la almohada.</b>

<sup>118</sup> Binomio honetako gaztelaniazko bertsioan, perpaus erlatiboa parentesi arteko tarteki baten barruan sarturik dago, baina uste dugu arazorik ez dagoela ohiko erlatibo esplikatibo bat bezala hartzeko, itzultzaileak eginiko hautaketa tipografikoaren gainetik.

**a.2.** Beste adibide batean, erlatiboaren ardatza den izen arruntak, gainera, erakuslea darama euskarazko bertsoan, baina ez erdarazkoan:

23	Hargatik igan ziren Bohemiako mendi batetara –eta <b>han bertan egon zen</b> fraide-ohi horrek kondatu zidan–.	Subieron a un monte de Bohemia, según me contó el alquimista checo, <b>que estuvo allí.</b>
----	--	---

**a.3.** Beste bi adibideetan, izen propio batez eta aposizioan jarritako izen arrunt batez osatutako multzo bati itsasten zaio perpaus erlatiboa; aipagarria da binomioetako batean STko izen propioa erlatiboan dagoela, eta, beste binomioan, ordea, absolutiboan.

24	Jaitsi zenean <b>aldarearen aldamenean zegoen</b> Eneko jaunak eskua eman zion aprobazio keinu bat eginez.	Cuando descendió del púlpito, Eneko, <b>que estaba al lado del altar</b> , le dio la mano con un gesto de aprobación.
25	Hartu Dinah neure besoetan eta biok zaldi gainean jarri dendako inor konturatzeke, <b>bereziki lan-tegi tipi batetan lentegintzan ziharduen</b> Simon bere aita, eta hanka egin genuen.	Tomé a Dinah en mis brazos y la subí sobre mi caballo sin que Simón, <b>que pulía lentes en un taller anejo a la tienda</b> , se diera cuenta.

### b. ZEIN/NON erlatiboa

Azpicorpus honetan, beste 4 kasutan topatu dugu erlatibo mota hau STan, adibide guztietatik %9,8an:

26	Algarbeko Tabirara heldu ginenean, <b>non untziak atrakatu behar izan baitzuen</b> , Portugaleko zaldun etoi eta traidorea lurrera zen.	Cuando llegamos a Tavira del Algarve, <b>donde debía atracar el barco</b> , el falso y traidor lusitano bajó a tierra.
27	Zapatari baten dendan sartu ginen, <b>non sandalia bat egiten ari baitzen.</b>	Entramos en la tienda de un zapatero, <b>donde se hacían sandalias.</b>
28	Abereen eta gizasemeen artean dagoen diferentzia ez da bakarrik guk arima dugula, <b>zeinaren erredentziorako Jesukristok bere odol preziatua eskaini baitzuen Golgota mendian.</b>	La diferencia que existe entre los hombres y las bestias no es solamente que nosotros tenemos alma, <b>para cuya redención ofreció Jesús su sangre preciosa en el Gólgota.</b>
29	Buruak leherturik, konortea galdu nuen. Neure baitara itzuli nintze-	La cabeza me estalló y perdí el sentido. Cuando lo recobré, vi el cielo

nean, zeru arre lainotsu bat higitzen ikusi nuen, <b>zeinaren gainetik hodei zuri batzu lasterka ihes egiten baitzuten, untziak itsasoan bezain dotore.</b>	gris, <b>en el que se movían las nubes como navíos airosos.</b>
---	---

#### 4.2.5.2.5. Modu perpausak

Gaztelaniaz, PEEek duten beste funtzio bat haiei dagokien erreferenteari buruzko zertzelada zirkunstantzial bat eranstea izaten da, eta, horregatik, euskarazko testuetan modu perpausak topatzen ditugu erdarazko erlatibo esplikatiboen lekuan. Azpicorpus honetan, topatu dugun bigarren prozedurarik ugariena da, 10 adibiderekina (%24,4), forma desberdinak erabiliz, hots, aditz forma jokatuak eta jokatugabeak, eta atzizki desberdinak; alabaina, binomio gehienetan, aditz jokatuak –ELARIK atzizkia du erantsirik:

30	Gerrara joateko jantzi guztiak prest, loriga eta guzti, <b>bere hartz traza areagotu besterik egiten ez zutelarik</b> , zera oihukatu zuen bere boz urratuaz.	Vestido con todas las piezas del arnés, loriga, capacete y demás, <b>que no hacían sino darle aún más figura de oso</b> , gritó con voz cavernosa.
31	Gure begi aurrean mendi leunak olatuak itsas barean bezala hedatzen ziren <b>noizean behin arbola ederrez inguratutako baserriren bat ikusten zelarik.</b>	Ante nuestros ojos se extendían suaves colinas como olas de un mar plácido, <b>donde, de trecho en trecho, aparecían algunas caserías rodeadas de hermosas arboledas.</b>
32	Herri honetan jende bat elkartzen da apostoluen jarraitzaile balira bezala, egiaz Etsai gaiztoaren jarraitzaile direnean. Ez egutargian; deabruak bezala, <b>ilunbetetako printze izanik</b> , argiari beldur diotelako, gau erdian baizik.	En este pueblo las gentes se reúnen como si fuesen seguidores de los apóstoles, cuando en realidad son secuaces del Maldito. Y no en la mañana, pues, como el demonio, <b>que es el príncipe de las tinieblas</b> , temen a la luz, sino a la medianoche.
33	Orgiarik nardagarriena hasten da <b>Jainkoaren eta Naturaren lege guztiak hausten direlarik.</b>	Da comienzo la orgía más perversa, <b>que rompe todas las leyes de Dios y de la Naturaleza.</b>
34	–Bai, zera... –erran zuen Salbatorek, <b>egurrek sua har zezaten lortu eta aulkian eseritzen zelarik.</b>	–Sí, claro... –dijo Salvatore, <b>que había conseguido que las mechas prendieran y se sentaba entonces en su sillón.</b>
35	–Orain bai –ihardetsi zion Kosmek <b>bekaizkeria apur batez behatzen ziolarik dotoreria.</b>	–Todavía sí –le contestó Cosme, <b>que miraba con alguna envidia tanta elegancia.</b>

36	Eta minutuan behin difuntuen kanpan hotsa entzuten zen, trumoirik izugarrienaren inda-rraz, hotzikara latz bat sor araziz, <b>aireaz solemnelki jabetuz.</b>	A cada minuto se oía la campana de difuntos, tan escalofriante como el trueno más terrible, <b>cuyo sonido se extendía por los aires.</b>
37	Handik gutitara begitarterik izugarrien eta nardagarriena eraku-tsi zuen, sai goseti baten aho di-gantea zeukalarik, <b>ahotik heren-suge baten adineko sua bota ezezik garrasia lazkarri bat atereaz.</b>	Poco después apareció un rostro terrible y repulsivo, armado de un gigantesco pico de buitre, <b>por donde lanzaba fuego como un dragón.</b>
38	Hala ere, Arabako lur lauera irtetea lortu genuen eta <b>udako eguzkiaren argi izpi urre-gorrikoek natura animatzen zutelarik</b> , xori koloretsuen arpaz dastatuz, hodei nabegaketa maiestatez betea zeru urdinaren itsaso barean eta animalia tipien jostaketa alaiak gozatu genituen.	Finalmente conseguimos llegar a la llanada alavesa, <b>que los rayos del sol estival llenaban de vida.</b> Marchábamos absortos oyendo los trinos de los pájaros de colores, contemplando la derrota de las nubes en la majestuosa calma de los mares celestes y los juegos de los pequeños animales.

Binomio hauetatik bitan (34 eta 35), STko bi perpausetako erreferentziakidea izen propio bat da, bi adibideetan ergatiboan dagoena.

Beste adibide batean, STko modu perpausa itzultzeko erabilitako erlatibo *sentential relative* deritzenetakoa da:

39	Eta agur erratean, ene egitekoa burura eraman bezain laster bere etxetik oster bat emanen nuela agindu erazi zidaten, <b>ene aldetik erresistentzia handirik jartzen ez nielarik, egia erran.</b>	Y al despedirme me rogaron que, tan pronto como hubiese terminado mi trabajo, me diese una vuelta por su casa, <b>a lo que yo accedí, todo hay que decirlo, sin resistirme demasiado.</b>
----	---	---

#### 4.2.5.2.6. Bestelako mendeko perpausak

Askoz ere proportzio txikiagoan aurkitu ditugu STan bestelako prozedura sintaktiko batzuk XTko erlatibo esplikatiboen bitartez itzulita:

##### a. Helburu perpausak

Beste bi adibidetan (guztietatik %4,9an), helburu perpausak aurkitu ditugu STan:

40	Are taldearen abangoardia bat ere muntatu zuten, Jesu milites deitua,	Llegaron incluso a formar una vanguardia armada, los <i>Jesu milites</i> ,
----	---	--

	Jesusen gudariak, zaldunak, inguruetak <b>nekazarien eta langileen ondasunak ebaste</b> .	los soldados, los caballeros de Jesús, <b>que robaban los bienes de los campesinos y de los menestrales.</b>
41	Arkaza sutuak bota zituzten gainerako pisuetako leihoetatik, gehienak ez ziren sartu, baina aski izan zen lauzpabost sar zitezen, <b>gortina lodiek eta etxe</b> <b>andereek ehun-lanak egiten zituzten gelak su har zezaten.</b>	Algunos dardos llameantes, entrando por las ventanas de las alcobas, se clavaron en las gruesas cortinas y en los cobertores de lana, <b>que pronto ardieron en pompa.</b>

#### 4.2.5.3. Ondorioak

Azpicorpus honetan topatu ditugun binomio guztiek balio digute ST eta XTaren arteko itzulpen-baliokidetasunak aurkitzeko, eta, gauzak horrela, azpicorpus honetatik ateratako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

##### 4.2.5.3.1. Ondorio orokorrak

1. Azpicorpus honetan XTan gehitutako PEErik ez egotea bat dator itzulpenaren izaera alografoarekin.

2. Bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, ordea, desberdintasun handi samarra dago STtik XTra: STan azpicorpus honetatik atera ditugun 41 binomioetatik 11n bakarrik (%26,8) topatu dugu erlatibozko formaren baten erabilera, dela -N erlatiboarekin, dela ZEIN/NON erlatiboarekin; erlatibozko aposizioaren sailean sartu ditugun 6 adibideak ere kontatuz gero, %41,5era iritsiko litzateke, adibideen erditik ez oso urrutira.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTaren parafrasi-adierazlea %58,5ekoa da.

4. XTak corpus honetako batez bestekoak baino joera handiagoa du erlatibo esplikatioak erabiltzeko, 100 orrialdeko 26 PEE izanik haren proportzioa, C<sub>0</sub> corpus osoko hirugarren proportziorik handiena.

5. Azpicorpus honetako STaren egileak aztertu ditugun beste autoreek baino estilo hipotaktiko handiagoa duela dirudi, adibideen erdia baino



gehiagotan (%56,10) menderakuntza motaren bat topatu dugu-eta euskarazko testuan.

6. XTaren parafraasi-adierazlearen tamainak eta PEEen 100 orrialdeko proportzioak xede-testua gaztelaniaren halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago batera egokitzeko joera dagoela adierazten dute; edo, beste era batera esanda, Touryren "*target-oriented translation*" edo XKra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen du azpicorpus honetako itzulpena.

#### 4.2.5.3.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak.

Euskarazko STaren eta gaztelaniazko XTaren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Perpaus erlatiboak eta modu perpausak dira, hurrenez hurren, azpicorpus honetan topatzen ditugun prozedurarik erabilienak, bien artean adibide guztietatik erdira baino gehiagora (%51,2) iristen baitira:

<b>Erlatiboa</b>	11 binomio	%26,8
<b>Modu perpausak</b>	10 binomio	%24,4
<b>Aposizioa</b>	7 binomio	%17,1
<b>Perpaus juntadura</b>	6 binomio	%14,7
<b>Segmentu suborazionalak</b>	5 binomio	%12,1
<b>Helburu perpausak</b>	2 binomio	%4,9

2. Perpaus erlatiboen erabilerari dagokionez, erlatibo arrunta da gehien aurkitzen den egitura:

<b>-N erlatiboa</b>	7 binomio	%17,1
<b>ZEIN/NON erlatiboa</b>	4 binomio	%9,7

3. Aposizioari dagokionez, PE jokatuaren oinarritutako erlatiboaren aposizioa da erabiliena:

<b>PE jokatuarekiko aposizioa</b>	6 binomio	%14,7
<b>Aposizio soila</b>	Binomio 1	%2,4

- a. Aposizioan dauden bi segmentuak kasu absolutuan daude adibide gehienetan, inesiboan dagoen batean izan ezik.
- b. Aposizioan dauden bi segmentuen artean, kasu komunztadura egiten da adibide guztietan.

4. Perpausen juntaduraren barruan, emendiozko juntadura da motarik erabiliena:


<b>Emendiozko juntadura</b>	4 binomio	%9,8
<b>Alborakuntza</b>	2 binomio	%4,9

5. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio bat duten 6 binomio aurkitu ditugu (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Idazle honen kasuan, ez dirudi beste azpicorpus batzuetan bezain garbi halako harremana dagoenik erabiltzen dituen prozedura desberdinen eta izen propioari itsasten zaion kasu-markaren artean:

- a. Hiru binomiotan (9, 16 eta 25), izen propioa kasu absolutiboan dago, eta STan aposatutako perpaus bat, juntatutako perpaus bat eta perpaus erlatibo arrunt bat topatu ditugu XTko klausula esplikatioaren baliokide gisa.
- b. Beste hiru binomioetan, STko izen propioak absolutiboa ez beste kasu-marka bat darama; eta XTko klausula erlatiboaren lekuan, perpaus erlatibo arrunt bat (24) eta moduzko perpaus bi (34 eta 35) topatu ditugu.

#### 4.2.5.3.3. Grafika sinoptikoa.

Ondoko irudian ikus ditzakegu modu grafikoagoan azpicorpus honetako XTko erlatibo esplikatiboei STan dagozkien jatorrizko baliabide sintaktikoak eta haien erabilera maila:



5. grafika: C<sub>5</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.

#### 4.2.6. C<sub>6</sub> azpicorpusa: Eider Rodríguez, *Haragia*

##### 4.2.6.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Eider Rodríguez
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Haragia</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Susa (Donostia)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2007
<b>Orrialdeak:</b>	154
<b>Xede Testua:</b>	<i>Carne</i>

<b>Itzultzailea:</b>	Eider Rodríguez
<b>XTren argitaletxea:</b>	451 Editores (Madrid)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2008
<b>Orrialdeak:</b>	157
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	14
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	14

C<sub>6</sub> deitu deitu dugun azpicorpus honetan autoitzulpen batekin egiten dugu topo. Kasu honetan ere ez dago itzulpen-prozesuari buruzko erreferentzia bibliografikorik, eta topatu dugun bestelako informazio-iturri bakarra Youtubeko bideo bat da, Etxepare Euskal Institutuak bultzatutako "Euskal Sortzaileak Sarean" deritzan proiektuaren barrukoa, zeinean autoreak literaturaren eta itzulpenaren inguruan hitz egiten baitu Poloniako Poznan hiriko Adam-Mickiewicz-eko ikasle batzuekin<sup>119</sup>. Bertan, idazleak dio, bere beste liburu baten haritik baina oro har bere itzulpeni buruz mintzatuz, bera ez dela oso leiala bere STarekin, ez zaiola desleiala iruditzen gauzak aldatzea eta, bere iritziz, hobetzea.

Gure tesiari dagokion ikergaiari dagokionez, berriz, autoreak iradokitzen duen berridazketa horrek ez du islarik PEEen gehiketan, XTan topatu ditugun guztiek baliokide bat edo beste badutelako STan. Bestalde, 100 orrialdeko proportzioa nahiko txikia da, 9 zehazki, C<sub>0</sub> corpus osoko txikienetakoa eta batez bestekoaren nahiko azpitik. Ildo horretatik, beste autoitzulpen batzuekin alderatuta, ez dirudi esan daitekeenik itzulpen mota horrek eragina izan duenik kasu honetan XTko erlatibakuntza-joeran.

Guztira, beraz, 14 binomio atera ahal izan ditugu bi testuen arteko itzulpen-baliokidetasunak antzemateko eta bi bertsioetako prozeduren azterketa estilistiko-sintaktikoa egin ahal izateko.

Ikus dezagun, besterik gabe, zein diren azpicorpus honetan XTan erlatibo esplikatiboen bidez itzulita STan aurkitu ditugun prozedurak.

<sup>119</sup> 2014ko apirilaren 11ko saioa. On line: <https://www.youtube.com/watch?v=jiVjkPSUiFA> [Kontsulta-data: 2016-02-10].

#### 4.2.6.2. STko baliabideak

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### 4.2.6.2.1. Segmentu suborazionalak

Hiru kasutan (adibide guztietatik %21,4an, beraz), XTko perpaus erlatiboari dagokion STko testu zatia ez da iristen perpausen mailara, segmentu suborazional bat besterik ez baita; kasu gehienetan, osagarri zirkunstantzial edo adizlagun batetik ateratzen da XTko erlatiboa.

Normalean, adibide hauetan ikusten denez, XTan erantsi –edo nolabait esplizitatu– egiten da jatorrizko segmentu suborazionalan ez dagoen aditz forma bat, aditz hori izanik itzulpeneko bertsioan bigarren segmentua perpaus bihurtzen laguntzen duena:

1	Patioan <b>Fermin eta Galder eserita dauden txokora</b> bildu da.	En el patio, se reúne con Fermín y Galder, <b>que están sentados en un rincón.</b>
2	Ispilu aurrean paperezko txanoa ipini dute eta ondoren plastikozko eskularruak, <b>ukondoetarainokoak.</b>	Frente al espejo, se ajustan los gorros de papel, y después los guantes de plástico, <b>que les llegan hasta los codos.</b>
3	Herrira itzulitakoan, laranja ura hartzera gonbidatzen zuen aitak, hitz hori erabiltzen zuen, <i>gonbidatu</i> , eta berak ardo kopa bat edaten zuen, <b>gehienetan bi</b> , isil-isilik bukatu arte.	De vuelta al pueblo, su padre la invitaba a tomar zumo de naranja, utilizaba esa palabra, <i>invitar</i> , y él se bebía una copa de vino, <b>que casi siempre eran dos</b> , en absoluto silencio.

##### 4.2.6.2.2. Perpausen juntadura

Perpausen juntadura ere hiru adibidetan aurkitu dugu, hots azpicorpus honetatik atera ditugun adibide guztietatik %21,4an.

Bestalde, bi juntadura mota aurkitu ditugu STan, alborakuntza eta emendiozko juntadura.

### a. Alborakuntza

Perpausak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza bi binomiotan aurkitu dugu, hau da, adibide guztietatik %14,2an. Kasu honetan, STan bi perpaus lokabe alboraturik daude, koma batez banatuta, baina multzo semantiko bakarra osatuz, hori izanik XTan duen egitura (perpaus nagusi baten barruan txertatutako perpaus erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau delarik XTko perpaus erlatiboko aurrekaria.

Bestalde, XTko perpaus erlatiboa STan alboratutako bigarren perpaus edo segmentutik aterata dago bi kasuetan:

4	Matilda amarengana joan da, <b>patioko leihoan da, gorputz erdia ilunpean eta beste erdia argizaturik, ohartu gabe alaba atzean duela.</b>	Matilda se dirige hacia su madre, <b>que está asomada en la ventana del patio tendiendo la ropa, con medio cuerpo a la sombra y el otro medio iluminado.</b>
5	Anak ere ez dio Joakinen lanari erreparatzen, <b>aluminiozko leihoak egiten dituen enpresa batean zazpigarren urtea du.</b>	Ana tampoco se fija en el trabajo de Joaquín, <b>que lleva siete años en una empresa dedicada a hacer ventanas de aluminio.</b>

Ohargarria da azken binomioan, XTko erlatiboaren ardatza eta STko erreferentziakidea izen propioa dela, eta genitiboan dagoela.

### b. Emendiozko juntadura

Azpicorpus honetako euskarazko STan binomio bakarrean topatu dugu bi perpausen emendiozko juntadura, hots, juntagailu kopulatiboaz elkartutako bi perpaus. Adibide guztietatik %7,2an, hortaz.

XTko perpaus erlatiboa STan juntaturiko bigarren perpausetik aterata dago, eta aipagarria da XTko perpaus erlatiboa *sentential relative* motakoa dela, hots, lehen segmentua da erlatiboaren aurrekaria.

6	Segidan Aitorren irudia etorri zaio ontzira bueltan igerian, <b>eta Gupida da amoranteen galbidea idatziko du geroago egune-rokoan.</b>	A continuación le viene a la mente la imagen de Aitor nadando hacia el barco, <b>por lo que más tarde escribirá en su diario: «La</b>
---	---	---

	<b>compasión es la pérdida de los amantes».</b>
--	---

#### 4.2.6.2.3. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, oro har, erlatibo mota desberdinak dira gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatiboa erabiliz itzulita euskarazko STan agertzen diren prozedura sintaktikoen arteko multzorik handiena, %57,2arekin; eta erlatibo motei erreparaturik, -N perpaus arruntak dira erabilienak, ZEIN/NON erlatiboaren agerraldi bakarra dago eta.

##### a. -N erlatiboa

Era honetako erlatiboak 7 adibidetan aurkitu ditugu, adibide guztietatik %50ean. Kasu guzti-guztietan, perpaus erlatiboaren ardatza izen arrunt soila da.

7	<b>Ebakuntza egin zuenetik beste norbaiti txirrina jotzen dion</b> bizilagunaren hitzak gogoratu zaizkit gaur.	Hoy he recordado las palabras de la vecina, <b>que desde que se operó llama a otra puerta.</b>
8	Neskak, <b>bota garaietan igota funambulista dirudien</b> emakumeari begiratu dio.	La chica dirige su mirada hacia la mujer, <b>que subida en las altas botas parece una funambulista.</b>
9	Behin baino ez da bakarrik egon bakarrik egoten jakin gabe, eskola garaian izan zen. <b>Balantzaka zihoan</b> aitaren eskutik korridoreetan zehar.	Solo una vez ha estado sola sin saber estar sola, sucedió en la escuela. Atravesó los pasillos de la mano de su padre, <b>que iba dando tumbos.</b>
10	<b>Goizeko zazpitan pilulen eraginarena beste ezerena izan ezin daitekeen</b> andrearen sinpatia oldetik babestu nahian magalera atera du <i>Bikoteen bakartasuna</i> liburua, baina ez da hitzak ulertzeko gai.	Para protegerse de la oleada de simpatía que proviene de la señora de enfrente, <b>que a las siete de la mañana solo puede ser producto de las anfetaminas</b> , pone sobre su regazo <i>La soledad de las parejas</i> , pero no es capaz de entender las palabras.

Aipagarria iruditzen zaigu 7 adibideetatik hurrengo hiruetan XTan oker tipografikoa dagoela, perpaus erlatiboa nabarmenki ez-murrizgarria delako, baina, hala ere, koma falta da. Gure ustez, STan erlatiboa erabili izanak eragindakoa da oker hori, beste azpicorpus batzuetan ere topatu baitugu;

horregatik, euskal joskeraren eragina delakoan, erabaki dugu era honetako adibideak aintzat hartzea azpicorpusetan:

11	Eta irribarre bihurtzen joan zaio aurpegiko haragia neskari, <b>hiriko farolen erritmora kliskatzen diren</b> taxilariaren begiei entzuten.	Y a la chica se le ha ido convirtiendo en sonrisa la carne de su rostro, escuchando los ojos del taxista <b>que se apagan al ritmo de las farolas.</b> (sic)
12	Eztia da burukien azpian gordeta dudan nezeserraren kremallera laztantzea, <b>hemendik aurrera berriro ere depilatuko ditudan</b> bekainentzako pintza.	Qué agradable acariciar la cremallera del neceser bajo el cojín, con la pinza para las cejas <b>que a partir de ahora volveré a depilarme.</b> (sic)
13	Lumatzen joan da, kendutako luma sorta bakoitzaren ostean <b>maleta askatu ezin duen</b> alabari txeraz begiratuz.	Lo va desplumando, y tras cada manojo de plumas arrancadas mira con cariño a su hija <b>que continúa sin poder soltar la maleta.</b> (sic)

#### b. ZEIN/NON erlatiboa

Azpicorpus honetan, adibide bakarra aurkitu dugu STan (adibide guztietatik %7,2):

14	[...] emakumearen sasi-ezkertiartasuna, bere askapen femeninorako urtetako ahalegina gizon haren hipnosi gaitasunak birrindurik, <b>zeinarentzako, normala denez bere herrian, emakumeak etxola garbi izateko eta arrazaren biziraupena bermatzeko baina ez ziren.</b>	[...] todo el pseudoizquierdismo de aquella mujer, el esfuerzo realizado durante toda una vida para liberarse como mujer destruido por la capacidad hipnótica de aquel hombre, <b>para quien, por otro lado, las mujeres no sirven más que para mantener ordenada la choza y hacer perdurar la raza.</b>
----	--	--

#### 4.2.6.3. Ondorioak

Azpicorpus honetan topatu ditugun binomio guztiek balio digute ST eta XTaren arteko itzulpen-baliokidetasunak aurkitzeko, eta, gauzak horrela, azpicorpus honetatik ateratako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

##### 4.2.6.3.1. Ondorio orokorrak



1. Azpicorpus honetako gaztelaniazko bertsioa autoitzulpena izan arren, XTan ez dago gehitutako PEErik.

2. Bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, hala ere, badago alderik STtik XTra: izan ere, STan azpicorpus honetatik atera ditugun 14 binomioetatik 8tan bakarrik (%57,2) topatu dugu erlatiboazko formaren baten erabilera, gehienbat -N erlatiboarekin.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTaren parafrasi-adierazlea %42,9koa da.

4. Portzentaje esanguratsu samarrean (%21,4an) aurkitu dugu puntuazio okerra XTko erlatibo ez-murrizgarrian, koma faltagatik. Gure iritziz, oker horrek baduke zerikusirik STan nagusi den prozedurarekin; hau da, -N perpaus motako erlatibo arrunta erabiltzeko joera indartsuak eragindakoa dela iruditzen zaigu, esan behar delarik beste azpicorpus batzuetan ere oker berbera aurkitu dugula.

5. Adibideak gutxi diren arren, XTaren parafrasi-adierazlearen tamaina bat dator XTaren autoitzulpen izaerarekin eta xede-testua gaztelaniaren halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago batera egokitzeko joerarekin.

#### 4.2.6.3.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak.

Euskarazko STaren eta gaztelaniazko XTaren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Perpaus erlatiboak dira egitura sintaktikorik erabilienak, baina segmentu suborazionalak eta perpausen juntadura ere hein handi samarrera iristen dira bien artean:

<b>Erlatiboa</b>	8 binomio	%57,2
<b>Segmentu suborazionalak</b>	3 binomio	%21,4
<b>Perpausen juntadura</b>	3	%21,4

	binomio	
--	---------	--

2. Perpaus erlatiboen erabilerari dagokionez, erlatibo arrunta da gehien aurkitzen den egitura:

<b>-N erlatiboa</b>	7 binomio	%50
<b>ZEIN/NON erlatiboa</b>	Binomio 1	%7,2

3. Perpausen juntaduraren barruan, alborakuntza da egiturarik erabiliena:


<b>Alborakuntza</b>	2 binomio	%14,2
<b>Emendiozko juntadura</b>	Binomio 1	%7,2

4. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio bat duen binomio bakarra aurkitu dugu (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria), gutxiegi ebatzi ahal izateko ea idazle honen kasuan ere harremanik ba ote dagoen erabiltzen dituen prozedura desberdinen eta izen propioari itsasten zaion kasu-markaren artean. Hala ere, binomio horretan, izen propioa genitiboan dago eta XTko klausula erlatiboaren baliokidea alboratutako perpaus bat da.

#### 4.2.6.3.3. Grafika sinoptikoa

Ondoko irudian ikus ditzakegu modu grafikoagoan azpicorpus honetako XTko erlatibo esplikatioei STan dagozkien jatorrizko baliabide sintaktikoak eta haien erabilera maila:

### STn erabilitako baliabide sintaktikoak



6. grafika: C<sub>6</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.

#### 4.2.7. C<sub>7</sub> azpicorpusa: Ramon Saizarbitoria, *Hamaika pauso*

##### 4.2.7.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Ramon Saizarbitoria
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Hamaika pauso</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Erein (Donostia)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1995
<b>Orrialdeak:</b>	446
<b>Xede Testua:</b>	<i>Los pasos incontables</i>
<b>Itzultzailea:</b>	Jon Juaristi
<b>XTren argitaletxea:</b>	Espasa-Calpe (Barcelona)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1995
<b>Orrialdeak:</b>	368
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	126
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	118

C<sub>7</sub> deitu dugun azpicorpus honetan ere itzulpen alografo batekin egiten dugu topo, eleberriaren paratestuetan aitortzen den bezala. XTaren itzulpen-prozesuari buruzko erreferentzia bakarra topatu ahal izan dugu<sup>120</sup>, eta bertan badirudi autoitzulpenaren aukera baztertzen duela egileak, zuzenean ez baina bai zeharka, esaten duenean berak ez duela gaztelaniazko itzulpena buruan izaten halako pasarte bereziren bat idazten ari den bitartean: «*Gure bidea beti izan ohi da gaztelaniara eta gero handik beste norabait. Hori oso arriskutsua izan liteke literatur sortzailearentzat. Euskaraz eginiko nobelaren bidea ondoren gaztelanitik pasatzea bada, baldintzatu egin lezake idazlea sortzen ari den unean bertan. Estiloan eragina eduki dezake, sortzetik bertatik eragin dezake. (...) euskal idazle batek onartua du nire aurrean, idazteko orduan, bere pertsonaietako baten joera politikoa gaztelaniazko itzulpenean nola geratuko litzatekeen aztertu duela. Hori ez zait batere gustatzen*». Beste alde batetik, gure ustez kontuan izan beharra dago idazle honek ez duela inoiz bere lan bat autoitzuli eta bere lanen itzulpen guztiak beste itzultzaile batzuek egindakoak direla beti. Azkenik, idazlearekin izandako zuzeneko komunikazio baten

<sup>120</sup> Alberdania argitaletxeak 2002an atera zuen *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* liburua, 118-121. orr.

arabera, aditzera eman digu gaztelaniazko bertsioa inprimatu aurretik irakurri eta zuzenketa batzuk egiteko parada izan zuela, baina itzultzailearekin zalantzarik eztabaidatu gabe eta inolako elkarlanik egin gabe.

Dena den, gure tesian aztertzen ari garen prozedura sintaktikoan zentratuak, badira ST eta XTaren artean halako desberdintasun txiki batzuk, txikiak eta PEE batzuk eranstera mugatuak; izan ere, XTan aurkitu ditugun 126 PEEetatik 8 kasutan, hauek ez dute inolako baliokiderik jatorrizko testuan, itzulpenari erantsitako gehiketa narratibo txikiak dira, beharbada idazleak itzulpenaren zuzenketa-fasean sartuak, ez baitago inolako motiborik itzultzaileak sartuak izateko behintzat. Erantsitako 8 binomio horiek ez dira baliagarriak bi testuen arteko itzulpen-baliokidetasunak antzemateko eta bi bertsioetako prozeduren azterketa estilistiko-sintaktikoa egin ahal izateko, eta, horrenbestez, bukaerako azterketatik kanpo utzi ditugu.

Beste alde batetik, badago beste alde bat  $C_7$  hau corpus osoko beste azpicorpus gehienetatik bereizten duena: PEE kopururik handiena dago hemen, nahiz gero 100 orrialdeko proportziorik handienetan bigarrena baino ez den (34),  $C_4$  azpicorpusaren atzetik. Geroagoko azterketan ikusi beharko dugu ea datu hori idazlearen erlatibakuntza-joerarekin lotzekoa ote den ala itzultzailearen estiloari egotzi behar ote zaion.

Ikus dezagun, besterik gabe, zein diren azpicorpus honetan XTan erlatibo esplikatiBoen bidez itzulita STan aurkitu ditugun prozedurak.

#### **4.2.7.2. STko baliabideak**

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### **4.2.7.2.1. Segmentu suborazionalak**

Hamar kasutan (adibide guztietatik %8,5ean, beraz), XTko perpaus erlatiboari dagokion STko testu zatia ez da iristen perpaus mailara, segmentu

suborazional bat besterik ez baita; kasu gehienetan, adizlagun batetik ateratzen da XTko erlatiboa, baina baita IS soil batetik ere.

1	<b>Bizar gristatzen hasiak</b> , hogeita hamarretan zebilela salatzen bazuen ere, itxura oneko zegoen.	Aunque la barba, <b>que empezaba a poblarse ya de canas</b> , delataba que había entrado hacia tiempo en la treintena, tenía una inmejorable presencia.
2	<b>Beheko ezpainak goikoa, zertxobait besterik ez bazen ere, gaingitzeko modua ez zitzaion sekula gustatu.</b>	Nunca le gustó el labio inferior, <b>que sobresalía del superior</b> , aunque sólo fuera un poco.
3	Bien atzean KILL hitza ageri zen, <b>hitzaren lau letrak tanta-jario, odolez idatzia zegoelako efektua lortzeko.</b>	Detrás de ambos aparecía la palabra KILL, <b>de cuyas cuatro letras colgaban goterones para dar la impresión de estar escrita en sangre.</b>
4	Kaperatik atera eta larre lokaztu hartara eramán zuten arte, ez zuen jakin nola hil behar zuten, ezta ez ziotela eman exekuzioa atzeratzearen berri ere, <b>Gurutze Gorriko kapilauaren bidez</b> —«un buen rato, más de una hora quizá»— horrek esperantza faltsuaren amasa eman ziola jaso bazuen ere.	Hasta que lo sacaron de capilla y lo condujeron a aquel lodazal, no supo cómo iban a matarlo, ni la demora en la ejecución, <b>de la que tuvo noticia a través del capellán de la Cruz Roja</b> —«un buen rato, más de una hora quizá»—, que, sin duda, incrementó inútilmente su ansiedad y alentó quizá en él una débil esperanza.
5	Garai hartan xehetasun txikienean zehaztasuna zuen ikasgai. <b>Hamaika Pauso-n gauza txiki-xeheak atxikitze ahalmena. Petite damek xehetasunak erabateko fideltasunez eta aberastasunez gordetze erakusten duen gaitasuna.</b>	Iñaki Abaitua tenía que desarrollar todavía ese gusto por la precisión que aparece luego en <i>Los pasos incontables</i> , <b>donde es evidente el esfuerzo por aprehender lo aparentemente pequeño siguiendo la pauta de evocación de la petite dame.</b>
6	Eta zero grisa ebakitzerik lortzen ez zuten mendi beltz pinudiz estaliak azaltzen ziren, eta ibai beltza, <b>zeraman zaborra ertze-tako sastrakaren kontra igurtziz kentzeko eginahalean.</b>	Y aparecían los montes negros cubiertos de pinos que no conseguían recortarse en el cielo gris; y el río negro, <b>que, se diría, trata de liberarse de las basuras que transporta restregándose contra las zarzas de la ribera.</b>
7	«Erre egingo nauzu» esan zion berak, eta Juliak, «sua bainaiz», bere saihetsera itsatsiz, vamp bat imitatze perfiler jarri eta, <b>zigarroa eskuan</b> , buru gaineratik altxatuz.	«Me vas a quemar» dijo él, y Julia, «es que yo soy fuego», como solía hacer, colocándose de perfil, imitando, como solía hacer, el gesto de una mujer fatal y levantando la mano, <b>que sujetaba un cigarrillo</b> , por encima de la cabeza.

8	Julia desagertu egin da berriro ere, alboko atean orain, eta ahots beroa entzun dio, <b>txikikari gozoz josiriko solasean.</b>	Julia ha desaparecido una vez más. Esta vez en la habitación de al lado. Puede oír su voz, dulce, <b>que fluye de una conversación poblada de diminutivos.</b>
9	Fikziozko heriotza-kondena guztietan, tentsio narratiboa lortzeko bide gisa, ordua atzeratzearekin jolastea da legea, <b>indulto posible baten esperantzarekin, alegia.</b>	En todas las ejecuciones reales o imaginarias llevadas a la literatura y al cine, se juega, para intensificar la tensión narrativa, con el retraso de la hora, <b>que alimenta la esperanza de un posible indulto.</b>
10	Martxarik aldatu gabe, motorra <b>zarata bizian</b> azeleratu, ilaratik irten eta eskuinaldeko bidera abiatu zen.	Sin cambiar la marcha, aceleró el motor <b>que hizo un fuerte ruido</b> , salió de la fila de coches y se metió por el camino de la derecha. (sic) <sup>121</sup>

#### 4.2.7.2.2. Aposizioa

Azpicorpus honetako 21 adibidetan (guztietatik %17,8an, beraz), aposizioa aurkitzen dugu STan, gaztelaniazko itzulpenean erabili diren PEEen lekuan; bigarren prozedurarik erabiliena da, horrenbestez, perpaus erlatiboen ondoren, baina modu perpausen oso antzeko mailan.

Aposizio motetan sartuz, topatu ditugun aposizio guztiak, bat izan ezik, erlatibozko aposizioak dira; bestean, partizipio bat da aposatutako segmentuan dagoena. Bestalde, erlatibozko aposizioen artean, gehien-gehienek -N perpausari mugatzailea eransten diote, eta beste batek -N perpausa + erakuslea egitura du.

Bestalde, aposizioetako bi segmentuen kasuari begiratzen badiogu, azpicorpus honetan ere ikusten dugu adibide gehienetan absolutiboa erabiltzen dela, bitan izan ezik: bat inesiboan dago (27. binomioa), bestea ergatiboan (28. binomioa), baina bi hauetan ere kasu komunztadura dago bi segmentuen artean.

#### a. Erlatibozko aposizioa

##### a.1. -N perpausa + mugatzailea

<sup>121</sup> Itzulpeneko puntuazioa ez da zuzena, perpaus erlatiboaren kanpoko ardatzak koma batez bananduta egon behar duelako izenordain erlatibotik; horregatik ipini dugu (sic). Izan ere, adibide honetakoa, berez, erlatibo esplikatiboa izan behar du nabarmenki eta, horregatik, corpusean aintzat hartu dugu, beste azpicorpus batzuetan egin dugun bezala.

Perpau nagusian dagoen ISari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, erlatibo bati mugatzailea itsatsiz, eta, adibide gehienetan, kasu komunztadura egonik bi sintagmen artean; kanpoko ardatzaren kokapenari begiratzen badiogu, ikusiko dugu aposizio-tartekiaren aurre-aurrean edo oso hurbil egoten dela.

a.1.1. Binomio ia guztietan, aurrekaria den izena (arrunta nahiz propioa) eta aposizioa kasu absolutuan daude, singularrean nahiz pluralean.

11	Bestalde, hor zeuden atezainak eginiko adierazpen haiek, <b>kazetarietarik arretaz jaso zituztenak.</b>	Por otra parte, estaban las declaraciones del portero, <b>de las que se hizo eco la prensa puntualmente.</b>
12	Ezagutu zutenek gogoan dituzte haren esaldi ikaragarriak, <b>gehienetan latinez ahoskatzen zituenak.</b>	Los que lo conocieron recuerdan sus frases terribles, <b>que a menudo profería en latín.</b>
13	Martirietako kanpai hots grabea entzun zen, <b>airean nota faltsu bat utzi zuena.</b>	Oyó el tañido grave de la campana de los Mártires, <b>que dejaba en el aire una nota falsa.</b>
14	Pauso hotsa, «adreiluzko horma hotzek danbor tarrapata bailitza errepikatzen dutena», <b>lau, apika bost pertsonari dagokiena.</b>	Ruido de pasos «repetido por las frías paredes de ladrillo como si fuera un redoble de tambor», <b>que corresponde a cuatro, tal vez cinco personas.</b>
15	Pentsatzen zuen ordu batzuk geroago esku hura — <b>besaburuan pausatu zitzaion batean bere eskuetan hartzeko egon zena</b> — Donostian tabernaren bateko barran pausatuko zela. <sup>122</sup>	Solía pensar que, a las pocas horas, aquella mano, <b>que se apoyaba en su hombro y que una vez estuvo a punto de tomar entre las suyas,</b> descansaría sobre la barra de algún bar de San Sebastián.
16	Besteetatik, Garbiñe lehengusinarekin postala du gauzarik maiteena, <b>negu gorrian heldu zitzaiona.</b>	De todo lo demás, lo que más le gusta es la postal de su prima Garbiñe, <b>que le llegó en pleno invierno.</b>
17	Egunsenti hotzean, behelainotan, Sanchez Toca aldera galtzen zen jende isil eta ilunaren lerroa, <b>tren galdu eta abandonatu bat zirudiena jendeari zerion bafa-</b>	La cola de gente silenciosa y oscura que se prolongaba hasta Sanchez Toca en el frío del amanecer, entre la niebla, <b>que parecía, por efecto del vaho que despedía la gente, un</b>

<sup>122</sup> Berez, tipografikoki, aposizioa tarteki modura agertzen bada ere, gidoi artean alegia, gainontzeko aposizioen egitura berbera du, komunztadura egonik aurrekariarekin; horregatik sartu dugu adibide hau aposizioen sailean, eta ez tartekien arteko multzoan.



	<b>daren poderioz.</b>	<b>tren perdido y abandonado.</b>
18	Melitón Manzanas torturatzaile bera, <b>ETAk 68an hil zuena.</b>	El mismísimo torturador y fichero viviente Melitón Manzanas, <b>que ETA mató en el 68.</b>
19	Begiak izan ezik, dena zuen handia; handia baino gehiago, luzea, sudurra batez ere, eta hortz horituak, <b>algaraz barre egiterakoan ahoa bete erakusten zituenak.</b>	Excepto los ojos, todo lo tenía grande; más que grande, largo, especialmente la nariz, y los amarillentos dientes, <b>que mostraba por completo cuando se reía a carcajadas.</b>
20	Ez zuan hori. Sartu, sartzen zian. Gauza psikologikoa zuan, ikara, <b>irteera baten bila pentsatzea galarazten duena.</b>	No era eso. Entrar sí que entraba. Era algo psicológico, el miedo, <b>que impide pensar en una salida.</b>
21	Zurezko kaxaren inguruan bilduz doaz astiro, eta handik fusilak hartuz, mausserrak, <b>berak soldaduska egin zuenean Arma-dan erabiltzen zirenak.</b>	Poco a poco se reúnen en torno a la caja de madera y cogen de allí sus fusiles, mausers, <b>que Daniel Zabalegi reconoce porque se utilizaban en el Ejército cuando él hizo la mili.</b>
22	Hatz hareazkoak, <b>arrotz zaizkionak</b> , heriotzaren zuritasunak hartuta jada.	Dedos de arena, <b>que le resultan extraños</b> , dotados ya de la palidez de la muerte.
23	Adierazpen gogor hura besterik ez, «no quiero saber nada con la Iglesia de estos», <b>Mujika Iraola erretore ohiari hain adie-razgarria iruditzen zaiona.</b>	Solamente aquella dura expresión, «no quiero saber nada con la Iglesia de éstos», <b>que le parece tan elocuente al antiguo párroco de A., Mujika Iraola.</b>
24	Aldez aurretik sukaldeko lur gastatuari zerion lixiba usaina atzeman zezakeen, eta txapa gaineko lapikoak eragingo zuen lurrinaren berotasuna, <b>kare urdinduz pintaturiko hormaren hotz hezea bizkarrean areagotzen ziona.</b>	Podía presentir el olor a lejía que emanaba del suelo gastado de la cocina, y el calor del vapor provocado por el puchero sobre la chapa, <b>que le hacía sentir más intensamente en la espalda el frío húmedo de la pared pintada con cal azulada.</b>
25	Sinesgaitza egiten zitzaion frakez jantzitako jende hura, <b>hain enfatikoki hitz egiten zuena</b> , inguruetako kaleetan bizi zitekeenik.	Le parecía imposible que aquella gente vestida de frac, <b>que hablaba tan enfáticamente</b> , pudiera vivir en las calles vecinas.
26	247. folioan eta ekainaren 20 dataz ageri da lehenbiziko eskaria, eta A-ko epaitegiaren erantzuna, <b>dudarik gabe Iñaki Abaituaren jakinmina ernarazi zuena.</b>	La primera solicitud del instructor consta en el folio 247 con fecha de 20 de junio, y la respuesta del Juzgado, <b>que fue, en su forma y contenido, lo que llamó la atención de Iñaki Abaitua</b> , consta en el mismo folio y viene fechada cinco días más tarde.

a.1.2. Beste bi binomiotan, inesiboa eta ergatiboa topatzen ditugu, komunztadura egonik aurrekariaren eta aposizioaren artean:

27	Sinadura argia izan zuen beti. Lehenbizikoetan esku irmo eta seguru baten naretasuna ageri duen arren, [...] ondorengoetan, <b>kartzela barruko tramite paperetan ageri direnetan</b> , bestelako erraztasun bat nabari da, lehen ez zituen arintasuna eta segur-tasuna.	Siempre tuvo una firma clara. Aunque en las primeras se percibe la tranquilidad de una mano firme y segura [...] en las posteriores, <b>que aparecen en los documentos de trámites penitenciarios internos</b> , se intuye otra habilidad, una ligereza y seguridad que antes no tenía.
28	Nortzuk diren aberriaren etsaiak eta nortzuk abertzaleak [...] beren burua marxista sozialistatzat jotzen duten horiek ala guk, <b>hemen, hemendik eta honako, betikoari eutsi diogunok.</b>	Sabréis distinguir quiénes son los enemigos de la patria y quiénes los patriotas. Ésos que se proclaman marxistas o nosotros, <b>que hemos mantenido lo de siempre aquí, lo de aquí, aquí y para aquí.</b>

### a.2. -N perpausa + erakuslea

Adibide bakar batean<sup>123</sup>, erakuslea da -N perpausari eransten zaiona, eta komunztadura dago bi segmentuen artean, inesiboan zehazki:

29	Sakongrabatuaren puntu zuri-beltzez osaturiko laukian — <b>ordu luzez, lupaz aztertuko zuen hartan</b> —, ikaragarriena tortura disimulatzeko ahalegin narratsa gertatzen zitzaion.	Lo más patético en aquella nube de puntos negros y blancos del deficiente huecograbado — <b>que más adelante observaría tantas veces ayudándose de una lupa</b> — era el burdo, el descuidado intento de disimular la tortura.
----	---	--

### a.3. -N perpausa + izen arrunta

Adibide batean, aposizioan erlatiboari itsasten zaiona izen arrunta da, komunztadura dagoelarik bi segmentuen artean<sup>124</sup>:

30	Biak egon ziren komandantzia berean, baina Iñaki Abaitua lehenbiziko solairuan, <b>buruzagiek</b>	Ambos estuvieron en la misma Comandancia, pero Iñaki Abaitua estuvo en el primer piso, <b>en el que</b>
----	---	---

<sup>123</sup> Ikus aurreko oharra.

<sup>124</sup> Nolanahi ere, ez da segurua XTko bertsioa erabat zuzena den ala ez, aposizioko "esparruan" hori itzultzean hain zuzen, ez dagoelako garbi hitz hori aurreko "solairu" hitzaren anaforikoa ote den, ala deskribapenaren zehaztasun bati erantzuten dion; izan ere, hala balitz, "en la parte (del primer piso) en la que los jefes tienen sus despachos" izango litzateke itzulpen zuzena.

	<b>bulegoak dituzten esparruan</b>	<b>los jefes tienen sus despachos.</b>
--	------------------------------------	--

### b. Aposizio soila

Esan bezala, kasu batean, STan aposatutako segmentuan dagoena partizipio bat da, aurreko segmentuarekin komunztaduran dagoena, kasu absolutuan, nahiz eta, ikusiko den bezala, XTko eta STko aurrekariak berdinak ez diren:

31	Zutik dago Juliaren etxe ondoan, badiari so. Badiaren urazal altzairu-kolorea, <b>eguzkiaren azken printzek Hendaia aldean urre leunez tindatua.</b>	Está de pie, mirando la bahía. La superficie del agua, color de plata oscura ya, y la playa de Hendaya, <b>que los últimos rayos de sol tiñen de suave oro todavía.</b>
----	--	---

#### 4.2.7.2.3. Perpausen juntadura

Perpausen juntadura azpicorpus honetatik atera ditugun adibide guztietatik %12,7an aurkitu dugu.

Topatu ditugun juntadura motak alborakuntza, emendiozko juntadura eta aurkaritzazkoa izan dira, emendiozkoa izanik erabiliena, %6,8arekin, eta alborakuntza ondoren, %5,1arekin.

#### a. Alborakuntza

Perpausak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza 6 binomiotan aurkitu dugu guztira. Kasu guztietan, alboratzen diren bi segmentuak bi perpaus lokabe dira, puntu batez edo koma batez banatuta. Nolanahi ere, alborakuntzan juntatutako bi perpaus edo bi segmentuek multzo semantiko bat bakarria osatzen dute, hori izanik XTan duen egitura (perpaus nagusi baten barruan txertatutako perpaus erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau delarik XTko perpaus erlatiboko aurrekaria.

**a.1.** Kasu gehientsuenetan, STan alboratutako bigarren perpausa da XTan erlatibo batez itzulita agertzen dena eta erlatibo hori, beraz, bukaerako posizioan kokatuta dago, aditz nagusiaren atzean:

32	Zigorrekin kasualitate hutsez egin zuen topo Bartzelonan 73ko udazkenean. <b>Iñaki Abaitua lane-ra joana zen, [...] ordenagailu lana Bartzelonan egiteko.</b>	Se había encontrado con Zigor en el otoño del 73, en Barcelona, <b>donde Iñaki Abaitua se encontraba por razones de trabajo.</b>
33	Ziurtzat jotzen zen heriotza zigorra emango ziotela. <b>Bandrések kasurik errazena uztea erabaki zuen, beraz.</b>	Se daba por seguro que sería condenado a la máxima pena, <b>por lo que Bandrés decidió abandonar el caso más sencillo para poder así asumir el más problemático.</b>
34	Furgoiraino ezetz eraman, desafio egin diote. <b>Ehunen bat metrora dago zain, zerral-doarekin.</b>	Le apuestan a que no lo lleva hasta el furgón, <b>donde se encuentra el ataúd a unos cien metros de distancia.</b>
35	Euskadiren alde ematen dut bizia, eta ez naiz damutzen, beste batzuk etorriko dira atzetik, <b>haiek jarraituko dute.</b>	Doy la vida por Euskadi y no me arrepiento; otros vendrán detrás, <b>que seguirán nuestro camino.</b>

Aipatzekoa da 32. binomioan izen propio bat dela XTko klausula erlatiboaren aurrekari eta STko perpaus alboratuen erreferentziakidea, eta inesiboan dagoela.

**a.2.** Beste adibide batzuetan, aldiz, alboratutako lehen perpausetik aterata dago XTko erlatiboa, eta berau tarteki bezala eransten zaio perpaus nagusiari aditz nagusia baino lehen:

36	<b>Teoria hura mozkorraldietan agertzen zuen,</b> literaturaren zeregina zela arrunzeria nazionalak literaturizatuz bertute bihurtzea.	Aquella teoría, <b>que formulaba en todas las borracheras,</b> de que la función de la literatura era hacer virtud de los defectos nacionales, literaturizándolos.
37	<b>Gorpuaren buruak ere atzerantz egiten du binbilika,</b> begi irekiak azpikoz gora.	La cabeza del cadáver, <b>que cuelga también hacia atrás,</b> se balancea, con los ojos abiertos.

## **b. Emendiozko juntadura**

Azpicorpus honetako euskarazko STan 8 binomiotan topatu dugu bi perpausen emendiozko juntadura, hots, juntagailu kopulatiboaz elkartutako bi perpaus.

Kasu guztietan, XTko perpaus erlatiboa STan juntaturiko bigarren perpausetik aterata dago.

Adibideetan ikusi ahalko den bezala, jatorrizko bertsioko juntadurako lehen predikazioa da itzulpenean perpaus nagusia eta, beraz, esaldiko aditz nagusia perpaus erlatiboaren aurretik kokatuta dago.

**b.1.** Zortzi adibideetatik bostetan, XTko erlatiboaren aurrekaria, izen bat izan beharrean, aurreko perpaus edo enuntziatu osoa da (*sentential relative*), eta enuntziatu oso hori da STan dagokion erreferentea:

38	<i>Hamaika Pauso</i> -ren bertsiotan, berriz, bera sentitzen da hutsegitearen errudun, <b>eta horrek sinesgarriago dirudi.</b>	En la versión de <i>Los pasos incontables</i> , sin embargo, es él quien se siente culpable del fracaso, <b>lo que parece más verosímil.</b>
39	Ea komunisten aldizkarian idazten zuen galdetu zionean, berriz, aukeran nahiago zukeela <i>El Alcazar</i> -en argitaratu erantzuteko umorea izan zuen, <b>eta zaharrak ez zion batere estimatu.</b>	Cuando le preguntó si escribía en la revista de los comunistas, tuvo el humor de contestar que, puestos a elegir, preferiría escribir en <i>El Alcázar</i> , <b>lo que el viejo no apreció en absoluto.</b>
40	Eta berari ea ba al zekien behean zurgindegia bat zutenik, <b>eta berak baietz ihardetsi zuen.</b>	A él le preguntó si sabía que abajo tenían una carpintería, <b>a lo que él respondió que sí.</b>
41	Ez zitzaion atsegin arropa erabil ziezaioten, ezta berak besteenik erabiltzea ere, <b>eta kontuan hartzen zuen zein zen hark erabilitakoa, berriro ez janzteko.</b>	No le hacía gracia que usaran su ropa, de la misma forma que tampoco le gustaba utilizar la ajena, <b>por lo que solía fijarse en cuál cogía para procurar no volver a ponérsela.</b>
42	Bazekien historia sinesgaitz bat izango zuela entzungai, <b>eta, besaulkian irristatuz, patxadarik hoberena bilatzen zuen.</b>	Iñaki Abaitua sabía que a continuación le contaría una historia insólita, <b>por lo que se reclinaba en el sillón buscando la postura más cómoda.</b>

**b.2.** Gainontzekoetan, XTko aurrekaria lehen perpausoko izen bat besterik ez da:

43	Altzari urriz hornitutakoa zen, <b>eta ez ziren falta garaiko estudiante eta profesional gazteenetan derrigorrezkoak ziren Miró eta Picassoren litografiak.</b>	Era de aquéllas surtidas de pocos muebles, <b>en cuyas paredes no faltaban las típicas litografías de Miró y Picasso obligatorias en los pisos de estudiantes y profesionales jóvenes de la época.</b>
44	Bihotz taupaden maiztasuna handitzen du, <b>eta hartara bihotzak bizkorrago ponpatzen du oxigenoa.</b>	Aumenta la frecuencia y energía del latido cardíaco, <b>que facilita un bombeo más rápido de sangre.</b>
45	Bi auto ziren, Peugeot handiak, gris metalizatuak, Bilboko plakekin. Auto bakoitzetik, kaiku urdinez jantzitako gazte batek salto egin zuen, <b>eta ateei zabalik eutsi zieten biek.</b>	Eran dos Peugeot grandes, de color gris metalizado, con matrícula de Bilbao. Saltaron de ellos sendos jóvenes vestidos con <i>kai</i> ku azul, <b>que mantuvieron abiertas las puertas.</b>

### c. Aurkaritzazko juntadura

Adibide bakarra aurkitu dugu azpicorpus osoan eta, kasu honetan, STko juntadurako lehen perpausetik aterata dago XTko perpaus erlatiboa, berau tarteki modura aditz nagusiaren aurretik txertatuz:

46	Jakinaren gainean egongo zara noski, lan bat egiten ari bazara, <b>oso pertsona ona da ama noski,</b> baina bueno, solteratan izan zuen umea.	Estará usted al corriente, ya que está usted haciendo un trabajo al respecto, de que la madre, <b>que es una bellísima persona,</b> tuvo el niño de soltera.
----	---	--

#### 4.2.7.2.4. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, erlatibo mota desberdinak dira gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatiboa erabiliz itzulita euskarazko STan agertzen diren prozedura sintaktikorik erabilienak, adibideen ia herenean (%30,5); gehiago zehaztuz, euskarazko testuan gehien aurkitzen ditugun erlatiboak -N perpaus arruntak dira; gainera, neurri askoz txikiagoan, ZEIN/NON erlatiboa eta PE jokatu gabe arruntak ere topatu ditugu.

##### a. -N erlatiboa

Esan bezala, hau da erlatibo motarik erabiliena azpicorpus honetan, 29 adibiderek (azpicorpus guztiaren %24,6).

a.1. Adibide bakarrean, perpaus erlatiboaren ardatza absolutiboan dagoen izen propio bat da:

47	Eta berak <b>garai hartan A-ko erretorea zen</b> Inazio Mujika Iraola eskatu omen zuen.	Y él solicitó la presencia de Inazio Mujika Iraola, <b>que en aquella época era el párroco de A.</b>
----	---	--

a.2. Gainontzeko guztietan, perpaus erlatiboaren ardatza den izena izen arrunta da:

48	<b>Txirikordatzen ari zen</b> alfombra gainetik burua altxatu gabe.	Sin levantar la cabeza de la alfombra, <b>cuyos flecos trezaba y destrenzaba.</b>
49	Jon Igartua, Abel Osa eta Ane internetza egiten ari ziren —San Pau ospitalean hirurak—, eta sarritan eraman izan zuten ospitaleko erizain batzuen omen zen eta beti jendez gainezka zegoen Coll de Portelleko etxe hartara.	Jon Igartua, Abel Osa y Ane estaban de médicos residentes en el hospital de San Pau y, a veces, lo llevaban a aquella casa de Coll de Portell, <b>que era de unas enfermeras y estaba llena siempre de gente.</b>
50	J. J. Lasak Savinelli pipa italiarretan erretzen zuen. Arratsaldea ahitzear, <b>inguratzen zituen</b> Capstan gozoaren kea mingots bilakatzen zen hoztutakoan.	J. J. Lasa fumaba en pipas italianas Savinelli. Cuando moría la tarde, el humo dulzón del Capstan, <b>que los rodeaba,</b> se tornaba acre al enfriarse.
51	Belarriak arretaz jasotzen zituen <b>argitzalean zabaltzen ziren</b> soinu ordura arte oharkabeak.	Los oídos discernían con aguda atención los ruidos hasta entonces imperceptibles, <b>que se multiplicaban en la penumbra.</b>
52	Euskaldunen genitalitate eragotziaz mintzatuko zen gero, eta <b>horren ondorio izan daitekeen</b> oralidadeaz.	Hablaría después de la genitalidad prohibida de los vascos y de la oralidad, <b>que es su consecuencia.</b>
53	—Gure mutilzahar euskaldun horrek aingeru mota berri bat inspira zezakeen—, dio <b>usain garratz eta bortitza darion</b> tabako bustia hautsontzian hustuz.	—Nuestro solterón vasco podría inspirar una nueva especie de ángel —dice, mientras vacía en el cenicero el tabaco húmedo, <b>del que se desprende un aroma fuerte y ácido.</b>
54	Amorrazio bereziz oroitzen zen Abel, Jon eta Albertorekin, laurak San Bartolome eta Urbieta arteko gurutzean zeuden hartaz, <b>egun beharbada desagertua den</b> La Vasconia oihal dendaren aurrean.	Recordaba con especial rabia aquella ocasión en que se hallaba con Abel, Jon y Alberto en el cruce de San Bartolome y Urbieta, frente a la tienda de paños La Vasconia, <b>que quizá ya no existe.</b>
55	Bere buruarekin ari bailitzan hitz egin zuen, <b>tarteka hitz solteak</b>	Hablaba como consigo mismo, sin preocuparse del estruendo exterior,

	<b>eta batzuetan perpaus osoak irensten zizkion iskanbila gero eta bortitzagoaz arduratu gabe.</b>	<b>que se comía a intervalos palabras sueltas o palabras enteras.</b>
56	Hotzaz mintzatu zen [...] bere inguruan mugitzen ziren polizien bota beltz erraldoien ikuskizun ikaragarriaz, eta ondorengo isiltasunaz gero, <b>boten hots astuna eta sirenen aiene zorrotza baino ikaragarriago gertatu zitzaion</b> isiltasun mehatxugarriaz.	Habló del frío [...], de la espantosa visión de las gigantescas botas negras de los policías que se movían a su alrededor, y del silencio posterior, del amenazante silencio, <b>que se le hizo más terrible que el pesado redoble de las botas y el lamento agudo de las sirenas.</b>
57	Buruak altxatu zituzten <b>hodeiak urratuz portu aldera galdu zen tximistaren bila.</b>	Alzaron las cabezas en busca del relámpago, <b>que se perdió desgarrando las nubes hacia el puerto.</b>
58	Ezin eragotzi izan zuen bat-batean nazka eta amorrazioa sentitzea, <b>beti bustia zirudien</b> ile koipetsu eta atzera orraztuagatik.	No podía evitar sentir asco y rabia por él. Por su cabello grasiento y peinado hacia atrás, <b>que siempre parecía mojado.</b>
59	Eta, pauso bat atzerago, Miramar kalean jarraitu zion <b>Basqueren parean aparkaturik zegoen</b> autoraino.	El otro, guardando unos pasos de distancia, le siguió hasta el coche, <b>que estaba estacionado en la calle Miramar, junto al Basque.</b>
60	Bera leiho ondora hurbildu zen eta <b>une hartan urdintasun leun eta hotz batez estalita zegoen</b> Txingudiko badiari so egin zion.	Él se acercó a la ventana y miró a la bahía de Chingudi <b>que, ya para entonces, estaba cubierta de un azul cobalto suave y frío.</b> (sic) <sup>125</sup>
61	Pattar goiztiarrak urratzen dituen ahotsak entzuten ditu, lurretik jada, <b>trumoi hots bat bezala izan den</b> deskarga itxiaren ondoren.	Y oye, ya en tierra, las voces arañadas por el aguardiente de la madrugada, después de la descarga cerrada, <b>que ha sonado como un trueno.</b>
62	Amaitu gabe zuten mahaia jasotzeko lana, hautsontziak gainezka zeuden, eta ke urdin bat zeukan erantsita <b>argitasun laranja epela isurtzen zuen</b> lanparak.	No habían terminado de recoger la mesa, los ceniceros estaban llenos, y la lámpara, <b>que arrojaba una luz cálida, anaranjada,</b> estaba rodeada de una humareda azul.
63	Ezagutzen ez dituen hirurak identifikatzen saiatzen da, <b>haien paretik pauso bat atzeratu den</b> zeladorearen aurpegian gupida zainua irakurtzen duen bitartean.	Intenta identificar a los tres que no conoce tras advertir un gesto de compasión en la cara del celador, <b>que se ha retrasado un paso con respecto a los demás.</b>
64	<b>Sakristia bat dirudien</b> aretoan, arrebeak etxetik ekarri duten afari ukitu gabea, mahai gainean pendulua geldirik duen hormako	En la sala, <b>que parece una sacristía,</b> la cena intacta que las hermanas habían llevado a casa y, sobre la mesa, el reloj de pared con

<sup>125</sup> Hemen ere, itzulpeneko puntuazioa ez da zuzena, perpaus erlatiboaren kanpoko ardatzak koma batez bananduta egon behar duelako izenordain erlatibotik; horregatik ipini dugu (sic). Izan ere, adibide honetako, berez, erlatibo esplikatihoa izan behar du nabarmenki eta, horregatik, corpusean aintzat hartu dugu, beste azpicorpus batzuetan egin dugun bezala. Gauza berbera gertatzen da, bide batez, 65. binomioan ere.



	erlojua.	el péndulo detenido.
65	Bikoteak moto batean egin zuen ihes, ordu hartan, arratsaldeko seiak, <b>ugariak ziren</b> lekukoen artean.	La pareja huyó en una moto ante los testigos <b>que, en razón de la hora, eran numerosos.</b> (sic)
66	Ordu hartan kolmadoak irekita zeuden, eta <b>azpitik salmueraren ukitua zuen</b> usaina, sardinzaharrei eta bakailao zintzi-likatuei zeriena, fruta heldua-renarekin nahasian bateratzen zitzaion lur bustiari zerionari.	A esas horas los colmados estaban abiertos, y su olor, <b>que tenía un fondo de salmuera</b> proveniente de las sardinas viejas en cajas redondas y de los bacalaos secos colgados del techo, se unía al penetrante perfume de la tierra húmeda.
67	Lehen solairutik nabarmena zen errepideko zarata, <b>bereziki kamioiak aurrez aurre zegoen aldapan egitera beharturik zeuden</b> martxa aldaketaren hotsa.	Al primer piso llegaba claramente el ruido de la carretera, especialmente el rugido de los camiones, <b>que se veían obligados a meter segunda en el cambio de rasante que había justo delante.</b>
68	Berak gorputza besaulki gainera erortzen uzten zuen, eta ez zion eragozten <b>gabardinarekin arreta handiz estaltzen zituen</b> izterrak zabaldu eta zangalatrau jartzerik.	Él dejaba caer su cuerpo sobre el sillón [...], sin oponerse a que ella, separando los muslos, <b>que, por otra parte, con tanto cuidado cubría con la gabardina,</b> se le sentara encima a horcajadas.
69	Lorettaren ahots sakona entzuten du, <b>ezpainak pintatzen diharduelako curiositate gaitzeslez begira dagokion</b> kapilauagana itzuli eta «ene koketeriaren azken adierazpena, jauna» dioenean.	Escucha la profunda voz de Loretta, cuando ésta, girándose hacia el capellán, <b>que la observa con reprobadora curiosidad porque se está pintando los labios,</b> dice «es mi última expresión de coquetería, padre».
70	Juliak doi jartzen dio bekokia sorbaldan, eta <b>gerria inguratzen zioten</b> besoak aldaketan zehar irristatu dira.	Julia le apoya la barbilla en la espalda y los brazos, <b>que rodeaban su cintura,</b> le resbalan ahora en las caderas.
71	Gero ez zitzaiola inporta erantzun zion <b>atseginez "siento que haya tenido que esperar tanto" desenkusatu zen</b> funtzionarioari.	Luego le respondió que no importaba al funcionario, <b>que se excusó diciendo "siento que haya tenido que esperar tanto".</b>
72	Hildakoena zela esaten zuen Betroitzakoak <b>norberarena ez zirudien</b> usain gozo mindu hura.	El de Betroitza decía que aquel olor dulce y a la vez rancio, <b>que no parecía ser de uno,</b> era el de los muertos.
73	[...] <b>eskuineko zangoak utzitako ildoan metro batzuetara eta lohituta geratu den</b> oinetakoa seinalatuko balu bezala, eskura diezaioten eskatuz.	[...] como si señalara el zapato enlodado, <b>que se ha quedado a unos metros en el surco dibujado por su pierna derecha,</b> pidiendo que lo recojan.
74	Leiho guztiak zeuden pertsianaz itxita, <b>lurraren arrasean ego-</b>	Todas las ventanas tenían las persianas echadas, exceptuando la

	<b>kitzen zen</b> bainugelakoa izan ezik.	del baño, <b>que quedaba a ras de calle.</b>
75	Plaza irekia, <b>ikusten ez zituen</b> udaletxeko arkupeetan hasi eta bestaldean, behezagoko plano batean bukatzen zen, gotiko pretentsioz altxatzen zen elizako eskaileretan.	La plaza abierta comenzaba en los soportales del Ayuntamiento, <b>que aún no podía ver</b> , y desde allí se extendía hasta alcanzar, en un plano inferior, las escaleras de una iglesia con pretensiones góticas.

### b. PE jokatu gabe arrunta

Topatu ditugun 3 adibideetan (guztietatik %2,5), era honetako erlatiboak izen arruntei atxikita daude:

76	Gorroto zuen haren aurpegi biguna, <b>zuloak gorantz erakutsiz beti usnan ari bailitzan okerturiko</b> sudur biribila.	Odiaba su rostro blando, su redonda nariz arremangada con las fosas al descubierto, <b>que le daba el aspecto de estar olfateando continuamente.</b>
77	Baserriak, beren harri pobreak <b>hezetasunak ilunduriko</b> karez estalita.	Caseríos, con sus piedras humildes cubiertas de cal, <b>que la humedad ha oscurecido.</b>
78	Sukaldean, <b>gorpua bera baino lehenago iritsitako</b> ondasun urriak zeuden.	En la cocina estaban las escasas pertenencias de Daniel Zabalegi, <b>que llegaron de Burgos precediendo al cuerpo.</b>

### c. ZEIN/NON erlatiboa

Azpicorpus honetan, era honetako lau<sup>126</sup> adibide agertu zaizkigu (%3,4), eta aipagarria iruditzen zaigu izenordain erlatiboak hartzen dituen kasu bakarrak genitiboa eta, batez ere, inesiboa direla; gainera, STan NON adberbioa gehiago erabilia dago ZEIN baino.

79	Hotzaz mintzatu zen [...] eta ustekabean irten zitzaion pixaren berotasunaz, <b>zeinen bila eskuak izter artean gorde baitzuen gau osoan.</b>	Habló del frío [...] y de la tibieza de la orina que le salió involuntariamente, <b>a cuyo calor mantuvo las manos entre las piernas un rato.</b>
80	Hiru izenburu dakartza, azkena, « <i>Identificados los asesinos del cabo Losada</i> » betiko argazkiaren	Hay tres titulares, el último, « <i>Identificados los asesinos del cabo Losada</i> », sobre la fotografía de

<sup>126</sup> Esan beharra dago azpicorpus honetako autoreak adibide gehiagotan, beste zazpi adibidetan zehazki, erabiltzen duela erlatibo mota hau, baina zenbatzaile zehaztugabeekin; eta horiek, corpusaren osakerari buruzko ataleko 4.1.4.1. puntuan azaldu dugun bezala, aintzat ez hartzea erabaki dugu.

	gainean, zeinetan defuntua, begi nabarmenak zuloetatik irteteko zorian, lepo estutuaren poderioz itokarrean bezala ageri den.	siempre, en la que aparece el difunto con los ojos saltones que le salen de las órbitas, como si estuviese a punto de ahogarse, por la estrechez del cuello del uniforme.
81	Susana zutik, bainugelatik irtenda ziur asko, non braga eta sujetadorea izan ezik, gainerako jantziak utzi dituen.	Susana de pie, seguramente saliendo del baño, donde ha dejado toda su ropa excepto la braga y el sujetador.
82	Orria pasatu eta hurrengoari, kontrazalaren aurreko orri hutsari so geratzen zen, non tita beis argiak besteetan baino ugariago sakabanatzen baitziren espazio librean.	Pasaba la hoja y se quedaba mirando la siguiente, la página en blanco anterior a la contraportada, donde las motas color beige claro se extendían en número mayo sobre el espacio libre.

#### 4.2.7.2.5. Modu perpausak

Prozedura hau nahiko erabilia da azpicorpus honetan, 18 adibidetan aurkitu baitugu (%15,3), forma desberdinekin, hots, aditz forma jokatuekin eta jokatugabeekin eta atzizki desberdinekin: adibide gehienak partizipioari –Z atzizki instrumentala erantsita daramatenak dira, eta beste bost, aditz jokatuari –ELA(RIK) atzizkia erantsen diotenak, eta menderagailuaren elipsi kasu batzuk ere badira:

83	Era hartan libreago zen zigarroa utzi gabe edozertan jarduteko; Iñaki Abaituaren burua sabelaren kontra eutsiz ferekatzeko, adibidez.	Podía dedicarse a cualquier actividad manual sin necesidad de soltarlo. Para acariciar a Iñaki Abaitua, que apoya la cabeza sobre su regazo, por ejemplo.
84	Zigarro bat bestearen ondoren ari zen erretzen, asegaitz, zigarro mutur bakoitzaz ondorengoa piztuz.	Fumaba un cigarrillo tras otro, que encendía con la colilla del anterior.
85	Solaskideetako batek kataluniarren seny-a eta zuhurtasun fenizioa aipatu zituenean, berak aurpegiratu zien epeltasuna eta engaiamendu falta, «euskaldunei utziz», esan zuen, «frankismoaren aurkako borrokan, zamarik handiena».	Cuando uno de los presentes mencionó el seny y la cordura fenicia de los catalanes, él les reprochó la tibieza y falta de compromiso, «que dejan a los vascos —dijo— el peso más grande de la lucha contra el franquismo».
86	Ortiz de Zaratek ez zuen deus esan, baina berriz ere ordulariari	Ortiz de Zarate no dijo nada, pero miró el reloj. Tenía una correa negra,

	begiratu zion. Beltza zuen uhala, eta elastikoa, baina horregatik ere Iñaki Abaitua ziur zegoen berak emandako huraxe zela, <b>berezko krokodilo larruzkoa aldatu</b> rik.	elástica, pero, a pesar de ello, Iñaki Abaitua estaba seguro de que era el mismo que le había dado en B, <b>al que había debido de cambiar la antigua correa de piel.</b>
87	Lau gizonak zutik, Daniel Zabalegiren mugimenduak zeharka jarraituz pauso laburrez, <b>eskuineko zangoa lehenbizi, bestea bateratuz gero, instrukzioa egiten ari bailiran.</b>	Los cuatro hombres de pie, siguiendo de través y con pasos breves los movimientos de Daniel Zabalegi, <b>para lo cual desplazan primero un pie, el derecho, y después el otro, hasta juntar ambos como si estuvieran haciendo la instrucción.</b>
88	Eskua gidatzen uzten zion gero, hatz artean onarturiko pilula baginala desegin ez zedin zainduz, <b>erakusleaz haren sakontasunaren bila bultzatuz</b> , eta berriro ere esperoan geratzen zen.	Luego se dejaba guiar la mano, cuidando de que no se le deshiciera entre los dedos la pastilla vaginal, <b>que empujaba con el índice hacia su interior</b> , y de nuevo se quedaba a la espera.
89	Egun batean emazteak, <b>erdalduna izaki</b> , errieta egin omen zion.	En cierta ocasión, su esposa, <b>que sólo hablaba castellano</b> , le reprendió.
90	Nahi adina denbora gera daitekeela esaten dio gizon gazteak, lekua soberan dutela eta lana ere bai, nahi izanez gero, barnean gehiago kanpoan baino, zoritxarrez ez baitzuen atertzen. «Ezta atertzeko itxurarik ere», zaharrak, <b>leiho laburretik berde umelean doan trenaren marra beltzari so.</b>	El más joven le dice que puede quedarse el tiempo que quiera, que tienen sitio de sobra y, si él quiere, trabajo también, más dentro que fuera, desgraciadamente, pues no deja de llover. «Ni tiene pinta de ir a escampar», dice el anciano, <b>que desde un venta-nuco observa la negra línea del tren atravesando el verde anegado.</b>
91	Abelek «hondamena bai, hori dira mutil horiek, hondamena», erantsiko du, begiez <b>gela inguratuz</b> desafiatzen dituela.	Abel añadirá «la ruina, sí, eso es lo que son esos chicos, la ruina», desafiándolos con su mirada, <b>que recorre la habitación.</b>
92	Badaki dagoeneko hark ohea zabalik duela. Lurrean, argizariz gainezka egindako platerean, kolore desberdinetako kandelak sutan dirautela, <b>hormetan zehar itzalak urduri kulunkaraziz.</b>	Sabe que tiene la cama preparada. Que en el suelo, en el plato desbordado de cera, continúan todavía vivias las llamas de varias velas de colores, <b>que proyectan sombras oscilantes, nerviosas.</b>
93	Klararekin zegoen, <b>haurra inolaz ere egokitzen ez zitzaion eta erabat antigoalekoa zirudien haur-kotxe batean eserita.</b>	Estaba con Clara, <b>que iba sentada en un cochecito que no parecía corresponderle en absoluto.</b>
94	Handik erraz zain zezakeen umea ere, <b>beste batzuekin jolasean zebilelarik.</b>	Desde allí podía vigilar también fácilmente a la niña, <b>que jugaba con otros críos.</b>

95	Umetan, ez zekien zerbait galdetzen ziotenean, <b>pentsatzea alferrik zuela etsita</b> , edozer gauzatan jartzen zuen gogoa.	De niño, cuando le preguntaban la lección, <b>que normalmente no se sabía</b> , le sudaban las manos y sentía la boca seca.
96	Burua ezkerrerantz biratzen duenean, kapilaua atzematen du, <b>eguzkitako betaurrekoak jarrita</b> , trajez jantzitako bi gizonekin solasean.	Entonces gira la cabeza hacia la izquierda y descubre al capellán, <b>que lleva gafas de sol</b> , hablando con dos hombres trajeados.
97	Horri esker, bihotz taupadak bizkortu eta indartu egiten dira, <b>oxigenoa bizkorrago igorriz</b> .	Por su acción, aumentan la frecuencia y energía del latido cardíaco, <b>lo que facilita un bombeo más rápido de la sangre</b> .
98	Urola ibaian harrapatzen zituen aingiren irudia, <b>burua ebaki ondoren ere, hil ezinean, aho ikaragarri haiek oso poliki zabaltzen zituztela</b> .	La imagen de las anguilas que pescaban en el río Urola, <b>las cuales, después de cortada la cabeza, abrían lentamente la boca sin poder morir</b> .
99	Udaletxera abiatu ziren, <b>han, beren atsegina agertzen zieten herritarren artean desagertuz</b> .	Se dirigieron enseguida al Ayuntamiento, <b>donde desaparecieron entre los vecinos que les daban la bienvenida</b> .
100	Martxa atzera eman eta kaikuduna aurrean ikusi zuen, <b>eskuak bekokian bisera eginez, fokuen argitasunaz libratzeko bezala</b> .	Dio marcha atrás y vio delante al mozo del <i>kaiku</i> , <b>que se hacía visera con las manos en la frente, como para protegerse de la luz de los faros</b> .

Ohargarria da bi binomiotan (83 eta 93), XTko klausula erlatiboaren aurrekari eta STko erreferentziakideak izen propioak direla eta, bi adibideetan, absolutiboa ez beste kasu-atzizki bat daramatela.

#### 4.2.7.2.6. Kausa perpausak

Azpicorpus honetan, 11 adibide aurkitu ditugu (%9,3), eta, haietako gehienetan, BAIT menderagailua erabiltzen du autore honek:

101	Iñaki Abaituak gorroto zuen barre- algarara hura, <b>zorionaren adierazpen gehiegizkoa iruditzen zitzaiolako</b> .	Iñaki Abaitua odiaba aquella risa, <b>que le parecía una exagerada expresión de felicidad</b> .
102	Oligofreniko asko amaren desiraz jaiotzen dira izaera horrekin, <b>beti haur eta babes beharrean nahi lituzketelako</b> .	Muchos oligofrénicos nacen así por deseo expreso de sus madres, <b>que querían que fuesen siempre niños necesitados de protección</b> .
103	Goiz-Argi soziedadeko erdi itzalean itxaron zuen <b>—hango</b>	Estuvo en la penumbra de la sociedad gastronómica Goiz-Argi <b>—</b>

	<b>leihotik zaintzen baitzituen Losadaren joan-etorriak—, bikotearen tiroak noiz entzungo zain.</b>	<b>desde cuya ventana solía vigilar el trayecto de Losada—, esperando oír los disparos de la pareja.</b>
104	<b>Senarra Danielitorekin hitz egitera bidali zuen, beraz, horrela esaten baitzioten Daniel Zabalegiri.</b>	<b>Envió pues a su marido a hablar con Danielito, que así llamaban a Daniel Zabalegui.</b>
105	<b>Kanpora ematen zuen leihopeko sofán egoten zen, handik, etzanda ere, pare bat burukoren laguntzaz, itsaso esmeralda kolorekoa ikus baitzezakeen.</b>	<b>El resto del día lo pasaba en el sofá situado bajo la única ventana, desde la que, incluso tumbado, podía observar el mar de color esmeralda.</b>
106	<b>Fitaz fitxen kaxa seinalatuz, kaxa hain zuzen, ez eskuko poltsa, eskuko poltsan alkandorak, galtzerdiak, elastikoak eta gisa horretako eduki inozentea baitzeraman.</b>	<b>Señalando con la boquilla la caja de fichas, exactamente la caja, no el bolso de mano, cuyo inocente contenido consistía en camisas, calcetines, camisetas y otras ropas.</b>
107	<b>Lehenago inoiz arbolarik besarkatu gabea zen, Goetheren poema maite bazuen ere; arbola zahar eta nobleen besarkadaz mintzo dena, izuaren hotzean hura baitatorkio gogora.</b>	<b>Nunca antes había abrazado un árbol, aunque le gusta el poema de Goethe; ése que habla del abrazo de los viejos y nobles árboles, que es el que le viene a la memoria en medio del pánico frío.</b>
108	<b>Baina batez ere, xehetasun ohartzinen artean [...], azaleko orbain ilunek arrain batena bezain azal hotz eta umela gogorazten diotelako.</b>	<b>Lo que le resulta realmente repugnante son esos otros detalles casi imperceptibles: [...] y las oscuras manchas en la piel, que le hacen pensar en la de un pez, húmeda y fría.</b>
109	<b>Libratu nahian hegoak astintzen zituen hegazti bat zirudien. Mutikoari hori bera iruditu bide zitzaien, lasterka abiatu baitzen harrapatzera, eta eskura eman zion gero.</b>	<b>Parecía un pájaro agitando las alas para liberarse. Eso mismo le debió de parecer al muchacho, que se apresuró a recogerla y después se la dio a la mano.</b>
110	<b>Daniel Zabalegik bezala, bi guardia zibilen artean lokatzez betetako larrean zehar daramatenean; zutoina zein egur motatakoa ote den pentsatzea bururatzen baitzaio.</b>	<b>Como Daniel Zabalegi, que cuando le llevan ya por el lodazal, se le ocurre pensar de qué madera será el poste en el que previsiblemente van a atarle.</b>
111	<b>Sukarrak, berriz, handiegia ez zenez, ausentzi egoera batean mantentzen zuen.</b>	<b>La fiebre, por otra parte, que no era muy alta, le mantuvo de alguna manera ausente.</b>

Hemen ere aipagarria da bi binomiotan (104 eta 110), XTko klausula erlatiboaren aurrekari eta STko erreferentziakideak izen propioak direla eta, bi adibideetan, absolutiboa ez beste kasu-atzizki bat daramatela.

#### 4.2.7.2.7. Bestelako prozedurak

Askoz ere proportzio txikiagoan aurkitu ditugu STan bestelako prozedura batzuk XTko erlatibo esplikatioben bitartez itzulita, eta horregatik sartu ditugu denak multzo honen barruan.

##### a. Kontzesio perpausak

Hiru binomiotan, XTko perpaus erlatiboaren bidez itzulita, kontzesio perpaus bat aurkitu dugu euskarazko STan:

112	Guztiek ziruditen ados. Juliak ere, <b>normalean iritzirik azaltzen ez zuen arren</b> , «bai, ikara sartu digute bihotzean» esan zuen pare bat aldiz.	Todos parecían estar de acuerdo. Incluso Julia, <b>que no solía manifestar su opinión</b> , dijo un par de veces «sí, nos han metido el miedo en el cuerpo».
113	Kaperatik atera eta larre lokaztu hartara eraman zuten arte, ez zuen jakin nola hil behar zuten, ezta ez ziotela eman exekuzioa atzeratzearen berri ere, Gurutze Gorriko kapilauaren bidez —« <i>un buen rato, más de una hora quizá</i> »— horrek <b>esperantza faltsuaren arnasa eman ziola jaso bazuen ere</b> .	Hasta que lo sacaron de capilla y lo condujeron a aquel lodazal, no supo cómo iban a matarlo, ni la demora en la ejecución, de la que tuvo noticia a través del capellán de la Cruz Roja —« <i>un buen rato, más de una hora quizá</i> »—, <b>que, sin duda, incrementó inútilmente su ansiedad y alentó quizá en él una débil esperanza</b> .
114	Une horretan konturatzen da poloniarraren gabardina errebertsibleak koadrozko tela duela lepoaren barnealdean, <b>lehenago ondoan zegoenean ikusi ez badio ere</b> .	Es en ese momento cuando él se da cuenta de que la gabardina reversible del polaco tiene tela de cuadros en la parte interior, <b>que no había visto antes, cuando estuvo a su lado</b> .

##### b. Helburu perpausak

Adibide bakarra aurkitu dugu, eta beronen itzulpena perpaus-aurrekariko erlatibo edo *sentential relative* moduko bat da:

115	Aski izan ziren maletaz libratzeko desira edo hotela aukeratu beharra, <b>bakarrik konpontzeko asmo ona abandonatu eta lehenbiziko telefonotik bila joan zekion eskatzeko.</b>	El deseo de librarse de las maletas cuanto antes o la simple necesidad de elegir un hotel le resultaban demasiado agobiantes, <b>por lo que, abandonado el propósito de arreglárselas solo, le llamaba desde el primer teléfono que encontraba.</b>
-----	--	---

### c. Aparteko tartekiak<sup>127</sup>

Zenbait kasutan, jatorrizko testuan gidoi artean jarrita dauden tarteki batzuk topatu ditugu, baina multzo honetan haietako bi besterik ez ditugu sartu, goragoko ohar batzuetan eman dugun arrazoiagatik; alegia, aparteko tartekitzat soilik jotzen ditugu txertatuta dauden testutik aparteko egitura sintaktikoa (aparteko predikazio bat izaten da) erakusten duten adibideak, eta ez, esate baterako, gidoi arteko segmentuan ohiko aposizio bat dutenak, komunztadura eta guzti, edo kausa perpaus peto-peto bat dutenak; nolana, beste horiek ere ez dira oso ugariak, hiru besterik ez.

Hortaz, planteamendu honekin, binomio pare batean, euskarazko jatorrizkoan aparteko tarteki bana aurkitu dugu, tipografikoki gidoi batez markatua, eta XTan, ordea, erlatibo esplikatibo bidez itzulia. Ez da, beraz, oso baliabide erabilia, binomio guztietatik %1,46an bakarrik agertzen baita azpicorpus honetan.

116	Urte batzuk geroago — <b>ordurako itzulia zen Madrilen bizitzera</b> —, garai hartan <i>desencantoari</i> buruz hain ugariak izan ziren nobela haietako bat bidaliko zion.	Varios años después, Alberto, <b>que, para entonces, se había vuelto a vivir a Madrid</b> , le enviaría una de esas novelas sobre el desencanto, tan populares por entonces.
117	Gero Muturbeltzek tabernariari «hauek dituk espero nituen lagunak» esan ondoren — <b>hark ez zien jaramonik egin, taberna gainezka baitzegoen</b> —, goiko solairuan zegoen etxe batera eramán zituen.	Después, tras decirle a quien atendía en el bar — <b>que no les hizo ni caso porque estaba abarrotado de clientes</b> — «éstos son los amigos que estaba esperando», Daniel Zabalegi los llevó a una vivienda que había en el piso de arriba.

<sup>127</sup> Gorago argitu dugun bezala, tartekiaren erabileraren beste adibide bat ere aurkitu dugu, baina ez dugu multzo honetan sartu aposizioen multzoan baizik, tipografia gorabehera aposizioaren egitura duelako, komunztadura eta guzti; aldiz, tartekien multzoan sartu ditugun bi adibideetan esaldi bat da aparteko tartekian sartu dena.



#### d. Perpaus predikatiboa

Azpicorpus honekin bukatzeko, badago adibide bat zeinean gaztelaniara egin den itzulpen parafrastikoan PEE bat dagoen (*sentential relative* modukoa, bide batez esanda), baina jatorrizkoan perpaus predikatibo soil bat besterik ez:

118	Iribarre egiten du Loretaz oroitu delako. <b>Edo mailegu literariorik gabe ezer adierazteko gauza ez dela pentsatzeak eragiten dio, tristeza izan arren, une labur batez aurpegia argitu dion irribarrea.</b>	Sonríe por el recuerdo de Loretta. O por la constatación de su incapacidad para expresar nada sin recurrir a algún préstamo literario, <b>lo que hace aflorar esa sonrisa que, aunque triste, ilumina su rostro brevemente.</b>
-----	---	---

#### 4.2.7.3. Gehiketa

Azpicorpus honetan ere topatu dugu gehiketa kasurik, alegia, gaztelaniazko XTan perpaus erlatibo esplikatibo batzuk euskarazko STan inolako baliokiderik ez dutenak. Hau da, itzulpenaren testuan jatorrizkoan ez dagoen testu zati bat gehitu da; gehiketa guztiak txikiak dira, perpaus erlatiboak soilik erantsi direlako (kasuren batean beste zerbait ere bai).

Guztira, honelako zortzi adibide topatu ditugu liburu honetan, azpicorpus honetatik atera ditugun 126 binomioetatik %6,4a, ez oso ehuneko handia, baina kualitatiboki esanguratsua, gaztelaniazko itzulpenetan era honetako PEEak erabiltzeko joeraren indarra erakusten du-eta.

119	Gabardina zuriz jantzitako bakarra zen, eta ile adatsak bekokian ebatondoa ezkutatu ordez azpildu baino ez zion egiten.	Era el único vestido con una gabardina blanca, y el flequillo, <b>que constituía un elemento nuevo de su aspecto</b> , más que ocultar, orlaba la cicatriz que le cruzaba la frente.
120	Berez, gizon hark esandakoa baino gehiago, esan zezakeen baina isiltzera derrigorturik omen zegoenaren inguruko burutazioak izan baziren ere.	Aunque en realidad, más que lo dicho por aquel hombre, <b>que poco dijo</b> , lo que se publicó en los periódicos fue una serie de especulaciones acerca de lo que pudo haber dicho pero se vio obligado a silenciar.
121	Zangoak gorputzaren alde banatara kokatzen zizkiolarik, bereen	Siguiendo siempre el mismo protocolo, <b>que consistía en hacer</b>

	artean esertzen zitzaion eta, beti ere ergelkeria berdintsuak eginez, «nire panpinatxoa jantziko dut orain hoztu ez dadin» eta antzekoak esaten zituen.	<b>como si el pene fuera una muñeca y ella una niña juguetona</b> , decía «ahora voy a abrigar a mi muñequita para que no se enfríe» y cosas parecidas.
122	Atzera begiratu zuen [...], armaren kanoia omoplatoen artean, laugarren orno zori-txarrekoan — amaren ustez umetako istripu batean alboraturikoan— kokatu ziona-ren aurpegia ikusi nahian. Ezina gertatu zitzaion, harkaitzetako bidetik azaldu berria zen autoaren fokuek kontrargitan hartu baitzuten.	Miró hacia atrás [...] tratando de verle el rostro a quien apoyó el arma entre los omoplatos, precisamente en la vértebra que, según su madre, se había desviado en un accidente infantil, es decir, en la cuarta, <b>que, en cualquier caso, le producía un dolor agudo si se le presionaba con una mínima fuerza</b> . Quedó cegado por los focos del automóvil que, en ese instante, apareció por el camino del acantilado.
123	Liburu orrikatu baten estampak bailiran, haurtzaroko irudiak ikusten ditu iheskorrak eta bide batez zehatzak.	Ve pasar imágenes de su infancia como las estampas de un libro doblado sobre el dedo índice, <b>del que el pulgar deja libres las hojas</b> , fugaces pero muy precisas a un tiempo.
124	Ez zuen boligraforik hartu. Neurri batean harrokeriaz, galiziarrarekin haserretu ondo-ren ez zuelako haren eskain-tzarik onartu nahi. Baina batez ere hitz guztiak dudakorrak zitzaizkiolako, eta ez zukeelako jakingo nola idatzi, "bizia" ala "bizitza".	Pero no cogió el bolígrafo. En cierta medida por orgullo, porque, tras la bronca con los funcionarios, no quería aceptar nada de su mano. Y sobre todo por las dudas ortográficas. Conocía más o menos el eusquera normalizado, <b>que no había aprendido nunca</b> y no sabía si se tenía que escribir "bizia" o "bizitza".
125	Badirudi kontakizunaren barru-an ulergarriagoa litzatekeela aitortza tramite hustzat onartzea, koherenteagoa, apaiz-goaren errespetuan hazia izan den norbaitentzat, eta errespetu horren eraginez gizondu eta gerora ere igandero mezetara joana, korutik entzuteko eta ebanjeliora iritsitakoan zigarroa erretzeko irtenalditxoa eginez joaten bazen ere.	No cabe duda de que habría sido más coherente presentar a DZ aceptando la confesión cuando se le propone, en lógica con la autoridad que ejercía el clero en el País Vasco todavía entre su generación y, de manera particular, en la zona de A., <b>de donde era originario</b> .
126	Iñaki Abaituak ez zuen sekula Maria Zabaldegirekin hitz egin. Behin baino gehiagotan jarraitu izan zion etxetik kanposan-turako	Iñaki Abaitua nunca entabló conversación con MZ, aunque más de una vez la siguió en el trayecto de su casa al cementerio, <b>que,</b>

bidean, eta han urrutitik so egon ohi zitzaion...	<b>aparentemente, realizaba a diario.</b>
---	---

#### 4.2.7.4. Ondorioak

Azpicorpus honen azterketatik atera ditugun ondorioak azaltzeari ekin baino lehen, gorago esandakoa gogoratuko dugu, ondoan zehaztuko ditugun ehunekoei dagokienez: alegia, testu honetan bildu ditugun 126 binomioetatik, 8k ez digutela uzten itzulpen-baliokidetasunik aurkitzen, haietan XTko perpaus erlatiboak jatorrizkoak ez dauden gehiketak direlako eta, beraz, adibide horiek baliogabeak zaizkigu helburu horri begira; hortaz, ondoren adierazitako ehunekoak estatistikarako baliagarriak zaizkigun 118 binomioen arabera emanak daude. Argitasun hori esanda, azpicorpus honetatik ateratako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

##### 4.2.7.4.1. Ondorio orokorrak

1. Azpicorpus honetan guztira lortu ditugun 126 binomioetatik 8tan (%6,4), XTko perpaus erlatiboek ez dute inolako baliokiderik STan; alegia, itzulpenean erantsitako zatiak dira, jatorrizkoan ez dauden gehiketa narratiboak. Berauek, beste azpicorpus batzuetan topatu ditugunen aldean behintzat txikiak diren arren, idazleak itzulpen-prozesuan nolabaiteko eskuhartzea izan duela adierazten dute; izan ere, eta berez froga-balio garbirik ez duen arren, indizio modura bai aipa daiteke azpicorpus honetako itzultzaileak parte hartzen duen beste azpicorpusean –C<sub>5</sub> azpicorpusa– ez dagoela era honetako inolako gehiketarik, seguru aski idazlearen eskuhartze txikiagoaren seinale.

2. Bestalde, bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, desberdintasun handi samarra dago STtik XTra: STan azpicorpus honetako binomio guztietatik 36tan bakarrik (%30,5) topatu ditugu erlatiboazko forma desberdinak; erlatiboazko aposizioaren sailean sartu ditugun 20 adibideak ere kontatuz gero, %47,5era iritsiko litzateke, binomio guztietatik erdia baino gutxiago.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTaren parafrasi-adierazlea %52,5ekoa da.

4. Beraz, azpicorpusaren aurkezpenean planteatu dugun galderari erantzunez, badirudi XT honetako erlatibakuntza-joera itzultzailearen estiloari dagoela loturik, idazlearen estiloari baino gehiago. Eta estilo horretan, PEEen bidezko erlatibakuntzaren proportzioa, gorago adierazi dugun bezala, 100 orrialdeko 34koa da, C<sub>0</sub> corpus osoko bigarren handiena.

5. Hala ere, STak beste azpicorpusek baino hipotaxiarako joera handiagoa du, adibide guztietatik %56,8an aurkitu baitugu perpausen menderakuntza.

6. Nolanahi, XTaren parafrasi-adierazleak eta PEEen 100 orrialdeko proportzioak XTa gaztelaniaren halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago batera egokitzeko joera dagoela adierazten du; edo, beste era batera esanda, Touryren "*target-oriented translation*" edo XKra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen du azpicorpus honetako itzulpena.

#### 4.2.7.4.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak.

Euskarazko STaren eta gaztelaniazko XTaren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Erlatiboa da azpicorpus honetako STan aurkitzen dugun prozedurarik erabiliena, eta, haren ondoren, aposizioa, modu perpausak eta perpaus juntadura, eta are proportzio txikiagoan beste mendeko perpaus mota batzuk:

<b>Erlatiboa</b>	36 binomio	%30,5
<b>Aposizioa</b>	21 binomio	%17,8
<b>Modu perpausak</b>	18 binomio	%15,3
<b>Perpaus juntadura</b>	15 binomio	%12,7
<b>Kausa perpausak</b>	11 binomio	% 9,3
<b>Segmentu suborazionalak</b>	10 binomio	% 8,5
<b>Bestelako prozedurak</b>	7 binomio	%5,9

2. Perpaus erlatiboen erabilerari dagokionez, esan bezala, erlatibo arrunta da erabiliena, ZEIN/NON erlatiboaren eta PE jokatu gabearen oso gainetik:

<b>-N erlatiboa</b>	29 binomio	%24,6
<b>ZEIN/NON erlatiboa</b>	4 binomio	% 3,4
<b>PE jokatu gabea</b>	3 binomio	% 2,5

3. Aposizioari dagokionez, erlatibozko aposizioa da mota guztietatik erabiliena:

<b>Erlatibozko aposizioa</b>	20 binomio	%17
<b>Aposizio soila</b>	Binomio 1	% 0,8

3.1. Aposizioan doazen bi segmentuak kasu absolutuan daude adibide gehienetan, 17 binomiotan zehazki. Beste lau binomioetako kasuak NON (3 aldiz) eta NORK dira. Beraz, idazle honek ere joera du batez ere kasu absolutua erabiltzeko aposizioetan, baina bestelako kasuak ere erabiltzen ditu.

3.2. Aposizioan doazen bi segmentuen artean, kasu komunztadura egiten da adibide guztietan.

4. Perpaus juntadurari dagokionez, emendiozko juntadura da formarik erabiliena, baina alde handiegirik gabe alborakuntzarekiko; bestetik, aurkaritzazko juntadura ere topatu dugu, baina oso neurri txikian:

<b>Emendiozko juntadura</b>	8 binomio	%6,8
<b>Alborakuntza</b>	6 binomio	%5,1
<b>Aurkaritzazko juntad.</b>	Binomio 1	%0,8

5. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio bat duten 9 binomio aurkitu ditugu (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Horietan,

badirudi idazle honek ere joera duela prozedura desberdinak erabiltzeko izen propioari itsasten zaion kasu-markaren arabera:

- a. Bi binomiotan (18 eta 47), izen propioa kasu absolutiboan dago, eta STan perpaus aposatu bat eta -N erlatibo arrunt bat topatu ditugu XTko klausula esplikatiboaren baliokide gisa.
- b. Gainontzeko zazpi binomioetan, STko izen propioak absolutiboa ez beste kasu-marka bat darama; eta XTko klausula erlatiboaren lekuan, alboratutako perpaus bat topatu dugu binomio batean (32), modu perpaus bat beste bitan (83 eta 93), kausa perpaus bat beste binomio pare batean (104 eta 110), kontzesibo bat behin (112) eta puntuazio-tarteki bat azkenengo binomioan (116).

#### 4.2.7.4.3. Grafika sinoptikoa

Ondoko irudian ikus ditzakegu modu grafikoagoan azpicorpus honetako XTko erlatibo esplikatiboei STan dagozkien jatorrizko baliabide sintaktikoak eta haien erabilera maila:



**7. grafika: C<sub>7</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.**

#### 4.2.8. C<sub>8</sub> azpicorpusa: Kirmen Uribe, *Bilbao-New York-Bilbao*

##### 4.2.8.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Kirmen Uribe
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Elkar (Donostia)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2008
<b>Orrialdeak:</b>	237
<b>Xede Testua:</b>	<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>
<b>Itzultzailea:</b>	Ana Arregi
<b>XTren argitaletxea:</b>	Seix Barral (Barcelona)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2009
<b>Orrialdeak:</b>	205
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	28
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	26

C<sub>8</sub> deitu dugun azpicorpus honetan ere itzulpen alografo batekin egiten dugu topo, hala ageri da behintzat eleberriaren paratestuetan, kredituetan zehazki. Bestalde, egileari 2013an Salamancako Unibertsitateko Itzulpen eta Interpretazio Sailak antolatutako Don de Lenguas programan<sup>128</sup> egin zioten elkarrizketa batean aditzera eman zuen ez zaiola gustatzen itzultzailearen lanean sartzea, itzulpen-hizkuntza dakienean: «*Yo no creo en estos escritores que se meten demasiado en la traducción. Yo, aunque controle el otro idioma, por ejemplo el castellano, no me meto mucho en la labor del traductor. Si luego el traductor me pregunta, si tiene alguna duda, yo le puedo ayudar, pero son pequeñas ayudas*».

Dena den, ST eta XTren artean bada desberdintasun handi bat inon azaltzen ez dena. Adibiderik nabarmenena 13. atalaren hasieran dago: gaztelaniazko bertsioko lehen bi orriak ia, izan ere, ez daude STn. Idazlearekiko komunikazio pertsonal baten bitartez jakin ahal izan dugu atal honetatik aurrerako zati guztiaren itzulpena euskaraz argitaratutako liburuarena ez den

<sup>128</sup> "La traducción según Kirmen Uribe", Don de Lenguas programaren blogean entzun daiteke idazlearekin egindako elkarrizketa: <http://programadondelenguas.blogspot.com.es/2013/03/la-traduccion-segun-kirmen-uribe.html> [Rontsulta-data: 2016-03-12].



eta beste inon argitaratu ez den beste idaztaldi batean oinarriturik eginda dagoela.

Hori hala izanik ere, XTn aurkitu ditugunetatik binomio bakarrean izan du eraginik STren argitaratutako bertsioaren eta argitaragabeko bigarren bertsioaren arteko desberdintasunak: zehazki, azpicorpuseko 21. binomioan, zeinen euskarazko testua ez baitago argitaratutako bertsioan, idazleak eskuratu digun bigarreanean baizik. Erabaki genezakeen binomio honen kasua gehiketa-adibideen artean sartzea, eta hala egin genuen hasieran, baina beste idaztaldiaren berri izan eta gero, argi ikusi dugu XTko testuak bazuela baliokiderik eta itzultzailearen hautu sintaktikoak baliokide horri erantzuten ziola. Arrazoi horretan oinarrituta, binomio hori azpicorpus honen arterketan sartzea erabaki dugu.

Xede Testua, beraz, itzulpen alografoa da, bai, baina, ikusten den bezala, hemen ere ikusten da euskal idazleek ez diotela uko egiten gaztelaniazko bertsioak kontrolatzeari eta jatorrizkoan ez dauden pasarte baita luzeak ere eransten dituztela itzulpenetan. Horretaz gainera, esandako komunikazio pertsonal horretan idazlearen ahotik jakin dugu, orobat, itzultzaileak eginiko testuan idazleak hainbat eraldaketa ere burutu zituela, maila lexikoan; bai eta, halaber, gaztelaniazko argitalpeneko beste paratestu batean –eskertzan hain zuzen– aipatzen den bezala, hirugarren pertsona batek itzulpenaren errebisioa egin zuen. Ikusten denez, kasu honetan, argitaratutako Xede Testua itzulpen alografoa dela esan dugun arren, eta argitalpenean bertan hala adierazita badago ere, ezin da esan oso urruti dagoenik elkarlanean eginiko itzulpenen figuratik.

Gurei interesatzen zaigun azterketa sintaktiko konparatuaren ikuspuntutik, esan bezala, azpicorpus honetako XTn bi adibidetan baino ez dugu aurkitu STn baliokide petorik ez duen perpaus erlatibo esplikatibo baten gehiketa, eta gainera, biak ez genituzke autoitzulpenetan topatzen direnekin berdintsiko, normalean itzultzailearen orripeko oharretan eman ohi diren argitasunak besterik ez baitira.

Horrenbestez, XTn agertu zaizkigun 28 adibideetatik 26 binomio erabilgarri atera ahal izan ditugu bi testuen arteko itzulpen-baliokidetasunak antzemateko eta bi bertsioetako prozeduren azterketa estilistiko-sintaktikoa egin ahal izateko.

Beste alde batetik, XT honetan 100 orrialdeko aurkitu ditugun PEEen kopurua (11) corpus osoko batez bestekoaren azpitik dago, eta horrek itzulpen alografoetan ohikoagoa izaten den jatorrizkoarekiko atxikimendu handiagora hurbiltzen du gaztelaniazko itzulpen hau.

Ikus dezagun, besterik gabe, zein diren azpicorpus honetan XTn erlatibo esplikatiboen bidez itzulita STn aurkitu ditugun prozedurak.

#### **4.2.8.2. STko baliabideak**

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearren XTn topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STn aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### **4.2.8.2.1. Aposizioa**

Azpicorpus honetako 4 adibidetan (guztietatik %15,4an, beraz), aposizioa aurkitu dugu STn, gaztelaniazko itzulpenean erabili diren PEEen lekuan.

Aposizio motetan sartuz, topatu ditugun aposizio guztiak erlatibozko aposizioak dira -N perpausekin edo PE jokatu arruntekin osatuak alegia; bestalde, haien egiturari gagozkiolarik, bi motatakoak dira, perpaus erlatiboari itsasten dioten osagaiaren arabera: osagai hori mugatzailea edo izen arrunt bat izan daitezke, ikusiko dugunez.

Eta, azkenik, adibide guztietan, lehen segmentuko izenak (propioak eta arruntak) eta aposizioak kasu komunztadura egiten dute, kasu absolutuan eta ergatiboan, biak kopuru berean.

#### **b. Erlatibozko aposizioa**

##### **a.1. -N perpausa + mugatzailea**

Perpaus nagusian dagoen izen sintagmari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, erlatibo bati mugatzailea itsatsiz, eta, adibide gehienetan, kasu komunztadura egonik bi sintagmen artean; kanpoko ardatzaren kokapenari begiratzen badiogu, ikusiko dugu aposizio-tartekiaren aurre-aurrean edo oso hurbil egoten dela.

1	Bai, Elizabeth Macklin idazleak, <b>nire liburua itzuli duenak</b> , berarekin joatera gonbidatu ninduen.	La escritora Elizabeth Macklin, <b>que ha traducido al inglés un libro mío</b> , me invitó a ir con ella.
2	Vojtech Jasnyk grabatu zuen eszena bere kamerarekin. Bere bizitza grabatzeko ohitura du Jasnyk. Bere bizitzaren doku-mentala ari da egiten laurogeita bi urteko zinegile txekiarra, <b>bizitza bera bezain luzea izango dena</b> .	Vojtech Jasny grabó la escena con la cámara. Jasny tiene la costumbre de grabar su vida. El cineasta checo de ochenta y dos años está haciendo el documental de su vida, <b>que será tan largo como ésta</b> .
3	Esku-ohetan jarri zutenean "Ama Santa Ines" umeen kantatxoak kantatu zuten hirurek, <b>amets txarrik ez izateko umeei kantatzen zitzaiena</b> .	Cuando lo pusieron en la camilla cantaron los tres la canción infantil <i>Ama Santa Inés</i> , <b>que se cantaba a los niños para que no tuvieran pesadillas</b> .

### a.2. -N perpausa + izen arrunta

Adibide bat bakarrik topatu dugu<sup>129</sup>.

4	Meredid Puw Dadies idazle galestarra ez zetorren bat.	La poeta galesa Meredid Puw Dadies no estaba de acuerdo. Meredid, <b>que</b>
---	---	--

<sup>129</sup> STn, aldiz, beste adibide bat ere topatu dugu, baina ez, ordea, erlatibo esplikativo batez itzulita, eta horregatik ez dugu kontuan hartu hemen; baina, hala ere, adibide interesgarria iruditzen zaigu gure azterketarako:

Non eta Bilbon, <b>faxisten erasoei urtebetez eutsi zien hirian</b> , Francok dagoeneko ez duela etsairik argi eta garbi utzi nahi dute agintariek. Milaka eta milaka lagun atera direla kalera hura agurtzera.	Las autoridades pretender dejar claro que Franco ya no tiene enemigos. Precisamente en Bilbao, <b>en la ciudad que resistió durante un año los ataques del ejército nacional</b> . Miles de personas han salido a la calle a vitorearlo (sic).
---	--

Izan ere, gaztelaniazko bertsioan, itzultzaileak jatorrizkoaren itzulpen literal okerra egin du gure ustez, eta, horren ondorioz, bertsio horretako izen ardatzak mugatzaile singularra daramanez, badirudi nolabait halako bereizketa bat egin litekeela halako hiri batzuen artean, aipatzen den hiria izanik mendeko perpausak dioen ezaugarria (faxisten erasoei urtebetez eutsi izana) duen hiri bakarra, perpaus erlatiboa murrizgarri bihurtuz; ez dirudi, ordea, zuzena denik ezaugarri hori egokitzea izen ardatz horri. Horrenbestez, itzulpen zuzena mugagabea behar zuen izan: "**Precisamente en Bilbao, que resistió...**" erlatibo esplikativoa edo "**Precisamente en Bilbao, ciudad que resistió...**" aposizio mugagabea izan behar zuen, RAE (2009)ko 12.15b puntuan egiten den bereizketa berriro ere gogora ekarriz. Bestalde, euskarazko bertsioan, aztertzea iruditzen zait bi aposizioetako erlatibo murrizgarriaren erabilera guztiz zuzena ote den gaztelaniazko bertsioan ez-murrizgarri den aposizio baten baliokide gisa; bestela esanda, ez zait iruditzen behar adina aztertu denik euskarazko aposizioek balio ez-murrizgarria izan dezaketen benetan, erdaraz bezala. Hori ez da, ordea, tesi honen helburua, egiteke dagoen beste lan batena baizik; horregatik, mugatzen mugatzen naiz esatera balio edo zentzu ez-murrizgarria duen aposizio edo erlatibo esplikativo baten baliokide gisa erabiltzen dela aztertu dugu azpicorpus honetan.

Meredidek, <b>Doris baino hogei urte gazteagoa zen poetak</b> , ez zuen onartu nahi halabeharra.	<b>era veinte años más joven que Doris</b> , no quería acatar el destino.
--	---

#### 4.2.8.2.2. Perpausen juntadura

Perpausen juntadura da, azpicorpus honetan, gaztelaniazko XTn PEE bat erabiliz itzulita euskarazko STn agertzen diren prozedura sintaktikoen artean ugariena (14 binomiotan aurkitu dugu, adibide guztien erdian baino gehiagotan, %53,9an zehazki), gainontzeko guztiekiko alde handi samarrarekin.

Topatu ditugun juntadura motak alborakuntza eta emendiozko juntadura dira, haietako lehena izanik erabiliena, %42,3arekin, emendiozko juntadura adibideen %11,6an agertzen delarik.

##### a. Alborakuntza:

Perpausak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza 11 binomiotan aurkitu dugu guztira. Gehienetan, alboratutako bi perpausak perpaus lokabeak dira eta puntu batez banatuta egoten dira, baina baita koma batez edo bi puntuz ere. Nolanahi ere, alborakuntzan juntatutako bi perpaus edo bi segmentuek multzo semantiko bat bakarra osatzen dute, hori izanik XTn duen egitura (perpaus nagusi baten barruan txertatutako perpaus erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau izaten delarik XTko perpaus erlatiboko aurrekaria.

**a.1. Kasu guztietan, STn alboratutako bigarren perpausa da XTn erlatibo batez itzulita agertzen dena eta erlatibo hori, 6. binomioan izan ezik, bukaerako posizioan kokatuta egoten da, aditz nagusiaren atzean:**

5	60ko hamarkadan, ostera, Bastida hil eta urte batzuetara, familiak saldu egin zuen txaleta. <b>Etxea bota egin zuten pisuak eraikitzeke.</b>	En la década de los sesenta, sin embargo, a los pocos años de morir Bastida, la familia vendió el chalet <b>que posteriormente se derribó para construir pisos.</b> (sic) <sup>130</sup>
6	Jokalariak agurtzera telebista eta	A los futbolistas los despiden cada

<sup>130</sup> Itzulpeneko puntuazioa ez da zuzena, perpaus erlatiboaren kanpoko ardatzak koma batez bananduta egon behar duelako izenordain erlatibotik; horregatik ipini dugu (sic). Izan ere, adibide honetako, berez, erlatibo esplikatioa izan behar du nabarmenki eta, horregatik, corpusean aintzat hartu dugu, antzeko beste adibideren batekin egin dugun bezala (berdin gertatzen da, izan ere, 8. binomioan).

	besteak etorri dira. Gure aita ez da sekula agertuko, ez, horrelako batean. <b>Sei hilabeterako doa Txilera, arrantzan egitera.</b>	semana entre flashes y cámaras y a mi padre, <b>que se va seis meses a Chile a pescar</b> , seguro que no lo sacan ni en un periódico.
7	Laurogeita sei orrialde zituen guztira. Ricardok berak zenbatuta zetozen orrialdeak. <b>Laurogeita sei orrialdeetatik laurogeita lau idatzita.</b>	El propio Ricardo había numerado las páginas, ochenta y seis en total, <b>de las cuales había escrito en ochenta y cuatro.</b>
8	Hotelera joan gara. <b>McAlpin hotela munduko bigarren hotelik handiena da, 26 solairu ditu eta 13 milioi dolar kostatu zen.</b>	Hemos desembarcado todos y hemos venido al hotel McAlpin <b>que es el segundo del mundo, tiene 26 pisos y costó 13 millones de dólares.</b> (sic)
9	Arrain hegalari asko ikusi ditut, <b>sardinak baino handixeagoak dira.</b>	He visto muchos peces voladores, <b>que son poco mayores que sardinak, con alas.</b>
10	Hiriko bazter guztiak jendez gainezka daude. Udaletxe plaza-ko ikuspegia eman dute. <b>Hura ere bete-betea dago.</b>	Todos los rincones de la ciudad están llenos de gente. Se muestra una panorámica de la plaza del ayuntamiento, <b>que también está a reventar.</b>
11	Deabruak ohitura zuen ikasle-etako batekin geratzeko. Ilaran jartzen ziren denak leizetik atera-tzeko, eta azkenari oratu egiten zion Deabruak. <b>Hura berarekin geratuko zen infernuan.</b>	Pero el diablo tenía la costumbre de quedarse con algún alumno. Se ponían todos en fila para salir de la cueva, y el diablo agarraba al último, <b>que se quedaba con él en el infierno.</b>
12	Erdiko neskak bizkarra ukitzen dio mutilari. Neska hori besarkatu egiten du atzetik beste neskato batek, kokotsa haren sorbaldaren gainean jarrita. Erdiko neskarengan jarri dut arreta, <b>uzkurtuta dago, lotsati begiratzen dio ikusleari.</b>	La chica del medio le toca el hombro al chico. A esa muchacha la abraza por detrás otra que apoya la barbilla sobre su espalda. Yo me he detenido en la segunda muchacha, la aldeana del medio, <b>que está encogida y mira tímidamente al espectador.</b>
13	Markek bere emazteaz hitz egin zidan, <b>ez zela idazleen mundukoa, matematikaria baizik.</b>	Mark me habló de su mujer, <b>que no era del mundo de las letras, sino matemática.</b>
14	Jose Julián Bakedano bere zereginetara itzuli zen bulegora, baina aurretik museoan Arteta-ren muralari buruz zegoen dokumentazioa eman zidan: <b>nola atera zuten murala teknikariek Bastidaren etxetik.</b>	Jose Julián Bakedano debía volver a su despacho, pero antes me facilitó la documentación que (sic) el museo disponía sobre el mural de Arteta, <b>donde se recogía el modo en el que los técnicos extrajeron el mural de la casa de Bastida.</b>

Azken bi binomioak apur bat desberdinak dira, alborakuntzako bigarren segmentua ez delako perpaus lokabea, mendekoa baizik, haien arteko lotura sintaktikoa esplizitua ez delarik edo nolabait elidituta dagoelarik, ahozko

ereduari jarraiki edo; 13. binomioan, zehazki, adierazpen perpaus osagarria da (bi perpausen arteko lotura sintaktikoa esplizitatzekotan, "eta esan zidan" edo antzeko zerbait ipini beharko litzateke); eta 14.ean zehargaldera (kasu honetan, eliditutako ustezko osagaia zehaztea ez da hain erraza, baina "eta dokumentazio horretan adierazten zen..." izan zitekeen, beste perpaus juntatu bat, alegia). Nolanahi, emendiozko juntagailurik ez dagoenez gero, iruditzen zaigu alborakuntzen<sup>131</sup> atal honetan sar daitezkeela bi adibideok:

a.2. Beste kasu batean, bestalde, STn alborakuntzan juntatutako bi perpausak ez dute erreferente berbera; baina gaztelaniazko bertsioko itzulpena, beste hainbat kasutan bezala, ez da hitzez hitzekoa, eta itzulpenean perpaus nagusian dagoen kanpoko izen ardatza euskarazko bertsioko bigarren perpausaren baino ez dago, predikazioko subjektu funtzioarekin:

15	Urte batzuk euskal kostaldean lanean egin eta Andaluziara bueltatu ziren gero denak. Denak ez, <b>arreba Euskal Herrian geratu zen.</b>	Después de trabajar unos años en la costa cantábrica se volvieron todos a Andalucía. Todos menos la hermana, <b>que se quedó a vivir en el País Vasco.</b>
----	---	--

Euskarazko testuan, alboratutako bi perpausak lotzen dituen ez da lotura morfologikoa, semantikoa baizik: alegia, bigarren perpausak lehenengoaren azalpena eransten du; hots, "Denak ez (ziren bueltatu Andaluziara), *arreba Euskal Herrian geratu zen eta*".

### b. Emendiozko juntadura

Azpicorpus honetako euskarazko STn askoz neurri txikiagoan topatzen dugu bi perpausen emendiozko juntadura, hots, juntagailu kopulatiboaz elkartutako bi perpaus.

Alborakuntzan ez bezala, XTko perpaus erlatiboa STn juntaturiko bigarren perpausetik ez ezik, lehenengotik ere ateratzen da, baita kasu gehiagotan ere, baina adibide kopurua txikiegia da, nolahi ere:

#### b.1. Lehenengo perpausetik:

16	"San Jerónimo" belaontzia ur azalera atera ahal izan zuten,	El vapor Joaquín de Bustamante, <b>que exploró la zona de la catástrofe,</b>
----	---	--

<sup>131</sup> Ikus alborakuntzari eskainitako zatia, 4.3.1.3.3.1. puntuan.

	<b>"Joaquín de Bustamante" baporea ibili zen bazter haiek miatzen eta halaxe eriden zuen.</b>	logró rescatar de las profundidades los restos del velero San Jerónimo.
17	<b>Enperadoreak gorpua baltsamatztea agindu zuen eta gela barruan igarotzen zituen orduak hari begira.</b>	El emperador, <b>que había hecho llevar a su aposento el cadáver embalsamado</b> , no quería separarse de él.

Bi adibideotan ikusten den bezala, izen ardatz edo erreferenteari dagokion lehen predikazioa da XTn tarteki apositibo modura txertatuta dagoena, erlatiboazko mendeko perpauz batez, esaldiko aditz nagusia baino lehen, STko bigarren perpauz edo predikazioa izanik, beraz, itzulpenean perpauz nagusizat ematen dena. Hortaz, XTn aditz nagusia perpauz erlatiboaren ondoren doa.

#### b.2. Bigarren perpauzetik:

18	<b>Mutila herritik joan zen eta bertan geratu zen neska. Eta, hala, beste pertsona batzuk ezagutu zituzten eta ezkondu ere egin ziren haiekin eta seme-alabak izan.</b>	El chico se marchó del pueblo y la chica se quedó. Y, así, conocieron a otras personas, <b>con quienes se casaron y tuvieron hijos.</b>
----	---	---

Beste adibide honetan, berriz, euskarazko bertsioan juntatutako bigarren perpauzetik aterata dago XTko erlatiboa, eta mendeko perpauz hori esaldi bukaerako posizioan doa itzulpenean; bestela esanda, jatorrizko bertsioko juntaturako lehen predikazioa da itzulpenean perpauz nagusia eta, beraz, esaldiko aditz nagusia perpauz erlatiboaren aurretik kokatuta dago.

#### 4.2.8.2.3. Kausa perpauzak

Kausa perpauzak hiru adibidetan topatu ditugu XTko erlatibo esplikatiboen bidez itzulita, proportzio ez oso handian (%11,5). BAIT menderagailua da erabiliena. Azken bi binomioetan, XTko klausula erlatiboaren aurrekari eta STko bi perpauzetako erreferentziakidea izen propioak dira, haietako bat absolutiboan egonik eta besteak adlatiboaren atziki marka duelarik.

19	<b>Bidaia hasi aurretik, ekainaren hirugarrenean, Corpus Christi</b>	Antes de empezar el viaje, el día 3 de junio, <b>que es la fiesta del Corpus</b>
----	--	--

	<b>eguna denez</b> , Ondarroako elizan Jauna hartu dut...	<b>Christi</b> , he comulgado en la iglesia de Ondarroa...
20	New Yorken Brooklyngo zubia igaroko dute bastidatarrek oinez alde batetik bestera. Eta Niaga-rako ur-jauziak ikusiko dituzte, eta Washingtongo Kapitolioa. Chicago dute jomuga, <b>hantxe baita kongresua</b> .	Los Bastida cruzaron a pie el puente de Brooklyn, de un extremo al otro. Antes de alcanzar su destino, Chicago, <b>donde se celebraba el congreso</b> , recorrieron buena parte del país.
21	Bastidak jakin zuen Indalecio Prieto makal zebilela eta bisita egin nahi izan zion Mexikora, <b>bertan baitzegoen atzerriratuta</b> .	Supo que Indalecio Prieto estaba débil y quiso ir a visitarlo a México, <b>donde Prieto permanecía exiliado</b> . <sup>132</sup>

#### 4.2.8.2.4. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, -N perpaus erlatibo arruntak baino ez ditugu aurkitu STn, eta, gainera, nahiko kopuru txikian (guztietatik %7,7).

##### a. -N erlatiboa:

Esan bezala, azpicorpus honetan egitura hau nahiko gutxi erabilita ikusi dugu. Izan ere, euskarazko STn honelako 2 kasu besterik ez daude erlatibo esplikatiboen bidez itzulita XTn; alegia, ardatzari izenlagun gisa itsatsia, ardatzaren ezkerretik.

Bestalde, bi kasuetan, erlatiboa izen arrunt bati itsatsita dago. Eta STko bi segmentuen arteko komunztadura dago, kasu absolutuan.

22	"Prestige" petrolio-ontziarena gertatu zenean bezala 2002an. <b>Letoniatik Gibraltar aldera zihoan ontzia</b> hondatu egin zen Galiziako kostan...	Como cuando, en el 2002, ocurrió lo del petrolero Prestige. El barco <b>que se dirigía desde Letonia a Gibraltar</b> sufrió una avería en la costa gallega...
23	Donostiara itzuli nahi du eta aspaldiko asmo bati ekin, euskaraz ikastea hain zuzen. Hitz gutxi batzuk badakizki euskaraz, horien artean <b>behin eta berriz errepikatzen duen "goxua"</b> .	Quiere volver a San Sebastián y dedicarse a un viejo proyecto, estudiar euskera. Sabe unas pocas palabras, entre ellas, "goxua", <b>que repite una y otra vez</b> .

<sup>132</sup> Esan beharra dago binomio honetako euskarazko testua argitaratu gabeko euskarazko bigarren bertsioan dagoela, eta ez dagoela argitaratutako bertsioan.



Aipatzekoa da -N erlatiboaren erabilerak akats sintaktiko edo, gutxienez, ortotipografiko bat egitera daramala itzultzailea 22. binomioan, XTn perpaus erlatiboa komarik edo etenik gabe jartzen duelako, murrizgarria balitz bezala, haren zentzua argi eta garbi ez-murrizgarria izanik, ordea<sup>133</sup>; izan ere, nekez esan daiteke, gure ustez, euskarazko perpaus erlatiboko izen ardatzaren erreferentzia ondo mugatuta dagoenik, beharbada mugatzailea erabiltzen duelako erakuslea erabili beharrean. Bestela esanda, zalantzazkoa iruditzen zaigu STko esaldiaren zuzentasuna.

#### 4.2.8.2.5. Bestelako mendeko perpausak

Askoz ere proportzio txikiagoan aurkitu ditugu STn bestelako prozedura sintaktiko batzuk XTko erlatibo esplikatioben bitartez itzulita, eta horregatik sartu ditugu denak multzo onen barruan:

##### a. Denbora perpausak

Adibide batean, denbora perpaus bat aurkitu dugu euskarazko STn, PEE baten bidez itzulita gaztelaniazko bertsioan:

24	Baina lau orduko abentura hartan lagun handiak egin ziren Prieto eta Bakeriza. Horren handiak, ezen Bakeriza bera joan zen handik urte batzuetara herriko alkatearekin batera Madrilera Prietorengana, <b>berau Hirigintza ministro izendatu zutenean.</b>	Pero en aquella aventura de cuatro horas, Prieto y Bakeriza se hicieron buenos amigos. Tan buenos que, al cabo de unos años, Bakeriza, junto al alcalde de Ondarroa, acudió en su ayuda a Madrid, <b>donde Prieto dirigía el Ministerio de Urbanismo.</b>
----	--	---

Kasu honetan ere, beste hainbat aldiz bezala, erdarazko itzulpena parafrastikoa da eta XTko perpaus erlatiboaren izen ardatza (*Madrid*) ez dator bat STko erreferentziakidearekin (*Prieto*); baina, hala ere, adibide honek ere argi erakusten du erdarazko itzulpenetan erlatibo esplikatiboak erabiltzeko joera handia dagoela, itzulpen literalago baina, hala ere, gramatikalki zuzenen ordez.

##### b. Helburu perpausak

<sup>133</sup> Zalantzazkoa iruditzen zaigu, nolana ere, euskarazko testuaren zuzentasuna, 4. kapituluko 4.3.1.3.4.2. puntuan adierazten ditudan arrazoiengatik.

Beste adibide batean, helburu perpaus bat aurkitu dugu euskarazko STn, PEE baten bidez itzulita gaztelaniazko bertsiotan:

25	José Julian Bakedano, museoko arduradunetako batek erakutsi zidan murala. Garai batean txaleteko egongelako hiru pare-tak hartzen zituen. Horien aitzinean begiratokia zegoen, <b>itsasoari begira egoteko.</b>	José Julian Bakedano, uno de los responsables del museo, me enseñó el mural. En su momento ocupaba tres de las paredes del salón del chalet de Bastida. La cuarta era la galería barco, <b>desde donde se veía el mar.</b>
----	---	--

Aurrekoan bezala, kasu honetan ere itzulpen parafrastikoa topatzen dugu, baina, seguru aski, hemen itzultzaileak halabeharrez erabili behar izan du zeharkako itzulpena, itzulpen literalaren zuzentasun estilistikoa oso zalantzazkoa delako:

*?La cuarta era la galería barco, para mirar al mar.*

#### 4.2.8.2.6. Bestelako prozedurak

Azpícorpus honekin bukatzeko, badago adibide bat zeinetan gaztelaniara egin den itzulpen parafrastikoa perpaus erlatibo esplikatibo bat dagoen, baina jatorrizkoan perpaus predikatibo soil bat besterik ez:

26	<b>Manuel Aierdi kapitainak ematen zituen eskolak herriko Arrantza-eskolan hirurogeiko hamarkada hasieran.</b>	Después se me ha ido el santo al cielo y me he acordado del capitán Manuel Aierdi, <b>quien dio clase a mi padre en la escuela de pesca del pueblo a principios de los sesenta.</b>
----	--	---

#### 4.2.8.3. Gehiketa

Azpícorpus honetan ere topatu dugu gehiketa kasurik, alegia, gaztelaniazko XTn perpaus erlatibo esplikatibo batzuk euskarazko STn inolako baliokiderik ez dutenak. Biak azalpenezko gehiketak dira, eduki narratibo berririk eransten ez dutenak, eta normalean orripeko itzulpen-oharretan joaten den argitasunen bat ematen dute.

27	"Bai, badakit arraroa dela, baina hitzak artikulurik gabe jakiteko da". Barrutia saiatzen da zergatia azaltzen, baina arrakastarik gabe.	Sí, sé que es raro, pero necesito saber las palabras sin artículos. <b>En euskera las palabras siempre aca-ban con a, que es el artículo. Pero si quiero saber la raíz de la palabra te pido que pongas hiru por delante y ya está.</b> Barrutia trata de explicarle el motivo, pero no tiene éxito.
28	Santi Meaberi "Orbela" deitzen zioten burlaz.	A Santi Meabe le llamaban <b>Orbela, que significa hojarasca en euskera.</b>

#### 4.2.8.4. Ondorioak

Azpicorpus honen azterketatik atera ditugun ondorioak azaltzeari ekin baino lehen, argitasun txiki bat eman behar dugu, ondoan zehaztu ditugun ehunekoei dagokienez; izan ere, testu honetan bildu ditugun 28 binomioetatik, 26k baino ez digute uzten egiazko itzulpen-baliokidetasunik aurkitzen, gehiketa adibideak baliogabeak baitzaizkigu helburu horri begira; hortaz, ondoren adierazitako ehunekoak estatistikarako baliagarriak zaizkigun 26 binomio horien arabera ateratakoak dira. Argitasun hori esanda, azpicorpus honetatik ateratako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

##### 4.2.8.4.1. Ondorio orokorrak.

1. Azpicorpus honetan guztira lortu ditugun 28 binomioetatik 2tan (%7,2), XTko perpaus erlatiboek ez dute inolako baliokiderik STn; alegia, itzulpenean erantsitako zatiak dira, jatorrizkoan ez dauden gehiketak.

2. Bestalde, bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, desberdintasun handi samarra dago STtik XTra: STn azpicorpus honetako binomio guztietatik 2tan bakarrik (%7,7) topatu dugu erlatiboazko forma baten erabilera, -N erlatiboarekin zehazki; erlatiboazko aposizioaren sailean sartu ditugun lau adibideak ere kontatuz gero, %23,1era iritsiko litzateke, binomio guztietatik laurdena baino gutxiagora.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTren parafrasi-adierazlea %76,9koa da.

4. XTko PEEen erabilera estilo hipotaktikoaren ezaugarritzat jotzen badugu, ondorioztatu behar dugu STren egileak estilo parataktikorako joera handia erakusten duela, perpausen juntadura baita adibide guztietatik erdia baino gehiagotan aurkitzen duguna.

5. XTren parafraasi-adierazleak, batez ere, xede-testua gaztelaniaren halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago batera egokitzeko joera dagoela adierazten du; edo, beste era batera esanda, Gideon Touryren *"target-oriented translation"*<sup>134</sup> edo XKra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen du azpicorpus honetako itzulpena.

#### 4.2.8.4.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak.

Euskarazko STren eta gaztelaniazko XTren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Azpicorpus honetan nagusitzen den joera sintaktiko-estilistikoa definitu beharko bagenu, argi esan beharko genuke perpausen juntadura dela STren ezaugarri estilistikoan alde handiz nagusitzen den baliabide sintaktikoa:

<b>Perpaus juntadura</b>	14 binomio	%53,9
<b>Aposizioa</b>	4 binomio	%15,4
<b>Kausa perpausak</b>	3 binomio	%11,5

2. Egitura sintaktikoak areago zehaztuz, perpaus juntaduraren barruan, bi perpausen alborakuntza da gehien topatzen duguna, alde handia ateratzen diolarik emendiozko juntadurari:

<b>Alborakuntza</b>	11 binomio	%42,3
<b>Emendiozko juntadura</b>	3 binomio	%11,6

<sup>134</sup> Gideon Toury (1995).

3. Aposizioaren erabilera nahiko txikia da azpicorpus honetan (%15,4), eta adibide guztietan erlatiboazko aposizioa topatzen dugu, aditz jokatuarekin beti.

- a. Aposizioan doazen bi segmentuak kasu absolutuan eta ergatiboan daude, bina adibiderekin.
- b. Aposizioan doazen bi segmentuen artean, kasu komunztadura egiten da adibide guztietan.

4. Perpaus erlatiboek oso erabilera urria dute, beste azpicorpus batzuekin konparatuta, eta -N erlatiboa da adibide urri horietan aurkitu dugun mota bakarra; bestelako mendeko perpaus batzuk ere aurkitu ditugu, baina denak oso proportzio txikian, haiek ere:


<b>Perpaus erlatiboak</b>	2 binomio	%7,7
<b>Denbora perpausak</b>	binomio 1	%3,8
<b>Helburu perpausak</b>	binomio 1	%3,8

5. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio soil bat (beste izen arrunt aposatu bat izan gabe) duten 3 binomio bakarrik aurkitu ditugu (XTn izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Adibide horiek ez dira nahiko ebatzi ahal izateko ea idazle honek ere joera ba ote duen prozedura desberdinak erabiltzeko izen propioari itsasten zaion kasu-markaren arabera. Nolanahi, aposizioen sailean jarri dugun binomio batean (4), izen propioak eta klausula apositiboak ergatiboaren atzizkia dute; eta kausa perpausen sailean daude beste bi adibideak, batean (20) izen propioa absolutiboan dagoelarik, eta adlatiboan bigarreanean (21).

#### 4.2.8.4.3. Grafika sinoptikoa.

Grafika sinoptiko honetan laburbilduta ematen ditugu ondorioetan ateratako datu kuantitatiboak:

### STn erabilitako baliabide sintaktikoak



8. grafika: C<sub>8</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.

#### 4.2.9. C<sub>9</sub> azpicorpusa: Arantxa Urretabizkaia, *Saturno*

##### 4.2.9.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Arantxa Urretabizkaia
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Saturno</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Erein (Donostia)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1987
<b>Orrialdeak:</b>	127
<b>Xede Testua:</b>	<i>Saturno</i>
<b>Itzultzaileak:</b>	M. Glz. Esnal eta A. Urretabizkaia
<b>XTren argitaletxea:</b>	Alfaguara (Madrid)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	1989
<b>Orrialdeak:</b>	137
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	3

C<sub>9</sub> deitu dugun azpicorpus honetako gaztelaniazko bertsioa, argitalpenaren beraren paratestuetan ageri denaren arabera, lankidetzan egindako itzulpena da, baina itzulpenari buruz topatu dugun kazetaritza-erreferentzia batean<sup>135</sup> idazleak dioenari kasu eginez gero, itzulpena itzultzailearen kontura joan zen eta idazleak itzulpen hori "zuzendu" egin zuen; halaxe berretsi digute bai idazleak berak eta baita itzultzaileak ere haiekin izandako komunikazio pertsonal batzuetan, baina arazoa da nola ulertu behar den orduan aipatu prentsa-artikulu horretako beste puntu batean idazleak dioena: *«la traducción tiene una autora, yo la he corregido, la he reescrito, pero no es mía, ni creo que pueda hacerla directamente, no sé, por eso la firmamos las dos»*; hau da, zenbaterainoko "berridazketa" dagoen XTan.

Bada, xede-testua aztertu ondoren, ustezko berridazketa horren zantzurik ez dugu antzeman maila sintaktikoan bederen, ez behintzat XT horretako PEEen bila joan garenean; izan ere, gaztelaniako bertsioan hiru PEE baliagarri baino ez ditugu aurkitu, eta gehiketarik ez. Beharbada, XTan hain PEE gutxi egotearen arrazoi bat goian aipatutako artikuluan ere egon daiteke, bertan esaten baitu, eleberrian erabilitako hizkeraz ari delarik, *«Utilizo mi lenguaje natural (...), muy cercano al lenguaje hablado»*.

Arrazoa hori izan edo ez, gure iritziz, XTan hain PEE gutxi aurkitu izanak STaren estiloa asko errespetatu dela esan nahi du, ez dela egon XHren ustezko estilo jasoago edo konplexuagorako egokitzapenik, eta, horrenbestez, egia baldin bada idazleak itzulpen-lana zerbait "berridatzi" zuela, tesi honetan ez dagokigun beste punturen batean egongo da horren aztarna.

Azpicorpus honetako itzulpenaren tipologia erabakitzerakoan, kontuan izan beharko dugu, Manterolak (2014: 70) dioen bezala, elkarlanean egindako itzulpenak autoitzulpenetik edo itzulpen alografotik gertuago egon daitezkeela

<sup>135</sup> Sancho el Sabio Fundazioaren "Euskal Memoria Digitala" weborria: <http://www.memoriadigitalvasca.es/bitstream/10357/8078/1/102105.pdf> [On line. Kontsulta-data: 2016-02-15]

elkarlan horren mailaren arabera. Bada, itzulpen honetatik tesi honen ondorioetarako atera ahal izan ditugun datu apurren argitan, esango genuke itzulpen alografotik hurbilago dagoela gure corpusean dagoen elkarlanean eginiko beste itzulpena ( $C_1$ ) baino. Alabaina, argitalpeneko paratestuari eta idazleak eginiko deklarazioei jarraiki, uste dugu ez dugula itzulpen alografoen artean sailkatu behar, badirudielako idazleak bai izan zuela eraginik XTaren azken bertsioan.

Bestalde, XTan topatu ditugun PEEak hain gutxi izanik, 100 orrialdeko portzentajea ere  $C_0$  osoko txikiena da (2,2),  $C_3$  azpicorpusarekin batera. Aldiz, honetan ez bezala, XTaren azterketan topatu ditugun hiru binomioak, esan bezala, baliagarriak dira, eta, gutxi diren arren, ondoren txertatu ditugu: lehendabiziko bi binomioetan, XTko PEEak segmentu suborazional batzuetatik atera dira; eta hirugarren adibidean, berriz, moduzko perpaus batetik; itzulpen parafrastikoak dira, beraz, guztiak.

#### 4.2.9.2. STko baliabideak

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### 4.2.9.2.1. Segmentu suborazionalak

Honelako bi adibide topatu ditugu:

1	—Bai, bai —dio Luisek, <b>ia neskarengana abiatzeko zorian.</b>	—Sí, sí —dice Luis, <b>que está a punto de dirigirse hacia la chica.</b>
2	Azkeneko tragoa neskaren irribarre orain lotsagabearen truke eta Luis zutitu egiten da, posterra ezkerrean eta eskubia patrikan, <b>oraindik pezetetara ohitu ezinean.</b>	Último trago y se pone de pie, el póster en la mano izquierda y la derecha en el bolsillo, <b>donde vuelve a haber pesetas.</b>

##### 4.2.9.2.1. Bestelako mendeko perpausak

Adibide bakarra dago:



3	Ez zaio asko kostatzen kamarotera sartu eta bertan Maite topatzea, <b>bera lanean ari den bitartean ohe estuko maindireak epel mantentzen.</b>	No le cuesta mucho ir al camarote y encontrarse allí con Maite <b>que, mientras él trabaja, conserva calientes las sábanas de la litera.</b> (sic) <sup>136</sup>
---	--	---

#### 4.2.9.3. Ondorioak

C<sub>9</sub> azpicorpus honetan hain PEE gutxi aurkitu dugunez, zentzu gehiegirik ez du gure ustez besteetan egin duguna bezalako azterketa kuantitatiboa egiteak, eta, horregatik, C<sub>3</sub> azpicorpusarekin batera azterketaren atal horretatik eta azpicorpus desberdinen arteko konparaketatik kanpo uztea erabaki dugu.

Hala ere, kasu honetako itzulpenaren tipologiaren eta XTko erlatibakuntza-joeraren arteko harremanaren ikuspegitik, bai iruditzen zaigu interesgarria izan daitekeela bi ondorio azpimarratzea:

1. Goian emandako arrazoietan oinarrituta, XT hau azpicorpus honetako testua Touryren “*source-oriented translation*” edo SHra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatu behar dugu; edo, bestela esanda, XTak nahiko maila handian islatzen ditu STaren jatorrizko joera sintaktiko-estilistikoak.

2. Bestetik, itzultzailearen eta idazlearen arteko elkarlanean eginiko itzulpena izateak ez du eragin halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago baterako jauzia.

3. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio bat duten 2 binomio daude azpicorpus honetan (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Ez dira nahiko, ebazteko ea idazle honek ere joera ba ote duen prozedura desberdinak erabiltzeko izen propioari itsasten zaion kasu-markaren arabera.

<sup>136</sup>Hemen ere, beste azpicorpus batzuetako XTetan bezala, puntuazio-akats batekin egiten dugu topo, baina, kasu honetan, ezin esan daiteke STko erlatibo murrizgarriaren eraginez eginikoa denik.



#### 4.2.10. C<sub>10</sub> azpicorpusa: Iban Zaldua, *Etorkizuna*

##### 4.2.10.1. Corpusaren fitxa eta itzulpenaren tipologia

<b>Idazlea:</b>	Iban Zaldua
<b>Sorburu Testua:</b>	<i>Etorkizuna</i>
<b>STren argitaletxea:</b>	Alberdania (Irun)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2005
<b>Orrialdeak:</b>	122
<b>Xede Testua:</b>	<i>Porvenir</i>
<b>Itzultzailea:</b>	Iban Zaldua
<b>XTren argitaletxea:</b>	Lengua de trapo (Madrid)
<b>Argitaratze-urtea:</b>	2007
<b>Orrialdeak:</b>	182
<b>XTko erlatibo esplikatiboak:</b>	31
<b>Binomio erabilgarriak:</b>	27

C<sub>10</sub> azpicorpus honetan ere autoitzulpena aurkitu dugu, autore honen beste lan guztietan ohi den bezala eta gaztelaniazko bertsioko paratestuetan aditzera ematen den bezala. Idazle honek noizbait arrazoitu ere egin du bere lanen itzulpenak zergatik hartzen dituen bere gain, bai eta gogoetarik egin ere itzulpenei eta autoitzulpenei buruz, ondoko elkarrizketa honetan adibidez:

(...) la lengua castellana es tan mía como la vasca y, al contrario de lo que ocurriría si tradujeran un texto mío al polaco o al esloveno, no podría resistir la necesidad de revisarlo a fondo y corregirlo. Y como sé que me iba a costar encontrar “mi voz” en el texto, perdería mucho tiempo en el proceso, no quedaría del todo satisfecho y además correría el riesgo de irritar al traductor. Lo sé porque alguna vez lo he probado. De manera que prefiero ser yo, por ahora, quien haga mis traducciones, aunque en sentido estricto nunca llegan a ser traducciones, claro, sino versiones: no pocas veces aprovecho la oportunidad para corregir o mejorar el texto original, al que, pasado el tiempo, empiezo a ver las “costuras”, lo que, por otra parte, sería un sacrilegio para la mayoría de los traductores profesionales (porque es algo que no les está permitido hacer: no tienen, en ese sentido, soberanía sobre el texto, tal y como la puede tener el propio autor...) <sup>137</sup>

<sup>137</sup> La Revista Digital del Portal de la Educación [On line. Kontsulta-data: 2016-02-15]  
[http://revistas.educacion.jcyl.es/revista\\_digital/index.php?option=com\\_content&view=article&id=2952&catid=30&Itemid=82](http://revistas.educacion.jcyl.es/revista_digital/index.php?option=com_content&view=article&id=2952&catid=30&Itemid=82)

Autorearen baieztapena berretsi beharra dago azpicorpus honen kasuan; izan ere, hasteko, gaztelaniazko bertzioak badu jatorrizkoak ez duen atal bat, XTko 12.a, *Gusanos de seda* izenburua duena (125-141. orriak). Berau, noski, ez dugu sartu bi testuen arteko konparaketan, eta atal horretan aurkitutako PEEak ez ditugu aintzat hartu ezta gehiketa modura ere, jatorrizkoan ez dagoen testu zati baten barrukoak direlako. Bestalde, badago beste aldaketa nabarmen bat atalen hurrenkeran: STko 9. eta 11. atalek lekuak trukatuta dituzte XTan.

Aldaketa horiek, ordea, ez daude inon aitortuta edo azalduta gaztelaniazko bertzioan, nahiz eta bertzio hau argi eta garbi ematen den itzulpenzat argitalpenari buruzko kredituetan jatorrizkoaren izenburua aipatzen denean<sup>138</sup>.

Oinarri horren gainean, eta XTko PEEekin zer gertatzen den ikustera sartuz, esan beharra dago XT honetan bai topatu ditugula beste gehiketa batzuk kontuan hartu behar ditugunak; hots, STn ez dauden osagai narratibo batzuk eranstean dituzten perpaus erlatibo esplikatioak; esan beharra dago, hala ere, gehiketa txikiak direla, perpaus erlatiboak eranstera mugatuta daudenak. Dena dela, XTan aurkitu ditugun PEEen kopurua oso handia ez denez, gehiketa horien maila portzentuala ez da aintzat ez hartzeko modukoa, ia %13ra iristen baita. Alabaina, beste azpicorpusetan bezala, adibide horiek gure azterketatik kanpo utzi ditugu, STko beste ezein egituraren baliokide ez direlako, hain zuzen.

Bi ezaugarri hauek euskal literatura-sisteman hainbat kasutan agertzen den autoitzulpenaren ezaugarrietako batzuekin lotzen dute azpicorpus honetako gaztelaniazko bertzioa, STaren egileak berak esandako ildotik.

Azkenik, gorago esan dugun bezala, XTan agertu zaizkigun PEEen kopurua C<sub>0</sub> corpuseko txikienetakoa da, baina hori ahozko hizkeratik hurbil dagoen idazlearen estilotik eratorritako ezaugarria izan daiteke. Hala, 100 orrialdeko portzentajea batezbesteko zehatzean dago, 17an, hain zuzen.

<sup>138</sup> Honela dio: "Titulo del original vasco: *Etorkizuna*", 6. orr.

Gauzak horrela, ikus dezagun, beraz, azpicorpus honetan zein diren STan aurkitu ditugun baliabide sintaktikoak, XTan erlatibo esplikati boen bidez itzuliak.

#### 4.2.10.2. STko baliabideak

Azpicorpus honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen arteko baliokidetasun testualak bilatzearen XTan topatu ditugun PEEetatik abiatuta, ondoan datozenak STan aurkitu ditugun jatorrizko baliabideak dira.

##### 4.2.10.2.1. Segmentu suborazionalak

Lau kasutan (adibide guztietatik %14,8an, beraz), XTko perpaus erlatiboari dagokion STko testu zatia ez da iristen perpausen mailara, segmentu suborazional bat besterik ez baita; proportzio handi samarra da, hainbestera non bigarren prozedurarik erabiliena baita azpicorpus honetan. Gaztelaniazko bertsio erlatiboa adizlagun, aditzondo edo izenlagun batetik ateratzen da, bai eta izen sintagma batetik ere.

Askotan, adibide hauetan ikusten denez, XTan erantsi –edo nolabait esplizitatu– egiten da jatorrizko segmentu suborazionalan ez dagoen aditz forma bat, aditz hori izanik itzulpeneko bertsioan bigarren segmentua perpaus bihurtzen laguntzen duena:

1	“Herriko burgesia nanoa eta haren zerbitzari leialak”, <b>zure aita zenak</b> esango lukeen bezala.	“La enana burguesía de la villa”, como hubiera dicho tu padre, <b>que en paz descansa.</b>
2	Beste alderantz abiatu gara, <b>aitak bere ardo-bilduma gordetzen duen lekura.</b>	Nos dirigimos hacia el extremo contrario, <b>donde papá guarda su colección de herramientas.</b>
3	Hurrengo minutuak elkarren artean eztabaidatzen pasatu genituen Ainhizek eta biok, <b>atzeko emakumeak pentsa zezakeenaz arduratu gabe.</b>	Los siguientes minutos los pasamos discutiendo, sin importarnos demasiado lo que pudiera pensar la señora, <b>que ya se había acomodado en el asiento trasero.</b>
4	Eta pentsatzekoa da baita ere Antoniok ez zuela jarraituko, egoera horretan, Edurnerekiko istorioarekin. Nik behintzat, <b>bera ezagututa</b> , hori uste dut.	Y es de suponer que, a causa de la nueva situación, Antonio no hubiera seguido con la historia de Edurne. Es lo que pienso yo, <b>que lo conozco bien.</b>

#### 4.2.10.2.2. Aposizioa

Aposizioa da azpicorpus honetako STan topatu dugun baliabide sintaktikorik erabiliena: 7 adibidetan (%26) aurkitu dugu, gaztelaniazko itzulpenean erabili diren perpaus erlatibo esplikatiboen lekuan.

Aposizio motetan sartuz, topatu ditugun aposizio guztiak erlatibozko aposizioak dira, eta guztiak, orobat, -N perpausari mugatzailea eransten diotenak, denak kasu absolutuan, singular nahiz pluralean.

##### a. Erlatibozko aposizioa

##### a.1. -N perpausa + mugatzailea

Perpaus nagusian dagoen ISari (kanpoko ardatzari) sintagma bat aposatzen zaio, koma batez banatuta, erlatibo bati mugatzailea itsatsiz; kanpoko ardatzaren kokapenari begiratzen badiogu, ikusiko dugu aposizio-tartekiaren aurre-aurrean edo oso hurbil egoten dela.

Binomio guztietan, aurrekaria eta aposizioa kasu absolutuan daude, singularrean nahiz pluralean, adibide guztietan, kasu komunztadura egonik bi sintagmen artean.

5	Kontuan hartuta gelak hogeit bat metro koadro besterik ez duela: bainugela, <b>beste zenbait auzokiderekin konpartitzen dudana</b> , kanpoan dago, korridore luze baten amaieran.	El cuarto apenas tiene quince metros cuadrados: el baño, <b>que comparto con otros vecinos</b> , está fuera, al final de un largo pasillo.
6	Oso eritasun bitxia zuela komunikatu zioten medikuek, Churg-Straussen sindromea delakoa, <b>iraganean asma izan duten jende oso gutxirengan agertzen omen dena</b> .	Los médicos le comunicaron que padecía una enfermedad muy rara, el denominado síndrome de Churg-Strauss, <b>que afecta a un muy pequeño porcentaje de gente que en el pasado había sufrido de asma</b> .
7	Lodzeko Ehun eta Larru Sintetikoak enpresaren modernizazioaren erantzule nagusia zen Ivan, <b>ehunak eta lanjantziak manufakturatzen zituen fabrika zaharkitu bat izatetik, gaur egun den horretara eraman zuena</b> : berrehun eta hogeita bost	Sabían que Ivan era el máximo responsable de la modernización de Telas y Pieles Sintéticas de Lodz, <b>que pasó de ser una caduca fábrica de tejidos y monos de trabajo, con personal excedente, a lo que es hoy en día</b> : una empresa solvente y competitiva que da empleo a unos

	bat langileri enplegua ematen dien enpresa sendoa.	doscientos veinticinco trabajadores.
8	Filmaren kanpoaldeak nahiz barrualdeak grabatzeko aukeratu zuten lekuetako bat, fabrika hura izan zen, <b>garai hartan Lodzeko Ehun eta Larruen Estatu Lantegia izena zuena.</b>	Uno de los lugares que eligieron para grabar tanto exteriores como interiores fue aquella fábrica, <b>que por aquel entonces se denominaba Planta Estatal de Tejidos y Pieles de Lodz.</b>
9	Erretiro-pentsioarekin arazoak izan zituen. Epaiketa hartarako deia, <b>azkenean artxibatu zena.</b>	Tuvo problemas con su pensión de jubilado. Y luego estuvo aquel proceso judicial, <b>que por fortuna fue sobreseído.</b>
10	Tetra logelatzat erabiltzearen kontrako aholkua, <b>letra txikiagoan eta ondorioen deskribapen zehatzik gabe zetorrena,</b> arrazoi berean oinarritzen zela pentsatu nuen.	Atribuí a ese mismo riesgo de cortes eléctricos la recomendación de no utilizar el Tetra como dormitorio, <b>que figuraba en el manual con letra más pequeña y sin ninguna nota o descripción añadidas.</b>
11	Ametsean, edo dena delakoan, minutuak eta minutuak pasatu ziren, <b>paralisiak jota bezala igaro nituenak.</b>	En el sueño pasaron minutos y más minutos, <b>a lo largo de los que estuve como paralizado.</b>

#### 4.2.10.2.3. Perpausen juntadura

Perpausen juntadura azpicorpus honetatik atera ditugun adibide guztietatik %18,5an aurkitu dugu.

Topatu ditugun juntadura motak alborakuntza eta emendiozko juntadura dira, haietako bigarrena izanik erabiliena, %14,8rekin, alborakuntza adibideen %3,7n bakarrik agertzen delarik.

##### a. Alborakuntza:

Perpausak juntatzeko moduen barruan, alborakuntza binomio bakarrean baino ez dugu aurkitu. Alboratzen direnak bi perpaus lokabe dira, bata bi puntuz eta bestea puntu eta komaz banatuta. Nolanahi ere, alborakuntzan juntatutako bi perpaus edo bi segmentuek multzo semantiko bat bakarra osatzen dute, hori izanik XTan duen egitura (perpaus nagusi baten barruan txertatutako perpaus erlatiboa) hartzea ahalbidetzen duena. Izan ere, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, berau delarik XTko perpaus erlatiboko aurrekaria.

Bi binomioetan, STan alboratutako bigarren perpausa da XTan erlatibo batez itzulita agertzen dena eta erlatibo hori, beraz, bukaerako posizioan kokatuta dago, aditz nagusiaren atzean:

12	Oroitzapen gazi-gozaok ekartzen zizkioten gauza haiek guztiek. Marx eta Engelsen Lan Guztien liburukiek ez, ordea: <b>zer edo zer sendoa izaten jarraitzen dutela iruditzen zaio Oskarri.</b>	Todas aquellas cosas le traían recuerdos agridulces. No así las <b>Obras Completas</b> de Marx y Engels, <b>que a Oskar le siguen pareciendo algo sólido y seguro.</b>
----	---	--

### b. Emendiozko juntadura

Azpicorpus honetako euskarazko STan 4 binomiotan topatu dugu bi perpausen emendiozko juntadura, hots, juntagailu kopulatiboaz elkartutako bi perpaus.

Kasu guztietan, XTko perpaus erlatiboa STan juntaturiko bigarren perpausetik ateratzen da.

**b.1.** Adibide batean, XTko erlatiboaren aurrekaria izen bat izan beharrean, aurreko perpaus edo enuntziatu osoa da (*sentential relative*), eta enuntziatu oso hori da STan dagokion erreferentea:

13	Liho-, kotoi- eta artile-haria atzeritik inportatzen hasi behar izan zuten, <b>eta horrek produkzio-kostuak igoarazi eta erresumako ehunen lehiakortasuna larriki murriztu zuen.</b>	Los hilados de lino, algodón y lana tuvieron que importarse de otros lugares, <b>lo que elevó los costos de producción y dañó gravemente la competitividad de los paños fabricados en el reino.</b>
----	--	---

**b.2.** Besteetan, XTko aurrekaria lehen perpausoko izen bat baino ez da:

14	Eskolako lana, funtsean, Engelsen <i>Langile-klasearen egoera Ingaltarran 1844an</i> liburuaren iruzkina edo exegesia zen, <b>eta, hari horretatik abiatuta, kapitalismo industrialak sortutako bidegabekeriak salatzen zituen.</b>	La monografía consistía básicamente en un comentario del libro de Engels <i>La situación de la clase obrera en Inglaterra en 1844</i> , <b>a partir del cual, cómo no, él y sus compañeros trazaron una denuncia de las injusticias causadas por el capitalismo industrial.</b>
15	Bi musu heze eman dizkit	Me planta dos besos pegajosos en las



	masailetan, <b>eta karminez gorrituta utzi dizkit ziurrenik.</b>	mejillas, <b>que casi con seguridad me ha dejado manchadas de carmín.</b>
16	Baina bisitariez gainezka zegoen, <b>eta Ainhizek ez zituen oso gustuko jende-oldeak.</b>	Estaba lleno de gente, algo que le resulta difícil de aguantar a Ainhize, <b>que suele huir de las multitudes.</b>

Adibide hauetan ikusten den bezala, jatorrizko bertsioko juntadurako lehen predikazioa da itzulpenean perpaus nagusia eta, beraz, esaldiko aditz nagusia perpaus erlatiboaren aurretik kokatuta dago.

#### 4.2.10.2.4. Erlatiboa

Azpicorpus honetan, perpaus erlatiboak egiturarik erabilienetan bigarrenak dira, aposizioaren azpitik, kasu guztietatik %22,2an, zehazki.

Erlatibo motei begiraturik, bai -N perpaus erlatibo arruntak, bai ZEIN/NON erlatiboa ere aurkitu ditugu, kopuru eta proportzio berean, bakoitzetik hiru.

##### a. -N erlatiboa

Era honetako erlatiboak 3 adibidetan aurkitu ditugu (%11,1).

**a.1.** Hiru binomioetatik bitan, perpaus erlatiboaren ardatza izen propioa da, eta azpimarragarria iruditzen zaigu bi adibideetan izen propioa ez dagoela absolutiboan:

17	<b>Bere ondoan esertzen den</b> Elenaren zeregina izaten da hori.	Eso suele hacerlo Elena, <b>que se sienta en la mesa contigua.</b>
18	Baina tigreak, auskalo zergatik, <b>bere parean lan egiten duen</b> Mariari egokitzen zaizkio beti.	Pero los tigres, no sabe por qué razón, siempre se los adjudican a María, <b>que trabaja frente a ella.</b>

**a.2.** Eta beste batean, izen arrunt bat da perpaus erlatiboaren ardatza:

19	Nire inguruan, aldizkari zaharrez eta TelePizzako kartoiez jositako moketa, zedenak jotako besaulkia, eta <b>duela hilabete pare</b> funtzionatzeari utzi zion telebista.	A mi alrededor, una moqueta tapizada de revistas viejas y cartones de Telepizza, un sillón carcomido y la televisión, <b>que dejó de funcionar hace un par de meses.</b>
----	---	--

**b. ZEIN/NON erlatiboa**

Erlatibo mota hau beste 3 binomiotan aurkitu dugu (%11,1):

20	Hara non agertu zen gonbidatzea ahaztu omen zitzaien maitagarri zaharra, <b>zeinak, haserre, umeari dohainaren orde z madarikazio bat eskaini baitzion.</b>	En el transcurso de la ceremonia hizo su aparición la anciana hada a la que se habían olvidado de invitar, <b>la cual, enfurecida, en lugar de otorgarle una gracia le lanzó una terrible maldición.</b>
21	Baina ikasleetako bat harrapatu ahal izan dinat, aipatu hidan Pili hori, <b>zeinaren deitura osoa Pilar Lopez Beltzuntze baita.</b>	Siguiendo tus indicaciones, encontré a la tal Pili, <b>cuyo nombre completo es Pilar López Beltzuntze.</b>
22	Haren amorantea ( <b>zeina "Richard" izendatzen hasi behar izan bainuen, ordura arte erabiltzen nuen "putakume hori" hitzen orde z</b> ) haiekin bizitzea joatea.	Que se fuera a vivir con ellos su amante (al que tuve que empezar a denominar "Richard", en lugar del "ese hijo de puta" que tan bien me había venido hasta la fecha).

**4.2.10.2.5. Kausa perpausak**

Azpicorpus honetan, 5 adibide aurkitu ditugu (%18,5), menderagailu desberdinekin:

23	Ursulak nahiago zuen Krako-viako mutila, <b>sinpatikoagoa zelako, eta gazteagoa.</b>	A Ursula siempre le había caído más simpático el chico de Cracovia, <b>que era mucho más alegre, y más joven.</b>
24	Eta ni, <b>berrizalea ez baina gizon zibilizatua naizenez gero</b> , txintik atera gabe onartu nituen Aintzane aurkeztutako akordioaren baldintzak.	Y yo, <b>que quizá no sea muy partidario de las innovaciones, pero soy un hombre civilizado</b> , acepté sin rechistar todas las condiciones del acuerdo que me presentó Aintzane.
25	Ni, ordea, <b>zibilizatua bai, baina horren masokista ez naizenez</b> , handik lehenbailehen ospa egitea nuen helburu.	Yo, <b>que soy civilizado pero no tan imbécil</b> , quería salir cuanto antes de allí.
26	Kontu handiz aukeratu nituen nobioak, <b>ez baitziren askorik izan.</b>	Elegí con sumo cuidado los chicos con los que salía, <b>que, por cierto, tampoco fueron tantos.</b>
27	Ez nintzen ama aurkitzen saiatu, <b>aspaldi hautsi baikenuen edozein harreman.</b>	No hice nada por buscar a mi madre, <b>con la que habíamos roto relaciones años atrás.</b>

#### 4.2.10.3. Gehiketa

Gorago esan bezala, azpicorpus honetan ere topatu dugu gehiketa kasurik, alegia, gaztelaniazko XTn perpaus erlatibo esplikatibo batzuk euskarazko STan inolako baliokiderik ez dutenak. Hau da, jatorrizkoan ez dagoen testu zati bat gehitu da itzulpenaren testuan; gehiketa txikiak dira denak, perpaus erlatiboa soilik erantsi delako.

28	Baina jabeak ez zekien ezer.	Lo cierto es que el dueño, <b>con quien habló</b> , no sabía nada.
29	Januta bere alaba etorri zaio eguerdi aldera, ustekabea, eta luze aritu dira hizketan, bazkaldu bitartean eta baita bazkalostean ere, Januta agertzen den bakoitzean bezala.	A eso del mediodía, sin avisar, ha llegado a casa Januta, su hija, y se han puesto a hablar largo y tendido durante la comida, <b>que se ha alargado mucho</b> , y también después, como suele suceder cuando recibe una visita de Januta.
30	Gero gurean elkartzen gara Pili eta biok, haiek tailerra izan eta biharamunean, eta egin dutenaz hitz egiten dugu; batez ere irakasleak eman dizkien azalpenez, eta gu bion iritzi pertsonalez.	Al día siguiente de celebrarse el taller nos juntamos en casa las dos, y hablamos de lo que han hecho, sobre todo de las explicaciones que les ha dado la profesora, <b>que es listísima</b> , y de las impresiones que nos ha producido el libro a nosotras.
31	Aintzanek, jakina, lasai hartzeko esan zidan.	Aintzane, <b>que es también muy civilizada</b> , me dijo que me lo tomara con calma.

#### 4.2.10.4. Ondorioak

Azpicorpus honen azterketatik atera ditugun ondorioak azaltzeari ekin baino lehen, berriro esan behar dugu XT honetan bildu ditugun 31 binomioetatik, 27k baino ez digutela uzten egiazko itzulpen-baliokidetasunik aurkitzen, gehiketa adibideak baliogabeak baitzaizkigu helburu horri begira; hortaz, ondoren adierazitako ehunekoak estatistikarako baliagarriak zaizkigun 27 binomio horien arabera ateratakoak dira. Argitasun hori esanda, azpicorpus honetatik ateratako adibideak aztertuta, honako ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

#### 4.2.10.4.1. Ondorio orokorrak

1. Azpicorpus lortu ditugun 31 binomioetatik 4tan (%12,9), XTko perpaus erlatiboek ez dute inolako baliokiderik STan; alegia, itzulpenean erantsitako zatiak dira, jatorrizkoan ez dauden gehiketak. Esan daiteke datu honek apur bat hurbiltzen dutela gaztelaniazko bertsioa euskal idazleen autoitzulpenen ezaugarri edo itzulpen-estrategietara.

2. Bi testuetan topatu dugun erlatibakuntza-sistemari begiratzen badiogu, desberdintasun handi samarra dago STtik XTra: STan azpicorpus honetatik atera ditugun 27 binomio baliagarrietatik 6tan (%22,2) bakarrik topatu dugu erlatiboazko formaren baten erabilera, -N erlatiboa eta ZEIN/NON erlatiboa aintzat hartuz; erlatiboazko aposizioaren sailean sartu ditugun bi adibideak ere kontatuz gero, ordea, %48,1era iritsiko litzateke, binomio guztietatik erdia baino gutxiagora.

3. Horren arabera, azpicorpus honetako XTaren parafrasi-adierazlea %51,9koa da.

4. Azpicorpus honetako testuaren egileak aztertu ditugun beste autore batzuek baino estilo parataktiko handiagoa duela dirudi, zeren eta menderakuntza mota desberdinak adibideen %40,7an besterik ez baitugu aurkitu euskarazko testuan.

5. XTaren parafrasi-adierazleak batez ere, eta, neurri txikiagoan, PEEen 100 orrialdeko proportzioak, XTa gaztelaniaren halako kanon sintaktiko-estilistiko konplexuago batera egokitzeko joera dagoela adierazten du gure ustez; edo, beste era batera esanda, Touryren "*target-oriented translation*" edo XKra egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen du azpicorpus honetako itzulpena.

#### 4.2.10.4.2. Itzulpen-baliokidetasunei buruzko ondorioak

Euskarazko STaren eta gaztelaniazko XTaren artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunei begira, honakoak dira atera ditugun ondorio kuantitatiboak:

1. Aposizioa da STan aurkitzen dugun prozedurarik erabiliena, baina azpicorpus honetan euskarazko bertsioan aurkitu ditugun egitura sintaktikoak berdin samar banatuta daude, ez dago alde handiz nagusitzen den egiturarik:

<b>Aposizioa</b>	7 binomio	%26
<b>Erlatiboa</b>	6 binomio	%22,2
<b>Perpaus Juntadura</b>	5 binomio	%18,5
<b>Kausa perpausak</b>	5 binomio	%18,5
<b>Segmentu suborazionalak</b>	4 binomio	%14,8

2. Azpicorpus honetako aposizio guzti-guztiak erlatibozko aposizioak dira eta -N perpausa + mugatzailea da guztien egitura.

- a. Aposizioan doazen bi segmentuak kasu absolutuan daude adibide guztietan. Idazle honek, beraz, joera du kasu absolutua baino ez erabiltzeko aposizioetan.
- b. Aposizioan doazen bi segmentuen artean, kasu komunztadura egiten da beti.

3. Perpaus juntadurari dagokionez, emendiozko juntadura gehiago erabilia dago alborakuntza baino:

<b>Emendiozko juntadura</b>	4 binomio	%14,8
<b>Alborakuntza</b>	Binomio 1	%3,7

4. Perpaus erlatiboen erabilerari dagokionez, maila berean erabilia aurkitu ditugu -N erlatiboa eta ZEIN/NON erlatiboa:

<b>-N erlatiboa</b>	3 binomio	%11,1
<b>ZEIN/NON erlatiboa</b>	3	%11,1

	binomio	
--	---------	--


5. Erreferentziakide edo ardatz gisa izen propio bat duten 3 binomio bakarrik aurkitu ditugu azpicorpus honetan<sup>139</sup> (XTan izen propio hori izanik PEEaren aurrekaria). Ez dira nahiko, ebatzi ahal izateko ea idazle honek ere joera ba ote duen prozedura desberdinak erabiltzeko izen propioari itsasten zaion kasu-markaren arabera. Hala ere, kontuan izanik aposizioetan kasu absolutiboan dauden izenak baino ez dituela erabiltzen, bai iradoki daiteke -N erlatibo arruntaren kasuan baduela halako joerarik prozedura hori erabiltzeko izen propioak bestelako kasu-marka bat daramanean, 17 eta 18. binomioetan gertatzen den bezala. Beste binomio batean (21), izen propioa absolutiboan dago, baina ZEIN erlatibo bat du binomio horrek STko bigarren segmentuan, beharbada genitiboaren atzizkia eramateagatik.

#### 4.2.10.4.3. Grafika sinoptikoa.

Ondoko irudian ikus ditzakegu modu grafikoagoan azpicorpus honetako XTko erlatibo esplikatihoi STan dagozkien jatorrizko baliabide sintaktikoak eta haien erabilera maila:

<sup>139</sup> Beste bat ere badago, 16. binomioan, baina puntu honi dagokionez ez digu balio, berez STan ez daudelako bi segmentu desberdin, XTko perpaus nagusiari eta klausula erlatiboari dagozkionak.

### STn erabilitako baliabide sintaktikoak



10. grafika: C<sub>10</sub> azpicorpusean erabilitako baliabideak.

### 4.3. Corpuseko azterketaren emaitzen analisia

Guztira, aurreko 10 azpicorpus horietatik 472 binomio atera ditugu, corpuseko gaztelaniazko 10 bertsioen artean beste horrenbeste PEE topatu ditugu eta. Binomio horiek guztiek ematen digute informazioa STari eta XTari buruz eta itzulpen prozesuari eta estrategiei buruz, besteak beste, baina, berez, haietatik 441ek bakarrik balio dute benetan bi bertsioen arteko baliokidetasun testualak ezartzeko; izan ere, gainontzeko 31 binomioak ez zaizkigu baliagarri gertatu baliokidetasun bila binomio erabilgarriak osatzeko, jatorrizkoetan ez zeuden gehiketak –edo PEEak barruan zituzten testu zatiak– baitziren PEE horiek, eta, ondorioz, ezin baitziren parekatu euskarazko beste baliabide batzuekiko. Horiek kenduta, beste guztietan, euskarazko testu bat eta bere itzulpena den gaztelaniazko beste testu bat topatuko ditugu; beraz, metodologia horren ondorioz, binomio horietako guzti-guztietan PEE bana dago gaztelaniazko zatian; euskarazko jatorrizkoetan, aldiz, hainbat baliabide sintaktiko desberdin erabiltzen direla ikusi ahal izan dugu.

Metodologia horren barruan, azpicorpus bakoitza bere aldetik aztertu dugu, ezaugarri desberdinak dituzten multzo koherenteak osatzen dituztelako, eta bakoitzari buruzko ondorio batzuk atera ditugu, bakoitzari dagokion atalean; orain, azpicorpus guztien arteko azterketa konparatuari ekingo diogu, ondorio bateratuak ateratzeko asmoz.

Hasteko, 10 azpicorpusetatik ateratako 472 binomioak –eta, beraz, 10 XTetako PEEak– haietako bakoitzean oso tamaina desberdinean banatuta daudela ikusiko dugu:

		Zenbat PEE
--	--	------------



<b>Corpus a</b>	<b>Zenbat PEE</b>	<b>100 orrialdeko</b>
C <sub>1</sub>	40	17
C <sub>2</sub>	88	21
C <sub>3</sub>	4	2,2
C <sub>4</sub>	97	38
C <sub>5</sub>	41	26
C <sub>6</sub>	14	9
C <sub>7</sub>	126	34
C <sub>8</sub>	28	11
C <sub>9</sub>	3	2,2
C <sub>10</sub>	31	17
<b>Guztira</b>	472	17,7

**7. taula: XT bakoitzeko PEE kopurua.**

Taula honetan ikusten denez, badira gutxienez bi azpicorpus (C<sub>3</sub> eta C<sub>9</sub>) XTan ia PEERik ez dutenak, eta bai eta beste hiru ere (C<sub>2</sub>, C<sub>4</sub> eta C<sub>7</sub>) goitik nabarmentzen direnak, 88 edo gehiagorekin. Azpicorpus guztiak batera hartuta, erlatibakuntza mota honen erabilera maila neurtzeko balio indiziariora besterik ez duen modu bat erabili dugu: azpicorpus bakoitzean 100 orrialdeko zenbat PEE dauden kontatzea; metodo honek balio indiziariora besterik ezin du izan, esan dugun bezala, liburuetakoko orrialdeak ez direlako noski berdinak edo estandarreak, eta bistan da horrek balio zehatzik ezin digula eman; baina erabilera maila horri buruzko zantzu garbi samarra bai ematen duelakoan gaude. Metodo hori ontzat hartzen badugu, grafikako azken lerroan ikusten da corpus osoari dagokion batez besteko kopurua: 18 PEE inguru, 100 orrialdeko.

Badirudi hizkuntza guztietan gutxiago erabiltzen direla perpaus erlatibo esplikatiiboak espezifikatibo edo murrizgarriak baino, eta PEEen erabilera estilo landuaren ezaugarri dela, gero eta gehiago gainera; gaztelanian bertan, Atienza Cerezo eta López Ferrerok (1997) eta beste batzuek azaldu duten bezala, dirudienez Unibertsitateko ikasleen idatzizko erregistroan ere joera dago PEEak erlatibo murrizgarriekin nahasteko puntuazioari dagokionez<sup>140</sup> eta erlatibo ez-murrizgarriak gutxiago erabiltzeko, ahozko erregistroetan bezala. Hala ere, era honetako klausula erlatiboak beste hizkuntza batzuetan baino erabiliagoak izaten dira gaztelaniaz eta beste hizkuntza erromanikoetan erregistro formaletan; adibidez, Fernández Sánchezen tesian, alemanezko eta

<sup>140</sup> Tesi honetako azpicorpus batzuetan ere ikusi dugun bezala, bestalde.

gaztelaniazko testu-corpus bati buruzko ikerketa kontrastibo batean honela dio:

Confirmando la hipótesis número 67, la frecuencia absoluta de frases de relativo y sintagmas participiales explicativos es más elevada en el subcorpus español que en el alemán, a causa, como allí se apuntaba, de la menor complejidad sintáctica de ambas estructuras en nuestra lengua, como sucedía con las frases y sintagmas especificativos. A diferencia de estos, sin embargo, la frecuencia absoluta de frases de relativo explicativas del subcorpus español (88,02%) casi duplica a la del alemán (47,12%) (en el caso de las especificativas la cuadruplicaba), mientras que la de sus sintagmas (93,04% frente a 24,20%) casi lo cuadruplica (en lugar de triplicarla), lo que pone de relieve el mayor recurso comparativo del subcorpus español a la explicitación mediante frases de relativo y sintagmas participiales (2004: 640).

Jakina, gure corpuseko gaztelaniazko itzulpenetan topatu dugun PEE kopurua antzeko testuinguruetan hizkuntza horretan batez beste ohikoa denarekin alderatzeko orduan, berariazko corpus batean oinarritu beharko genuke esateko gure corpuseko PEE kopuru hori txikia dela, baina corpus hori ez dugu sartu tesi honen mugen barruan, eta, gehienez ere, beste apar-teko ikerketa bat eskatuko luke; alabaina, berriro ere balio indiziariorarekin ekar dezakegu datu argigarri bat, alemanetik gaztelaniara itzultako eleberri batetik<sup>141</sup> ateratakoa. Eleberri honen gaztelaniazko bertsioak dituen 416 orrialdeetan, guztira, 331 PEE zenbatu ditugu, eta horrek, 100 orrialdeko, 79,5eko kopurua ematen du; oso urruti (ia bi aldiz handiagoa), beraz, gure corpusean 100 orrialdeko kopururik handienetik ere.

Gauzak honela, gure azterketatik ateratako datu hauetan oinarrituta, badirudi euskaratik gaztelaniara egindako itzulpenen ezaugarri sintaktiko-estilistikoetako bat dela PEE kopuru txikia egotea XTan, era horretako klausulak literatura-euskara garaikidean ere oso gutxi erabiltzearen ondorioz eta, beraz, gaur egungo euskal idazleek beste era bateko joskera nahiago izatearen ondorioz. Geroago itzuliko gara puntu honetara, zeren orain gure azterketan topatu dugun beste fenomeno batera joan nahi baitugu: STan ez dauden PEEen gehiketara.

### **4.3.1. Itzulpenaren tipologia, gehiketak eta parafraasi-adierazleak**

#### **4.3.1.1. Itzulpenaren tipologia eta gehiketak**

<sup>141</sup> David Savier, *28 días*, Seix Barral, 2014.

Azpicorpus bakoitzari buruz egin dugun banakako azterketaren hasieran aipatu dugu zein itzulpen-tipologiaren barruan sailka daitekeen haietako bakoitza argitalpenetan bertan ematen den informazioaren eta, hala dagozkion kasuetan, itzulpen-prozesuari buruz idazle edo itzultzaileek emandako informazioen arabera. Tipologia hori zehaztuta, interesgarria izan daiteke ikustea nola erlazionatzen diren tipologia desberdin horiek gure azterketan antzeman ditugun zenbait fenomenorekin, bereziki PEEen gehiketarekin eta itzulpen bakoitzeko parafrasi-adierazlearekin.

Lehendabiziko fenomenoari dagokionez, lehenago esan dugu 10 azpicorpusetako PEEekin osatu ditugun binomio guztietatik 31tan ez dagoela inolako testurik euskarazko zatian, XTan sartutako gehiketa narratiboak direlako. Eta fenomeno hori aztertzeari ekingo diogu orain, esanguratsua izan daitekeelako ikustea zein itzulpen-tipologiatan aurkitzen ditugun era honetako gehiketak.

Hasteko, esan behar dugu 10 azpicorpusetatik 6tan bakarrik aurkitu ditugula XTan gehitutako zatiak. Guztira, gehiketa horiek binomio guztietatik %6,5eraino iristen dira, baina proportzio hori ez dago berdin banatuta azpicorpusen artean, eta haietakoren batean proportzioa handi samarra iruditzen zaigu, 8. taulak erakusten duen bezala:

<b>Corpus a</b>	<b>Tipologia</b>	<b>Gehiketak</b>	<b>%</b>
C <sub>1</sub>	Elkarlanean eginiko itzulpena	6	%15
C <sub>2</sub>	Itzulpen alografoa	7	%7,9
C <sub>3</sub>	Autoitzulpena	4	%100
C <sub>4</sub>	Itzulpen alografoa	0	%0
C <sub>5</sub>	Itzulpen alografoa	0	%0
C <sub>6</sub>	Autoitzulpena	0	%0
C <sub>7</sub>	Itzulpen alografoa	8	%6,4
C <sub>8</sub>	Itzulpen alografoa	2	%7,2
C <sub>9</sub>	Elkarlanean eginiko itzulpena	0	%0
C <sub>10</sub>	Autoitzulpena	4	%12,9

**8. taula: XT bakoitzeko PEE gehiketak.**

Ikusten den bezala, egia da gehiketa mailarik handiena autoitzulpenetan sartzen direla –elkarlanean eginiko itzulpenak izanik autoitzulpenaren aldaera

bat-. Hain zuzen ere, gehiketak direla-eta, Cid-ek (2015), Ibarluzek (2015) eta López Gasenik (2005) ikertu dituzte euskal idazleek euren lanen itzulpenaren aurrean erakusten dituzten joerak, eta, zehazkiago, autoitzulpenaren fenomenoak, baina azkenengoak bakarrik aipatzen du, Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) alorrera mugatuz, "azalpenezko gehikuntzaren erabilera" euskal idazleen autoitzulpen-estrategien barruan. Autore horren azterketako ondorioetan esaten denaren arabera, gehiketa horiek ohiko joera omen dira HGLko euskarazko liburuen gaztelaniazko itzulpenetan, eta haien definizio moduko zerbait ere ematen du: «*gaztelaniazko bertsioetan periodo sintaktiko luzeagoak [erabiltzea] euskarazkoan baino*» (L. Gaseni, 2005: 85). Haren esanean, estrategia horren bidez xede-testua hobetzea bilatzen da, «*xede-sistemako maila estilistikoari*» eustearren (Íbid., 59). López Gasenik ez du berariaz aipatzen, baina ematen dituen gehiketa-adibideen artean nabarmena da PEEen gehiketa, hemen ikergai duguna hain zuzen.

XHko maila estilistikora egokitu nahi horretan, badirudi autoitzulpena nahiago duten idazleek halako desoreka edo asimetria sintaktiko-estilistikoa somatzen dutela euren bi literatura-hizkuntzen artean –haiek ere elebidunak baitira gizarte elebidun batean–, eta gaztelaniazko literaturaren kanon sintaktikoki konplexuagora eta haren maila erretoriko jasoagora moldatzearen –itzulpenen onargarritasunaren aldera makurtuz–, beren sorlanetan ez dauden osagai narratiboak sartzen dituztela, bai eta konplexutasun sintaktiko handiagoa ere.

Cid-ek ere sakontzen du ildo horretan, esandako artikuluan datu objektibo bezala ondokoa aipatzen duelarik: «*Por lo general, los textos literarios en español presentan una mayor complejidad que en vascuence*», euskarak arrazoi politiko eta historikoengatik bai bere estatus soziala baina baita bere corpus linguistikoa ere normalizatu gabe eduki izanaren ondorioz; eta, gero, datu objektibo horretatik joera hori azaltzeko euskal literatura-sistemako pertzepzio subjektibora egiten du jauzi: «*por ello, una traducción literal de este a aquel podría tener una recepción poco favorable*» (Cid, 2005: 189), gaztelaniazko literatura-sisteman, uler bedi.

Aipagarria iruditzen zaigu, bide batez, arrazoi objektibo eta subjektibo berberetan oinarrituta, López Gasenik (2000: 292) simetrikoki kontrakoa den estrategia deskribatu zuela gaztelaniatik euskarara eginiko HGLko itzulpenetan, zeinetan «*testuetako konplexutasun sintaktiko eta semantikoak samurtzeko joera*» eta, horren barruan, PEak sinplifikatzeko edo, zuzenean, ezabatzeko<sup>142</sup> joera antzeman baitzuen; edo, beste era batera esanda, euskarak omen duen konplexutasun sintaktiko gutxiagoko kanonera egokitu, eta, errealistagoak izanik beharbada, HGLko euskal irakurleei suposatzen zaien hizkuntza-gaitasun txikiagora moldatzeko joera.

Bada, gure azterketan ere antzeman dugu gehiketak sartzeko joera hori, baita erlatibakuntzaren alderdi berezi batera mugatu garelarik ere: hainbat adibidetan topatu dugu jatorrizkoan ez dauden PEEak osorik edo testu-zati luzeagoen barruan sartu direla landu ditugun azpicorpus gehienetako XTetan. Baina, 8. taulak autoitzulpenetik haruntzago darama López Gaseniren baieztapena: bertan argi ikusten da bereizi ditugun hiru itzulpen-tipologietan aurkitzen direla gehiketak, ez bakarrik autoitzulpenetan; bai eta, halaber, badela gehiketarik bat ere egiten ez duen autoitzulpenik edo elkarlanean eginiko itzulpenik ere.

Bestalde, esango genuke gehiketen portzentajeak balio indiziariora bakarrik duela halako itzulpen baten tipologia zehazterakoan, gerta baitaiteke C<sub>3</sub>-n agertu zaigun egoera: bertan, oso PEE gutxi aurkitu ditugu eta guzti-guztiak STan ez dauden gehiketak dira; erlatiboen gehiketen portzentajea, beraz, %100 da. Eta, izan ere, gaztelaniazko bertsioa idazleak berak egindako autoitzulpena da; baina, azpicorpus horren banakako azterketan adierazi dugun bezala, kontraesan bat agertzen zaigu hemen: gehiketen portzentaje handi hori bat dator autoitzulpenak egiten dituzten euskal idazleen kasuan ikusten diren berridazketa-estrategiekin; baina, bestetik, XTko PEEak hain gutxi izateak jatorrizkoaren sintaxia eta estiloa errespetatu egin direla pentsarazi behar digu, geroago ikusiko dugun bezala.

Agerian dago, beraz, era honetako gehiketak ezin direla hartu soilik autoitzulpenen ezaugarritzat, eta joera orokorrago baten barruan sartzen

<sup>142</sup> Aip. lib., 272-3. orria.

direla, tesi honetan deskribatzen ari garen ST eta XTaren arteko beste desberdintasun sintaktiko-estilistiko batzuekin gertatzen den bezala.

Joera orokorra diogu, baina 8. taulak begien aurrean jartzen digu, halaber, itzultzaile edo autoitzultzaile bakoitzaren estilo edo hautu pertsonalari erantzuten diola gehiketaren estrategia horrek; hala, bi itzulpen alografotan (C<sub>4</sub> eta C<sub>5</sub>), autoitzulpen batean (C<sub>6</sub>) eta elkarlanean eginiko itzulpen batean (C<sub>9</sub>), ez da gehitu PEEren bat duen inolako segmentu narratiborik STan baliokiderik izan gabe. Alderdi horretatik begiratuta, azpicorpus horietako XTak hurbilago daude STen estilotik eta sintaxitik, gainontzeko azpicorpusak euren jatorrizkoetatik baino.

Bestalde, gehiketak egiten dituzten azpicorpusen kasuan, bi estrategia desberdin antzeman ditugu:

- Batetik, gehiketa oso laburrak, STetan ez dauden PEEetara mugatuak. Gehiketa hauek itzulpenaren errebisioan idazleak beharbada narrazioari zehaztasun handiagoa ematearren sartutako ukituak dirudite. Hauen erabilera orokorra da: gehiketak sartzen dituzten sei azpicorpusetan daude.

- Bestetik, C<sub>1</sub> azpicorpusa besteetatik bereizten duten gehiketa handiagoak. Hemen, paragrafo oso bat edo paragrafo-zati luzetxo bat topatu dugu XTan, STan ez dagoena eta bere barruan PEE bat duena. Atxagaren liburuaren itzulpenaren kasua da, eta, horri dagokionez behintzat, arrazoa ematen dio Cid-i ondoko baieztapen honetan: «*Asun Garikano y Bernardo Atxaga se permiten un mayor número de licencias que hacen del texto en español más una versión (consecuencia de un proceso de reescritura) que una traducción*» (2015: 186).

#### 4.3.1.2. Azpicorpusetako parafrasi-adierazleak


Xede-testuetako PEE kopuruaz eta gehiketez gain, bada beste fenomeno edo faktore bat gure azterketan hartu nahi duguna kontuan, itzulpenen tipologiaren aurrez aurre jartzeko: itzulpenetako parafrasi-adierazlea.

Azpicorpus bakoitzari buruzko azterketa egin dugun atalean ikusi dugu STetako zein baliabide ematen ziren XTan PEE bidez itzuliak, eta horietatik zein proportzio zegokien topatu ditugun erlatiboak egitura sintaktiko desberdinei<sup>143</sup>, eta zein bestelako egiturei. Baliokidetasun sintaktikoen arazoan sartu gabe, hainbat joskera ez-erlatibo desberdin topatu ditugu jatorrizko testuetan, eta honako sail hauetara bildu ditugu:

- Egitura parataktikoak: segmentu suborazionalak, aposizio ez-erlatiboak eta perpausen juntadura.
- Egitura hipotaktiko ez-erlatiboak: erlatiboak ez diren gainontzeko mendeko perpaus mota guztiak.
- Bestelakoak: perpaus predikatibo bakunak, bestelako baliabide tipografikoak.

Itzulpen-baliokidetasun testual hauek, jakina, ez datoz bat bi hizkuntzen prozedura desberdinen artean ezar daitezkeen baliokidetasun sintaktikoekin, bistan baita itzulpenak egiterakoan, kasu gehientsuenetan behintzat, arazorik ez dagoela euskarazko STetan topatu ditugun egitura parataktiko, hipotaktiko eta gainerako egituren baliokidetasun sintaktiko zehatzak emateko itzulpenean, eta, ikusi dugunez, itzulpen horietan hartutako hautu sintaktiko eta estilistikoek beste parametro batzuei erantzuten diete. Egia da binomio asko eta askotan parafrasi erlatiboak topatu ditugula XTetan, itzulpen ez literalak alegia, berauek sintaktikoki posible izan arren. Eta azpicorpus bakoitzari buruzko azterketak eman dizkigun datuetan oinarrituta, XTetako parafrasi-adierazle bana atera dugu, baliagarria izan daitekeena itzulpen-tipologia bakoitza ezaugarritzeko. Horretarako, azpicorpus bakoitzeko STetan erabiltzen diren prozedura edo egitura ez-erlatiboen ehunekoa neurtu dugu, eta emaitza 11. grafika honetan ikus daiteke:

<sup>143</sup> Bere lekuan azaldu ditugun arrazoiengatik, erlatiboak aposizioak azpicorpus bakoitzaren azterketan ez ditugu sartu egitura erlatiboen artean; baina itzulpenetako parafrasi-adierazlea kalkulatzekoan, ordea, iruditzen zaigu aposizioetako izen sintagmek barruan daramaten egitura erlatiboa bai har daitekeela kontuan halakotzat, erlatibotzat alegia; horregatik, egitura hauek ez ditugu sartu egitura parataktikoen barruan, eta haiei dagozkien binomioetako itzulpenak ez ditugu hemen itzulpen parafrastikotzat jo. Nolanahi ere, STan erlatiboak aposizioak dituzten binomioetako itzulpenak ere parafrastikotzat joko bagenitu, orduan XTen parafrasi-adierazleak are handiagoak izango lirarteke.



11. grafika: XT bakoitzeko parafraasi-adierazlea.

Binomioko bi aldeetan erlatiboazko egiturak dauzkaten adibideetan baliokidetasun sintaktikoa dagoela esaten badugu, orduan, datu hauen argitan ikus daitekeenez, baliokidetasun sintaktikoaren mailarik handiena %61 ingurura baino ez da iristen, C<sub>2</sub> azpicorpusean zehazki; eta beste azpicorpus bakar batean (C<sub>6</sub>) da %50 baino handiagoa. Kontrako aldetik, beste bi azpicorpusetako datuek desbiderapen atipiko samarra erakusten dute, %0ko baliokidetasun sintaktikoarekin edo %100eko parafraasi-adierazlearekin, eta hori azpicorpus horiekin osatu ahal izan dugun binomio kopuru oso txikiari zor zaio; paradoxikoki, bi azpicorpus horietatik hain adibide gutxi atera izanak zerbait islatzen badu, hain zuzen ere, da eleberri horien itzulpenean ez dela erabili jatorrizkoan ez dagoen halako sintaxi bat eta, beraz, XTek gehiago islatzen dituztela STetako ezaugarri estilistikoak. Eta, ustezko paradoxarekin jarraituz, azpicorpus horien tipologiari begiratzen badiogu, ikusten duguna da haietako bat autoitzulpena dela eta bestea elkarlanean egindako itzulpena.

Muturreko azken kasu pare hori albo batera utzirik, datuek argi frogatzen dute gure corpuseko itzulpenetan parafraasi erlatiboak erabiltzeko joera nahiko orokorra dela (%57,8koa, batez beste, C<sub>3</sub> eta C<sub>9</sub> azpicorpusak kenduta), eta, hala, eleberri gehienek itzulpenek partekatzen duten ezaugarri komun baten aurrean gaudela esan genezake. Joera hori, gainera, hiru itzulpen-tipologietan



aurkitu dugu, bai autoitzulpenetan, bai elkarlanean egindako itzulpenetan eta baita itzulpen alografoetan ere; are gehiago, parafrasi-adierazlerik handiena eman duten bi azpicorpusetako bertsioak itzulpen alografoak dira: C<sub>4</sub> eta C<sub>8</sub>, hain zuzen. Eta parafrasi-adierazlerik txikiena duten bi azpicorpusetatik, bata (C<sub>2</sub>) itzulpen alogrofoa da, baina autoitzulpena bestea (C<sub>6</sub>). Hortaz, beti ez dago korrespondentzia proportzionalik parafrasi erlatiboaren erabileraren eta López Gasenik autoitzulpenei buruzko ikerketan aipatutako XHaren maila erretorikora egokitzeko estrategien artean.

Honek denak, orduan, ondorio esanguratsu batera garamatza: C<sub>2</sub> eta C<sub>9</sub> azpicorpusak alde batera utzita, euskal idazleen autoitzulpena ikertu dutenek ikusitako itzulpen-estrategiak, hots, azalpenezko gehikuntzak sartzea eta XHko maila estilistikoari eusteko –edo, tesi honetarako interesatzen zaigun gaiari helduz, XHko erlatibakuntza-sistemara moldatzeko– egokitzapen sintaktikoak egitea, nahiko joera zabalduak dira euskaratik gaztelaniarako literatura-itzulpengintzan, eta ez dira mugatzen autoitzulpenetara soilik.

Gauzak horrela, euskarazko literatura gaztelaniaz ohikoa den hizkuntza-kanon sintaktikoki konplexuagora itzultzeko orduan, itzultzaile eta autoitzultzaile batzuek behintzat itzulpen parafrastikoak egiteko beharra sentitzen dute: alegia, erlatibakuntza-sistemari gagozkiolarik, STetako joskeratik aldendu eta jatorrizkoan erabiltzen dena baino maiztasun handiagoko erlatibakuntzara makurtzen dira.

Nolabait, frogatuta geratzen da, 3. kapituluan ikusi dugun bezala, euskal literatura garaikideko idazlerik “kanonizatueneke” euskaraz erabiltzen duten hizkuntza-kanona kasu askotan ez datorrela bat beraien gaztelaniazko itzulpenetan islatzen denarekin eta, itzultzaileak itzultzaile, itzulpen-tipologia guztietan aurkitzen direla XHaren bereizgarritzat hartzen den maila erretoriko edo sintaktikoki konplexuagora egokitzeko itzulpen-estrategiak, haien artean, tesi honen gaiari dagokionez, parafrasi erlatiboak.

#### 4.3.1.3. C<sub>0</sub> corpora eta STetako baliabideen analisisa

Gure tesi honetan, euskal idazle aukeratu batzuen lan narratiboen itzulpenetan topa daitezkeen PEEen lekuan STetan zer baliabide erabiltzen diren aztertu nahi dugunez gero, jada esana dugu tesirako erabili dugun katalogotik 10 lan aukeratu ditugula konparaketa-lan hori egiteko, eta 10 azpicorpus horietan oinarritu gara itzulpenen tipologiaren, gehiketa fenomenoaren eta parafrasi-adierazlearen arteko erlazioa aztertzeke.

Aldiz, lehenago ere argitu dugun bezala, aztertu ditugun 10 azpicorpus horietatik bitan ( $C_3$  eta  $C_9$ ), oso binomio gutxi atera zaizkigu eta haietako batean, gainera, atera zaizkigun binomio apurretako XTko PEE guztiak gehiketak ziren, STan baliokiderik ez zuten eransketa narratiboak. Hori dela eta, iruditu zaigu bi azpicorpus horiek ez dutela balio ST eta XTaren arteko baliokidetasun testual erabilgarri nahikoak aurkitu ahal izateko, eta horregatik ez ditugu kontuan izan  $C_0$  corpusa osatzeko, gure azterketaren zati nagusiari begira. Hortaz, hemendik aurrera, gainontzeko 8 azpicorpusak bakarrik erabiliko ditugu, emango ditugun datuak lantzerakoan, eta haietatik ateratako binomioak erabiliko ditugu hemendik aurrera egingo dugun azterketarako corpus bezala.

Horren arabera, 8 azpicorpus horietatik atera ahal izan ditugun 438 binomioak izango dira  $C_0$  corpusa osatuko dutenak, eta, esan bezala, horietan oinarrituko gara corpus horretako euskal idazleek gaztelaniazko itzulpenetan aurkitzen ditugun PEEen lekuan zer baliabide eta zer neurritan erabiltzen dituzten ikusteko, eta, beraz, ST eta XTen arteko itzulpen-baliokidetasunak identifikatzeko.

$C_0$  corpusaren osaera zehaztu ondoren, azpicorpus bakoitzari buruzko banakako analisisian egin dugun bezala, hemen ere bost prozedura sintaktiko nagusi bereiziko ditugu, XTan PEE bezala itzulita STetan aurkitu ditugun baliabide sintaktikoak sailkatzeko: segmentu suborazionalak, perpausen juntadura, aposizioa, erlatiboak eta bestelako mendeko perpausak (laburtzarren, *hipotaxia* deituko duguna).

#### 4.3.1.3.1. Segmentu suborazionalak

Corpuserako geratu zaizkigun 438 binomio erabilgarrietatik 42tan (guztietatik %9,5), perpaus mailara iristen ez diren baliabideak aurkitu ditugu, kasu askotan izenlagun, adizlagun edo osagarri zirkunstantzial funtzioa duten segmentu laburrak. Itzulpenetan, segmentu hauen anplifikazio sintaktikoa egiten da, jatorrizkoan ez dagoen aditz bat erantsirik PEE bat eraikiz; zenbait kasutan, beharrezko transposizio baten ondorioa da aditzaren eransketa hori, eta, haren ondorioz, segmentu suborazional batetik PEE bat ateratzea, C<sub>6</sub>-ko 2. adibidean bezala:

Ispilu aurrean paperezko txanoa ipini dute eta ondoren plastikozko eskularruak, <b>ukondoetaraino-koak.</b>	Frente al espejo, se ajustan los gorros de papel, y después los guantes de plástico, <b>que les llegan hasta los codos.</b>
---	---

Izan ere, gaztelaniazko itzulpen natural batean badirudi nahitaez sartu beharra dagoela aditza (*llegar*) eta erlatibo esplikatiboa. Anplifikazio hori ez dagokio, beraz, itzultzaileen estiloari. Beste kasu askotan, berriz, transposizio hori bada aukerako itzulpen parafrastiko baten ondorioa edo itzultzailearen hautu estilistikoa, C<sub>7</sub> azpicorpuseko 9. adibideak erakusten duen bezala:


Fikziozko heriotza-kondena guzti-etan, tentsio narratiboa lortzeko bide gisa, ordua atzeratzearekin jolastea da legea, <b>indulto posible baten esperantzarekin, alegia.</b>	En todas las ejecuciones reales o imaginarias llevadas a la literatura y al cine, se juega, para intensificar la tensión narrativa, con el retraso de la hora, <b>que alimenta la esperanza de un posible indulto.</b>
--	--

Adibide honetan, STko egiturak ez du inolako arazorik ipintzen XTan zuzeneko itzulpena egiteko prozedura berberak erabiliz, baina itzultzaileak egitura erlatiboa sartzea hobetsi du, horretarako STan ez dagoen aditz bat (*alimentar*) erantsiz eta jatorrizkoan dagoen bukaerako sintagma bikoitzaren bigarren zatiaren funtzio sintaktikoa aldatuz.

Beste kasu batzuetan, gainera, anplifikazio sintaktikoari anplifikazio semantikoa ere gehitzen zaio, STan ez dauden osagai narratibo edo deskriptiboak erantsiz eta jatorrizkoaren estiloa nahikoa aldatuz. Horren adibide garbia da C<sub>4</sub> azpicorpuseko 3. binomioa, nahiko nabarmena izanik STtik XTra dagoen jauzi erretorikoa:

—Nahi duan eran deitu. Entre-tenitu egingo hau sikiera —eta kokotsa jaso zuen <b>makulu-kirtenetik</b> .	—Por lo menos, esas pesquisas te mantendrían entretenido —y levantó la barbilla, <b>que hasta entonces había mantenido apoyada sobre el pomo del bastón</b> .
--	---

Euskarazko jatorrizko testuetako honelako segmentu suborazionalatik gaztelaniazko bertsiotan PEEak ateratzeko itzulpen-estrategia honen erabilera nahiko orokorra da gure corpusean; izan ere, atal honetan egin nahi dugun analisirako geratu zaizkigun 8 azpicorpusetatik, batean ez beste guztietan aurkitu ditugu era honetako adibideak. Hala eta guztiz ere, gainontzeko prozedurekin konparaturik, haien erabilera ez da oro har oso handia (esan bezala, guztira ez da kasu guztien %10era iristen) eta, gainera, oso desberdina da azpicorpus batetik bestera, 12. grafikan ikus daitekeen bezala:



12. grafika: ST bakoitzeko segmentu suborazionalen ehunekoak.


Ikusten denez, C<sub>8</sub> azpicorpusean ez dugu honelako prozedurarik aurkitu, eta C<sub>1</sub> azpicorpuseko erabilera-maila oso txikia da; beste lau azpicorpusetan, prozedura honen agerpen-maila ez da %12ra iristen. Eta mailarik handiena C<sub>10</sub> eta, bereziki, C<sub>6</sub> azpicorpusetan ikusi dugu. Aipagarria iruditzen zaigu segmentu

suborazionalen proportziorik handiena duten bi azpicorpus horiek, tipologikoki, autoitzulpenak direla.

Esandakoaren arabera, eta corpus honetako datuetan oinarrituta, badirudi ondorio gisa esan genezakeela baliokidetasun testual hau nahiko loturik dagoela autoitzulpenaren fenomenoarekin, baina ez dela horretara mugatzen, itzulpen alografoetan ere –batean ez beste guztietan ( $C_2$ ,  $C_4$ ,  $C_5$ ,  $C_7$ )– %10aren bueltako portzentajea agertu baitzaigu; itzulpen alografo bakarrean ( $C_8$ ) ez dugu aurkitu honelako baliokidetasunik. Eta, azkenik,  $C_0$  corpuserako geratu zaigun elkarlanean eginiko itzulpen bakarrean ( $C_1$ ), agerpen-portzentajea oso txikia da, nahiz eta azpicorpus horretako parafrasi-adierazlea corpus osoko handienetarikoa izan (%64,7).

#### 4.3.1.3.2. Aposizioa

Binomio erabilgarri guztietatik 68tan (guztietatik %15,5), izen bati aposatutako izen sintagma batetik ateratzen dira XTko erlatibo esplikatiiboak. Agerpen-maila handiko baliokidetasuna da gure corpusean, baina, alde handiak eta muturreko kasuak aurkitu ditugu azpicorpusen artean: hala, haietako batean ( $C_{10}$ ), aposizioa da PEE bezala itzulita topatu dugun baliabiderik erabiliena, baina beste batean ( $C_6$ ) ez dago era honetako baliokidetasunik bat ere. Ondoko grafikan ikus dezakegu egitura honen banaketa:



**13. grafika: ST bakoitzeko aposizioaren ehunekoa.**

Egitura honen banaketa itzulpenen tipologiarekin alderatuz gero, ezin da esan baliokidetasun hau halako tipologia jakin batekin lot daitekeenik bereziki, hiruretan agertzen baita. Eta gainera, tipologia bakoitzaren barruan alde handiak ere badaude. Adibidez, aposizioaren proportziorik handiena elkarlanean eginiko itzulpenari dagokio (C<sub>1</sub>), eta nahiko maila hurbila ikusten da C<sub>10</sub>-eko autoitzulpenean, non, esan bezala, egitura sintaktikorik erabiliena ere baden. Baina autoitzulpena den beste azpicorpusean (C<sub>6</sub>), aitzitik, hutsaren pareko erabilera du. Bestetik, C<sub>4</sub> itzulpen alografoak oso erabilera-proportzio txikia eman digu, baina C<sub>2</sub>, C<sub>5</sub> eta C<sub>7</sub> itzulpen alografoek, berriz, %17-20 tarteko erabilera erakusten dute.

Batez beste, euskarazko testuetako aposizioak PEE bezala itzultzeko joera nahiko indartsua da, bi prozedurek esaldiaren barruan duten kokapenagatik, formagatik eta funtzioagatik antz handia dutelako. Argi utzi nahi dugu sail honetan sartu ditugun egiturak ez direla EGLU-V delakoan<sup>144</sup> "alboko aposizio arruntak" edo "aposizioko perpaus erlatiboak" izendatzen direnak, edo, zehazkiago esanda, ez direla horiek soilik, gure corpusean topatu ditugun tipologiak askoz gehiago dira eta; izan ere, honako hauek dira gaztelaniazko

<sup>144</sup> Aip. lib., 213-214. orr.

bertsioetan PEE gisa itzulita euskarazko STetan topatu ditugun aposizio mota desberdinak:

### a. Erlatibozko aposizioak

Hauek dira EGLUk aipatzen dituen “alboko aposizio arrunt” edo “aposizioko perpaus erlatiboak”, euskal idazleen artean erabilera handikoak, Gramatika horren arabera. Tesiko 2. kapituluan, euskal erlatiboari buruz gure gramatiketan egiten den deskribapenaz aritu garen 2.2. atalean, aztertu dugu baliabide sintaktiko hau, eta, horregatik, ez gara hemen berriro gai honetaz luzatuko. Hala ere, bai esango dugu ezen, aposizio mota honetan, halako IS bati beste IS bat aposatzen zaiola, barruan perpaus erlatibo bat duena, PE horretako aditza jokatua nahiz jokatugabea izan daitekeelarik, gure corpuseko adibideetan ikusi ahal izan dugun bezala. Horregatik erabiltzen dugu “erlatibozko aposizioak” izendapena.

Bada, gure corpusean erlatibozko aposizio hauek dituzten binomioak aztertzen baditugu, hiru forma desberdin har ditzaketela ikusi ahal izango dugu aposizioaren barruko perpaus erlatiboari eransten dioten osagaiaren arabera:

#### a1. PE + mugatzailea

Egitura honetan, aposizioan aditz jokatuarekin nahiz jokatugabearekin osatuta dagoen perpaus erlatiboak mugatzailea darama erantsita.

##### a1.1. Aditz jokatuarekin

Egitura hau da  $C_0$ -ko aposizio motarik erabiliena,  $C_{10}$ -eko 5. binomio honetakoa bezala:

Kontuan hartuta gelak hogeit bat metro koadro besterik ez duela: bainugela, <b>beste zenbait auzokiderekon konpartitzen dudana</b> , kanpoan dago, korridore luze baten amaieran.	El cuarto apenas tiene quince metros cuadrados: el baño, <b>que comparto con otros vecinos</b> , está fuera, al final de un largo pasillo.
---	--

Adibide honetan ikusten den bezala, STko aposizioa eta XTko PEEa kokaleku berberean daude eta puntuazio-eten berberak erabiltzen dira; koma arteko aposizio-tartekiak dira, lehen segmentuko izen sintagmaren eta predikatuko aditzaren artean jartzen direnak.

Baina, gainera, prozedura biak esaldiaren bukaerako kokalekuan ere erabil daitezke, esaldiko aditz nagusiaren ondoren,  $C_1$ -eko 1. binomioko adibide honetan bezala:

Bukatu egin nahi zuen; estutu bere musa, <b>hasierak bakarrik ematen zizkiona.</b>	Estaba decidido a acorralar a su musa, <b>que sólo le proporcionaba comienzos.</b>
--	--

### a.1.2. Aditz jokatugabearekin

Aditz jokatugabeaz ere joan daiteke perpaus erlatiboa honelako aposizioetan, baina oso erabilera urria ikusi diegu honelako egiturei, eta  $C_1$  azpicorpusean baino ez ditugu topatu. Aurrekoa bezala, mota honetakoak ere bi kokalekuetan joan daitezke, baina gure corpusean esaldi bukaeran baino ez ditugu aurkitu,  $C_1$ -eko 8. adibide honetan bezala<sup>145</sup>:

Nor zen bera? Bera Cocó zen, Cocó Van Thiegel, <b>Belgikako armadako soldadu izandakoa gaztetan...</b> Ikara zion maxa hari!	Él, Cocó Van Thiegel, <b>que en sus años de juventud había servido en el ejército belga...</b> se amilanaba ante aquel pueblerino.
--	--

### a.2. PE + erakuslea

Egitura honetan, aposatutako segmentuko perpaus erlatiboari erakuslea eransten zaio. Oso erabilera urria du gure corpusean, hiru adibide baino ez baititugu aurkitu, baina hiru azpicorpus desberdinetan,  $C_4$ ,  $C_5$  eta  $C_7$ -n. Hona dakargun adibidea  $C_4$ -ko 13. binomiokoa da:

Horra zein etekin emango dizuten urreek, <b>gaztetandik arduraz zaindu dituzun horiek.</b>	Ésas serán para ti tus mercaderías, <b>por las que te has fatigado desde tu juventud.</b>
--	---

Adibide hau, bestalde, interesgarria izan daiteke tarteki hauek hizkuntza batean eta bestean duten balio semantikoaz hitz egiteko. Izan ere, XTko bertsioan, perpaus erlatiboaren aurrekaria argi eta garbi zehaztua edo murriztua dago izenordain posesiboaren bitartez, eta horregatik erlatiboak balio ez-murriztaile edo esplikatiboa du; STko bertsioan, berriz, STko aposizioko

<sup>145</sup> Esaldi bukaerako kokalekuan STko bertsioa dago bakarrik, ez, noski, XTkoa.



sintagma, gure ustez, murrizgarria da ez bairik gabe, besteak beste erakusleek balio zehaztaile garbia dutelako; horren arabera, aposizioko erlatiboak balio murrizgarria du, ez azalpenezkoa, baina itzulpenean ez dago arazorik balio ez-murrizgarria duen perpaus erlatibo bat erabiltzeko. Horren arabera, binomio honetan, STko aposizio murrizgarri baten eta XTko erlatibo ez-murrizgarri baten arteko baliokidetasuna agertu zaigu, eta badirudi de la Fuente Gonzálezek (2008) aipatzen dituen “kokapen ez-murrizgarriko erlatibo murrizgarriak”<sup>146</sup> direlakoekin bat datorren adibidea izan daitekeela STan ikusten duguna.

### a.3. PE + izen arrunta:

Hirugarren egitura honetan, aposizioko ISaren barruko perpaus erlatiboari eransten zaiona izen arrunt bat da. Corpus osoan, bi adibide baino ez ditugu aurkitu, eta, beraz, ez da oso baliabide erabilia, baina bi azpicorpusetan (C<sub>7</sub> eta C<sub>8</sub>) topatu dugu. Dena dela, ez dago guztiz garbi C<sub>7</sub>-ko 30. binomioko euskarazko testuaren zentzua XTan ematen zaiona den ala ez:

Biak egon ziren komandantzia berean, baina Iñaki Abaitua lehenbiziko solairuan, <b>buruzagiek bulegoak dituzten esparruan.</b>	Ambos estuvieron en la misma Comandancia, pero Iñaki Abaitua estuvo en el primer piso, <b>en el que los jefes tienen sus despachos.</b>
--	---

Berez binomio honetako euskarazko jatorrizko testuak bi adiera desberdin izan ditzake: batetik, esaldi bukaerako ISak balio ekuazionala badu, orduan lehen segmentuko izenak (*lehendabiziko solairua*) eta bigarrenekoak (*buruzagiek bulegoak dituzten esparrua*) eduki semantiko berbera dute, gauza berbera adierazten dute; halaxe gertatzen da XTan, non argi dagoen “*Iñaki Abaitua estuvo en el primer piso*” eta “*los jefes tienen sus despachos en el primer piso*” direla izenordainaren bitartez elkartzen diren bi perpausak. Baina euskarazko testuak balio ekuazionala barik, zentzu zehaztailea ere izan dezake, baldin eta esan nahi dena bada “*Iñaki Abaitua lehenbiziko solairuan [egon zen], buruzagiek bulegoak dituzten esparruan [lehen solairuko esparru horretan zehazki, ez lehen solairuak dituen beste esparruetako batean]*”.

<sup>146</sup> “Relativos restrictivos en posición no restrictiva (explicativa)” izendapena ageri da autore horren artikuluan.

Honelako anbiguotasunik ez da gertatzen, ordea, C<sub>8</sub> azpicorpuseko 4. binomio honetan:

Meredid Puw Dadies idazle galestarra ez zetorren bat. Meredidek, <b>Doris baino hoge urte gazteagoa zen poetak</b> , ez zuen onartu nahi halabeharra.	La poeta galesa Meredid Puw Dadies no estaba de acuerdo. Meredid, <b>que era veinte años más joven que Doris</b> , no quería acatar el destino.
--	--

Hemen, bi testuetan aposizioak eta perpaus erlatiboak balio ekuazional argia dute, eta, beraz, batak zein besteak zentzu ez-murrizgarria dute. C<sub>4</sub>-ko 13. binomioko adibidean bezala, hemen ere euskarazko testuko aposizioko erlatiboa murrizgarria da, baina aposizioak balio ez-murrizgarria du, aurrekariari buruzko azalpen bat ematen baitu. Hortaz, hemen ere "kokapen ez-murrizgarriko erlatibo murrizgarri" baten kasua izango genuke.

#### b. Aposizio soila

Azkenik, hiru azpicorpusetan (C<sub>1</sub>, C<sub>5</sub> eta C<sub>7</sub>) ikusi dugun bezala, barruan PERik ez duten STko aposizioak ere itzultzen dira kasu batzuetan PEEen bidez. Guztira, honelako baliokidetasuna egiten duten bost adibide topatu ditugu, gehienak, hiru zehazki, C<sub>1</sub> azpicorpusean.

Adibide hauetan, izen, adjektibo edo, batez ere, partizipio baten gainean erakitako aposizioak topatzen ditugu STetan, eta itzulpenean, jatorrizkoan ez dagoen aditz bat eransten da, segmentu hori mendeko perpaus bihurtuz, C<sub>1</sub>-eko 10. binomioak erakusten duen bezala:

Eta Donatien bera, <b>parapetoaz eta mandrilez arduratzen ziren kapelu-gorrien buru egun hartan</b> , janzkera eta altueragatik ezagutu zuen, ez aurpegiagatik.	A Donatien, <b>que estaba a cargo de los askaris que se ocupaban del parapeto y de los mandriles</b> , sólo pudo reconocerle por la altura.
---	---

#### 4.3.1.3.2.1. Aposizioa eta kasu-atzizkien komunztadura

EGLU-Ven<sup>147</sup> eta Euskaltzaindiak aposizioetako komunztadurari eskainitako 109. arauan esaten denez, IS osoak aposatzen direnean bi

<sup>147</sup> Aip. lib., 213. orr.

sintagmen arteko kasuen komunztadura egitea da ohikoena eta komunztadurarik gabeko aposizioek lekukotasun urriagoa dute tradizioan, ondorioz holakorik ez erabiltzea gomendatzen dutelarik. Bada, gure corpusean dauden 68 aposizio-adibideetatik bi ez beste guztietan egiten da komunztadura, eta bi adibide horiek azpicorpus bakarrari dagozkio, C<sub>2</sub>-ri zehazki<sup>148</sup>; beraz, datu hau bat dator gramatikek diotenarekin.

Beste datu interesgarri bat izan daiteke 68 binomio horietatik 56tan (adibide horietatik %82,3an) absolutiboa dela ISek daukaten kasua; bestela esanda, corpuseko idazleek oso gutxi erabiltzen dute aposizioa sintagmek absolutiboa ez beste kasu-atzizki bat dutenean.

Are gehiago, gure ustez, badirudi harreman zuzena dagoela adibideetako esaldietako ISek duten kasu-atzizkiaren eta STan erabiltzen diren baliabide sintaktikoen artean: hots, izen sintagma horiek kasu absolutiboan daudenean, erraztasun handia dago euskaraz sintagma horren hedapen apositibo bat egiteko, gaztelaniaz egiten diren PEEen antzera, eta gure corpuseko idazleek ere aposiziora jotzen dute holakoetan, neurri handi samarrean; horregatik, bi prozedura sintaktiko horien arteko baliokidetasun maila handia dago bi hizkuntzen artean. Aldiz, honelako binomioetan elkartzen diren bi segmentuetako lehenengoko ISak absolutiboa ez beste kasu bat duenean, badirudi idazleek joera handi samarra dutela bestelako egitura sintaktikoak erabiltzeko.


Adibidez, C<sub>1</sub> azpicorpuseko adibideak hartzen baditugu, STan perpausen juntadura topatu dugun 11 binomioetatik 8tan, eta kausa perpausak dituzten 4 binomioetatik 4etan, lehen segmentuko ISak absolutiboa ez den beste kasu bat darama. Kasua edo postposizio-atzizkia ez da, jakina, idazleek testurako aukeratzen duten baliabide sintaktikoa baldintzatzen duen faktore bakarra, baina garbi iruditzen zaigu eraginik baduela hautu horretan, euskaraz dagoen beste aukera, hots, ZEIN/NON erlatibo apositiboen erabilera, neurri handi samarrean baztertua baitute.

<sup>148</sup> Azpicorpus honetako 24 eta 25. binomioak dira.

#### 4.3.1.3.3. Perpausen juntadura

$C_0$  corpuseko 438 binomioetatik 108tan, STko bi perpausen arteko juntaduratik ateratzen da XTko perpaus erlatibo esplikatiboa. Azterketarako geratu zaizkigun 8 azpicorpusetan topatu dugu itzulpen-baliokidetasun hau, eta haietako hirutan, gainera, STko baliabiderik erabiliena da:  $C_1$ ,  $C_4$  eta  $C_8$  azpicorpusetan, zehazki. Azken honetan, gainera, binomioen erdia baino gehiagotan erabiltzen da perpaus-elkarketa mota hau euskarazko testuan, nabarmenki egitura parataktikoa nahiago duen estilo batekin.

Hemen ere, alde handi samarra dago azpicorpus batetik bestera, 14. grafikan ikus daitekeen bezala:



14. grafika: ST bakoitzeko perpaus juntaduraren ehunekoa.

$C_0$  corpuseko STetan, perpausen juntaduraren erabileraren batez bestekoa %24,6koa da; alegia, gaztelaniazko itzulpenetan topatu ditugun PEE guztien laurden inguruan, juntatutako bi perpaus aurkitu ditugu STan; eta hiru juntadura mota agertu zaizkigu 8 azpicorpusetan, erabiliena alborakuntza izanik (57 binomiotan), ondoren emendiozko juntadura (49 binomiotan), eta azkenik aurkaritzazko juntadura (2 binomiotan). Argi dago, beraz, gure corpuseko euskal idazleek beren lanen itzulpenetan baino sintaxi parataktikoagoa erabiltzen dutela euskaraz.

#### 4.3.1.3.3.1. Alborakuntza

Esan bezala, STko alborakuntzaren eta XTko PEEen arteko baliokidetasun-kasu ugari aurkitu ditugu gure corpusean. Hori posible da, besteak beste, juntagailuen edo erlatiboaren bidez perpausen artean eraikitzen diren lotura berberak egin daitezkeelako alborakuntza soilaren bitartez, Gili Gaya gramatikari espainiarrak dioen bezala: «*Pero es evidente que con la simple yuxtaposición significamos las mismas conexiones que podemos expresar por medio de conjunciones y relativas*» (1943 [1980]: 262-4). Alborakuntza, berez, juntagailurik gabe elkartutako bi perpaus lokabeen arteko juntadura da; bi perpausen artean, intonazio-eten bat egoten da, idatzizko hizkuntzan askotan koma baten bidez egina ( $C_8$ -ko 9. binomioan bezala, adibidez), baina baita –geroago azalduko dugunez– puntu batez (azpicorpus bereko 7. binomioan bezala), edo bi puntuz (azpicorpus horrexetako 14. binomioan bezala) ere<sup>149</sup>; arazorik ez legoke puntu eta komaz ere egiteko, baina honelako etenik ez dugu aurkitu gure corpusean. Honelako alborakuntza-adibideetako XTan, STan alboratutako bi perpausetako bat gaztelaniazko bertsioan XTko perpaus nagusi bezala itzultzen da, eta beste perpausa PEE bezala,  $C_4$ -ko 14. binomio honetan gertatzen den moduan:

Gero eta urrunago sentitzen zuen aita, <b>gero eta arrotzagoa zitzaien haren hoztasuna.</b>	Se veía cada vez más alejada de su padre, <b>cuya frialdad le resultaba más ajena de día en día.</b>
---	--

Honelako egituren arteko itzulpen-baliokidetasun hau azpicorpus guztietan aurkitu dugu, juntadura motarik erabiliena izanik azpicorpusen erdian,  $C_1$ ,  $C_2$ ,  $C_6$  eta  $C_8$ -n, hain zuzen.

Etenak eten, ez dirudi arazo handirik dagoenik pentsatzeko alborakuntzan elkartzen diren bi perpausen artean badagoela nolabaiteko lotura ere, testu mailan edo perpausaz gaineko mailan, lokarri morfologiko baten bidez; gehienbat, bigarren perpausean dagoen osagai anaforiko baten

<sup>149</sup>  **$C_8$ -ko 9. binomioa:** Arrain hegalaria asko ikusi ditut, sardinak baino handixeagoak dira. **7. binomioa:** Laurogeita sei orrialde zituen guztira. Ricardok berak zenbatuta zetozen orrialdeak. Laurogeita sei orrialdeetatik laurogeita lau idatzita. **14. binomioa:** Jose Julián Bakedano bere zereginetara itzuli zen bulegora, baina aurretik museoan Artetaren muralari buruz zegoen dokumentazioa eman zidan: nola atera zuten murala teknikariek Bastidaren etxetik.

bitartez: osagai hori, euskarazko testuan, izen berbera errepikatua izan daiteke ( $C_1$ -eko 14. binomioa), izen berbera baina eliditua (azpicorpus bereko 16. binomioa)<sup>150</sup>, haren sinonimo bat ( $C_8$ -ko 5. binomioa)<sup>151</sup>, izenordain bat ( $C_2$ -ko 26. binomioa)<sup>152</sup>, leku-aditzondo bat ( $C_1$ -eko 17. binomioa)<sup>153</sup>, eta beste.

Beste kasu batzuetan, STko bi perpaus alboratuen arteko lotura hori morfologikoa ez ezik semantika mailakoa ere izan daiteke, Grijelmok dioen moduan: «*La yuxtaposición sí puede lograr una conexión entre las oraciones. No por vía gramatical, sino por la intención o el significado*» (2006: 382). Horixe gertatzen da, adibidez,  $C_1$ -eko 12. binomioan, non bi perpaus lokabeek sekuentzia logiko bat duten<sup>154</sup>.

Adibide horretan, bi perpausen arteko lotura semantikoak nolabaiteko kausalitatea ezartzen du bigarren perpausaren, lehen perpausaren baieztapena azaltzeko; alegia, baliokidetzat jo liteke bigarren perpausaren mendeko perpaus kausal bat duen parafrasi hau: “*Gogaikarria zen halako ‘commençant’ batekin hitz egitea, ezpainak josita zeuzkala ematen baitzuen*”.

Beste batzuetan, STko bi perpaus lokabeek sekuentzia tenporal bereko partaide edo dira, eta perpaus juntatu gisa ere ager zitezkeen, dagokion juntagailuarekin,  $C_1$ -eko 7. binomioan bezala<sup>155</sup>; hots: “*...eta Livoren erantzuna betikoa izan zen*” bertsioaren baliokide dela esan liteke.

Gaztelaniazko itzulpenetan, STan juntatutako bi perpausen arteko lokarri morfologiko edo semantiko horiek izenordain erlatiboaz ordezkaturik daude, eta, horren bidez, kasu gehienetan STko bigarren perpausa PEE bihurtuta dago, STko lehen perpausa izanik XTko perpaus nagusia; kasu hauetan, beraz, XTko erlatibo esplikatiboa bukaerako posizioan kokaturik egoten da, esaldiko aditz

<sup>150</sup>  **$C_1$ -eko 14. binomioa:** *Platertxo batean, hamar bat zigarro-mutur zeuden, eta haien usaina sentitzen zen airean. Donatienek kanpora eraman zuen platertxo eta hustuta ekarri zuen segituan. 16. binomioa:* [...] — *esan zuen Donatienek. Txukunketa utzita, elkarrizketan erabat sartuta zegoen.*

<sup>151</sup>  **$C_8$ -ko 5. binomioa:** *60ko hamarkadan, ostera, Bastida hil eta urte batzuetara, familiak saldu egin zuen txaleta. Etxea bota egin zuten pisuak eraikitzeke.*

<sup>152</sup>  **$C_2$ -ko 26. binomioa:** *Tabakoa eskaini dio bitartekariak gidariari. Hark ez dio hartu.*

<sup>153</sup>  **$C_1$ -eko 17. binomioa:** [...] *biltegi bezala erabiltzen zen bigarren sakristiara pasatu ziren. Santuen irudiak gordetzen ziren han.*

<sup>154</sup>  **$C_1$ -eko 12. binomioa:** *Gogaikarria zen halako ‘commençant’ batekin hitz egitea. Ezpainak josita zeuzkala ematen zuen.*

<sup>155</sup>  **$C_1$ -eko 7. binomioa:** *Norbaiti azaldu behar, hala ere, eta Livori azaldu zion. Livoren erantzuna betikoa izan zen.*

nagusiaren ondoren. Tankera honetakoa da, besteak beste, C<sub>4</sub>-ko 14. binomio hau:

Gero eta urrunago sentitzen zuen aita, <b>gero eta arrotzagoa zitzaien haren hoztasuna.</b>	Se veía cada vez más alejada de su padre, <b>cuya frialdad le resultaba más ajena de día en día.</b>
---	--

Baina gerta daiteke, orobat, XTko mendeko erlatiboa STko lehen perpausetik ateratzea ere; honelako kasuetan, lehen perpaus hori tarteki bezala eransten zaio perpaus nagusiari, kanpoko ardatzaren eta aditz nagusiaren tartean. Dena den, askoz adibide gutxiagotan topatu dugu aldaera hori, azpicorpusei buruzko banakako azterketan ikusi dugun bezala; C<sub>8</sub>-ko 36. binomioa da adibide horietako bat:

<b>Teoria hura mozkorraldietan agertzen zuen,</b> literaturaren zeregina zela arrunkeria nazionalak literaturizatuz bertute bihurtzea.	Aquella teoría, <b>que formulaba en todas las borracheras,</b> de que la función de la literatura era hacer virtud de los defectos nacionales, literaturizándolos.
--	--

Binomio hauetan guztietan, XTko perpaus erlatiboak aurrekari edo kanpoko ardatz bat du: euskarazko bertsioan, kasu askotan behintzat, osagai anaforikoaren erreferentea dena; baina STan inolako erlatiborik ez dagoenez gero, erreferente horri ezin diogu kanpoko ardatz deitu, eta, horregatik, bi perpaus lokabeak semantikoki batzen dituzten osagaiei "erreferente" deitzea erabaki dugu. Era honetan, alborakuntzako bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako.

Gauzak horrela, ikusirik STko bi perpaus lokabeek nolabaiteko harreman edo lotura badutela –dela morfologikoa, dela semantikoa–, eta, are gehiago, XTko bertsioan harreman edo lotura hori menderakuntzaren bitartez adierazita dagoela espreski, uste dugu arazorik ez lukeela egon behar honelako egiturak alborakuntzatzat edo juntagailurik edo menderagailurik gabeko elkarketatzat hartzeko.

Kontua da, ordea, gramatikarientzat oraindik eztabaidagai dela ea alborakuntza perpausak elkartzeko hirugarren bide bat den juntadura eta menderakuntzarekin batera, ala ez. Gaztelaniazko zenbait gramatikatan,

Marcos Marín (1980: 363-380) kasu, alborakuntza juntaturaren eta menderakuntzaren maila berean jartzen dute: lehendabiziko bi prozedurek badute halako antzik, bieran esaldia osatzen duten bi perpaus edo segmentuak maila berean daudelako, bi perpausak beregainak baitira, halako moldez non ez batak ez besteak ez duten inolako funtziorik betetzen bestearen barruan, juntagailua egotea edo ez egotea izanik haien arteko alde nagusia.

Euskarazko gramatiketan begiraturaz gero, aldiz, EGLU-IIIk (1990: 11-12) eta, haren bidetik, *Sareko Euskal Gramatikak* (SEG) ere, juntadura barruan sartzen dute alborakuntza, ez dute perpaus elkarketarako hirugarren bidetzat jotzen. Batak zein besteak alborakuntza juntagailurik edo menderagailurik gabeko perpaus-elkarketa dela diote, baina, esan bezala, alborakuntza juntadura barruan sartzen dute, perpaus elkartuen eskeman: «*Juntagailurik gabeko juntadura da, hortaz, labur esateko, alborakuntzak gauzatzen duena*».

Tesi honen helburuetan ez dago gramatikariek ebatzi beharreko auzi honetan sartzea, baina bai geratu nahi izan dugu pixka bat puntu honen azalpenean, gure sailkapenean erabiltzen dugun terminologia nolabait arrazoitze aldera. Izan ere, gure corpusean argi geratu da XTko PEEen eta STko bi perpaus lokabeen artean itzulpen-baliokidetasuna dagoela, eta, horregatik, beharrezkoa iruditu zaigu apur bat aztertzea euskarazko jatorrizkoan topatzen duguna bi perpaus lokabe soil ote diren ala alboraturako perpausak direla esan ote daitekeen. Horretarako, perpaus lokabe soilen eta alborakuntzan dauden bi perpausen artean dauden antz-aldeak aztertu beharra dago.

Izan ere, euskarazko gramatiketan, alborakuntzari eskainitako ataletan behintzat, ez da berariaz aipatzen prozedura honen ezaugarri formalik. Gaztelaniaren gramatiketan, aldiz, bai aipatzen dira puntuazioari eta intonazioari buruzko gorabehera zenbait, baina adostasuna ez da erabatekoa, ez behintzat puntuazioari gagozkiolarik; izan ere, argi esaten da alboraturiko perpausak eten batez banatuta egoten direla, baina eten horren nolakoa ez dago hain garbi; horrela, Marcos Marín-en arabera alboraturiko perpausak eten txiki batez bakarrik egon daitezke banatuta, koma batez edo puntu eta koma batez alegia: «*Las oraciones yuxtapuestas están separadas por pausa menor. Si la pausa es mayor estamos ante dos períodos distintos, independizado*» (1980:



367); baina bada puntua ere sartzen duenik, Hernández Alonso (1984: 306-307), adibidez.

Esan bezala, euskal gramatikan ez da espreski aztertzen alborakuntzako puntuazioa, eta, era horretan, SEGek eta EGLU-IIIk alborakuntzari eskainitako ataletan komaz etendako perpaus alboratuen adibideak baino ez dira agertzen; hala ere, beste atal batzuetan, puntua duen adibiderik ere topatzen dugu: EGLUren kasuan, aurkaritzazko lokailuak aztertzen dituenean<sup>156</sup>, espreski esaten du *–dena dela* lokailuaren tokiari eskainitako puntuan zehazki– lokailu hori bigarren perpausaren hasieran erabiltzen dela maizenik, alborakuntzan, «*aurreko perpausetik puntuaz edo puntu gehi komaz*» bereizita; bere aldetik, SEGen, “Juntadura eta juntagailuak” sarreran, puntua duen alborakuntza sailekotzat emandako adibide bat ikus daiteke gutxienez: «*Euria da. Goazen tabernara.* (alborakuntza)».

Hortaz, ez dirudi koma, puntu eta koma edo bi puntuez adierazitako eten txikia bakarrik denik alborakuntzaren puntuazio-ezaugarria, eta, horrenbestez, puntu batez banatutako bi perpaus ere alborakuntzako osagaitzat hartzeko arazorik ez dagoela esan liteke. Alegia, puntuazioa ezin da erabakigarritzat hartu alborakuntzaren ezaugarri gisa eta beste nonbait bilatu behar dugu haren ezaugarririk funtsezkoena.

Bestalde, badirudi intonazioa ere alborakuntzaren osagarri formal garrantzitsu bat dela; euskal gramatikei begiratuta, EGLU-Ven<sup>157</sup> bidenabar baino ez da aipatzen alborakuntzako intonazio berezia ondorio perpausak aztertzen dituenean, esaten duelarik alborakuntza bidezko esamolde horiek batez ere ahozko hizkeran erabiltzen direla eta, beraz, zaila dela «*intonazio hori behar bezala aditzera ematea idatzizkoetan*». Aldiz, gaztelaniaren gramatiketara joz gero, Gili Gayak (1980: 264), adibidez, aditzera ematen du alboratutako perpausak “unitate psikiko” bat osatzen dutela eta horregatik intonazio-unitate bat partekatzen dutela, «*prescindiendo de la puntuación ortográfica*»; intonazio hori izanda eta unitate psikiko hori osatzen dutenez, alboratutako perpausak periodo bat eta bera osatzen dute, eta hala ez balitz, perpaus horiek lokabetzat jo beharra legoke, haren arabera.

<sup>156</sup> 118. or.

<sup>157</sup> 448. or.

Intonazioak markatzen duen "unitate psikiko" horrek esan nahi du alboratutako bi perpausen artean halako lotura edo harreman semantiko bat ere badagoela, hori izanik perpausak elkartzen dituen elementuetan lehena eta erabakigarriena. Izan ere, alborakuntzan, perpausok soilik forman edo syntaxian dira lokabeak, baina ez zentzuan (semantikan), haien barruan inplizituki dagoelako halako juntadura edo baita menderakuntza ere. Gili Gayak jarraitzen duen bezala, «*es evidente que con la simple yuxtaposición significamos constantemente las mismas conexiones que podemos expresar por medio de conjunciones y relativos*» (1980: 262-3). Hau da, alborakuntzan, perpaus elkartuen arteko juntagailu edo menderagailuak ez daude sintaktikoki esplizitatuta, baina bai, aldiz, beste elkarketa motetan. Ildo horretatik, gure tesiaren ikuspegitik axola zaizkigun honako baliokidetasun batzuk aipatzen ditu Gili Gayak aurreraxeago:

«*Fui ayer al teatro; volveré mañana*» (copulativa); «*Quería verte; no pude salir de casa*» (adversativa); «*No llueve; nada cogemos*» (consecutiva); «*Le suspendieron; no sabía nada*» (causal); «*Os suplico no me dejéis en esta duda*» (substantiva objektiva); «*Haya vuelto o no, no importa*» (substantiva subjektiva); «*Tomamos chocolate; estaba muy rico*» (relativa); «*Escribame; contestaré en seguida*» (condicional); «*Llegué; le encontré en su despacho*» (temporal).

Hortaz, halako perpaus batzuen alborakuntza dagoela esan ahal izateko, perpausok periodo bat eta bera osatu behar dute eta halako harreman semantiko bat egon behar du haien artean; hala ez bada, perpaus lokabetzat jo beharra dago.

Puntu honetan sakonduz, beste autoreren batek, J. A. Martínezek (1994b: 38-40) dio alboratutako perpausak juntagailu edo menderagailu batez lot litezkeela, juntadura nahiz menderakuntza sortzeko; eta, beraz, ulertu behar da, halako perpaus batzuen artean ezinezkoa denean juntagailu edo menderagailu batez perpaus konposatu bat egitea, perpaus horiek elkarrengandik lokabeak direla erabat.

Gauzak honela, gure corpusaren azterketan ere argi ikusi dugu euskarazko STko bi perpaus lokabe –baita puntu batez banatuta daudenean ere– PEE bat daukan perpaus konposatu baten bidez itzultzen direla askotan

gaztelaniazko XTan. Adibide batzuetan, nahikoa bistakoa da perpaus horiek goian aipatu ditugun ezaugarri formaletakoren bat badutela, halako harreman sintaktiko batez nolabait loturik daudela, bereziki –puntuazioa ez da ezaugarri funtsezkoa, ikusi dugun bezala; eta intonazioa, idatzitako testuak izanda, ez dirudi erraz ebatziko litzatekeen irizpidea denik, kasu hauetan–; horrenbestez, perpaus lokabeez nahiz alborakuntzaz ere hitz egin liteke ondokoak bezalako kasuetako STetan<sup>158</sup>:

Gogaikarria zen halako commençant batekin hitz egitea. <b>Ezpainak josita zeuzkala ematen zuen.</b>	Era un fastidio intentar entablar conversación con un commençant como aquél, <b>que parecía tener la lengua cosida.</b>
Norbaiti azaldu behar, hala ere, eta Livori azaldu zion. <b>Livoren erantzuna betikoa izan zen.</b>	Acabó contándosele a Livo, <b>cuya respuesta fue la de siempre.</b>
Burua jaso eta pipadun gizonarengana jiratu zuen. <b>Borreroak sekulako deiadarra bota zuen, pipa ahotik kendu ere egin gabe.</b>	Levantó la cabeza, girándose hacia el verdugo, <b>quien, sin quitarse la pipa de la boca, profirió un agudo grito.</b>
60ko hamarkadan, ostera, Bastida hil eta urte batzuetara, familiak saldu egin zuen txaleta. <b>Etxea bota egin zuten pisuak eraikitzeke.</b>	En la década de los sesenta, sin embargo, a los pocos años de morir Bastida, la familia vendió el chalet <b>que posteriormente se derribó para construir pisos.</b>

Izan ere, adibide hauek aztertzen baditugu, badirudi arazorik gabe ezar litezkeela zenbait itzulpen-baliokidetasun:

- Kausazko mendeko perpausa: *"Gogaikarria zen halako ´commençant´ batekin hitz egitea, ezpainak josita zeuzkala ematen baitzuen".*
- Emendiozko juntadura: *"Norbaiti azaldu behar, hala ere, eta Livori azaldu zion. Eta Livoren erantzuna betikoa izan zen".*
- Mendeko denborazko perpausa: *"Burua jaso eta pipadun gizonarengana jiratu zuenean, borreroak sekulako deiadarra bota zuen, pipa ahotik kendu ere egin gabe".*
- Helburuzko mendeko perpausa: *"60ko hamarkadan, ostera, Bastida hil eta urte batzuetara, familiak saldu egin zuen txaleta, etxea bota eta pisuak eraikitzeke".*

<sup>158</sup> Hurrenez hurren, C<sub>1</sub>-eko 12 eta 18. binomioak, C<sub>4</sub>-ko 25. binomioa eta C<sub>8</sub>-ko 5. binomioa.

Beste kasu batzuetan, ordea, nekezago gertatzen da perpausen arteko harreman semantiko hori lehen ikusian aurkitzea edo, beste era batera esanda, XTan perpaus konposatu batean periodo bat osatzen duten STko perpausak juntagailu edo menderagailu batez elkartzea; beraz, perpaus horiek perpaus lokabetzat hartuko genituzke errazago, edo, gutxienez, esan beharko genuke kasu horietan oso lausoa dela perpaus alboratuen eta perpaus lokabeen arteko muga, ondoko kasuetan gertatzen den bezala<sup>159</sup>:

—Eguberria egun handia da —esan zuen Chrysostomek—. Jesusen jaiotza ospatzen da. <b>Ama Birjinarengandik jaio zen Belenen.</b>	—El día de Navidad es un gran día —dijo—. Se celebra el nacimiento de Jesús, <b>que nació en Belén, concebido por la inmaculada Virgen María.</b>
Sotoetara jaitsi ziren gero. <b>Ehundaka kotoi-bala zeuden pilaturik bertan.</b>	Luego bajaron a la bodega, <b>donde se apilaban cientos de balas de algodón.</b>
Hotelera joan gara. <b>McAlpin hotela munduko bigarren hotelik handiena da, 26 solairu ditu eta 13 milioi dolar kostatu zen.</b>	Hemos desembarcado todos y hemos venido al hotel McAlpin <b>que es el segundo del mundo, tiene 26 pisos y costó 13 millones de dólares.</b>
Arrain hegalaria asko ikusi ditut, <b>sardinak baino handixeagoak dira.</b>	He visto muchos peces voladores, <b>que son poco mayores que sardinas, con alas.</b>

Izan ere, kasu hauetan, ez dirudi posible STko adibide bakoitzeko bi perpausak juntaturaz edo menderakuntzaz elkartzea, XTan bezala erlatibo apositibo ez-murrizgarri baten bitartez ez bada. Baina adibideotan bada bi perpausak batzen dituen lokarririk, lokarri anaforiko bat, zehazki, erreferentziakide deitu duguna (*Jesus/Jesus*); *hotela/hotela*; *sotoak/bertan*; *arrainak/arrainak*.

Honen guztiaren ondorioa da XTan PEE baten bidez itzulita agertzen diren perpaus elkarketak euskarazko STan ere perpaus elkarketatzat hartzea badagoela gure ustez, eta alborakuntzatzat hartzeko baldintza formalak betetzen dituztela; horregatik, gure sailkapenean, perpausen alborakuntza sailean sartu ditugu, onartzen dugularik hala ere perpaus lokabetzat hartzeko arrazoiak ez direla falta. Nolanahi ere den, itzulpen-baliokidetasun hori posible da STko bi perpaus osagai testual erredundante bat partekatzen dutelako, izen bat normalean, euskarazko testuan bi perpausetan errepikatuta, edo bigarreanean elidituta edo anaforiko batez ordezkaturia egon daitekeena, eta

<sup>159</sup> Hurrenez hurren, C<sub>1</sub>-eko 13. binomioa, C<sub>4</sub>-ko 16. binomioa eta C<sub>8</sub>-ko 8 eta 9. binomioak.

gaztelaniazkoan perpaus erlatiboaren kanpoko ardatz gisa funtzionatzen duena.

#### 4.3.1.3.3.2. Emendiozko eta aurkaritzazko juntadura

Corpuseko gaztelaniazko bertzioetan PEE bezala itzulita aurkitu ditugun gainontzeko juntadura motak emendiozkoa eta, askoz kopuru txikiagoan, aurkaritzazkoa dira. Lehendabizikoa bi perpausen arteko juntadura ETA juntagailuaren bitartez egiten dena da; eta bigarrena, aldiz, BAINA juntagailuaren bidez egiten dena. Eta honelako kasuetan, alborakuntzan gertatzen den bezala, juntatutako bi perpaus horietako bat, lehendabizikoa adibide gehientsuenetan, XTko perpaus nagusi bezala itzultzen da eta beste perpausa PEE bezala, hurrenez hurren C<sub>10</sub>-eko 15. binomioan eta C<sub>7</sub>-ko 46.ean gertatzen den moduan:

Bi musu heze eman dizkit masailetan, <b>eta karminez gorrituta utzi dizkit ziurrenik.</b>	Me planta dos besos pegajosos en las mejillas, <b>que casi con seguridad me ha dejado manchadas de carmín.</b>
Jakinaren gainean egongo zara noski, lan bat egiten ari bazara, <b>oso pertsona ona da ama noski, baina</b> bueno, solteratan izan zuen umea.	Estará usted al corriente, ya que está usted haciendo un trabajo al respecto, de que la madre, <b>que es una bellísima persona</b> , tuvo el niño de soltera.

Baina, egitura honetan ere, XTko perpaus erlatibo esplikatiboa STan emendiozko juntaduran elkartutako lehen perpausetik ere atera daiteke, eta kasu horretan PEEa tarteki modura txertatzen zaio perpaus nagusiari aurrekariaren eta aditz nagusiaren artean, C<sub>4</sub>-ko 31. binomio honetan ikus daitekeen bezala:

<b>Nire laidoaren biktima egin nuen Kristo, eta</b> hark hilezkor egin ninduen.	Cristo, <b>que fue víctima del escarnio</b> , me hizo sobrehumano.
---	--

Emendiozko juntaduraren eta PEEen arteko itzulpen-baliokidetasuna azpicorpus guztietan aurkitu dugu, juntadura motarik erabiliena izanik azpicorpusen erdian, C<sub>4</sub>, C<sub>5</sub>, C<sub>7</sub> eta C<sub>10</sub>-en, hain zuzen; aurkaritzazko juntadura, aldiz, C<sub>4</sub> eta C<sub>7</sub> azpicorpusetan baino ez zaigu agertu.

Alborakuntzan gertatzen den bezala, beste juntadura mota hauetan ere beharrezkoa da elkartzen diren bi perpaus edo predikazioek erreferente berbera edukitzea, hortik ateratzen direlarik XTko PEEko kanpoko ardatza eta, mendeko perpausean, izenordain erlatiboa; hemen ere, "erreferente" terminoa erabiliko dugu STko juntaduran elkartzen diren bi perpausak semantikoki batzen dituzten osagaiei deitzeko. Beraz, adibide hauetan ere STko bi perpausak erreferentziakideak dira, bi segmentuak lotzen dituen erreferente berbera dutelako, normalean izen bat lehen perpausean eta, bigarreanean, balio anaforikoaz erabiltzen den izen bat –elidituta egon daitekeena– edo beste kategoria sintaktiko bat, izenordain bat kasu askotan.

Badago STko emendiozko juntaduraren eta XTko erlatibo ez-murrizgarrien arteko baliokidetasun interesgarri bat, gaztelaniazko testuan erlatiboaren aurrekaria izen bat izan beharrean aurreko perpausa delarik itzultzen denean. *Sentential relative* deitzen zaie egitura hauei ingelesezko gramatiketan, eta euskaraz perpaus-aurrekariko erlatiboak deitu ahal zaie. Honelakoetan, STko bigarren perpausa izaten da kasu guztietan XTan PEE bezala itzultzen dena.

Gure corpusean nahiko ugaria da baliokidetasun hau, emendiozko juntadura erakusten duten 49 binomioetatik 16tan topatu baitugu, eta, gainera, C<sub>8</sub> azpicorpusean ez beste guztietan agertu zaigu; eta batez ere, C<sub>4</sub> eta C<sub>7</sub> azpicorpuseko itzulpenetan erabiltzen da erlatibo mota hau proportzio handi samarrean, 16 agerpen horietatik 5na bi horiei dagozkielako.

Baliokidetasun hau erakusten duten binomioetara jotzen badugu, ikusiko dugu nola, kasu batzuetan, STko lehen perpausa aurrekari bihurtzen duen osagai sintaktiko bat dagoen bigarreanean, izenordain erakusle anaforiko bat zehazki, irakurlearentzat argi uzten duena bi perpausen artean dagoen lokarri semantiko hori, C<sub>2</sub>-ko 36. binomio honetan gertatzen den moduan:

Hondarra dago soilguneetan eta <b>horrek</b> sortzen du hanka hutsik joatea posible deneko ilusioa.	Hay arena en los claros, <b>lo cual</b> produce la ilusión de que es posible caminar descalzo por ellos.
---	--

Gaztelaniazko bertsioetan, erlatibo konplexua deitzen dena topatzen dugu, *que* edo *cual* izenordain erlatiboak *lo* artikulua neutroarekin.

Beste batzuetan, ordea, horrelako lokarri sintaktikorik ez dago STan, edo erakusle anaforiko hori elidituta dagoela uler daiteke agian, C<sub>1</sub>-eko 21. binomioetan ikus dezakegun bezala:

Europara itzultzekoa omen zen, <b>eta, zalantzarik gabe, mesede handia izango zen Force Publiquerentzat.</b>	Lalande Biran le había informado de que aquel sujeto pensaba regresar a Europa, <b>lo cual sería, sin duda, un gran beneficio para la Force Publique.</b>
--	---

Binomio honetako STan, izan ere, “...*eta (hori), zalantzarik gabe, mesede handia izango zen Force Publiquerentzat*” esaten ari dela uler daiteke, hots, anafora nolabait inplizitua dela bigarren perpausean. Baina beste kasu batzuetan, aldiz, STan ez dago bi perpausen arteko anafora inplizitu edo espliziturik, emendio soil-soila baizik, narraturiko gertakarien hurrenkatzeko hutsa, baina honelakoetan ere posible da gaztelaniaz azken perpausa PEE bihurtzea, C<sub>4</sub>-ko 34. binomioan bezala:

Arta-zirtzilak apalean txukun- txukun jarri, gerrialdea pixka bat jaso, <b>eta soinekoa egokitu zuen ipur-masailetan.</b>	Una vez hubo recuperado la posición normal, se dedicó a acomodar pulcramente en el estante los objetos que la sacudida había hecho caer, <b>tras lo cual se alisó el vestido.</b>
---	---

Baliokidetasun honen tipologiarekin jarraituz, badago azken kasu bat, ia adibideen erdian aurkitu duguna, zeinean STko bi perpausen artean halako lotura semantiko kausala dagoen, bigarren perpausean kontatzen dena lehenengo perpausean esaten denaren ondorioa delarik; honelakoetan, STan *horregatik* anaforiko baten elipsia dagoela uler daiteke, eta gaztelaniaz S. García Garcíak (1993: 359) “*construcciones continuativas*” deitzen dituenak erabiliz itzuli dira, hots, juntagailu ilatiboen kideko orazionala erabiliz. Honelakoa dugu C<sub>7</sub>-ko 42. binomioa:

Bazekien historia sinesgaitz bat izango zuela entzungai, <b>eta, besaulkian irristatuz, patxadarik hoberena bilatzen zuen.</b>	Iñaki Abaitua sabía que a continuación le contaría una historia insólita, <b>por lo que se reclinaba en el sillón buscando la postura más</b>
---	---

cómoda.
---------

Motibatibo anaforikoaren elipsia era honetako baliokidetasuna duten binomio guzti-guztietan egiten da euskarazko testuetan, emendiozko juntagailuak bere soilean kausa-ondorio harreman semantikoki ahula eragiten duelarik, ahulagoa behintzat XTan baino.

#### 4.3.1.3.4. Erlatiboa

$C_0$  corpuseko binomio baliagarri guztietatik 122tan (guztietatik %27,8an), STko perpaus erlatibo batetik ateratzen da XTko PEEa. Horrenbestez, ST eta XTaren arteko baliokidetasunik ugariena da. EGLU-Ven "perpaus erlatibo arruntak aposizioan" deitzen dituenak gure azterketan aposizioen multzoan sartu ditugunez, hiru dira euskarazko testuetan agertu zaizkigun erlatibo motak: -N perpausak, PE jokatu gabe arruntak<sup>160</sup> eta ZEIN/NON erlatiboa. Bestalde, BAIT erlatibo deitzen denaren adibiderik ere ez zaigu agertu gure corpusean,  $C_0$ -ko idazle guztiak Hegoaldekoak izanik, BAIT menderagailua zentzu kausalaz baino ez baitute erabiltzen; horregatik, adibide horiek kausa perpausen artean sailkatu ditugu, eta ez erlatiboaren multzoan.


Bestetik, corpusean agertu zaizkigun hiru erlatibo mota horiek oso erabilera-proporzio desberdinak dituzte: erabiliena perpaus erlatibo arrunta da (99 binomio,  $C_0$ -ko %22,6an), alde handiarekin; ondoren, ZEIN/NON erlatiboak (14 binomio,  $C_0$ -ko %3,2an), eta azkenik PE jokatu gabe arruntak (9 binomio,  $C_0$ -ko %2,1an).

Eta hiru erlatibo mota horiek oso banaketa desberdina dute azterketa honetara pasatu ditugun 8 azpicorpusetan: -N erlatiboa azpicorpus guztietan erabiltzen da; ZEIN/NON erlatiboa  $C_2$  eta  $C_8$ -n ez beste guztietan, baina adibide bakarrean erabilia beste horietatik hirutan; eta, azkenik, PE jokatu gabeak  $C_4$  eta  $C_7$  azpicorpusetan baino ez ditugu aurkitu.

Honenbestez, argi dago baliabide honen erabileran ere alde handi samarra dagoela azpicorpus batetik bestera, 15. grafikan ikus daitekeen bezala:

<sup>160</sup> Ikus 30. oharra.





**15. grafika: STetako erlatibo mota bakoitzaren ehunekoa.**

Grafika honetan ikus daitekeenez, gorabehera handiak daude egitura erlatiboaren erabilera-mailan, hasi C<sub>8</sub> azpicorpuseko %7,7tik mutur batean eta C<sub>6</sub>-ko %57,2raino beste muturrean. Bestalde, azpicorpus bakoitzaren azterketan ikusi dugun bezala, egiturarik erabilienak dira azpicorpusen erdian: C<sub>2</sub>, C<sub>5</sub>, C<sub>6</sub> eta C<sub>7</sub>-n.

Gure azterketaren emaitzen ataleko aurkezpenean galdera bezala planteatzen genuen ea desberdintasunik aurkituko ote genuen corpuseko bi idazle belaunaldien artean baliabide sintaktikoen erabileran, bereziki erlatibakuntza-sistemari dagokionez. Zehazkiago hitz eginez, interesatzen zitzaigun ikustea ea ZEIN/NON erlatiboaren erabilera handiagoa ote zen lehen belaunaldian bigarreanean baino; eta datuen argitan, ez dirudi halako baieztapenik egiterik dagoenik, nahiz eta azterketa xeheago batek agian datu interesgarriren bat edo beste eman dezakeen, puntu horri gagozkiolarik.

Izan ere, ZEIN/NON erlatiboaren erabilera-maila oro har nahiko txikia den arren, egia da lehen belaunaldiko lau idazleetatik bik (C<sub>5</sub> eta C<sub>7</sub> azpicorpusak) kopuru absolututan gehiago erabiltzen dutela erlatibo mota hori (lau

binomiotan) bigarren belaunaldikoek baino<sup>161</sup>; azken hauetatik, batek bakarrik (C<sub>10</sub> azpicorpusak) erabiltzen du modu nolabait esanguratsuagoan (hiru binomiotan), bai eta portzentualki ere, %11,1rekin. Beharbada, ehunekoak kasu honetan apur bat engainagarriak izan daitezke, zeren C<sub>6</sub>-ko idazleak, bigarren belaunaldikoa izanik, proportzio altua baitu (%9,7), baina hori hala da berez oso binomio gutxi atera ahal izan ditugulako azpicorpus horretatik, eta, kopuru absolututan, behin baino ez baitu erabiltzen ZEIN/NON erlatiboa.

Beste datu interesgarri bat izan daiteke C<sub>2</sub> eta C<sub>6</sub> azpicorpusetan STko perpaus erlatibo arruntan eta XTko PEEen arteko baliokidetasun-maila nabarmenki altuagoa dela gainontzeko azpicorpusetan baino; eta bi idazle horiek gure corpuseko bigarren belaunaldikoak dira, erlatibo apositiboaren erabilera txikiagoak erlatibo arruntaren erabilera handiagoa dakarkeelako hipotesiarekin bat etorritz. Antzera gertatzen da, orobat, erlatibo arrunta beste motarik erabiltzen ez duten bi azpicorpusekin ere (C<sub>2</sub> eta C<sub>3</sub>)

Azkenik, ezberdintasun handiagoa aurkitu dugu PE jokaturgabeen erabileran, bi azpicorpusetan (C<sub>4</sub> eta C<sub>7</sub>) baino ez baita erabiltzen, batean ZEIN/NON erlatiboa baino dezente gehiago, eta bestean paretsu.

Beraz, esan bezala, euskarazko erlatibakuntza-sistemaren erabileran belaunaldien arteko nolabaiteko desberdintasunen bat suma daitekeen arren, gure azterketatik ateratako datuek ez digute uzten baieztapen biribilik egiten norabide horretan. Hortaz, idazle bakoitzak bere estilo berezia duen arren, erlatibakuntza-sistemari dagokionez antzeko kanon linguistiko-estilistikoa partekatzen dute gure corpuseko euskal idazleek. Denek –eta, beraz, itzulpen tipologia guztiek, hots, itzulpen alografoek, elkarlanean eginiko itzulpenek eta autoitzulpenek– partekatzen duten bezala STko erlatibakuntzaren agerpena XTkoaren azpitik dagoela nabarmenki.

#### 4.3.1.3.4.1. STko perpaus erlatiboetako izen ardatza

<sup>161</sup> Berez, azpicorpus hauetako idazleek gehiagotan erabiltzen dute erlatibo mota hau, baina, goian adierazi ditugun arrazoiengatik, zenbatzaile zehaztugabeak erabiltzen zituzten adibideak corpusetik kanpo uztea erabaki dugunez gero, Onaindiaren 4 adibide eta Saizarbitoriaren beste 5 ere kanpoan geratu dira; ez da honelakorik gertatu gainontzeko idazleekin, hau da, ZEIN/NON erlatibo guztiak pasatu dira corpusera.

### a. Izen propioa

Euskarazko perpaus erlatiboen balio semantiko murrizgarri edo ez-murrizgarriari buruz 2. kapituluko 2.2.1. puntuan jardun dugu, eta hemen, horregatik, mugatuko gara balio semantiko horri loturik dagoen beste puntu bat aztertzea, hau da, nolako izen ardatzari itsasten zaizkion klausula erlatiboak, edo, zehazkiago esanda, izenlagun gisa itsasten direnak, hots, erlatibo arrunta deitzen dena eta PE jokatu gabe arrunta.

Izan ere, hiru azpicorpusetan ( $C_2$ ,  $C_7$  eta  $C_{10}$ ), badira guztira 8 binomio zeinetan perpaus erlatiboa izen propio bati itsatsita dagoen, XTko PEEen baliokide,  $C_2$  azpicorpuseko 71. binomiotik ateratako adibide honetan bezala:

<b>Berak hainbeste miresten zituen</b> Soto eta Zeberioekin buruz buru mintzatzeko gai zela.	Era capaz de hablar de tú a tú con Soto y Zeberio, <b>a los que tanto admiraba.</b>
--	---

Zehaztu beharra dago, 8 adibide horietatik 5 corpus bakarrean daudela,  $C_2$ -an hain zuzen, eta, beraz, idazle horrek joera handiagoa duela era honetako egiturak erabiltzeko corpuseko besteek baino. Bestalde, geratzen diren 3 binomioetatik beste bi  $C_{10}$  azpicorpusekoak dira; eta, kontuan izanik bi idazle hauek gure azpicorpusean dauden idazleen bigarren belaunaldikoak direla, zantzu bat izan dezakegu hor hipotizatzeke izen propioari itsatsitako erlatibo arruntaren egitura hau azken garaian ari dela indarra hartzen euskaraz; guztiarekin ere, hipotesi horrek aparteko azterketa sakonagoa beharko luke, eta tesi honetatik eratorritako ikerketa-lerro posible bat izan liteke.

### b. Izen propioa + aposizioa

Beste alde batetik, badago aurreko egitura horren beste aldaera bat zeinean perpaus erlatiboaren ardatza [izen propioa + aposizioa] tankerako sintagma bat den. Egitura hau hiru azpicorpusetan ( $C_2$ ,  $C_4$  eta  $C_5$ ) eta 9 binomiotan aurkitu dugu, -N erlatiboarekin 8 aldiz eta PE jokatu gabe arruntarekin beste behin,  $C_4$  azpicorpusetik ateratako adibide honetan zehazki:

Markesaren eskuinaldean, berriz, aulki huts bat ageri zen, eta <b>azken orduko larrialdi baten deiak berandututako</b> Velasco sendagi-	A la derecha del anfitrión había una silla vacía, que correspondía al doctor Velasco, <b>quien, según explicó el marqués, había disculpado su</b>
---	---

leari zegokion, markesak argitu zuenez.	<b>tardanza</b> , debida a un contratiempo de última hora.
---	--

Egitura hau ere C<sub>2</sub> azpicorpusean agertzen da ugariago, lau aldiz zehazki, era honetan berresten delarik batez ere idazle honek duela era honetako egiturak erabiltzeko joera.

### c. Izen arrunta + erakuslea

Gure corpuseko 8 binomiotan, beharbada SH eta XHaren arteko baliokidetasun sintaktiko mailara igo litekeen baliokidetasun testual bat aurkitu dugu ST eta XT artean. Alegia, perpaus erlatiboaren ardatza izen batez eta erakusle batez osatutako sintagma bat denean, euskarazko testuetan perpaus erlatiboa sistematikoki izenlagun modura itsasten zaio izen ardatzari, erlatibo aposaturik erabili gabe, seguru aski kasu-atzizkien komuntadura deserosoak saihesteko; gaztelaniazko testuetan, aldiz, perpaus erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak osa daitezke egitura horrekin, baina C<sub>2</sub>, C<sub>4</sub> eta C<sub>5</sub>-eko XTetan sistematikoki PEEen egitura hobetsi dute itzultzaileek, 4-ko 62. binomio honetan bezala:

Espero zuena baino askoz ere zirrara handiagoa eragin zion <b>belaoztia irentsi behar zuela zirudien</b> itsaso zakar hark.	La visión de aquel mar embravecido, <b>que parecía querer tragarse la nave</b> , la estremecía más de lo que hubiera podido pensar.
---	---

Beraz, honelako testuinguruan euskarazko erlatiboak balio semantiko ez-murrizgarria duela esan liteke, izen ardatza erakuslearen bitartez baitago argi eta garbi zehaztua eta mugatua.

### d. Erlatiboak eta izen propioen erregimen sintaktikoa

Euskarazko perpaus erlatiboaren ardatza izen propio bat duten adibideen azalpenaren beste puntu batera aldatuz, uste dugu gure azterketak datu nahiko ematen dizkigula gure corpuseko idazleen halako joera bat hipotizatzeke, horrelako egituren erabilerari dagokionez; izan ere, azpicorpus bakoitzetik atera ditugun datuen arabera, corpus osoan 18 binomiotan agertzen da izen propioa, bera bakarrik nahiz aposatutako beste izen arrunt batekin,

perpaus erlatibo arrunt bati lotuta, 17 aldiz erlatibo arrunt jokatuari, eta behin bakarrik PE jokatu gabeari.

Bada, 18 horietatik 4 binomiotan<sup>162</sup> bakarrik erabiltzen dute corpuseko idazleek egitura hori kasu absolutiboan dagoen izen propio batekin; esan liteke, beraz, horrek irmoki iradokitzen duela gure corpuseko idazleek batez ere absolutiboa ez beste kasu-atzizkiak daramatzaten izen propioekin batez ere erabiltzen dutela erlatibo arrunta. Arrazoia, gure ustez, euskarazko erlatibo apositiboek duten ospe txarrean bilatu beharra dago. Izan ere, izen sintagma bati bi predikazio egin nahi zaizkionean, gaztelaniaz erraztasun handia dago PEEak erabiltzeko, eskuineranzko hedapen edo adarkadura eginez; euskaraz, ordea, erlatiboaren eskuineranzko hedapen hori egin ahal izateko, bi aukera nagusi daude: ZEIN/NON erlatiboa eta erlatibozko aposizioa. Baina, atal honetan ikusi dugu lehen aukera hori oso gutxi baliatzen dutela gure corpuseko idazleek, eta bigarrena batez ere absolutiboan dauden ISeKin erabiltzen dute batez ere. Hori dela eta, absolutiboan dagoen IS bat dutenean, aiseago jotzen dute erlatibozko aposiziora; eta, aldiz, ISak beste kasu-atzizki bat eramanean behar duenean, erlatibo arrunta aukeratzen dute. Edo, erlatiboa aukeratu beharrean, eskuineranzko hedapena egiten uzten duen beste baliabide sintaktiko bat hautatzen dute –gehienbat egitura parataktikoa, bai eta kausa edo modu perpausak ere eta, neurri txikiagoan, bestelako egitura hipotaktikoak–, 4.3.1.3. puntuan ikusi dugun bezala.

#### **4.3.1.3.4.2. Balio semantiko ez-murrizgarriko erlatibo arruntaren eragina XTko itzulpenetan**

Balio semantiko ez-murrizgarriarekin erabilitako erlatiboak gure corpusean duen ugaritasunak uste dugu eragina izan duela C<sub>2</sub>-ko 7 binomiotan, C<sub>6</sub>-ko 3tan, C<sub>7</sub>-ko 2tan eta C<sub>8</sub>ko beste batean XTan antzeman ditugun akats batzuetan, zeinen eraginez binomio horietako itzulpenetan PEEek izan behar duten koma-eten tipografikoa ez den egin, C<sub>8</sub>-ko 22. binomio honetan gertatzen den bezala:

<sup>162</sup> C<sub>2</sub>-ko 66 eta 68. binomioak; C<sub>5</sub>-eko 24. binomioa; eta C<sub>7</sub>-ko 47. binomioa. Absolutiboan ez dauden adibideak, aldiz, honakoetan daude: C<sub>2</sub>-ko 67, 69, 70, 71, 72, 73, 74 eta 75. C<sub>4</sub>-ko 60 eta 71 (azken hau erlatibo arrunt jokatu gaberekin. C<sub>5</sub>-eko 24. C<sub>7</sub>-ko 54 eta 60. Eta C<sub>10</sub>eko 17 eta 18. binomioak.

"Prestige" petrolio-ontziarena gertatu zenean bezala 2002an. <b>Letoniatik Gibraltar aldera zihuan ontzia</b> hondatu egin zen Galiziako kostan...	Como cuando, en el 2002, ocurrió lo del petrolero Prestige. El barco <b>que se dirigía desde Letonia a Gibraltar</b> sufrió una avería en la costa gallega...
--	---

Gure iritziz, XTko bigarren esaldian, PEaren aurrekaria kokapen anaforikoan dago lehen perpauseko izenarekiko, eta artikulua soila barik erakuslea eduki behar zuen (*Este barco*), edo, gutxienez, tarteki erlatiboa koma batez banatuta egon behar zuen (*El barco, que se dirigía desde Letonia a Gibraltar, sufrió...*). Gure ustez, euskarazko testuaren joskerak eragindako akatsa da, eta XTko perpaus hori PEEtzat hartu dugu, antzeko beste kasuetan egin dugun bezala, eta, arrazoi horretan oinarrituta, adibide baliagarri bezala hartu ditugu aintzat horiek denak gure corpusean.

#### 4.3.1.3.4.3. ZEIN/NON erlatiboa eta kasu-atzizkiak

Goian esan dugun bezala, erlatibo mota hau 14 binomiotan baino ez dugu aurkitu  $C_0$  osoan (%3,2), eta interesgarria izan daitekeen datua da 5 binomiotan NON adberbioa erabiltzen dela: behin  $C_1$ -en,  $-eN$  mende-ragailuarekin; eta bigarrena aldiz  $C_5$  eta  $C_7$ -n, beti BAIT menderagailua lagun duela. Bestalde, ZEIN izenordaina nagusiki genitiboan erabiltzen da, beste 5 binomiotan, ZEINAREN forma singularrarekin batez ere (ZEINEN forma behin agertzen baita,  $C_7$ -n)<sup>163</sup>. Beraz, erlatibo mota honek oso agerraldi gutxi izateaz gain, oso funtzio gutxitan ere erabiltzen da, gehienbat bi kasu horietara mugatuta; geratzen diren binomioetan, behin bakarrik agertzen da absolutiboan, ergatiboan eta iritzia emateko erabilitako destinatiboan, bai eta beste behin inesiboan ere, singularreko ZEINETAN formarekin. Azken kasu honi gagozkiolarik, argi geratzen da euskal idazleek inesiborako NON adberbio erlatiboaren erabileran hobesten dutela, ZEINEAN formaren gainetik.

Bestalde, erlatibo mota honen balio semantikoari eta komaren erabilerari dagokienez, adibide guztiak bat datoz: binomio guzti-guztietan, klausula


<sup>163</sup> Idazle honek bakarrik erabiltzen ditu ZEINEN, ZEINETAN... formak. Pluralean ere erabiltzen du, ZEINTZUEN formarekin, baina adibide hau corpusetik kanpo geratu da, hautaketarako irizpide bat betetzen ez zuelako: alegia, zenbatzaile zehaztugabe batzuekin erabiltzen zen.

erlatiboaren balioa ez-murrizgarria da, eta koma batez banatuta dago kanpoko izen ardatzetik.

#### 4.3.1.3.5. Hipotaxia

C<sub>0</sub>-ko gainontzeko binomioetatik 94tan, hipotaxia izeneko multzo honetan bildu ditugun STko bestelako mendeko perpausak dira XTn PEE bezala itzulita ematen direnak. Aipagarria da, hemen ere, mendeko perpaus hauek gaztelaniara itzultzeko orduan inolako arazorik ez dagoela baliokidetasun sintaktiko erabatekoa erdiesteko eta, ondorioz, XTan ere jatorrizkoen sintaxi berbera erabiltzeko, eta, hortaz, gure corpusa osatzen duten hiru itzulpen-tipologietan era honetako itzulpen parafrastikoak hobesteko arrazoia gaztelaniazko kanon sintaktikoan erlatibakuntzaz baliatzeko dagoen joera handiagoa dela, gure ustez.

XTan PEE bezala itzultzen diren egitura hipotaktikoen artean, bi perpaus mota dira C<sub>0</sub>-n nabarmenki gailentzen direnak: kausa perpausak eta modu perpausak, ondoko grafika honetan ikus daitekeen bezala:



16. grafika: ST bakoitzeko kausa perpausen eta modu perpausen ehunekoak.

#### 4.3.1.3.5.1. Kausa perpausak

Gramatikari askok seinalatu dute gaztelaniazko PEEen eta kausa perpausen arteko antzekotasuna. Alonso del Ríok (1963: 250), Alcina eta Blecuak (1975: 1024) edo M. E. del Campok (1998) adibidez, erlatibo espezifikatibo eta esplikatiboen arteko desberdintasuna azaltzean, PEEek balio kausala izan dezaketela diote. Lehendabizikoaren arabera, perpaus batzuekin zaila eta guzti izan daiteke zehaztea erlatiboak ala kausalak ote diren: horrela, *“Lee estos versos, que te gustarán”* esaldia bi modutara uler daiteke: *“Lee estos versos, porque te gustarán”* eta *“Lee estos versos, los cuales te gustarán”*.

Gure corpusean ikusi dugunaren arabera, XTetan honelako zentzu kausala duten PEEak topatu ditugunean, mendeko perpaus kausalak dira STetan erabiltzen direnak, 38 binomiotan zehazki (C<sub>0</sub>-ko %8,6an), eta bi ez beste azpicorpus guztietan eta itzulpen-tipologia guztietan. Hortaz, gaztelaniaz balio kausala duten PEEen eta euskarazko kausa perpausen artean baliokidetasun sintaktiko nahiko sendoa dagoela ondoriozta dezakegu, C<sub>4</sub>-ko 76. binomio honetan gertatzen den bezala:

Mathilde gelditu zen une batez, ez baitzuen Noraren inolako erreakziorik espero.	La sorpresa confundió a Mathilde, que no esperaba ninguna reacción de Nora.
--	---

STetako kausa perpaus horiek hartzen duten menderagailuari begiraturik, erabiliena BAIT da, alde handiz, ondoko taulan ikus dezakegun bezala:

Menderagailua	Zenbat binomio
BAIT-	25
-NEZ (GERO)	5
-LAKO	4
ETA	3
-ELAKOAN	1

9. taula: STetako kausa perpaus motak

Kapitulu honetan erlatiboari eskaini diogun zatian jada argitu dugu corpusean aurkitu ditugun BAIT- menderagailudun perpaus zentzu kausal nabarmena dutela, eta ez direla BAIT erlatibo motakoak.



Bestalde, STko kausa perpausen eta XTko PEEen arteko baliokidetasun hau ere oso maila desberdinean antzeman dugu azpicorpusen artean, badirelarik haietako bi honelako adibiderik ez dutenak, eta beste bi nahiko proportzio esanguratsua erakusten dutenak, 16. grafikan ikus zitekeen bezala.

Aztertu ditugun zortzi azpicorpusen arteko batez besteko erabilera-portzentajea txikia bada ere, nabarmentzekoa iruditzen zaigu kausa perpausak direla hiru STtan hirugarren egiturarik erabiliena<sup>164</sup>.

Beste alde batetik, STko kausa perpausari eskainitako atal hau bukatzeko esan dezagun baliokidetasun hau duten lau binomiotan –baina azpicorpus bakarrean ordea<sup>165</sup>–, STko kausa perpausetatik *sentential relative* tankerako erlatiboak atera direla, aurrekari gisa esaldiko lehen perpaus osoa dutenak alegia; haietatik hirutan, gainera, funtzio motibatiboa duten erlatiboak dira topatzen ditugunak, baina interesgarria da zehaztea hiru kasu horietatik bitan STko eta XTko perpausen ordena aldatuta dagoela, STko perpaus nagusia dena XTko mendekoa izanik, eta alderantziz, azpicorpus horretako 81 eta 82. binomio hauetan ikus dezakegun bezala:

Oso luzea zen ibilbide hura, eta zaldi bizkorrenek ere ez zuten kale osoa ibiltzeko astirik Nathanielek kalesa ikusi eta kalera irten bitarteko denbora labur hartan. Ez zirudien kale-bazterren batean gelditu zenik ere, <b>udaberriak artean berritu gabe baitzeuden ibilbidearen alboetako bi zurzuri-sailak.</b>	La primavera no había renovado aún el follaje de las dos hileras de álamos blancos que flanqueaban el camino, <b>por lo que el carruaje habría sido fácilmente visible en caso de haberse detenido en algún punto del arcén.</b>
Beroaren aldetik eroso egin zuten, bada, azkeneko uholdeek biluzik eta hartxintzarrez urraturik utzitako bidea, <b>eguerdialdera garbitu baitzituen eguzkiak muino eta mendi-mazeletako lanbroak.</b>	Sólo hacia el mediodía venció el sol a la niebla que se adhería a las laderas, <b>por lo que el calor no les estorbó en su viaje a través del camino descarnado por la grava que las recientes inundaciones habían arrastrado.</b>

#### 4.3.1.3.5.2. Modu perpausak

<sup>164</sup> C<sub>4</sub>, C<sub>8</sub> eta C<sub>10</sub>-n, zehazki, nahiz azken kasu honetan perpaus juntadurarekin batera.

<sup>165</sup> C<sub>4</sub>-ko 81, 82, 83 eta 86. binomioak.

Gure corpusean, STko modu perpausen eta XTko PEEen arteko baliokidetasuna ere badagoela ikusi dugu, 39 binomiotan zehazki, eta C<sub>0</sub> barruan portzentualki oso garrantzitsua ez dirudien arren (%8,9ra iristen da), aipagarria da azpicorpus batean (C<sub>5</sub>) binomio guztietatik %24,39ra iristen dela, azpicorpus horretako STko bigarren baliabiderik ugariena izanik, eta C<sub>7</sub> azpicorpusean ere badutela halako agerpen-maila esanguratsua. Guztira bost azpicorpusetan topatu dugu baliokidetasun hau, baina ez itzulpen-tipologia guztietan, autoitzulpenetan ez baitzaigu agertu, eta gorabehera handiekin azpicorpus batetik bestera, 16. grafikan ikus zitekeen bezala.

Baliokidetasun hau azaltzeko, kontuan izan beharra dago gaztelaniaz PEEen funtzio semantikoetako bat esaldiko perpaus nagusian kontatzen den predikazioa zernolako zertzeladetan gertatzen den adieraztea dela, edo, beste era sinpleago batean esanda, perpaus nagusiko predikazio hori nola gertatzen den. Hori iradokitzen du Osunak «*Las construcciones de relativo explicativas se refieren a estados de cosas*» (2005: 97)

Funtzio semantiko horrek hurbiltzen ditu ikuspuntu semantikotik STko modu perpausak eta XTko PEEak, halako kasu batzuetan bi perpaus mota horien arteko baliokidetasuna ahalbidetuz, C<sub>1</sub>-eko 32. binomio honetan gertatzen den moduan:

Donatien beragana zetorren, eta haren atzetik, <b>besoan saski bat zuela</b> , Livo.	Donatien caminaba hacia él, seguido de Livo, <b>que llevaba un cesto en el brazo</b> .
--	--

Bi bertsio hauetan, argi dirudi perpaus mota batak zein besteak adierazten dutela Livo hori nola zebilen Donatien atzetik. Bide batez, euskaraz –eLA menderagailu modala erlatiboaren kokapen berean joan daiteke esaldiaren barruan, eta guztiz egitura zuzena da hori, baina ez da nahasi behar euskal gramatika guztietan gaitzesten den –eLA menderagailuaren okerreko erabilera erlatibo apositiboarekin<sup>166</sup>. Horrela, ondoko a. perpausa zuzena da, eta okerra b. perpausa:

<sup>166</sup> Bidenabar esanda, gaztelaniazko *que* erlatiboaren eta *que* konpletiboaren nahasketan oinarritutako erabilera oker hau gero eta gehiago ari da zabaltzen ahozko euskararen, baina baita idatzian ere, euskarazko hezkuntza-sistemaren eraginez, besteak beste gure ustez irakaskuntzan ere ez delako

- a. *Haren atzetik Livo zetorren, besoan saski bat zuela.*  
 b. *\*Haren atzetik Livo zetorren, kapitainaren zerbitzaria zela.*

STko modu perpausen menderagailuaren gaiarekin jarraituz, gure corpusean bi dira nagusiki erabiltzen direnak: gehiena, partizipioari –Z atzizkia eransten diotenak; eta, ondoren, aditz forma jokatuari –eLA(RIK) atzizkia eransten diotenak.

Partizipioari itsatsita –Z kasu marka instrumentala duten STko perpausen kasuan, adibide batzuetan garbi dago mendeko perpausak funtzio modala duela eta esaldiko lehen predikazioa nola gertatzen den azaltzen duela, C<sub>4</sub>-ko 89. binomioan bezala:

Hautsak ematen hasi zitzaion gero, leun-leun, <b>masailen erditik abiatu, eta aurpegi osoan zirkulu gero eta zabalagoak eginez.</b>	A continuación comenzó a aplicarle los polvos de arroz, suavemente, en círculos cada vez más amplios, <b>que, desde el centro de las mejillas, iban extendiéndose a toda la cara.</b>
---	---

Baina beste hainbat adibidek moduaren kontzeptutik urrundu eta ondokotasun zentzua dute, edo, SEGen esaten den bezala<sup>167</sup>, «*ia zentzu ilatibo hutsa*» dute; edo, bestela esanda, emendiozko juntaduraren antzeko funtzioa betetzen dute. Honelakoak nahiko ugariak dira, batez ere C<sub>7</sub>-n; azpicorpus horretakoa da 97. binomio hau:

Horri esker, bihotz taupadak bizkortu eta indartu egiten dira, <b>oxigenoa bizkorrago igorritz.</b>	Por su acción, aumentan la frecuencia y energía del latido cardíaco, <b>lo que facilita un bombeo más rápido de la sangre.</b>
---	--

Bidenabar esan beharra dago SEGek aipatzen dituen zentzu ilatiboko modalak ez bezala, gure corpusean topatu ditugun era honetako modu perpausetako askotan esaldiko bigarren segmentuko perpausa dela egitura modala hartzen duena, lehen segmentuko predikazioaren ondorio zentzua

inolako ahaleginik egiten ZEIN/NON erlatiboaren erabilera formala suspertzeko, euskarazko testu-liburu gehienak lekuko.

<sup>167</sup> *Sareko Euskal Gramatika*: Modu perpaus jokatuabeak. On-line. Konsulta-data: 2016-03-05. [<http://www.ehu.eus/seg/morf/5/20/13/3>]

hartuz. Sarritan, gaztelaniaz gaitzesten den *“gerundio de posterioridad”* delakoaren lekuan erabilia ikusten da gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenetan.

#### **4.3.1.3.5.3. Bestelako egitura hipotaktikoak**

Azkenik, egitura hipotaktikoen artean sartu ditugun 94 binomio horietatik beste 17tan beste baliokidetasun batzuk daude STko baliabide batzuen eta XTko PEEen artean, baina denak binomio bakan batzuetara mugatuak: horrela, STetan badira helburu perpausak, denbora perpausak, kontzesio perpausak edo konparazio perpausak eta beste egitura sintaktiko apur batzuk PEE bezala erdaratuta, itzulpen parafrastikoetan; marratxo artean jarritako aparteko tarteki batzuk ere topatu ditugu euskaraz, parafrasi erlatibo bidez itzulita gaztelaniazko bertsioan. Baliokidetasun horietako bakoitza, ordea, ez da %1,5era ere iristen eta horregatik ez dugu haiei buruzko beste azterketarik egingo, azpicorpus bakoitzean egin dugunaz gain. Bakarrik, bai esango dugu egitura horiek berez inolako arazorik ez dutela gaztelaniaz bere hartan emateko, eta parafrasi erlatibo bidez itzuli badira, hori dela euskaratik gaztelaniarako itzulpenetan joera nahiko nabarmena dagoelako hizkuntza horretako erlatibakuntza mota honen erabilera-maila handiagora egokitzeko.


#### **4.3.1.3.5.4. Bestelako baliokidetasunak**

Corpusean aurkitu ditugun baliokidetasunekin bukatzeko, bestelako egitura batzuk aurkitu ditugu 4 binomiotan:  $C_7$  azpicorpusean, tartekian sartutako perpaus bakun bat eta azpicorpus horretxetan eta  $C_8$ an ere aurkitu ditugun perpaus predikatibo bana dira. Lauen artean, corpus osoaren %0,9ra baino ez dira iristen.

#### **4.3.1.4. $C_0$ -n topatu ditugun ST eta XTko itzulpen-baliokidetasunen laburpena**

Ikusi dugun bezala, tesi honetako azpicorpus bakoitzeko idazleek beren estilo berezia dute euskarazko testuetan eta XTetan PEE bitartez itzulita topatu ditugun euskarazko baliabide desberdinen erabilera-portzentajeak asko

aldatzen dira testu batetik bestera. Hala ere, uste dugu erabilera-ehunekoen batez bestekoa datu interesgarria izan daitekeela euskarazko eta gaztelaniazko erlatibakuntzari buruzko konparazio estilistiko-gramatikal moduko bat egiteko. C<sub>0</sub>-ko batez besteko hori 17. grafikan ikus dezakegu:



**17. grafika: C<sub>0</sub>-ko STetan erabilitako baliabideak.**

Goiko irudi honetan oso modu grafikoan ikus dezakegu gure corpuseko STetan baliabide ugari topatzen ditugula itzulpenetan PEE bezala itzulita, eta erlatibakuntza mota desberdinak askoz ere gutxiago erabiltzen direla euskaraz gaztelaniaz baino, baita aposizio multzoko adibideak ere sartuta: erlatiboa duten binomioak eta erlatibozko aposizioa dutenak<sup>168</sup> batuz gero, bien artean ez da adibideen erdira ere iristen. Bestetik, euskarazko testuetan, egitura parataktikoak, eta, bereziki, perpausen juntadurak, topatu ditugun baliabideen laurden inguruan agertu zaizkigu; eta sintagma suborazionalak gehituz gero, egitura parataktikoak heren bateraino iritsiko liriateke (%34,5). Are gehiago, aposizioak erlatiboaren gainean eraikita egoten direlako egitura horren parekotzat hartu beharrean, berez izen sintagmatzat hartuz gero, orduan STetako parataxiaren maila %50eraino iritsiko litzateke.

<sup>168</sup> Baina beti ere kontuan izanik aposizio gehienak erlatiboaren gainean eginak egoten direla, baina ez denak.

Datu hauetan oinarrituta esan dezakegu gure corpuseko euskarazko testuetan erlatibakuntza gutxiagoko kanon sintaktiko-estilistiko halako bat izaten dela nagusi, eta, ondorioz, testu horiek gaztelaniara itzultzen direnean, C<sub>3</sub> eta C<sub>9</sub> azpicorpusen salbuespenarekin, parafraasi erlatiboetara jotzen dela sarritan, hizkuntza horretan ohikoak izaten diren PEEak erabiltzeko, eta joera hori itzulpen-tipologia guztietan topatzen dela, ez bakarrik autoitzulpenetan, baita elkarlanean eginiko itzulpenetan eta itzulpen autografoetan ere. Hortaz, frogatuta geratu da, gure tesiaren gaiari dagokion neurrian, euskaratik gaztelaniara egindako literatura-itzulpen gehienak *“target-oriented translations”* direlakoan edo xede-kulturara egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen direla, arazo sintaktiko-estilistiko honi dagokionez; baina, orobat, badirela eredu horretara makurtzen ez diren itzulpenak ere, jatorrizkoaren estiloari eta joskerari eusten diotenak, *“source-oriented translations”* gisa eta, ustez kontrakoa espero zitekeen arren, ez direla itzulpen alografoak eredu horri jarraitzen diotenak, idazleen eskuhartze erabateko edo partzialarekin eginikoak baizik, hots, autoitzulpen bat eta elkarlanean eginiko itzulpen bat.

## TESIAREN KONKLUSIOAK

Tesi honetan, euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenaren azterketarako ekarpen bat egin nahi izan dugu, ardatz gisa erlatibakuntzaren arazoa, edo, zehazkiago, gaztelaniazko perpaus erlatibo esplikatibo edo ez-murrizgarriak, hartuz, euskal itzultzaileen lanean eta itzulpenaren irakaskuntzan aurkitzen den egitura sintaktikorik korapilatsuenetarikoa baita, bi hizkuntza hauen erlatibakuntza-sistemak nahiko desberdinak direlako gaur egun. Azterketa horretarako, bi hizkuntzen arteko Estilistika Konparatuaren eta Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboen metodologian oinarritu gara, euskal literatura garaikideko testu narratibo batzuen eta haien itzulpenen corpus bat erabiliz.

Egitasmo hau aurrera eramateko, lau kapitulutan banatu dugu gure lana:

Lehen kapituluan, gure ikerketaren marko teoriko eta metodologikoa finkatu dugu, oinarritzat hartu ditugun EKren eta IIDen abiapuntu eta eskema nagusiak aurkeztu eta beren testuinguru zientifikoan kokatzeko. EKren eredia hautatu dugu gure tesirako, uste dugulako euskararen eta gaztelaniaren erlatibakuntza-sistemen azterketa linguistiko konparatibo soila ez dela nahikoa estilistikoa ere baden erlatibakuntzaren itzulpen-arazoa argitzeko, eta, aldiz, jakintzagai hau lagungarria izan daitekeela hizkuntza bakoitzaren joera estilistikoak aurrez aurre jartzeko eta hizkuntza baten edo testu baten ikerketa elebakarrari ihes egiten dioten ezaugarri estruktural batzuk antzemateko ere.

Baina ikusi dugu, alabaina, EK tradizionalaren planteamenduak gaudituta geratu direla aspaldian, haien izaera arauemailea ez delako nahikoa itzulpenaren konplexutasun osoa azaltzeko eta, orobat, itzulpenaren jarduera

profesional eta akademikorako aplikatzeko moduko emaitza baliagarri gutxi ematen dutelako. Horregatik, Álvarez Lugiñen proposamenari atxikiz, EKren iker-eredua IIDen abiapuntu eta metodologiarekin uztartu eta osatu dugu, itzulpenaren alorreko fenomeno asko ulertu ahal izateko behar-beharrezkoa delako itzulpen-ekintza errealetera eta egiazko testuez osaturiko corpus batera jotzea eta itzulpenaren azterketa deskriptiboa egitea, lehendabizi Polisistemaren teoriaren arabera itzulpena gobernatzen duten *Initial norm* edo "hasierako araua" eta *Preliminary norms* edo "aldez aurretiko arau" edo harrera-arauak ezagutzeko eta, ondoren, itzulpen-prozesuaren gorabehera desberdinak azaltzen dituzten *Operational norms* edo "jarduera-arauak" argitzeko.

Bigarren kapituluak, gaztelaniazko eta euskarazko gramatiketan erlatiboak nola sailkatu eta deskribatu diren eta euskaraz egin diren itzulpen-ikerketetan erlatibakuntzaren arazoa nola islatu den aztertzen dugu, bi erlatibakuntza-sistemak aurrez aurre jartzeko helburuz. Ikusi dugu gure azterketarako hautatu dugun ikerketa-unitatea, perpaus erlatibo esplikatibo edo ez-murriztailea, nahiko zehatz dagoela mugarrituta gaztelaniazko gramatiketan, nahiz badiren erlatibakuntza-sistemaren deskribapen konplexuagoak egin dituzten proposamenak, bai eta terminologiarekin lotutako arazo batzuk ere; aldiz, euskararen esparruan, ikusi dugu erlatibakuntzari buruzko gramatika-lan zaharretan nagusi zen garbizaletasun sintaktikoaren eraginez euskal erlatiboari buruz egiten ziren deskribapenak partzialak zirela, nahiko bazterturik uzten zituztelako erlatibo apositiba mota desberdinak –ZEIN/NON erlatiboa bereziki–, euskara idatziaren historian tradizio ezin handiagoa eduki arren literatura-euskalki guztietan; eta, gramatikarien lan modernoetan, berriz, garrantzi handiagoa eman zaiola erlatibo arrunta deitzen denaren mekanismo edo arauak aztertzeari eta bereziki zein kasu diren erlatibagarri argitzeari, erlatiboaren balio semantikoari baino, eta, gainera, honi dagokionez, desadostasunak ere badaudela oraindik ere aztertzaileen artean.

Kapitulu honetan, halaber, euskaraz egin diren itzulpen-ikerketa apurretan erlatibakuntzaren gaia nola landu den ere birpasatu dugu, eta, horrela, ikerketa deskriptibo batzuen emaitzak ikusi ditugu; haien bitartez, garbizaletasun sintaktikoaren ondorioz gaztelaniatik euskarara egindako



itzulpen-corpus mugatu batean itzultzaileek erlatibo apositiboak saihestuz gaztelaniazko erlatibo esplikatiboak euskaratzeko erabiltzen zituzten baliabide sintaktiko desberdinak ikusi ditugu, bai eta errusieratik euskarara egindako literatura-itzulpenen corpus moderno eta zabalago bateko itzultzaileek erabilitako estrategiak eta baliokidetasunak ezagutu ere; azken ikerketa honen bidez, jakin dugu itzulpen-corpus horretan ZEIN/NON erlatiboaren erabilera %13raino iristen dela, hau da, hiru aldiz handiagoa dela gure corpuseko euskarazko jatorrizko testuetan aurkitu duguna (%3,2) baino; eta itzulpenetako proportzio handiago hori bat datorrela baliabide sintaktiko horren erabileraren aldeko jarrera eduki arren, batez ere itzulpengintzarako edo testu tekniko eta konplexuenerako gomendatzen dutenen planteamenduarekin.

Desberdintasun horretan oinarriturik planteatu dugu –oraindik gehiago sakondu beharreko hipotesi gisa– halako kanon sintaktiko bikoitza, eta beraz halako prosa-eredu bikoitza, ez ote den nolabait sustatzen ari euskarazko literaturan: erlatibakuntza gutxiagoko kanon bat jatorrizko sorlanetarako, eta erlatibakuntza apositibo gehiagoko beste bat itzulitako lanetarako, zehaztasunaren izenean eta egilearen estiloarekiko leialtasunaren izenean (implizituki *target-oriented translations* direlakoak aldarrikatuz) jatorrizko hizkuntzako erlatibakuntza-estilo konplexuagoa erabili beharko lukeena. Eta, honi dagokionez, gure iritzia eman dugu, alegia, gure hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa kontuan harturik, ez zaigula iruditzen horrelako kanon edo prosa-eredu bikoitza komenigarria denik, ez euskararentzat, ezta euskarazko itzulpenek euskal literatura-sistemaren barruan duten harreraren eta prestigioaren aldetik ere.

Hirugarren kapitulua euskaratik gaztelaniara itzulitako literaturaren ezaugarri kuantitatibo eta tipologikoen azalpenari eskaini diogu. Horrela, norabide honetako itzulpengintzaren azken lau hamarkadotako zenbaki urriak eta bilakaeraren ezaugarriak ezagutzeaz gain, ikusi dugu era honetako itzulpen gehienak Hego Euskal Herriko gaztelaniazko xede-kultura endogenoa deitu dugunera zuzenduta daudela, hau da, euskararen eremu geografikoaren barruko erdaldunei; eta, gainera, denborarekin, eta seguru aski EAEko erakundeen patrozinioaren eraginez, itzulpen endogeno horiek nagusitasun nabaria hartzen ari direla gaztelaniazko xede-kultura exogenora

zuzendutakoen gainetik. Edo, bestela esanda, azken garaiotan euskarazko literatura-lanen gaztelaniazko itzulpenak nagusiki euskal argialetxeak ari direla bultzatzen euskal merkatu erdaldunarentzat.

Horren eraginez, ikusi dugu Euskal Herritik kanpoko argialetxe espainiarrek euskal idazlerik kanonizatuenen lanak itzultzeko interesa erakutsi dutela bakarrik, eta, gainera, bilakaeraren ikuspuntutik begiratuta, idazle horietako batzuen lanen itzulpenak jada ez direla ateratzen kanpoko argialetxe horietan, euskal argialetxeetan baizik, eta, beraz, ustez, zabalkunde askoz gutxiagorekin. Horren eraginari buruz dugun ustea jarri dugu kapitulu honetan: alegia, kaltegarria izan daitekeela gure literatura atzerrian ezagutzera ematen jarraitzeko, orain arte behintzat Espainiako argialetxeek bultzatutako itzulpenak izan direlako beste merkatuetara iritsi ahal izateko bide edo zubia, eta ez dirudielako euskal literatura-sistemaren zabalkunde-indarra nahikoa denik helburu horretan Espainiako literatura-sistema ordezkatzeko.

Bestalde, kapitulu honetan, egiletasunaren aldetik dauden itzulpen-tipologia desberdinei buruz egin diren deskribapenak gogoratu ditugu, eta teorialarien arabera euskararena bezalako egoera diglosikoetan dauden hizkuntza gutxituetan egiten den itzulpengintzaren izaera diglosikoa aipatu dugu, batez ere autoitzulpengintzaren fenomenoaz azpimarratuz, besteak beste egitate horrek zuzeneko eragina duelako ez bakarrik itzulpenen harrera-arauetan, baina baita jarduera-arauetan ere, itzulpena egiteko moduan, alegia, bai maila testualean eta baita maila linguistikoan ere. Zentzu honetan, euskarazko Haur eta Gazte Literatura alorreko autoitzulpengintzaren estrategiei buruz dagoen bibliografiaren ondorioak ekarri ditugu, gure corpuseko lanen azterketatik ateratako emaitzekin konparatzeko, bereziki interesatzen baitzitzaigun ikustea ea gure corpusean ere aurkituko ote genituen estrategia horiek, eta, aurkituz gero, ea autoitzulpenetan bakarrik ala beste tipologietan ere aurkituko ote genituen.

Azkenik, laugarren kapitulua da gure corpusaren analisiari eta analisi horren emaitzei eskaini dieguna. Horretarako, lehen-lehenik, euskara-gaztelania literatura-itzulpenen katalogoan oinarriturik ikertuko genuen corpusa osatzeko erabili ditugun baldintzak azaldu ditugu; lehendabiziko

erabakia izan da gaztelaniazko xede-sistema literario exogenoan ateratako itzulpenak izango zirela aztertuko genituenak, nahiago genuelako literatura-sistema horrek berak bere ohiko irizpide editorial, kanon linguistiko, zuzentze-protokolo, onargarritasun-irizpide eta abarrekin bultzatutako itzulpenak izatea; gainera, gure azterketaren emaitzak errealitatearen isla ahalik eta zehatzena izateko asmoz, baina baita corpus maneigarriago bat lortze aldera ere, erabaki dugu gaztelaniazko literatura-sistema exogeno horren barruko argitaletxeren batean gutxienez bi narrazio-liburu itzuliak zeuzkaten autoreak bakarrik aztertuko genituela, hartara gehiago bermatuko litzatekeelako, gure ustez, autore horien lanen itzulpena homologagarritzat jotzen dela literatura-sistema horretan, honek bere baitan hartzen dituen beste itzulpenekiko.

Modu horretan, gainera, gure corpuseko idazle eta itzulpenen izaera kanonizatua ziurtatzen genuen, literaturaren soziologiako kontzeptua gureganatuz, uste dugulako literatura kanonizatuak baduela eraginik hizkuntzaren kanonean eta, hortaz, tesian landu nahi genuen aztergaietan. Corpora osatzeko jarritako baldintzak betetzen zituzten 10 idazleen lan bana aukeratu ondoren, haietako bakoitzaren azpicorpusaren analisi xehea egin dugu, hiru zatitan banatuta: batetik, xede-testuari dagokion itzulpen-tipologia zehaztu dugu; ondoren, azpicorpusetik ateratako binomio guztien sailkapena egin dugu ST eta XTen artean topatu ditugun itzulpen-baliokidetasunen arabera; eta, azkenik, baliokidetasun horietatik ondorioztatu dugu zein baliabide sintaktiko erabiltzen diren euskarazko jatorrizko testuetan, gaztelaniazko itzulpenetan perpaus erlatibo esplikatiboen bidez itzulita daudenak.

Horrela, hamar azpicorpusen banakako azterketaren emaitzetan oinarrituz, corpus osoaren analisi bateratua egin dugu, eta orain aurkeztuko ditugunak dira tesi honetatik atera ditugun konklusioak:

a) Itzulpena gobernatzen duten araei dagokienez:

- Itzulpenaren egiletasunaren ikuspuntutik, ikusi dugu jatorrizko idazleek itzulpenetan duten eskuhartze-maila nahiko handia dela: corpora osatzeko hautatu ditugun hamar lanetatik hiru autoitzulpenak dira eta beste bi,

idazlearen eta beste itzultzaile baten arteko lankidetzan egindako itzulpenak. Datu hau Casanova, Dasilva edo Manterola bezalako ikertzaileen arabera egoera diglosikoan dauden hizkuntzetako literatura itzuliak dituen ezaugarriekin bat dator.

- Hiru autoitzulpenetatik bitan eta elkarlanean eginiko bi itzulpenetatik batean topatu ditugu idazleen berridazketa-estrategiak: zehazki, jatorrizko testuetan ez dauden osagai narratibo batzuen gehiketak, tamaina desberdinekoak, hasi segmentu erlatiboren bat duten perpaus soil edo paragrafoetatik eta orri batzuetako pasarte handi bateraino ere; azpicorpusen batean, gainera, STan eta XTan kokapen desberdinetan dagoen atalen bat ere aurkitu dugu. Honelako gehiketa eta aldaketak portzentualki gehien erabiltzen dituzten XTak Atxagaren lankidetzarekin egindako itzulpena (C<sub>1</sub> azpicorpusa) eta Zalduak egindako autoitzulpena (C<sub>10</sub> azpicorpusa) dira. Honelako berridazketa-estrategiek bigarren bertsioak izatetik hurbil jartzen dituzte itzulpen hauek. Hau ere egoera diglosikoan dauden hizkuntzetako literatura itzuliaren ezaugarri bat da.

- Alografotzat jotzekoak diren beste bost itzulpenetatik bitan gutxienez ere topatu ditugu orain arteko bibliografian –eta, euskararen esparruari dagokionez, López Gaseniren azterlanetan– autoitzulpenaren ezaugarritzat ematen zen osagai testual edo narratiboen gehiketa (gure bilaketa perpaus erlatibo esplikatiboren bat duten segmentuetara mugatu dugularik). Tamaina desberdinekoak –perpaus soilak edo paragrafoak ez ezik, baita atal osoak ere izan daitezkeela ikusi dugu– diren segmentu horiek euskarazko STetan ez dauden testu-zatiak izanik, ondorioztatu beharra dago itzulpen alografoetako batzuetan behintzat ere susma daitekeela idazleen eskuhartzea. Gure ustez, eskuhartze hori euskal literatura-sistemaren tamaina txikiak errazten dituen idazle eta itzultzaileen arteko harreman hurbilek eragindakoa da, eta agerian jartzen du euskal idazleek neurri handi samarrean atxikitzen dutela beren lanen gaztelaniarako itzulpen-prozesuaren gaineko kontrola.

- Gaztelaniazko XTen artean gorabeherak dauden arren, euskaratik egindako itzulpenotako perpaus erlatibo esplikatiboen kopurua nahiko txikia da, 100 orrialdeko batez besteko kopurua 17,7raino bakarrik iristen baita; kasu


pare batean, gainera, C<sub>3</sub> eta C<sub>9</sub> azpicorpusetan zehazki, gaztelaniazko jatorrizko testuetan anormalki baxua dirudien kopuru txikia dute. Gure ustez, badirudi euskaratik gaztelaniara egindako itzulpenen ezaugarri sintaktiko-estilistikoetako bat dela PEE kopuru txikia egotea XTetan, era horretako egiturak literatura-euskara garaikidean ere oso gutxi erabiltzearen ondorioz eta, beraz, gaur egungo euskal idazleek beste era bateko joskera nahiago izatearen ondorioz. Ezaugarri hau, gainera, itzulpen-tipologia guztietan antzeman dugu eta, beraz, orokorra da.

- Bi azpicorpusetan, Unai Elorriagaren eta Arantxa Urretabizkaiaren lanen itzulpenetan (C<sub>3</sub> eta C<sub>9</sub> azpicorpusetan) zehazki, jatorrizkoaren estiloari, eta, beraz, *source-oriented translations* direlakoan "egokitasun" parametroari eusten dien itzulpen-estrategiatzat hartu behar dugu gaztelaniazko XTetan PEE kopuru anormalki baxua aurkitu izana. Kasu honetakoak autoitzulpen bat eta elkarlanean egindako itzulpen bat dira; beraz, "egokitasuna"ren parametroa era honetako itzulpen-tipologietan ere topa daiteke eta ez bakarrik itzulpen alografo batzuetan.

b) Sorburu-testuen eta xede-testuen arteko itzulpen-baliokidetasunei dagokienez:

- Beheko grafikan ikus daiteke portzentajetan adierazita gure corpuseko STetan euskal idazleek erabilitako zein egituretatik ateratzen diren XTetan aurkitu ditugun gaztelaniazko perpauk erlatibo esplikatiboak:

### STetan erabilitako baliabideak



- STetako egitura erlatibo desberdinak eta erlatibozko aposizioak batuz gero, XTetako PEEkiko baliokidetasun sintaktikoa deitzen dugunaren ehunekoa %43,5 ingurukoa da batez beste; hau da, gaztelaniaz topatu ditugun erlatibo esplikatiboen erdia ere ez da ateratzen euskarazko egitura erlatiboetatik. Beraz, argi geratu da euskarazko testuetan erlatibakuntza erabiltzeko joera txikiagoa dela gaztelaniazko testuetan baino.

- Horrenbestez, gaztelaniazko itzulpenetan egitura parafrastiko erlatiboak erabiltzeko joera handia dago; hots, euskarazko egitura sintaktiko ez-erlatiboak erlatibo esplikatiboekin itzultzeko joera. Batez beste, corpus osoan topatu ditugun binomio guztietatik %56,5tan aurkitu dugu horrelako itzulpen parafrastikoak egiteko joera hori. Erregularitasun hau, gainera, orokorra da, itzulpen-tipologia guztietan antzeman dugu.

- Perpaus juntaduraren eta sintagma suborazionalen erabilera parataxiatzat harturik, egitura parataktikoak dira bigarren prozedurarik erabiliena sorburu-testuetan, %34,5arekin.

- Egitura hipotaktiko ez-erlatiboen erabilera nahiko handia da, binomio guztien artetik %21 inguruan topatu baitugu, haien barruan modu perpausak

eta kausa perpausak izanik egiturarik erabilienak, %9,1 eta %8,6 hurrenez hurren (%17,7, bien artean).

Datu hauetan guztietan oinarrituta, honako konklusio orokorrak atera ditzakegu:

- 1) Frogatuta geratu da, gure tesiaren gaiari dagokion neurrian, euskaratik gaztelaniara egindako literatura-itzulpen gehienak "*target-oriented translations*" direlakoan edo xede-kulturara egokitutako itzulpengintzaren parametroetan kokatzen direla, aztertu dugun erlatibakuntzaren arazo sintaktiko-estilistiko jakin honi dagokionez; baina, orobat, badirela eredu horretara makurtzen ez diren itzulpenak ere, jatorrizkoaren estiloari eta joskerari eusten diotenak, "*source-oriented translations*" gisa eta, ustez kontrakoa espero zitekeen arren, ez direla beti itzulpen alografoak eredu horri jarraitzen diotenak, idazleen eskuhartze erabateko edo partzialarekin eginikoak baizik, hots, autoitzulpen bat eta elkarlanean eginiko itzulpen bat.
- 2) Gure corpuseko euskarazko testu guztietan erlatibakuntza gutxiagoko kanon sintaktiko-estilistiko halako bat da nagusi, eta, ondorioz, testu horietako gehienak gaztelaniara itzultzen direnean parafraisi erlatiboetara jotzen da sarritan, hizkuntza horretan ohikoak izaten diren PEEak erabiliz, eta erregulartasun hori itzulpen-tipologia guztietan topatzen dela, ez bakarrik autoitzulpenetan, baita elkarlanean eginiko itzulpenetan eta itzulpen autografoetan ere.

Hortaz, tesi honen bidez frogatuta geratu da erlatibakuntza mota desberdinen erabilerari dagokionez, literatura alorrean euskararen eta gaztelaniaren kanon sintaktiko-estilistikoak desberdinak direla gaur egun; horretan oinarrituta, zalantzarik gabekoa iruditzen zaigu erlatibakuntza mota honetan datzala gaur egungo euskararen eta gaztelaniaren arteko desberdintasun sintaktiko-estilistikorik handienetako bat. Gure iritziz, tesian zehar azaldu ditugun arrazoiengatik, desberdintasun hori ez da oinarritzen soilik bi hizkuntzen tipologia linguistikoan, badituelako sustrai historiko eta ideologikoak ere, XX. mende hasieraren inguruan sortutako garbizaletasunaren

ideologia linguistikoari lotuak, zeinaren eraginez ordura arte euskara idatzian erabiltzen zen erlatibakuntza-eredua guztiz eraldatu eta inguruko kultura-hizkuntzen ohiko eredutik urrundu baitzen, tesian zehar ikusi ditugun ondorio linguistiko eta estilistiko nabarmenekin.

Honen guztiaren atzean dagoena euskarak duen egitura erlatibo apositiboaren –ZEIN/NON erlatiboaren– erabilera oso urria da, adibide guztien %3,2arekin soilik, egitura horrek oraindik jarraitzen duelako estigmatizaturik egoten planteamendu garbizaleen artetik arrakastarik handiena lortu zuen *antizeñismo* delakoaren ondorioz. Beste alde batetik, era honetako egitura apositiboek euskarazko testuetan duten maiztasun txikiaren eraginez eta, beraz, egitura parataktikoen eta egitura hipotaktiko ez-erlatiboaren erabilera handiagatik, euskaratik gaztelaniara egindako literatura-itzulpenen ezaugarrietako bat da itzulpen horietako perpaus erlatibo esplikatiboen urritasuna, gaztelaniazko literatura-testuetan baino nabarmenki gutxiago erabiltzen baitira, gaztelaniara beste hizkuntza batetik egindako itzulpen batetik ateratako datuak erakutsi duen bezala; onartzen dugu, hala ere, datu hau gehiago kontrastatu beharra dagoela eta corpus zabalago baten azterketak baieztatu beharko lukeela tesi honetan hipotesi mailan utziko dugun egitate hau.

Gauzak horrela, gure tesian frogatuta utzi dugu ezaugarri eta joera hori corpuseko euskarazko testu guztiek partekatzen dutela, hainbesteraire ere non halako kanon sintaktiko-estilistiko orokor batez hitz egin daitekeela iruditzen baitzaigu; gainera, kanon hori, ikusi dugun bezala oso sustraituta egoteaz gain, diakronikoki transmititu ere egiten ari da, gure corpora osatzen duten euskal idazleen artean bereiz daitezkeen bi belaunaldietan aurkitzen baita, bai bere literatura-euskara XX. mendeko 80ko hamarkada inguruan autodidaktikoki finkatu zuen lehen idazle-belaunaldian (Atxaga, Lertxundi, Onaindia, Saizarbitoria eta Urretabizkaia), bai euskarazko eredu idatzi landua aurreko belaunaldi horrengandik eta eskolaren bitartez jaso zuen bigarren belaunaldian ere (Cano, Elorriaga, Rodriguez, Uribe eta Zaldua).

Bestalde, egitate horri XTen ikuspuntutik begiratuta, ikusi dugu euskaraz nagusi den kanon sintaktiko-estilistiko hori itzultzeko orduan, itzulpen



gehienak xede-hizkuntzan eta xede-sistema literarioan ohikoa den eredu sintaktikoki konplexuagora moldatzen direla, jatorrizko testuetan baino egitura erlatibo esplikatibo gehiago erabiliz; hau da, XSaren onargarritasunaren aldeko joera dela nagusi itzulpen horietan, eta, gainera, joera hori ez dela mugatzen euskal idazleek beraiek eginikoak diren autoitzulpenetara, zeren eta itzulpen alografoetan eta elkarlanean eginiko itzulpenetan ere antzeman baitugu. Hortaz, joera hori euskaratik gaztelaniara egindako literatura-itzulpenaren erregulartasun orokortzat har dezakegula iruditzen zaigu, nahiz eta egia izan beste itzulpen batzuetan, corpuseko hamarretatik bitan bakarrik, horrelako joerarik ez dagoela eta itzulpen horiek jatorrizko testuaren edo hizkuntzaren ezaugarri estilistikoei eusten dietela, egokitasunaren aldera makurtuz.

Azkenik, gure ustez, frogatuta geratu da Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboaren metodologian oinarritutako Estilistika Konparatua tresna eraginkorra izan daitekeela itzulpen-arazo desberdinen azterketarako eta aplikazio teoriko eta praktiko baliagarriak izan ditzakeela itzulpenaren didaktikarako ere. Zentzu horretan, lan interesgarri bat erator liteke tesi honetatik, euskararen eta gaztelaniaren arteko konparazio estilistiko-gramatikala egiten jarraitzeko: alegia, tresna metodologiko honetan oinarriturik aztertzea ea gaztelaniatik edo antzeko hizkuntzetatik egiten diren euskarazko itzulpenak ere kokatzen diren XKra egokitutako itzul-pengintzaren parametroetan erlatibakuntza mota honi dagokionez –eta, beraz, ea bat ote datozen tesi honetako idazleen lanetan ikusi dugun kanonarekin–, ala *“source-oriented translation”* direlakoan artean kokatzekoak ote diren, beti ere tesi honetan aztertu dugun arazo sintaktiko-estilistikoari dagokionez. Tesi honetako bigarren kapituluko 2.3. puntuan ikusi dugun bezala, azken posibilitate horren zantzuak behintzat badaude, eta horrelako lanik noizbait egin eta zantzu horiek egiaztatzen badira, errealitate bat izango da erlatibakuntzari dagokionez kanon sintaktiko bikoitza erabiltzen dela gaur egungo euskarazko literaturan, erlatibakuntza gutxiagoko edo sinpleagoko kanon bat jatorrizko sorlanetarako, eta erlatibakuntza gehiagoko edo konplexuagoko beste kanon bat itzulitako lanetarako.

## ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- AIERBE, Axun (2008): *Itzulpengintza-estrategiak*. Zarautz: EHUren argitalpen zerbitzua.
- ALARCOS LLORACH, Emilio (1994): *Gramática de la lengua española*. Madrid: Real Academia Española, Espasa Calpe.
- ALBERDI, Xabier & GARCÍA, Julio. (1996): «Zein (...) bait-/n egitura», in *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*, Igone Zabala (koord.). Bilbo: EHU Argitalpen Zerbitzua.
- ALBERDI, Xabier & SARASOLA, Ibon (2001): *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua.
- ALCINA, Juan & BLECUA, José Manuel (1975): *Gramática española*. Barcelona: Ariel.
- ALONSO DEL RÍO, J. (1963): *Gramática española*. Madrid: Ediciones Giner.
- ALONSO, Amado & HENRÍQUEZ UREÑA, Pedro (1971[1938]): *Gramática castellana. Segundo curso*. Buenos Aires: Losada.
- ALTONAGA, Kepa (2015): *Back to Leizarraga*. Iruñea: Pamiela.
- ÁLVAREZ LUGRÍS, Alberto (1998): «Notas para a definición dunha Estilística Comparada da Traducción», *Viceversa. Revista Galega de Traducción*, 4, 25-40.
- (2001): *Estilística Comparada da Traducción. Proposta metodolóxica e aplicación práctica ó estudio do corpus TECTRA de traduccions do inglés ó galego*. Vigo: Universidade de Vigo, Servicio de Publicacións.
- AMURIZA, Xabier (2010): *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Oiartzun: Lanku.
- (2012): *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako*. Andoain: Lanku.
- ATIENZA CERESO, Encarna & LÓPEZ FERRERO, CARMEN (1997): «Caracterización sintáctica del discurso escrito por aspirantes a estudios universitarios» in *Estudios de Lingüística aplicada* (ed. José Luis Otal, Inmaculada Fortanet eta Victòria Codina), 581-586. Castelló de la Plana: Universitat Jaume I.

- BARAMBONES, Josu (2010): *La traducción audiovisual en ETB-1: Estudio Descriptivo de la Programación Infantil y Juvenil*. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- BASSNETT, Susan & LEFEVERE, André (arg.) (1990): *Translation, History and Culture*. London: Pinter.
- BELL, Roger (1991): *Translation and Translating Theory and Practice*. London/New York: Longman.
- BELLO, Andrés (1847): *Gramática de la lengua castellana destinada al uso de los americanos*. Santiago de Chile: Imprenta del Progreso.
- BENEGAS, Mercedes (2006): «Aposición oracional relativa: tipos y especificidades». Tonos digital: Revista electrónica de estudios filológicos, ISSN-e 1577-6921, 12. zkia.
- BERMAN, Antoine (1984): *L'épreuve de l'étranger: Culture et traduction dans l'Allemagne romantique*. Paris: Gallimard.
- BIGURI, Koldo (1994): «Erdarazko erlatiboen itzulpenaz», *Senez* 15: 37-71.
- BRUCART, José María (1999): «La estructura general de la cláusula relativa». En Ignacio Bosque y Violeta Demonte: *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa. Vol. I, pp. 395-521.
- CALVET, Louis-Jean (1999): *Pour une écologie des langues du monde*. Paris: Plon.
- CAMINO, Iñaki (1997): *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Saila.
- CAMPO, M<sup>a</sup> Teresa del (1998): *Las construcciones causales en español*. Oviedo: Universidad de Oviedo.
- CARY, Edmond (1956): *La traduction dans le monde moderne*. Geneva: Université de Genève.
- CASANOVA, Pascale (1999): *La République mondiale des Lettres*. Paris: Seuil.
- (2002): «Consécration et accumulation de capitale littéraire. La traduction comme échange inégal», *Actes de la recherche en sciences sociales* 2002/4 (144 zkia.), 7-20.
- CATFORD, John C. (1965): *A Linguistic Theory of Translation*, Oxford: O.U.P.
- CHESTERMAN, Andrew (1997): *Memes of Translation. The Spread of Ideas in Translation Theory*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- CHOMSKY, Noam (1977): *Essays on Form and Interpretation*. New York: Elsevier North-Holland.

- CID, Carlos (1987): «Euskal erlatibo motak», ASJU 21-2, 599-627 orr.
- (1994): *Tipología de la relativización en vasco, checo y español: cotejo de las lenguas románicas, eslavas y vasca respecto a ciertos fenómenos relativos*. Dok. tesi argitaragabea.
- (2015): «Autotraducción literaria desde el vasco», *Revista de Filología Románica*, IX. gehigarria: Literaturas ibéricas. Teoría, historia y crítica comparativas, Universidad Complutense de Madrid, 177-192, ISSN 0212-999X.
- «Catálogo de literatura vasca traducida al castellano (narrativa y poesía para adultos» [On line. Kontsulta data: 2015-03-05. <https://cv4.ucm.es/moodle/mod/page/view.php?id=1003897&inpopup=1>]
- DASILVA, Xosé Manuel (2009): «Autotraducirse en Galicia: ¿bilingüismo o diglosia?», *Quaderns*, 16. zkia., 143-156.
- (2011): «La autotraducción transparente y la autotraducción opaca», in Xosé Manuel Dasilva; Helena Tanqueiro, eds., *Aproximaciones a la autotraducción*. Vigo: Editorial Academia del Hispanismo, 45-67.
- DE LA FUENTE, Miguel Ángel (2008): «La puntuación de las relativas de nombres propios», *Especulo. Revista de estudios literarios* aldizkari digitala, 37 (XII). Madrid: Universidad Complutense. [Kontsulta-data: 2016-02-24. <http://www.ucm.es/info/especulo/numero37/relativa.html>]
- DELISLE, Jean (1980): *L'analyse du discours comme méthode de traduction. Initiation à la traduction française de textes pragmatiques anglais. Théorie et pratique*. Ottawa: University of Ottawa Press.
- DE RIJK, Rudolf (1972) *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*. Massachusetts Institute of Technology.
- (1980): «Erlatiboak idazle zaharrengan», *Eushera* XXV-2, 525-536.
- DE VRIES, Mark (2007): «Invisible constituents? Parentheses as B-merged Adverbial Phrases», in DEHÉ, Nicole & KAVALOVA, Yordanka (arg.) *Parentheticals*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company, Benjamins Translation Library.
- DÍAZ CINTAS, Jorge (2005): «Teoría y traducción audiovisual», in ZABALBEASKOA, Patrick et al. (arg.) *La traducción audiovisual: Investigación, enseñanza y profesión*. Granada: Comares, 9-21.
- D'INTRONO, Francesco (1979): *Sintaxis transformacional del español*. Madrid: Cátedra.
- DI TULLIO, Ángela (1997): *Manual de gramática española*. Buenos Aires:Edicial.

- EGIA, Gotzon (1999): «Anjel Lertxundi eta Jorge Giménez Bech: idazlea eta bere itzultzailea», *Senez* 21, 113-131.
- ELORRIAGA, Unai (2008): «Idazlea itzultzaile», *Senez* 35, 181-187.
- ESTORNES, José (1985): «Zoilo'ren uzta. Zaraitzu'ko uskara», in *Fontes Linguae Vasconum* 45-46, 31-93. orriak.
- ETXAIDE, Ignazio Maria (1912): *Sintaxis del Idioma Euskaro*. Donostia: J. Baroja.
- ETXEBERRIA, Hasier (2002): *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Irun: Alberdania.
- ETXEZARRETA, Eustasio (1981): «Euskal Elizbarruti arteko Itun Berria», *Euskera XXVI*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (1985): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I (mendeko perpausak)*. EGLU-I. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1990): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak III (Lokailuak)*. EGLU-III. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1999): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak-1)*. EGLU-V. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2011): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak VII (Perpaus jokatu-gabeak)*. EGLU-VII. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EVEN-ZOHAR, Itamar (1978): «The Position of Translated Literature Within the Literary Polysystem», in J. Holmes et al. (ed.), 117-127.
- (1979): «Polysystem Theory», *Poetics Today*, 1-2, 287-310.
- (1990): «Polysystem studies», *Poetics Today* 11:1. Durham: Duke University Press.
- FEDOROV, Andrei (1953): *Vvedeniye v teoriju perevoda (Introducción a la teoría de la traducción)*. Instituto de Literatura en lenguas extranjeras, Moscú.
- FERNÁNDEZ LEBORANS, M<sup>a</sup> Jesús (2003): *Los sintagmas del español. I. El sintagma nominal*. Madrid: Arco/Libros.
- FERNÁNDEZ SÁNCHEZ, Francesc (2004): *El folleto de cursos de idiomas para extranjeros: análisis contrastivo (alemán-español) por tipos de emisor y subtextos*. Doktore-tesia. Universitat Pompeu Fabra.
- FUCHS, Catherine & MILNER, Judith (1979): *A propos des relatives*. Paris: SELAF.
- GARCÍA GARCÍA, Serafina (1993): «Las fronteras de los pronombres relativos», *Verba* 20, 355-368 or.

- GARCÍA IZQUIERDO, Isabel (2000): *Análisis textual aplicado a la traducción*. Valencia: Tirant Lo Blanch.
- GARCÍA YEBRA, Agustín (1982): *Teoría y práctica de la traducción*. Madrid: Gredos.
- GARZIA GARMENDIA, Juan (1997): *Joskera lantegi*. Oñati: HAEE-IVAP.
- (2014): *Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako*. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- GILI GAYA, Samuel (1980[1943]): *Curso Superior de Sintaxis Española*. Barcelona: Biblograf.
- (1973): in *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*, Real Academia Española, Madrid: Espasa-Calpe.
- GIMÉNEZ RESANO, Gaudioso (1987): «Precisiones semánticas sobre las oraciones de relativo en español», in *Lingüística Española Actual IX*, 207-226.
- GODARD, Barbara (1990). «Theorizing Feminist Discourse/Translation», in Susan Bassnett & André Lefevere (arg.) 1990, 87-96.
- GOENAGA, Patxi (1980): *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.
- GRIJELMO, Alex (2006): *La gramática descomplicada*. Madrid: Taurus.
- GRUTMAN, Rainier (2007): «L'écrivain bilingue et ses publics: une perspective comparatiste», in A. Gasquet eta M. Suárez (arg.), *Écrivains multilingues et écritures métisses. L'hospitalité des langues*. Clermont Ferrand: Presses Universitaires Blaise Pascal, 31-50. orr
- (2009): «Self-translation», in Mona Baker & Gabriela Saldanha (arg.), *Routledge Encyclopedia of Translation Studies*, London, 257-60.
- HARTMANN, Reinhard (1980): *Contrastive Textology. Comparative Discourse Analysis in Applied Linguistics*. Heidelberg: Julius Groos Verlag.
- HENRY, Paul (1975): «Constructions relatives et articulations discursives», in *Langages*, Paris: Didier-Larousse, 81-98.
- HERNÁNDEZ ALONSO, César (1984): *Gramática funcional del español*. Madrid: Gredos.
- HERMANS, Theo (arg.) (1985): *The Manipulation of Literature: Studies in Literary Translation*. London/Sydney: Croom Helm.
- HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA - IVAP (2003): *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*. Donostia: Administrazioa Euskaraz, HAEE-IVAP.

- HIDALGO, Victor (2002): «-(e)n... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)», *Uztaro* 42, 17-83.
- (2003): «Zein... (eta Bait-) erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III)», *Fontes Linguae Vasconum* 92, 19-56.
- HOLMES, James S. (1972): «The Name and Nature of Translation Studies», *3rd International Congress of Applied Linguistics: Abstracts*, Kopenhage [berrargitaratua in Holmes, 1988]
- (1988): *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies*. Amsterdam: Rodopi.
- HOUSE, Juliane (1977a): *A Model for Translation Quality Assessment*. Tübinger Beiträge zur Linguistik, 88. Tübinga: Gunter Narr Verlag.
- (1977b): «A Model for Assessing Translation Quality», *Meta* 22, 2. lib., 103-109.
- HUALDE, José Ignacio & ORTIZ DE URBINA, Jon (2003): *A Grammar of Basque*. Berlin: Walter de Gruyter.
- IBARLUZEA SANTISTEBAN, Miren (2015): «The Translation *Habitus* of Contemporary Basque Writers», *Estudios de Traducción*, 5 lib., 59-75. orr.
- IGLESIAS SANTOS, Montserrat (1994): «El sistema literario: Teoría Empírica y Teoría de los Polisistemas», in *Avances en Teoría de la Literatura* (ed. de Darío Villanueva), Santiago de Compostela: Universidade de Santiago.
- JAKA, Aiora (2012): *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionaindiaren lanetan*. Bilbo: Euskaltzaindia, IKER-28
- «Euskaratik ingelesera, frantsesera, alemanera eta gaztelaniara itzultitako liburuen zerrenda (haur eta gazte literatura izan ezik)» [On line. Kontsulta data: 2015-12-03], Euskal Literaturaren Ataria, basqueliterature.com. [<http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/Euskaratik/euskaratikb>]
- JAKOBSON, Roman (1959): «On Linguistic Aspects of Translation», in R.A. Brower (ed.) *On Translation*, Cambridge: Harvard University Press, 232-39.
- JAMES, Carl (1980): *Contrastive Analysis*. London: Longman.
- KALTZAKORTA, Mitxel (1997): «Erdarazko erlatibo esplikatibo mota bat euskaratzen», *Uztaro* 22, 59-67.
- KAPLAN, Robert (1980): *On the scope of Applied Linguistics*, Rowley, Mass.: Newbury House.
- KLEIBER, Georges (1981): «Relatives spécifiantes et relatives non spécifiantes», in *Le Français Moderne*, 49<sup>e</sup> Année, n<sup>o</sup> 3, 216-233.
- (1987a): «Relatives restrictives / relatives appositives: dépassement(s) autorisé(s)», in Fuchs, Catherine (ed.) (1987), 41-61.

- (1987b): *Relatives restrictives et relatives appositives: une opposition «introuvable»?.* Tübingen: Niemeyer.
- KROH, Alexandra (2000): *L'aventure du bilinguisme.* Paris: L'harmattan.
- LADMIRAL, Jean-René (1979): *Traduire: théorèmes pour la traduction.* Paris: Payot.
- (2014): *Sourcier ou cibliste. Les profondeurs de la traduction.* Paris: Les belles lettres.
- LAFITTE, Pierre (1944): *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire).* Baiona: Le Livre.
- LAMBERT, José & GORP, Hendrik van (1985): «Towards Research Programmes : The Function of Translated Literature Within European Literature», in T. Hermans (ed), 183-197.
- LARDIZABAL, Francisco Ignacio (1856): *Gramática Vascongada.* Donostia: Imprenta Baroja.
- LAROSE, Robert (1989): *Théories contemporaines de la traduction.* Quebec: Presses de l'Université de Québec.
- LARRAMENDI, Manuel (1729): *El imposible vencido. Arte de la Lengua Vascongada.* Erabilitako edizioa, (1979). Donostia: Hordago.
- LAVIOSA, Sara (2002): *Corpus-based Translation Studies. Theory, Findings, Applications.* Amsterdam - New York: Rodopi.
- LEFEVERE, André (1977): *Translating Literature: The German Tradition.* Assen/Amsterdam: Van Gorcum.
- (1978): «Translation Studies: The Goal of the Discipline», in Holmes, Lambert & van den Broeck (arg.) (1978), 11-26.
- LE GOFFIC, Pierre (1979): «Propositions relatives, identification eta ambigüité, ou: Pour en finir avec les deux types de relatives», DRLAV, 21, 135-145.
- (1981): *Ambigüité linguistique et activité de langage,* Doktorego-Tesia, Université Paris VII.
- LÓPEZ GARCÍA, Ángel (1994): «Las expresiones de relativo», in *Gramática del español 1. La oración compuesta.* Madrid: Arco / Libros, 387-472.
- LÓPEZ GASENI, Manu (2000): *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak.* Bilbo: EHU.
- (2001): «Un caso de autotraducción: la(s) obra(s) de Bernardo Atxaga *Sara izeneko gizona / Un espía llamado Sara*». *Trasvases culturales 3: literatura, cine, traducción*, 261-268 orriak. Bilbo: EHU.



- (2005): *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- LÓPEZ GUIX, Juan Gabriel & MINETT WILKINSON, Jacqueline (1997): *Manual de traducción inglés/castellano. Teoría y práctica*. Barcelona: Gedisa.
- LUJÁN, Marta (1980): *Sintaxis y semántica del adjetivo*. Madrid: Cátedra.
- MANTEROLA AGIRREZABALAGA, Elizabete (2011): «La autotraducción en la literatura vasca», in Xosé M. Dasilva; Helena Tanqueiro (arg.), *Aproximaciones a la autotraducción*. Vigo: Ed. Académica del Hispanismo, 111-140.
- (2012): *Euskal literatura beste hizkuntzetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. Bilbao: EHU.
- (2014a): *Euskal literatura itzulia. Bernardo Atxagaren lanak erdaretan*. Bilbao: EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- (2014b): *La literatura vasca traducida*. Berna: Peter Lang.
- MARCOS MARÍN, Francisco (1980): *Curso de gramática española*. Madrid: Cincel.
- MARCOS, Francisco; SATORRE, Francisco Javier, VIEJO, M<sup>a</sup> Luisa (1998): *Gramática española*. Madrid: Síntesis.
- MARTÍNEZ, José Antonio (1989): *El pronombre, II: Numerales, Indefinidos y Relativos*. Madrid: Arco Libros.
- (1994a): *Cuestiones marginales de gramática española*. Madrid: Istmo.
- (1994b): *La oración compuesta y compleja*. Madrid: Arco Libros.
- MONTORIO, Bego (2007): «Euskal literatura gaztelaniaz. Itzulpena, autoitzulpena, bertsioak...». *Senez* 32, 69-80.
- MOUNIN, Georges (1963): *Problèmes théoriques de la traduction*. Paris: Gallimard.
- NEUBERT, Albrecht & SHREVE, Gregory (1992): *Translation as Text*. Kent/London: Kent State University Press.
- NEWMARK, Peter (1981): *Approaches to Translation*. Oxford: Pergamon.
- (1988): *A Textbook of Translation*. London/New York: Prentice Hall.
- NIDA, Eugene (1964): *Towards a Science of Translating, with Special Reference to Principles and Procedures Involved in Bible Translating*. Leiden: E.J. Brill.
- NIDA, Eugene & TABER, Charles R. (1969/82): *The Theory and Practice of Translation*. Leiden: Brill.

- NORD, Christiane (1991): *Text Analysis in Translation. Theory, Methodology and Didactic Application of a Model for Translation-Oriented Text-Analysis*. Amsterdam/Atlanta: Editions Rodopi.
- OJEA, Ana (1992): *Los sintagmas relativos en inglés y en español*. Oviedo: Universidad de Oviedo.
- OLAZIREGI; Mari Jose. «Beste hizkuntzetara itzultako euskal literatur lanak» [On line. Kontsulta data: 2016-01-13]. Euskal Literaturaren Ataria, basqueliterature.com. [http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/Euskaratik/euskaratikMJ.pdf]
- ORCAIZTEGUI, Patricio de  
 — 1901: «Interesante carta [al] Sr. D. Eusebio López [Mendibururen *Jesusen amore-nekeei dagozten otoitz gayak* lanaren berrinprimaketa dela eta]», Revista Bascongada *Euskal Erria* XLV, 477-486. [http://oaiproduct1.gipuzkoa.net/handle/10690/74402]
- 1906: *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro. Breves reglas que, por encargo de la Junta directiva de la asociación «Euskal-Esnalea» publica uno de sus miembros*. Tolosa: Imprenta E. López. [http://oaiproduct1.gipuzkoa.net/handle/10690/2/browse?type=title&sort\_by=1&order=ASC&rpp=20&etal=25&offset=1957]
- 1908: «El relativo en el euskera», *Euskal Esnalea*, (1. zkia.) 9-10, (2. zkia.) 20-22, (3) 36-38, (4) 51-53, 88-90, 123-125. [http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPPrensaHistoricaWEB/buscar.do?amicus=BBHT0000176957]
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste. (1997): *Basque et Français. Méthode abrégée de traduction*. Baigorri: Izpegi.
- OSUNA, Francisco (2005): *Las construcciones de relativo*. Córdoba: Universidad de Córdoba.
- OYARÇABAL, Beñat (1983): «Euskarazko erlatiboez oharño bat», in *Piarres Laffiteri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, IKER 2.
- (1985): *Les relatives en Basque*. Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.), Université de Paris.
- (1987): *Étude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Doktorego-Tesia, CNRS, Paris.
- PAGOLA, Inés (2005): *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 18.
- PARCERISAS, Francesc (2002): «Sobre la autotraducción», *Quimera: revista de literatura* 210, 13-14.

- PERRY, Menakhem (1981): «Thematic and Structural Shifts in Autotranslations by Bilingual Hebrew-Yiddish Writers», *Poetics Today*, 2: 4, 181-192.
- POPOVIČ, Anton (1970): «The concept 'Shift of Expression' in Translation Analysis», in J.S. Holmes et al (arg.), *II lib.*, 103-114.
- (1976): *Dictionary for the Analysis of Literary Translation*. Edmonton/Nitra: The University of Alberta.
- PORTO DAPENA, José Álvaro (1997): *Oraciones de relativo*. Madrid: Arco Libros, S.L. Cuadernos de Lengua Española.
- POZUELO YVANCOS, José María (2000): «Teoría del canon», in POZUELO YVANCOS, José María eta ARADRA SÁNCHEZ, Rosa María, *Teoría del canon y literatura española*. Madrid: Cátedra.
- PYM, Anthony (1992): *Translation and Text Transfer: An Essay on the Principles of Intercultural Communication*. New York: Peter Lang.
- RABADÁN, Rosa (1991): *Equivalencia y traducción. Problemática de la equivalencia translémica inglés-español*. León: Universidad de León, Secretariado de Publicaciones.
- RABADÁN, Rosa & FERNÁNDEZ POLO, Francisco Javier (1996): «Lingüística aplicada a la traducción», M. FERNÁNDEZ PÉREZ (arg.): *Avances en Lingüística Aplicada*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela, 105-145.
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (1973): *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*, Real Academia Española, Madrid: Espasa-Calpe.
- (2009): *Nueva gramática de la lengua española*. Madrid: Espasa.
- REISS, Katharina & VERMEER, Hans (1984): *Grundlegung einer allgemeinen Translationstheorie*. Tübingen: Max Niemeyer Verlag.
- SANCHO, Iker (2015): *Errusierazko perpaus erlatiboen euskaratzea. Hizkuntza-sistematik itzultzailearen estilora*. D.t. argitaragabea.
- SANTOS GARGALLO, Isabel (1993): *Análisis Contrastivo, Análisis de Errores e Interlingua en el marco de la Lingüística contrastiva*. Madrid: Síntesis.
- SANTOYO, Julio César (2005): «Autotraducciones: una perspectiva histórica», *Meta*, vol. 50, 3. zkia., 858-867.
- SECO, Rafael (1971[1930]), *Manual de gramática española*. Madrid: Aguilar.
- STEINER, George (1997): *Errata: An Examined Life*. London: Weinfeld & Nicolson.
- TANQUEIRO, Helena (1999): «Un traductor privilegiado: el autotraductor», *Quaderns, Revista de traducció*, 3. zkia., 19-27.

- TYMOCZKO, Maria (1999): *Translation in a Postcolonial Context , Early Irish Literature in English*. Manchester: St. Jerome Publishing.
- TOURY, Gideon (1980): *In Search of a Theory of Translation*. Tel Aviv: The Porter Institute of Poetics and Semiotics, Tel Aviv University.
- (1981): «Translated literature: system, norm, performance. Toward a TT-oriented approach to literary translation», *Poetics Today*, 2 zkia., 4. lib., 9-27.
- (1995): *Descriptive Translation Studies –and Beyond*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company, Benjamins Translation Library, 4. lib.
- VANDERSCHULDEN, Isabelle (1998): «Authority in literary translation. Collaborating with the author», *Translation Review* 56, 22-31.
- VÁZQUEZ-AYORA, Gerardo (1977): *Introducción a la traductología. Curso básico de traducción*. Washington: Georgetown University Press.
- VENUTI, Lawrence (1992): *Rethinking Translation: Discourse, Subjectivity, Ideology*. London/New York: Routledge.
- VILLASANTE, Luis (1976): *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñati: Ed. Franciscana Aránzazu.
- (1988): *Euskararen auziaz*. Lizarra: Eleizalde bilduma 9.
- VINAY, Jean Paul & DARBELNET, Jean (1958): *Stylistique comparée du français et de l'anglais. Méthode de traduction*. Paris: Didier. Montréal: Beauchemin.
- ZUBILLAGA, Naroa (2013): *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- ZUBIMENDI, Jose Ramon & ESNAL, Pello. (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

## 1. ERANSKINA

### Corpusa osatzeko erabilitako liburuak

- ATXAGA, Bernardo. *Zazpi etxe Frantzian* (2009), Iruñea: Pamiela / *Siete casas en Francia* (2009), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Asun Garikano eta B. Atxaga.
- CANO, Harkaitz. *Twist* (2011), Zarautz: Susa / *Twist* (2013), Barcelona: Seix Barral. Itzulpena: Gerardo Markuleta.
- ELORRIAGA, Unai. *SPrako tranbia* (2001), Donostia: Elkar / *Un tranvía en SP* (2003), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: U. Elorriaga.
- LERTXUNDI, Anjel. *Azkenaz beste* (1996), Irun: Alberdania / *Un final para Nora* (1999), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Jorge Giménez.
- ONAINDIA, Mario. *Gillen Garateako batxillerra* (1984), Donostia: Kutxa Fundazioa / *La tau y el caldero* (1985), Barcelona: Grijalbo. Itzulpena: Jon Juaristi.
- RODRIGUEZ, Eider. *Haragia* (2007), Zarautz: Susa / *Carne* (2008), Madrid: 451 Editores. Itzulpena: E. Rodríguez.
- SAIZARBITORIA, Ramon. *Hamaika pauso* (1995), Donostia: Erein / *Los pasos incontables* (1998), Madrid: Espasa-Calpe. Itzulpena: Jon Juaristi.
- URIBE, Kirmen. *Bilbao-New York-Bilbao* (2008), Donostia: Elkar / *Bilbao-New York-Bilbao* (2010), Barcelona: Seix-Barral. Itzulpena: Ana Arregi.
- URRETABIZKAIA, Arantxa. *Saturno* (1987), Donostia: Erein / *Saturno* (1989), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Maite González eta A. Urretabizkaia.
- ZALDUA, Iban. *Etorkizuna* (2005), Irun: Alberdania / *Porvenir. Diecisiete cuentos casi políticos* (2007), Madrid: Lengua de Trapo. Itzulpena: I. Zaldúa.

## 2. ERANSKINA

### Euskal Herritik kanpoko argitaletxe espainiarrek plazaratutako euskara-gaztelania itzulpenen katalogoa 1976-2014

- ALBERDI, Pedro.
  - *Kafka Bilbon* (2002), Irun: Alberdania / *Kafka en Bilbao* (2006), Madrid: Atenea. Itzulpena: P. Alberdi.
- ARRETXE, Jon.
  - *Zazpi kolore* (2000), Donostia: Elkarlanean / *Siete colores* (2004), Barcelona: RBA Libros. Itzulpena: José Luis Padrón.
- ARRIETA, Yolanda.
  - *Jostorratza eta haria* (1998), Donostia: Kutxa Fundazioa / *Aguja e hilo* (2005), Madrid: Atenea. Itzulpena: Y. Arrieta.
- ATXAGA, Bernardo.
  - *Bi anai* (1985), Donostia: Erein / *Dos hermanos* (1995), Madrid: Ollero & Ramos. Itzulpena: B. Atxaga.
  - *Zeru horiek* (1995), Donostia: Erein / *Esos cielos* (1996), Barcelona: Ediciones B. Itzulpena: B. Atxaga.
  - *Groenlandiako lezioa* (1998), Donostia: Erein / *Lista de locos y otros alfabetos* (1998), Madrid: Siruela. Itzulpena: B. Atxaga.
  - *Gizona bere bakardadean* (1993), Arre: Pamiela / *El hombre solo* (1999), Barcelona: Ediciones B. Itzulpena: Arantxa Sabán eta B. Atxaga.
  - *Soinujolearen semea* (2003), Iruñea: Pamiela / *El hijo del acordeonista* (2004), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Asun Garikano eta B. Atxaga.
  - *Zazpi etxe Frantzian* (2009), Iruñea: Pamiela / *Siete casas en Francia* (2009), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Asun Garikano eta B. Atxaga.
  - *Nevadako egunak* (2013), Iruñea: Pamiela / *Días de Nevada* (2014), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Asun Garikano eta B. Atxaga.
- CANO, Harkaitz.
  - *Beluna jazz* (1996), Zarautz: Susa / *Jazz y Alaska en la misma frase* (2004) Barcelona: Seix Barral. Itzulpena: H. Cano.

- *Norbait dabil sute-eskaileran* (2001), Zarautz: Susa / *Alguien anda en la escalera de incendios* (2008), Barcelona: Gaviero. Itzulpena: H. Cano.
- *Belarraren ahoa* (2004), Irun: Alberdania / *El filo de la hierba* (2007), Barcelona: Roca editorial. Itzulpena: H. Cano.
- *Twist* (2011), Zarautz: Susa / *Twist* (2013), Barcelona: Seix Barral. Itzulpena: Gerardo Markuleta.
- CILLERO, Javi.
  - *Agur Hollywood - Hollywood me mata* (2004), Madrid: Atenea. Itzulpena: Javi Cillero. Itzulpena: J. Cillero.
- ELORRIAGA, Unai.
  - *SPrako tranbia* (2001), Donostia: Elkar / *Un tranvía en SP* (2003), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: U. Elorriaga.
  - *Van't Hoffen ilea* (2003), Donostia: Elkar / *El pelo de Van't Hoff* (2004), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: U. Elorriaga.
  - *Vredaman* (2005), Donostia: Elkar / *Vredaman* (2006), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: U. Elorriaga.
  - *Londres kartoizkoa da* (2009), Donostia: Elkar / *Londres es de cartón* (2010), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: U. Elorriaga.
- EPALTZA, Aingeru.
  - *Tigre ehizan* (1996), Donostia: Elkar / *Cazadores de tigres*, (1999), Zaragoza: Xordica. Itzulpena: A. Epaltza.
- ETXEBERRIA, Hasier.
  - *Inesaren balada* (2002), Donostia: Elkar / *La balada de Inesa* (2007), Barcelona: La Galera. Itzulpena: José Luis Padrón.
- HERNANDEZ ABAITUA, Mikel.
  - *Bazko arrautzak* (1995), Donostia: Elkar / *Huevos de Pascua*, (2006) Madrid: Atenea. Itzulpena: M. Hernández Abaitua.
- IRIGOIEN, Joan Mari.
  - *Babilonia* (1989), Donostia: Elkar / *Babilonia* (1998), Madrid: Acento editorial. Itzulpena: J. M. Irigoien.
- JUARISTI, Felipe.
  - *Arinago duk haizea, Absalon* (1990), Donostia: Erein / *Más leve es el viento, Absalón* (1992), Madrid: VOSA. Itzulpena: Genaro Gómez eta Manu López.
- LERTXUNDI, Anjel.

- **Otto Pette: hilean bizian bezala** (1994), Irun: Alberdania / **Las últimas sombras** (1996), Barcelona: Seix Barral. Itzulpena: Jorge Giménez.
- **Azkenaz beste** (1996), Irun: Alberdania / **Un final para Nora** (1999), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Jorge Giménez.
- **Argizariaren egunak** (1998), Irun: Alberdania / **Los días de la cera** (2001), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Jorge Giménez.
- MUGURUZA, Jabier.
  - **Laura kanpoan da** (1999), Donostia: Erein / **En ausencia de Laura** (2009), Madrid: Atenea. Itzulpena: Miren Ibarluzea.
- OLASAGARRE, Juanjo.
  - **Mandelaren Afrika** (1998), Zarautz: Susa / **El África de Mandela** (2000), Barcelona: Ediciones B. Itzulpena: Jon Alonso.
- ONAINDIA, Mario.
  - **Grand Placen aurkituko gara** (1983), Donostia: Luis Haranburu / **Grand Place** (1985), Madrid, Akal. Itzulpena: M. Onaindia.
  - **Gillen Garateako batxillerra** (1984), Donostia: Kutxa Fundazioa / **La tau y el caldero** (1985), Barcelona: Grijalbo. Itzulpena: Jon Juaristi.
- OSORO, Jasone.
  - **Korapiloak** (2001), Donostia: Elkar / **Desnudos** (2002), Barcelona: Seix-Barral. Itzulpena: J. Osoro
- RODRIGUEZ, Eider.
  - **Eta handik gutxira gaur** (2004), Zarautz: Susa / **Cuatro cicatrices** (2006), Madrid, Atenea. Itzulpena: E. Rodríguez.
  - **Haragia** (2007), Zarautz: Susa / **Carne** (2008), Madrid: 451 Editores. Itzulpena: E. Rodríguez.
  - **Katu jendea** (2010), Donostia: Elkar / **Un montón de gatos** (2012), Barcelona: Caballo de Troya. Itzulpena: Zigor Garro eta Eider Rodríguez.
- SAIZARBITORIA, Ramon.
  - **Ehun metro** (1976), Donostia: Kriselu / **Cien metros** (1979), Madrid: Nuestra Cultura. Itzulpena: Pilar Muñoa.
  - **Hamaika pauso** (1995), Donostia: Erein / **Los pasos incontables** (1998), Madrid: Espasa-Calpe. Itzulpena: Jon Juaristi.
  - **Bihotz bi. Gerrako kronikak** (1996), Donostia: Erein / **Amor y guerra** (1999), Madrid: Espasa-Calpe. Itzulpena: Bego Montorio.
  - **Gorde nazazu lurpean** (2000), Donostia: Erein / **Guárdame bajo tierra** (2002), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: F. Eguia Careaga.



- URIBE, Kirmen.
  - *Bilbao-New York-Bilbao* (2008), Donostia: Elkar / *Bilbao-New York-Bilbao* (2010), Barcelona: Seix-Barral. Itzulpena: Ana Arregi.
  - *Mussche* (2012), Zarautz: Susa / *Lo que mueve el mundo* (2013), Barcelona, Seix-Barral, 2013. Itzulpena. Gerardo Markuleta.
- URRETABIZKAIA, Arantxa.
  - *Zergatik panpox?* (1979), Donostia: Hordago / *¿Por qué, Panpox?* (1986), Barcelona: Ediciones de Mall. Itzulpena: A. Urretabizkaia.
  - *Saturno* (1987), Donostia: Erein / *Saturno* (1989), Madrid: Alfaguara. Itzulpena: Maite González eta A. Urretabizkaia.
- ZALDUA, Iban.
  - *Gezurrak, gezurrak, gezurrak* (2000), Donostia: Erein / *Mentiras, mentiras, mentiras* (2006), Madrid: Lengua de trapo. Itzulpena: I. Zaldúa.
  - *Etorkizuna* (2005), Irun: Alberdania / *Porvenir. Diecisiete cuentos casi políticos* (2007), Madrid: Lengua de Trapo. Itzulpena: I. Zaldúa.
  - *Euskaldun guztion aberria* (2008), Irun: Alberdania / *La patria de todos los vascos* (2009), Madrid: Lengua de trapo. Itzulpena: I. Zaldúa.

### 3. ERANSKINA

#### **2000-2014 bitartean argitaratutako narratibako gaztelania-euskara itzulpenak**

Espainiako ISBNtik ateratako datuak

**4. ERANSKINA****Binomioetako adibideen aurkibidea**

Adibideen orrialdeei buruzko erreferentzia 4. kapituluan dauden azpicorpus bakoitzaren azterketa hasierako fitxako argitalpenari dagozkio.

**C<sub>1</sub> azpicorpusa**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>		<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
1	214	223		21	158	165
2	102	109		22	213	222
3	112	119		23	33	34
4	152	158		24	186	194
5	27	28		25	205	213
6	98	104		26	131	139
7	232	241		27	23	23
8	225	234		28	40	41
9	67	71		29	101	108
10	93	99		30	145	152
11	199	208		31	244	253
12	14	12		32	161	168
13	25	25		33	215	224
14	55	58		34	111	117
15	113	120		35	28	29
16	128	135		36	129	136
17	205	213		37	157	164
18	210	220		38	217	226
19	211	220		39	116	122
20	223	231		40	116	123

**C<sub>2</sub> azpicorpusa**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>		<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
1	84	81		45	238	230
2	157	153		46	312	304
3	111	107		47	63	61
4	174	168		48	80	77
5	201	194		49	85	82

<b>6</b>	366	357		<b>50</b>	243	236
<b>7</b>	405	400		<b>51</b>	51	286
<b>8</b>	252	245		<b>52</b>	112	109
<b>9</b>	45	43		<b>53</b>	307	299
<b>10</b>	68	65		<b>54</b>	370	361
<b>11</b>	93	90		<b>55</b>	395	388
<b>12</b>	93	90		<b>56</b>	430	426
<b>13</b>	195	188		<b>57</b>	31	31
<b>14</b>	196	189		<b>58</b>	101	98
<b>15</b>	244	236		<b>59</b>	103	100
<b>16</b>	275	269		<b>60</b>	111	108
<b>17</b>	278	272		<b>61</b>	197	190
<b>18</b>	296	289		<b>62</b>	233	225
<b>19</b>	58	56		<b>63</b>	376	367
<b>20</b>	257	250		<b>64</b>	138	134
<b>21</b>	114	111		<b>65</b>	308	300
<b>22</b>	84	81		<b>66</b>	225	218
<b>23</b>	196	189		<b>67</b>	383	375
<b>24</b>	176	170		<b>68</b>	228	221
<b>25</b>	236	229		<b>69</b>	256	249
<b>26</b>	114	111		<b>70</b>	25	25
<b>27</b>	120	117		<b>71</b>	75	73
<b>28</b>	134	131		<b>72</b>	225	218
<b>29</b>	296	289		<b>73</b>	275	269
<b>30</b>	297	290		<b>74</b>	416	411
<b>31</b>	355	346		<b>75</b>	232	225
<b>32</b>	390	380		<b>76</b>	258	251
<b>33</b>	375	366		<b>77</b>	280	274
<b>34</b>	26	26		<b>78</b>	346	337
<b>35</b>	415	410		<b>79</b>	51	49
<b>36</b>	13	13		<b>80</b>	272	266
<b>37</b>	241	234		<b>81</b>	142	138
<b>38</b>	174	168		<b>82</b>	319	311
<b>39</b>	174	168		<b>83</b>	330	321
<b>40</b>	349	339		<b>84</b>	341	332
<b>41</b>	415	410		<b>85</b>	364	355
<b>42</b>	30	29		<b>86</b>	364	355
<b>43</b>	190	183		<b>87</b>	387	380
<b>44</b>	218	210		<b>88</b>	248	241

**C<sub>3</sub> azpicorpusa**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>	<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
<b>1</b>	14	12	<b>3</b>	21	22
<b>2</b>	18	16	<b>4</b>	33	31

**C<sub>4</sub> azpicorpusa**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>	<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
1	41	47	50	219	246
2	18	22	51	145	163
3	25	29	52	24	29
4	36	43	53	35	41
5	117	135	54	114	128
6	44	50	55	172	193
7	76	93	56	187	210
8	159	179	57	189	212
9	179	202	58	129	147
10	198	222	59	88	102
11	222	249	60	35	41
12	128	147	61	67	77
13	58	65	62	145	163
14	41	47	63	180	202
15	75	92	64	181	203
16	95	110	65	145	163
17	112	127	66	38	45
18	147	165	67	44	50
19	168	189	68	74	91
20	179	201	69	136	154
21	193	217	70	154	173
22	213	239	71	207	233
23	215	242	72	79	83
24	103	117	73	36	43
25	30	37	74	174	196
26	99	114	75	42	48
27	138	156	76	175	197
28	124	141	77	192	215
29	166	187	78	54	60
30	44	50	79	208	234
31	151	169	80	141	159
32	114	129	81	67	77
33	20	25	82	189	212
34	40	47	83	66	76
35	177	198	84	93	108
36	180	202	85	125	143
37	181	203	86	129	147
38	35	41	87	153	172
39	42	48	88	129	148
40	70	81	89	181	203
41	71	88	90	202	228
42	81	83	91	181	203
43	103	118	92	207	232
44	127	145	93	166	186
45	177	198	94	181	203
46	177	198	95	22	26
47	178	200	96	176	197
48	207	233	97	164	184
49	214	241			

**C<sub>5</sub> azpicorpusa**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>	<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
1	20	18	22	149	140
2	63	60	23	114	108
3	115	109	24	129	122
4	126	119	25	155	145
5	133	126	26	17	16
6	20	19	27	77	73
7	105	100	28	128	121
8	105	100	29	141	133
9	106	101	30	30	30
10	108	103	31	38	37
11	51	49	32	52	50
12	143	135	33	52	50
13	123	116	34	65	62
14	131	124	35	96	92
15	51	49	36	126	119
16	78	74	37	138	130
17	167	158	38	156	146
18	156	146	39	47	46
19	20	19	40	115	109
20	71	68	41	131	124
21	131	124			

**C<sub>6</sub> azpicorpusa**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>	<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
1	63	64	8	38	40
2	76	77	9	79	80
3	80	81	10	128	131
4	83	84	11	33	35
5	140	144	12	47	48
6	66	67	13	118	121
7	16	17	14	10	11

**C<sub>7</sub> azpicorpusa**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>	<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
1	17	15	64	298	250
2	52	43	65	150	126
3	96	80	66	180	152
4	94	78	67	253	212

5	185	156		68	276	232
6	206	174		69	290	243
7	287	241		70	306	256
8	305	255		71	309	258
9	370	306		72	352	291
10	442	365		73	375	310
11	79	66		74	384	317
12	80	67		75	395	326
13	97	81		76	201	170
14	111	93		77	206	174
15	114	96		78	376	311
16	117	98		79	69	57
17	120	101		80	215	181
18	202	170		81	254	213
19	212	179		82	289	243
20	237	199		83	12	12
21	356	294		84	31	26
22	361	298		85	33	28
23	370	306		86	98	82
24	372	308		87	112	94
25	381	314		88	135	114
26	392	324		89	207	175
27	272	228		90	208	175
28	398	330		91	223	188
29	259	218		92	305	255
30	232	195		93	321	267
31	435	360		94	333	277
32	28	24		95	349	288
33	269	225		96	350	289
34	375	310		97	351	290
35	409	338		98	373	308
36	35	29		99	396	328
37	92	77		100	400	331
38	150	126		101	16	15
39	233	196		102	110	92
40	233	196		103	151	126
41	239	202		104	153	128
42	296	248		105	185	156
43	30	26		106	213	180
44	110	93		107	230	193
45	396	328		108	277	233
46	401	332		109	347	287
47	116	98		110	349	288
48	19	16		111	406	336
49	30	26		112	19	16
50	37	31		113	94	78
51	37	31		114	323	269
52	38	31		115	56	47
53	39	32		116	76	64
54	59	49		117	221	186
55	69	57		118	8	8
56	69	57		119	77	65
57	74	61		120	79	66
58	75	63		121	135	114

<b>59</b>	77	65		<b>122</b>	146	123
<b>60</b>	84	71		<b>123</b>	354	292
<b>61</b>	91	76		<b>124</b>	368	304
<b>62</b>	304	255		<b>125</b>	369	306
<b>63</b>	111	94		<b>126</b>	404	334

**C<sub>8</sub> azpicorpua**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>		<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
<b>1</b>	125	109		<b>15</b>	156	137
<b>2</b>	176	156		<b>16</b>	55	48
<b>3</b>	178	157		<b>17</b>	73	63
<b>4</b>	116	100		<b>18</b>	116	99
<b>5</b>	14	13		<b>19</b>	80	68
<b>6</b>	24	22		<b>20</b>	98	84
<b>7</b>	79	67		<b>21</b>	<sup>169</sup>	115
<b>8</b>	98	83		<b>22</b>	96	82
<b>9</b>	101	86		<b>23</b>	209	183
<b>10</b>	211	184		<b>24</b>	108	91
<b>11</b>	224	195		<b>25</b>	14	13
<b>12</b>	227	197		<b>26</b>	94	80
<b>13</b>	175	154		<b>27</b>	90	76
<b>14</b>	18	17		<b>28</b>	130	113

**C<sub>9</sub> azpicorpua**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>		<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>
<b>1</b>	14	17		<b>3</b>	105	112
<b>2</b>	45	49				

**C<sub>10</sub> azpicorpua**

<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>		<b>Binomioa</b>	<b>STko orria</b>	<b>XTko orria</b>

<sup>169</sup> Binomio honetako euskarazko testua argitaratu gabeko euskarazko bigarren bertsioan dago, ez, ordea, argitaratutako bertsioan.



<b>1</b>	43	60		<b>17</b>	22	33
<b>2</b>	66	89		<b>18</b>	23	34
<b>3</b>	92	99		<b>19</b>	11	17
<b>4</b>	114	172		<b>20</b>	19	27
<b>5</b>	11	17		<b>21</b>	53	70
<b>6</b>	27	38		<b>22</b>	77	103
<b>7</b>	29	39		<b>23</b>	36	47
<b>8</b>	30	41		<b>24</b>	79	105
<b>9</b>	35	45		<b>25</b>	79	105
<b>10</b>	81	108		<b>26</b>	115	173
<b>11</b>	85	111		<b>27</b>	118	176
<b>12</b>	33	44		<b>28</b>	26	37
<b>13</b>	20	28		<b>29</b>	36	47
<b>14</b>	31	42		<b>30</b>	44	61
<b>15</b>	58	81		<b>31</b>	79	105
<b>16</b>	91	98				